

KLASIKOAK, S.A. lukro-asmorik gabeko elkarateak argitaratu du obra hau, elkaratearen sustatzaile eta partaideak honako erakunde hauek izanik:

BBV Fundazioa

•

Bilbao Bizkaia Kutxa — BBK

•

Gipuzkoa Donostia Kutxa — KUTXA

•

Caja VITAL Kutxa

•

Euskal Herriko Unibertsitatea — UPV/EHU

•

Deustuko Unibertsitatea

GIZA ADIMENARI BURUZKO
ENTSEIUA II

J. LOCKE

Giza adimenari buruzko entseiua II



Jatorrizko izenburua:
An Essay Concerning Human Understanding
Euskaratzailea: Alberto Gabikagogeaskoa
Berrikuslea: Andoni Ibarra
Hitzaurregilea: Andoni Ibarra

Lehen argitalpena: 1998ko abenduan

© Itzulpenarena: Alberto Gabikagogeaskoa
© Klasikoak, 1998
Begoñako Andra Mari, 16 • 48006 Bilbo
Tel.: 94 • 416 14 89 / Fax: 94 • 416 63 48

Erabat debekaturik dago, Copyright-titularren idatzizko baimenik gabe, legeek ezarritako zigorraren pean, zatika edo osorik obra hau birsortzea edozein bitartekoz edo prozeduraz, erreprografia eta trataera informatikoa barne direla, baita beronen aleak alokapen edo mailegutza publikoaren bidez banatzea ere.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia 1998-XII-28

ISBN: 84-88303-42-4 (Obra osoarena)
ISBN: 84-88303-40-8 (Bigarren liburuaarena)
Lege gordailua: BI.-2878-98

Fotokonposaketa: ABA, O.E.
Begoñako Andra Mari, 10 • 48006 Bilbo

Inprimaketa: Gestingraf L. B. A.
Ibarsusi Bidea, 3 • 48004 Bilbo

Diseinua eta Maketa: A.I.C.
Infante Don Juan Etorbidea, 26 • 20008 Donostia

III. LIBURUA

Hitzez

HIRUGARREN LIBURUAREN LABURPENA

Bigarren Liburuan irakatsi ondoren giza gogamenak erdiets ditzakeen ideia bakarrak ideia bakunez edo fenomenoez, «sentipenean» eta «hausnarketan» substantzien atributu gisa agerturikoez osatuak direla, eta gure pentsamendurik gorenek ere fenomeno hauen moduekin, berauen agerleku diren substantziekin eta euren erlazioekin soilik dutela zerikusi, Locke, Hirugarren Liburuan, irakaspen hau osotzen du mota bakoitzeko ideien eta ideien euskarri diren hitzezko zeinuen artean dagoen lotura agerian jarritz, hitzak bitartekoak izanik gizakiek berez partikularrak diren ideiak orokor edo unibertsal gisa ikus ditzaten (III. kap.). Ideia bakunen eta euren modu bakunen izenek, modu mistoen eta erlazioen izenek, eta substantzi mota ezberdinen izenek zerbait berezia dute guztiek eta bakoitzak, ideien zeinu moduan ikusita (IV, V, VI kap.). Ideia bakunen eta substantzien ideien izen guztiek «existentzia erreala inplikatzan dute», baina ideia bakunen izen komunek izenek ordezkatzan dituzten koalitaten esentzia erreala eta, era berean, nominala ere adierazten dute, substantzien izen komunek, ordean, gizakiek substantzia bertan kokaturik uzteko erabilitako espeziearen esentzia nominala baino adierazi ezin duten artean. Modu mistoen izenek, gainera, eta erlazio ideia guztienek, gizakiek izenei erantsitako esentziak soilik adierazten dituzte. Modu mistoak, bestalde, gizakiek hautazkotasunez («arbitrarily») eratuak eta batzuetan oso konplexuak direnez, euren izenak anbiguotasunez erabiltzen dira, aise erabili ere, konplexutasun horren eraginez eta, halaber, eredu absoluturik ez dutelako. Substantzien izen komunak, euren arteko inportanteenak, guk koalitateguz dugun esperientzia mugatuak determinaturik daude eta, horregatik, guk izenei erantsitako konnotazioa bakarrik adieraz dezakete, eta ez denotaturiko substantzia partikularren esentzia erreala. Oro har, hitzak, berez, ideien zeinu inperfektuak dira (IX. kap.), bereziki modu mistoen ideienak eta batez ere substantzienak; eta hitzen berezko inperfekzio hau gizakiek, berauek erabiltzean errudun izanik, «nahita egindako huts eta axolagabeeriez» areagotzen da, berauetako batzuk xehetasunez azaltzen direlarik (X. kap.). Liburu hau hizkuntzaren berezko inperfekzioak eta gizakiek gehituak sorturiko «eragozpenetarako» bost «konponbide» azalduz amaitzen da.

I. KAPITULUA

Hitzez edo hizkuntzaz oro har

1. *Gizakiak soinu artikulatuak eratzeko gaitasuna dauka.*

Jainkoak gizakia kreatura gizartekoi sortu zuelarik, bere espezietatik bizitzeko desira iradoki eta horren beharrezko sentiarazi ez ezik, mintzatzeko gaitasuna ere eman zion, berau izan zedin gizarte honen tresna nagusi eta erkidezko lotura. Horregatik, gizakiak, naturaz, hitzak deritzen soinu artikulatuak eratzeko gai izateko taxuturik ditu bere organoak. Baina hau ez zen nahikoa hizkuntza sortzeko, zeren lorioi eta beste txori mota batzuei ere, soinu aski bereiziak artikulatzen irakats baitakieke, ez direlarik, haatik, inola ere hizkuntzaz baliatzeko gai.

2. *Hitzak ideien zeinu moduan erabiltzeko gai da gizakia.*

Soinu artikulatuez gain, beraz, beharrezko izan zen gizakia soinu horiek barne pentsamenduen adierazpen gisa erabiltzeko gai izatea, baita bere gogamenaren barruko ideien zeinu moduan ere, horretara besteei azaldu ahal izateko eta gizakien pentsamenduak gogamen batetik bestera eramanez ahal izateko.

3. *Soinu horiek zeinu orokor bihurtzeko gai da.*

Baina hori ez zen nahikoa hitzak behar bezain baliagarri bihurtzeko. Hizkuntzaren perfektiorako ez da nahikoa soinuak ideien zeinu izan ahal izatea, zeinu horiek gauza partikular ezberdinak ulertzeko moduan erabiltzerik ukan ezean, zeren, gauza partikular bakoitza

izendatzeko hitz ezberdin bat behar izanez gero, hitzen ugaltzeak oso nahasi bihurtu zigukeen euren erabilera. Eragozpen hau gainditzeko, *hitz orokorren* erabilerak osoagotu egin du hizkuntza, horrelako batek existentzia partikular asko adierazten baititu. Soinuen erabilera abantailatsu hau berauek adierazten dituzten ideien arteko aldeetatik soilik erdietsi zen, izen horiek orokor bilakatu zirelarik *ideia orokorrak* ordezkatzeko, eta *ideia* partikularrak erabiltzeko partikular moduan geratu ziren.

4. *Soinu horiek ideia positiboen absentsia adieraz dezaten lor-tzeko gai da gizakia.*

Ideiak ordezkatzeko dauden izenez gain, badira orobat gizakiek erabiltzen dituzten beste hitz batzuk, ideiarekin bat adierazteko barik, *ideia* bakun edo konposaturen baten edo *ideia* guztien gabezia edo ausentsia aditzera emateko erabiltzen direnak, hala nola *nihil* latinez, edo ingelesez *ignorance* (jakineza) edo *barrenness* (antzutasuna). Ukaziozko edo gabeziazko hitz hauei guztiei dagokienez, ezin da esan ez dagozkiela ideiei edo ez dituztela ideiak adierazten, hala balitz soinu erabat esanahi gabekoak lirakeelako; aitzitik, *ideia* positiboetik erlazioa dute, berauen absentsia adieraziz.

5. *Hitzak, azken batean, ideia sentigarriak adierazten dituzten beste hitz batzuetatik eratorriak dira.*

Gure nozio eta ezagutza ororen iturburura apur bat hurbiltzeko laguntza izan daiteke erreparatzea nolako menpekotasuna duten hitzek *ideia* sentigarri komunetik eta sentimenetik oso urrun dauden nozioak eta ekintzak ordezkatzeko erabiltzen diren hitzen jatorria *ideia* sentigarrietan dagoela eta handik adierazpen ilunagoetara aldatu eta gure sentimenen ezagutzaren barruan ez dauden ideiak ordezkatzeko erabiltzen direla. Horrela, honako hitz hauek: *irudikatu*, *atzeman*, *ulertu*, *atxiki*, *bururatu*, *ekinarazi*, *nazkatu*, *larridura*, *lasaitasuna*, etab., denak dira gauza sentigarrietatik hartuak eta pentsakera zehatz batzuei aplikatuak. *Espiritua*, lehen adieran, arnasa da, eta *aingerua*, mezulari. Eta dudarik ez dut ezen, haien iturburua ikertzerik bagenu, hizkuntza guztietan aurkituko genukeela gure sentimenen irispidean ez dauden gauzak ordezkatzeko izenen jatorria *ideia* sentigarrietan dagoela. Hortik abiatuta barrunda dezakegu zer nolako nozioak eta nondik eratorriak zituzten hizkuntza horiez lehenik mintzo zirenek, eta nolatan izadiak berak oharkabean iradoki zien gizakiei izen berauen bidez

euren ezagutza guztien iturburua eta printzipioa, zeren, beraien baitan sentitzen zuten edozein eragiketa edo sentiminetatik etorri gabeko edozein ideia besteei komunikatzeko, sentipen ideia eskuarki ezagunetatik harturiko hitzetara jo behar izan baitzuten, era horretan beste-ei errazago bururazteko beren baitan esperimentaturiko eragiketa horiek, kanpo agerpen sentigarririk sortu gabekoak; eta orduan, euren gomenaren barne eragiketak adierazteko izen ezagun eta adostuak eduki zituztenean, beraien beste ideia guztiak ezagutzera emateko behar zuten guztia jabe egin ziren, ideia horien oinarria ezin baitzen besterik izan, edo kanpo pertzepzio sentigarriak edo gogamenak euroi buruz buruturiko barne eragiketak baino. Izan ere, frogatu dugun moduan, ez daukagu beste ideiarik, jatorriz edo kanpoko objektuetatik etorritakoak edo geure baitan somatzen dugun izpirituaren barne jardunaren eraginez geure barruan sentitzen ditugunak baino.

6. Aztertuko diren gaien banaketa.

Baina hizkuntza irakaspenaren eta ezagutzaren zerbitzari denez hartuta, beronen erabilera eta indarra hobeto ulertzeko, egoki izanen da honako hauek aintzat hartzea:

Lehenik, izenak zeri aplikatzen zaizkion arartegabe hizkuntza -ren erabileran.

Bigarrenik, izen guztiak, izen propioak salbu, orokorrak izanik, gauza partikular hori edo bestea barik, gauzen espezie eta motak ordezkatzeko dituztenez, orain hurrengo hau ikusi beharko dugu, gauzen mota eta klaseak, edo latinezko hitzez esatea nahiago izanez gero, *gauzen Species eta Genera zer diren, zertan dautzan eta nola eratzen diren*. Hauek behar bezala zehaztu ondoren, beste hauek aurkitzeko egoera hobean izanen gara, alegia, hitzen erabilera zuzena, hizkuntzaren abantaila-akatsak eta hitzen adieran iluntasuna eta ziurgabetasuna ekiditeko erabili beharreko erremedioak, hori gabe ez baitago gauzen ezagutzari buruz argitasun edo ordena apur batekin diskurritzerik, ezagutzak, proposizio eskuarki unibertsalez ari delarik, susmatzen dena baino lotura handiagoa daukalako hitzekin.

Gogarpen horiek izanen ditugu aztergai, beraz, hurrengo kapituluetan.

II. KAPITULUA

Hitzen esanahiaz

1. *Hitzak zeinu sentigarriak dira, gizakiek elkarri ideiak komu - nikatzeko beharrezkoak.*

Gizakiak, askotariko pentsamenduak eta beste gizakiek berak bezala eurentatik probetxua eta atsegina hartzeko modukoak dituen arren, pentsamendu horiek bere bihotz barruan ditu, beste-entzat ezkutuan eta ikusezin, berenez agerian jartzerik ez dutelarik. Baina gizartearen erosotasuna eta aurreramendua pentsamenduen komunikaziorik gabe lortu ezin zitekeenez, beharrezko zen gizakiak kanpo zeinu sentigarriren batzuk aurkitzea euren bidez bere pentsamenduen osagai diren ideia ikusezinak besteei ezagutzera emateko. Xede hau betetzeko ezer ere ez egokiagorik, hala ugariak nola azkarra direlako, hain erraz eta barietate handiz era zitzakeen hots artikulatuak baino. Horrelaxe pentsa dezakegu heldu zela gizakia xede honetarako hain aproposak diren *hitzak* erabiltzera bere ideien zeinu gisa, ez hitz artikulatu batzuen eta zenbait ideiarene arteko lotura naturalagatik, zeren, hala balitz, gizakion artean hizkera bakarra izanen bailitzateke, hala nahi izandako ezarketa batengatik baizik, zeinen bidez halako hitza halako ideiarene ikur izatera iritsi den horretarako araurik gabe. Hitzek, beraz, ideien ikur sentigarriak izateko balio dute, eta ordezkatzan dituzten ideiak dira euren esanahi propioa eta arartegabekoa.

2. *Hitzak, arartegabeko esanahian, darabiltzanaren ideien zeinu sentigarriak dira.*

Gizakiek hitz horiek, behin beren pentsamenduak grabatu eta oroimenean errazago gordetzeko, behin beren ideiak, nolabait esatearren, kanpora atera eta besteen bistan jartzeko erabiltzen dituenek, hitzek, euren lehenengo eta arartegabeko esanahian, ez dute besterik ordezkatzeko, *eurak dara biltzanaren gogamenean dauden ideiak* baino, ustez irudikatzen dituzten gauzetatik trakeskien eta axolagabekien jasotako ideiak izanda ere. Gizaki bat beste bati mintzo zaionean, honek uler diezaion mintzo zaio; eta hizkeraren helburua, soinu horiek, ikur gisa, gizaki horren ideiak entzuleari aditzera eman ahal izatea da. Hitzak, beraz, mintzo denaren ideien ikurrak dira, eta, ikur gisa, inork ezin dizkie, arartegabe aplikatu hark barruan dituen ideiei beste ezeri, zeren, bestela jokatzeko, hitzak geure ideien ikur bihurtzea eta, hala ere, beste ideia batzuei aplikatzea litzateke eta; eta hau aldi berean ideien zeinu eta ez-zeinu egitea eta, horrela, inolako esanahirik gabe uztea litzateke. Hitzak nahitako («voluntary») zeinuak direnez, ezin daitezke izan erabiltzaileak ezagutzen ez dituen gauzei ezarritako nahitako zeinuak. Hau hitzak ezeren zeinu ez izatea, esanahigabeko soinu bihurtzea litzateke. Gizakiak ezin ditu bere hitzak gauzen koalitategen edo beste baten gogameneko ideien zeinu egin, berak horien ideia propiorik ez duen bitartean. Bere kabuzko ideien bat eduki artean, ezin du suposatu zenbait ideia beste gizaki baten ideiekin bat datozenik, ez eta haiek adierazteko ezein zeinu erabili ere, hau berak ezagutzen ez duen zerbaiten zeinuak erabiltzea litzatekeelako, hau da, egiatan ezeren zeinurik ez erabiltzea. Baina beste batzuen ideiak bere ideia propioen bidez irudikatzen dituenean, ideia horiei eman beharreko izenetan beste gizaki batzuekin ados datorrenean, orduan bere ideiei ematen die izena, berak dituen ideiei, eta ez ez ditueniei.

3. *Honen adibide batzuk.*

Hain beharrezko da hau hizkuntzaren erabileran, non jakintsuak eta ezjakinak, eskolatuak eta eskolagabeak mintzatzean hitzak era berean erabiltzen dituzten. Hitzek, gizaki bakoitzaren ahoan, norberak dituen eta hitz horiez adierazi nahi dituen ideiak ordezkatzeko dituzte. Umeak urrea deitzen entzuten duen metala dakusanean kolore hori distiratsuan baino erreparatzen ez duelarik, urre hitza kolore

horretaz duen ideiari soilik aplikatuko dio, eta ez beste ezeri; eta horregatik paumaren itsatsean dakusan kolore berorri, urre hitza egoztziko dio. Beste batek, urrea hobeto aztertu duenak, hori distiratsuari pisu handia gehitzen dio, eta urre soinuak, honek darabileanean, hori distiratsua eta substantzia astunaren ideia konplexua ordezkatzeko du. Koalitate horiei beste batek fundigarritasuna gehitzen dio eta honentzat urre hitzak gorputz hori distiratsu, fundigarri eta oso astuna esan nahi du. Beste batek xaflakortasuna eranstean dio. Hauetako bakoitzak urre hitz berbera erabiltzen du izen hori aplikatzen dion ideia adierazi nahi duenean; baina bistakoa da eurotako inork ezin diola bere ideiarri baino aplikatu eta ezin izaneren duela gogamenean ez duen ideia konplexuaren zeinu bihurtu.

4. *Hitzek maiz, sekretuan, lehenik beste gizaki batzuen gogamenean dauden ideiekin dute harremana.*

Baina hitzek, gizakiek darabiltzatenean, mintzatzailearen gogamenean dauden ideiak soilik adieraz ditzaketan arren, gizakiek beren pentsamenduetan beste gauza birekiko harreman sekretua ematen diete hitzei.

Lehenik, *euren hitzak solaskide dituzten beste gizakien adimenetan dauden ideien ikurrak ere badirela uste dute*, zeren, bestela, alferrik hitz eginen genuke eta ezin izanen genuke elkar ulertu. Izan ere, ideia bati guk soinu bat eta gure solaskideak beste bat aplikatuz gero, hizkuntza bitan jardunen genuke. Baina, egia esan, ez gara soberra saiatzeko geure gogamenean dugun ideia solaskideak duen bera den aztertzen, eta ez dugu zalantzarik egiten hitza hizkuntzaren adiera arruntean bururatzen eta erabiltzen dugula eta inguruko jende jakintsuak hitz berorri iratxikitzen diola ideia hura.

5. *Bigarrenik, gauzen errealitatearekin.*

Bigarrenik, gizakiok besteek pentsatzea nahi genukeenez gu, geure irudikapen hutsez barik, gauzez, diren bezala, mintzo garela, maiz uste dugu *hitzek gauzen errealitatea ere ordezkatzeko dutela*. Baina hau gehiago ere substantziekin eta euren izenekin erlazionaturik dagoelarik, aurrekoa agian ideia bakunekin eta moduekin dagoen bezala, hitzak aplikatzeko era bi horiei buruz modu mistoen eta substantzien izenak bereziki aztertzen ditugunean mintzatuko gara. Utziezadazue, hala ere, hemen esaten hitzak geure gogamenean ditugun

ideiak besterik ordezkatzuz erabiltzen ditugun guztian, modu gaiztoan erabiltzen ditugula eta haien esanahira iluntasuna eta nahasmendua ekartzen ditugula.

6. *Hitzek, erabiltzean, berehala sortarazten dituzte beren objektuen ideiak.*

Hitzei buruz, beste hauek ere aintzat hartu behar dira: Lehenik, hitzak gizakien ideien arartegabeko zeinuak eta, beraz, gizakiek beren iritziak komunikatzeko eta beren barruan dituzten pentsamendu eta irudikapenak elkarri adierazteko tresna direnez gero, erabiliaren erabiliaz soinuaren eta eurok ordezkatzeko dituzten ideien artean hain lotura handia sortzen da, non hitza entzun eta ia berehala pizten dituzten zenbait ideia, ideiek sortzeko gai diren objektuak sentimenei eragiten hantxe baleude bezala. Eta hau horrelaxe da begi-bistako koalitate sentigarrietan eta sarri aurkeztu ohi zaizkigun substantzietan.

7. *Hitzak sarri esanahirik gabe erabiltzen dira.*

Bigarrenik, hitzek zehazki eta arartegabe mintzatzaileak gogamenean dituen ideiak besterik adierazten ez dituzten arren, hala ere, sehaskatik erabili izan ohi ditugulako, zenbait hots artikulatu ezin hobeto ikasten ditugu, mihi gainera erraz etortzen zaizkigu eta edozein momentutan gogoratzeko oroimenean gordetzen ditugu; baina ez dugu hitz horiek behar bezala aztertzeke lana hartzen eta ez dugu euren esanahia zehazten eta, horregatik, sarri gertatzen da gizakiek, gauzak arretaz aztertzen saiatu arren, beren pentsamenduak gauzetan baino hitzetan gehiago jartzea. Eta, hitz asko ordezkatzeko dituzten ideiak baino lehenago ikasten baitira, batzuek, ez haurrek bakarrik, gizaki helduek ere baizik, laroek bezalaxe erabiltzen dituzte hitz batzuk, ikasi egin dituztelako eta euren soinueta ohitu direlako soilik. Baina hitzak baliagarri eta esanahidunak diren heinean, soinuaren eta ideien artean lotura iraunkorra dago, elkar ordezkatzeko dutela adieraziz; eta horrelaxe erabili ezean, esanahi gabeko hots hutsak baino ez dira.

8. *Hitzen esanahia, erabat hautazkoa («arbitrary») da, ez lotura natural baten ondorio.*

Hitzak, luzaro eta maiz erabiliz gero, esan dugun moduan, zenbait ideia pizten dituzte gizakiengan, hain iraunkorki eta erraz piztu ere, non gizakiek bien artean lotura naturala dagoela uste izatera

jotzen duten. Baina, hitzek gizakien ideia partikularrak soilik adierazten dituztela, hau erabat hautazkoa («arbitrary») den ezarketaren bidez gertatzen delarik, begi-bistakoa da gogoan izanez gero ideia horiek maiz ez dituztela besteeengan (hizkuntza bera darabiltenengan ere) pizten hitz horiek zeinu moduan adierazitzat ditugun ideiak. Eta gizaki orok dauka hitzak nahi dituen ideien ordain bihurtzeko askatasun kenezina, halakoa, non inork ez duen ahalmenik bestea, berak erabilitako hitz berak darabiltzanean, gogamenean berak dituen ideia berberak edukitzera behartzeko. Eta, horregatik, Augusto handiak ere, mundu osoa gobernatzeko ahalaren jabe izan arren, aitortu zuen bera ez zela gai latinezko hitz berri bat egiteko, hori beste hau esatea bezala da eta, alegia, ezin zuela hautazkotasun osoz («arbitrarily») ezarri zein ideiaren zeinu izan behar zuen soinu batek bere menpekoen ahoetan eta hizkuntza komunean. Egia da erabilera komunak, adostasun komunaren ondorioz, zenbait soinu zenbait ideiarekin lotzen dituela hizkuntza guztietan, eta honek mugatu egiten duela soinu horren esanahia halatan, non, inork ere, soinu hori ideia horri aplikatu ezean, ez duen propietatez hitz egiten; eta gehituko nuke ezen, gizaki baten hitzek mintzatzean hitz horiei ordezkarakten dizkien ideia berak pizten ez badituzte entzulearengan, ez duela ulertzeko moduan hitz egiten. Baina direnak direla gizaki batek hitzek eskuarki duten esanahitik edo hura mintzo zaion gizakiak egozten dien esanguratik diferentea den eran erabiltzeak dakartzan ondorioak, hau behintzat egia da, hots, hitz horien esanahia, darabiltzanari dagokionez, gogamenean dituen ideietara doitzen dela eta ezin direla beste ezeren zeinu izan.

III. KAPITULUA

Termino orokorre

1. *Hitzik gehienak termino orokorrak dira.*

Existitzen diren gauza guztiak partikularrak direnez, arrazoizko litzateke pentsatzea gauzei egokitu beharrekoak diren hitzak ere partikularrak —euren esanahian diot— izatea, baina honen zeharo kontrakoa egiaztatzen dugu. Hizkuntza osatzen duten hitzik gehien-gehienak termino orokorrak dira eta hau ez da utzikeriaren edo zoria-
ren ondorio, arrazoiarena eta premiarena baino.

2. *Gauza partikular bakoitzak bere izena edukitzea ezinezkoa da.*

Lehenik, ezinezko da gauza partikular bakoitzak bere izen berezi ezberdina edukitzea. Zeren hitzen esanahia eta erabilera gogamenak bere ideien eta berauen zeinu diren soinuen artean egiten duen loturaren menpe daudelarik, gauzei izenak jartzean beharrezko da gogamenak gauzen ideia bereiziak edukitzea eta, halaber, bakoitzari dagokion izen partikularra gogoratzea, izena ideia partikular horri egokituz. Baina aurkitzen ditugun gauza partikular guztien ideia ezberdinak eratu eta oroimenean atxikitzea giza ahalmenez haraindi dago. Gizakiak ikusten dituen hegazti eta animalia guztiek, bere sentimenetan eragina duten zuhaitz eta landare guztiek ezin izanzen luke-
te beren tokia aurkitu adimenik lekutsuenean ere. Beren armadako soldadu guztiak banan-banan izenez ezagutzen dituzten jeneralak oroimen miragarriko kasu moduan aipatzen direla gogan izanez gero,

erraz ulertuko dugu gizakiek sekula ez saiatu izana euren artaldeeta-ko ardi bakoitzari, ez eta euren buru gainean hegaz dabiltzan erroieta-ko bakoitzari izena jartzen, eta askoz gutxiago, ikusitako landare-orri bakoitzari edo hare-ale bakoitzari izen partikular bat ematen.

3. Hori posible balitz ere, alferrekoa litzateke.

Bigarrenik, hori egiterik balego ere, alferrekoa litzateke, ez lukeelako balioko hizkuntzaren xede nagusirako. Gizakiek alferrik pilatuko lituzkete pentsamenduak komunikatzeko balioko ez lieketen gauza partikularren izenak. Gizakiek esaten dutena aditzera emateko soilik ikasten dituzte izenak eta erabiltzen dituzte besteekin solasean; eta hau, mintza-organoez egiten dudana soinuak, erabileraz edo adostasunez, beste gizaki baten gogamenean soinu hori entzutean, nik ahoskatzean berorri lotzen diodan ideia pizten duenean bakarrik lortzen da. Hau ezin daiteke egin gauza partikularrei jarritako izenez, zeren, ideiak gogamenean nik neuk bakarrik badauzkat, haien izenak beste batentzat esanahidunak edo ulergarriak ez izatea gerta bailiteke, niretzat ezagunak diren oso gauza partikular horiek hark ezagutzen ez dituelako.

4. Izen partikular bakoitzari izen ezberdin bat ezartzea ez litza-teke egokia gure ezagupideak hedatzeko.

Hirugarrenik, baina hau ere egingarri dela jota (nik ezetz uste dut baina) gauza partikular bakoitzari izen ezberdin bat emateak ez luke asko hobetuko ezagutza, zeren hau, gauza partikularretan oinarritzen den arren, ikuspegi orokorrean hedatzen baita, hori ezin daitekeelarik lortu gauzak izen orokorren pean zenbait espezieetara murriztuz baino. Espezie hauek muga batzuen barruan sartzen dira orduan euren izenekin, eta ez dira txitean-pitean ugaltzen, gogamenak atxiki dezakeena edo erabiltzeko behar dena baino gehiago. Eta, horregatik, gizakiek izen orokorretan geratu dira gehienetan, baina ez behar duten guztian gauza partikularrak izen egokiez bereizi gabe gelditzeraino. Eta eurekin zerikusi handia duen giza espeziean ere norbanako konkretuak sarri aipatu beharra izaten dutelarik, izen propioez baliatzen dira horretarako, eta norbanako ezberdinek izen ezberdinak dituzte.

5. Zein gauzak duen izen propioa eta zergatik.

Pertsonen gain, herrialde, hiri, ibai, mendi eta horrelako beste zenbait leku berezi ere izen propioz izendatzen ditugu, eta hau ere

arrazoi beragatik da, esan nahi baita, gizakiek leku horiek sarri izendatu beharra eta, nolabait esateko, besteen begien aurrean jarri beharra izaten dutelako haiekin dituzten solasaldietan. Eta, zaldi konkretuak gizaki konkretuak bezain sarri aipatu behar bagenitu, ez dut zalantzarik egiten zaldien izen propioak gizakienak bezain usu aipatuko genituzkeela, eta Buzefalo Alexander bezain maiz erabilitako hitza litzatekeela. Eta horregatik ikusten dugu zaldiketarien artean zaldiek otseinek bezain usu dituztela izen propioak, izen horien bidez edonork ezagutu eta bereizi ahal izateko, gizaki horiek beren artean sarri aipatu behar izaten baitute zaldi konkretu hura edo bestea, begibistan ez dagoela.

6. Hitz orokorrak nola egiten diren.

Hurrengo, puntu honetan, hitz orokorrak nola egiten diren aztertu behar dugu. Izan ere, existitzen diren gauza guztiak partikularrak izanik, nola heltzen gara gu termino orokorrak edukitzera eta non topa genitzake termino horiek ordezkatzeko bide dituzten natura orokor horiek? Hitzak ideia orokorren zeinu egitean bihurtzen dira orokor, eta ideioi denbora eta lekuaren zirkunstantziak edo existentzia partikular honekin edo harekin lotzen dituzten beste ideiak kentzen zaizkienean bilakatzen dira orokor. Abstrakzio horren bidez banako bat baino gehiago irudikatzeko gai izatera heltzen dira, eta berauetako bakoitza, ideia abstraktu horrekiko adostasuna daukalako, mota horrexetakoa da.

7. Haurtzaroaz geroztik nola hedatzen ditugun geure ideia konplexuak.

Baina, hau era bereiziagoan deduzitzeko, ez da agian txarra izanen gure nozioak eta izenak euren sorreratik aztertzea eta zein maila pasaz eta zein urrats eginez eratzen eta hedatzen ditugun geure ideiak ikustea, lehen haurtzarotik hasita. Argi dago euren solaskideez haurrek osaturiko ideiak (adibidea euren gana mugatuz), pertsona horiek beroriek bezalaxe, partikularrak direla. Beren inudearen eta amaren ideiak ongi eraturik dituzte gogamenean eta ideioiok, pertsona horien irudiak bailiran, pertsona bi horiek bakarrik irudikatzen dituzte. Ideia horiei lehenbizi emandako izenak pertsona horiengana mugatzen dira, eta haurrak darabiltzan *inude* eta *ama* izenak pertsona bi horiei soilik dagozkie. Gero, denborarekin ezagutza handiagoak berenganatzean, jabetuko dira badirela beste hainbat izaki irudian edo

beste koalitate batzuetan euren aitaren eta amaren, edo ikusi ohi dituzten pertsonen antzeko direnak, eta orduan izaki horiek guztiak bilduko dituen ideia osatuko dute, eta ideia horri, besteek bezala, *gizaki* izena emanen diote, adibidez. Eta horrelaxe heltzen dira izen orokor bat eta ideia orokor bat edukitzera. Eta honetan ez dute ezer berririk egiten haxe baino: Peru, Jakobo, Mari edo Joneri buruz duten ideia konplexutik horietako bakoitzari bereziki dagokiona kendu eta guztiei dagokienari soilik eutsi.

8. *Eta gure ideia konplexuak gehiago hedatzeko, euren baitako propietate gehiago kanpoan uzten ditugu.*

Gizakiaren izen eta ideia orokorrera heltzeko erabiltzen dituzten bide beretatik aurrera jo eta izen eta nozio orokorragoak bereganatzen dituzte. Izan ere, oharturik haiek gizakiaz duten ideiatik diferenteak diren eta izen horren barruan sartzen ez diren zenbait gauzak gizaki izenarekin ados datozen zenbait koalitate dituztela, koalitate horiek bakarrik atxikiz eta ideia bakarrean bilduz, beste ideia bat, orokorroagoa, eratzen dute, eta honi izena emanez hedadura zabalagoko terminoa egiten dute. Eta ideia berri hau eransketa berri batez barik, lehen bezalaxe egiten da, hau da, gizaki izenak adierazitako irudia eta beste zenbait propietate kanpoan utziz eta bizia, sentimenak eta berezko higidura duen gorputza soilik atxikiz animalia izenaren barruan.

9. *Natura orokorrak ez dira beste ideia konplexuago batzuen ideia abstraktu eta partzialak besterik.*

Nik uste dut begi-bistakoa dela gizakiek lehenik horrelaxe eratu zituztela ideia orokorrak eta ideiontzako izenak, eta hain argi dago hau, non ez dugun beste frogarik behar, gure eta besteen adimenek ezagupiderako duten ohiko jokabidea kontuan hartzea baino. Eta *natura* edo *nozio orokorrak* ideia are orokorragoen ideia abstraktu, partzial eta lehenik existentzia partikularretatik harturiko horiez kanpoko zerbait direla uste duena galduta ibiiko da, nire ustez, ideioek non topa ez dakiela. Zeren, nahi duenak egin dezala gogoeta *gizakiaz* duen ideiarengatik inguruan eta gero esan diezadala ideia hori zertan den ezberdina *Peru* edo *Pauloz* duen ideiatik edo *zaldiaz* duen ideia zertan den diferentea *Buzefaloz* duenetik, banako bakoitzari dagozkion koalitate bereziak kanpoan utzi eta existentzia partikular ezberdinei dagozkien ideia konplexuak atxikitzean ez bada. *Gizaki* eta *zaldi* hitzek adierazten dituzten ideia konplexuak hartu eta bata bestetik ezberdintzen

dituzten ideiak soilik kanpoan utzi eta biei dagozkienak atxikiz, ideia konplexu ezberdin berri bat egiten da, eta beroni *animalia* izena emanaz, termino orokorragoa erdiesten da, gizakiarekin batera beste hainbat izaki hartzen dituen. Sentimenak eta berezko higidura *animalia* - *ren* ideiatik kanpo utzita geratzen den ideia konplexua, geratzen diren ideia bakunez osatua, hau da, gorputzaren, biziaren eta elikapenaren ideiez, orokorrago bilakatzen da eta *bizidun* termino zabalagoaz adierazten da. Eta berez hain begi-bistakoa den puntu honetaz luzaroagoan ez aritzeko, esanen dugu gogamenak bide beretik jotzen duela *gorputz*, *substantzia* eta, azken batean, *izaki*, *gauza* eta gure edozein ideia ordezkatzeko duten horrelako termino unibertsalatar. Amaitzeko, eskoletan horrenbesteko zalaparta harrotu duen eta eskoletatik kanpo, arrazoi osoz, arras gutxi hausnartua izan den genero eta espezieen inguruko misterio guztia izenak jartzen zaizkien *idea abstraktu* gehiago edo gutxiago hedatueta datza. Eta honetan guztian gauza bat da ziurra eta aldaezina, termino orokorroago bakoitzak azpian hartzen dituen ideien zati bat baino ez den ideia ordezkatzeko duela.

10. Definizioetarako ~~zergatik~~ *baliatzen* g *aren* ~~eskual~~ *arki* g *eneroez*.

Esandakotik argi ikus dezakegu hitzak definitzeko edo, berdin dena, beraien esanahia ezagutzera emateko zergatik baliatzen garen *generoaz* edo definitu nahi dugun hitza hartzen duen hitz orokor hurbilenaz. Hau ez da beharrezko delako gertatzen, baizik hitz orokor edo *genero* hurbilenak ordezkaturiko ideia bakun ezberdinak zehazteko lana aurrezteko, batzuetan, berriz, baita zehaztapen hori egin ezinaren latsa ere. Baina definizioetarako biderik laburrena *genus*arena eta *différentia*arena den arren (zilegi bekit logikakoak diren terminoak erabiltzea, latinezkoak diren arren, egokienak baitira ezagutarazi nahi diren nozioak adierazteko), hala ere zalantzatan jar daiteke hori ote den biderik onena. Ziur nago bakarra behintzat ez dela eta, beraz, baita erabat beharrezkoa ez dela ere. Zeren, definitzea ez denez besterik, definitzen den terminoak zein ideia ordezkatzeko duen beste bati hitzez ezagutaraztea baino, definituriko terminoan konbinaturik dauden ideia bakunak zerrendatuz egiten da ongien definizioa; eta zerrendatze horren ordez gizakiak termino orokor hurbilena erabiltzen ohitu badira, hau ez da gertatu beharrezko delako edo argitasun handiagoagatik, agudotasun eta erosotasunagatik baizik. Zeren nire ustez, *giza* - *ki* hitzak zein ideia ordezkatzeko duen jakin nahi duenari esanen bali-

tzaio gizakia substantzia solido hedatua, biziduna, sentimena, berezko higidura, eta arrazoitzeke ahalmena dituen delatua, ez dut dudarik egiten animalia arrazoiduna dela esanez definitzen denean bezain ongi ulertuko litzatekeela eta adierazten duen ideia kasu horretan bezain argiro bederen ezagutaraziko litzatekeela, arrazoidun animalia, izan ere, *animaliaren*, *bizidunaren* eta *gorputzaren* definizio ezberdinen bidez zerrendatu ditugun ideietara biltzen baita. *Gizaki* terminoa azaltzean, eskolen ohiko definizioari jarraitu diot, agian doiena ez izan arren, nire oraingo xederako egokiena delako. Eta adibide honetan edonork ikus lezake zerk eragin zuen definizioa *genus* eta *differentia* datzala dioen araua, eta aski da guri erakusteko arau horren beharri-zana urria dela eta berau hertsiki betetzeak abantaila eskasa dakarrela. Zeren, esan den bezala, definizioa hitz bat beste hitz batzuek azaltzea besterik ez denez gero, hitz horrek ordezkatu nahi duen ideia ziurtasunez ezagutu ahal izateko, hizkuntzak ez dira beti logikaren arauen arabera eratuak halako moldez, non hitz bakoitzaren esanahia beste bi hitzek adieraz dezaketen zehatz eta argi. Esperientziak kontrakoa erakusten digu, edo bestela araugileek akats bat egin dute: arau horrekin bat datozen hain adibide gutxi eskaintzea. Baina definizioei hurrengo kapituluan ekinen diegu.

11. *Orokorra eta unibertsala adimenaren sorkari dira eta ez daude gauzen existentzia errealearen barne.*

Hitz orokorretara berriz etorrira, esandakotik argi dago *orokorra* eta *unibertsala* ez daudela gauzen existentzia errealearen barne, adimenaren asmakizun eta sorkari baitira, berak erabiltzeko eginak eta zeinuekin soilik, direla hitzak direla ideiak, zerikusia dutenak. Hitzak, esan den moduan, orokorrak dira ideia orokorren zeinu bezala erabiltzen direnean eta, horretara, gauza partikular askori era berean aplikatzen dakizkienean; eta ideiak orokorrak dira, gauza partikular askoren ordezkari izateko eratuak direnean. Baina unibertsaltasuna ez dagokie gauzei euren, euren existentzian partikularrak baitira guzti-guztiak, euren esanahian orokorrak diren hitzak eta ideiak ere barne. Horregatik partikularrak aparte utziz gero, geratzen diren orokorrak geuk egindako sorkariak dira, euren natura orokorra ez delarik besterik, adimenak euren jarritako partikular asko adierazteko edo iruditatzeko gaitasuna baino. Duten esanahia, izan ere, gizakiaren gogamenak eransten dien erlazio bat besterik ez da.

12. *Idea abstraktuak dira generoen eta espezieen esentziak.*

Hurrengo, beraz, hitz orokorrek zer esan nahi duten ikusi behar dugu. Izan ere, argi dago ez dituztela gauza partikular hutsak adierazten, zeren bestela ez lirateke termino orokorrak, izen propioak baizik; eta, bestalde, era berean argi dago ez dutela pluraltasuna adierazten, zeren bestela *gizakia* hitzak eta *gizakiak* hitzak gauza bera adieraziko bailukete, eta numeroa (gramatikariek deitzen dioten moduan) premiagabekoa eta alferrikakoa litzateke. Hitz orokorrek, orduan, gauza *motak* adierazten dituzte, eta beraietako bakoitzak gure gogameneko ideia abstraktu baten zeinu izanik egiten du hori, eta existitzen diren gauzak ideia horrekin ados datozela egiaztatzen den heinean, hitz horren barruan sailkatzen dira, edo gauza bera dena, mota horretakoa dira. Honek argi uzten du moten esentziak edo, latinezko hitza gogokoago izanez gero, gauzen *espezieak* ideia abstraktuak baino ez direla. Zeren espezie jakin baten esentzia edukitzeak egiten duenez gauza bat espezie horretakoa izatea, eta ideari eransten zaion izena ideia horrekin ados etortzeak ematen diolarik izenari ideia hori izendatzeko eskubidea, esentzia edukitzea eta adostasun hori edukitzea gauza bera dira ezinbestez, espezie jakin batekoa izatea eta espezie horren izenerako eskubidea edukitzea gauza bera direlako. Horrela, adibidez, *gizaki* edo giza *espezieko* izatea eta *gizaki* izenerako eskubidea edukitzea gauza bera dira. Berdin, *gizaki* edo giza *espezieko* izatea eta *gizakiaren esentzia* edukitzea gauza bera dira. Orain, *gizaki* edo *gizaki* izenerako eskubidearen jabe ezer ere izan ezin denez, *gizaki* izenak ordezkatzeko duen ideiarekin ados datorrena baino eta, izan ere, *gizaki* edo giza *espezierako* eskubidearen jabe ezer ez denez, espezie horren esentzia duena baino, hemendik ateratzen da izenak ordezkatzeko duen ideia abstraktua eta espeziearen esentzia gauza bat bera direla. Hemendik, berriz, aise ikusten da gauza moten esentzia eta, beraz, gauzak espezieetan sailkatzea, ideia orokor horiek abstrai-tu eta eratzen dituen adimenaren sorkari dela.

13. *Espezieak adimenaren sorkari dira, baina gauzen antzekotasunean oinarrituta daude.*

Ez nuke nahi inork pentsatzerik nik ahortzi edo are gutxiago ukatu egiten dudala naturak gauzak sortzen dituen hainbat antzeko gauza egiten dituela. Izan ere, ezer ez da antzekotasun hori baino arruntago, animalia arrazetan eta haziz ugaltzen diren gauzetan. Baina,

hala ere, uste dut esan genezakeela *gauza horien sailkapena espezie-etan adimenaren lana dela, gauzen artean ikusten duen antzekotasunean oinarritzen delarik ideia orokor abstraktuak eratzeko* eta gogamenean ezartzeko ideion eredu edo forma bezala (*forma* hitzak, zentzu honetan, ukan ere esanahi oso propioa baitauka) izenak jarrita halatan, non, existitzen diren gauza partikularrak eredu honekin edo harekin ados datozen heinean, espezie horretako diren, izen hori dararmaten edo *klase* horren barruan sailkatzen diren. Zeren esaten dugunean: hau gizakia da, hura zaldia, hau justizia, hura krudeltasuna, hau erlojua, hura zahagia, zer besterik egiten dugu, gauzak izen espezi-fiko ezberdinetan sailkatu baino, euren zeinu moduan izenak jarri dizkiegun ideia abstraktu horiekin ados datozen neurrian? Eta zer dira, bada, zenbait izenez bereizi eta izendaturiko espezie horien esentziak, gogameneko ideia abstraktuak besterik, existitzen diren gauza partikularren eta euron sailkagune diren izenen arteko lokarriak-edo direnak? Eta izen orokorrak izaki partikularrekin loturarik duenean, ideia abstraktuak dira bi horiek elkartzen dituzten bitartekoak, halatan, non guk bereizi eta izendatzen ditugun espezieen esentziak ez baitira eta ezin izan baitaitezke geure adimenean ditugun ideia abstraktu zehatzak besterik. Eta, horregatik, substantzien esentzia errealak bide direnak, gure ideia abstraktuetatik diferenteak badira, ezin izan daitezke gauzen sailkagune moduan *guk* erabiltzen ditugun espezieen esentziak. Zeren bi espezie bakar bat izan daitezke, bi esentzia ezberdin espezie bakar baten esentzia izan daitezkeen bezala eta arrazoizko oinarri beraz; eta nik galdetzen dut zein diren *zaldi* batean edo *berunean* egin daitezkeen edo egin ez daitezkeen aldaketak, bata zein beste beste espezie batekoa izatera eraman gabe. Gauzen espezieak *gure* ideia abstraktuez zehazten baditugu, auzi honek konponbide erraza du, baina esentzia ustez *errealetara* mugatu nahi dena galduta ibiliko dela deritzot, eta ezin izanen duela inoiz jakin noiz uzten dion zehazki zerbaitek *zaldi* edo *berunaren* espeziekoa izateari.

14. *Idea abstraktu bereizi bakoitza esentzia ezberdina da.*

Inork ere ez du ezustekorik hartuko niri entzutean esentziak edo ideia abstraktuak (izenaren neurri eta espeziearen muga direnak) adimenaren sorkari direla, gogoan hartuz gero ideia konplexuak bederen, gizaki ezberdinengan, ideia bakunen bilduma ezberdinak direla sarritan, eta horretara norbaitentzat *zenkeria* dena beste norbaiten-

tzat ez izatea gertatzen da. Gainera, gauzetatik eurentatik harturiko ideia abstraktuak dituztela diruditen substantzietan eurentan ere, ideia horiek ez dira beti berberak, ez eta hurbilen zaigun eta barru-barrutik ezagutzen dugun espeziean ere; izan ere, behin baino sarriago jarri izan da zalantzatan andre batengandik jaiotako *fetoagizakia* ote zen, hura elikatu eta bataiatu behar ote zen ala ez eztabaidatzeraino; ez zatekeen hau gertatuko gizakiaren izenari dagokion ideia abstraktua edo esentzia naturaren ekoizpena balitz, eta ez ideia bakunen bilduma anitza eta zalantza gabekoa, zeina adimenak biltzen eta izena ezartzen dion, abstrakzio bidez orokor egin ondoren. Hartaz, abstrakzio bidez eraturako ideia bereizi bakoitza esentzia ezberdina da funtsean, eta ideia bereizi horien ordain diren izenak gauza funtsean ezberdinen izenak dira. Horretara, zirkulua funtsean da obalotik ezberdina, ardia akerragandik ezberdina den bezainbatean izan ere; eta euria elurretik funtsean da ezberdina, ura lurretik ezberdina den bezalaxe, ezinezko baita izaki baten esentzia den ideia abstraktua besteari komunikatzea. Eta horrela nolanahiko bi ideia abstraktu bata bestetik zerbaitetan diferenteak direnek eta bi izen ezberdin dituztenek bi mota ezberdin osatzen dituzte, edo nahiago baduzue, bi *espezie* diferente, funtsean ezberdinak direnak munduko urrunduenen edo kontrakoenen pare.

15. *Esentzia hitzaren zenbait esanahi.*

Baina zenbaitzuek uste dutenez, eta ez arrazoirik gabe, gauzen esentzia zeharo ezezagun dugula, ez dateke alferreko *esentzia* hitzak dituen esanahi ezberdinak ikustea.

Esentzia errealak.

Lehenik, esentzia zerbaiten izatea bera da, zerbait hori den huraxe izatea egiten duena. Eta, horrela, eskuarki (substantzietan) ezezaguna den eta gauzen koallitate ezagugarriak bere menpe dituen gauzen barne osaera errealari esentzia dei dakioke. Horixe da hitzaren jatorrizko esanahi zehatza, bere osaketak argi erakusten duen moduan; *essentia*-k, bere lehen denotazioan, izatea esan nahi baitu zehazki. Eta zentzu honexetan erabiltzen da gauza *partikularren* esentziaz izenik eman gabe mintzo garenean.

Esentzia nominalak.

Bigarrenik, eskoletako ikasketak eta eztabaidak askoz gehiago izan direlarik *genero* eta *espezieen* inguruan, *esentzia* hitzak ia galdu

egin du bere lehen esanahia eta, gauzen osaera errealarari barik, genero eta espeziearen osaera artifizialari aplikatu zaio ea erabat. Ontzat eman ohi da, egia da, gauza bakoitzaren osaera erreala eta, ezbairik gabe, existitu egin behar du, beraren menpe egon daitezen gauza horretan biltzen diren ideia bakunen edo koalitategen multzo bakoitza. Baina nabarmena delarik gauzak ez daudela motatan edo espezieetan sailkatuta zenbait izenen arabera, guk horrela izendatu ditugun zenbait ideia abstrakturi dagozkien neurrian genero edo espezie bakoitzaren esentzia izen orokor edo espezifikoak ordezkaturiko ideia abstraktua baino ez da, eta beti aurkituko dugu esentzia hitzak, arrunki erabili ohi denez, horixe daukala bere baitan. Ez legoke gaizki, nire iritziz, bi esentzia mota hauek bi deitura ezberdinez izendatzea: lehenari *esentzia erreala* deituko genioke eta besteari *esentzia nominala*.

16. *Izenaren eta esentzia nominalaren artean lotura ir* *aunko - rra dago*

Esentzia nominalaren eta izenaren artean hain lotura hertsia dago, non gauzen edozein espezieren izena esentzia hori duten izakiei baino ezin dakiekeen egotzi, hau da, izenak zeinu moduan adierazten duen ideia abstraktuari erantzuten dizkienei baino ez.

17. *Espezieak beren esentzia errealek bereizten dituztelako ustea ez da baliagarria.*

Gorpuzdun substantzien (berauek bakarrik aipatzearen) *esentzia errealei* dagokienez, bi iritzi daude, oker ez banago. Iritzi batekoak honako hau uste dute, alegia, esentzia hitzak zer esan nahi duen jakin gabe erabiliz, horietako zenbait esentzia dagoela eta gauzak esentzia horien arabera eginak eta eurretan partaide direla, horrela espezie bateko edo besteko bihurtzen direlarik. Beste iritzikoek aburu arrazionalagoz uste dute gauza natural guztiek beren atal sentigaitzen osaera erreala baino ezezaguna daukatela eta ataloi koalitategen sentigaitzak darizkiela, deitura komunez gauzak motetan sailkatzeko dugin arrazoiaren arabera, bata bestetik bereizteko balio dutenak. Lehenengo iritziak, esentziak gauza natural guztiak moldeatu eta era berean partaide izateko gune diren zenbait forma edo moldetza hartzen dituenak, asko nahasi du nire ustez gauza naturalen ezagutza. Animalia espezie guztietan munstroak eta gizakien artean ergelak eta beste sorkari harigarri batzuk jaiotzeak zailtasun handiak dakartza, hipotesi honetan gaindiezinak diruditenak, zeren hain ezinezko baita esentzia erreal berean neurri ber-

berean parte hartzen duten bi gauzak propietate ezberdinak edukitzea, nola den zirkuluaren esentzia berean neurri berberean parte hartzen duten bi irudik propietate ezberdinak edukitzea. Baina honen kontra beste arrazoirik ez balego ere, ezagutu ezin ditugun esentziak suposatzea eta beroriek, hala ere, gauzen espezieak bereizten dituzten elementu egitea hain da alferrekoa eta emendiorik gabekoa gure adimenaren arlo ezberdin guztietarako, non horixe bakarrik ere nahikoa izan behar genukeen iritzi hori ezesteko eta burura ditzakegun gauzen moten edo espezieen esentziekin konformatzeko; eta hauek, artaz aztertuz gero konturatuko garen moduan, izen orokor ezberdinak ezarri dizkiegun ideia konplexu *abstraktuak* besterik ez dira, esan dugun bezala.

18. *Esentzia erreala eta nominala gauza bera dira ideia bakanetan eta moduetan, eta ezberdinak substantzietan.*

Esentziak horrela nominal eta errealetan bereizi ondoren, ikus genezake, horrez gain, ideia bakunen eta moduen espezieetan esentziak gauza bera direla beti, substantzietan, ordea, gauza erabat ezberdina diren artean. Horretara, espazioa hiru lerroz mugatzen duen irudia triangelu baten esentzia hala erreala nola nominala da, izen orokorra dagokion ideia abstraktua ez ezik, gauzaren esentzia edo izatea bera ere bai baita, hau da, propietate guztien sorburu eta bilgune aska gaitz den benetako funtsa. Baina guztiz bestela gertatzen da nire atzamarreko eratzunaren materi zatiarekin, hemen esentzia bi horiek nabariki ezberdinak baitira. Izan ere, honen atal sentigaitzen osaera erreala, zeinari atxikita dauden beronetan aurkitzen ditugun kolorea, pisua, fundigarritasuna, finkotasuna, etab., ezezaguna zaigu, eta haren ideia partikularrik ezean ez daukagu haren zeinu litzatekeen izenik ere. Hala ere, haren kolorea, pisua, fundigarritasuna, finkotasuna, etab., dira hura urrea izatea egiten dutenak edo izen horretarako eskubidea ematen diotenak, eta, beraz, haren esentzia nominala dira. Izan ere, urre izena dagokion ideia konplexu abstraktuarekin bere koalitateetan ados ez datorren ezeri ezin dakioke urrea deitu. Baina esentzien ezberdintasun hau substantziei dagokien kontua denez gero, haien izenak aztertzen ditugunean ukanen dugu gai hau zabalago tratatzeko parada.

19. *Esentziak erne-ezinak eta ustelezinak dira.*

Mintzagai erabili ditugun izendun ideia abstraktu horiek esentziak direla are argiago ager daiteke esentziei buruz esaten zaiguna ain-

tzat hartuta, alegia, erne-ezinak eta ustelezinak direla. Eta hau ez da egia gauzen osaera errelei buruz, hauek gauzekin batera erne eta deusezten baitira. Existitzen diren gauza guztiak, euren Egilea salbu, aldagarriak dira, batez ere guk ezagutzen ditugunak eta mordoetan banatu ditugunak izen edo ikur ezberdinen pean. Gaur belarra dena ardi baten haragi da bihar, eta egun batzuk geroago gizaki baten zati bihurtzen da; eta aldaketa hauetan eta antzekoetan bistakoa da euron aldaketa, hau da, gauza horien propietateen euskarri den osaera, suntsitu eta deuseztu egiten dela eurekin batera. Baina esentziak gogamenean finkaturiko izenez hornituriko ideiatzat hartzen direnez, gauza bera izaten dirautela uste da, substantzia partikularrek aldaketak jasan arren. Izan ere, *Alexanderri* edo *Buzefalori* edozer gertaturik ere, horiei erantsitako *gizonaren* eta *zaldiaren* ideiek gauza bera izaten dirautela uste da; eta horrela espezie horien esentziak oso eta suntsigabe dirau, espezie horretako banako bati edo guztiei gerta lekiokkeen edozein aldaketa gertatuta ere. Era horretan, espeziearen esentzia salbu eta osorik gertatzen da, espezie horretako banako batik ere ez existitu arren. Izan ere, munduan inon zirkulu batik ere ez balitz, (eta beharbada irudi hori zehatz-mehatz markaturik existitu ere ez da existitzen), orduan ere izen horri erantsitako ideiak ez lioke utziko orain dena izateari, eredu izateari ere utziko ez liokeen moduan, hau da, guk aurkitzen ditugun gauzen artean zirkulu *izenerako* eskubidea zeinek duen eta zeinek ez duen eta, beraz, esentzia hori edukirik espezie horretakoa zein den erabakitzeko eredu izateari. Eta naturan *adarakarra* bezalako animaliarik ez *sirena* bezalako arrainik ez den arren eta sekula ere izan ez den arren, hala ere, izen hauek euren baitan bateraezintasunik ez duten ideia konplexu abstraktuen ordain direla suposatuz, sirenaren esentzia giza-kiarena bezain ulergarria da, eta adarakarraren ideia zaldiarena bezain ziurra, egonkorra eta iraunkorra da. Esandakoaz argi geratzen da esentzien aldaezintasunaren doktrinak ongi frogatzen duela esentziak ideia abstraktuak direla, eta doktrina hori esentzien eta berauen zenbait soinu edo zeinuren arteko erlazioan oinarritzen dela eta egiazkoa izanen dela izen berak esanahi bera eduki dezakeen heinean.

20. *Laburbilpena.*

Amaitzeko, hona hemen, laburtuta, esan nahi dudana. Genero eta espezieen eta berauen *esentzien* auzi handi hau honexetara mugatzen da: gizakiek ideia abstraktuak egin eta euren gogamenetan izenak

ezarrita finkatuz, gauzak txortetan baleude bezala kontsideratzeko eta euri buruz diskurritzeko eta, horrela, euren ezagupenak errazago eta azkarrago hobetzeko eta komunikatzeko gai egiten dira, aurreramentu eskasa ukanen bailukete, baldin euren hitz eta pentsamenduak partikularretara soilik mugatuko balituzte.

IV. KAPITULUA

Idea bakunen izenez

1. *Idea bakunen, moduen eta substantzien izenek zerbait berezia dute.*

Hitz orok, azaldu dudan moduan, arartegabe mintzatzaileak gogamenean dituen ideiak besterik adierazten ez dituen arren, hala ere azterketa artatsuagoa egin ondoren aurkituko dugu *idea bakunen*, *modu mistoen* (hauetan *erlazioak* ere sartzen ditut) eta substantzia naturalen izenek berezia eta besteetatik diferentea den zerbait dutela. Adibidez:

2. *Lehenik, idea bakunen eta substantzien izenek existentzia erreala inplikatzeko dute.*

Idea bakunen eta *substantzien* izenek, arartegabe adierazten dituzten gogameneko ideia abstraktuekin batera, haien jatorrizko eredu ateratzeko balio izan digun existentzia erreala ere inplikatzeko dute. Baina *modu mistoen* izenak gogamenean dagoen ideian amaitzen dira eta ez dute harago eramaten pentsamendua, hurrengo kapituluaren zehatzago ikusiko dugun moduan.

3. *Bigarrenik, idea bakunen eta moduen izenek esentzia bai errealak eta bai nominalak adierazten dituzte beti.*

Idea bakunen eta moduen izenek euren esentzia bai errealak eta bai nominalak adierazten dituzte beti. Baina substantzia naturalen izenek bakanki adierazten dituzte, —eta agian sekula ere ez— espezie

horien esentzia nominalak baino ezer gehiagorik, substantzien izenak bereziki aztertzeko erabiliko dugun kapituluaz azalduko dugun moduan.

4. *Hirugarrenik, ideia bakunen izenak definiezinak dira.*

Idea bakunen izenak ez dira definigarriak, baina ideia konplexuen izenak bai. Inork ez du egundaino ikertu, nik dakidala, zein hitz defini daitezkeen eta zein ez; eta hutsune horixe izan dela uste dut ez gutxitan gizakien diskurtsoetan nahasketa eta iluntasun handiaren iturri, batzuek defini ezin daitezkeen terminoen definizioa eskatzen dutelako eta beste batzuek uste dutelako ez dutela konforme geratu behar hitz orokorragoaren eta beronen murrizketaren bidez (edo logikako berbaz esateko, generoaren eta diferentziaren bidez) emandako azalpenarekin, arauzkotasunez egindako definizio hori entzun ondoren entzuleek maiz hitz horretaz lehen zutena baino ideia argiagorik ez dute eta. Nik neuk hau bederen badut uste, alegia, zein hitz den definigarri eta zein ez eta definizio egokia zertan datzan azaltzea ez dagoela gure oraingo xedetik guztiz kanpo; eta horrek zeinu hauek eta gure ideiak ezagutzeko agian argi handia ekarriko duenez, merezi du zehazkiago jorratzea.

5. *Hitz guztiak definigarriak balira, prozesua infinituraino luzatuko litzateke.*

Ez naiz hemen hasiko termino guztiak ez direla definigarriak frogatzen, izen guztiak defini daitezkeela onartuz gero prozesua infinituraino luzatuko litzatekeela argudiatuz. Izan ere, definizio bateko hitzak beste hitz batzuek definitu beharra balego, non geratu azkenean? Baina gure ideien izaeratik eta gure hitzen esanahitik frogatuko dut *zergatik hitz batzuk defini daitezkeen eta beste batzuk ez, eta zein diren batzuk eta besteak.*

6. *Definizioa zer den.*

Bat gatzoke, nik uste, *definizioahitz baten esanahia sinonimo* - *ak ez diren beste berba batzuen bidez* azaltzea baino ez delako iritzian. Hitzen esanahiak hitz horiek darabiltzanak beroriei ordezkarakten dizkien ideiak baino ez direnez gero, edozein terminoren esanahia azalduz edo edozein hitz definiturik geratzen da ezarritako zeinu horren bidez adierazten den mintzatzailearen gogameneko ideia hori beste batek ikusteko moduan irudikatzen edo haren aurrean jartzen denean,

horretara esanahia zehaztuz. Horixe da definizioaren erabilera eta xede bakarra eta, beraz, definizio ona zein den edo zein ez den erabakitzeke neurri bakarra.

7. Zergatik ezin diren definitu ideia bakunak.

Aurreko premisa jarrita, esan dezaket *ideia bakunen izenak, eta berauek soilik, definiezinak direla*. Eta honen arrazoia da, definizio bateko termino ezberdinek ideia ezberdinak adierazten dituztenez, denek batera inondik ere ezin dutela osaketarik ez daukan ideiarik irudikatu eta, horregatik, hitz baten esanahia gauza bera adierazten ez duten zenbait hitzen bidez azaltzea besterik ez den definizioak ezin duela lekurik ukan ideia bakunen izenetan.

8. Adibideak: higiduraren definizio eskolastikoak.

Gure ideietan eta berauen izenetan dagoen aipatu diferentziari ez erreparatzeak ekarri ditu eskoletako tontakeria demas horiek, ideia bakun horietako gutxi batzuei buruz ematen dizkiguten definizioetan hain erraz ikus daitezkeenak. Zeren, definitzeko artean maisu zirenek ere definitu gabe utzi zituzten haietako gehienak, hori egiteko ezintasunarekin talka egin zutelako hain zuzen. Ba al du, esate baterako, giza jeinuak hitzmordoiak finagorik asmatzerik, definizio honek bere baitan biltzen duena baino: «potentzian dagoen izakiaren aktua, potentzian dagoen heinean». Gizakirik arrazoizkoena noraezean ibiliko litzateke, bere zentzugabekeriagatik hain entzutetsua den definizio honi dagokion hitza asmatzen. Baldin Tuliok holandar bati *beweegin - ge* zer den galdetu eta holandarrak latinez erantzun izan balio «actus entis in potentia , quatenus in potentia» zela, nik galdetzen dut ea inoren buruan sartzen den hark ulertu zukeela *beweeginge* hitzaren esanahia edo igarri zukeela holandarrak soinu hori erabiltzean bere gogamenean zein ideia izan ohi zuen.

9. Higiduraren definizio modernoa.

Baina filosofo modernoek ere, eskoletako hitzmordoiak baztertera jaurtikitzen eta ulertzeko moduan hitz egiten saiatu diren arren, ez dute arrakasta handiagorik ukan ideia bakunak definitzean berauen kausak azalduz edo beste edozein bidez. Atomistek higidura «leku batetik bestera igarotzea» dela esanez definitzen dutenean, zer egiten dute, hitz honen ordez sinonimoa jarri baino? Zeren zer da *iga - rotzea*, higidura besterik. Eta igarotzea zer den galdetuko balitzaie,

nola definituko lukete hobeto higidura dela esanda baino? Zeren igarotzea leku batetik bestera higitzea dela esatea, ez al da higidura leku batetik bestera igarotzea dela esatea bezain egoki eta esanguratsua bederen? Esangura bereko bi hitz bata bestearen ordeztartzen ditugunean definitzen barik, itzultzen ari gara, eta bata bestea baino hobeto ulertzen denean, hitz ezezagunak zer esan nahi duen jakiteko balio lezake; baina hau ez da, hurrik eman ere, definitzea, ingelesezko hiztegiko hitz bakoitza latinezko haren ordainaren definizioa dela eta, beraz, «motion» *motus*-en definizioa dela esan nahi ez badugu bederen. Eta cartesiarrek higiduraz ematen duten definizioa ere, hau da, «gorputz baten atalen segidako aplikazioa beste gorputz baten atalera», ez da definizio askoz hobea, ongi aztertuz gero.

10. *Argiarendefinizioak.*

«Gardenaren aktua, gardena den heinean» da peripatetikoei ideia bakun batez ematen duten definizioa. Hau, arestian aipaturiko higidurarena baino zentzugabekoagoa ez den arren, oraindik argiago erakusten du baliagarritasunik eta esangurarik eza, zeren esperientziak erakutsiko digu ezin diogula itsu bati aditzera eman inola ere *argi* hitzaren esanahia (definitu nahi dena hain zuzen), baina higiduraren definizioak ez du lehen ikusian hain baliogabe ematen, kontrakoa frogatzeko modu honi ihes egiten diolako. Izan ere, higiduraren ideia bakuna ikusmenetik bezainbatean ukimenetik ere sartzen delarik, ez dago frogatzerik, adibide bakar batik ere emanda, norbaitek higiduraren ideia hartzeko ez duela izenaren definizioa beste biderik ukan. Argia, begiaren sakonean biziki jotzen duten globulu pilo batean datzala diotenak eskoletakoak baino ulergarriroago mintzo dira; hala ere, hitz hauek, erabat ongi ulertu arren, ez dute egingen gizaki batek argi hitzak ordezkatzeko duen ideia, lehenagotik ulertuta ez badauka behintzat, norbaitek honako hau esaneko balio baino hobeto ulertzea, alegia, argia, maitagarriek erraketaz jota egun guztian zehar gizaki batzuen bekokiaren kontra, beste batzuenen kontra ez ordea, botatzen dituzten hainbat eta hainbat tenis-pelota txikitxotan datzala. Zeren gauzaren azalpen hau egiazkoa dela onartuta ere, argiaren kausaren ideia zehazki harturik eduki arren, ez liguke argiaren beraren ideia zehatzagorik emanen gure ideia partikular bezala, altzairuzko tresna zorrotz baten irudi eta higidurak, tresna horrek eragin liezagukeen oinazearen bidez, emanen ligukeen ideia baino. Zeren, edozein senti-

penen kausa eta sentipena bera, sentimen bakar baten bidez jasotako ideia bakun guztietan, bi ideia dira, beste edozein bi ideia baino askoz diferenteago eta urrunagoak bata bestetik. Eta, horregatik, alferrik joko lukete Descartesen globuluek *gutta serena* eritasuna lukeen nor-nahiren erretina, ez bailuke hortik hark argiaren ez antzeko ezeren inolako ideiarik jasoko, globulutxook zer diren ongien ulertu eta inoren gorputzean jotzea zer den ongien ulertu arren. Eta horregatik cartesiarrek oso ongi bereizten dute gure baitako sentipen horren kausa den argia, hark guregan sortzen duen eta zehazki argia deritzan ideiatik.

11. *Azalpen g ehiago ideia bakunen def iniezintasunaren inguruan.*

Idea bakunak, azaldu dugun moduan, objektuek eurek, zeinek bere sarbidetik, gure gogamenean eragindako inpresioen bidez soilik erdiesten dira. Bide horretatik hartu ezean, haien izenak definitu edo azaltzeko erabilitako munduko hitz guztiek ez dira gauza izanen haiek ordezkatzten duten ideia gure baitan sortarazteko. Zeren, hitzak soinu direlarik, ezin dituzte gure baitan eragin hots horien ideia bakunak besterik, ez eta inolako ideiarik piztu ere, hitzen eta erabilera komunaren eraginez zeinu gisa adierazten dituzten ideia bakunen artean dagoen nahitako lotura jakinaren bidez izan ezik. Bestela deritzonak egin dezala aproba ea hitzen batek ananaren gustua eman eta fruta delizios ospetsu horren gozoaren ideia ekarri ahal dion. Lehenago objektu sentigarriek adimenean inprimaturik oraindik oroimenean dituen gustu ez arrotzen zein ideiekin duen antzekotasuna esaten zaion heinean, hurbildu ahal izanen da antzekotasun horretara. Baina hori ez da definizio bidez ideia hori ematea, izenak aipatuz gure baitan beste ideia bakun batzuk piztea baizik, eta hau ere fruta horren benetako gustutik oso gauza diferentea dateke. Gauza bera gertatzen da argiari, koloreei eta beste ideia bakun guztiei dagokienez, soinuen esanahia ez baita naturala, ezarria eta hautazkoa baizik. Eta ez dago argiaren edo gorritasunaren *definizio* egokiagorik edo ideia bi horiek gudan eragiteko gaiagorik, argia edo gorria soinuek eurek baino. Izan ere, argiaren edo kolorearen ideiarekin bat soinu baten bidez, edonola eratutako izanda ere, sortaraziko dela espero izatea, soinuak ikusi edo koloreak entzun egin daitezkeela itzarotea da, eta belarriei beste sentimen guztien zeregina beteraztea. Eta hau, belarriez zaporatu, usaindu eta ikusi egin genezakeela esatea da; Sancho Panzari zegokion filo-

sofi modua berau, Dulzinea entzutez ikusteko ahalmena baitzuen. Eta, horregatik, edozein hitzek ordezkatzan duen ideia bakuna adimenara dagokion sarbidetik jaso ez duenak ezin izanen du inoiz hitz horren esanahia ezagutzera heldu definizioaren edozein arauz batera bildutako beste ezelako hitz edo soinuaz. Bide bakarra sentimentera izen horri dagokion objektua aplikatzea da eta, horrela, lehendik ezagun duen izeneko ideia eragitea. Itsu ikastun batek, objektu ikusgarriak aztertzeari jo eta su ekinez, sarri aipatzen zizkioten argiaren eta koloreen izenak ulertzeko hala liburuaren nola lagunen azalpenak erabili ondoren, egun batez harro esan zuen bazekiela jada gorrimin hitzak zer esan nahi zuen. Eta lagunek zer zen, bada, gorrimina galdetu ziotenean turutaren soinuaren antzekoa zela erantzun zien. Horrelaxe ulertuko du beste edozein ideia bakunaren izena berau ulertzeko definizioaz edo beste hitz batzuek balia dadinak ere.

12. Aurrekoaren kontrakoa gertatzen da ideia konplexuetan, estatuaren eta ortzadarraren adibideez ikus daitekeenez.

Oso bestelakoa da kasua ideia konplexuetan, zeren hauek, zenbait ideia bakunez osatuak direnez, osaketa hau egiten duten ideia ezberdinak ordezkatzan dituzten hitzek badute ahalmena, gogamenean lehenago inoiz egon gabeko ideiak bertan inprimatzeko eta beraien izenak ulertarazteko. Izen baten pean doazen horrelako ideia bildumetan badu lekua definizioak edo hitz baten esanahia beste hitz batzuek azaltzeak, eta gure sentimenteren irispidera inoiz heldu gabeko gauzen izenak ezagutaraz diezazkiguke; baita beste gizaki batzuek izen horiek erabiltzean gogamenean dituzten ideien antzekoak guk eratzea eragin ere, definiziozko termino batek ere azalpena jasotzen duenak bere pentsamenduetan sekula eduki gabeko ideia bakunik ordezkatu ezean. Horrela estatua hitza esplika dakioke beste hitz batzuek itsuari, pintura ez ordea, bere sentimenterik emana diotelako irudiaren ideia, baina ez koloreena, eta hitzek, beraz, ezin diote hauen ideia piztu. Honexek ekarri zion eskultore bati pintore baten aurka saria irabaztea, nor bere artearen bikaintasunaren aldeko lehian zebiltzala, eskultoreak bere artea hobea zela defendatzeko esaten baitzuen berea zabalago hedatzen zela eta ikusmena galdutakoek ere berearen bikaintasuna hautesman zezaketela. Pintoreak itsu baten epaiaren menpe jartzea onartu zuen eta, itsua ekarri zutelarik batak egindako estatua eta besteak pintaturiko koadroa zeuden tokira, lehenengo estatuaren aurrera eramanez.

zuten eta honen aurpegi eta gorputzeko ezaugarriak eta lerroak bere eskuez haztatu ondoren, mirespen handiz goraipatu zuen artistaren tre-bezia. Baina koadroaren aurrera eramandakoan eskuak haren gainean jarri zituelarik, ingurugoez ziotsoen lehenbizi burua ukitzen ari zela, gero bekokia, begiak, sudurra, etab., eta itsuaren eskua mihisearen alde ezberdinen gainetik zihoan inolako apartekotasunik aurkitu gabe; eta horregatik oihukatu zuen hark nahitaez behar zuela artelan miresgarri eta zoragarria izan, besteei alde horiek guztiak erakusteko, berak, ordea, ezer sentitzen ez hautematen ez zuenean.

13. *Koloreak definiezinak dira sortzetiko itsuarentzat.*

Ortzadar hitza, haren kolore guztiak ezagutu bai, baina fenomeno hau sekula ikusi gabeko bati aipatuko liokeenak, koloreen irudia, zabalera, kokaera eta ordena azalduz hain ongi definituko luke hitz hau, non entzuleak ulertu ahal izanen liokeen. Baina definizio honek, zehatzena eta hobeazina izanda ere, ez luke balioko hitz hori itsu bati ulertarazteko, ideia konplexu hori osatzen duten ideia bakun ezberdinak itsuak sentipenez eta esperientziaz sekula hartu ez ditue-nez, ez dagoelako horiek haren gogamenean pizteko gauza den hitzik.

14. *Idea konplexuak, beraien osagarri diren ideia bakunak esperientziaren bidez erdietsitakoak direnean bakarrik defini daitezke.*

Idea bakunak, azaldu dugun moduan, esperientziaz soilik erdiets daitezke gudan pertzepzio horiek eragiteko egokiak diren objektuetatik. Era horretan geure gogamenera bildu eta euren izenak dakizkigunean, orduan horiek osaturiko ideia konplexuen izenak definitzeko eta definizioaren bidez ulertzeko moduan gaude. Baina terminoren batek gizakiak sekula lehenago bere gogamenean ukan gabeko ideia bakunen bat ordezkatzeko badu, ezin hitzez ere ez dago horren esanahia hari aditzera ematerik. Terminoren batek norbaitek ezaguna duen ideia bat ordezkatzeko baldin badu, baina termino hori bere ideia-zen zeinu denik ez badaki, orduan ezagun zaion ideia beraren beste izen batek ulertzera eman diezaioke hitz horren esanahia. Baina ideia bakunik ezin kasutan ere ezin defini daiteke.

15. *Laugarrenik, ideia bakunen izenak modu mistoenek eta substantzienek baino ez bai gutxiagoko esanahia dute.*

Baina ideia bakunen izenak beren esanahia zehazteko definizioaren laguntzarik ez duten arren, hori ez da oztopo hauek modu mis-

toen eta substantzien izenak baino zalantza eta ziurgabetasun gutxiagokoak izateko. Izan ere, pertzepzio bakar bat ordezkatzan dutelarik, gizakiek erraz eta osoro bat etortzen dira haien esanahiari dagokionez eta beroni buruzko errakuntzak edo eztabaidak ez du leku handirik. Zuria berak elurra edo esnea ikustean hauteman duen kolorea dela dakienak, ezin izanen du hitz hau gaizki aplikatu ideia hau atxikitze-ko gai den bitartean, eta esanahia erabat galtzen duenean, haren esanahiaz erratu ez, baina ez duela ulertzen ohartuko da. Hemen ez dago ez ideia bakun pilorik batera bilduta ipintzeko, horixe delarik modu mistoei buruzko zalantzak sortzen dituen, ez bere menpean propietateak —zehazki zenbat diren ez jakin arren— dituen esentzia erreal ustezko baina ezezagunik, honek substantzien izenekiko zailtasuna dakarrelarik. Aitzitik, ideia bakunetan izenaren esanahi osoa batera ezagutzen da eta ez dago atalez osatua, eta orduan, ideian atal gehiagorik edo gutxiago sartzerik ez dagoenez, ezin da ideia aldatu, ez eta ilun edo zalantzarik bihurtu ere.

16. *Bosgarrenik, ideia bakunek menpekotasun gutxi dituzte in linea predicamentali.*

Idea bakunetan eta euron izenetan, gainera, hauxe ikus daiteke, alegia, *in linea predicamentali* (deitzen diotenez) menpekotasun gutxi dutela, azken espezieetik hasi eta *summum genus*eraino. Azken espezieari, izan ere, ideia bakun bat baino ez delarik, ezin zaio ezer kendu, eta era horretan ezin du, aldea kenduta, beste gauza batekin ideia komun batean, bien generoa deritzanean, ados etorri; ezin da, adibidez, zuri edota gorriaren ideietatik deus kendu, itxura komun berean bat etor daitezen eta horretara izen orokor bat eduki dezaten. Gizakiaren ideia konplexutik *arrazionaltasuna* kenduz gero, horrek gizakia piztiekin bat etortzea dakar animalia-aren ideia eta izen orokor-rragoan. Eta horregatik gizakiak, zerrenda nekagarriak ekiditeko, zuri eta gorria horiarekin eta beste zenbait ideia bakunekin izen orokor baten pean biltzen dituztenean, behartuta aurkitzen dira ideia horiek gogamenara sartzeko duten bidea besterik azaltzen ez duen hitz batez hori egitera. Izan ere, zuria, gorria eta horia kolore generoaren edo izenaren barruan sartzen direnean, horrek ez du hauxe besterik esan nahi, alegia, ideia horiek ikusmenaren bidez soilik sortzen direla gogamenean eta begien bidez soilik dutela hara sarbidea. Eta koloreak, soinuak eta antzeko ideia bakunak barne hartzeko moduko termi-

no are orokorragoa eratu nahi dutenean, horiek guztiak sentimen bate-tik etorriak balira bezala hartuko dituen hitz baten bidez egiten dute hori. Eta, horrela, koalitate izeneko termino orokorrak, arrunki eman ohi zaion adieran, koloreak, soinuak, gustuak, usainak eta ukimenez-ko koalitateak hartzen ditu, koalitate horiek beste hauetatik bereizita, hots, hedadura, kopuru, higidura, plazer eta oinazetik, hauek sentimen bat baino gehiagotik baitute eragina gure gogamenean eta sartzen bai-tituzte bertan ideiak.

17. *Seigarrenik, ideia bakunen izenak ez dira hautazkoak («arbitrary»), erabat gauzen existentziatik hartuak baizik.*

Idea bakunen, substantzien eta modu mistoen izenak honexe-tan bereizten dira: *modu mistoen* izenak erabat hautazkoak diren ideiak ordezkatzan dituzte, *substantzienak* ez dira horrela, eredu bate-kiko erreferentzia baitute, baina nahikoa zabala, eta *ideia bakunen* izenak gauzen existentziatik hartuak dira erabat eta inondik ere ez dira hautazkoak. Zer alde sortzen den hemendik hiru ideia moton esa-nahian hurrengo kapituluetan ikusiko dugu.

Modu bakunen izenei dagokienez, ez dute alde handirik ideia bakunen izenetatik.

V. KAPITULUA

Modu mistoen eta erlazioen izenez

1 Modu mistoek ideia abstraktuak ordezkatzan dituzte, beste izen orokorrek bezala.

Modu mistoen izenak orokorrak direnez, azaldu dugun moduan bakoitzak bere esentzia duten gauza mota edo espezieak ordezkatzan dituzte. Espezie horien esentziak ere, azaldu bezala, izena jarritako gogameneko ideia abstraktuak besterik ez dira. Honaino modu mistoen izenek eta esentziek ez daukate ezer beste ideiekin komuna ez zaienik, baina hurragotik aztertzen baditugu, zerbait berezia, gure arreta merezi duena, daukatela ohartuko gara.

2. Lehenik, ordezkatzan dituzten ideia abstraktuak adimenak eginak dira.

Aurkitzen dudan lehen berezitasuna hauxe da, alegia, modu mistoen ezpezie ezberdinen ideia abstraktuak edo, nahiago izanez gero, esentziak *adimenak eginak* direla, honexetan bereizten direlarik ideia bakunetatik, hauen kasuan gogamenak ez baitauka bat bera ere egiteko ahalik, ideioek gauzen existentzia errealak bere baitan eraginez aurkeztan dizkion modura hartu beharra du eta.

3. Bigarrenik, hautazkotasun osoz («arbitrarily») eta eredurik gabe eginak dira.

Hurrengo esan behar da modu mistoen espezieen esentzia hauek ez direla gogamenak eginak, *hautaketa hutsez, eredurik gabe*

edo ezein existentzia errealekiko erreferentziarik gabe eginak baizik. Eta horrexetan bereizten dira substantzien esentzietatik, hauek berauen sorburu den izaki errealeen baten suposizioa baitaramate, izaki horrekin ados datozelarik. Baina gogamenak modu mistoez dituen ideia konplexuetan gauzen existentziari zehazki ez jarraitzeko askatasuna hartzen du. Zenbait bilduma batu eta atxikitzen ditu beste hainbeste ideia espezifiko bereizi bezala, beste batzuk, ordea, naturan oso maiz gertatzen direnak eta kanpoko gauzek hain indartsu iradokiak, albo batera uzten dituen artean, izen bereizirik edo espezifikaziorik ezarri gabe. Eta gogamenak modu mistook, substantzien ideia konplexuak bezala, ez ditu gauzen existentzia errealaz aztertzen edo naturan konposaketa bereizi hori duten ereduez egiaztatzen. *Adulterioaz* edo *intzestuz* duen ideia zuzena denentz jakiteko, gauzen existentzian bilatu behar al du hori gizakiak? Edo baten bat horrelako ekintzaren baten lekuko izan delako al da ekintza hori egiazkoa? Inola ere ez; horretarako nahikoa dugu horrelako bilduma bat arketipo eta ideia espezifiko izanen den ideia konplexu batean biltzea, *in rerum natura* edo errealitatean ekintza hori norbaitek egina izan zein ez izan.

4. *Hori nola egiten den.*

Hori behar bezala ulertzeko, ideia konplexuon eratzea zertan datzan ikusi behar dugu. Eta ez datza ideia berriak egitean, gogamenak lehendik zeuzkanak batera biltzean baizik. Horretarako, gogamenak hiru gauza egiten ditu: lehenik, ideia kopuru bat aukeratu; bigarrenik, ideioi lokarri bat jarri eta ideia batean bildu; hirugarrenik, izen batez elkarlotuta utzi. Gogamenak horietan nola jokatzten duen eta horretarako nolako askatasuna hartzen duen aztertuz gero, aise ohar-tuko gara modu mistoen espezieen esentziak gogamenaren sorkari direla eta, beraz, espezieak eurak gizakiak eginak direla.

5. *Idea sarri existentziaren aurretik izateak argi uzten du hau - tazkoak («arbitrary») direla.*

Modu mistoen ideiak ideien nahitako bilduma baten bidez egiten direla, ideioi gogamenean naturako eredu jatorrizko orotik aparte bilduz, inork ezin du zalantzarik egin, baldin gogoeta eginez pentsatzen badu mota horretako ideia konplexuak egin eta abstrai daitezkeela eta gero izena ezar dakiekeela eta, hartara, espeziea era, espezie horretako ezein banako existitu aurretik. Nork jar lezake zalantzatan gizakien gogamenetan sakrilegioaren edo adulterioaren ideiak taxutu

ahal izan direla, baita ideioi izenak eman ere, eta horretara modu mistoen espezie horiek eratu ahal izan direla inork ekintza horietariko bata ez bestea egin aurretik, eta eurei buruz eztabaidatu ahal izan dela eta arrazoiak jarri, baita egia ziurak aurkitu ere, hala adimenean baino ez zirenean nola orain existentzia erreala gehiegixotan dutenean? Hemendik argi geratzen da zenbateraino ditugun modu mistoak adimenaren sorkari, adimenean errealtatean existitzen direnean bezalako existentzia egokia dutelarik zinezko egiazen eta ezagutzaren xedeak betetzeko. Eta ezin dugu dudarik egin legegileek maiz beren adimenen sorkari ziren eta beren gogamenetan beste inon existentziarik ez zuten ekintzen espezieei buruzko legeak egin izan dituztela. Eta uste dut inork ezin uka lezakeela birpizkundea modu mistoen espezie bat zela gogamenean, errealtatean existitu aurretik.

6. Adibideak: *hilketa, intzestua, ezpata puntaz hiltzea.*

Gogamenak modu mistoen esentzia horiek nolako hautazkotasun osoz («arbitrarily») egiten dituen ikusteko, haietako zenbait begiematea besterik ez dugu behar. Begirada labur batek erakutsiko digu gogamena dela barreiatuak dauden zenbait ideia lokabe konplexu bakarrean konbinatzen dituen eta ematen dien izen komunaren bidez espezie jakin baten esentzia izatea egiten duena, hori egiteko ideioek naturan eduki dezaketen lotura aintzat hartu gabe. Izan ere, gizakiaren ideiak, naturan, ardiaren ideiak baino lotura handiagoa al du, bada, hiltzearekin, gizakiaren kasuan hilketa («murder») hitzak adierazitako ekintza espezie berezia egin dezagun, eta ardiarenean ez? Edo zein lokarri du naturan hiltzearekin aitaren ahaidetasunaren ideiak, semearen edo auzokoaren ideiak baino estuagoa, lehenenbizi aipaturikoen kasuan ideia konplexu batean konbina ditzagun, eta espezie bereizi baten, hots, *guraso-hilketaren* esentzia bihurtu ditzagun, besteek espezie ezberdinak egiten ez duten artean? Baina, norbere ama edo aita hiltzea norbere seme edo alaba hiltzetik ezberdina den espezie bihurtu badute ere, zenbait kasutan semea eta alaba aita eta amarekin batera hartzen dira eta espezie berean sartzen, *intzestuaren* kasuan adibidez. Horrela gogamenak modu mistoetan ideiak hautaketa hutsez biltzen ditu ideia konplexuetan, komenigarri deritzon moduan, naturan hauek adina lotura duten beste batzuk lokabe uzten dituen artean, izen bakarraren premiarik ez dutelako. Bistakoa da, bada, gogamenak aukera librez zenbait ideia elkarrekin lotzen dituela,

ideiok naturan lotu barik uzten dituen beste batzuek baino batasun handiagorik ez ukan arren. Eta hau horrela ez bada, zergatik hartzen da aintzat armaren zein zati hasten den zauria egiten, ingelesek *stab - bing* hitzaz adierazten duten ekintza, ezpataren puntaz egindakoa, espezie ezberdinean sartzeko, armaren forma eta materiala, ordea, aintzat hartzen ez diren artean? Ez diot hau arrazoirik gabe egiten denik, geroxeago ikusiko dugun moduan, baina bai gogamenaren aukera librez egiten dela, bere helburuak betetzeko, eta horregatik modu mistoen espezieak adimenaren sorkari direla. Eta erabat begibistakoa da gogamenak ideia horiek eratzekeo ereduak ez dituela naturan bilatzen, ez eta egiten dituen ideiak gauzen existentzia erreallarekin erlazionatzen ere, bere helburuetarako ondoen balio izateko moduan batera biltzen dituelarik, errealtatean existitzen den ezer zehazki imitatzekeo loturarik gabe.

7. Hala ere, hizkuntzaren helburuetarako balio dute eta ez dira ausaz eratzen.

Baina, nahiz eta modu mistoen ideia konplexu edo esentzia hauek gogamenaren menpe dauden eta askatasun handiz beronek eginak diren, ez dira, haatik, ausaz eginak, ez eta inondiko arrazoirik gabe elkarrekin nahasiak ere. Ideia konplexuok beti naturatik kopiatuak ez diren arren, beti ere egokiak dira ideia abstraktuei jarri zaizkien helburuetarako; eta nahiz eta ideiez egindako konbinazio batzuk nahikoa lokabeak diren eta euren baitan ez duten batasun gehiagorik, gogamenak ideia batean biltzeko loturarik ematen ez dien beste ideia batzuek baino, hala ere hizkuntzaren helburu nagusi den komunikazioaren komenentzietarako egiten dira beti. Hizkuntzaren baliagarritasuna soinu laburren bidez kontzepzio orokorrak erraz eta azkar adieraztean datza, berauon baitan ideia partikular ugari ez ezik, ideia konplexu batean bildutako ideia lokabe asko ere izan daitezkeelarik. Horregatik, modu mistoen espezieak egitean, gizakiek elkarri aipatu ahal izan dizkieten konbinazioei soilik erreparatu diete. Hauek ideia konplexu bereizietan konbinatu dituzte eta izenak jarri dizkiete, beste batzuk, ordea, naturan aurrekoek bezain batasun hertsia izan arren, lokabe eta jaramonik egin gabe uzten dituzten artean. Zeren, giza ekintzak eurak baino harago ez joatearren, gizakiek ikus daitezkeen barietate guztietako ideia abstraktuak egin nahi balituzte, infinitua litzateke kopurua eta oroimena ideiatzen ideiaz nahasita eta alferrik

gainkargatuta geratuko litzateke. Nahikoa dute gizakiek beren arazo arruntetan izena jarri beharreko modu mistoen ideia konplexuak eratu eta izendatzearekin. Hilketaren ideari aitaren edo amaren ideia batzen badiote eta norbere semea edo auzokoa hiltzetik diferentea den espeziea egiten badute, krimenaren izugarrikeriagatik da, eta norbere aita edo ama hiltzen duenari norbere semea edo auzokoa hiltzen duenari ez bezalako zigorra ezarri behar zaiolako; eta horregatik beharrezko ikusten dute beste izen bat jartzea, horixe delarik konbinazio hori egitean bilatzen duten helburua. Baina, nahiz eta amaren eta alabaren ideiak oso trataera ezberdina hartzen duten hilketarekiko, halakoa, non batak hilketarekin lotzean ideia abstraktu bereizia eta, beraz, espezie ezberdina egiten duen izen eta guzti, eta besteak ez, hala ere, haragizko harremanekiko, biak sartzen dira intzestuaeren barruan; eta kasu honetan ere horrelako harreman lohiak izen bakarraz ordezkatzeta eta espezie bakartzat hartzea komeni delako jokatzen da horrela, beste egintza batzuek baino lizunkeria handiagokoa baita; eta hau guztia ingurumariak eta deskribaketa gogaikarriak ekiditeko egiten da.

8. *Honen guztionen frogatzen bat hizkuntza ezberdinetakoa hitz itzulezinez ditugu.*

Hizkuntza ezberdinen ezagupen apur bat nahikoa da esana dugunaren egia agerian jartzeko, begi-bistara ageri baita hizkuntza batean hainbat hitz daudela beste hizkuntzetan ordainik ez dutenak. Honek argi erakusten du herrialde bateko jendeak, beren ohitura eta bizikeragatik, beste batzuek ideia espezifikotik sekula bildu ez dituzten ideia konplexu ezberdinak egiteko eta izenak jartzeko parada izan duela. Hau ezin zitekeen gerta, baldin espezie horiek naturaren astiroko sorkari balira, eta ez gogamenak, komunikazio premiak kontuan izanda, izena jartzeko egin eta abstraituriko bildumak. Gure legeetako hitzek, hots huts ez direnek, nekez aurkituko dute ordaina inondik ere hizkuntza urriak ez diren espainieran edo italieran eta askoz zailago itzuli ahal izanen lirateke Karibear edo Westoe mintzairerara. Eta erromatarren *versura* edo juduen *corban* hitzek ez dute ordainik beste hizkuntzetan, eta hau argi dago arestian aipaturiko arrazoiengatik. Gainera, auzi hau hurragotik aztertu eta hizkuntza ezberdinak zehatzago alderatzen baditugu, ohartu ahal izanen gara ezen, hizkuntzek itzulpenetan eta hiztegiak elkarren

ordaintzat jotzen diren hitzak dituzten arren, ideia konplexuen eta bereziki modu mistoen izenen artean gutxik, hamarretik batek ere ozta-ozta, adierazten dutela bete-betean hiztegian ordaintzat daukan hitzaren esanahia. Ez dago ideia arruntagorik eta osagai gutxiagokorik, denbora, hedadura eta pisuko neurriena baino; eta latinezko *hora, pes, libra* zailtasunik gabe itzultzen dira ingelesezko *hour, foot, pound* hitzez; hala ere argi dago erromatarrek latinezko izen horiei lotzen zizkieten ideiak ingeles batek ingelesezko izen horiez adierazten dituen ideietatik oso ezberdinak zirela. Eta aipaturiko bi horien kasuan, batak besteak bere hizkuntzako izenez izendaturiko neurriak erabiliz gero, erabat oker lebilke bere kalkuluetan. Froga nabarmenegiak dira hauek duda-mudatan ibiltzeko, eta asko errazago ikusiko dugu hau ideia abstraktuagoen eta konposatuagoen izenetan, diskurtso moraletan erabiltzen diren gehienetan, adibidez. Ideia moralen izenak beste hizkuntza batzuetara itzultzeko erabiltzen direnekin ikusminez alderatzen ditugunean, ikusten dugu haietako oso gutxik erantzuten diela elkarri bete-betean euren esanahia-
ren hedadura guztian.

9. *Honek erakusten du espezieak komunikaziorako eratzen direla.*

Hau horrenbeste azpimarratzen badut «genera» eta «espezies»-ei eta berauen esentziei buruz oker ibili ez gaitezen da, naturak erregularki eta iraunkorki egindakotzat eta gauzetan existentzia erreala duten elementutzat hartuz, zerren, arretaz aztertuz gero, adimenaren artifizio bat baino ez baita, sarri komunikatu behar dituen ideien bildumak errazago adierazteko termino orokor baten bidez, termino horren barruan zenbait partikular sar daitezkeelarik, ideia abstraktu horrekin ados datozen heinean. Eta «species» hitzaren dudazko esanahiak eraginda, batzuei gogor egiten bazaie ere nik modu mistoen espezieak «adimenak eginak direla» esatea, uste dut inork ezin duela ukatu gogamena dela izenak ezartzen zaizkien ideia abstraktu konplexuak egiten dituen. Eta egia bada, den moduan, adimenak egiten dituela gauzak sailkatzeko eta izendatzeko ereduak, aztergai uzten dut nork markatzen duen ingelesezko *sort* (mota) eta latinezko *species* hitzen arteko muga, niretzat *species* eta *sort* hitzen artean latinezko hitza izatetik ingelesezko hitza izatera dagoena beste alderik ez dagoenez gero.

10. *Modu mistoetan izena da ideia bakunen konbinazioa lotu eta espezie bihurtzen duena.*

*Espezieen, esentzien eta euron izen or okorren artean modu mistoetan bederen dagoen erlazio hertsia argiago agertuko da kontuan hartzen dugunean izena dela, dirudienez, esentzia horiek salbatu eta etengabeki iraupidea ematen diena. Zeren, ideia konplexu horien atal solteen arteko lotura egiten duena gogamena denez, naturan oinarri partikularrik ez duen batasun honek huts egin izanen luke, atalei elkartuta eutsiz sakabanatzen uzten ez dien zerbaitek ez balego. Horregatik, bilduma egiten duena gogamena den arren, izena da, nolabait esateko, elkarrekin lotzen dituen korapiloa. Ez da makala, izan ere, *triumphus* hitzak elkartuta dauzkan eta espezie bakar moduan eskaintzen dizkigun ideia ezberdinen bariatatea. Izen hau inoiz asmatu ez balitz edo zeharo galdu balitz, eduki genezakeen, dudarik ez ospakizun horretan gertatzen denaren deskribaketa, baina, nire ustez, atal ezberdin horiei ideia konplexu baten batasunean elkartuta eusten diena beroni erantsitako hitza da; izan ere, berau barik inork ez luke pentsatuko haren atal ezberdinek gauza bat bera egiten dutenik, behin bakarrik eskaini delako izen bakar baten peko ideia konplexu batean bildu ez den beste ikuskizun baten atalek gauza bat bera egiten dutenik pentsatzerik ez dagoen bezalaxe. Horregatik, modu mistoen esentzia eratzeke behar den batasuna zenbateraino dagoen gogamenaren menpe eta batasun horren jarraipena eta finkotasuna zenbateraino dagoen ohiko erabileran beroni erantsitako izenean, esentziak eta espezieak naturan dauden gauza errealtzat dutenek pentsatzeko uzten dut.*

11. Hau baieztatzeke, ikusten dugu gizakiek, modu mistoez mintzo direnean, izenez jada ezarritakoak baino ez dituztela halakotzat imajinatzen edo espeziatzen hartzen. Zeren, gizakiaren sorkari huts direlarik, izendatzeko orduan, ez dira aintzat hartzen gizakiak zenbait ideia solte ideia bakar batean konbinatu dituen adierazpide gisa izena erantsirik duten espezieak baino; izen horrek, gainera, batasun iraunkorra ematen die berori gabe batasun hori galduko luketen atalei, gogamenak ideia abstraktu hori gorde eta berorretaz pentsatzeari utzi bezain laster. Baina izena erantsi eta beronen bidez ideia konplexu horren atalek batasun finkatu eta iraunkorra hartzen dutenean, orduan esentzia, esanen genuke, ezarri egiten da eta espeziea osotuta

ikusten da. Zeren zertarako arduratu behar du oroimenak konposaketa horiez, konposaketok abstrakzioz orokor bihurtzeko baino? Eta zertarako orokor bihurtu, izen orokorrak edukitzeko eta diskurtsoa eta komunikazioa eratzeko baino? Horrela ikusten dugu gizaki bat ezpataz ala aizkoraz hiltzea ez direla hartzen ekintza espezie ezberdintzat, baina ezpataren punta bada gorputzean lehenengo sartzen dena, espezie diferentetzat jotzen da Ingalaterran bezala izen bereizia duen lekuetan, hemen *stabbing* deritzalarik; baina izen ezberdinez espezifikaturik ez dagoen herrialde batean ez da espezie ezberdintzat jotzen. Baina gorpuzdun substantzien espezieetan, esentzia nominala eratzen duena gogamena den arren, uste denez bertan konbinatzen diren ideia horiek naturan, gogamenak batu zein ez batu, batasuna dutela, espezie ezberdintzat hartzen dira, gogamenak inolako eragiketarik egiteko, ez abstraitzeko ez ideia konplexu horri izena emateko, beharrianik gabe.

12. *Gure modu mistoen jatorrizko ereduena bila ez dugu goga -menetik harago begiratzeko, eta honek ere adimenaren sorkari direla frogatzen du.*

Modu mistoen esentziei buruz arestian esan dudanarekin lotuta, hau da, naturaren lana baino gehiago adimenaren sorkari direla, ohar daiteke haien izenek gogamenera, eta ez harago, daramatela gure pentsamendua. *Justiziaz* edo *esker onaz* ari garenean ez dugu existitzen den ezeren irudirik eratzen buruan; gure pentsamenduak bertute horien nozio abstraktueta geditzen dira harago jo barik, *zaldiaz* edo *burdinaz* ari garenean egiten duten moduan, hauen nozio espezifikokak gogamenean soilik barik, gauzetan euren dauden elementutzat hartzen baititugu, hau da, ideia horien jatorrizko ereduak eskaintzen dizkiguten gauzetan. Modu mistoetan, ordea, edo hauetarik garrantzitsuenak diren izaki moraletan bederen, hauen jatorrizko irudiak gogamenean daudela uste dugu eta berauei gagozkie izate partikular bakoitzaren bere izenez bereizteko. Eta modu mistoen espezieen esentziei, nire ustez, horrexegatik deritze izen partikularragoz *nozioak*, beste ideia batzuk baino adimenenekoagoak balira bezala.

13. *Adimenak eredurik gabe egindakoak izateak azaltzen du zergatik diren hain konposatuak.*

Era berean, hemendik uler genezake modu mistoen ideia konplexuak zergatik diren substantzia naturalak baino konposatuagoak. Zergatia honexetan datza: ideia hauek adimenak berak eginak dira eta

adimenak bere helburuei soilik begira eta besteei ezagutzera eman nahi dizkion ideia horiek labur adierazteko erosotasuna bilatuz askatasun handiz batzen ditu maiz ideia abstraktu batean euren naturan inolako loturarik ez duten gauzak eta, horrela, termino batean elkartzen ditu ezberdinki konposaturiko hainbat eta hainbat ideia. Har dezagun, adibidez, *prozesio* hitza: zenbat ideia lokabe dauden nahasirik —pertsonenak, azturenak, tapizenak, ordenenak, higidurenak, soinuenak— ideia konplexu honen barruan, gizakiaren gogamenak hautazkotasun osoz («arbitrarily») bilduta izen bakar horren bidez adierazteko! Substantzia moten ideia konplexuak, ordea, ideia bakun gutxiak osatuak izan ohi dira, eta animalien espezieetan bi hauexek, forma eta ahotsak, alegia, osatzen dute normalean esentzia nominal guztia.

14. *Modu mistoen izenek gure gogamenaren sorkari diren beraien espezieen esentzia errealak ordezkatzan dituzte beti.*

Esan denaren inguruan ikus genezakeen beste gauza bat da modu mistoen izenek beren espezieen esentzia errealak adierazten dituztela beti (esanahi zehatzik edukiz gero). Izan ere, ideia abstraktuok gogamenaren sorkari eta gauzen existentziarekin zerikusirik gabekoak direnez, ezin da uste izan izen horrek gogamenak eratu duen ideia besterik adierazten duenik, horixe delarik izen horrekin adierazi nahi duen guztia; eta berorren mende daude propietate guztiak eta berorri bakarrik darizkio guztiak. Horregatik, modu mistoetan esentzia erreala eta nominala gauza bat bera dira. Geroago ikusiko dugu zenbateko garrantzia duen honek egia orokorraren ezagutza ziurrerako.

15. *Zergatik ikasten diren lehenago normalean modu mistoen izenak, dituzten ideiak baino.*

Honek beste hau ere erakuts diezaguke, alegia, zergatik geuganutzen ditugun modu mistoen izenak, ordezkatzan dituzten ideiak guztiz ezagutu aurretik. Honexegatik hara, normalean horrelako espezierik, izenik eduki ezean, kontuan hartzen ez denez eta espezie horiek, edo hobeto, esentzia horiek gogamenak hautazkotasun osoz («arbitrarily») egindako ideia abstraktu konplexuak direnez gero, izenak jakitea komeni edo agian behar delako, ideia konplexu horiek eratzten saiatu aurretik, norbaitek bere burua alferreko ideiaz, hau da, besteek izenik erantsi ez dietelako berak ere nahitaez bertan behera utzi eta zeharo ahantzi beharko dituen ideia konplexu abstraktu pilo batez bete nahi izan ezean behintzat. Hizkuntzen hasieran, jakina,

idea eduki behar zen izena eman aurretik eta hori orain ere horrelaxe da idea berri bat egitean izena eman nahirik hitz berri bat asmatzen denean. Baina hau ez da gertatzen eginak dauden hizkuntzetan, eskuarki gizakiek maiz erabili eta komunikatu beharreko ideiez ongi horniturik egoten baitira; eta honetan, nire galdera da ea ohiko metodoa ez den haurrek modu mistoen izenak ikastea haien ideiak berenganatu aurretik. Mila lagunen artean ere nor da *loriaren* eta *gora-nahiaren* ideiak era ditzakeena, ideion izenak ikasi baino lehen? Idea bakunen eta substantzien kasuan onartzen dut bestela dela, zeren hauetan. naturan existentzia errela eta batasuna dutenez, idea izena baino lehenago edo izena idea baino lehenago, nola suertatu halaxe erdiesten baita.

16. *Zergatik luzatu naizen hainbeste gai honetan.*

Modu mistoez hemen esan dena aplikagarria da, oso alde gutxi-ekin, *erlazioei* ere; eta honetaz edonor ohar daitekeenez bere kabuz, ez dut luzatu beharrik, batez ere gogoan izanik batzuek uste dutela hirugarren Liburu honetan hitzei buruz esan dudana horrelako gai kaxkar batek behar zuena baino askoz gehiago izan dela. Onartzen dut puntu hau laburrago trata zitekeela, baina nire irakurleak niri berri eta bide arruntetik kanpoko iruditzen zaidan argumentu batean gelditzea nahi nuen (ziur nago idazten hasi nintzenean ez nuela horretaz pentsatu), gai horretan sakoneraino bilatuz eta aintzin-gibel arakaturaz, zati batek edo besteak irakurleen pentsamenduak astin zitzan eta, horretara, uzkurrenek eta utzienek ere eskuarki oso desbideraturik dagoen eta, ondorio handietakoa izan arren, behar bezala aintzat hartzen ez den zerbaiti buruz gogeta egiteko beta ukan zezaten. Kontuan hartzen denean nolako nahastea sortu den esentzien inguruan eta hitzak axolarik eta zehaztasunik gabe erabili eta aplikatzeak zenbateraino hondatu eta aldrebestu dituen mota orotako ezagutza, diskurtso eta solasaldiak, agian ikusiko da merezi duela gai hau guztiz argitzeko astia hartzea. Eta barkatuko zait gehiegi eragin badiot nik neuk ekin beharrekotzat daukadan gai honi, honetan gizakiek egiten dituzten hutsegiteak egiazko ezagutzaren oztoporik handiena izatez gain, hain ondo ikusiak baitira, non ezagutza horren fruitutzat hartzen diren. Gizakiek maiz ikusiko lukete hain harroputz defenditzen dituzten iritzi horietan arrazoi edo egia gutxi dagoela, edo bat ere ez beharbada, baldin modan dauden soinuez haraindi begiratu eta ohartuko balira zein *idea*

sartzen diren eta sartu gabe geratzen diren edozein paradatan zeinahi gai segurtasun osoz azaltzeko arma moduan erabiltzen dituzten berba horietan. Nik neuk egiari, bakeari eta zientziari zerbitzuren bat egin diodala pentsatuko dut, baldin gai honi buruz luzatuta, gizakiei hizkuntzaz egiten duten erabilerari buruz gogeta egiten lagundu badiet eta arrazoiak eskaini badizkiet susmatzeko ezen, besteei sarri gertatzen zaienez gero, balitekeela eurek ere esanahi zalantzarri eta urriarekin edo bat ere esanahirik gabe erabiltzea, ahoz eta idazkietan, hitz baliozko eta onartuak. Eta horregatik badute arrazoirik honetan kontuz ibiltzeko eta besteei eurei buruzko azterketa egiten uzteko. Asmo honekin, beraz, aurrera egingen dut gai honi buruz oraindik esateko daukadanaren azalpenean.

VI. KAPITULUA

Substantzien izenez

1. *Substantzien izen komunek motak ordezkatzzen dituzte.*

Substantzien izen komunek, beste termino orokorrek bezala, *motak* ordezkatzzen dituzte, honek haxe baino esan nahi ez duelarik, alegia, izen horiek, zenbait substantzia partikular, euren ados datozelako edo etor daitezkeelako, beren baitan biltzen dituzten ideia konplexuen zeinu egiten direla, horren ondorioz ikusmolde baten barruan sar daitezkeelarik eta izen bakarraz adieraz. Ados datozela edo etor daitezkeela diot, zeren, munduan eguzki bat besterik ez balego ere, haren ideia abstraituz gero, substantzia gehiago (bestarik izanez gero) ideia horrekin ados etorri arte, ideia hau mota edo espeziea da, izar adina eguzki balego moduan. Eta batzuk, ez arrazoirik gabe, uste dute izar adina eguzki egon dagoela eta distantzia egokira kokaturiko edonorentzat izar finko orok eguzki hitzak adierazitako ideari erantzunen liokeela, honek, aldi berean, erakusten digularik gauzen mota, edo nahiago izanez gero, *genera* eta *espezies* (latinezko hitz horiek, nire iritzirako, gure motak besterik ez baitituzte adierazten) zenbateraino dauden gizakiek egindako ideia bilduma horien menpe, eta ez gauzen izaera errearen menpe, ez baita ezinezko, zehazki hitz eginda, batentzat izarra dena beste batentzat eguzkia izatea.

2. *Substantzi mota bakoitzaren esentzia gure ideia abstraktua da, izena ezarrita.*

Mota edo espezie bakoitzaren neurria eta muga, mota horretakoa izatea eta besteetatik bereiztea dakarkiena, *esentzia* deitzen dioguna eta izena erantsitako ideia abstraktua besterik ez dena da, halatan, non espezie horrek ideia horren baitako guztia esentziala duen. *Guk* ezagutzen ditugun substantzia naturalen esentzia guztia horixe bada ere, izen bereziz izendatzen dut nik *esentzia nominala* deituz, esentzia nominal hau eta mota horren propietate guztiak bere menpe dauzkan substantzien osaera errealetik bereizteko; eta, horregatik, osaera erreal honi, azaldu den moduan, esentzia erreala esan dakioke: esate baterako, urrearen esentzia nominala urre hitzak ordezkatzeko duen ideia konplexua da, honenbesteko pisua duena, xaflakorra, fundigarria eta finkatua. Baina esentzia erreala gorputz horren atal sentigaitzen osaera da, koalitate horiek eta urrearen beste propietate guztiak bere menpe dituenak. Bi horiek, biei esentzia deitu arren, zenbateraino diren ezberdinak, begi-bistakoa eta lehen ikusian ohartzekoa da.

3. *Esentzia nominalak eta errealak ezberdinak dira.*

Izan ere, nahiz eta nahitako higidura, sentimena eta arrazoi-mena dituen forma jakin bateko gorputza den agian nik eta beste batzuek gizaki izena ezartzen diogun ideia abstraktua eta, beraz, horrela deritzan espeziearen esentzia, hala ere inork ez du esanen ideia konplexu hori denik espezie horretako edozein banakotan aurkituko ditugun eragiketa guztien esentzia erreala eta iturria. Gure ideia konplexuaren osagai diren koalitate horien guztien funtsa oso bestalako zerbait da; eta gizakiaren higitzeko, sentitzeko, arrazoitze-ko eta beste eragiketa batzuk burutzeko ahalmenak darizkion osaera, haren forma erregularra ere bere menpe duena, geuk ere aingeruak beharbada ezagutzen duten moduan eta osaera horren Egileak dudarik gabe ezagutzen duen moduan ezagutuko bagenu, orain espezie horren definizioaren barruan dagoen ideiatik arras bestelakoa ukatzen genuke gizakiaren esentziaz, edonolakoa izanik ere; eta gizabanako bakoitzaz gurek ideia ere hain diferentea litzateke gaur dugunetik, nola diferentea den Strasbourgeko erloju sonatuaz haren eragingailu, gurpil eta beste pieza guztietaraino erloju hori ezagutzen duenaren ideia, erloju horren orratzaren higidura ikusi, ordukan-

paiaik entzun eta beste kanpoko itxura batzuetan erreparatu besterik egiten ez duenak daukan ideiatik.

4. *Banakoetan deus ez da esentziala.*

Bada zerbait erakusten duena esentzia, hitz honen ohiko erabileran, motekin erlazionatzen dela, eta izaki partikularretan, motetan sailkaturik dauden heinean ez bada, ez dela aintzat hartzen, eta zerbait hori honako hau da, alegia, banakoak espeziatar ekartzeko eta izen komunetan pean sailkatzeko erabiltzen ditugun ideia abstraktuak kenduez gero, haietan esentziala dela baieztatu lezakeen pentsamendu oro berehala ezabatzen ikustea; izan ere, bataren inolako nozioirik ez dugu bestea gabe, eta honek nabarmen uzten du bion arteko erlazioa. Ezinbesteko dut nik naizen bezalakoa izatea: Jainkoak eta naturak horrelakoxea egin naute baina nik daukadan ezertxo ere ez dut esentzial. Istripu batek edo gaitzak alda dezake arras nire kolorea edo nire gorpuzkera; sukarrak edo erorketak arrazoimenik edo oroimenik gabe, edo bata ez bestea gabe, utz nazake; apoplejiaren eraginez sentimenik, adimenik, bizirik gabe gera naiteke. Nire moduko forma duten beste kreature batzuk nik daukadan baino ahalmen gehiago eta hobe edo gutxiago eta txarragoz horniturik egindakoak izan daitezke; beste batzuek arrazoimena eta sentimena ukan ditzakete, nirea ez bezalakoa eta oso bestelako forma eta gorputzaren jabe izanda. Horrelako ezer ez zaio esentziala ez batari ez besteari, ezerein banakori, harik eta gogamenak gauzen mota edo espezieren batekin erlazio-natu arte. Nork bere pentsamenduak aztertuz gero aurkituko du ezen, esentziala suposatuta eta hartaz mintzatzen hasi bezain laster, espezieren baten gogorapena edo izen orokorren batekin adierazitako ideia konplexua datorkiola gogamenara, eta honexekiko erreferentzian hain zuzen esaten da koalitate hori edo bestea esentziala dela. Hartara, arrazoimena edukitzea esentziala ote zaidan edo beste edozein gorpuzdun izakiri esentziala ote zaion galdetzen bazait, ezetz erantzunen dut; ez behintzat esentzialagoa idazten ari naizen gauza zuri honi hitzak edukitzea esentziala zaion baino. Baina izaki partikular hori gizaki mota horretakotzat hartzen bada eta *gizaki* izena eman bazaio, orduan arrazoimena esentziala du, arrazoimena gizaki izenak ordezkatzeko duen ideia konplexuaren zati dela jota. Ni idazten ari naizen gauza zuri honek hitzak edukitzea esentzial duen moduan, *tratatu*a izenaz izendatu eta espezie horretan sailkatu nahi badut. Esentziala

edo ez-esentziala, beraz, geure ideia abstraktuekin eta berauei ezarritako izenekin erlazionaturik dago; eta honek beste hauxe baino ez du esan nahi, alegia, termino orokor jakin batek ordezkatzan duen ideia abstraktuan dauden koallitateak ez dituen edozein gauza partikular ezin daitekeela espezie horren barruan sailka, ez eta izen hori berari erants ere, espezie horren benetako esentzia ideia abstraktua delako.

5. Substantzia indibidualetan hautematen ditugun esentzia bakarrak substantzia horiei dituzten izenak hartzeko eskubidea ematen dien koallitateak dira.

Horiek horrela, *gorputzaren* ideia, zenbaitzuek nahi duten bezala, hedadura edo espazio hutsa bada, orduan solidotasuna ez du esentzial gorputzak. Beste batzuek erabakitzen badute berek gorputz izena ematen dioten ideia solidotasunak eta hedadurak osatzen dutela, orduan hedadura esentzial du gorputzak. Ondorioz, mota baten izenak adierazten duen ideia konplexuaren osagai dena, eta huraxe bakarrik, hartzen da esentzializat, berau barik ez baitago ezein gauza partikular espezie horren barruan sailkatzerik, ez izen horrekin izendatzerik. Materi zati bat aurkituko balitz, burdinaren beste koallitate guztiak leuzakeena imanaren erakarmena jaso eta hark emandako norabide zehatza hartzekoa izan ezik, galdetuko ote luke inork ea materi zati horrek ezer esentzialik falta duenentz? Zentzugabekeria litzateke egiazki existitzen den gauza batek zerbait esentziala falta ote duen galdetzea. Edo galdetu al liteke honek diferentzia esentzialik edo espezfikorik egiten duen, gauzen esentzia edo espeziea zein den ebazteko geure ideia abstraktuak beste neurrik ez daukagunez gero? Eta *naturako* alde espezfikoez mintzatzea izenetan dauden ideia orokorrezt mintzatu gabe inork ezin ulertzeko moduan mintzatzea da. Zeren galdetu nahi nizueke zerk egiten duen naturan izaki partikular biren arteko alde esentziala, espezie baten esentzia eta molde legez hartzen den ideia abstraktuari erreferentziarik egin ezean. Eredu eta molde horiek guztiak albo batera utzita, beren baitan soilik kontsideraturiko izaki partikularrek beren koallitate guztiak era berean esentzial dituztela aurkituko dugu, eta banako bakoitzak gauza oro izanen duela esentzial, edo, gogorragoa dena, ezer ere ez duela esentzial izanen. Izan ere, imanak erakarria izatea burdinak esentzial duenentz galdetzea arrazoizko izan daitekeen arren, desegokia eta arinkeria hutsa dela uste dut ea neure luma zorrozteko erabiltzen dudana materi zati

honek hori esentzial duen galdetzea, burdina izenaren pean edo espezie zehatz batekotzat hartu gabe. Eta baldin, esan dugun moduan, espezieen muga izenak ezarrita dituzten ideia abstraktuak badira, ideia horien barruan dagoena besterik ezin da esentziala izan.

6. *Substantzien esentzia errealek ere mota («sort») potentzia - lak inplikatzan dituzte.*

Egia da maiz aipatu dudala esentzia erreala, substantzietan euron ideia abstraktuetatik ezberdina dena eta nik beraien esentzia nominala deitu diodana. Esentzia erreala esanez gauza bakoitzaren osaera erreal hori esan nahi dut, esentzia nominallean konbinaturik dauden eta berarekin etengabe bizikidetzen aurkitzen ditugun propietate guztien funtsa dena, gauza bakoitzak bere baitan duen osaera partikularra, kanpoko ezerezikiko inolako erlaziorik gabe. Baina esentzia, kasu honetan ere, *mota batekin lotzen da eta espezie bat suposatzen du*. Zeren, esentzia propietateak bere menpe dituen osaera erreala denez, gauzen mota bat suposatzen du, propietateak banakoei barik, espezieari dagozkio eta; adibidez suposaturik urrearen esentzia nominala kolore partikular bat eta pisu bat eta, gainera, xaflakortasuna eta fundigarritasuna ere badauzkan gorputza dela, esentzia erreala kolaitete horiek eta euron batasuna bere menpe daukan materi atalen osaera da; eta *aqua regiata*n disolbagarritasunaren eta ideia konplexuarekin doazen beste propietate batzuen funtsa ere bada. Hauek esentziak eta propietateak dira, beti ere aldaezintzat jotzen den mota edo ideia abstraktu orokor bat suposatuz gero; baina ez dago materi txatal indibidualik, koalitete horiek esentzial edo berarengandik bereiztezin izateko moduan atxikita dituenik. Esentzial den oro halako edo holako motakoa delako dagokio banakoari; baina ideia abstrakturen baten izenpean sailkatutik egotea kenduz gero, orduan ez dago ezer beharrezko duenik, ez dago ezer banako horrengandik bereiztezin denik. Benetan ere, substantzien esentzia errealei dagokienez, badi-rela suposatzen dugu, baina ez dakigu zer diren; hala ere, espezieekin beti lotzen dituen esentzia nominala da, ustez beronen funtsa eta kausa direlarik.

7. *Esentzia nominalak zehazten digu espeziea.*

Hurrengo puntuan substantzien mota edo espezieak zein esentziak zehazten dituen ikusiko dugu. Argi dagoenez, esentzia nominala da hori egiten duena, berau baino ez baitu adierazten motaren iku-

rra den izenak. Ezinezko da, horregatik, izen orokorren pean guk sailkatzen ditugun gauzen motak zehazten dituenen, izen horrek markatzen duen ideia, azaldu dugun moduan esentzia nominala deritzana ez den beste ezer izatea. Zergatik esaten dugu hau zaldia da. hori mandoa, hau aberea da, hori belarra? Nola heltzen da gauza partikular bat mota honetakoa edo hartakoa izatera, esentzia nominal horixe daukalako baino, edo berdin dena, izena ezarrita daukan ideia abstraktu horrekin bat datorrelako baino? Eta nork bere pentsamenduak hausnartzea nahi nuke, horrelako edo bestelako substantzien izenak entzutean edo erabiltzean izen horiek zer motatako esentziak ordezkatzten dituzten jakiteko.

8. *Espezieen izaera geuk eratzen dugu.*

Eta hemendik gauzen espezieak ez dautzala, guri dagozkigunez, izen ezberdinen pean sailkatzean baino, gure baitako ideia konplexuen arabera, eta ez *haietan* dauden esentzia errealek zehatz eta bereizien arabera argi ageri da honako hau egiaztatzean, alegia, mota berean sailkaturiko eta izen beraz izendaturiko eta, beraz, espezie berekotzat harturiko banako askok beren osaera errealearen menpeko propietateak dituztela, espezie berekoen propietateetatik espezie differentekoenetatik bezain ezberdinak direnak. Nekerik gabe egiazta dezake hau gorputz naturalak azter ditzan edonork, eta kimikariak bereziki maiz gertatzen dira horretaz etsirik esperientzia gogaikarrien bitartez, sulfuro, antimonio edo bitriolo zati batean mineral berorien beste zati batzuetan aurkituriko koalitaten bila alferrik dabiltzanean. Izan ere, espezie bereko gorputzak eta izen beraren pean esentzia nominal bera dutenak izan arren, maiz, metodo zorrotzez aztertu ondoren, kimikaririk artasuenen esperantzak eta lana zapuzterainoko koalitete ezberdinak erakusten dituzte batetik bestera. Baina gauzak espezieetan beren esentzia errealean arabera bereiziko balira, hain ezinezko litzateke espezie bereko edozein bi substantziatan propietate ezberdinak aurkitzea, nola ezinezko den zirkulu bitan edo triangelu aldekin bitan propietate ezberdinak idorotzea. Esentzia da, izatez, guretzat gauza partikular bakoitza klase batera edo bestera edo, gauza bera dena, izen orokor batera edo bestera mugatzen duena; eta esentzia ezin izan daiteke izen hori ezarrita daukan ideia abstraktua besterik; eta, horregatik, gauzen izate partikularrekin baino gehiago, euren izen orokorrek duen lotura.

9. *Espeziea zehazten duena ez da esentzia erreala edo atalen ehundura, ez dugu ezagutzen eta.*

Izan ere, ezin ditugu gauzak motetan sailkatu ez eta berauei izenak jarri ere, sailkatzearen helburua dena, euren esentzia errealean bidez. Gure ahalmenez ez garamatzate substantzien ezagutza eta bereizpenetik hurbilagora, *beraietan hautematen ditugun ideia senti - garri horien* bildumak baino. Izan ere, bilduma hori, ahal dugun arta eta zehaztasunik handienaz egindakoa izan arren, koalitate horien iturburu den benetako barne osaeratik urrunago dago, baserritar batek Strassbourgeko erloju ospetsuaz daukan ideia, lehen esan dudana bezala, kanpoko itxura eta higidurak baino ikusten ez dizkion erloju horren barne mekanismotik baino. Ez dago landare ez animaliarik, adimenik hornituena txunditurik eta nahasirik ez uzteko bezain mesprezagarria denik. Inguruan ditugun gauzak arrunki erabiltzeak haiek eragiten diguten mirespena itotzen badigu ere, horrek ez dio, haatik, gure ezjakiteari erremediorik jartzen. Zapaltzen ditugun harriak edo egunero eskuartearen darabilgun burdina aztertzen jartzen garenean, berehala ikusten dugu ez dugula ezagutzen zerez eginak diren eta ez garela gai beraietan aurkitzen ditugun koalitate ezberdinen arrazoirik emateko. Begi-bistakoa da ez dugula ezagutzen harrien eta burdinaren barne osaera, berorien propietateak menpe dituen; zeren, lodienez eta bistakoenez baino ez mintzatzeko, zein da beruna eta antimonia —zura eta harriak ez, ordea— fundigarri bihurtzen dituen atalen ehundura hura, esentzia erreal hura? Zerk egiten du beruna eta burdina xaflakor, baina antimonia eta harriak ez? Eta, hala ere, edonork daki nolako distantzia infinitua dagoen hauetatik landare eta animalien mekanismo finetara eta esentzia erreal bururaezinetara. Jainko orojakitun eta ahalguztidunak unibertsoa obra handian eta beronen atal guztietan egindako lanak gizakirik jakinzaleen eta argienaren gaitasuna askoz goragotik gaintitzen du, asmalari onenaren artefaktuak krea-tura arrazoidun ezjakinenaren pentsamenduak gaintitzen dituen baino. Horregatik, alferrik ari gara gauzak motetan sailkatu nahirik eta izenen pean klaseka ipintzen deskubritu ez ulertu ezin ditugun euren esentzia errealean bidez. Hain erraz sailka ditzake gauzakitsuak kolo-rean bidez, baita usaimena galdu duenak lilia larrosatik usainez bereizi ere, nola inondik ere ezagutzen ez duen barne osaeraren bidez. Uste duenak berak ardia ahuntzetik euren esentzia errealean bidez bereiz

dezakeela, egin beza aproba kasuario eta querechinchio deritzen espezieak abereon esentzia errealean bidez bereizten eta beraien arteko mugak zehazten saiatuz, abereok bizi diren herrialdeetan izen horiek ordezkatzan dituzten koalitate sentigarrien ideia konplexua ezagutu gabe, eta konturatu da noraino heltzen den bere trebezia.

10. *Forma substantzialak ere ez du zehazten espeziea, are gutxiago ezagutzen dugu eta.*

Horregatik, honako irakaspen hau jaso dutenak, alegia, substantzien espezie ezberdinek beren barne *forma substantzialak* dituztela eta *forma* horiek egiten dutela substantzien arteko bereizpena benetakoa espezie eta generotan, horiek are desbideratuago gertatu dira, euren gogamenak alferreko bilaketan jarri dituztelako erabat ulertezinak diren «forma substantzialen» atzetik, eurotaz ideia ilun eta nahasia ere orokorrean eta ozta-ozta baino ez daukagu eta.

11. *Esentzia nominalaren bitartez bereizten ditugula espezieak substantzietatik are argiago ageri da izpiritu finituez eta Jainkoaz ditugun ideien bidez.*

Espirituaz ditugun ideiek are argiago uzten dute guk substantzia naturalak espeziatan sailkatu eta bereiztearen funtsa gogamenak egindako esentzia nominaletan datzala, eta ez gauzetan eurentan aurkitu beharreko esentzia errealetan. Izan ere, gogamenak bere eragiketak hausnartuz baino ez dituelarik espirituari egotzen dizkien ideiak erdiesten, ez dauka edo ezin du eduki espirituaren noziorik, bere baitan aurkitzen dituen eragiketa guztiak mota bateko edo besteko espirituari egotziz baino, materia kontuan izan gabe. Eta Jainkoaz dugun noziorik aurreratuena ere honelaxe erdiesten dugu, alegia, geure baitan aurkitzen duguna hausnartuz erdietsi ditugun ideia bakunak, edukita ez edukita baino perfekzio handiagoaren ekarletzat ditugunak, Jainkoari mugarik gabeko mailan egotziz. Horretara, geure baitan hausnartu eta existentziaren, jakintzaren, ahalaren eta atseginaren ideia erdietsiz gero —horiek edukitzea falta izatea baino hobetzat daukagularik, eta zenbat eta maila altuagoan eduki hobeto— guztiak batuz eta denei amaigabetasuna erantsiz, izaki betiereko, ahalguztidun, amaigabeki jakintsu eta zoriontsuaren ideia konplexua erdiesten dugu. Eta aingeru espezie ezberdinak existitzen direla esan diguten arren, ez dakigu nola eratu haien ideia espezifikoki ezberdinak, eta ez espiritu espezie bat baino gehiago izatea ezinezkotzat daukagulako,

baizik, espiritu horiei aplikatzeko moduko ideia gutxi batzuk baino ez daukagunez (eta gehiago eratzeko gai ez garenez), pentsatzean, zoriontsu izatean eta gure gorputzaren atal ezberdinak mugitzean geugandik eta burutzen ditugun eragiketarik harturikoak direnak, espirituaren espezie ezberdinak bata bestetik bereizi ezin ditugulako gure pentsamenduetan, geugan somatzen ditugun eragiketa eta ahalak haiei, batzuei maila handiagoan eta beste batzuek txikiagoan, egotziz izan ezik; eta horrela ez dugu espirituaren ideia espezifikoko oso bereizirik erdiesten, Jainkoa soilik apartatuta, honi iraupena eta aipatu ideia guztiak maila infinituan egozten baitizkiogu, beste espirituak maila mugatuan egozten dizkiegun bitartean; eta neure uste apalean, Jainkoaz eta beste espirituak ditugun ideietan, aldea bat az eta besteak ditugun ideia bakun kopuruan barik, infinitutasunean soilik jartzeko dugu. Existentziaren, jakitearen, nahimenaren, ahalaren, higiduraren eta abarren ideia partikular guztiak, geure gogamenaren eragiketarik etorriak direnez, espiritu orori aplikatzen dizkiegu, alde bakarra mailetakoa delarik, imajinatu ahal dugun gehieneraino, are infinituraino joz, Lehen Izakiaren ideia ahalik ongien eratu nahi dugunean; izaki hau, hala ere, bere izaeraren benetako gorenatasunean urrunago dago, dudarik gabe, izaki kreaturik hobezin eta gorenarengandik, gizakirik handiena eta are serafinik serafinena materiaren zati mesprezagarrietatik dagoen baino; eta, beraz, amaigabeko aldearekin gaituzten du ezinbestez Jainkoak gure adimen laburrak berraz buruz pentsa lezakeena.

12. *Seguru asko espiritu finituen zenbateraino ezin ahalak espezie existitzen dira mailakako segida jarraikian.*

Ez da ezinezko ez eta arrazoiz kontrako ere bururatzea espiritu espezie asko izan daitezkeela, guk ezagutzen ez ditugun propietate diferentek bitarteko, elkarrengandik oso urrunduak eta ezberdinak direnak, gauza sentigarriak, guk ezagutzen eta euren hautematen ditugun koalitateak medio, elkarrengandik diferentek diren modura. Kreatura adimendunaren espezie gehiago izan daitezkeela gure gaitetik, gure azpitik gauza sentigarri eta materialen espezieak diren baino, daitezkeena da niretzat, honexegatik hara, mundu sentigarri eta gorputzunean hutsunerik edo soilunerik ikusten ez dugulako. Gogandik beherako bidean urrats errazez jaisten gara gauzen etengabeko segidan zehar, hauek bata bestetik tarte bakoitzean apenas bereizten dire-

larik. Badira arrain hegaldunak, airea arrotz ez zaiena, eta uretan bizi diren txoriak, arrainak bezain odol hotzekoak, eta zaporea ere hain dute arrainaren antzekoa ezen eskrupulosoek zilegi zaiela bijili egune-tan hura jatea. Animalia batzuk hain hurbil daude hegaztien eta aldi berean piztien espezieetik, non bion katebegia diren. Anfibioek berdin daukate lehorreko zein uretako piztiatik. Fokak lehorrean bezala itsa-soan bizi dira; eta marsupialek odola bero dute eta erraiak zerriarenak, sirenei eta itsasgizonei buruz kontatzen dena ez aipatzearren. Ba omen dira piztiak itxuraz gizaki deritzan zenbait animaliak beste eza-gutza eta arrazoimen dutenak; eta animalia eta landareen arteko aldea hain da txikia, non haietarik beherena hartu eta hauetarik gorena eta ez baituzue euren arteko alderik ia nabarmenduko. Horrela, izadiko atalik baxuen eta gutxien antolatuetara iritsi arte, nonahi ohartuko gara espezieak elkarri lotuta daudela eta bata besteengandiko berezi-tasunak ia ohartezinak direla. Eta gauza guztien egilearen jakituria eta ahal mugagabea gogoan hartzen badugu, pentsatu beharko dugu, kre-atura espezie ezberdinak, gugandik beherantz mailaka jaisten ikusten ditugun bezalaxe, gorantz ere gugandik haren jainkozko perfekziora apurka-apurka hurbiltzen direla, unibertsoko harmoniarekin eta disei-nu handiarekin bat, eta arkitekto gorenaren ontasun infinituarekin ados. Beraz, arrazoiak ditugu sinetsita egoteko gugandik gorantz dau-den kreaturak askoz gehiago direna gugandik beherantzkoak baino, zeren perfekzio mailatan askoz urrutiago baikaude Jainkoaren izaera infinitutik, izakiaren beherengo mailatik, ezerezera hurbiltzen denetik baino. Hala eta guztiz, ideia argi bereizirik ez dugu, gorago esandako arrazoiengatik, espezie ezberdin hauei guztiei buruz.

13. *Uraren eta izotzaren adibideek esentzia nominala guk bururatzin dugun espeziearena dela frogatzen dute.*

Baina berriro substantzia gorpuzdunetara etorritz, norbaiti gal-detuko banio ura eta izotza espezie bitakoak diren, ez dut dudarik egi-ten baietz erantzunen lidakeela, eta ez dago ukatzerik bi espezieta-koak direla dioena zuzen dagoela. Baina Jamaikan hasitako ingeles bat, izotza sekula ikusi gabekoa eta munduan denik ere entzun gabekoa Ingalaterrara neguan etorri eta gaez terrainan ipinitako ura gehienbat izoztuta aurkituko balu goizean, eta izen berezirik daukanik jakin ez eta ur gogortua deituko balio, uraren espezieetik diferentea eta berria ote litzateke ur gogortu horrena? Kasu honetan erantzuna ezetza litza-

tekeela uste dut, hau da, harentzat ez litzatekeela espezie berria, izozturiko gelatina hotzik dagoenean, epel eta fluido dagoen gelatinarenetik ezberdina den espeziekoa ez den bezala, eta labean dagoen urre likidoa langileak eskuartean darabilen urre gogorrarenetik diferentea den espeziekoa ez den bezala. Eta hau horrela bada, *argi dago gure espezie ezberdinak ideia konplexu ezberdinak baino* ez direla, izen ezberdinak ezarrita. Egia da existitzen den substantzia orok bere osakera berezia duela, beronen menpe daudelarik haren baitan hautematen ditugun koalitate eta ahal sentigarri guztiak; baina gauzak espezieta sailkatzea (izenburu ezberdinen pean motatan jartzea baino ez dena) haietaz *geuk* ditugun ideien arabera egiten dugu; eta hau nahikoa dugu haiek izenez bereizteko eta aurrean ez ditugunean beraiei buruz mintzatu ahal izateko, baina uste baldin badugu hau gauzen barne osakera errealean oinarrituta egiten dugula eta gauzak naturak berak bereizten dituela espezieta euren esentzia errealean arabera, guk izenen bidez espezieta bereizten ditugun modura, orduan errakuntza handitarako arriskutan gabilta.

14. *Esentzia erreal zenbait dagoela suposatzeko zailtasunak.*

Izaki substantzialak uste arruntaren arabera espezieta bereizteko, hau da, gauzen esentzia edo forma zehatzak baleude bezala eta, ondorioz, existitzen diren banako guztiak era naturalez espezieta bereiziko balira bezala, hauek behar dira:

15. *Suposizio gordina.*

Lehenik, ziurtatu beharra dago natura, gauzak sortzean, gauzok zenbait esentzia arautu eta ezarritan parte har dezaten saiatzen dela beti, esentziok sortu beharreko gauza guztien eredu izan daitezten. Honek, horrela hain gordinki proposaturik, egin ohi den moduan, azalpen hobia behar luke erabat onartu aurretik.

16. *Mustroen jaiotzak.*

Bigarrenik, beharrezko litzateke jakitea ea natura beti iristen den gauzak sortzean jarritako helmuga horretara. Mota ezberdinetako animalien artean ikusi izan diren mustroen jaiotzek arrazoiak eskaintzen dizkigute baldintza hauetariko batzuek zein besteaz zalan-tzak izateko.

17. *Mustroak benetako espezie ezberdinak ote diren.*

Ebatzi beharko genuke, hirugarrenik, ea mustro deritzen horiek

ez ote diren benetako espezie bereizi bat espeziearen nozio eskolastikoaren arabera, existitzen den gauza orok bere osaera partikularra duela egia denez gero. Baina hala ere aurkitzen dugu halako mustroek oso gutxi dutela euren jatorrizkoa omen den espeziearen esentziaren koaliteteetatik, jaiotzatik euren omen duten espeziearen esentziarenetatik, alegia.

18. *Gerta liteke giza esentzia errealean ideiarik ez eduki gata.*

Laugarrenik, espeziatan bereizten ditugun eta horrela bereizirik izena jartzen diegun gauza horien esentzia errealak ezagutu egin behar genituzke, hau da, haiei buruzko ideiak eduki behar genituzke. Baina aipaturiko lau puntuotan ezjakin gaudenez, gauzen esentzia errealek ez digute ezertan balio substantziak espezieka bereizteko.

19. *Gure substantzien esentzia nominalak ez dira haien esentzia errealei darizkien propietateen bilduma perfektuak.*

Bosgarrenik, auzi hau argi uzten lagunduko ligukeen gauza bakarra hauxe litzateke, alegia, guk gauzen esentzia errealei darizkien propietateen ideia konplexu oso-osoak eratu ondoren, berauen bidez espezieka bereiztea. Baina hau ere ezin daiteke egin. Izan ere, esentzia erreala bera ezagutzen ez dugunez, ez daukagu beroni darizkion propietate guztiak ezagutzerik, eta propietateok hain baturik daude esentzia horrekin, non gauzaren batean euretako bat falta izanez gero, ziur atera dezakegun ondorioz gauza hori ez dela espezie horretakoa. Ez dugu inondik ere jakiterik errearen esentzia errealaren menpe dauden propietateen kopuru zehatza eta, haietako bat falta izanez gero, han ez legoke errearen esentzia errealik eta, beraz, urrerik, errearen esentzia bera ezagutu eta esentziatik espeziea zehaztu ezik. Hemen *urte* hitza darabildanean materi piezatxo bat izendatu nahi dudala ulertu behar da, adibidez, azken txanponduriko ginea. Zeren, hemen hitz hau nik edo beste edozeinek normalean daukan errearen ideia konplexuaren ordain moduan hartzen bada, hau da, errearen esentzia nominalizat, orduan hitzmordoiloa litzateke, holakoxe zaila baita, izan ere, hitzen esanahi ezberdinak eta akatsak agerian jartzea, hori egiteko hitzak besterik ez ditugunean.

20. *Izenak, beraz, ez daude esentzia errealei loturik.*

Honetatik guztitik argi ageri da izenen bidez substantziak ezpezieetan bereizteko ez garela inondik ere esentzia errealetan oinarri-

tzen, eta ez daukagula esaterik substantziak barne diferentzia esentzialen arabera sailkatu eta zehazten ditugula espezetan.

21. *Alderantziz, geuk jarritako izenaz ordezkatu nahi ditugun ideia bakunen bilduma ordezkatzan dute.*

Baina, seinalatu den moduan, gauzen esentzia errealak ez eza-gutu arren hitz orokorrak behar ditugunez, egin dezakegun gauza bakarra zera da, azterketaz gauzetan elkartuta aurkitzen ditugun ideia bakun guztiak bildu eta eurekin ideia konplexu bakarra egin. Eta hau existitzen den ezein substantziaren esentzia erreala ez den arren, hala ere gure izena dagokion esentzia espezifikoa da eta bataren ordeztzea erabil genezake, eta hau eginez esentzia nominal horien egia ala gezurra egiazta. Esate baterako, bada dioenik gorputzaren esentzia *hedadura* dela. Hau horrela bada, ezin gara inoiz erratu gauza baten ordeztzea gauza horren esentzia jarritz. Jar dezagun, beraz, diskurtsoan hedadura gorputzaren ordeztzea, eta gorputza mugitzen dela esan nahi dugunean, esan dezagun hedadura mugitzen dela, eta ikus dezagun nola geratzen den esaldia. Hedadurak bulkadaz beste hedadura bat higiarazten duela liokeenak aski garbi utziko luke nozio horren absurdutasuna. Gauza baten esentzia, gurekiko, izen horrek hartzen eta markatzen duen ideia konplexu osoa da; eta substantzietan, osagai dituzten ideia bakun ezberdinez gain, bada beti beste ideia nahasi bat ere, substantziaren edo ideia bakunen euskarri eta kausa ezezagun baten ideia, alegia; eta horregatik gorputzaren esentzia ez da hedadura, gauza solido hedatua baizik; eta horrela gauza solidoa higitzen dela edo beste bati bultzatzen diola esatea, *gorputza* higitzen dela eta beste bati bultzatzen diola esatea adina da, eta hau bezain ulergarria. Era berean, animalia arrazoiduna mintzatzeko gai dela esatea, gizakia hori berori egiteko gai dela esatea adina da; baina inork ez du esanzen arrazoimena mintzatzeko gai denik, arrazoimenak soilik ez duelako egiten gizaki izenaz mugatzen dugun esentzia osoa.

22. *Gizakiaren ideien adibidea, geuk egiten ditugun espezieen neurria geure ideia abstraktuak ditugula azaltzeko ekarrita.*

Badira munduan kreaturak gurearen antzeko forma dutenak, baina ilez estalita daude eta ez dute ez arrazoimenik ez hitzik erabiltzen. Badira gure artean inozoak gure itxura berekoak baina arrazoimenik gabeak, eta batzuk hitz egin ere ezin dutenak. Ba omen dira, diotenez, (*sit fides penes authorem*, baina badirudi horiek existitzeak

ez daukala kontraesanik), arrazoimena eta mintzamina erabiltzen dituzten kreaturak, isats iletsua salbu, gurea bezalakoxe itxura osokoa; beste batzuetan arrak bizargabeak dira eta emeak bizardunak. Kreatura horiek guztiak giza espeziekoak diren ala ez galdera egitean, argi dago galdera esentzia nominalari soilik doakiola, zeren gizaki hitzaren definizioa edo hitz horren bidez adierazitako ideia konplexua betean dagokien aipaturikoak gizakiak baitira, eta besteak ez. Baina galdera ustezko esentzia errealarari buruz egiten bada eta kreatura ezberdin horien osaera eta egitura espeziez diferentea den ala ez garbitzeko bada, inondik ere ez dugu horri erantzuterik, haren zatirik ere ez baita gure ideia espezifikoan sartzen, nahiz eta pentsatsera irits gaitzkeen ahalmenak eta kanpoko itxura hain ezberdinak direnean, barne osaera ere ez dela berdina izanen. Baina alferrik da galdetzea barne osaerako zein alde egiten duen diferentzia espezifikoa, espeziea neurtzeko bide bakarra ezagutzen ditugun geure ideia abstraktuak ditugun bitartean, eta ez ideiotan inondik ere sartzen ez den aipatu barne osaera. Zer eta azaleko ilearen aldea ote da, bada, ergelak eta drilak barne osaera espezifiko ezberdina dutela adierazten duen seinalea, hala forman nola arrazoimenik ez mintzamenik ez izatean bat datozenean? Ez ote da arrazoimenik eta mintzamenik eza ergelak eta gizaki arrazoimendunak osaera erreale ezberdina dutela eta espezie diferentekoak direla adierazten duen seinalea? Eta gauza bera gertatzen da beste guztiari buruz ere, espezieen eta moten arteko bereizketa gauzen egitura errealak eta ezkutuko osaerak markatzen dutela uste izanez gero.

23. Abereetan espezieak ez dira sortzapenez bereizten.

Ez dezala inork esan animalietan elkartze bidezko ugalketak eta landareetan hazi bidezkoak espezie erreale direlakoak ezberdin eta euren osotasunean mantentzen dituela beti. Zeren honek, egia dela jota ere, animalien eta landareen espezieak bakarrik finkatzen lagunduko liguke. Gainerakoekin zer egin? Bestalde, horientzat ere ez litzateke aski, zeren historiari kasu eginen badiogu, zenbait emakume haurdun geratu da drilen eraginez. Eta horra auzi berria: zein espezie errealetakoa ote den naturan produktu hori. Eta badugu arrazoirik uste izateko hau posible dela zeren, sarritan sortzen baitira mundura mandoak eta astakoak, astoak eta behorrak ernarazia lehenengoa, zezanak eta behorrak bigarrena. Behin katuak eta arratoiak ernarazitako ani-

malia ikusi nuen eta bi piztion ezaugarri nabariak zituen; agerian zegoen naturak ez ziola biotako bat bakarraren ereduari jarraitu, bienak batean nahasi baizik. Honi guztiari naturan hain maiz topatzen ditugun mustro antzeko sorkariak gehitzen dizkiona, ohartuko da animalari arrazetan ere ez dela batere erraza leinuaren bidez ondorengo bakoitzaren espeziea zehaztea; eta esentzia erreala, bere ustez sortzazenez ziur transmititzen dena eta izen espezifikorako eskubidea duen bakarra dena, topatu ezinik ibiliko da galduta. Baina areago, baldin animalari eta landare espezieak ugalketaz soilik bereizten badira, Indiara joan behar ote dut tigre baten aita-amak ikustera eta te landarearen hazia egiaztatza, hau tigrea edo hura tea den jakiteko?

24. *Forma substantzialen bidez ere ez.*

Ikuspuntu honetatik, bistakoa da gizakiek beren koalitate sentigarrien bildumak bihurtzen dituztela beren substantzia moten esentzia, eta espezieak sailkatzean gizakirik gehienek ez dituztela substantzien barne egitura errealak kontuan hartu. Askoz gutxiago irakatsi ditu inork forma substantzialak, salbu eta eskoletako hizkera ikasi dutenek; eta hau geu bizi garen lekuan soilik gertatu da mundu osoan. Hala ere, esentzia errealean sakondu beharrik ikusten ez duten eta forma substantzialek inola ere arduratzen ez dituzten gizaki ezjakin hauek gauza batzuk besteen bidez, euren koalitate sentigarrietatik, ezagutzeaz konformatzen direnek sarritan hobeto ezagutzen dituzte gauzen arteko aldeak, gauzak erabiliaz hobeto bereizten dituzte bata bestetik eta hobeto dakite zer espero dezaketen gauza bakoitzetik, gauzen barru-barruraino begiratu eta han ezkutaturik dagoen esentziaz hain seguru mintzo diren gizon ikasi eta adimen zoliko horiek baino.

25. *Eskuarki gizakiek eratzen dituzten esentzia espezifikoak.*

Baina ikerketa honetara buru-belarri dedikatzen direnek substantzien esentzia errealak aurki ditzaketela suposatuz ere, ezin izanen genuke, hala ere, arrazoiz pentsatu gauzak izen orokorren pean sailkatzea barne osaera erreala horiek edo *berez* aurkezten diren agerikizunak ez diren beste ezerk arauturik dagoenik, hizkuntzak, herrialde guztietan, zientziak baino askoz lehenago moldatu baitziren. Hartara, ez dira izan formen eta esentzien inguruan arduratuta ibili diren filosofoak, logikariak edo horrelako jendea gizakien nazio ezberdinetan erabiltzen diren izen orokorrak egin dituztenak; aitzitik,

termino gutxi-asko zabal horiek, hizkuntza guztietan, gehienbat jende ezjakin eta eskola gabeak sortu ditu eta esanahia eman die, beroriek izan direlarik gauzak motaka sailkatu eta izendatu dituztenak eurretan aurkitu dituzten koalitate sentigarrien bidez, gauza horiek bertan ez daudenean besteei adierazteko, hala espezie bat nola gauza partikular bat aipatu behar den guztian.

26. *Horregatik, ezberdinak eta zalantzaak dira gizaki ezberdinen gogamenetan.*

Substantziak, beraz, esentzia errealeen bidez barik esentzia nominalen espezietan sailkatu eta izendatzen ditugula argi dagoenez gero, esentzia horiek nola eta nork egiten dituen aztertu behar dugu hurren. Bigarrenari dagokionez argi dago adimenak egiten dituela, eta ez naturak, zeren, naturaren sorkari balira, ez lirateke hain diferente eta ezberdinak gizaki ezbedinetan, esperientziak erakusten digun bezala. Zeren aztertzen hasten bagara, ez dugu topatuko substantzien espezie bat bera ere gizaki guztien baitan berdina denik, ez eta sakon- en ezagutzen dugun substantziaren kasuan ere. Naturak eginak balira, ez litatzeke posible gizaki izenari dagokion ideia abstraktua ezberdina izatea gizaki ezberdinengan: batentzat *animal rationale* izatea eta beste batentzat *animal implume bipes latis unguibus*. Gizaki izena sentipenak, berezko higidurak eta forma jakin bateko gorputzak osaturiko ideia konplexuari lotzen dionak, giza espeziearen esentzia bat dauka; eta azterketa apur bat sakonago egin ondoren horri arrazionaltasuna gehitzen dionak, gizakia deitzen dion espeziearen beste esentzia bat dauka; eta, era horretan, banako bera batentzat benetako gizaki izan daiteke eta bestearentzat ez. Ez dut uste inork onartuko duenik hain ezagun den forma zut hori dela giza espeziearen alde esentziala. Hala ere, ageriko gauza da askok bereizten dituztela animalien espezieak hauen kanpoko forman oinarriturik, ez jaiotzan, behin baino gehiagotan izan baitira zalantzak ea zenbait giza foetus bataiorako gai ziren ala ez, kanpoko itxuraz ohiko haurrak bezalakoak ez zirelako, beste eredu batekoak arrazoimen bererako gai ote ziren jakin gabe; izan ere, haien artean ere badira batzuk, forma normalekoak izanda ere, bizitza osoan tximinoarena edo elefantearena baino arrazoimen gehiago erakutsiko ez dutenak, eta adimendun arimak gidatzen dituen seinalerik inoiz erakutsiko ez dutenak. Argi dago, beraz kanpoko forma edukitzea, hau da, falta dela ez egiaztatzea, izan dela giza espe-

ziearentzat esentziala, eta ez arrazoimena edukitzea edo falta dela ez egiaztatzea, inortxok ere ezin jakin baitezake bere sasoian arrazoimena faltako denentz. Halakoetan teologo eta legelarikik zuhurrenak euren definizio sakratuari uko egin beharrean aurkitzen dira, *animal rationale* aipatzen duen definizioari, alegia, eta giza espeziearen beste esentzia bat ezartzen dute haren ordezeko. Menage jaunak hemen aipamena behar duen adibide bat eskaintzen digu. Berak dioenez: «Saint Martineko abadeak, mundura etorri zenean, giza itxurarik ez zuen ia, mustroa zirudien. Bataiatu ala ez erabakitzeko denbora behar izan zuten. Bataiatu zuten azkenean eta gizaki deklaratu behin-behinekoz, zer zen jakin ahal izan arte. Naturak hain trakets egin zuen, non bizi guztian Malotru (hau da, gaizki egina) abadea deitu zioten.» Caengoa zen (*Menagiana*, 278, 430). Ume hau, ikusten dugun moduan, forma hutsagatik giza ezpezietik kanporatzeko arriskuan egon zen. Zen modukoa ozta-ozta salbatu zen, eta itxura apur bat traketsagoa izan balu giza maila ukatuko zitzaion betiko, eta gizakitizat hartu ezinean hil egingen zuten. Ezin dugu, baina, arrazoirik eman zergatik ezin izan zitekeen haren baitan arima arrazoidunik aurpegikera itsusiagoa izanda ere: aurpegi luzeagoak, sudur zapalagoak, aho zartatuagoak zergatik ezin eutsi zioten gainontzeko itxura traketsak bezainbeste, gizon hura, zen moduko figura gabekoa izanda ere, Elizan apaiz dignidaderako gai egin izan zuten arimari eta koalitateei.

27. *Substantzia partikularren esentzia nominalak zehazgabeak dira berez eta ezberdinak, beraz, gizakitik gizakira.*

Horregatik, gustatuko litzaidake jakitea zein diren espezie horren muga zehatz eta mugigaitzak. Azterketa eginez gero, argi dago gizakien artean ez dagoela naturak egindako eta ezarritako horrelako gauzarik. Gauza nabaria da ez dugula ezagutzen substantzia horren ez beste ezelako substantziaren esentzia errealik, eta horregatik hain dira zehazgabeak gure esentzia nominaletan, guk geuk egindakoetan, non forma traketseko *foetus* bati buruz zenbait gizoni jaio bezain laster *gizakia* den ala ez galdetuz gero, ez dagoen dudarik erantzun diferentek jasoko genituzkeela. Eta hau ezin izanen litzateke gertatu, baldin substantzien espezieak mugatu eta bereizteko balio diguten esentzia nominalak gizakiak askatasunez eginak izan beharrean, naturak substantzia guztiak espezie ziurretan bereizi eta sailkatzeko ezarritako muga doietatik zehazki kopiatsuak balira. Nor jarriko litzateke ebazten

zein espezetakoa zen Licetusek aipatzen duen mustroa (I Lib., III. kap.) gizakiaren burua eta txerriaren soina zuena? Edota txakur, zaldi etabarren buruak giza soinari lotuak zituzten beste hainbat mustro? Horietakoren bat bizirik utzi balute eta hizketarako gai zela erakutsi balu, horrek asko areagotu zukeen korapiloa. Goiko aldea erdira arte giza formakoa izanik eta handik beherakoa txerriarena, hilketa ote zatekeen hura akabatzea? Edo apezpikuari kontsultatu beharra ote legoke halakoa bataiora onartzeko? Esan didatenez, Frantzian gertatu omen zen duela urte batzuk antzeko kasu bat. Horrelakoxe zalantzazkoak dira guretzat animalien espezieen mugak, geure uztako ideia konplexuak beste bitartekorik ez baitugu horiek ezagutzeko eta horixe bezain urrun baikaude gizakia zer den jakitetik, honi buruz dudarik txikiena egitea agian ezjakite handitzat joko den arren. Eta, hala ere, uste dut esan dezakeedala espezie horien muga ziurrak ebatzi eta esentzia nominala osatzen duten ideia bakunen kopurua finkatu eta osoro ezagutu ahal izatetik urrun gabiltzala, halatan, non duda astunak sor daitezkeen horri buruz. Halaber uste dut orain arte eman den gizaki hitzaren ezein definizio ez mota horretako animaliaz egin den ezein dekrinaketa ez direla aski perfektu eta zehatzak izan, sen oneko pertsona aztertzaile bat kontentatzeko eta askoz gutxiago adostasun orokorra lortzeko eta gizakiek nonahi hartaz baliatu nahi izateko, kasu ezberdinei irtenbidea eman beharra eta munduratu daitezkeen sorkarien bizitza edo heriotza bataioa edo bataiorik eza erabaki beharra dutenean.

28. *Baina ez dira modu mistoak bezain hautazkoak («arbitrary»).*

Baina, substantzien esentzia nominal hauek gogamenak eginak diren arren, ez dira modu mistoenak bezain arbitrarioki eginak. Esentzia nominalen bat egiteko behar da: lehenik, osagai dituen ideiek ideia bakarra egiteko moduko batasuna edukitzea, ideia hori konposatuena izanda ere, eta, bigarrenik, horrela baturiko ideiak kopuruz berberak izatea, ez gehiago ez gutxiago. Izan ere, ideia konplexu abstraktu bi beren osagaien kopuruan edo espezieetan ezberdinak badira, bi esentzia diferente egiten dituzte, eta ez bakar bera. Baldintzotako lehenengoan, gogamenak substantzien ideia konplexuak egitean naturari jarraitu besterik ez du egiten, eta ez du biltzen bere ustez naturan loturarik ez duenik. Inork ez du lotzen ardiaren bee hotsa zaldiaren

irudiarekin, ez eta berunaren kolorea urrearen pisu eta finkotasunarekin, ezein substantzia errealean ideia konplexua egiteko, burua ameskeriaz eta diskurtsoa hitz ulertezinez betetzen dion gogamena ez badauka behintzat. Gizakiok zenbait koalitate beti batuta eta elkarrekin ikusten ditugularik, naturatik kopiak ateratzen ditugu eta horrela bat egindako ideiekin egiten ditugu substantzien ideia konplexuak. Izan ere, gizakiek nahi dituzten ideia konplexuak eratu eta nahi dituzten izenak eman diezazkieten arren, hala ere *egiazki existitzen diren gauzez* mintzo direnean entzuleak ulertzea nahi badute, maila batean ideiak mintzagai dituzten gauzetara egokitu beharra dute, edo bestela gizakien hizkuntza Babelkoaren antzekoa dateke, eta bakoitzaren hitzak norberak bakarrik ulertzeko modukoak liratekeenez, ez lukete balioko solaserako eta eguneroko arazoetarako, baldin beraiek adierazitako ideiek substantzien agerkizun eta adostasun komunei erantzunen ez baliete, substantziak errealki existitzen diren moduan hartuta.

29. *Gure substantantzien esentzia nominalak gauzetan haute - mandako koalitate nabari gutxi batzuek osatzen dituzte normalean.*

Bigarrenik, nahiz eta gizakiaren gogamenak, substantzien ideia konplexuak eratzean, egiazki edo bere ustez bederen substantzia horretan bizikide ez denik biltzen ez duen, horretara batasun hori naturatik mailegatzen duelarik, hala ere konbinatzen dituen ideien kopurua konbinatzailearen asmo, trebezia eta fantasia ezberdinaren arabera da. Gizakiok eskuarki koalitate sentigarri nabari gutxi batzuek konformatzen gara, eta sarri, beti ez bada ere, jaso barik uzten ditugu hauek bezain nabarmenak eta irmoki batuak diren beste batzuk. Substantzia sentigarriak mota bitakoak dira: bata gorputz organizatuek osatzen dute, haziz ugaltzen direnek; eta hauetan forma da gida gisa erabiltzen dugun koalitatea eta espeziea erabakitzen duen elementurik karakteristikoena. eta, horregatik, landareetan eta animalietan irudi jakin zehatz bat egiten duen substantzia solido hedatu batek balio du horetarako. Izan ere, nahiz eta askok gizakiaren definizioa «animal rationale» gisa, dirudienez, estimu handitan duten, hizkuntza eta arrazoimena lukeen kreatura bat, gizakiaren forma normalik eduki ezean, nekez pasako litzateke, ene ustez, gizakitza, animalia arrazoidunena izanda ere. Eta Balaamen astoa bere bizitza osoan behiala bere ugazabarekin hitz egin zuen bezain arrazoiz mintzatu balitz, zalantzatan jartzen dut gizaki izena zor zaiola inork uste izanen

zuenik, eta bere espezie berberetatzat onartuko zuenik. Landareen eta animalien espeziea zehazteko gehienetan irudiari erreparatzen diogun moduan, hazi bidez ekoiztuak ez diren gorputz natural gehienen kasuan koloreari begiratzen zaio batik bat. Horretara, urrearen kolorea aurkitzen dugunean, joera daukagu gure ideia konplexu horren barruan sartzen diren koalitate guztiak imajinatzerara; eta eskuarki koalitate nabari bi hauek, irudia eta kolorea, espezie ezberdinak adierazteko hain ideia egokitzen hartzen ditugu, non irudi on bat aurrean, berehala esaten dugun: hau lehoia da, eta hori larrosa, hau urrezko kopa da eta hura zilarrezkoa, pintzelaz begietara aurkezten dituen irudi eta kolore diferenteetatik soilik.

30. *Inperfektuak direlarik ere, balio dute gizakiak elkarrekin solasean aritzeko.*

Baina, nahiz eta hau nahikoa izan handi-handikako kontzepzio nahasietarako eta zehaztasunik gabe mintzatu eta pentsatzeko, *gizakiak nahikoa urrun daude euren izenaz adieraziziko gauzen espezie bati dagozkion ideia bakunen kopuruari buruz ados etortzek*. Eta hau ez da harritzekoa, denbora eta neke asko, trebezia handia eta azterketa luzea behar baitira ideia bakun horiek, naturan etengabe eta banaezinki baturik daudenak eta subjektu berean elkartuta aurkitu beharrekoak, zein eta zenbat diren jakiteko. Gizakirik gehienak, horretarako denborarik, joerarik edota trebeziarik ez dutelako maila jasangarrietaraino izanda ere, gauzen kanpoko zenbait itxura nabari-ekin konformatzen dira, berauetatik gauzak bereizi eta motetan sailkatu eta bizitzako gai komunetan erabiltzeko; eta, horrela, gehiago aztertu gabe, izenak ezartzen dizkie edo jada erabiltzen direnak hartzen dituzte. Eta izen horiek, lagunarteko solasaldian, elkarrekin egoten diren zenbait koalitate nabariren zeinutzat pasatzen diren arren, ez dute inola ere beren baitan hartzen, esanahi finkatuz, ideia bakunen kopuru zehatzik, eta askoz gutxiago naturan baturik dauden guztiak. Genero eta espezieei buruzko hainbeste iskanbilaren eta diferentzia espezifikokoari buruzko hainbeste ika-mikaren ondoren definizio finkatuarekin zein hitz gutxi ditugun kontuan hartzen duenak arrazoiz pentsatu ahal izanen du euren inguruan hainbeste iskanbila atera duten forma horiek ameskeriak besterik ez direla, gauzen izaera espezifikokoari buruz argitasunik eskaintzen ez digutenak. Eta kontuan duenak zein urrun dauden substantzien izenak berauen erabiltzaile guz-

tiak adostasunean biltzeko moduko esanahia edukitzetik, arrazoia ukanen du ondorioztatzeko ezen, substantzien esentzia nominalak ustez naturatik kopiatuak izan arren, guztiak edo gehienak bederen oso inperfektuak direla. Izan ere, ideia konplexu horien osaketa gizaki ezberdinen oso diferentea denez, espezieen mugak gizakiek, eta ez naturak, egin dituzten modukoak dira, naturan horrelako muga aurrefinkaturik egon baldin badago. Egia da naturak substantzia partikular asko elkarrekin adostasuna eta antzekotasuna edukitzeko moduan egin dituela eta, beraz, badutela oinarria motetan sailkatuak izateko. Baina guk gauzak, izendatzeko eta termino orokorren pean hartzeko sailkatzen ditugunez motetan edo espezie mugatuak egiten ditugunez, ez dut ikusten nola esan daitekeen, zehazki hitz eginda, naturak ezartzen dituela gauzen espezieen mugak; edo, hau horrela bada, guk espezieei ezartzen dizkiegun mugak ez datoz doi-doi bat naturak ezarritakoekin. Zeren jadanik erabiltzeko behar ditugun izen orokorren premian, ez gara ahalegintzen berauen koaliteteak aztertzen, nahiz eta hauen bidez hobeto ezagutuko genituzkeen euren ezberdintasunik eta antzekotasunik esentzialenak: guk geuk, beraz, sailkatzen ditugu espezieka, edonork hauteman ditzakeen itxuren eraginez, izen orokorren bidez eurei buruzko geure pentsamenduak elkarri errazago komunikatu ahal izateko. Zeren, edozein substantziaz, bertan elkaturiko ideia bakunez daukaguna beste ezagutzarik ez dugunez, eta konturatzen garelarik zenbait gauza ideia bakun horietako zenbaitetan ados datozela beste gauza batzuekin, bilduma hori geure ideia espezifiko egiten dugu eta izen orokor bat ematen diogu, geure pentsamenduak atxikita gordetzeko eta besteekin solasean ari garela hitz labur batez ideia konplexu horretan ados datozen banako guztiak izendatu ahal izateko, konplexu hori osatzen duten ideia bakun guztiak zerrendatzen ibili barik; eta, horretara, ez dugu denborarik ez ahaleginik alferrik galtzen deskribaketa gogaikarrietan, oraindik izenik eduki gabe gauzen mota berri batez hitz egin nahi dutenek egin behar duten moduan.

31. Izen beraren pean dauden espezieen esentziak oso ezberdina dira gogamen ezberdinetan.

Baina, substantzien espezie hauek solasaldi arrunterako aski diren arren, argi dago gizaki ezberdinek era diferentean egiten dutela zenbait banakoren adostasuna biltzen hautematen dugun ideia kon-

plexua, hau da, batzuk zehaztasun handiagoz eta beste batzuek ez hain handiz. Ideia konplexu honek batzuengan koalitate kopuru handiagoa hartzen du, eta beste batzuengan txikiagoa; argi dago, beraz, gogamenak egiten duen modukoa dela. Kolore hori distiratsuak egiten du urrea haurren ikuspegiz; beste batzuk honi pisua, xaflakortasuna eta fundigarritasuna gehitzen dizkiote, eta beste batzuek kolore horiarekin pisua eta fundigarritasuna bezain etengabeki loturik ikusten dituzten beste koalitate batzuk. Izan ere, koalitate horiei eta antzekoei dagokienez, eurotako edozeinek dauka eskubidea besteek bezalaxe eta haiekin batera bilgune duen substantzia horren ideia konplexuan sartuta egotea. Eta horregatik gizaki ezberdinek urrearen esentzia ezberdinak dituzte, zenbait ideia bakun besteek ez bezala ideia konplexuan sartuz edo kanpoan utziz subjektu horri buruz egiten dituzten azterketa eta behaketa ezberdinen eta euren trebezia diferentien arabera, esentziok, beraz, naturak barik eurek eginak izan beharra dutelarik.

32. *Substantzietz ditugun ideiak zenbat eta orokorragoak orduan eta ezosoagoak eta partzialagoak dira.*

Banakoen beherengo espeziearen edo lehen sailkapenaren esentzia nominala osatzen duten ideia bakunen kopurua ezberdinki biltzen dituen gizakiaren gogamenaren menpe badago, askoz argiago dago gizakiaren jokabide hori motarik hedatsuenetan, hau da, logikako maisuek genera deitzen diotenetan. Horiek ideia konplexu hala nahita inperfektuak dira; eta lehen ikusian ageri da gauzetan euren aurkitzen diren koalitate horietako zenbait beren-beregi uzten direla ideia generikoetan sartu gabe. Zeren gogamenak zenbait partikular hartzen dituzten ideia orokorrak egiteko, denbora eta lekuaren ideia eta ideia orokor horiek banako bati baino gehiagori komunikaezinezko bihurtzen dituzten beste batzuk kanpoan uzten dituen moduan, halaxe beste ideia are orokorragoak, mota ezberdinak har ditzaketanak, egiteko ere kanpoan uzten ditu bata bestetik bereizten dituzten ideiak, eta mota ezberdinek komun dituzten ideiak bakarrik sartzen ditu bere bilduma berrian. Ginea eta Perutik etorritako material horiaren zati ezberdinak izen bakarraz adieraztera eraman zituen komenentzia berak daramatza gizakiak urrea eta zilarra eta mota ezberdinetako beste gorputz batzuk har ditzakeen izen bat sortzera. Hau mota bakoitzaren bereziak diren koalitateak kanpoan utzi eta

guztiekin komun dituztenekin osaturiko ideia konplexua atxikiz egiten da. Eta hauei *metal* izena erantsiz generoa egiten da; genero honen esentzia, mota ezberdineko zenbait gorputzek batera duten ideia konplexua da, bere baitan xaflakortasuna eta fundigarritasuna eta pisu eta finkotasun maila batzuk besterik ez daukana, eta kanpoan uzten ditu urrearen eta zilarraren eta metal hitzean sartzen diren beste mota batzuen bereizgarri diren kolorea eta beste koaliteteak. Argi dago, beraz, gizakiek ez dietela doi-doi jarraitzen naturak eskaintzen dizkien ereduak substantzien ideia orokorrak eratzen dituztenean, ezin daitekeelako topa bere baitan xaflakortasuna eta fundigarritasuna soilik biltzen dituen gorputzik, hauek bezain banaezin den beste koalitaterik gabe. Baina gizakiek, ideia orokorrak egitean, gauzak existitzen diren moduan duten egiazko izaera zehatza baino gehiago hizkuntzaren egokitasuna eta zeinu labur eta zabalez azkar adieraztea bilatzen dutenez, ideia abstraktuak egitean horixe erdiestea dute helburu nagusi, hedapen ezberdineko izen orokorrekin ondo hornituta egotea lortzean datzan helburua. Horretara, genero eta espezieen kontu honetan guztian, generoa, edo gehien hartzen duena, ezpeziearen baitan dagoenaren kontzeptzio partziala baino ez da, eta espeziea banako bakoitzean aurkitzen den guztiaren ideia partzial bat baino ez. Gizakia, zaldia, animalia, landarea, etab., naturak gauzatutako esentzia errealekin bereizten direla uste duenak natura existentzia errealean guztiz eskuzabal irudikatu beharko du, gorputzarentzat bat ekoizten baitu, bestea animaliaarentzat eta bestea zaldiaarentzat, eta esentzia hauen guztien berri emanen dio opatsu Buzefalori. Baina genero eta espezie edo mota horietan guztietan zer egin den zuzen aztertzen badugu, ikusiko dugu ez dela egin ezer berririk: gehiago edo gutxiago hedatu diren zeinuak baino ez, berauen bidez silaba gutxitan hainbat eta hainbat gauza partikular adierazteko gai garelarik, gehiago edo gutxiago hedatzen diren eta guk horrexetarako erabiltzen ditugun kontzeptzioekin ados datozen heinean. Eta honetan guztian ohartu ahal izago gara termino orokorragoa konplexutasun txikiagoko ideiarekin izena dela beti eta genero bakoitza ez dela azpian hartzen duen espeziearen ideia partzial bat baino. Eta, horrela, ideia orokor abstraktu horiek osoak direla uste baldin bada, berauekin adierazteko erabiltzen diren izenekin duten erlazio ezarri batekiko soilik izan daitezke osoak, eta inoiz ere ez existitzen den eta naturak egin dako ezerekin.

33. *Hau guztia mintzairaren helburura egokiturik dago.*

Hau guztia mintzairaren egiazko helburura doiturik dago: geure nozioak komunikatzeko biderik errazen eta laburrena erdiestea. Izan ere, hedadura eta solidotasunaren ideian bat datozen gauzez hitz egin behar duenak *gorputz* hitza erabiltzea besterik ez dauka horiek guztiak adierazteko. Ideia horiei biziaren, sentipenaren eta berezko higidura-ren ideiak gehitu nahi dizkionak *animalia* hitza erabiltzea besterik ez dauka ideia horietan partaide diren guztiak adierazteko; eta bizia sentipena, higidura gehi arrazoimena eta forma jakin bat dituen gorputza-ren ideia konplexua egin duenak, *gizaki* hitza erabiltzea besterik ez dauka ideia konplexu honi dagozkion izaki partikular guztiak adierazteko. Hauxe da genero eta espezieei bereziki dagokien xedea eta giza-kiok hau esentzia errealak edo substantzialak inondik ere aintzat hartu gabe egiten dugu, haietaz pentsatzen dugunean esentzia errealak ez baitira sartzen gure ezagumenaren irispidearen barruan, ez eta gure hitzen esanahiaren barruan haietaz besteekin mintzo garenean.

34. *Adibideak kasuarioetan.*

St. James Parkean oraintsu ikusi dudak txori espezie baten berri eman nahi banio norbaiti deskribapen luze hauxe egin beharrean aurkituko nintzateke solaskideak uler nintzan: hiru-lau oin altuerako txoriak, luma eta ilearen bitarteko zerbaitez estalita daudenak, marroi ilunak, hegaliak gabeak, hegaleen ordeztasunari erratzaren antzeko bizpahiru adaskeztasunak, soinean beheko zango luze lodietara jais-ten direnak, hiru atzapar soilezko oinez hornituak eta itsatsik gabeak. Baina *animalia* horren izena *kasuarioa* dela jakin dudanetik, izen horretaz baliatu naiteke mintzaldian zehar deskribaketa honetan azaldu-tako ideia konposatu hori izendatzeko, nahiz eta izen espezifiko bihurturiko hitz honen laguntzaz nik *animalia* espezie horren esentzia erreala edo osatzailea orain ez jakin lehen nekien baino gehiagorik; eta ziurraski txori espezie horren izaerari buruz izena ikasi aurretik inge-les askok beltzargaz edo lertxunaz adina nekian, hauek Ingalaterran ohikoak diren hegaztien izen espezifiko oso ezagunak izanik ere.

35. *Gizakiek zehazten dituzte substantzien motak, eta modu askotara egin dezakete hau.*

Esan dugunetik, garbi dago gizakiek egiten dituztela gauzen motak. Zeren, espezie ezberdinak esentzia diferenteek, ez beste ezerk,

egiten dituztenez gero, argi dago esentzia nominalak diren ideia abstraktuak egiten dituenak egiten dituela espezieak edo motak ere. Aurkituko balitz gorputz bat urrearen koalitatea guztiak leuzakeena, xaflakortasuna izan ezik, gorputz hori urrea den ala ez, hau da, espezie horretakoa den ala ez galdetuko litzateke dudarik gabe. Hau orok urre izena eransten diogun ideia abstraktuaren bidez bakarrik erabaki daiteke; eta, beraz, gorputz hori benetako urrea eta espezie horretakoa izanen litzateke urre izenaz adierazitako esentzia nominalean xaflakortasuna sartzen ez duenarentzat, eta, alderantziz, ez litzateke benetako urrea izanen ideia espezifikoa xaflakortasuna sartzen duenarentzat. Eta nor da, galdetzen dut nik, espezie ezberdin horiek egiten dituenak, are izen bat beraren pean, koalitate bilduma berebean ez dauztan bi ideia abstraktu diferente egiten dituzten gizakiak baino? Ez da asmakeria hutsa pentsatzea izan daitekeela gorputz bat urrearen koalitate guztiak dituenak, xaflakortasuna salbu, egia baita urrea batzuetan hain jasan txarreko (artisauek esaten duten moduan) izan daitekeela, non mailuari kristalak baino hobeto eusterik ez duen. Eta urre izena ezarritako ideian xaflakortasuna sartzeari edo ez sartzeari buruz esan duguna berdin esan daiteke metal horren pisu, finkotasun eta beste koalitate bereziei buruz ere, zeren, zernahi delarik ere sartu barik uzten dena edo sartzen dena, izen hori eransten zaion ideia konplexua da espeziea egiten duena; eta materi zati txiki batek ideia horri erantzuten badio, egiatan dagokio espeziearen izena eta gauza hori espezie horretakoa da. Eta hori betetzen duen oro urrea da egiatan, metal perfektua. Eta espeziea zehaztea, argi dago, ideia konplexu hau edo bestea eratzen duen gizakiaren adimenaren menpe dago erabat.

36. *Naturak egiten ditu substantzien antzekotasunak.*

Hauxe da orduan, labur esanda, kontua: naturak *gauza partikular* asko egiten ditu euren artean bat datozenak koalitate sentigarrietan eta agian euren barne egitura eta osaeran ere, baina ez da esentzia erreala hau espezieetan bereizten dituenak, gizakia baita, gauzetan batuta ikusten dituen koalitateetatik abiatuta eta beste gauza batzuek ere sarri horietan haiekin bat datozela ohartuz, espezieetan sailkatzen dituenak izenak jarritz, hedapen zabaleko zeinuak edukitzea komeni delako banakoak, ideia abstraktu honekin edo bestearekin duten adostasunaren arabera, euren azpian sailkatu ahal izateko ikurren azpian bezala; horrela hau erregimentu urdinekoa izanen da eta hura erregimentu

gorrikoa; hau gizakia, hura drila. Eta honexetan datza, ene iritziz, genero eta espezieen korapilo guztia.

37. *Izaki partikularrak espezieetan sailkatzea gizaki hutseginko - rren lana da, nahiz eta naturak gauzak elkarren antzeko egin.*

Nik ez diot naturak, izaki partikularren sorketa etengabea, berriren berri eta ezberdin egiten dituela beti, elkarren oso antzeko eta kide baizik sarri askotan. Baina, hala ere, egia dela uste dut gizakiek espezieak sailkatzeko erabiltzen dituzten mugak gizakiek berek egingdakoak direla, izen ezberdinez bereizten diren espezieen esentziak, frogatu dugun moduan, gizakiak egingdakoak direlako eta oso bakanki doitzen direlako euren abiagune diren gauzen barne izaerara. Eta horregatik zinez esan dezakegu gauzak espezieka sailkatzea gizakien lana dela.

38. *Izenen bat daukan ideia abstraktu orok esentzia nominala osatzen du.*

Esan dena aintzat hartuta, doktrina honetatik dudarik gabe oso bitxi itxurako zerbait atera daiteke, alegia, izenen bat daukan ideia abstraktu orok espezie bereizia osatzen duela. Baina zer egin, egiak hala nahi badu? Zeren, horrelaxe izanen da hori, harik eta norbaitek espezieak beste zerbaitek mugatzen eta bereizten dituela frogatu eta termino orokorrak gure ideia abstraktuak barik, hauetatik diferentea den zerbait adierazten dutela erakutsi arte. Gustatuko litzaidake jakitea altzo-txakurra eta erbi-txakurra zergatik ez diren ehiza-txakurra eta elefantea bezain espezie ezberdinak. Elefantearen eta ehiza-txakurraren esentzia diferenteaz ez daukagu altzo-txakurraren eta ehiza-txakurraren esentzia diferenteaz dugun ideiatik ezberdina den ideiarik, hauetako bakoitza ezagutzeko eta elkarrengandik bereizteko erabiltzen dugun alde esentziala izena ezarri diegun ideia bakunena bilduma ezberdinean baitatza.

39. *Genero eta espezieak nola erlazionatzen diren izenekin.*

Espezie eta generoak eratzea zenbateraino dagoen izen orokorrekin eralazionaturik eta izen orokorrak zenbateraino diren beharrezko, espeziea izateko ez bada, espeziea osatzeko eta espezieztat hartua izateko bederen, gorago erabili dugun izotzaren eta urarenaz gain, beste adibide oso ohiko bat ekarriz azalduko dugu. Orduak markatu baino egiten ez duen erlojua eta orduak jotzen dituen errepika-ordula-

ria espezie bat berekoak dira, haiek izendatzeko izen bakarra erabili ohi dutenentzat; baina lehenari *watch* eta bigarrenari *clock* deitzen dionarentzat izen bakoitzari ideia konplexu bereizia lotuz, espezie ezberdinekoak dira. Esanen da agian barruko mekanismoa eta antolaketak ezberdina dela erloju batetik bestera, eta erlojugileak oso ongi dakiela hori. Baina, hala ere, argi dago honentzat ere espezie bat baino ez dagoela, izen bat beraz izendatzen dituenean. Izan ere, zer behar da barne mekanismoan espezie berri bat egiteko? Zeren erloju batzuk lau gurpilez eginak dira, beste batzuk bostez; baina, alde hau espezifikoa al da egilearentzat? Batzuk kordeldunak dira eta gurpil kiribilak dituzte, beste batzuek ez; batzuek dindil librea dute, beste batzuek giltza batek kiribilean eragina, beste batzuek basurde-zurdaz; hauetariko edozein berezitasun aski al da diferentzia espezifikoa osatzeko, erlojuak barne osieran dituen diferentzia horien eta beste hainbat mekanismo ezberdinen berri duen erlojugilearentzat? Egia da horietako bakoitza beste guztietatik ezberdina dena; baina alde hori esentziala edo espezifikoa denentz erloju izena ematen zaion ideia konplexuaren menpe dago; alde horiek izenak adierazten duen ideiarekin ados datozen heinean eta izen horrek izen generiko gisa espezie ezberdinak hartzen ez dituen bitartean, ez dira esentziaz ez espeziez diferenteak. Baina norbaitek erlojuen barne egituraren ezagutzen dituen diferentzietan oinarrituta banaketa xeheagoak egin nahi baditu eta ideia konplexu zehatz horiei iraunen duten izenak ematen badizkie, hauek espezie berriak osatuko dituzte ideia horiek euren izenekin dituztenentzat eta diferentzia horien bidez mota ezberdinetan bereizi ahal izanen dituzte eta, orduan, *watch*, erlojua, izen generikoa izanen da. Ez lirakeke, ordea, espezie ezberdinak *clock* eta *watchen* barne mekanismoak eza-gutzen ez dituztenentzat eta kanpoko formaren eta tamainaren berri baino ez daukatenentzat, orduak orratzez markatzen dituztela jakiteaz gain. Izan ere, haientzat beste izen horiek guztiak ideia bera adierazteko sinonimoak baino ez lirakeke, eta ez lukete erlojua baino gehiagorik ez eta erlojua besterik adieraziko. Uste dut horixe bera gertatzen dela gauza naturaletan. Inork ezin izanen du zalantzatan jar *gizaki arrazionalaren* eta *ergelaren* baitako gurpil eta eragingailuak (horrela esaterik badut) ezberdinak direla, drilaren eta ergelaren artean egituraren aldeak dauden moduan. Baina kasu bateko zein besteko aldea esentziala edo espezifikoa denentz, gizaki izenak adierazitako ideia konplexuarekin duten adostasunaren edo desadostasunaren bidez jaki-

nen dugu guk, horrexen bidez bakarrik erabaki baitaiteke bata ala biak, ala ez bata ez bestea gizakiak diren.

40. *Gauza artifizialen espezieak ez dira naturalak bezain nahasiak.*

Lehenago esan dugunetik ikus dezakegu gauza artifizialen espezieetan zergatik dagoen naturalen espezieetan baino nahasmen-
du eta ziurgabetasun gutxiago. Izan ere, gauza artifiziala gizakiaren
sorkari denez eta, beraz, egileak diseinatua izanik gauza horren ideia
ongi ezagutzen duenez, suposatzen da gauzaren izenak ez duela adie-
razten ziurtasunez ezagut daitekeen ideia eta erraz atzeman daiteke-
en esentzia baino. Zeren gauza artifizialen mota ezberdinen ideia edo
esentzia, egileak gauzaren xederako egoki topatzen dituen materialak
landuz taxutzen duen atal sentigarrien irudian baino ez datzanez
gehienetan, eta batzuetan baita haien menpe dagoen higiduran ere, ez
dago gure ahalmenetik kanpo gauza artifizialen ideia ziurra atzema-
tea eta, horretara, gauza artifizialen espezieen bereizgarri diren ize-
nen esanahia finkatzea, gauza naturaletan egin genezakeen baino
duda, iluntasun eta errakuntza gutxiagorekin, naturaletan diferen-
tziak eta eragiketak guk deskubritu ezin ditugun mekanismoen
menpe daude eta.

41. *Gauza artifizialak espezie ezberdinetakoak dira.*

Desenkusatu beharko nauzue hemen, gauza artifizialak, natu-
ralak bezala, espezie esberdinetakoak direla uste dudalako; izan ere,
zehazki eta ordenan motatan sailkaturik daudela ikusten dut substan-
tzia naturalenak bezain izen ezberdinak erantsirik dituzten ideia abs-
traktu ezberdinen bidez. Zeren, zergatik ez dugu pentsatu behar erlo-
jua eta pistola zaldia eta erlojua bezain espezie ezberdinak direla, gure
adimenean ideia bereiziez irudikatzen baitira eta besteei izen ezberdi-
nez adierazten baitizkiegu?

42. *Gure ideien mota guztien artean substantziek bakarrik
dituzte izen propioak.*

Substantziei dagokienez, gogoan izan behar da, gainera, gure
ideia mota ezberdinen artean beraiek bakarrik dituztela gauza parti-
kular eta banakakoak adierazteko beharrezko diren izen partikular edo
propioak. Izan ere, ideia bakunetan, moduetan eta erlazioetan oso
gutxitan izaten dugu gauza partikular bat edo beste aipatu beharra

gauza hori bertan ez dela. Gainera modu mistorik gehien-gehienak sortzean desagertzen diren ekintzak izanik, ezin dute iraupen luzerik eduki substantziek bezala, hauek egileak baitira eta berauetan izenak adierazten duen ideia konplexua osatzen duten ideia bakunek batasun iraunkorra baitute.

43. *Zaila da hitzen bidez norbait gauzen pentsamenduetara gidatzea, gauzei ematen dizkiegun ideia abstraktuez gabetuz gero.*

Barka nazala irakurleak gai honetan hainbeste luzatu naizelako, agian argitasun handirik gabe luzatu ere. Baina gogoan hartzea nahi nuke zein zaila den hitzen bidez norbait gauzen pentsamenduetara gidatzea, hitzak ematen dizkiegun diferentzia espezifikoez gabetzen ditugunean, zeren gauza horiek izendatu ezean ez diot ezer eta izendatuz gero, mota batean edo bestean sailkatzen ditut eta gogamenari espezie horren ohiko ideia abstraktua iradokitzen diot, lortu nahi dudanaren kontrakoa hain zuzen. Zeren gizaki batez hitz egitea eta aldi berean gizaki izenaren ohiko esanahia edo, gauza bera dena, izen horri eransten diogun ideia konplexua ezatea eta irakurleari gizakia bere baitan denez eta barne osaeran edo esentzia errealean, hau da, berak ezagutzen ez duen zerbaiten bidez, besteengandik egiazki bereizten denez kontsideratzeko eskatzea txantxa antzeko zerbait dela dirudi. Eta, hala ere, horixe egin behar du ustezko esentzia errealez eta gauzen espezieez naturak egindakoak direla pentsaturik hitz egin nahi duenak, substantziek hartzen dituzten izenek adierazitako ezer ez dela existitzen aditzera emateko baino ez bada ere. Baina, ohiko izen eza-gunez hori egitea zaila denez, utz iezadazue gogamenak izen eta ideia espezifikoez duen iritzi ezberdina adibide batez argitzeko ahalegina egiten, ea agerian jartzen dudana ideia konplexuak batzuetan beste izaki adimendun batzuen adimenetako arketipoei dagozkiela, edo, gauza bera dena, besteek haien izen onartuei erantsitako esanahiari dagozkiola, eta beste batzuetan ezein arketipori ere ez. Utz iezadazue, halaber, agerian jartzen gogamenak substantziez dituen ideiak edo substantziekin eurekin edo substantzien izenekin lotzen dituela («refers»), arketipo gisa, eta era berean argi uzten zein den espezieen edo gauzak motaka sailkatzearen izaera, geuk atzematen eta erabiltzen ditugunez, eta espezie horiei dagozkien esentzien izaera zein den, hau agian hasiera batean uste baino garrantzizkoagoa delarik gure ezagutzaren hedaera eta ziurtasuna deskubritzeko.

44. *Kinneah* eta *niouph* izeneko modu mistoen adibideak.

Demagun Adan, gizon heldu eta adimen onaren jabe izanik, herrialde arraro batean aurkitzen dela gauza berri eta ezezagunez ingurututa, eta gauza horien ezagutza erdiesteko orain bere adineko gizaki batek dituen ahalmenak baino ez dituela. Konturatzen da Lamech ohi den baino malenkoniatsuago dagoela eta pentsatzen du hori gertatzen zaiola Lamechek susmatzen duelako Adah bere andre-ak, berak gartsu maite duenak, beste gizon batenganako begikotasun apartekoa sentitzen duela. Adanek Ebari kontatzen dizkio bere pentsamendu hauek eta Adahren ardura hartzea nahi lukeela adierazten dio, honek zorakeriarik egin ez dezan; eta Ebarekin duen solasaldi honetan bi hitz berri hauexek, *kinneah* eta *niouph* darabiltza. Denborarekin agertzen da Adan erratu egin dela, Lamechen kezka gizon bat hil izanak sortarazia dela egiaztatzen baitu; hala ere, *kinneah* eta *niouph* izen berri biek (batak senarrak emaztearen desleialtasunaz duen susmoa ordezkatzeko du eta besteak desleialtasuna gauzatze-ko egintza) ez dute beren esanahi ezberdina galtzen. Bistakoa da, bada, hemen modu mistoen ideia konplexu diferente bi ditugula, bakoitza bere izenarekin, hau da, ekintzen espezie esentzialki ezberdin bi; eta nire galdera da ea zertan zeutzan ekintza espezie bi horien esentziak. Eta argi dago bata bestetik diferenteak ziren ideia bakunen konbinazio zehatz batean zeutzala. Galdetzen dut, halaber, ea Adanek gogamenean zuen eta *kinneah* deitzen zuen ideia egokia zenentz, eta argi dago egokia zela. Izan ere, ideia hori, hark, ideia konplexu horrek bere baitan batuta dauzkan ideia bakun guztiak besteei labur adierazteko, ezein arketiporekin erlazionatu gabe, eredutzat ezer ere hartu gabe, bere borandate hutsez bildu, abstraitu eta *kinneah* izena jarritako ideia bakunen konbinazioa zen eta, beraz, ideia egokia zen ezinbestez. Adanek bere aukeraz egindako konbinazioa izanik, ideia horrek hark edukitzea nahi izan zuen guztia zeukan eta, horregatik, konbinazio pefektua eta egokia izan behar, ustez irudikatu beharreko ezein arketiporekin loturarik ez zuenez gero.

45. *Kinneah* eta *niouph* hitzek apurka-apurka onartzuz joan ziren erabilera arruntean eta orduan kasua aldatu egin zen apur bat. Adanen seme-alabek hark zituen ahalmen berak zeuzkaten eta, beraz, hark bezalaxe gogamenean eurek nahi zituzten modu mistoen ideia konplexu guztiak eratzeke, abstraitzeke, eta ideion zeinu

izateko soinuak nahierara sortzeko ahala; baina izenak guk barruan ditugun ideiak besteei ezagutzera emateko erabiltzen direlarik, hau egiterik ez legoke beren pentsamenduak elkarri komunikatu eta haietaz hitz egin nahi dutenentzat zeinu berak ideia bera ordezkatu ezean. Hitz bi horiek, *kinneah* eta *niouph*, erabilera arruntean ezagutu zituzten Adanen seme-alabek, beraz, ezin izan zituzten hartu esanahi gabeko soinutzat, zerbait ordezkatzeko zutela atera beharra baitzuten, hau da, zenbait ideia, ideia abstraktuak, izen orokorrak zirela eta ideia abstraktuok izen horiek bereizitako espezieen esentziak zirela. Horregatik, baldin hitz horiek jada finkaturiko eta adostasunez onarturiko espezieen izen gisa erabili nahi izan bazituzten, beharturik zeuden beren gogamenean izen horiek adierazitako ideiak besteen gogamenean esan nahi zutenarekin ados jartzera, berauen eredu eta arketipo moduan hartuz. Eta orduan bai, orduan modu konplexuoz zituzten ideiak desegokiak izan zitezkeen, ideia horiek (ideia askoren konbinazioz osaturikoak batik bat) ez direlako erraz bat etortzen beste gizakiek hitz berak erabiltzen dituztenean adimenean dituzten ideiekin, nahiz eta horretarako beti den erremedioa eskuan, hitz bat darabilenari hitz hori ulertzen ez dugunean esanahia galdetzea, alegia; izan ere, jeloskortasun eta adulterio hitzek (nire ustez *nioup* eta *kinneah* hitzen ordain direnak) horietaz mintzo naizen beste gizaki baten gogamenean zer ordezkatzeko duten jakitea hain ezinezko da, nola ezinezko zen hizkuntzaren hasieran *kinneah* eta *nioup* hitzek beste gizaki baten adimenean zer ordezkatzeko zuten jakitea azalpenik gabe, kasu batean zein bestean nahitako zeinuak baitira.

46. *Zahab izeneko substantzi espeziearen adibideak.*

Azter ditzagun orain era berean substantzien izenak euren lehen aplikazioan. Adanen semeetako batek, menditik zehar dabilela, substantzia distiratsu bat aurkitzen du, begira atsegin gertatzen zaiona. Etxera dakar eta Adani daramakio, eta honek, aintzin-gibel begiratu ondoren, gogorra, kolore hori distaratsukoa eta pisu oso handikoa dela ikusten du. Horiexek dira agian hasieran substantzia horretan hautematen dituen koalitateak eta horitasun distiratsuan eta bere bolumenaren ikusian oso pisu handian datzan ideia konplexua abstraituz, *zahab* izena ematen dio, koalitate sentigarri horiek dituzten substantzia guztiak izendatu eta seinalatzeko. Bistakoa da orain Adanek lehen

kinneah eta niouph izenez izendaturiko modu mistoen ideiak eratzean egindakotik oso modu diferentean jokatzeko duela. Zeren haietan bere irudimenetik ateratako ideiak bildu zituen eta ez existitzen den ezein gauzatatik hartuta, eta bere ideia abstraktu horiekin ados zetozkeen gauza guztiak izendatzeko izenak eman zizkien, gauza horiek existitzen ziren ala ez aintzat hartu gabe; eta, beraz, jarritako eredia berak egina zen. Baina substantzia berri honen ideia eratzean, erabat kontrako bidea hartzen du, oraingoan naturak egindako eredia baitauka, eta gauza bertan ez dela ere ideia hau irudikatu nahi duenean, bere ideia konplexuan ez du sartzen gauzan bertan hauteman gabeko ideia bakunik. Bere ideia arketipo honen arabera izan dadin arduratzen da eta izenak adostasun horixe ordezkatzeko nahi du.

47. Inork ez du, nik uste, ukatuko Adanek *zahab* deituriko materi zati hau, hark lehenago sekula ikusitako guztiak ez bezalakoa izanik, espezie ezberdinekoa denik, ez bere esentzia berezia daukanik, ezta *zahab* izena espeziearen ikurra eta esentzia honetan partaide diren gauza guztiei dagokien izena denik ere. Baina kasu honetan argi dago Adanek *zahab* izenaz ordezkaturiko esentzia ez zela gorputz gogor, distiratsu, hori eta oso astun bat besterik. Baina giza gogamenaren ikusminak, koalitate, nolabait esateko, azaleko horiek ezagutzeaz konforme ez eta, materi zati hau sakonago arakatzeko ipini zuen Adan. Eta pieza hori harri gogorrez jo eta jo hasten da, barruan zer topa dezakeen ikusteko; horrela konturatuko da kolpeekin bigundu egiten dela baina ez dela erraz zatikatzen; konturatuko da doblatu egiten dela apurtu gabe. Honen ostean, lehen izandako ideiarekin ez al zaio harikortasuna gehitu behar eta koalitate hau ere *zahab* izenak ordezkaturiko espeziearen osagai bihurtu? Beste proba batzuek fundigarritasuna eta finkotasuna erakutsiko dizkigute. Ez al dira hauek ere sartu beharko, besteak sartzeko izandako arrazoi berengatik, *zahab* izenak adierazitako ideiarekin baita? Eta sartu ezean, zer arrazoi ekar daiteke propietate bat sartzeko eta bestea ez? Horiek sartu beharra badago, orduan proba berriei aurkituriko beste propietate guztiek ere, arrazoi berengatik, *zahab* izenak ordezkaturiko ideia konplexuaren osagai eta, beraz, izen horrek ordezkaturiko espeziearen esentzia izan beharko lukete. Eta propietate hauen zerrendak amairik ez duenez, argi dago horretara eta arketipo horren arabera egindako ideia desegokia izan dela beti.

48. *Substantzien ideia abstraktuak imperfektuak dira beti eta, beraz, ezberdinak.*

Baina hori ez da dena. Horren ondorioz beste hau ere aterako litzateke, hots, substantzien izenek, ukan ere dituzten moduan, pertsona ezberdinen ahotan esanahi ezberdinak dituztela ez ezik, badituztela suposatu ere eginen litzatekeela, hau hizkuntzaren erabilpenerako oso oztopo handia izanen litzatekeelarik. Zeren bakoitzak edozein materiatan deskubrituriko koalitate ezberdin bakoitza ematen zaion izen komunak adierazitako ideia konplexuaren osagai dela suposatuko balitz, hemendik nahitaez aterako litzateke gizakiek suposatu behar dutela hitz berak gauza diferenteak esan nahi dituela gizaki ezberdinenengan, ezin baitute zalantzarik egin pertsona ezberdinek beste batzuek inondik ere ezagutzen ez dituzten zenbait koalitate deskubritu ahal izan dituztela izen bereko substantzietan.

49. *Horregatik, euren espezie nominalak finkatzeko, esentzia erreala suposatzen da.*

Hau ekiditeko, batzuek espezie bakoitzari lotuta esentzia erreala bat suposatu dute, propietate horien guztien iturri dena, eta espezieen izenek esentzia horixe ordezkatzeko dutela uste dute. Baina substantzietako esentzia erreala horren ideiarik ez dutenez eta beraien hitzek eurek adimenean dituzten ideiak besterik adierazten ez dituztenez, ahalegin horren bidez esentzia erreala duen gauzaren lekuan eta ordezkari izena edo soinuak ipintzea besterik ez da lortzen, esentzia erreala zer den inola ere jakin gabe, eta horixe da gizakiek egiten dutena gauzen espezieez naturak egindakoak eta esentzia errealez ezberdinak direla uste izanik mintzo direnean.

50. *Suposizio horrek ez du inolako baliagarritasunik.*

Izan ere, «urre oro finkoa da» diogunean, azter dezagun baieztapen horrek zer esan nahi duen. Edo finkotasuna definizioaren zati dela esan nahi du, hau da, urre hitzak ordezkatzeko duen esentzia nominalaren osagai dela eta orduan «urre oro finkoa da» eta baieztapenak ez dauka bere baitan urre terminoaren esanahia baino. Edo bestela, finkotasuna urre hitzaren definizioaren osagai ez denez, substantzia horren berorren propietate bat dela esan nahi du; eta kasu honetan argi dago urre hitza substantziaren lekuan dagoela eta naturak egindako gauzen espezie baten esentzia erreala daukala. Eta ordezkapen horrek

hain esanahi nahasi eta zalantzazkoa ematen dio, non «urrea finkoa da» proposizioa zentzu honetan erreala den zerbaiten baieztapena den arren, aplikazio zehatzetan beti ihes egingen digun egia da eta, horretara, ez du benetako erabilgarritasunik ez ziurtasunik. Zeren urre oro, hau da, urrearen esentzia erreala duen oro finkoa dela dudarik gabeko egia izanda ere, zertarako balio du horrek, zentzu horretan *urrea zer den edo zer ez den* ez badakigu? Zeren, urrearen esentzia erreala eza-gutzen ez badugu, ezin dugu jakin zein materi zatik duen esentzia hori eta, beraz, materi zati hori egiazko urrea den ala ez.

51. *Amaiera.*

Amaitzeko hasieran Adanek *modu mistoen* ideia konplexuak bere pentsamenduei beste ereduri jarraitu gabe egiteko ukan zuen askatasun bera ukan dute gizaki guztiek ordutik aurrera; eta Adani ezarri zitzaion bere *substantziei* buruzko ideiak kanpoko gauzei naturak egindako arketipo gisa egokitze beharrian bera ezarri zaie gizaki guztiei ere ordudanik. Era berean, Adanek edozein ideiari izen berria eransteko zuen askatasun bera daukagu orok orain ere (berezi-ki hizkuntza sortzen dutenek, horrelako pertsonarik iruditzerik badugu), baina diferentzia bakar batekin, hau da, gizartean biziz gizakiek jada hizkuntza bat ezarririk duten herrialdeetan ez dutela hitzen esanahia aldatu behar begiramendu handiz eta ahalik gutxien baino, zeren gizakiek, euren ideientzako izenez jada honiturik aurkitzen direlarik, eta erabilera arruntak zenbait ideiari izen komunak egokituta ukanik, izen horiek apropos gaizki aplikatzea oso barregarria bailitzateke nahitaez. Nozio berriak dituen arriska liteke termino berriak sortzen nozio horiek adierazteko, baina gizakiek ausarkeriatzat hartzen dute hori, eta ez da inola ere gauza ziurra gizarteak bere erabilera komunerako onartuko dituen. Baina besteekin dugun komunikazioan hizkuntza bateko izen arruntei ordezkazten dizkiegun ideiak izen horien esanahi zehatz eta ezagunarekin adostu behar ditugu nahitaez (jada luze azaldu dudana ideia berau) edo bestela zein esanahi berri ematen diegun adierazi behar dugu.

VII. KAPITULUA

Partikulez

1. *Partikulek esaldi zatiak edo esaldi osoak lotzen dituzte.*

Gogameneko ideiak izendatzeko balio diguten hitzez gain, badira beste asko eta asko gogamenak ideien edo proposizioen arteko *lotura* adierazteko erabiltzen dituenak. Gogamenak, bere pentsamenduak besteei komunikatzeko, une horretan aurrean dituen ideien zeinuak ez ezik, beste batzuk ere behar ditu, une horretan bere ideiekin erlazionatzen den bere ekintza partikularren bat azaltzeko edo iradokitzeko. Hau era ezberdinez egiten du. *Hau da, hau ez da*, gogamenaren zeinu orokorrak dira baieztapenerako edota ezeztapenerako. Baina hitzetan egia edo faltsutasuna izateko ezinbesteko diren baieztapenak eta ezeztapenak formulatzeaz gain, gogamenak bere sentimenduak besteei azaltzean, proposizioen atalak ez ezik esaldi osoak ere, beraien erlazio eta menpekotasun guztiekin, lotu behar ditu, diskurtso koherentea egiteko.

2. *Partikulak zuzen erabiltzean datza ongi mintzatzeko artea.*

Gogamenak arrazoiketa edo narrazio jarraituan batzen dituen baieztapen edota ezeztapen ezberdinei ematen dien lotura adierazteko erabiltzen diren hitzei eskuarki *partikulak* deritze eta berauek zuzen erabiltzean datza bereziki estilo onaren klartasuna eta dotoretasuna. Ongi pentsatzeko ez da aski gizaki batek bere pentsamenduetan ideia argi eta bereiziak edukitzea, ez eta haien arteko batzuen adostasunaz

edo desadostasunaz ohartzea ere; ongi pentsatzeko, gizakiak segidan pentsatu behar du eta bere pentsamenduak eta arrazoinamenduak elkarrekiko duten menpekotasunaz ohartu. Eta pentsamendu metodiko eta arrazional horiek ongi adierazteko, bere diskurtsoaren *atal* ezberdinei ematen dizkien lotura, mugapena, bereizketa, aurkakotasuna, enfasia, etab. adierazteko hitzak ukan behar ditu. Hauetako baten bat oker egiteak entzulea informatu barik nahasi egiten du eta horregatik dago berenez ideien izenak ez diren hitz hauek etengabe eta nahitaez erabili beharra eta asko laguntzen die gizakiei euren pentsamenduak ongi adierazten.

3. *Partikulek gogamenak bere pentsamenduei iratxikitzen dien erlazioa erakusten dute.*

Gramatikaren atal hau albo batera utzi izan da oso, beste atal batzuk ardura handiegiz landu izan diren hein berean agian. Gizakiek aise idazten dute hurrenez hurren kasuez, moduez, denborez, gerundioez eta supinoez; hauetan eta antzekoetan ardura handia jarri izan da; eta hizkuntza batzuetan partikulak eurak ere klase ezberdinetan sailkatu izan dira zehaztasun handiz itxuraz. Baina *preposizioak*, *juntagailuak*, etab., gramatikan izen oso ezagunak ukan arren, horietariko partikulak arduraz sailkatu izan direlarik azpizatiketa bereizien bidez, partikulak zuzen erabiltzeko zer behar den eta nolako esangura eta indarra duten argi ikusi nahi duenak, ahalegin handiagoak egin eta bere pentsamenduak hausnartu beharra du, bere gogamenak diskurtsoan dituen jarrera ezberdinez ohartzeko.

4. *Partikulak gogamenaren ekintzen edo iradokizunen ikurrak dira.*

Partikulak behar bezala azaltzeko ez da aski hauek beste hizkuntzetan dituzten hitz antzekoenekin erlazonatzea, hiztegieta egin ohi den moduan, esanahi zehatza ulertzea hain nekeza baita hizkuntza batean nola bestean. Gogamenaren ekintza edo iradokizunen baten ikurrak dira guztiak eta, horregatik, partikulak ongi ulertzeko, beharrezko da gogamenaren ikuspegi, jarrera, egoera, esamolde, mugapen eta salbuespen ezberdinak eta beste pentsamendu batzuk kontu handiz aztertzea, berauek adierazteko hitz bat ere edo dena beharrezko hitzak baino ez ditugularik. Asko dira horrelakoak, hizkuntzarik gehienek berauek adierazteko dituzten partikulak baino askoz gehiago, eta horregatik ez da harritzekoa horrelako partikulek

esanahi diferenteak eta batzuetan ia kontrakoak edukitzea. Hebraieran letra bakarreko partikula bat dago, hirurogeita hamar esanahi ezberdin dituen oker ez banago, berrogeita hamarretik gora behintzat ziur dituelarik.

5. *Baina partikularen inguruko adibideak.*

But edo *baina* partikula gure hizkuntzan erabilienetakoa dugu, eta juntagailu aurkaria eta latinezko *sed* edo frantsesezko *mais* juntagailuen ordaina dela esanez gero, pentsatzen dugu behar bezala azaldu dugula zer den. *Baina* uste dut gogamenak hitz horren bidez lotzen dituen zenbait proposiziori edo proposizio zatiri ematen dizkien erlazio ezberdinak iradokitzen dituela. Lehenik, *but to say no more* (bestetik ez esateko) esaldiak adierazten du adimena, zeraman bidean, gelditu egiten dela, azkenera heldu aurretik. Bigarrenik, *I saw but two plants* (bi landare baino ez nituen ikusi) esatean, gogamenak esan nahi duenaren xedea bere hitzetara mugatzen du, gainerako oro baztertuz. Hirugarrenik, *You pray; but it is not God that would bring you to the true religion* (otoitz egiten diozu Jainkoari, baina ez berak eraman zaitzan egiazko erlijioaren ezagutzara). Laugarrenik, *but that he would confirm you in your own* (zeurean sendotu zaitzan baizik). Hauetariko lehen *but* edo *baina* partikulak gogamenaren susmoa iradokitzen du, behar ez litzatekeen zerbaiten susmoa, alegia; bigarrenak, aldiz, erakusten digu gogamenak buruz buru kontrajartzen dituela ondoren datorrena eta aurrean esandakoa. Bosgarrenik, *all animals have sense, but a dog is an animal*, (animalia orok sentitzen du, baina txakurra animalia da). Hemen partikulak bigarren esakunea lehenengoari lotuta dagoela adierazten du, silogismoaren txikia bezala.

6. *Partikulen erabilera azal-azaletik baino ez da ukitu hemen.*

Aipaturikoei, dudarik ez dut egiten, partikula honen beste esanahi asko gehi lekieke, baldin nire zeregina aipaturiko partikula bere hedadura guztian aztertzea eta agertzen den leku guztietan aintzat hartzea balitz. Norbaitek hau eginen balu, ez dakit ziur partikula honi agertzen den era ezberdin guztietan eman ahal izanzen litzaioken gramatikariek ematen dioten *hautakari* izena. *Baina* ez da nire asmoa hemen horrelako zeinuen azalpen oso-oso ematea. Orain ekarri ditudan adibideek partikulek duten erabilera eta indarrari buruz hausnartzeko eta gure gogamenak dikurtsoan burutzen dituen eta partikula horien bidez besteei iradoki diezazkiekeen ekintza

ezberdinak bistaratzeko balio lezakete, partikulok, batzuek iraunkorki eta beste batzuek egitura mota jakin batean, esakune oso baten esanahia biltzen baitute euren baitan.

VIII. KAPITULUA

Termino abstraktu eta konkretuez

1. *Termino abstraktuak ez dira bata bestearekiko predikagarriak. Zergatik den hori.*

Hizkuntzako hitz arruntek eta guk egiten dugun beraien erabilpen komunak gure ideien izaera ezagutzeko argia ekarri ziguketenez, arretaz aztertu izan bagenitu. Gogamenak, azaldu den moduan, bere ideiak abstraitzeko ahala du eta era horretan esentzia bilakatzen dira, gauzen espezieak bereizteko bide den esentzia orokor hain zuzen. Ideia abstraktu guztiak bereiziak direnez eta, beraz, bitarik bata ezin denez inoiz bestea izan, gogamenak intuiziozko ezagutzaz ikasi behar du hauen arteko aldea, eta ondorioz, esakuneetan ideia oso horietako bi ezin izanen dira inoiz bata bestearen baieztapen izan. Hizkuntzaren erabilera komunean ikusten dugu hori, ez baitugu bi hitz abstraktu edo ideia abstraktuen bi izen bata bestearen baieztapen izanez erabiltzerik. Zeren, euren artean antzekotasun handiena egonda ere eta egia-rik handiena izanda ere, adibidez, gizakia animalia dela, arrazoiduna dela, zuria dela, hala ere berehala ikusten du edonork honako esaldi honen faltsutasuna: *gizatasuna aberetasuna*, edo *arrazionaltasuna*, edo *zuritasuna da*; eta hori onarturiko edozein esaera bezain bistakoa da. Gure baieztapen guztiak, bada, ideia konkretuekiko bakarrik dira, eta hau ez da ideia abstraktu bat beste ideia bat dela baieztatzea, ideia abstraktu bat beste ideia bati lotuta dagoela baizik. Eta ideia abstraktuek edozein motatakoak izan daitezke substantzietan; gainerako

guztietan erlazioei buruzkoak dira ia beti. Substantzietan, gainera, gehienetan ahalei buruzkoak dira, adibidez: «gizakia zuria da» esaldiak esan nahi du gizakiaren esentzia daukan gauzak zurtasunaren esentzia ere badaukala, berau ez delarik besterik, bere begiez objektu arruntak hautemateko gai denarengan zurtasunaren ideia sortarazteko ahala baino; edo «gizakia arrazoiduna da» esaldiak gizakiaren esentzia daukan gauza berak arrazionaltasunaren esentzia ere badaukala, hau da, arrazoitzeko ahala.

2. Gure ideien arteko aldeak erakusten dituzte.

Izenen ezberdintasun honek gure ideien arteko aldeak erakusten dizkigu, zeren behar bezala begiratzen badiegu, ikusiko dugu *gure ideia bakunek izen bai abstraktuak eta bai konkretuak dituztela*; eta eurotatik bat (gramatikarien hizkera erabilliz) substantiboa da eta bestea adjektiboa, hala nola, zurtasuna, zuria, gozotasuna, gozoa. Gauza bera gertatzen da moduez eta erlazioez ditugun ideietan ere, hala nola, justizia, justua, berdintasuna, berdina, alde bakar honexekin, alegia, gizakien arteko erlazioen izen konkretuak nagusiki substantiboak direla, hala nola *paternitas*, *pater*, honen arrazoa ematea ez litzateke elarik zaila. Baina substantziez ditugun ideiei dagokienez, izen abstraktu gutxi ditugu edo agian bat ere ez. Zeren eskolek *animalitas*, *humanitas*, *corporeitas* eta beste horrelako batzuk sartu izan dituzten arren, oso gutxi dira, eskolek —hain barregarri ezin geratu eta— izen abstrakturik asmatu ezin izan dieten substantzien izen kopuru infinituarekin erkatuta; eta eskolek eratu eta euretako kideen ahotan jarri dituzten gutxi horiek ere ez dute oraindik onarpenik lortu erabilera komunean, ez eta onespen publikoaren baimena erdietsi ere. Eta honek iradokitzen du, hala deritzot nik behintzat, gizaki guztiek aitortzen dutela substantzien esentzia errealik ez dutela, ideia horientzako izenik ez dutenez gero, zeren ukan zituzketen, dudarik gabe, izen horiek, baldin horiei buruz ezer ez zekitela jakiteak hain alferreko ahaleginetik apartatu ez balitu. Eta horregatik, urrea harritik eta metala zuretik bereizteko adina ideia eduki arren, beldurrez baino ez ziren ausartu erabiltzen *aurietas*, *saxietas*, *metallietas*, *lignietas* eta horrelako terminoak, beraiek inolako ideiaz, eta horren jakitun izanik, eza gutzen ez zituzten substantzien esentziak adierazten omen zituztenak. Izan ere, *forma substantzialen* doktrina alde batetik, eta ez zuten eza gutza zutela pentsatzen zutenen uste ustela bestetik, izan ziren *anima* -

litas eta *humanitas* bezalako terminoak lehenbizi eratu eta gero sartu zituztenak; eta gero ez ziren beren eskoletatik askoz harago joan eta ez zuten lortu arrazoizko gizakiek hitz horiek erabiltzerik. Ongi dakit *humanitas* erabilera arruntekoa zela erromatarren artean, baina adiera oso ezberdinean, ez baitzuen han ezein substantziaren esentzia abstraktua ordezkatzeko. Modu baten izen abstraktua zen eta haren konkretua *humanus* zen, ez *homo*.

IX. KAPITULUA

Hitzen inperfekzioak

1. Hitzak geure pentsamenduak erregistratu eta komunikatzeko erabiltzen dira.

Aurreko kapituluetan esan dugunetik erraz da hautematen nolako inperfekzioa duten hizkuntzek eta hitzen izaerak berak nola dakarren haietako asko euren esanahian nahitaez dudazkoak eta ziurgabeak izatea. Hitzen perfekzioa edo inperfekzioa aztertzeke, euren erabilera eta xedea hartu behar da lehenengo kontuan; izan ere, bi horiek erdiesteko gai diren neurrian izanen dira hitzak perfektuagoak edo inperfektuagoak. Diskurtso honen lehenengo partean sarri aipatu dugu, beti ere harira etorri denean, hitzen erabilera bikoitza. Bata, geure pentsamenduak erregistratzeko. Bestea, gure pentsamenduak besteei komunikatzeko.

2. Hitz orok gure pentsamenduak erregistratzeko balio dezake.

Erabilera hauetako lehenengoari, hau da, *gure pentsamenduak erregistratzeko oroinenari laguntzekoari dag* okionez, honen bidez, nolabait esateko, geure buruari mintzatzen gatzazkio, eta zeinahi motatako hitzek balio dute honetarako. Izan ere, soinuak ideien zeinu nahitako eta indiferenteak direnez, geure golkorako baino mintzo ez garenean, nahi ditugun hitzak erabil ditzakegu geure ideiak adierazteko eta hitzotan ez da inperfekziorik izanen, ideia berarentzat beti zeinu bera erabiltzen dugun bitartean, zeren kasu horretan ez dugu

hutsik eginen hitz horien esanahia ulertzean eta horrexetan datza hizkuntzaren erabilera zuzena eta perfektzioa.

3. *Hitzen bidezko komunikazioa zibila edo filosofikoa izan daiteke.*

Bigarrenik, *hitzen bidezko komunikazioari* dagokionez ere hitzen erabilera bikoitza da: I. *Zibila*. II. *Filosofikoa*.

Lehenik, hitzen erabilera *zibila* zera dela ulertzen dut, alegia, pentsamenduen eta ideien komunikazio berben bidez, gizarteetan bizitza zibileko arazo eta komenentziei buruzko elkarren arteko solasaldia eta harremanak burutzeko balio duena. Bigarrenik, hitzen erabilera *filosofikoa* zera esan nahi du, hitzen nozio zehatza eramateko eta proposizio orokorretan egia ziur eta dudarik gabekoak adierazteko balio duen hitzen erabilera, gogamenak eurotan euskarria eta asebidea aurkitzen duelarik egiazko ezagutzaren bilaketan. Erabilera bi hauek oso diferenteak dira, eta askoz zehaztasun gutxiago beharko da lehenengoan bigarrenean baino, jarraian ikusiko dugun moduan.

4. *Hitzen inperfekzioa esanahian duten zalantzagarritasun edo anbiguitatea da, adierazten dituzten ideia motak eragindakoa.*

Hizkuntaren gauzarik inportanteena komunikazioan ulertua izatea delarik, hitzek, entzulearen baitan mintzatzailearen gogamenean ordezkatzeko duten ideia bera irudikatzen ez dutenean, ez dute behar bezala betetzen helburu hau ez diskurtso zibilean ez filosofikotan. Orain, soinuek gure ideiekin lotura naturalik ez dutenez, beren esanahi guztia gizakien ezarketa hautazkoaz («arbitrary») emandakoa baita, hemen mintzagai darabilgun inperfekzioa den beren esanahia-
ren zalantzagarritasunaren eta ziurgabetasunaren iturburua ordezkatzeko dutuzten ideietan datza, eta ez soinu batek ideia bat adierazteko beste batek baino gaitasun gutxiago izatean, zeren honetan perfektzio berekoak baitira guztiak. Orduan, hitz batzuen esanahiak beste batzuenak baino zalantzagarritasun eta ziurgabetasun handiagoa edukitzea dakarrena ordezkatzeko dutuzten ideien arteko diferentzia da.

5. *Hitzen inperfekzioaren kausa naturalak, batez ere modu mistoak eta substantzien ideiak ordezkatzeko dituztenetan.*

Hitzek berezko esanahirik ez dutenez, pentsamenduak elkartrukatu eta besteekin edozein hizkuntzatan diskurtso ulergarria mantendu nahi dutenek hitz bakoitzak ordezkatzeko duen ideia ikasi eta

gorde behar dute. Baina hau lortzea zailago da honako kasu hauetan. Lehenik, hitzek ordezkaturiko ideiak oso konplexuak eta ideia asko batera bilduz osaturikoak direnean. Bigarrenik, hitzek ordezkaturiko ideiek naturan loturarik ez dutenean, orduan ezin baitaiteke naturan eredurik aurkitu, ideiak beronen arabera zuzendu eta doitzeko. Hirugarrenik, hitzen esanahia erraz ezagutzerik ez dagoen eredu batekikoa denean («referred to»). Laugarrenik, hitzaren esanahia eta esentzia erreala gauza berbera ez direnean. Hauek zenbait hitz ulergarriren esanahiari dagozkion zailtasunak dira. Inola ere ulergarriak ez diren hitzak ez dira hemen aipatu beharrekoak, hala nola, beste batek atzementeko organorik edo ahalmenik ez duelako ulertu ezin dituen ideiak ordezkatzeko dituzten izenak, adibidez, koloreakitsuak edo soinuak gorra. Kasu horietan guztietan inperfekzioa hitzetan aurkituko dugu, gero zabalago azalduko dudan moduan, hitzak gure ideia mota diferenteei ezberdinki aplikatzean, zeren adi aztertuz gero, aurkituko dugu *modu mistoen izenek zalantzazkoak eta inperfektuak izatera joera hadiagoa dutela lehen bi arrazoiengatik eta substantzienek hurrengo biengatik nagusiki*.

6. Modu mistoen izenak zalantzazkoak dira. Lehenik, ordezkatzeko dituzten ideiak konplexuak direlako.

Modu mistoen izen askok euren esanahian ziurgabetasunerako eta iluntasunerako joera dute, eta hori hauexengatik gertatzen da: Lehenik, adierazten dituzten ideiak oso konplexuak eta osaketa handikoak direlako. Hitzek, komunikatzeko balio dezaten, arestian esan bezala, entzulearen baitan mintzatzailearen gogamenean ordezkatzeko duten ideia berbera irudikatu behar dute. Hori egin ezean, gizakiek elkarren gogamenak zarataz eta soinuak betetzen dituzte, baina ez diete beren pentsamenduak elkarri helarazten ez eta beren ideiak elkarren aurrean ipini ere, ez dutelarik, beraz, hizuntzaren eta diskurtsoaren xedea inola ere betetzen. Baina hitz batek oso ideia konplexua, osagai ezberdinez osaturiko atalez osatua, ordezkatzeko duenean, ez zaigu erraz gertatzen gizakioi ideia hori zehazki eratu eta gordetzea izenak erabilera komunean duen esanahi berbera ordezkatzeko moduan, alderik txikienik ere gabe. Hala gertatzen da gizakien ideia arras konposatuak, hala nola, termino moral gehienek oso gutxitan edukitzea esanahi zehatz bera bi gizaki ezberdinen gogamenetan, zeren bataren ideia konplexua nekez etortzen baita bat bestearenarekin, eta askotan

norbere ideia ere atzo izandakotik eta bihar izanen dugunetik ezberdina izaten da.

7. *Bigarrenik, ez daukatelako eredurik naturan.*

Modu mistoen izenik gehienak, *naturan eredurik ez dutenez* horien arabera gizakiek haien esanahia zuzendu eta doitzeko, gizaki ezberdinetan oso ezberdinak eta zalantzazkoak dira. Gogamenak bere nahierara bildutako ideia piloak dira, diskurtsoaren xedeei begira eginak eta haren nozioei egokituak; gogamenaren asmoa, beraz, ez da egiazki existitzen den ezer kopiatzea, baizik gauzak berak egindako arketipo edo forma hauekin ados datozen neurrian izendatu eta sailkatzea. *Fikzio, balaku* edo *iseka* hitzak lehenbizi erabili zituenak hitz horien bidez ordezkatu nahi izan zituen ideiak bildu zituen, eta orain edozein hizkuntzatan sartzen diren moduen izen berriekin gertatzen den bera gertatu zen antzinakoekin ere lehen aldiz erabili zirenean. Ideien bildumak ordezkatzeko gogamenak bere nahierara egindako izenek, beraz, zalantzazko esanahia ukan behar dute nahitaez, bilduma horiek ez baitira naturan iraunkorki batuta sekula aurkitzen, ez eta inolako eredurik ere gizakiek ideiak berauei doitu ahal izateko. Hilketa edo sakrilegio eta horrelako hitzek zer esan nahi duten ezin liteke gauzetatik eurentatik jakin; ideia konplexu horien atal asko ezin daitezke ekintzan bertan ikusi; gogamenaren intentzioak edo gauza sakratuen erlazioek, hilketaren edo sakrilegioaren atal bat osatzen dutenek, ez dute beharrezko loturarik horrelakoren bat egiten duenaren kanpoko eta ageriko ekintzarekin; eta hilketa burutzeko armaren gatiloari tiratzeak, ageriko ekintza bakarra agian berau, ez du inondiko lotura naturalik hilketa deituriko ideia konplexua osatzen duten beste ideiekin, Haien batasun eta konbinazio bakarra izen bakar baten pean batzen dituen adimenetik dator; baina inondiko eredurik ez araurik gabe batzen dituenek, horrelako nahitako bildumak ordezkatzeko dituen izenaren esanahia diferentea izan behar gizaki ezberdinen gogamenetan, apenas dutelako, hautazko («arbitrary») ideiotan, arau egonkorrik arau horren bidez beren buruak eta nozioak erregulatzeke.

8. *Erabilera komuna edo hizkuntz propietatea ez da behar bezainbateko erremedioa.*

Egia da uste izan daitekeela erabilera komuna, hots, hizkuntz propietatearen araua izan daitekeela hizkuntzaren esanahia finkatzeko nolabaiteko laguntza, eta ezin daiteke uka neurri batean izan ere bade-

la. Erabilera komunak nahiko ondo arautzen du hitzen esanahia solasaldi arrunterako; baina inork ere ez duenez hitzen esangura zehatza finkatzeko ez eta zein ideiei erantsi behar zaizkien erabakitze auto-ritaterik, erabilera komuna ez da nahikoa diskurtso filosofikoari izenak doitzeko, ez baitago ezein ideia oso konplexuren (besterenik ez aipatzearren) ia izen batik ere, erabilera arruntean zabalera handikoa ez denik eta, zehaztasunaren mugen barruan eutsita ere, ideia oso diferenteen zeinu bihur ez daitekeenik. Gainera hizkuntz propietatearen araua eta neurria inon ere ezarri gabe dagoenez, beti izaten da eztabaidagarri hitz bat era batera edo bestera erabiltzea hizkuntz propietatez jokatzeko den ala ez. Eta hemendik denetik argi dago horrelako ideia oso konplexuen izenak inperfekziora eta esanahi dudazkoa eta ziurtasunik gabekoa izatera joera dutena; eta elkar ulertzeko moduko gogamenaren jabe diren gizakien artean ere, ez dute ideia bera ordezkatzeko mintzatzailearen ahoan eta entzulearen belarrietan. *Loria* eta *esker ona* hitzak herrialde oso batean zeharreko gizaki guztien ahoan gauza bera izan arren, izen horren bidez bakoitzak pentsatzen duen edo adierazi nahi duen ideia konplexua oso diferentea izan ohi da itxuraz hizkuntza beraz baliatzen diren gizakien artean.

9. Modu mistoen izenak ikasteko erak ere areagotzen du haien zalantzagarritasuna.

Modu mistoen izenak ikasteko ohiko erak ere ez du gutxi areagotzen izenon esanahiaren zalantzagarritasuna. Zeren haurrek hizkuntza nola ikusten duten aztertzen badugu, ikusiko dugu ideia bakenen edo substantzien izenak zer esan nahi duten ulertarazteko, jendeak normalean, haurrak zeren ideia hartu behar duen erabaki ondoren, gauza hori erakusten dio eta gero gauza hori ordezkatzeko duen izena errepikatzen dio, adibidez, *zuria*, *gozoa*, *esnea*, *azukrea*, *katua*, *txakurra*. Baina modu mistoetan, eta batez ere inportanteenetan, hau da, moraleko ideiak adierazten dituztenetan, normalean soinuak irakasten dira lehenbizi; eta gero zein ideia abstraktu ordezkatzeko duten jakiteko, edo besteen azalpena entzuten dute edo, gehienetan gertatzen den moduan, beren kabuzko oharrenaz eta ahaleginaz uler ditzaten uzten dira. Eta izenen esanahi egiazkoa eta zehatza bilatzera oso emanak ez direnez gero, *moraleko ideiak* ordezkatzeko dituzten hitzak askoren ahotan ez dira soinu hutsak baino asko gehiago eta, esanahirik daukatenean, esanahi hori oso lausotua eta zehazgabea da gehienetan eta,

beraz, oso iluna eta nahasia. Eta arreta handiagoz beren nozioak finkatu dituztenek eurek ere nekez gainditzen dute beren izenei beste pertsona batzuek, argiak eta artatsuak hauek ere, izen horientzat dituzten ideia konplexu diferenteak emateko arriskua. Eztabaidako hitzaldietan edo solasean ohoreaz, fedearaz, graziaz, erlijioaz, elizaz mintzo direnean, nola ohartu ez hitzak berdinak izan arren gizakiek hitz horiekiko nozio ezberdinak dituztela? Horretan haxe baino ez da gertatzen, alegia, ez datozela bat hitz horien esanahian, ez eta bakoitzaren gogamenean hitz horiek ordezkatzeko dituzten ideia konplexuetan; eta hemendik datozen eztabaida guztiak hitzen esanahiaren ingurukoak baino ez dira. Eta, horrela, ikusten dugu jainko zein giza legearen interpretazioek ez dutela amairik; iruzkin batek beste bat sortzen du eta azalpenak berriro azaldu beharreko gaia dakar, eta moraleko hitz hauek zehaztu, bereizi, aldatu beharrik ez du amairik. Gizakiek egingadako hitzak direnez eta guztiek dutenez ahal bera, amairik gabe bider ditzakete hitzok. Hainbat pertsona geratu dira Eskriturako testu edo kodeko klausula bati lehen irakurketan aurkitu dioten esanahiaz oso konforme, baina gero iruzkingileak kontsultatzean haien azalpenek ez diete balio izan lehen hartutako zentzua galtzeko, zalantzak sortu edo gehitzeko eta testu horretara iluntasuna ekartzeko baino. Ez diot hau iruzkinak beharrezko ez direla uste dudalako, modu mistoen izenak berez ziurtasunik gabeak direla adierazteko baizik, are hizkuntza gai deneinoko argitasunaz euren pentsamenduak adierazi nahi eta ahal dituztenen ahotan ere.

10. *Hemendik argi dator ekidinezina dela antzinako autoreen - gan aurkitu beharreko iluntasuna.*

Aipatu beharrik ere ez dago honek nolako iluntasuna dakarkien antzinako garaietan eta herrialde ezberdinetan bizi izan ziren autoreen liburuei. Idazki horiek argitzeko gizaki jakitunek idatzitako liburu ugariak ongi asko frogatzen dute nolako arreta, lana, zuhertasuna eta arrazoinamendua behar diren antzinako autoreen idazkien egiazko zentzua aurkitzeko. Baina horietako liburuak ez direnez gu haien esanahiaz interesatuegi egoteko modukoak, guk sinetsi beharreko egiez edo bete beharreko legez ari direnak salbu, egiotan erratzeak edo lege horiek hausteak eragozpenak dakarzkigutelako, ez dugu zertan biziki kezkatu beste autoreen idazkien zentzuaz, beraien iritziez baino idazten ez dutenez gero, ez baitugu haien iritziak ezagutzeko premia

handiagorik haiek gureak ezagutzeko baino. Gure ongia ala gaizkia haien dekretuen menpe ez dagoenez, arriskurik gabe gera gintezke haien nozioak ezagutu gabe eta, horregatik, autore horiek irakurtzean ikusten badugu ez dituztela euren hitzak behar adinako argitasun eta gardentasunaz erabiltzen, albo batera utz ditzakegu eta, haiei inolako irainik gabe, geure baitan esan:

Si non vis intellegi, debes negligi.

11. *Substantzien izenek zalantzazko esanahia dute ordezkatzten dituzten ideiak gauzen errealtatearekikoak direlako.*

Modu mistoen izenen eanahia ziurtasunik gabea baldin bada, ideia horiek naturan eredu errealik ez dutelako berauetara doitzeko, substantzien izenek kontrako arrazoiagatik dute zalantzako esanahia, hau da, adierazten dituzten ideiek gauzen errealtateari egokitu beharrekoak bide direlako eta beraiei naturak moldatutako eredu bezala dagozkienak. Substantziez ditugun ideietan ez daukagu modu mistoetan dugun askatasuna, gauzak sailkatu eta izendatzeko egoki ikusten ditugun konbinazio guztiak era ditzagun. Hauetan naturari jarraitu behar diogu eta geure ideia konplexuak existentzia errealetara egokitu, euren izenen esanahia gauzez eurez erregulatuz, gure izenak haien zeinu izatea eta haiek ordezkatzeari nahi badugu. Hemen, egia da, badiugu ereduak segitzeko, baina euren izenen esanahia oso zalantzarri bihurtuko duten ereduak, zeren izenak esanahi aldakor eta ezberdinekoak izan behar dute, baldin adierazten dituzten ideiak gugandik kanpoko ereduak, inola ere edo inperfekzio eta ziurgabetasun handiaz baino ezagutu ezin direnei, badagozkie.

12. *Substantzien izenak, lehenik, ezagutu ezin daitezkeen esentzia errealei dagozkie.*

Substantzien izenak, lehen ere azaldu dudanez, erabilera arrunterako erreferentzia bikoitza dute. Lehenik, batzuetan *gauzen barne osaera erreala*, haien propietate guztien iturburu eta bilgune dena, ordezkatzten dute eta beronekin ados datozela suposatzen da. Baina osaera edo, dei dakiokkeen bezala, esentzia erreala hau guztiz ezezagun dugunez, berau ordezkatzeko jartzen den soinu oro ziurtasunik gabea da nahitaez bere aplikazioan, eta ezin izanen dugu jakin zeri deitu behar zaion *zaldi* edo *antimonio*, hitz horiek erabat ezezagun ditugun esentzia errealak adierazteko erabiltzen direnean. Eta

kasu honetan substantzien izenak ezagutu ezin diren erduei dago-
kienez («being referred to»), erduek ez dute balio haien esanahiak
doitu eta arautzeko.

13. *Bigarrenik, substantzian koexistitzen diren eta era inper-
fektuan baino ezagutzen ez diren koalitategi dagozkie.*

Substantzien izenek arartegabe adierazten dutena *substantzie -
tan koexistitzen aurkitzen diren* ideia bakunak baino ez direlarik, ideia
hauek dira, gauzen espezie ezberdinetan bildurik daudenez, egiazko
ereduak, izenen erreferentzia direnak eta berauen esanahia zuzentze-
ko biderik onena. Baina arketipo hauek ere ez dute betetzen aipatu
xedea izen horiei beren esanahi oso ezberdin eta zalantzarria ken-
tzeraino betetzen. Izan ere, subjektu berean biltzen diren ideia baku-
nen kopurua oso handia delarik eta guztiak dutelarik eskubide bera
izen espezifikoak ordezkatzeko duen ideia konplexuaren barruan izate-
ko, gizakiek, nahiz eta denek duten gogoan subjektu bera, ideia arras
ezberdinak eratzen dituzte subjektu horri buruz eta, horretara, hura
adierazteko erabiltzen duten hitzak gizaki ezberdinen baitan esanahi
arras diferenteak izaten ditu nahitaez. Ideia konplexuen osagai diren
koalitate bakunik gehienak beste gorputzetan aldaketak eragiteko eta
berauek nozitzeko ahalak direnez, ia amaigabeki ugariak dira. Metalik
baxuenak suaren eraginez soilik zenbat aldaketa ezberdin nozitu
ditzakeen ikusi eta kimikari batek beste gorputz batzuk aplikatuz zen-
bat gehiago hartuko litzukeen konturatzen denak ez luke harrigarri
aurkituko nik uste izatea ez dela hain erraz nolanahiko gorputzaren
propietateak biltzea eta guztiz ezagutzea gure ahalmenen neurriko
ikerketaren bidez. Zenbat diren inork ere ezin zehazteko adina direla-
rik, beraz, gizaki ezberdinek era diferentean ikusten dituzte beren tre-
betasunaren, arretaren eta gorputz horiek eskuerabiltzeko eren arabe-
ra, eta horregatik substantzia beraren ideia ezberdinak izan behar
dituzte nahitaez, haien izen komunaren esanahia oso diferente eta
zalantzarria bihurtuz. Izan ere, substantzien ideia konplexuak natu-
ran substantzia horretan existitu bide diren ideia bakun guztiek osa-
tzen dituztenez, edonork dauka bere ideia konplexuan berak elkarre-
kin bilduta ikusi dituen koalitate guztiak sartzeko eskubidea: zeren,
urreaken substantzian aski izan ohi du batek kolorea eta pisua, beste
batek, ordea, uste du urreaken ideia egiteko *aqua regiatan* disolbaga-
rritasuna ere gehitu behar zaiola koloreari urreaken ideian, eta beste

batek fundigarritasuna ere bai; *aqua regiatan* disolbagarritasuna kolore eta pisuarekin adina fundigarritasunarekin eta beste edozerekin ere etengabeki loturik baitago, beste batzuek harikortasuna eta finkotasuna, etab. sartzen dituzte tradizioz edo esperientziaz harturiko irakaspenaren arabera. Horietarik zeinek ezarri du urre hitzaren esanahi zuzena, edo nor da hori erabakiko duen epailea? Horietako bakoitzak naturan du bere eredia eta bertara jotzen du eta arrazoiz uste du berak urre hitzak ordezkaturiko ideia konplexuan aproba egin ondoren aurkituriko koalitateak sartzeko hainbesteko eskubidea daukala, nola beste batek horrelako azterketarik egin gabe horiek kanpoan uztekoa, edo nola hirugarren batek beste proba batzuk egin ondoren beste batzuk sartzekoa. Zeren koalitate horiek naturan batuta egotea izanik ideia konplexu batean biltzeko oinarri benetakoa, nork esan lezake haietako batek besteak baino arrazoi gehiago daukala ideia horretan sar edo kanpoan utz dezaten? Eta hemendik ezinbestez dator gizakiek izen bera ezarri ohi dieten substantzien ideia konplexuak oso ezberdinak direla eta, beraz, haien esanahia ere oso zalantzarria.

14. *Hirugarrenik, substantzian koexistitzen dir en eta era inperfektuan baino ezagutzen ez diren koalitateei dagozkie.*

Gainera, ia gauza partikular bat ere ez dago, bere ideia bakanetariko batzuetan gauza partikularren kopuru handiagoarekin eta beste batzuetan txikiagoarekin komunikatzen ez denik. Eta nork erabaki dezake kasu horietan zein izan behar duten izen espezifikoak adierazitako bilduma zehatza osatzera sartuko diren ideia bakunak? Edonork zehatz lezake eskubidez zein koalitate nabari edo komun utzi behar diren substantzia baten izenetik kanpo, edo ezkutukoagoak eta partikularragoak diren zein sartu behar diren? Gauza hauek guztiek, batera hartuta, ia hutsik gabe edo huts batik ere gabe sortzen dute esanahi ezberdin eta zalantzazko hori substantzien izenetan, honek ziurgabetasuna, eztabaidak eta errakuntzak sortzen dituelarik filosofi gaietarako erabiltzen ditugunean.

15. *Inperfekzio hau eduki arren, substantzien izenek balio lezaketek solasaldi arruntetan erabiltzeko, baina ez filosofi gaietarako.*

Egia da, solasaldi zibil eta arruntetan, substantzien izen orokorrekin, beren esanahi arruntetan zenbait ageriko koalitatek erregulatuak (hala nola, forma eta irudiak hazizko ugalketa ezaguna duten gauzetan eta beste substantzia batzuetan koloreak gehienbat, beste

koalitate sentigarri batzuekin batera), balio dutela gizakiek mintzatzean besteei ulertarazi nahi dizkieten gauzak izendatzeko; eta horrela urre edo sagar hitzek adierazitako substantziak bata bestetik bereizteko moduan bururatzen dituzte. Baina ikerketa eta eztabaida *filosofikoetan*, hauetan egia orokorrak ezarri eta zenbait posiziotik ondorioak atera behar direlarik, egiaztatuko da substantzien izenen esanahi zehatza ez bakarrik ez dagoela ongi ezarrita, baizik ongi ezartzea oso zaila dela ere. Esate baterako, xaflakortasuna edo finkotasun maila zehatz bat urreaz duen ideia konplexuan sartu nahi duenak egin ditzake urreari buruzko proposizioak eta horietatik urreari adiera horretan hartuta egiatan eta argiro darizkion ondorioak atera; baina beste gizaki bat ezin da behartu horien egia onartzera edo sinestera, baldin hark xaflakortasuna edo finkotasun maila hori ez baditu hartzen urre hitzak, berak darabilen adieran, ordezkatzan duen ideia konplexuaren osagaitzat.

16. Adibide aipagarria: *likidoa*.

Inperfekzio natural eta ia ekidinezina da hau, substantzien izenik gehienetan eta edozein hizkuntzatan gizakiek aise aurkituko dutena, nozio nahasi eta lanbrotsuetatik ikerketa hertsia eta zehatzagotara pasatzean. Zeren orduan konturatuko baitira zein zalantzakoa eta iluna den erabilera arruntean oso esanahi argi eta zehatzekoak ziruditen hitz horien esanahia. Mediki trebe eta argi batzuen bilera batean izan nintzen behin eta halakoren batean galdera bat sortu zen, ea likidirik pasatzen zen nerbioen harietan zehar. Nahikoa luzaroan ibili ziren eztabaidan eta alde bateko eta besteko argudio asko jarritz nork bere iritzia defendateko. Nik, beti susmatu izan dudanez eztabaidarik gehienak gauzen ikusmolde errealarari buruz barik hitzen esanahiari buruz izan ohi direla, eskatu nien eztabaida horretan aurrera egin aurretik, beraien artean azter eta erabaki zezaten likido hitzak zer esan nahi duen. Harritu samar agertu ziren hasieran proposamen honen aurrean eta hain argiak izan ez balira arinkeriatzat edo bitxikeriatzat hartu zuketan, ez baitzegoen han inor likido hitzak zer ordezkatzan duen ezin hobeto zekiela uste ez zuenik, eta neuk ere uste dut ez dela hau substantzien izenentan nahasienetakoa. Hala ere, atseginenez onartu zuten nire iradokizuna eta azterketa ondoren ikusi zuten hitz honen esanahia ez dela beraiek uste bezain finkoa eta ziurra eta beraietako bakoitzak hitz hori ideia konplexu ezberdin baten ordain-

tzat zerabiltela. Honek konturatzen lagundu zien euren eztabaida funtsean termino honen esanahiari buruz zela eta alde txikia zutela materia fluido eta mehe bat nerbioen isurbidetik pasatzeaz zuten iritzietan, nahiz eta ez zen erraz adosten materia hari likido izena eman behar zitzaion ala ez, baina hau aztertu ondoren ikusi zuten honek ez zuela eztabaidaka ibiltzerik merezi.

17. *Beste adibide bat: urrea.*

Agian beste toki batean ukanen dut aukera ohartarazteko ares-tian azaldutakoa dela kasua gizakiek hain gartsu egiten ditugun eztabaidarik gehienetan. Har dezagun hemen hertsitasun handixeagoz aztergai goian aipatu dugun urrearen adibidea, eta ikusiko dugu zein zaila den hitz horren esanahia zehazki mugatzea. Nik uste dut denok gatzela bat kolore hori distiratsuko gorputza ordezkatzan duen hitza dela esatean; eta haurrek hitz hori ideia horrixe lotu diotenez, paumaren isatsaren alde hori distiratsua haientzat urrea da zehazki. Beste batzuek zenbait materi zatitan kolore horrekin batera fundigarritasuna aurkitzen dutelarik, konbinazio honekin ideia konplexu bat eratzen dute eta urre izena eranstean diote substantzia mota hori izendatzeko; eta era horretan suak erraustu ditzakeen gorputz distirante guztiak urre izatetik kanpo uzten dituzte eta, kolore distiratsu hori edukirik, suak erraustu barik funditu egiten dituenak bakarrik onartzen dituzte espezie horretakotzat. Beste batek horiei pisua gehitzen die, kolore horrekin fundigarritasuna bezalaxe arartegabe baturik dagoen koalitate denez, uste duelako hark bezainbateko eskubidea duela pisuak ideia konplexu horretan sartzeko eta izen horren bidez adierazia izateko; eta horregatik harentzat aurreko ideia, kolore horia eta fundigarritasuna dituen gorputzarena, inperfektua da. Beste koalitate guztiekin ere horixe gertatzen da eta inork ezin du esan naturan beti baturik dauden koalitate banaezinetarik zergatik batzuk esentzia nominalean sartzen diren, beste batzuk kanpoan uzten diren artean; edo atzamarrean daramadan eraztunaren materiala adierazten duen urre hitzak zergatik zehazten duen espezie hau beronen kolore, pisu eta fundigarritasunaren bidez eta ez kolore, pisu eta *aqua regiata*n disolbagarritasunaren bidez, likido honek disolbatzea suak funditzea bezain banaezina baita urretik; eta propietate biok ez dira besterik, substantzia honek bere gain eragin ezberdina duten beste gorputz birekin dituen erlazioak baino. Zeren zer dela eta da fundigarritasuna urre hitzak

adierazitako esentziaren osagai eta disolbagarritasuna propietate bat besterik ez? Edo zergatik da kolorea urreaken esentziaren osagai eta xaflakortasuna propietate bat besterik ez? Esan nahi dudana zera da, horiek guztiak urreaken osaeraren menpe dauden propietateak eta ahalak, aktiboak eta pasiboak, besterik ez direnez beste gorputz batzuekiko erlazioan, inork ez duela autoritaterik urre hitzaren esanahia (naturan existitzen den gorputz horri dagokionez) gorputz horretan aurkituriko ideia bilduma bati atxikitzeko, beste bati baino gehiago. Eta honen ondorioz hitz horren esanahiak oso zalantzarria izan behar nahitaez, zeren substantzia berean pertsona ezberdinek propietate ezberdinak hautematen dituzte, esan dugun moduan; eta gehitu nezakeela uste dut inork ez dituela guztiak hautematen. Eta horregatik gauzen deskribaketa oso inperfektuak ditugu eta hitzek ziurgabetasun handiko esanahiak dituzte.

18. *Idea bakunen izenak dira zalantzarik gutxien sortarazten dutenak.*

Esan denetik, aise konturatzen da bat gorago seinalaturikoaz, hau da, ideia bakunen izenak direla, beste guztien artean, errakuntzarik gutxien sortarazten dutenak, jarraian azalduko ditudan arrazoiengatik. Lehenik, izen horiek ordezkatzten duten ideia bakoitza pertzepzio bakar bat baino ez denez, ideia konplexuak baino askoz errazago eratzen eta askoz argiago gordetzen ditugulako eta, ondorioz, substantzien eta modu mistoen ideia konposatuek ukan ohi duten ziurgabetasun hori ez dutelako, hauetan ez baita erraz osagai dituzten ideia bakunen kopuruari buruz bat etortzea, ez direlarik, horretara, hain ongi atxikitzen gogamenean. Eta bigarrenik, haiek inoiz ez daudelako arartegabe adierazten duten pertzepzioa ez den beste ezein esentziari loturik («referred to»), esentziarekiko erreferentzia horixe delarik substantzien izenen esanahia hain zalantzazko bihurtzen duena eta hainbeste eztabaida sortarazten duena. Besteak edo norbere burua engainatzeko asmoz hitzak gaizki erabiltzen ez dituztenak nekez erratzen dira, ezagun dituzten hizkuntzetan, ideia bakunen izenen erabilpenean edo esanahaian. *Zuri* eta *gozo*, *hori* eta *mingots* terminoek esanahi nabaria dute eta nornahik zehazki ulertzen ditu edo ulertzen ez baditu aise ohartzen da eta galdetu egiten du. Baina ez da hain erraz ziur jakitea *xalotasun* edo *urritasun* hitzek inoren ahotan zehazki zein ideia bilduma ordezkatzten duten. Eta *urre* edo *burdina*

hitzek zer esan nahi duten ongi asko dakigula uste dugun arren, hitz horiez besteek adierazi nahi duten ideia konplexu zehatza ez da hain ziurra, eta uste dut oso bakanki ordezkatzan dutela ideia bilduma bera mintzatzailearen eta entzulearen gogamenean. Eta honek gaizkiulertu eta eztabaida ugari ekar dezake gizakiek hitz horiek proposizio orokorrak eginez eta beren gogamenetan egia unibertsalak ezarri guraz eta berauetatik datozen ondorioak kontuan hartu nahiz erabiltzen dituzten diskurtsoetan.

19. *Eta horien hurrengo, modu bakunen izenek sortzen dute zalantzarik gutxien.*

Arrazoi beragatik, ideia bakunen izenen hurrengo, *modu bakunenak* dira zalantzari eta ziurgabetasunari lekuri gutxien uzten dietenak, irudiaren eta kopuruaren izenek bereziki, hauen ideia oso argi eta bereziak baititugu. Zeren ulertzeko gogamena daukan nork ulertu du sekula gaizki *zazpi* edo *triangelu* hitzen esanahi arrunta? Eta oro har esan daiteke mota bakoitzean konposaketa gutxien duten hitzak direla zalantzarik gutxien sortarazten dutenak.

20. *Zalantzazkoenak modu misto eta substantzia konposatuenen izenak dira.*

Horregatik, ideia bakun oso gutxi eta nabariek osaturiko modu mistoek oso ziurgabetasun handiko esanahia ez duten izenak ukan ohi dituzte. Baina ideia bakun asko hartzen dituzten modu mistoen izenak oso esanahi dudazko eta zehazgabea dutenak izaten dira normalean, azaldu den moduan. Esentzia errealak edo dagozkien ereduaren irudikapen doiak ez diren ideiei erantsitako substantzien izenek inperfekzio eta ziurgabetasun are handiagoa dute, egia filosofikoetarako erabiltzen dituguean batik bat.

21. *Inperfekzio hau zergatik egozten zaion hitzei.*

Substantzien izenetan gertatzen zaigun nahasmendu itzela gehienbat gure ezagutza faltatik eta haien osaera erreala deskubritzeko gai ez izatetik datorkigunez, harritzekoa izan daiteke nik inperfekzio hau geure hitzei egozte, adimenari baino gehiago. Eta eragozpen hain justua dirudi, non behartuta aurkitzen naizen metodo hau zergatik erabili dudan azaltzera. Aitortu behar dut, beraz, nik adimenari buruzko diskurtso hau, obra hau, hasi nuenean eta nahiko geroago ere, ez nuela uste hitzei buruzko inolako gogoetarik egin beharko nuenik.

Baina, gure ideien jatorria eta konposaketa jorratu ondoren, gure eza-
gutza hedaera eta ziurtasuna aztertzen hasi nintzenean, konturatu
nintzen kontu honek hitzekin hain lotura handia zuela non, lehenbizi
hitzen indarrari eta gauzak adierazteko erari erreparatu ezean, ezer
gutxi esan zitekeen argi eta egokiro ezagutzari buruz, honen helburua
egia izanik, etengabeko zerikusia baitauka proposizioekin. Eta ezagu-
tza gauzetan amaitzen bazen ere, ohartzen nintzen hori hitzen bitartez
gertatzen zela halako moldez, non apenas bereiz zitezkeen gure eza-
gutza orokorretik. Hitzek gutxienez tartekatu egiten dira gure adime-
naren eta kontenplatu eta atzeman nahi dugun egiaren artean, halako
moldez tartekatu ere, non objektu ikusgarriek zeharkatu behar duten
bitarteko espazioa bailiran, begiak lausotzen dizkiguten, gure adime-
nera iluntasuna eta nahasmendua igorritz. Gogoan hartzen badugu
geure buruei eta besteei egindako engainurik gehienak eta gizakien
arteko eztabaidarik eta nozioetan aurkitzen ditugun errakuntzarik
gehienak hitzetatik eta euren esanahi zalantzazko edo okerretik dato-
zela, arrazoiz pentsatuko dugu hau ez dela eragozpen makala ezagu-
tzara heltzeko bidean. Eta hemendik ateratzen dut oso kontuz eta adi
ibili behar dugula honetan, zeren, arazo hau eragozpentzat hartu beha-
rrean, eragozpen hau areagotzea ikasketen helburu bihurtu baita eta
erudizioaren eta fintasunaren ospea erdietsi baitu, hurrengo kapitu-
luan ikusiko dugun moduan. Hala ere, halako joera bat dut sinestera
ezen, hizkuntzaren akatsak sakonago aztertuko bagenu, munduan
hainbeste iskanbila ateratzen duten eztabaidarik gehienak berez isil-
duko liratekeela eta jakinbidea, eta bakebidea ere agian, egun ditugun
baino irekiago genituzkeela.

*22. Honek zuhur jokatzeko irakatsi behar liguke geuk antiguale -
ko idazleen testuei egotzitako adiera besteei ezartzeko orduan.*

Ziur nago hizkuntza orotan hitzen esanahia, darabiltzanaren
pentsamendu, nozio eta ideien menpe dagoelarik, ziurgabetasun han-
dikoa dela nahitaez hizkuntza eta herrialde bereko jendearentzat. Hau
erabat bistakoa da idazle greziarren halatan, non haien obrak
orritatzeko lana hartzen duen aurkituko duen haietako ia bakoitza
era ezberdinean mintzo dela, nahiz eta berba berak erabili. Herrialde
bakoitzeko zailtasun honi, herrialde ezberdinak eta antzinako garaiak
gehituz gero, konturatzen gara hauetan mintzatzaileek eta idazleek
hainbat gauza ezberdin ukanen zituztela, hala nola, nozio, izakera,

ohitura, hizkuntz apaindura eta irudi eta abar diferenteak, eta hauetako bakoitzak eragina ukanen zuen orduan haien hitzen esanguran, nahiz eta guk, orain beraien arrastorik ez dugunez, ezagutu ez. Eta honek antigualeko idazkien interpretazioetan eta oker ulertuetan elkarrekin bigunak izatera eraman behar gaitu; izan ere, idazkiok ongi ulertzea inportantea bada ere, beren baitan zailtasun handiak dituzte hizkerari dagokionez, hizkuntza (ideia bakunen izenak eta oso ageriko gauza batzuk kenduz gero) ez baita gai, terminoak etengabe definitzen jardun ezean, mintzatzailearen esanahia eta asmoa entzuleari inolako zalantzarik eta ziurgabetasunik gabe eramateko. Eta erlijio, lege, eta moraltasunari buruzko diskurtsoetan, garrantzirik handieneko gaiak direnez, zailtasunik handiena aurkituko dugu.

23. Batez ere Itun Zahar eta Berriko idazkiei dagokienean.

Itun Zahar eta Berriari buruzko interpretazio eta iruzkinez osatu diren liburu piloa dugu esandakoaren froga nabarmena. Testuan esandako guztia egia hutsezina izan arren, irakurleak oso erraz huts egin dezake edo, hobeto esanda, huts egitea beste aukerarik ez du ukamen testu hori ulertzean. Eta ez da harritzekoa Jainkoaren nahiak ere hitzez jantzia denean horrelako tresnei dagokien zalantza eta ziurgabetasuna erakustea, Jainkoaren semea ere, haragiz jantzirik, giza naturaren hauskortasun eta eragozpen guztien menpean izan baitzen, bekatuaren menpean izan ezik. Eta haren ontasuna goraipatu beharra daukagu, bere lanen eta probidentziaren karaktere hain irakurgarriak mundu guztian zehar zabaldu dituelako eta gizateria guztiari arrazoimenaren argia eman diolako, halatan non hitz idatzi hori heldu ez zaienek ezin duten, arrazoimen horren bidez, zalantzarik egin Jainkoaren existentziaz edo hari zor diogun obedientziaz. Erlijio naturaleko aginduak argiak, gizateria guztiak erraz ulertzeko modukoak eta oso gutxitan eztabaidatuak direnez eta, bestalde, errebelaturiko egiek, liburuek eta hizkuntzak dakarzkigutenak izanik, hitzei datzekien berezko iluntasun eta zailtasunak dituztenez, uste dut arduratsua goak eta artatsua goak izan behar genukeela lege naturalei erreparatzeko eta ez hain dogmatikoak, erabatekoak eta erabakitsuak egia errebelatuen interpretazioan geure iritzia besteei ezartzeko orduan.

X. KAPITULUA

Hitzen abusuaz

1. *Hitzen abusu ikaragarria.*

Hizkuntzaren berezko akatsez eta hitzen erabileran ekiditen hain zailak diren iluntasun eta nahasmenduaz gain, beste hutsegite batzuk nahita egiten dira axolagabekeriaz, eta gizakiak errudun gara horiez, zeren, komunikazio bide hori erabiltzean, zeinu horiek berez izan behar luketen baino ilunago eta nahasiago bihurtzen baititugu.

2. *Lehenik, hitzak sarri ideiarik gabe edo ideia argirik gabe erabiltzen dira. Zenbait hitz ideia argirik erantsi gabe sartzen dira, jatorrizko erabileranere*

Lehenik, honetan egiten den lehen abusua eta nabarmenena ideia argi eta bereizirik gabeko hitzak erabiltzea da, edo, okerrago dena, ezertxo ere adierazten ez duten zeinuak. Bi motatakoak dira hauek.

I. Edonor ohar daiteke edozein hizkuntzatan zenbait hitz dau dela, ongi aztertuz gero, garbi asko erakusten dutenak ideia argi eta bereizirik ez dutela ordezkatzeko ez jatorrian ez euren erabilera arruntan. Sekta filosofiko eta erlijioso gehienek bereganatu dituzte horrelakoak. Izan ere, haien sortzaile edo bultzatzaileek sentimendu bereziak eta jende arruntaren irispidetik kanpokoak erakutsi nahian edo iritzi arrotzak adierazteko edota euren sitemako gune ahulak disimulatzeko, ia hutsik gabe asmatzen dituzte hitz berriak eta halakoak, non

aztertu ondoren *esanahi gabeko terminoak* dei dakiekeen. Zeren, asmatu zirenean ideien bilduma zehatzik erantsita ez zutenez, edo behintzat, aztertuz gero, bateragarri ez diren ideiak dituztela aurkitzen denez, ez da harritzekoa gero alderdi bereko kideen erabilera arruntan hots huts gertatzea, hau da, esanahi gabeko edo gutxiko hitz, hitzok euren elizetako eta eskoletako ikur bereizgarritzat erabiltzea nahikotzat dutenen artean, aurretik zehazki zein ideia ordezkatzan duten aztertzeko buruhauste handirik hartu gabe. Ez da behar nik hona adibideak metatzerik, gutariko bakoitzak nahi adina aurki baititzake bai liburuetan bai solasaldietan. Edo gehiago behar duenak horrelako hitzen asmatzaile jaioak diren eskolastiko eta metafisikariengana jo besterik ez dauka (eta euren artean, nire ustez, gai fisiko eta moralei buruzko hainbat eta hainbat eztabaida sortu duten azken mendeotako filosofoak aurkitzen dira), berauengan konforme geratzeko moduko material ugaria aurkituko baitu.

3. II. *Hasieran ideiak erantsita izandako hitzek gero ez dute esanahi bereizirik.*

Beste batzuek abusu horiek oraindik urrunago eramaten dituzte eta, lehen adieran ideia argi eta bereizirik apenas duten hitzak albo batera uzteko inolako konturik hartu gabe, solasaldi arruntean hizkuntzaren erabilerak ideia oso inportanteak iratxiki dizkien hitzak inolako esanahi bereizirik gabe erabiltzen dituzte utzikeria barkagaitzaz. *Zuhurtasuna, loria, grazia* eta horrelako hitzak maiz entzuten dira gizakien ahotan; baina horiek darabiltzaten askori hitz horiek zer esan nahi duten galdetuko balitzaie estu jarriko lirateke zer erantzun ez dakitela. Eta hau froga nabaria da, argi uzten duena horrelakoek, soinu horiek ikasiak eta beti mihi-puntan dituzten arren, ez dutela beren gogamenetan ideia zehatzik hitz horien bidez besteei adierazteko.

4. *Gizakiek hitzak berauei dagozkien ideiak eduki aurretik ikasiten dituztelako gertatzen da hori.*

Gizakiek sehaskatik bertatik ohitu izan direnez erraz norbereganatzen eta gordetzen diren hitzak ikasten, hitz horiei erantsitako edo beroriek ustez ordezkaturiko gauzetan aurkitu beharreko ideia konplexuak ezagutu edo eratu aurretik, gero euren bizitza guztian ere gauza bera egin ohi dute; eta hitzak, beraien gogamenetan ideia zehatzak finkatzeko ardurarik hartu gabe, euren baitan dituzten nozio koloka eta nahasi horiek adierazteko erabiltzen dituzte, beste batzuek

darabiltzaten hitzekin konformatuz, hitz horien soinuak beti esanahi bera balu bezala. Baina, nahiz eta gizakiek, bizitzako arazo arruntetan nahitaez elkar ulertu beharra dutenean, konpondu egiten diren besteak ulertu arte zeinuak eginez, hala ere beren iritziei edo interesei buruz arrazoitzen hasten direnean, euren hitzek esanahirik ez edukitzean hots huts eta hitzmordoilo ulertezin nabarmenez beterik ateratzen zaizkie diskursoak, moralaz dihardutenean bereziki, hemen hitzik gehienek naturan erregulariki eta iraunkorki baturik ez dauden ideien bilduma hautazko («arbitrary») ezberdin asko ordezkatzan dituztelarik, hitzon soinueta soilik pentsatzen baita maiz edo, gehien ere, hitzoi oso nozio ilun eta ziurtasunik gabeak lotzen baitzaizkie. Gizakiek, euren inguruan erabiltzen diren hitzek zer ordezkatzan duten ez dakitela agertu nahi ez eta, segurtasunez erabiltzen dituzte, haien esanahi finko eta zehatzaren ardurarik gabe; eta jokabide honek, eroso izatez gain, beste abantaila hauxe dakarkie, horrelako diskurtoetan arrazoiaren jabe nekez izaten diren bezalaxe, halaxe nekez izaten dute inork sinestarazi beharrik oker daudela, zeren nozio zehatzik ez duen jende hori euren errakuntzetatik ateratzen saiatzea, bizileku finkorik ez duen arlotea bere etxetik ateratzen saiatzea bezain zaila baita. Horixe uste dut nik eta bakoitzak bere baitan eta besteengan egiazta dezake hori horrela den ala ez.

5. Bigarrenik, hitzen aplikazio eze gonkorra.

Bigarrenik hitzen beste abusu handi bat *aldakortasunez* erabiltzen egiten da. Nekez aurki daiteke edozein gaiz baina bereziki eztabaidako gaiez idatzitako diskurtsorik, non hitz berak (eta normalean diskurtso horretan garrantzitsuenak eta argudiaketaren oinarri direnak) ez diren erabiltzen batzuetan ideia bilduma bat eta besteetan beste bat adieraziz, hau hizkuntzaren abusu garbia delarik. Hitzak neure ideien zeinu izatea nahi denez ideioek besteak beste adierazteko berez itsatsitako esanahiz barik nahita ezarritako esanahiz, erabateko engainu eta abusua egiten dut, batzuetan gauza bat eta beste batzuetan beste bat ordezkatzu erabiltzen ditudanean, hau nahita egitea ezin daitekeelarik zorakeria handiaren edo zintzotasun falta handiagoaren ondorio beterik izan. Beste batekin kontuak egin beharra duen gizakiak hain oneski jokatzan du zenbakien karaktereak batzuetan unitate bilduma bat eta besteetan beste bat ordezkatzuta erabiliz, adibidez 3 karakterea batzuetan hiru ordezkatzu eta beste batzuetan lau edo zortzi ordezka-

tuz erabiliz, nola bere diskurtsoan edo arrazoinamenduan hitz bera ideia bakunen bilduma ezberdinak ordezkatzuz darabiltzanean. Kontuak egitean horrela jokatzten duen jendearekin, esaidazue arren, nor sartuko litzateke harremanetan? Munduko negozioetan horrela jokatzten duenak eta 8 zenbakiari batzuetan zazpi eta beste batzuetan bederatz, dakarkion abantailaren arabera, deitzen dionak bistakoa da gizakiek desgustuz entzuten dituzten bi izenetako bat, doilor edo ero, bereganatu beharko duela. Hala ere jakitunen diskurtso eta eztabaide-tan jokabide hori zorroztasuntzat eta benetako jakintzatzat hartzen da, baina nik honi kontu bat kalkulatzean datuak gaizki jartzea baino desonestasun handiagoa deritzot eta engainu handiagoa ere bai, egiak diruak baino garrantzi eta balio handiagoa duelako.

6. *Hirugarrena busua itxurazko iluntasuna da, peripatetikoen - gan eta beste sekta filosofiko batzuegan ikusten dugun modukoa.*

Hirugarren abusua *itxurazko* iluntasunean datza, bai termino arruntei ohi ez bezalako esanahiak emanez, bai termino berriak adie-razpenik gabe plazaratuz edo, bestela, terminoak beren esanahi arrun- ta nahasteko bezain hurbil jarritz burutzen dena. Nahiz eta jokabide honetan filosofia peripatetikoa gailendu zen, beste sekta batzuk ere ez dira akats honetatik guztiz libre geratu. Hauen artean ia bat bera ere ez dago bere arazoak eta zailtasunak hitzen iluntasunaz estaltzen eta hitzen esanahia nahasten saiatzen ez denik, iluntasun honek jedende-aren begien aurrean jarritako lanbroak bezala beraien doktrinaren alde ahulak ikustea eragozten duelarik. *Gorputzak* eta *hedadurak* era- bilera arruntean bi gauza ordezkatzten dituztela argi ikusten da, arazoa apur batean hausnartuz gero. Zeren bion esanahia berbera balitz, era berean egokia eta ulergarria litzateke «hedadura baten gorputza» nola «gorputz baten hedadura» esatea; batzuek, alabaina, uste dute horien esanahia nahasi egin behar dela bat bera izan arte. Abusu honi eta hitzak nahasteko akatsari ospea eman diete logikak eta zientzia libe- ralek, eskoletan erabili izan diren gisan; eta Eztabaidatzeko Arte miretsiak, hitzen esanahia nahasiz jokatu duen heinean, hizkuntzen inperfekzio naturala bultzatzeko gehiago balio izan du, gauzen egia deskubritzeko eta haien ezagutza erdiesteko baino; eta ikasien idaz- kiak sakonetik aztertzen dituenak aurkituko du haietan hitzen esa- nahia ilunago, zalantzazkoago eta zehazgabeagoa dela solasaldi arruntetan baino.

7. Logikak eta eztabaidek biziki lagundu dute horretara.

Honek horrelaxe izan behar zuen nahitaez, gizakien jakintza eztabadaitzeko duen trebetasunaren arabera balioesten den bitartean. Eta ospea eta saria hitzen fintasunaren eta dotoretasunaren menpe dauden lorpenei lotuta dagoenean, ez da harritzekoa alde horretara makurturik dagoen gizakiaren adimen zorrotzak hotsen esanahia nahasi, estali eta mehetzea eta, beraz, edozein auzitan kontra zein alde egiteko zer esanik inoiz ez faltatzea, garaipena egiaren jabe denari barik eztabaidako azken hitza daukanari esleitzen baitzaio.

8. Zorroztasuna deitzen zaio.

Nahiz eta trebetasun hau alferrekoa eta, nire ustez, ezagupidearen erabat aurkakoa den, zolitasuna eta zorroztasuna deituz izan da gorai patua eta eskolen txaloak eta munduko jakitunen arteko batzuen bultzada jaso izan ditu. Eta hau ez da harritzekoa, antzinako filosofoek (eztabaidak eta nahaste-borrasteetan ibiltzen ziren filosofoek esan nahi dut, Luzianok antzez eta arrazoiz irrigarri utzi zituenek) eta eskolastikoez geroago, ezagutza handi eta unibertsaleko pertsona gisa —halakotzat agertzea erraza, izatea, ordea, zaila— ospea eta estimua erdietsi nahian, sekulako bidea aurkitu zuten beren ezjakitea zalan-tzazko hitzen sare bitxi eta azalgaitz batez estaltzeko eta besteen mirespena berenganatzeko, hitz ulertezinak, zenbat eta ulergaitzagoak orduan eta txundidura sortarazteko aproposagoak erabiliz. Historia guztian, alabaina, argi ageri da doktore sakon horiek ez zirela euren auzoak baino jakituria ez balio handikoagoak eta ez zutela giza bizitzarako edo euren gizarteetarako ekarpen handirik egin, baldin hitz berriak eurok aplikatzeko gauza berririk sortu gabe asmatzea edo hitz zaharren esanahia nahasi eta iluntzea eta horrela gauza guztiak auzitan jarri eta eztabaidagai bihurtzea giza bizitzarako onurakor edo gomendagarri eta sarigarri ez bada behintzat.

9. Jakintza honek ez dakarkio onura handirik gizarteari.

Eztabaidatzaile ikasi eta doktore orojakitun horien gainera, munduko gobernamentuek eskolastikoak izan ez ziren estatu-politikariei zor diete beren bakea, baita beren defentsa eta askatasunak ere; eta eskolarik gabeko mekanikariengandik (zoritxarreko izena berau) hartu zituzten arte baliagarrietako aurrerakuntzak. Hala ere, aipaturiko ezjakite artifiziale eta hitzmordoilo ikasia nagusitu ziren indartsu

azken mendeetan, eskuraturiko autoritate eta domeinuari eusteko negozio-gizonak eta ezjakinak hitz zailez dibertitzea, zorrozatasuna eta aisia eztabaida korapilotsuetan erabiltzea eta besteak irteerarik gabeko labirintoetan preso edukitzea baino modu hoberik aurkitzen asmatu ez dutenen interesaren eta muntaiaren eraginez. Gainera, doktrina arraro eta absurduen onarpena lortzeko edo defentsa egiteko bide hoberik ez dago, doktrina horiek mila hitz ilun, zalantzazko eta zehazgabeaz inguratzea baino. Horrela, hala ere, gordeleku horiek gudari ausarten gotorleku baino areago lapurzulo eta azeri-habia bilakatzen dira. Eta horiek handik ateratzea zail gertatzen bada, duten indarragatik barik sastraka eta arantzaz trinkoki inguraturik eta ilundurik daukelako da. Izan ere, gizakiarentzat gezurra onartezina denez gero, absurdukiak ez du ilunbea beste defentsarik.

10. *Alderantziz, ezagutza eta komunikaziorako tresnak suntsi-zen ditu.*

Horrela ezjakite ikasi hau eta gizakiak, jakinminez ari direnak ere, egiazko ezagutzatik aldentuta edukitzeko antze hau munduan zehar zabaltu da eta adimena argitu beharrean nahasi egin du zeharo. Zeren ikusten baitugu beste gizaki batzuk, asmo onekoak eta jakintsuak izan arren euren heziera eta gaitasunengatik *zorroztasun* horretara iritsi ez direnak, gai direla gauzak ulertzeko moduan elkarri adierazteko eta hizkuntzaz ongi baliatzeko. Baina, ikasigabeek zuria, beltza eta horrelako hitzak ongi asko ulertu eta hitz horiek adierazitako ideien nozio iraunkorrak eduki arren, badira filosofoak elurra beltza dela, hau da, zuria beltza dela frogatzeko adina jakituria eta sotiltasun dutenak. Eta, horregatik, diskurtsoaren, solasaldiaren, ikasketaren eta gizartearen tresna eta bitartekoak suntsitzeko ahalarren abantaila dute, antze eta zorroztasun handiz hitzen esanahia ilundu eta nahasi besterik egiten ez dutenean, era horretan hizkuntza egiatan dituen mentsek egiten duten baino akasdunago bihurtuz, eskolagabeak oraindik bereganatu ez duen dohaina berau.

11. *Alfabetoko letrek ordezkutzen dituzten hotsak nahasteko bezain baliagarria da.*

Gizon jakitun hauek gizakien adimenak jakintzaz eta bizitzak onuraz hornitu dituzte, letra ezagunen esanahia aldatuko lukeenak egiten lukeen bezala, eskolagabe gris eta ohiesaren gaitasun maila erabat gainditzen duen jakintzaren amarru zorrotz baten bidez bere idazkie-

tan A-ren ordeztu B jar dezakeela eta D-ren ordeztu E, etab, erakutsiz, irakurlearen mirespena eta onura ez makalerako. Zeren *beltz* hitza, ideia sentigarri bat ordezkatzeko duen berbatzat unibertsaletan onartua dena, beste ideia bat edo horren justu aurkakoa adierazteko erabiltzea, hau da, *elurra beltza* dela esateko, hain zentzugabekeria handia da, nola den A letra, hots, mintza-organoen higidura batez egindako hotsaren aldaera jakin bat ordezkatzeko onartua den ikurra, mintza-organoen beste higidura batez egindako beste hots aldaera bat ordezkatzeko onartua den B-ren ordeztu erabiltzea.

12. *Hitzak iluntzeko arte honek erlijioa eta justizia nahasi ditu.*

Baina oker hau ez da logikako zorrozkerietan edo espekulazio bitxi eta hutsetan geratu; giza bizitzaren eta gizartearen oinarrietaraino sartu da, legearen eta teologiaren egiazko inportanteenak ilundu eta nahasi ditu eta nahasmendua eta ziurgabetasuna ekarri du gizateriaren arazoetara, halatan ekarri ere, non giza ekintzaren bi arau garrantzitsu, erlijioa eta justizia, suntsitu ez baditu ere, neurri handian alferreko bihurtu dituen. Zertarako balio izan dute Jainkoaren eta gizakiaren legeei buruzko iruzkin eta eztabaidak, lege horien esanahia dudazkoko eta zentzua nahasiago bihurtzeko baino? Zein izan da bereizketa bitxi eta zorrozkeria horien guztien ondorioa, iluntasuna eta ziurgabetasuna besterik, hitzak ulergaitzago egin eta irakurleak noraezean utzi baino ez dute egin eta? Nola bestela gertatzen da printzeak bere otseinei hitzez zein idatziz agindu arruntak ematean hauek aise ulertzea eta euren herriei legeetan mintzatzean horrelakorik ez jazotzea? Eta ez al da sarri gertatzen, lehen seinatu dudako moduan, gaitasun normaletako gizaki batek irakurtzen duen lege edo testua oso ongi ulertzea, harik eta interprete eta abokatu bati kontsulta egitera joan eta haiek, luzaro azaltzen ibili ondoren, hitzak edo ezer ere ez edo euren nahi duten guztia esaten ipintzen dituzten arte?.

13. *Eta ez da jakintzat hartu behar.*

Ez dut hemen aztertuko nahasmen hau ogibide horietan diharduten batzuek beren interesengatik sortu duten ala ez; baina pentsatzeko uzten dut ez litzatekeen hobe gizateriak, gauzak diren moduan ezagutzea eta egin behar duena egitea baitu xede, eta ez bizitza guztia gauzez mintzatzen ematea edo hitzei tira eta saka aritzea, ez litzatekeen hobe, diot, hitzen erabilera betea eta zuzena lortzea eta ezagutza hobetzeko eta gizakiak gizartearen elkartzeko eman zaigun hizkuntza ez

erabiltzea egia iluntzeko eta jendearen eskubideak nahasteko, laino lanbroak sortu eta bai morala bai erlijioa ulertezin bihurtuz? Edo behintzat, hau gertatzea ezinbestekoa bada, ez al diogu behinbetiko utzi behar jakintza edo ezagutza dela pentsatzeari?

14. *Laugarrenik, hitzak gauzatzat hartuz egiten den abusua.*

Laugarrenik, beste hizkuntz abusu handi bat hitzak gauzatzat hartzea da. Hau maila ezberdinean izen guztiei oro har badagokie ere, bereziki substantzien hitzei dagokie. Abusu honetan gehiago erortzen dira beren pentsamendua sistema batera mugatzen dutenak eta onarturiko hipotesi bat akatsik gabekoa dela irmoki sinesteko joera dutenak, eta halatan erortzen dira non, oso-ososan uste duten sekta horren terminoak erabat ados datozela gauzen naturarekin, haien existentzia errealarari doi-doi erantzuteraino. Filosofia peripatetikoan hezitako nork ez du sinesten azpian sailkaturik hamar predikamentuak dituzten hamar izenak zehazki lotzen direla gauzen naturarekin? Eskola horretako nork ez du oso-ososan sinesten *forma substantzialak*, *arima begetatiboak*, *hutsaren izua*, *espezie intentzionalak*, etab., errealak direla? Gizakiek euren ikasketen hasieratik ikasi dituzte eta ikusi dute euren maisuek eta eskolek garrantzi handia ematen dietela eta, horregatik, ezin dute burutik kendu naturarekin ados datozela eta errealki existitzen den zerbait irudikatzen dutela baieztatzen dien iritzia. Platonikoek ere badute beren *munduaren arima*, eta epikuroek beren *atomoen joera higidurarantz*, pausagunean daudela. Ia sekta filosofiko bat bera ere ez dago agian besteek ulertzen ez duten termino piloa ez duenik. Baina hitzmordoilo honek, giza adimenaren ahultasunean gizakien ezjakintasuna disimulatzeko eta errakuntzak estaltzeko balio duenak, alderdi berekoen artean oso erabilia denez, ematen du hizkuntzaren parterik inportanteena osatzen duela eta terminorik esanguratsuenak dituela. Eta *aireko* eta *eterreko ibilgailuek*, doktrina horren eraginez, munduko bazterren batean predikamenturik lortu izan balute, ez dut zalantzarik egiten gizakien gogamenetan gauza horien erre-alitea sinestarazterainoko eragina ukanen luketela, orain arte peripatetikoek *formekin* eta *espezie intentzionalekin* gertatu den moduan.

15. *Materiaren adibidea.*

Gauzatzat harturiko izenek adimena errorera zenbateraino eramaten duten egiaztatzeko, filosofoen idazkiak arretaz irakurtzea baino ez dago; eta hori agian gaizki erabiliak direla susmatzeko aztarnarik

ageri ez duten hitzetan ere egiaztatu ahal izanen dugu. Bakar bat aipatuko dut, oso erabilia dena. Zenbat eztabaida nahaspilatsu ez da egin materiari buruz, naturan gorputzetik diferentea den horrelako zerbait balego bezala, hau materia hitzak gorputzaren ideiatik diferentea den ideia ordezkatzan duela bistakoa delako gertatzen delarik? Izan ere, termino bi horiek ordezkatzan dituzten ideiak gauza bera balira, bata bestearen lekuan ipini ahal izanen lirateke aukeran. Baina ikusten dugu egokiro esan daitekeela materia bakarrak osatzen dituela gorputz guztiak, ez haatik gorputz bakarrak materia guztiak osatzen dituenik. Guk maiz esaten dugu gorputz bat beste bat baino handiagoa dela, baina belarrira gaizki jotzen du (eta uste dut sekula ez dela erabiltzen) materia bat beste bat baino handiagoa dela entzuteak. Zergatik den hau? Honexegatik hara, gorputza eta materia gauza bi ezberdinak ez diren arren, bata dagoen tokian bestea ere badagoelarik, hala ere materialak eta gorputzak bi ikusmolde ezberdin ordezkatzan dituztelako, bata ezosoa eta bestearen zati bat baino ez delarik. Zeren gorputzak substantzia solido hedatu eta irudiduna adierazten du, materia honen ikusmolde partzial eta nahasiagoa baino ez delarik, nire ustez gorputzaren substantzia eta solidotasuna azaltzen dituen hedadura eta irudia aintzat hartu gabe. Eta, horregatik, materialaz ari garenean gauza bakarrak mintzo gara, substantzia solidoaren ideia baino ez duelako espreski bere baitan, hau edonon delarik gauza bera, edonon uniformea. Materialaz dugun ideia horixe delarik, ez ditugu munduan bururatzen *materia* ezberdinak solidotasun ezberdinak bururatzen ditugun baino gehiago, baina gorputz ezberdinak bururatu eta mintzagai darabiltzagu, hedadura eta irudia alda daitezkeelako. Baina, solidotasuna hedadura eta irudi gabe existitu ezin denez, materia abstrakzio honen pean egiazki existitzen den gauzat hartzeak sortarazi ditu, dudarik gabe, filosofoen buruak eta liburuak bete dituzten *materia primari* buruzko diskurtso eta eztabaida ilun eta ulertezin horiek. Eta norberak pentsatzeko uzten dut, orain, akats edo inperfekzio hau zenbateraino zabaltzen den beste hainbat eta hainbat terminotara. Hau behintzat baieztatzeko dezakedala uste dut, alegia, munduan eztabaida asko gutxiago izanen liratekeela, baldin hitzak diren zertzat, hau da, gure ideien zeinutzat soilik hartuko balira, eta ez gauzat. Zeren materialaz, edo antzeko hitzez, arrazoitzen dugunean, ez dugu arrazoitzen soinu horren bidez adierazten dugun ideiaz baino, ideia hau naturan egiazki existitzen den gauza batekin ados etorri ala ez. Eta giza-

kiek esanen balute zein ideia ordezkatzan duten erabiltzen dituzten hitzek, egiaren bilaketan eta defetsan den iluntasun edo eztabaidaren erdirik ere ez litzateke.

16. *Horrek erroreak irautea dakar.*

Baina direnak direla hitzak oker erabiltzetik datozen eragozpenak, ziur nago, erabilera ar runt eta etengabearen eraginez hitzek gauzen egiatik oso urrun dauden nozioetara eramaten dituztela gizakiak. Lan latza litzateke norbaiti sinestaraztea bere aitaren edo maisuaren, parrokiako apaizaren edo doktore ospetu baten hitzek ez dutela egiazki naturan existitzen den ezer adierazten; eta gizakiek beren erroreak hain nekez uztea eragiten duten kausen artean ez da hau txikienetarikoa, iritzi filosofiko garbietan eta egia beste interesik bilatzen ez dugunetan euren ere. Izan ere, luzaroan erabilitako hitzak gogamenan tinko itsatsita geratzen direnez, ez da harritzekoa hitz horiei erantsitako nozio okerrak ezin urrundua.

17. *Bosgarrenik, hitzak adierazi ezin dutenaren lekuan jarritz egiten den abusa.*

Bosgarrenik, beste abusu bat, *hitzak berauek adierazten ez dituzten eta inola ezin adierazi dituzten gauzen lekuan jartzea* da. Esentzia *nominalak* baino ezagutzen ez diegun substantzien izen orokorreki dagokienez ikus dezakegu, proposizioetan ipini eta euren buruz zerbait baieztatzen edo ezeztatzen dugunean, tazituki substantzi mota jakin batzuen esentzia erreala ordezkatzan dutela suposatzen edo pretenditzen dugula. Zeren, batek urrea xaflakorra dela dioenean honako hau baino gehiago esan eta iradoki nahi du, alegia, «nik urrea deitzen diodana xaflakorra da» baino gehiago (funtsean horixe baino ez dion arren), aditzea nahi duelarik urrea, hau da, urrearen esentzia duena xaflakorra dela; eta honek zera esan nahi du, xaflakortasuna urrearen esentzia errearen menpe dagoela eta urretik bereiztezina dela. Baina esentzia erreal hau zertan datzan ez dakien gizakiak xaflakortasuna ez du inola ere lotzen bere gogamenean ezagutzen ez duen esentziarekin, baizik hura adierazteko darabilen urre soinuarekin. Horrela *animal rationale* gizakiaren definizio ona dela eta *animal implume bipes latis unguibus* ez dela ona diogunean argi dago gizaki izenak kasu honetan espezie baten esentzia erreala ordezkatzan duela, eta honako hau esan nahiko luke, alegia, «animalia arrazoidunak» hobeto definitzen duela esentzia erreal hori «azazkal luzeko eta lumarik gabeko bi oindun ani-

maliak» baino. Zergatik, bestela, Platonek ezin du hain egokiro egin
 ” edo gizaki hitzak bere ideia konplexua ordezkatzea, hau
 da, forma jakin batek eta kanpoko beste itxura-elementu batzuek bes-
 teengandik bereizten duten gorputzaren ideia, nola Aristotelese-
 ” edo gizaki izendatzen duen ideia konplexua eratu ahal
 izan duen bezain egokiro, gorputza eta arrazoitzeko ahalmena batuz,
 beste hau suposatu ezean bederen, alegia, ” edo gizaki
 hitzak ordezkatzeko duena barik beste gauza bat adierazten duela eta
 gizaki batek hitz horren bidez adierazi nahi duela agertzen duen ideia
 ez den beste gauza baten ordezkari dela?

18. *Adibidez, hitzak substantzien esentzia errealean ordezkari-
 tzen direnean.*

Egia da substantzien izenak askoz baliagarriagoak liratekeela
 eta beraiez egindako proposizioak askoz ziurragoak, baldin gogame-
 netan ditugun eta hitz horiek adierazten dituzten ideiak substantzien
 esentzia errealak balira. Eta esentzia erreal horiek ez edukitzeagatik,
 hain zuzen, dute gure hitzek hain argi edo ziurtasun gutxi substantziez
 egiten ditugun diskurtsoetan eta, horregatik, gogamenak, hutsune hau
 kendu ahala kentzeko, tazituki suposatzen du hitzek esentzia erreal
 hori duen zerbait ordezkatzeko dutela, horren bidez esentzia erreal
 horretara hurbilduko balitz bezala. Zeren gizaki edo urre hitzek adie-
 razi, mota horretako substantzietan bilduriko propietateen ideia kon-
 plexua besterik adierazten ez badute ere, ia inor ere ez dago pentsa ez
 dezanik hitz horiek erabiltzean izen horietako bakoitzak esentzia erre-
 ala duen zerbait ordezkatzeko duela eta esentzia horrexen menpe dau-
 dela gauza horren propietateak. Eta honek gure hitzen inperfekzioa
 murriztu beharrean gehitu egiten du, beronetaz nabarmenki abusatuz
 hitz horiek gure ideia konplexuaren baitan ez dagoen eta, beraz, era-
 biltzen dugun izenak zeinu moduan ordezkatu ezin duen zerbait
 ordezkatzeko pretenditzen baitugu.

19. *Horregatik uste dugu substantziez ditugun ideia konple-
 xuen aldaketak ez duela aldatzen haien esentzia.*

Honek agerian jartzen digu modu mistoetan ideia konplexua-
 ren osagai diren ideietarik edozein kanpoan uzten edo aldatzen dene-
 an zergatik aitortzen den beste zerbait dela, hau da beste espezie bate-
 koa dela, honako hitz hauetan argi dagoen moduan: *chance-medley*
 (nahi gabe burututako gizahilketa), *manslaughter* (nahita baina lehe-

nik pentsatu gabeko gizahilketa), *murder* (lehenik pentsatutako gizahilketa), *parricide* (guraso hilketa), etab. Eta hau gertatzen da horrelako izenak adierazitako ideia konplexua esentzia erreala eta era berean nominala delako, izen horren inolako erreferentziarik ez dagoelarik horixe ez den beste ezein esentziarekiko. Baina substantzien izenekin ez da hau gertatzen, zeren batek *urreak*ren ideia konplexuan ezartzen badu besteak kentzen duena eta alderantziz, jendeak ez du horregatik normalean pentsatzen espeziea aldatu denik, jende horrek sekretuan bere gogamenean izen hori egiazki existitzen den gauza baten esentzia erreal aldaezin bati, gauzaren propietate guztiak menpean dituenari, lotzen diolako («refer to») eta berari erantsita ikusten duelako. Urreaz duen ideia konplexuari lehen jarri ez dizkion finkotasuna eta *aqua regiatan* disolbagarritasuna gehitzen dizkionari buruz jendeak ez du pentsatuko espeziea aldatu duenik, bai ordea, ideia perfektuagoa duela, beste ideia bakun bat gehitu diolako, egotez bere lehen ideia osatzen zuten beste ideiekin beti elkartuta egon dena. Baina izenak guk ideiarik ez daukagun zerbaitekiko duen erreferentzia honek, laguntza emateko barik, gu zailtasun are handiagoz inguratzeko soilik balio du. Zeren gorputz espezie horren esentzia errealarrekiko erreferentzia sekretu horren eraginez *urre* hitzak (ideia bakenen bilduma osoagoa edo ez hain osoa ordezkatzuz solasaldi arruntarako ongi asko balio duenak) ez du inolako esanahirik ideiarik ez daukagun zerbaiten ordaintzat erabiltzen denean, eta, beraz, mintzagai den gorputza han bertan ez denean, ezertxo ere ez adieraztea gerta daiteke. Zeren urre izenari buruz eta gorputz horren zati bati buruz, adibidez aurrean dugun urre-orri bati buruz arrazoitzea gauza bera dela pentsatu arren, ohartuko gara oso gauza ezberdinak direla, nahiz eta diskurtsoan behartuta aurkitu izenaren lekuan gauza ipintzera.

20. *Abusu honen zergatia naturak espezieei euren mugak zedarritzean beti era erregularrean jokatzeko duela uste izatean datza.*

Nire ustez gizakiak izenak espezieen esentzia errealean lekuan jartzera bultzatzen dituenaren arestian aipaturikoa uste izatea da, alegia, naturak gauzak sortzean beti era erregularrean jokatzeko duela eta espezie bakoitzari bere mugak zedarritzen dizkiola, izen orokor berarekin sailkaturiko banako bakoitzari barne osaera berbera emanez. Baina haien koalitate ezberdinetan erreparatzen duen edozeinek nekez egin dezake zalantzarik izen bera duten banako asko, beren barne osa-

eran, izen espezifikoko ezberdinen pean sailkaturiko batzuk bezain diferenteak direla bata bestetik. Hala ere, uste honek, hau da, izen espezifikoko berak beti osaera berbera duela uste izateak bultzatzen ditu gizakiak izenak esentzia erreala horien ordezkariatzat hartzea, nahiz eta gizakiok eurak erabiltzean geure gogamenen ditugun ideia konplexuak besterik adierazten ez dituzten. Eta hartara, izen horiek, horrela esaterik badut, gauza konkretu bat adieraziz eta beste baten lekuan jarrita, erabilera horren bidez ezin dute nahasmendu eta ziurgabetasun ugari ekarri besterik gizakien diskurtsoetara, batez ere *forma substantzialen* doktrinan buru belarri sartuta dauden diskurtsoetara, beronen eraginez irmoki sinesten baitute gauzen espezie ezberdinak arraz zehazturik eta bereizirik daudela.

21. *Abusu honek uste faltsu bi ditu bere baitan.*

Baina ezin absurduagoa izanik ere guk izenak ez ditugun ideiak edo, gauza bera dena, ezagutzen ez ditugun esentziak ordezkatzeko ipintzea, hau benetan ere gure ideiak ezerezaren zeinu bihurtzea delarik, hala ere, gizakiak hitzak nola erabiltzen dituen apurtxo bat hausnartzen duen ororentzat bistakoa da ez dagoela ezer ere hori baino arruntagorik. Gizaki batek berak ikusten duena, dela dril bat, dela fetu mustro bat, gizakia den ala ez galdetzen duenean, argi dago galdera ez dela ea gauza konkretu hori ados datorren berak gizaki izenez adierazten duen bere ideia konplexuarekin, baizik eta ea gauza horrek bere baitan daukan pertsona horren ustez gizaki izenak ordezkaten duen gauza horren espeziearen esentzia erreala. Eta substantziak erabiltzeko era horrek uste faltsu bi hauexek ditu barnean: Lehenengoa, esentzia zehatz batzuk daudela eta naturak berauen arabera egiten dituela gauza guztiak eta berauen bitartez bereizten dituela espezieka. Gauza guztiek dutela euren osaera erreala, gauza bakoitza bera dena izatea egiten duena eta gauza horren koalitate sentigarriak menpean dituen, dudazina da, baina uste dut frogaturik gelditu dela honek ez duela ezartzen espezieen arteko bereizketa geuk sailkaturik ditugun moduan, ez eta berauen izenen mugak zehazten ere. Bigarrena, hitzen erabilera honek tazituki aditzera ematen du guk esentzia horien ideiak dauzkagula. Zeren, bestela, zertarako ibili bilatzen horrek edo besteak gizaki espeziearen esentzia erreala duen ala ez, uste izan ezean badela ezagutzen den esentzia espezifikoko hori? Hau, alabaina, arraz faltsua da. Eta horregatik izenak ez dauzkagun ideiak adierazten ipini

nahiz aplikatzeak nahasmendu handia sortu behar du nahitaez eurei buruzko diskurtso eta arrazonamenduetan, eta eragozpen handia izan behar du geure artean hitzez komunikatzeko.

22. Seigarrenik, hitzez abusatzen da uste dugunean guk erabil-tzen ditugun hitzek esanahi ziur eta nabaria dutela, besteek nahitaez ulertu behar dutena.

Seigarrenik, oraindik hitzen beste abusu bat geratzen da are orokorroagoa dena, nahiz eta agian hain maiz erreparatzen ez dioguna. Eta abusu hau da, gizakiak erabilera luze eta arruntez hitzei ideia batzuk eranstean ohiturik egonik, joera handia edukitzea pentsatzera *izenen eta berek izenoi ematen dien esanahiaren artean hain lotura hertsia eta ezinbestekoa* dagoela, non besterik gabe suposatzen duten euren esanahia nahitaez ulertu behar duela mundu guztiak eta, beraz, diskurtsoko hitzak zer esan nahi duten galdetu gabe onartu behar direla, dudaezina balitz bezala eskuarki onarturiko soinu horiek erabiltzean mintzatzaileak eta entzuleak ideia zehatz berberak dituztela. Eta hemendik pentsatzen dute, diskurtsuan edozein hitz erabiltzen dutenean, aipaturiko gauza bera jartzen dutela, nolabait esateko, besteen aurrean. Eta modu berean hartuz besteen hitzak, hau da, juxtu beraiek eman ohi dioten ordaina balute bezala, ez dute inolako ahaleginik egiten beren hitzak besteei azaltzeko, ez eta besteenen esanahia garbi ulertzeko ere. Hortixek etorri ohi da normalean hainbeste zaratots eta hainbeste liskar, inolako aurrerakuntzarik edo informazorik ekarri gabe, gizakiok hitzak nozio onartuen ikur iraunkor eta erregularrak direla uste dugunean sorturikoak, nahiz eta izatez, euren ideien nahi-tako zeinu lokak besterik ez diren. Hala ere, jendea harritu egiten da diskurtsuan edo eztabaidetan (hauetan, berriz, sarri erabat beharrezko izaten da) inoiz euren hitzen esanahia galdetuz gero, nahiz eta egunero solasaldietako arrazoibideetan argi agertzen den ideia konplexuen izen gutxi daudela gizaki bik duten ideia bilduma zehatz berbererako erabiltzeko. Zail da honen adibide argia ez datekeen hitzik aipatzea. *Bizitza* hitz ezin ohikoagoa da. Zail legoke, hala ere, ia inor ere aurkitzen iraintzat hartuko ez lukeenik, bizitzaz mintzo delarik hitz horretaz zer ulertzen duen galdetuz gero. Baina auzitan jarri eta galdera sortzen denean ea jadanik hazian eratua dagoen landareak bizitza duen ala ez, edo txitatu gabeko arrautzan dagoen txitoa edota sentimenik eta higidurarik gabeko gizaki ahitua bizirik dauden ala ez,

aise konturatzen da bat bizitza bezalako hitz ezagunak ez duela beti eramaten lagun ideia argi, bereizi eta tinkoa. Batzuetan gizakiek nozio zehazgabe eta nahasiak izaten dituzte eta berauei euren hizkuntzako hitz komunak aplikatzen dizkie eta hitzen erabilera zehazgabe horrek balio die beren diskurtso edo arazo aruntetarako. Baina erabilera hori ez da nahikoa ikerketa filosofikoetarako. Ezagutzak eta arrazoiketak ideia zehatz eta ongi mugatuak behar dituzte. Eta gizakiek euren solasaldietako hitzen esanahia galdetzeko bezain ergel eta nekagarri agertu nahi ez badute ere, ez eta kritiko gogaikarri, besteei entzundako hitzen erabilera zuzentzeagatik, hala eta guztiz, egia eta ezagutza jokoan daudenean, ez dakit zer huts egotz dakiekeen zalantzazko esanahidunak diruditen hitzen azalpena eskatzen dutenei edo gizaki batek zergatik lotsatu behar duen beste batek bere hitzak zein zentzutan darabiltzan ez jakiteagatik, informazioa jasotzea beste biderik ez baitauka hori ziur jakiteko. Hitzak azterketarik gabe onartzeko abusu honek inon ere ez du letragizonen artean baino hedadura handiagorik ukan, ez eta ondorio kaltegarriagorik ere. Eztabaiden ugaritzea eta beraietako jokabide tematia, intelektualen munduarentzat hain kaltegarria izan dena, ez da hitzen erabilera akasdu honexen beste ezeren ondorio. Izan ere, eskuarki uste den arren liburutetan iritzi ezberdin ugari dagoela eta munduan eztabaida ezberdin asko egiten direla, hala ere, ohartzen naiz gehienetan alderdi ezberdinetako jakintsuak elkarren aurrakako argudioetan hizkera ezberdinak mintzatzeraz mugatzen direla. Eta aihor naiz pentsatzeraz terminoak albo batera utzi eta gauzetan zer pentsatzen duten jakinda pentsatzen dutenean, guztiek gauza bera pentsatzen dutela, diferente pentsatu nahi izan arren.

23. Hizkuntzaren xedeak: lehenengoa, gure ideiak besteengana helaraztea.

Hizkuntzaren inperfekzioari eta abusuari buruzko gogarpen honi amaiera emateko, azaldu behar dut hizkuntzaren xedeak, besteekin ditugun solasaldietan, hiru direla nagusiki, hauek hara: 1) gure pentsamenduak besteei ulertaraztea, 2) hori ahalik errazkien eta agudoen egitea, eta 3) gauzen ezagutza helaraztea. Hiru xedeotako baten batean huts egiten denean, hizkuntzaz abusatzen da edo behar ez den moduan erabiltzen da. Lehenik, hitzek lehen puntuan huts egiten dute eta gizaki baten ideiak agerian eta beste batek ulertzeko moduan ez dituzte ipintzen honako hauetan: 1) gizakiek beren ahotan hitzak,

berauek zeinu gisa adierazten duten inolako ideiarik gogamenean eduki gabe darabiltzatenean; edo 2) hizkuntza bateko komunzki onarturiko hitzak hizkuntza horretako erabilera arruntak aplikatzen ez dizkien ideiei aplikatzen dizkietenean; edo 3) hitzak inolako egonkortasunik gabe aplikatzen dituztenean, batean gauza bat eta bestean beste bat ordezkarakiz.

24. *Bigarrena, hori a gudo egitea.*

Gizakiek ez dute lortzen beren pentsamenduak behar bezain erraz eta agudo helaraztea, izen berezirik gabeko ideia konplexuak dituztenean. Hau batzuetan hizkuntzaren hutsa izaten da, hizkuntzak ez daukalako esanahi hori adierazteko soinurik, beste batzuetan, ordea, gizakiaren hutsa, ez duelako oraindik ikasi besteari azaldu nahi dion ideia ordezkatzeko duen hitza.

25. *Hirugarrena, eta er a horretan gauzen ezagutza helaraztea.*

Gizakien hitzek ez dute helarazten gauzen ezagutzarik euren ideiak gauzen errealitatearekin ados ez datozenen. Akats honek jatorria gure ideietan duen arren, hauek ez baitira arretak, azterlanak eta ahaleginak bihur litzaketan bezain gauzen errealitatearen araberrakoa, ez da, haatik, gure hitzetara hedatu gabe geratzen, izaki errealean zeinu moduan erabiltzen ditugunean, izakiok inoiz errealitatearik edo existentziarik eduki gabekoak izan arren.

26. *Gizakien hitzek nola egiten duten huts aipaturiko hiru helburuetan: lehenik, ideiarik gabe erabiltzen ditugunean.*

Izan ere, lehenik, hizkuntza bateko hitzak gogamenean dituen ideia bereiziei aplikatzen ez dienak hitz horiek diskurtsoan erabiltzen dituztenean, zentzurik edo esanahirik gabeko zaratak atera besterik ez du egiten. Eta hitz zailak edo termino zientifikoak darabiltzalako inondik jakintsuena eman arren, ez da horregatik ezagutzaz aurreratua goa, bere gelan liburuen mamiaren inolako ezagutzarik ukan gabe haien izenburuak besterik ez dauzkana jakintzaz den baino. Zeren horrelako hitz guztiak, diskurtsoan ongi eta eraikuntza gramatikaleko arauen edo perpausa ongi eratuen harmoniaren arabera ipinita egon arren, hitz hutsak besterik ez dira.

27. *Bigarrenik, ideia konplexuek ez dutenean izenik erantsirik.*

Idea konplexuak izen berezirik gabe dituenak ez da egoera hobean izanen, bere dendan orri soltez eta izenbururik gabe liburu

pilo handia duen liburu-saltzailea baino, liburua besteei ezagutarazteko orriak banan-banan erakutsi eta horien berri eman beharko die eta. Gizaki hori, bere ideia konplexuak komunikatzeko hitzik ez eta, diskurtsorik egin ezinik ibiliko da, konplexuen osagai diren ideia bakun guztiak zenbatuz eman beharko baititu ezagutzera, eta era horretan maiz hogeitaz hitz erabili beharko ditu beste batek hitz batez adierazten duena azaltzeko.

28. *Zeinu bera ez denean beti ideia beraren ordaintzat erabiltzen.*

Idea bera adierazteko beti zeinu bera erabili barik, hitz berak batzuetan esanahi batez eta beste batzuetan beste batez erabiltzen dituenak, merkatuan edo burtsan gauza ezberdinak izen beraz saltzen duen gizakiak duen onetasun bereko pertsonatzat hartu beharko litza-teke eskoletan eta solasaldian.

29. *Laugarrenik, hitzak ohiko erabileran ez duten esanahiarekin erabiltzen direnean.*

Edozein hizkuntzatako hitzak hitz horiek ohiko erabileran adierazten dituzten ideietatik diferenteei aplikatzen dizkionak, agian adimena egiaz eta argiz gainezka eduki arren, hitz horien bidez ezin izanen die egia eta argi horien zati handirik helarazi besteei, bere hitzak ongi definitu ezean. Izan ere, nahiz eta soinuak oso ezagunak izan eta erraz sartu haietara ohiturik daudenen belarrietara, normalean hitz horiei lotzen zaizkien eta kitzikatu ohi dituzten ideiak barik beste ideia batzuk ordezkatzeko dituztenez, ez dira hitzok gai horrela darabiltzanaren pentsamenduak besteei ezagutzera emateko.

30. *Bosgarrenik, irudikapen fantastikoen izenak direnean.*

Inoiz existitu ez diren substantziak imajinatzen eta burua gauzen izaera errealekin inolako elkarrekikotasunik ez duten ideiez betetzen duenak, berauei, hala ere, izen finko eta zehatzak emanez, bete dezake bere diskurtsoa eta agian inoren burua ere bere burmuinaren irudikapen fantastikoez, baina ez du izpirik ere aurrera egingen benetako ezagutza errealean.

31. *Laburpena.*

Ideiarik gabeko izenak dituenak esanahi falta du bere hitzetan eta hots hutsak ateratzen ditu mintzatzean. Izenik gabeko ideia konplexuak dituenak askatasuna eta bizkortasuna falta du bere adierazpe-

netan eta perifrasiak erabili beharra ezinbestez. Hitzak zehaztasunik eta egonkortasunik gabe erabiltzen dituenari edo ez diote jaramonik eginen edo ez diote ulertuko. Izenak ohiko erabileran adierazten dituzten ideiei barik, beste ezberdin batzuei aplikatzen dizkienak ez du zehaztasunik bere hizkeran eta esanahi gabeko hitzmordoiroz mintzatu da. Eta substantziei buruz gauzen esentzia errealekin ados ez datozen ideiak dituenak egiazko ezagutzaren materialak falta ditu eta adimenean kimerak baino ez ditu.

32. *Nola huts egiten duten, hitzek substantziak ordezkatzten dituztenean.*

Substantziei buruz ditugun nozioetan, arestian aipaturiko huts guztiak egin ditzakegu. 1. Adibidez, *tarantula* hitza ordezkatzten duen ideiaren inolako irudikapenik edo ideiarik eduki gabe darabilenak hitz eder bat ahoskatzen du, baina hitz horren bidez ezertxo ere ez du adierazten. 2. Herrialde deskubritu berri batean ordura arte ezezagun izan dituen animalia eta landare espezie ezberdinak ikusten dituenak haiei buruz egiazko ideiak, zaldiari edo oreinari buruz bezain egiazkoak, eduki ditzake, baina deskribaketa bat eginda soilik mintzatu ahal izanen da beraietaz, harik eta hango jendeak nola izendatzen dituen ikasi edo berak izena ezarri arte. 3. *Gorputz* hitza batzuetan hedadura hutzat eta beste batzuetan hedadura eta solidotasuntzat darabilena arrunt modu faltsuan mintzo da. 4. *Zaldi* hitzari ohiko erabileran *mando* hitzari dagokion ideia egozten diona zehaztasunik gabe mintzo da eta ez du nahi uler diezaioten. 5. *Zentauro* hitzak erreala den zerbait ordezkatzten duela uste duenak bere burua engainatzen du eta hitzak gauzatzat hartzen ditu.

33. *Nola huts egiten duten moduak eta erlazioak ordezkatzten dituztenean.*

Modu eta erlazioetan, eskuarki, aipatu ditugun hutsetako lehen lauretan bakarrik eror gaitezke. 1. Nik ukan ditzaket esker ona edo karitatea bezalako moduen izenak oroimenean, baina hala ere ukan ez neure pentsamenduetan ideia zehatzik izen horiei lotuta. 2. Ukan ditzaket ideiak, baina zein izen dagokien jakin ez; adibidez, ukan ditzaket kolorea eta umorea aldatu arte edan duen gizon baten ideia, mihia labaindu, begiak gorritu eta hankak huts egiteraino edan duenarena, baina horri mozkorra deitu behar zaionik jakin gabe. 3. Nik ukan ditzaket bertuteen edo bizioen ideiak eta euren izenak ere bai, baina

oker aplikatzen; adibidez, *janurritasun* hitza beste batzuek *zezenkeria* soinuaz izendatzen eta adierazten duten ideiari aplikatzen diodanean. 4. Horrelako izenak iraunkortasunik gabe, orain ideia batekin eta gero beste batekin lotuaz, erabil ditzaket. 5. Baina, modu eta erlazioetan, ezin dezaket ukan gauzen existentziarekin ados ez datorren ideiarik, zeren moduak gogamenak nahierara egindako ideia konplexuak izanik eta erlazioak bi gauza alkarrekin kontsideratzeko edo alderatzeko modua besterik ez izanik eta, beraz, neuk asmatutako ideia baino ez, nekez gerta daiteke ideia hauek existitzen den zerbaitekin ados ez etortzea, ez baitaude gogamenean naturak arauz egindako gauzen kopia moduan, ez eta substantziaren baten barne osaera edo esentziari darion propietate moduan ere, baizik nire oroimenean kokaturiko eredu moduan nik eurei ezarritako izenekin, izenon bidez ekintzak eta erlazioak existitu ahala izendatzeko. Baina errakuntza eskuarki nik neure nozioei okerreko izena ematean datza; eta, horrela, hitzak beste batzuek ematen dieten esanahitik diferentea den zentzuan erabiliz, besteek ez didate ulertzen eta okerreko ideiak ditudala pentsatzen dute, ideiei okerreko izenak eman besterik egiten ez dudanean. Baina modu mistoez edo erlazioez ditudan ideietan bateragarri ez diren zenbait ideia jartzen baditut soilik beteko dut neure burua kimeraz, zeren ideia horiek, ongi aztertuta, gogamenean ere ezin dira existitu eta askoz gutxiago izaki erreal bat izendatzeko oinarri izan.

34. *Zazpigarrenik, hizkera figuratuak ere hizkuntz ab- usua dira maiz*

Zorroztasuna edo irudimena egia soila eta benetako ezagutza baino onartuagoak direnez munduan, hizkera figuratuak eta hizkuntz aipamenak («allusion») nekez hartuko dira akastzat edo abusutzat. Aitor dut, informazioa eta aurrerakuntza baino gehiago plazerra eta atsegina bilatzen ditugun diskurtsoetan, figurak eskaintzen dizkiguten apainduria horiek akastzat aurkezten zail dagoela. Baina gauzez diren moduan hitz egin nahi izanez gero, ametitu beharko dugu erretorikaren arte guztiak, ordenamendua eta argitasuna salbu, eta elokuentziak asmatutako hitzen aplikazio artifizial eta figuratiboak honexetarako baino ez dutela balio, alegia, ideia faltsuak iradokitze, grinak piztarazteko eta juzgamena limurtzeko, eta, beraz, trikimailu hutsak baino ez direla. Eta, horregatik, oratoriak figura horiek onargarri eta txalogarri bihurtzen baditu ere arenga eta herri-hitzaldietarako, informa-

tzea edo irakastea helburu duten diskurtso guztietan zeharo ekidin beharrekoak dira dudarik gabe; eta egia eta ezagutza direnean jokoan, behin hizkuntzaren edo behin hizkera hori darabilenaren huts handitzat eduki behar dira. Alferreko litzateke horiek zein eta zenbat motatakoak diren hemen esatea; honi buruzko informazioa behar dutenek munduan ugari diren erretorikako liburuetan jaso ahal izanen dute. Hauxe bakarrik seinlatu behar dut hemen, zein gutxi arduratzen den gizateria egia eta ezagutza zaindu eta aurrera bultzatzeaz, engainuaren arteak baitira aintzat hartu eta hobetsiak. Argi ageri da zenbat gizakik duten atsegin engainatzea eta engainatuak izatea; erretorikak, errore eta engainuaren tresna indartsu horrek irakasle finkoak ditu, publikoki irakasten da eta itzal handia ukan du beti. Hain da hau egia, ezen dudarik ez baitut egiten arte horren aurka esan berri dudana ausardia izugarriaren edota agian kirtenkeria demasaren ondoriotzat hartua izanen dela. Eloquentziak, sexu ederrak bezala, xarma boteretsuegiak dauzka, inor kontra jar dakion. Eta alferreko da engainatzeko arteei hutsak topatzen ibiltzea, gizakiek engainatuak izatea laket dutenean.

XI. KAPITULUA

Aipatu diren hitzen akats eta abusuetarako erabil daitezkeen konponbideez

1. Hitzen arazoak merezi du konponbideak bilatzea.

Aztertu berri ditut luze hizkuntzen berezko eta geuk nahita areagoturiko akatsak; eta mintzaira delarik gizarteari batuta eusten dion lokarri nagusia eta gizaki batek ezagutzan egindako aurrerapenak gizaki batek besteari eta belaunaldi batek besteari komunikatzeko bide komuna, arretarik handienaz pentsatzea merezi du zein konponbide duten arestian aipaturiko eragozpenek.

2. Ez dago erraz konponbideak aurkitzen.

Ez naiz ni burugabea pentsatzeraino norbait, ez diot munduko hizkuntzak, baizik bere herrialdekoa soilik berriztatzen saia daitekeela bere burua barregarri utzi gabe. Gizakiek euren hitzak beti zentzu berean eta ideia zehatz eta uniformeak adierazteko erabil ditzaten galdatzea, gizaki guztiek nozio berberak eduki behar lituzketela eta ideia argi eta bereiziak dituzten hartaz bakarrik hitz egin behar luketela pentsatzea bezainbeste da, inork espero behar ez duena berau, berak gizakiak oso argiak edo oso isilak izatea lor dezakeela pentsatzeko bezain harroa izan ezean. Eta, abilezia eskasekoa da, eskasekorik bada, uste duena adimen argia hizkera berbatsua duenak bakarrik duela, edo gizakiek asko edo gutxi hitz egiteak soilik ematen duela haien eza-gutzaren neurria.

3. Baina beharrezkoak dira egiaren bila dihardutenentzat.

Baina, nahiz merkatuan eta burtsan dabiltzanei euren mintzatzeko eran jarduten utzi behar zaien, antzinatik dituzten pribilegioetatik esamesetarako eskubidea kendu gabe, nahiz eta eskolek eta argudiodun gizakiek txartzat hartu euren eztabaidak laburtzeko edo gutxiagotzeko egindako edozein iradokizun, hala ere, uste dut egiaren bila edo berau defendatzen serioski dabiltzanek sakon aztertu beharra sentitu behar luketela nola lor lezaketen euren baitan daukatena, giza-kien hitzek berez, kontuz ibili ezean, izan dezaketen iluntasun, ziurgabetasun edo nahasmendu hori gabe adieraztera.

4. Hitzak gaizki erabiltzea, errakuntzen kausa nagusia.

Izan ere, hitzak gaizki erabiltzeagatik munduan zehar barreiatuak dauden errakuntzak eta iluntasuna, oker aditzeak eta nahasmen-dua arretaz aztertzen dituenak, hainbat arrazoi aurkituko du hizkuntza, erabili izan den moduan, gizaterian ezagutzak aurrera egiteko eragozpen ala laguntza zer izan ote den ezbaian gehiago jartzeko. Zenbat diren gauzez pentsatzean beren pentsamenduak hitzetan soilik jarritz ari direnak, moraleko gaiez dihardutenean batik bat! Eta nor gera liteke harriturik pentsamendu eta arrazoinamendu hauen emaitza, hotsak baino ezer gutxi gehiagorik dutelarik aztergai, berauekin loturiko ideiak oso nahasiak eta aldakorak diren artean, eta agian inolako ideiarik ez dutelarik, nor gera liteke harriturik, diot, pentsamendu eta arrazoinamenduon emaitza azken batean iluntasuna eta nahasmen-dua besterik ez bada, inolako judizio edo ezagutza argirik gabe?

5. Gizakiak harroputzago eta hisiatiago bihurtu ditu.

Hitzak gaizki erabiltzearen ondorio den eragozpen hau gizakiek beren baitako gogarteetan ere jasaten dute, baina handiagoak dira horrek dakartzan okerrak besteekin solasean, diskurtsoan edo eztabaidan aritzean. Zeren, hizkuntza delarik gizakiek beren aurkikuntzak, arrazoiak eta ezagutza besteei komunikatzeko duten tresna nagusia, hizkuntza gaizki erabiltzen duenak, ezagutzaren iturriak, gauzetan daudelarik, kutsatzen ez baditu ere, ahal duen guztia egiten du ezagutza erabilera publikora eta gizateriaren onurara helarazteko dauden bideak apurtu edo ixteko lanean. Hitzak zentzu argi eta finkorik gabe erabiltzen dituenak, zer egiten du norbere burua eta besteak errakuntzara eraman besterik? Eta hau apropos egiten duena egiaren eta eza-

gutzaeren etsaitzat jo behar da. Eta, hala ere, nor gera daiteke harriturik zientzia eta ezagutzaren atal guztiak termino ilun eta ekibokoz eta esamolde esanahi gabeko eta dudazkoz josita daudelako halatan, non hitz horien bidez ez dagoen lortzerik artatsuenak edo zolienak ere jakintsuagoak edo ortodoxoagoak izatea, egiaren bila edo defentsan dihardutela aitortzen duten artean zorrozkeria bertutetzat hartzen denez gero, bertute hau, egiatan termino ilun eta engainagarrien erabilera faltsu eta iruzurrezkoan bestetan ez datzanez gero, ez delarik egokia gizakiak euren ezjakintasunean harroputzagoak eta euren erroreetan hisiatiagoak egiteko baino.

6. Baita soinuei buruzko eztabaiden zale eta menpeko ere

Nolanahiko eztabaidetako liburuetan begiraturaz gero, ikusiko dugu termino ilun, ezegonkor eta ekibokoen ondorioa soinuei buruzko zaratotsa eta eztabaida besterik ez dela, gizakiaren adimena inondik ere konbentzitu edo hobetu gabe. Zeren, mintzatzailearen eta entzulearen artean hitzek ordezkatzten duten ideiari buruz adostasunik ez badago, argudioa gauzei buruz barik hitzei buruz da. Bi horien artean esanahia ziurtatu ez zaion hitza erabiltzen den bakoitzean, haien adimenak ez dute soinua beste ados etortzeko punturik, hitz horren bidez adierazitakoari dagokionez, une horretan gauza oso ezberdina darabilelarik bakoitzak bere pentsamenduan.

7. Adibideak: saguzaharra eta txoria.

Saguzaharra txoria den galdetzea ez da ea saguzaharra egiaz dena barik beste zerbait ote den edo egiaz dituen koalitateetatik difereenteak diren beste batzuk ote dituen galdetzea, hau zalantzatan jartzeari egundoko absurdukeria litzateke eta. Auzia horretan barik beste zerbaitetan datza eta, zehazki, jarraian aipatuko ditugun bi hauetatik batean. 1) Bi izen horiek ordezkatzten omen dituzten gauzetarik batzuek edo biez ideia inperfektuak dituztela aitortzen dutenen arazoan. Eta orduan aterabidea txoriaren edo saguzaharraren natura ikertu eta inperfektuak izan diren horien ideiak osotzean datza, bata eta besteak txori izenez izendatzen dituzten ideia bakun guztiak elkarrekin konbinaturik saguzaharrean topatzen ditugun ala ez aztertuz; baina hau ikertzaileen auzia da (ez eztabaidatzaileena), ez baitute ezer baieztatzen ez ezeztatzen. 2) Edo bestela eztabaidatzaileen arteko auzia da, batek saguzaharra txoria dela eta besteak ez dela diotelarik. Eta orduan auzia *hitz* horietako baten edo bien esanahiari buruz da,

batak eta besteak izen bi horiez izendatzen dituzten ideia konplexuak berberak ez direlarik, izen bi horiek bata bestiaz baieztza daitezkeela dioelarik batak eta ezin daitezkeela besteak. Izen bi horien esanahiari buruz bat baletoz, ezinezko lukete horretaz eztabaidatzea, berehala eta argi ikusi ahal izanen bailukete (biak horretara jarritz gero) txori izen orokorrangoaren ideia bakun guztiak kausitzen diren ala ez saguzahar-raren ideia konplexuan; eta orduan ez legoke zalantzarik egiterik saguzaharra txoria den ala ez galderaren aurrean. Eta hemen irakurleak pentsatzea eta arreta handiz aztertzea nahi nuke ea munduko eztabaidarik gehienak hitzezkoak eta hitzen esanahiari buruzkoak ez ote diren eta ea eztabaida horiek, eztabaidako terminoak ongi definitu eta euren esanahian ordezkatzan dituzten edo behar lituzketen ideia bakunen bildumetara murriztuz gero (hitzez zeozer adieraztea nahi denean gertatzen den moduan), ez ote liratekeen berez bukatuko eta berehala aienatuko. Irakurleak egiaztatzekeko uzten dut, bada, zertan datzan eztabaidetako maisutasuna eta zein ongi erabiltzen diren soinuak erakustaldi hutsalak egitea beste ardurarik ez duten, hau da, bizitza osoa eztabaida eta tirabiretan ematen duten batzuen eta bestetzuen onerako. Borrokalari horietako baten bat bere termino guztiei anbiguotasuna eta iluntasuna kentzen (gizaki orok egin beharrekoa berau norberak darabiltzan hitzetan) ikusten dudanean, ezagutzaren, egiaren eta bakearen txapelduntzat duket horrelakoa, eta ez harropuzkeriaren, handinahiairen edo alderdiren baten esklabotzat.

8. *Konponbideak.*

Aipaturiko hizkuntz akatsak maila batean bederen konpontze-ko eta eurentatik datozen eragozpenei aurrea hartzeko, uste dut baliagarri izan daitekeela jarraian datozen arauak betetzea, harik eta ni baino gaiago den baten batek honi buruzko gogoeta helduagoa egin eta munduak eskertzeko moduko pentsamenduak guztioi eskaini arte.

Lehenengo konponbidea: ideiarik atxikita ez duen hitzik ez era-biltzea.

Lehenik: gizaki orok arduratu behar du esanahirik ez duen hitzik edota ideiarik ordezkatzan ez duen izenik ez erabiltzeko. Arau honi dagokionez, ez du pentsatuko berau beharrezko ez denik gogoratzan duenak zenbat aldiz egiaztatu duen solaskideek *irrika*, *sinpatia*, *antipatia* eta horrelako hitzak berauei ordezkazaritako ideiarik buruan ez balute bezala erabili izan dituztela, hitzok soinu huts bailiran aipa-

tuz eta horrelako uneetan arrazoi ordeztu horiez baliatuz. Eta hori ez da gertatzen hitz horiek edo horien antzeko beste batzuek esanahi zehatzik eskaintzen ez digutelako zentzu horretan erabiltzeko, beste honengatik baizik, alegia, hitzen eta ideien artean inolako lotura naturalik ez dagoenez, hitz horiek eta beste edozein buruz ikas eta ahoska edo idatz ditzaketelako hitzoi ideiarik ez atxiki ez ordezkarak ez dieten gizakiek; eta egiten ez duten hau nahitaez egin beharko lukete, ulertzeko moduan, are norberetzat ere, mintzatu nahi izanez gero.

9. *Bigarren konponbidea: hitzei, modu mistoetan batik batik, ideia bereizi zehaztuak atxikita edukitzea.*

Bigarrenik, ez da nahikoa gizaki batek hitzak zenbait ideiarekin zeinuz erabiltzea; hark hitz horiek atxikitzen dizkien ideiak soilak badira, argi eta bereiziak izan behar dute, eta konplexuak badira, berriz, zehaztuak, hau da, gogamenean finkaturik ideia bakun belduma bat egon behar du, eta bilduma horri lotuta soinu bat, bilduma doi-doi zehaztu horren eta ez beste ezeinen zeinu moduan. Hau zeharo beharrezko da moduen izenetan eta bereziki moraleko hitzetan, hauek naturan objektu zehazturik ez dutelarik beraietatik ideiak ateratzeko euron jatorrizko objektuetatik bezala, nahasiak izateko arrisku handia baitute. *Justizia* edonoren ahotan bala-bala dabilen hitza da, baina gehienetan oso esanahi zehazgabe eta lanbrotsuz. Eta hau horrelaxe izanen da beti, baten batek ideia konplexu horren osagai diren atalak bereiz ulertu ezean; eta deskonposatzen hasiz gero jarraitu egin beharko du, harik eta azkenean haren osagai diren ideia bakunetara heldu arte; eta hau egin ezean, hitza, kasu honetan justizia hitza edo beste edozein, gaizki erabiliko du edonork. Ez dut esan nahi hitz honekin topo egiten dugun aldioro hau guztia gogoratu eta analisi luzea egin behar dugunik; baina hau bederen beharrezko da, alegia, guk izen horren esanahia ongi aztertutik izatea eta berorren atal guztien ideia gogamenean ongi finkaturik edukitzea nahi dugun guztian hori egin ahal izateko moduan. Norbaitek baieztatzen badu justizia legearekin ados dagoen inoren pertsona edo ondasunekiko jokabidea dela, baina hark justiziaz duen ideia konplexuaren atal den *legea* zer den ideia argi eta bereizirik ez badauka, bistakoa da justiziaz duen ideia bera ere nahasia eta inperfektua dela. Doitasun hau zailegi dela uste izanen da agian eta askok, horregatik, pentsatuko dute eurak desenkusaturik daudela modu mistoen ideia konplexuak gogamenean horren zehazki

finkatzetik. Baina nik esan behar dut hori egin arte ez gaituela harritu behar haiek beren gogamenetan iluntasun eta nahasmendu handia eta besteekin dituzten diskurtsoetan eztabaida asko edukitzeak.

10. *Eta ideia bereizi eta gauzeekin ados datozenak substantziak ordezkatzan dituzten hitzetan.*

Substantzien izenak behar bezala erabiltzeko *ideia zehaztuak* baino zerbait gehiago behar da. Substantzietan izenek *gauzeekin, exis - titzen diren bezala, ados datozenak* ere izan behar dute, baina honetaz ukanen dut abagunea luzeago hitz egiteko. Doitasun hau erabat beharrezko da ikerketa filosofikoetan eta egiari buruzko eztabaidetan. Eta hau ohiko solasaldietara eta bizitzako arazo arruntetara ere hedatzea ongi legokeen arren, uste dut ez dela espero behar hori gertatzea. Diskurtso arruntei nozio arruntak dagozkie eta biok ere aski nahasiak izan arren ederto batean balio dute merkaturako eta gaubelarako. Merakatariek eta maiteminduek, sukaldiariak eta jostunek badituzte beren laneko arazo eta gorabehereri erantzuteko hitzak, eta uste dut horrelaxe eduki behar lituzketela filosofoek eta eztabaidazaleek ere, argi ulertzeko eta era berean ulertuak izateko ardurarik ukanez gero.

11. *Hirugarren konponbidea: hitzak ohiko erabilerak erantsi dizkien ideiei aplikatzea.*

Hirugarrenik, ez da nahikoa gizakiek ideiak, ideia zehaztuak, edukitzea eta zeinu horiez ordezkatzeta, beste ardura hau ere hartu behar baitute, alegia, euren hitzak erabilera komunak hitzoi erantsitako ideiei ahalik zehazkien aplikatzekoa. Zeren, hitzak, batez ere egituraturik dauden hizkuntzetakoak, inoren jabego pribatukoak ez direlarik, harremanetako eta komunikazioko neurri komuna baizik, inoren ere eskuan ez dago hitzek ohiko erabileran duten moldea nahierara aldatzea, ez eta atxiki zaizkien ideiak ere; edo norbaitek hori egin beharra duenean, jakinarazi egin behar du. Gizakien asmoa hitz egitean ulertua izatea da edo izan behar du behintzat, eta hau ezin lor daiteke azalpen, galdera eta horrelako etenaldi neketsurik gabe, gizakiek erabilera komunari lotzen ez zaizkionean. Hizkuntz propietatea da gure pentsamenduei beste batzuen gogamenera sarbidea ematen diena erraztasun eta abantailarik handienaz eta, horregatik, gure arduraren eta azterlanaren zati on bat merezi du, moraleko hitzetan batik bat. Terminoen esanahi eta erabilera propioa ondoen, beren idazlan eta diskurtsoetan noziorik argienak dituztela eta terminorik aukeratuen

eta doienak aplikatzen dizkiela erakusten dutenengandik ikasten da. Norbere hitzak horrela hizkuntz propietatearen arabera erabiltzeko modu honek, ulertua izateko zoria beti ez duenarren, hala ere lotsa sortarazten du norbera mintzo den hizkuntzan berau behar bezala erabiltzen dutenei ez ulertzeko bezain traketsa denarengan.

12. *Laugarren konponbidea: hitzak zein zentzutan hartzen ditugun adieraztea.*

Laugarrenik, baina ohiko erabilerak hitzei esanahi agerikorik eransten ez dienez juxtu zer ordezkatzeko duten gizakiei adierazteko moduan, eta gizakiek, beren ezagutza aurrera egitean, ideia arrunt eta eskuarki onarturikoetatik diferenteak edukitzera heltzen direnez, ideia horientzat edo hitz berriak asmatu beharra (hau inoiz gutxitan egiten dute, arazeria edo berrizalekeria egotz diezaieten beldur) edo bestela hitz zaharrak esanahi berriz erabili beharra daukate. Horregatik arestian esandako arauok bete ondoren, batzuetan beharrezko izaten da, hitzen esanahia ziurtatzeko, *euren esanahia adieraztea*, erabilera komunean dudazkoak eta lanbrotsuak direnean (oso ideia konplexuen izenik gehienetan gertatzen den moduan) edo terminoak, diskurtsoan oso inportantea eta gaiaren ardatz nagusi izanik, duda edo errakuntza sortarazteko arriskua duenean.

13. *Eta hori hiru eratara.*

Gizakien hitzek ordezkatzeko dituzten ideiak mota ezberdineta-koak diren moduan, ordezkatzeko dituzten ideiak ezagutarazteko erak ere, hau egin beharra dagoenean, ezberdinak dira. Zeren nahiz eta hitzen esanahi propioa adierazteko bide egokia *definizioa* dela uste den, badira hitz batzuk definitu ezin direnak, beste batzuen esanahia, berriz, definizioz baino ezagutu ezin den artean, eta hirugarren batzuk, ordea, aipaturiko bietatik zerbait dutenak dira, ideia bakunen, moduen eta substantzien izenetan ikusiko dugun moduan.

14. *Idea bakunetan, termino sinonimoen bidez edo adibideak aurkeztuz.*

Lehenik, norbaitek ideiaren baten izena ez dela ulertzen edo gaizki ulertzeko arriskua duela somatuz erabiltzen duenean, beharturik dago, zintzotasunagatik («ingenuity») eta hizkuntzaren xedeagatik beragatik, zein zentzutan eta zein ideia ordezkatzeko darabilen adieraztera. Hau, esan den moduan, ezin daiteke definizioz egin eta, beraz,

termino sinonimo batek horretarako balio ez duenean, bi bide hauetako bat baino ez zaigu geratzen. Lehenik, batzuetan ideia bakunaren kokagune den gauza izendatzeak gauza hori ezagutzen dutenek eta izen hori dakitenek ideia horren izena ulertzea ekarriko du. Horrela baserritar bati *feuillemorte* kolorea zer den ulertarazteko, aski izan daiteke esatea udagoienean jausten diren orbel iharren kolorea dela. Baina, bigarrenik, edozein ideia bakunen izenaren esanahia aditzera emateko modu ziur bakarra, *haren sentimenetan ideia hori eragin dezakeen gauza, hitzak ordezkatzan duen ideia hark edukitzea eragin dezakeena aurkeztea* da.

15. *Modu mistoetan, definizio bidez.*

Bigarrenik, modu mistoak, moralari dagozkionak bereziki, gehienak gogamenak bere hautazko irizpidez bildutako ideien konbinazioak eta eredu finkorik existitzen aurkitzen ez diegunak direnez, horien izenen esanahia ezin da aditzera eman, ideia bakunen izenena bezala, zerbait erakutsiz, baina, eragozpen horren ordainetan edo, erabat eta zehazki defini daitezke. Zeren, gizakiaren adimenak hautazkotasun osoz («arbitrarily») eta ezein arketiporekiko erreferentziarik gabe bildutako ideia ezberdinen konbinazioak direnez, gizakiek, nahi izanez gero, zehazki ezagut ditzakete konposaketa horri dagozkion ideiak eta, beraz, hitz horiek zentzu ziur eta zalantzarik gabekoan erabil ditzakete eta oso ongi adieraz zer ordezkatzan duten, hori egin beharra dagoen guztian. Honek, ongi pentsatuz gero, oso lotsatuta utziko lituzke *moraleko gaiei* buruzko diskurtsoetan argitasunik ez bereiztasunik gabe jardun ohi dutenak. Izan ere, modu mistoen izenen esanahi zehatza edo, gauza bera dena, espezie bakoitzaren esentzia erreala denez ezagutu behar dena eta modu mistoak naturak barik gizakiak egindakoak direnez, axolagabekeria ez ezik, gaiztakeria ere, eta handia, da moraleko gaiez ziurgabetasunez eta iluntasunez beteriko diskurtsoetan jardutea, hau substantzia naturalez ari garenean barikaerrazagoa delarik, hauetan zail baita zalantzazko terminoak ekiditea erabat aitzitiko arrazoiz, gero zehatzago ikusiko dugun moduan.

16. *Morala frogag arria da.*

Oinarri honetatik ausartzen naiz esatera morala frogagarria dela, matematika bezala, moraleko hitzak ordezkatzan dituzten gauzen esentzia erreal zehatzak bete-betean ezagut daitezkeenez eta, horretara, gauzen kongruentzia edo inkongruentzia ziurtasunez aurki

daitekeenez gero, honexetan datzalarik ezagutza perfektua. Eta inork ez dezala objektzio moduan esan substantzien izenak, moduenak bezala, sarri erabiltzen direla moralean eta horiexek direla iluntasuna dakartenak. Zeren, substantziei dagokienez, diskurtso moraletan agertzen direnean, euren izaera ezberdinak ez dira uste den bezainbeste ikertzen. Adibidez, gizakia legearen menpean dagoela esaten dugunean, gizakiaz gorpuzdun kreatura arrazoiduna baino ez dugu esan nahi, kreatura honen esentzia erreala edo beste koalitateak zein diren inola ere kontuan hartu gabe kasu honetan. Eta, beraz, haur bat edo ergel bat gizaki diren ala ez, zentzu fisikoan, nahi bezainbestean eztabaidagarri izan daiteke naturalisten artean, baina ez dio ukiturik egiten, dei niezaiokeen bezala, gizaki moralari, hau ideia higiezin eta aldagaitz haxe baino ez baita: gorpuzdun izaki arrazoiduna. Izan ere, aurkituko balitz tximinoren batek edo beste edozein kreaturak arrazoimenaren erabilera zeinu orokorrak ulertzeraino eta ideia orokorretatik ondorioak deduzitzeraino garatuta daukala, hori, dudarik ez, legearen menpean legoke eta zentzu horretan gizaki litzateke, bere irudian izen horretako besteengandik alderik handiena edukita ere. Substantzien izenek, behar bezala erabiliz gero, ezin ditzakete diskurtso moralak matematikoak baino gehiago nahasi, zeren matematikaria urrezko kuboaz edo esferaz, edo beste edozein gorputzez, mintzo bada, bere ideia argi eta finkoa dauka, aldatzen ez dena, errakuntza ez dagokion gorputz bati aplikatzea gerta daitekeen arren.

17. Definizioek diskurtso moralak argiak izatea ekar dezakete.

Hau aipatu dut, jakina, argi uzteko nolako ondorioak dituen gizakientzat modu mistoen izenetan eta, beraz, moraleko diskurtso guztietan behar den guztian hitzak definitzeak, hori eginik ezagutza morala hain argitasun eta ziurtasun handira eraman daitekeenez gero. Eta zintzotasun («ingenuousness») falta handia (zerbait txarragoa ez esatearren) izan behar du hau egin nahi ez izateak, definizioa baita moraleko hitzen esanahi zehatza ezagutzeko bide bakarra eta haien esanahia ziur eta eztabaidari inondik ere lekurik utzi gabe ezagutzeko tresna. Eta horregatik gizateriaren axolagabekeria edo gaiztakeria bar-kaezina da, beraien moraleko diskurtsoak filosofia naturalekoak baino asko argiagoak ez direnean, zeren moralekoak faltsuak edo desproporzionatuak ez diren gogameneko ideiez baitira, arketipotzat kanpoko izakirik ez dutenez gero, berauekin erlazionatu eta ados eto-

rri beharrik ere ez dute eta. Gizakientzat asko errazago da beren gogamenetan eredu moduan justizia izena emanen dieten ideia eratzea eta, eredu hau egin ondoren, beronekin bat datozen ekintza guztiak izen honen pean jartzea, Aristides ikusita, gauza guztietan hura bezalakoa izanen den ideia eratzea baino, Aristides den bezalakoa baita, gizakiek hartaz egindako ideia guztiak gorabehera. Lehenengorako, beren gogamenean bildutako ideien konbinazioa ezagutzea baino ez dute behar, besterako, ordea, eurengandik at dagoen zerbaiten izaera osoa eta osaera adigaitz ezkutua eta koalitate ezberdinak bilatu behar dituzten artean.

18. *Eta modu mistoen esanahia ezagutzeko daukagun modu bakarra da.*

Modu mistoen eta bereziki moraleko hitzen definizioa hain beharrezko egiten duen beste arrazoi bat arestian aipatu dudana da, alegia, definizio horietako gehienak ziurtasunez ezagutzeko daukagun bide bakarra dela. Zeren horiek ordezkatzten dituzten ideia gehienek osagaiak elkarrekin inon existitzen ez direnez, barreiatuta eta beste batzuekin nahasita baizik, gogamena da, eta ez beste ezer, horiek biltzen dituen eta ideia bakarraren batasuna ematen diena; eta gogamenak baturiko ideia bakun ezberdinek banan-banan aipatzen dituzten hitzen bidez soilik eman diezaiekegu ezagutzera beste-ei horien izenek zer ordezkatzten duten, zeren sentimenei kasu honeetan ez baitigute laguntzen objektu sentigarriak proposatuz mota horretako izenek ordezkatzten dituzten ideiak aurkezten, ideia bakun sentigarrien izenetan eta maila batean substantzienetan ere egiten duten modura.

19. *Substantzietan bi eratara: erakusketaz eta definizioz.*

Hirugarrenik, substantzien izenen esanahia azaltzeko, izenok haien espezie ezberdinez ditugun ideiak ordezkatzten dituztenez, arestian aipaturiko bi bideak, hau da, erakustea eta definitzea, erabili behar izaten dira kasu askotan. Zeren espezie bakoitzean zenbait koallitate gailen izaten direnez normalean, espezie horretaz dugun ideia konplexua osatzen duten beste koalitateak, gure ustez, hauei erantsten zaizkielarik, espezie horren ideia bereizgarritzat daukagun ikur edo ezaugarri hori aurkitzen diogun gauzari ematen diogu dudarik gabe izen espezifikoa. Ideia gailen edo (dei diezaiekedan bezala) karakteristikoko hauek, animalia eta landare espezieetan (lehenago seinalatu

dudan moduan, VI. kap., 29 eta IX kap. 15) irudia eta bizigabeko gorputzetan kolorea izaten dira gehienetan, eta batzuetan, biak batera.

20. *Substantzien koalite gailenen ideiak erakusketaz geugana - tzen ditugu hobeto.*

Koalitate gailen sentigarri hauek gure ideia espezifikoen osagai nagusiak dira eta, beraz, geure ezagutzara datozen substantzien motei ematen dizkiegun izen espezifikoen definizioaren zatirik hautemangarrien eta aldagaitzena osatzen dute. Izan ere, nahiz eta gizaki soinu-a, berez, subjektu berean bildutako aberetasunaz eta arrazionaltasunaz osaturiko ideia konplexua adierazteko beste edozein konbinazio adierazteko bezain egokia izan, hala ere, geure espeziekotzat dauka-gun kreatura mota ordezkatzeko ikur gisa erabilita, gizaki hitzak adierazitako ideia konplexuan kanpoko forma sartzea, haren baitan aurkituriko beste edozein koalitate sartzea bezain beharrezko da agian; eta horregatik ez legoke erraz frogatzen Platonek gizakiaz emandako definizioa, *animal implume bipes latis unguibus*, zergatik ez den gizaki izenaren definizio ona, espezie horretako kreatura ordezkatzeko duenez; izan ere, badirudi formak, koalitate gailen denez, gehiago mugatzen duela espezie hori, hasiera batean agertzen ez den —eta batzuetan inoiz ere ez— arrazoimenak baino. Eta hau horrela dela onartzen ez bada, ez dakit nola gera daitezkeen hilketa egitetik libre mustro jaiotakoak hiltzen dituztenak ezhoiko forma dutelako, arima arrazoidunik daukaten ala ez jakin gabe, hau ezin baita egikera oneko haur batengan errazago hauteman, egikera txarreko batengan baino. Eta nork esan digu arima arrazoiduna ezin dela bizi justu holako edo halako fatxada ez daukan bizitegian, edo ezin dela elkartu juxtu holako edo halako kanpo egitura ez duen gorputzarekin elkartu edo gorputz hori informatu?

21. *Eta nekez ezagutaraz daitezke bestela.*

Orain, koalitate gailen hauek ezagutarazteko biderik onena koalitate horiek dituzten gorputzak erakustea da, eta nekez ezagutaraz daitezke bestela. Izan ere zaldi edo kasuario baten forma modu trakets eta hobagarrian baino ezin da gogamenean inprimatu hitzen bidez; animalioek ikusiz mila bider hobeto egingen da hori. Eta errearen kolore bereziaren ideia ez da haren deskribaketaz hartzen, begiek kolore hori ikustearen ikusteaz baizik, metal honetara ohituak dauden kasuan argi ageri denez, hauek ikuste hutsez bereiziko baitizute egiaz-

ko urrea eta faltsua, purua eta andeatua, beste batzuek, ordea, aurrekoek bezain begi trebeak ukan arren, horretan ibiliak ez direlako kolore hori berezi horren ideia doi eta zehatza berenganatu ez dutenek, inolako alderik hautemanen ez duten artean. Gauza bera esan daiteke substantzia batentzat bere espeziean bereziak diren beste ideia bakun batzuetaz ere, ideia zehatz horientzat ez dagonean izen berezirik. Urreak ateratzen duen hotsa beste gorputz batzuek ateratzen dutenetik ezberdina da, baina ez dauka izen berezirik, metal horrek duen hori bereziak ere ez daukan moduan.

22. Substantzien ahalen ideiak defini zitezagutzen dira hobeto.

Baina gure ideia espezifikokoak osatzen dituzten ideia bakunetako asko gure sentimenei gauzetan eurretan nabariki agertzen ez zaienez, substantziei ematen diegun izenen esanahian esanahi horren zati bat hobeto ezagutaraziko da ideia bakun horiek banan-banan aipatuz, substantzia bera erakutsiz baino. Zeren begiz harturiko kolore hori distiratsuren ideiaz gain, neuk banan-banan aipatuz azaldu-tako harikortasun handiaren, fundigarritasunaren, finkotasunaren eta *aqua re gi*atan disolbagarritasunaren ideiak ere eduki ditzakeenak, urrearen ideia perfektuagoa izanen du urrezko pieza bat ikusiz eta, beraz, gogamenean koalitete nabariak soilik inprimatuz eduki dezakeena baino. Baina gauza distiratsu, astun, harikor honen osaera formala (propietate horiek guztiak darizkiona) triangelu baten osera formala edo esentzia bezala gure sentimenetara argi agertuko balitz, urre izenaren esanahia triangeluarena bezain erraz zehaztu ahal izanen litzateke.

23. Gorputzetatik banaturiko espirituek daukaten gauza gorpuzdunen ezagutzari buruzko gogoeta.

Hemendik ongi kontura gaitezke zenbateraino dagoen gure sentimenetan gorpuzdun gauzei buruz daukagun ezagutza guztiaren oinarria. Izan ere, ez daukagu inolako nozio edo ideiarik eta ez daki-gu gorputzetatik banaturiko espirituek (gauza horiei buruz guk baino ideia perfektuagoak dituztenek) nola ezagutzen dituzten gauzak. Gure ezagumenaren edo irudimenaren hedadura guztia ez da iristen hautemateko ditugun erek mugatzen dizkiguten gure ideietatik harago. Nahiz eta ez dagoen dudarik haragitan murgildurik dau-den izpirtuek baino goragokoek substantzien barne osaerari buruz guk triangeluari buruz bezain ideia argiak eduki dezaketela, eta,

beraz, baita osaera horri haien propietate eta eragiketa guztiak darizkiola hauteman ere, ezagutza modu hori, hala ere, gure ikusmoldeetatik harago dago.

24. *Substantzien ideiak gauzei egokitu behar zaizkie.*

Baina, laugarrenik, definizioek substantzien izenak azaltzeko balio dezaketen arren gure ideiak ordezkatzeko dituzten heinean, hala ere inperfekzio handiarekin egiten dute hori gauzak ordezkatzeko dituzten heinean. Zeren substantzien izenak gure ideiak izendatzeko soilik barik, azken batean gauzak ordezkatzeko («to represent») ere erabiltzen direnez hauen lekuan jarritz, haien esanahiak gauzen egia-rekin ados etorri behar du, gizakien ideiekin bezalaxe. Eta horregatik, substantzietan, ez dugu beti geratu behar beraiei emandako hitzaren esanahi eskuarki onartuan, baizik aurrerago jo eta gauzen izaera eta propietateak arretaz ikertu behar ditugu eta, ikerketa horren bidez, haien espezie diferenteen ideiak ahalik gehien hobetu edo, bestela, gauza horiek erabiliagatik beraietan esperientzia harturikoengandik ikasi. Zeren, substantzien izenek gauzetan euren egiazki existitzen diren ideia bakunak eta aldi berean beste gizaki batzuen gogamenetan dagoen eta izen horiek adiera arruntean ordezkatzeko duten ideia konplexua ere ordezkatzeko nahi denez, substantzien izenak ongi definitzeko historia naturala ikasi eta substantzia horien propietateak aurkitu beharra daukagu. Izan ere, gorputz naturalei eta gauza substantzial-lei buruzko diskurtso eta arrazoibideetan eragozpenak ekiditeko, ez da aski hitz bakoitzari hizkuntz propietatearen arabera aplikatzen zaion ideia komun, baina nahasi eta oso inperfektua zein den ikasi eta hitz hori erabiltzen dugun guztian ideia horrekin lotzea, eta, horregatik, gauza bakoitzaren espeziearen historia ezagutuz, izen espezifiko bakoitzari dagokion ideia konplexua zuzendu eta zehaztu beharko dugu, eta besteekin solasean ari garela (oker adituren batez ohartuz gero) izen horrek gure baitan zein ideia konplexu ordezkatzeko duen azaldu beharko dugu. Hau egitea are beharrezkoagoa da ezagutzaren eta egia filosofikoaren bila dabiltzanen kasuan, zeren hurrei hitzak erakusten zaizkienean, hauek, gauzen nozio inperfektuak dituztenez, gutxi gorabehera eta gehiegi pentsatu gabe aplikatzen dituzte eta nekez eratzen dute ideia zehazturik hitz horien bidez adierazteko. Eta ohitura horrekin jarraitzeko joera dute (erraza eta bizitzako arazo arruntetarako eta solaserako balio diena denez) gizaki heldu eginda

ere, okerreko muturretik hasten direlarik, hau da, lehenbizi hitzak oso ongi ikasiz, baina hitz horiei bat ere zehaztasunik gabeko nozioak lotuz. Era horretan gertatzen da beren herriko hizkuntzaz, hau da, hizkuntza horren gramatika arauen arabera mintzo direnek, gauzei eurei buruz zehastasunik gabe mintzatzea eta, bata bestearekin argudiaketan ibiliz aurrerakuntza oso txikiak egitea egia baliozkoen aurkikuntzan eta gauzen ezagutzan, gauzak beren baitan, eta ez gure irudimeanean, diren moduan hartuz, gure ezagutzan aurrera egiteko ezer gutxi axola baitio gauzei zein izen ematen zaien.

25. Hori egitea ez da erraz.

Desiragarri litzateke, beraz, ikerketa fisikoetan dabiltzanek eta gorputz mota ezberdinetan adituek espezie bakoitzeko banakoetan etengabe erreparatzen dituzten ideia bakunak idatziz jartzea. Honek erremedioa jarriko lioke, pertsona ezberdinek izendapen beraren pean hartzen diren gauzen edozein espezieren koalitatez duten ezagutza edo egin duten azterketa sakonago edo arinagoaren arabera izen bera batzuek koalitate sentigarri gehiagori eta beste batzuek gutxiagori aplikatzean sortzen duten nahasmenduari. Baina horrelako hiztegi bat egiteko, nolabait esateko historia naturala jasoko lukeena, esku gehiegi eta denbora, diru, neke, eta zuhurtzia gehiegi beharko litzateke eta hori egin arte, izenak darabiltzaten gizakiek hitz horiei ematen dieten zentzua azalduko duten definizioekin konformatu beharra daukate. Eta on litzateke, behar diren guztian, definizio horiek eskaintzea. Baina hori ez da egiten eta gizakiek elkarrekin solasean eta eztabaidaka ibiltzen dira darabiltzaten hitzen esanahiarekiko ados etorri gabe, errakuntza batean eroriz, hau da, suposatutzat joz hitz komun en esanahia ziurtasunez finkaturik dagoela eta hitz horiek ordezkatzten dituzten ideia zehatzak ezagutu egiten direla, eta ez ezagutzea lotsatzekoa dela. Suposizio bi horiek faltsuak dira, ez baitago ezein ideia konplexuren izenik, beti ideia zehatz berak adierazteko erabilia izaterainoko esanahi finko eta zehazturik daukanik. Eta inola ere ez da lotsaria gizaki batek zerbaiten ezagutza ziurra horretarako bitartekoak dauzkanean baino ez edukitzea eta, horregatik, ez dago inolako ospe-galtzerik beste gizaki baten gogamenean soinu batek zer ordezkatzten duen ez jakitean, baldin soinu hori erabili hutsez aparte beste moduren batez ere azaltzen ez badit, azalpen hori gabe ez baitago hori jakiterik. Hizkuntzaren bidez komunikatzeko beharrianak hitz komun en esanahian bat etor-

tzera dakartza gizakiak, solasaldi arruntetarako balio izateko moduko zabaltasunez beti ere; eta, horregatik, ezin daiteke pentsa gizakiak, berak dakien hizkuntza batean, ez duela inola ere ezagutzen erabilera komunean hitzei ematen zaien esanahia. Baina erabilera komuna zehastasun oso gutxiko araua, azken batean gizaki partikularren ideietara biltzen dena izanik, eredu oso aldakor gertatzen da maiz. Baina hiztegi hori egiteko, arestian esan dudan moduan, denbora, diru eta neke gehiegi beharko litzatekeenez, gure garaian osatzea espero ahal izateko, uste dut ez dela arrazoigabekeria kanpoko formatik ezagutzen eta bereizten diren gauzak ordezkatzan dituzten izenak euren marrazki eta grabatu txiki bidez adierazi behar liratekeela proposatzea. Horretara egindako hiztegiak agian errazago eta denbora gutxiagoan irakatsiko luke termino askoren egiazko esanahia, urruneko edo antzinako hizkuntzetan bereziki, eta antzinako autoreen liburuetan irakurtzen ditugun gauza askoren ideia egiazkoagoak finkatuko litzuke gizakien gogamenetan, kritiko jakitunen iruzkin luze eta lantsuek baino. Landareez eta animaliez ari diren naturalistek aurkitu dute prozedura honen onura, eta haiek kontsultatzera jo duenak izanen du motiborik aitortzeko *apium* edo mirtuaren edo *ibex* edo orkatzaren ideia argiagoa hartu duela landare edo abere horren grabatutik, bataren zein bestearen izenaren definizio luzetik har zitekeena baino. Eta, halaber, latindarren *strigil* eta *sistrum* hitzen ideia argiago hartuko luke, zalantzarik gabe, hiztegian horien sinonimo moduan agertzen diren ingelesezko *currycomb* (zaldiorrazi) eta *zymbal* (zinbalo) hitzen ordeztalotxoan tresna horien iruditxoak ikusi ahal balitu antzinakoek erabiltzen zituzten bezalaxe marraztuta. *Toga*, *unica*, *pallium* erraz itzul daitezke traje, jaka eta kapa sinonimoez, baina hortik ez dugu ateratzen soineko horiek erromatarren artean zuten tankerari buruz ideia argiagorik, jantziok egin zituzten jostunen aurpegien itxurari buruz daukagun baino. Horrelako gauzak eta begiz formatik bereizten ditugunak euren marrazkien bidez errazago sartuko lirateke gogamenera eta hitzon ordeztalotxoan edo definitzeko erabilitako edozein hitzek baino gehiago zehaztuko lukete euren esanahia. Baina hau bidenabar diot.

26. *Bosgarren konponbidea: Hitz bera beti zentzu bat berean erabiltzea.*

Gizakiek, beren hitzen esanahia adierazteko lana hartu nahi ez eta beren terminoen defizioniorik eskaintzen ez duten kasuan ere,

beste hau egitea behintzat espero daiteke, alegia, gizaki batek beste bat informatu edo konbentzitu nahi duen diskurtsoetan hitz bera beti zentzu bat berean erabiltzea. Hau eginez gero (eta hau egiteari ezin zaio ukorik egin zintzotasun falta handiarekin izan ezik), idatziriko libururik asko sobera leudeke, eztabaidetako tirabirarik asko bukatu egingen lirateke, eta liburuki lodi eta orain zentzu batekin eta gero beste batekin erabilitako hitzez puzturikoez leku askoz txikiagoa bete-ko lukete; eta filosofoen (besterik ez aipatzearen), baita poeten lanik asko ere intxaur azal baten barruan sartuko lirateke.

27. Hitzak goian aipatu bezala erabiltzen ez direnean, eginda -ko aldaketa azaldu egin behar da.

Baina, azken batean, hitzen hornidura hain da urria pentsamenduen amaigabeko ugaritasunaren ondoan, non gizakiak, hitzak nozio zehatzetara egokitze ahaleaginean, beharturik aurkituko diren sarri, konturik handienaz ibili arren, hitz bera zentzu apur bat diferentean erabiltzera. Eta, diskurtso baten harian edota argumentu bati jarraiera ematean, batek terminoren baten esanahia aldatzen duen guztian definizio partikular bat eskaintzeko lekurik nekez egonen den arren, hala ere, diskurtsoaren zentzua nahikoa izanen da gehienetan, engainatzeko asmorik egon ezean, irakurle zintzo eta argiak egiazko esanahira eramateko. Baina irakurlea gidatzeko hori aski ez denean, idazleari dagokio zer esan nahi duen azaltzea eta termino hori han zein zentzutan darabilen adieraztea.

IV. LIBURUA

Ezagutzaz eta probabilitateaz

LAUGARREN LIBURUAREN LABURPENA

Lockek mota ezberdinetako ideiei edo existitzen denaren agerpenei buruz eta berauek hitzekin duten erlazioei buruz egiten duen azterketak Laugarren Liburuan beste ikerketa bat egitera daramate, hots, ideiek irispidera dakarkiguten ezagutzaren hedapen eta baliozkotasunaren ikerketara, baita, bizitza bide zuzenetik gidatzeko, baiespena ezagutzaz harago hedatzeko bide den probabilitatearen sinestearen izaera aztertzerara ere. Ezagutzari buruz aurkitzen du (I, II kap.) edo intuiziozko, edo frogapenezko edo sentipenezko ziurtasun osoko pertzepzioa dela, ideien aldetiko lau adostasun edo desadostasun motetako bati edo besteri buruz: 1) ideia bakoitzarena ideia berarekin, berbera izanik, eta beste edozeinekiko ezberdina; 2) elkarrekiko erlazio abstraktuetan; 3) euren lotura beharrezkoetan, substantzia konkretuetan koexistitzen diren koalitate eta ahal bezala; 4) guretzat existentziaren azken errealitatearen agerpen direnez. Ezagutzak ematen duen baldintzarik gabeko ziurtasuna gizakiak lau mota horietako lehenengo, bigarren eta laugarrenari buruz soilik hauteman dezake; proposizio orokor guztietan lehenengoari eta bigarrenari buruz soilik, hau da, proposizio berdin-berdinetan eta esentzia nominala eta erreala bat bera duten modu bakun edo mistoen erlazio abstratuak adierazten dituztenetan, adibidez, matematika hutseko eta moral abstraktuko proposizioetan (III, V, VII kap.). Laugarren mota, existentziaren errealitateari buruzko ziurtasuna adierazten duena, hiru errealitateetako baten bati dagokio. Izan ere, gizaki bakoitza gai da erabateko ziurtasunez hautemateko norbera existitzen dela, Jainkoak existitu behar duela, eta bera ez diren beste izaki finitu batzuk existitzen direla; pertzepzio hauetako lehenengoa gure ideia guztiek eragindakoa da. bigarrena, lehenengoa hautematearen ondorioz sorturikoa eta azkena gure sentimenaren ideia bakunak hartzean sorturikoa (I kap., 7; II kap., 14; III. kap., 21; IV, IX, XI kap.). Hirugarren motako adostasuna, edo substantzia partikularretan ideia bakunek koalitate eta ahal bezala duten beharrezko koexistentzia, ikerketa fisiko ororen aztergai dena, giza ezagumenaz haraindi dago, hemen esentzia erreala eta nominala ez direlako bat bera; mota honetako proposizio orokorrak esperientziako analogiek determinatuak dira, probableagoak edo ez hain probableak diren judizioetan; adimenaz juzgatuta naturaren zientzia beharrezkoak orojakintza aurreuposatzen du; naturari buruzko gizakien interpretazioak probabilitate presuntzioetan oinarritu beharra dute. (II kap., 9-17; IV kap., 11-17; VI, XIV-XVI. kap.). Gizakiek euren ziurtasun eta probabilitateen multzoa eratzean, arrazoimenaz, jainko-errebelazioarekiko fedez eta irrikitasunaz baliatzen dira (XVII-XIX kap.); asko, azken honek eta «okerreko baiespenaren» (XX. kap.) beste kausa batzuek desbideratzen dituzte, «adimenaren munduko hiru lurralde nagusietan» (XXI. kap.), jarraian aipatzen direnei buruzko gaiak aztertzen ari direnean: 1) «gauzak ezagugarri» direnez (*fisika*); 2) ekintzak geure menpe ditugunez geure zoriona lortzeko (*praktika*); 3) gure ideietan eta hitzetan agertzen diren bai denaren eta bai izan behar lukeenaren zeinuak (*logika*).

I. KAPITULUA

Ezagutzaz oro har

1. *Gure ezagutza gure ideien inguruan dabil.*

Gogamenak bere pentsamendu eta arrazoinamendu guztietan bere ideiak beste arategabeko objekturik ez daukanez, berauek baino ez baititu kontenplatzen edota ez baititzake kontenpla, begi-bistakoa da gure ezagutza berauen inguruan soilik dabilela.

2. *Ezagutza bi ideien arteko adostasunaren edo desadostasunaren pertzepzioa da.*

Ezagutza, beraz, nik hala deritzot, *ez da gure edonolako ideien artean dagoen lotura eta adostasunaren edota desadostasunaren eta aurkakotzaren pertzepzioa baino*. Horrexetan bestetan ez datza ezagutza. Pertzepzio hori dagoen guztian ezagutza dago eta ez dagoenean, guk irudikatu, susmatu edo sinetsi arren, ezagutzatik urri gabiltza. Izan ere, zuria ez dela beltza ezagutzen dugunean zer besterik egiten dugu, ideia bi horiek ados ez datozela hauteman baino? Frogapenak ematen duen ziurtasunik handienaz jabetzen garenean triangelu baten hiru angeluek bi angelu zuzen osatzen dutela, zer besterik egiten dugu bi zuzenekiko berdintasuna triangelu baten hiru angeluekin nahitaez datorrela ados eta haietatik bereiztezina dela hauteman baino?

3. *Adostasun edo desadostasun hau lau motakoa izan daiteke.*

Baina adostasun edo desadostasun hau zertan datzan apur bat argiago ulertzeko, uste dut lau motatan laburbil dezakegula.

I. *Identitatea edo dibertsitatea.*

II. *Erlazioa.*

III. *Koexistentzia edo halabeharrezko lotura.*

IV. *Existentzia erreala.*

4. *Lehenik, identitatea edo dibertsitatea ideietan.*

Lehenik, aurreneko adostasun edo desadostasun motari dago-kionez, hau da, identitate edo dibertsitateari, gogamenaren lehen egin-tza, sentipenik edo ideiarik daukanean, bere ideiak hautematea da; eta hauteman ahala bakoitza zer den ezagutzea eta ondorioz ideion arte-ko aldeak eta bat ez dela bestea hautematea. Hain da hau behar-beha-rrezko non, hau barik ez legokeen ezagutzarik, ez arrazoitzerik, ez irudikatzerik ez inolako pentsamendu bereizirik. Honen bidez argi eta hutsik gabe hautematen du ideia bakoitza ados datorrela berberarekin, eta zer den huraxe dela, eta ideia ezberdin guztiak desados datozela elkarrekin, hau da, bat ez dela bestea, eta hau nekerik, lanik ez deduk-ziorik gabe egiten du, lehen ikusian, hautemateko eta bereizteko duen berezko ahalaz. Eta logikariek arau bi hauetara laburbildu badute ere, hau da, «*badena bada* » eta «*ezinezko da gauza bera izatea eta ezi zi - tea*», horretaz gogoeta egiteko aukera dagoen kasu orotan berehala aplikatzeko, hala ere egia da ahalmen hau ideia partikularren ingu-ruan hasten dela jardunean. Gizakiak *zuri* eta *biribil* deritzen ideiak bere gogamenean ukan bezain laster daki ideia horiek diren ideiak direla eta ez direla *gorri* edo *karratu* deritzen ideiak. Eta munduan ez dago esakunerik ez proposiziorik hori lehen inondiko arau orokorrik gabe ezagutzen zuen baino argiago eta ziurrago ikusten lagun liezaio-keenik. Horixe da, beraz, gogamenak bere ideietan hautematen duen lehenengo adostasun edo desadostasuna, eta lehen ikusian hautema-ten du beti, eta dudarik sortzekotan, izenei buruz izanzen da beti, eta ez ideiei eurei buruz, hauen identitatea edo dibertsitatea ideiak eurak bezain azkar eta argiro hautemanen baita, ezin daitekalarik beste era batera izan.

5. *Bigarrenik, ideien arteko erlazio abstraktuak.*

Bigarrenik, gogamenak bere ideietako edozeinetan hautematen duen bigarren adostasun edo desadostasun motari uste dut *erlatiboa* dei dakioketela, eta nolanahiko bi ideiaren artean —direla substan-tziak, moduak edo beste edozein— dagoen *erlazioaren* pertzepzioa baino ez da. Zeren, nahiz eta ideia diferente guztiak ideia bera ez dire-

la ezagutu behar den eta, beraz, unibertsalki bata besteari buruz ukatu, ezin izanen ginатеke iritsi ezein ezagutza positibora, baldin gure ideien artean inolako erlaziorik hautematerik eta bata bestearekin duten adostasuna edo desadostasuna deskubritzerik ez bagenu, gogamenak ideiak konparatzeko dituen bide ezberdinez

6. *Hirugarrenik, ideien hala beharrezko koexistentzia substantzietan.*

Hirugarrenik, gure ideietan dagoen hirugarren adostasun edo desadostasun mota, gogamenak hautemangai duena, *subjektu berean koexistitzea* edo *ez koexistitzea* da, eta substantziei dagokie partikularki. Horrela, urreari buruz finkoa dela diogunean, gure ezagutza haxe baieztatza mugatzen da, finkotasuna edo sutan deuseztu gabe irauteko ahala beti doala lagun eta elkarturik urre hitzak adierazten duen gure ideia konplexua osatzen duten mota jakineko horitasunari, pisuari, fundigarritasunari, xaflakortasunari eta *aqua regiatan* disolbagarritasunari.

7. *Laugarrenik, ideia batekin ados datorren existentzia erreala.*

Laugarrenik, laugarren eta azken adostasun mota ideia batekin ados datorren *existentzia aktua erreala* da. Lau adostasun edo desadostasun mota hauen barruan dago, nire ustez, daukagun edo eduki dezakegun ezagutza guztia. Zeren gure edozein ideari buruz egin dezakegun ikerketa oro, haietako edozeini buruz dakigun edo baiezta dezakegun oro, haxe da: ideia hori beste bat den berbera dela edo ez dela, koexistitzen dela edo ez dela koexistitzen beste batekin subjektu berean, honelako edo halako erlazioa duela beste ideia batekin, edo existentzia erreala duela gogamenetik at. Horrela «urdira ez da horia» identitateko desadostasuna da. «Paralelo biren artean oinarri bera duten bi triangelu, berdinak dira» erlazioa adostasuna da. «Burdina eragin magnetikoak hartzeko gai da» koexistentziakoa da. «Jainkoa existitzen da» existentzia errealekoa da. Identitatea eta koexistentzia izatez erlazioak baino ez diren arren, hain bide bereziak dira gure ideiak ados edo desados etortzeko, non erlazioen artean barik elementu bereizitza hartzea merezi duten, baieztatze eta ezeztatze oinarri ezberdinak direlako, entseu honetako leku ezberdinetan esaten denari buruz gogo eta egin dezan oro erraz konturatuko den moduan. Gure ezagutzaren maila ezberdinak aztertu behar nituzke orain, baina aurretik *ezagutza* hitzaren adiera ezberdinak aztertu beharra dago.

8. Ezagutza bi eratakoa da: aktuala eta ohikoa.

Gogamenak zenbait bide ezberdinetik bereganatzen du egia, eta horietako bakoitzari ezagutza deritza.

I. Bata *ezagutza aktuala* da, eta gogamenak bere ideia batzuek euren artean edo ideiek elkarrekin duten erlazioaren adostasunaz edo desadostasunaz unean daukan pertzepzioa da

II. Gizaki batek proposizio bat ezagutzen duela esaten da, proposizio hori bere pentsamenduan eduki ondoren berori osatzen duten ideien arteko adostasuna edo desadostasuna nabariki hautematen duenean, eta, halatan geratzen zaionean oroimenean, non proposizio horretaz pentsatzen duen guztian, zalantzarik edo ezbairik gabe adiera zuzenean hartu eta berorren egiaiekiko ziurtasun osoz baieztatzen baitu. Honi, uste dut, ohiko ezagutza dei dakioke. Eta horrela esan daiteke gizaki batek bere oroimenean dituen egia guztiak ezagutzen dituela, aurretik ukan duen pertzepzio argi eta nabari baten eraginez gogamena haietat ziur, inolako dudarik gabe, geratzen delako beraietaz pentsatzen duen guztian. Zeren gure adimen mugatuak, argi eta era bereizian, aldiko gauza batez pentsatzeko ahalmena baino ez duenez, gizakiok une bakoitzean pentsatzen dugunaren ezagutza baino ez bagenu, ezjakin handiak ginateke eta jakintsuenak egia bat soilik ezagutuko luke, aldian batez baino ezin izanen luke pentsatu eta.

9. Ohiko ezagutza maila bitakoa da.

Ohiko ezagutza ere, arrunki mintzatuz, bi mailatakoa da.

Lehenik, bata oroimenean gorderiko egiei buruzkoa da, gogamenera aurkezten direnean honek ideia horien arteko *erlazioa* *giazki hautematen* duenean gertatzen dena. Eta hau ezagutza intuitiboz ezagutzen ditugun gauza guztietan gertatzen da, eta hemen ideiek eurek, arartegabeko ikuspenez, elkarrekin duten adostasuna edo desadostasuna deskubritzen dute. Bigarrenik, bestea, gogamena zenbait egiaz konbentziturik egonik. *konbentzimendu horren oroitzapena frogarik gabe gordetzen duenean* lortzen duen ezagutza da. Horrela behin triangeluaren hiru angeluek bi angelu zuzen osatzen dutela erakusten duen frogapena hauteman zuela ziur gogoratzen duena ziur dago badakiela hori, horren egia zalantzatan ipintzerik ez duelako. Lehen aldiz egia bat ezagutzeko hautemandako frogapena ahanzi ondoren egia horri atxikimendua ematean gizakiak zinez ezagutu baino gehia-

go bere oroimenari sinesten diola pentsa daitekeen arren, eta egia nor-bereganatzeko modu horri lehenago nik neuk ere iritziaren eta egiaren bitarteko zerbait neritzon arren, hau da, inoren testigantzan oinarrituriko siniste hutsa gainditzen duen ziurtasun modu bat, hala ere ongi azertu ondoren uste dut ziurtasun osotik oso hur dagoela eta egiazko ezagutza dela. Honetan hasieran errakuntzara eraman gintzakeena honako hau da, kasu honetan ideien adostasuna edo desadostasuna lehenenengo aldian bezala proposizioen ideien adostasuna edo desadostasuna hautemateko bide izandako bitarteko ideia guztiak orduantxe ikusiz hauteman beharrean, proposizioaren barruko ideien adostasuna edo desadostasuna erakusten diguten bitarteko beste ideia batzuen bidez hautematen dela, hauei buruzko ziurtasuna gogoratu egiten dugularik. Adibidez, triangelu baten hiru angeluek bi angelu zuzen osatzen dutela dioen proposizioan, egia honen frogapena ikusi eta argi hauteman duenak badaki egia dela, frogapenak gogamenetik alde egin dionean ere, orduan bistan ez eduki arren eta agian gogoratzerik ez eduki arren; baina lehen ez bezalako bidetik daki. Proposizio honetan elkaturiko bi ideien adostasuna hautematen da, baina lehenengo aldiz pertzepzio hau eragin zuten ideien bitartez barik, beste batzuen bitartez. Gogoratzen du, hau da, ezagutzen du (oroitzapena iraganeko ezagutza bat berritza baina ez da) «triangelu baten hiru angeluek bi angelu zuzen osatzen dute» dioen proposizioaren egiaz behiala ziur zegoela. Hortaz, gauza aldaezin beraien arteko erlazio beraren aldaezintasuna da orain bitarteko ideia, lehen triangelu baten hiru angeluek bi zuzen osatzen bazituzten, beti ere bi zuzen osatuko dituztela erakusten diona. Eta hemendik ziur jakitera heltzen da behin kasu batean egia izandakoa egia dela beti, behin ados etorritako ideiak ados etorriko direla beti; eta, ondorioz, behin berak egia zela jakin zuela egia dela jakinen duela beti, behin jakin zuela gogoratzeko gai den artean. Horretan oinarrituta, frogapen partikularrek matematikan ezagutza orokorrak luzatzen dizkigute. Beraz, ideia berek betiere guztian aztura eta erlazio berak ukanen dituztelako pertzepzioa ezagutzarako behar bezainbateko oinarria ez balitz, ez legoke proposizio orokorren ezagutzarik matematikan, zeren proposizio matematiko oro partikularra baina ezingo litzateke izan; eta baten batek triangelu edo zirkulu bati buruz proposizioaren bat frogatzean, bere ezagutza ez litzateke helduko diagrama partikular horretatik harago. Ezagutza hori harago hedatzeko, beste adibide batean frogatu beharko luke berriro,

antzeko triangelu batean ere hori egia dela jakin ahal izateko, eta gero beste batean eta beste batean, eta, beraz, inor ezin izanen litzateke iritsi proposizio orokorrik ezagutzera. Ezin du inork dudarik egin Newtonek badakiela bere liburuan une orotan irakurritako edozein proposizio egia dela, nahiz eta une horretan bistan ez ukan proposizio hori egia dela deskubritzeko lehenengo aldi hartan erabili zuen bitarteko ideien kate miresgarri hura. Ideia partikularren horrelako katea atxikita gordetzeko gauza litzatekeen oroimena giza ahalmenez haraindikotzat jo liteke arrazoiz, ideien lotura miragarri hori deskubritu, hauteman eta elkartzeak irakurle gehienen ulermena gainditzen duela dirudienean. Baina argi dago autoreak berak ere proposizioa egia dela, behin ideia horien lotura ikusi zuela gogoratuz dakiela, gizaki batek urliak gizon bat hil zuela, ezpataz aldetik aldera zulatzen ikusi zuela gogoratuz dakien ziurtasun beraz. Baina oroimena ez da beti pertzepzio aktuala bezain argia eta denbora iragan ahala gizaki guztiei gehiago edo gutxiago ahuldu egiten zaie, horixe dugularik, besteak beste, diferentzietako bat, *frogapenezko* ezagutza *intuiziozkoa* baino asko inperfektuagoa dela erakusten diguna, hurrengo kapituluan ikusiko dugun moduan.

II. KAPITULUA

Gure ezagutzaren mailez

1. Gure ezagutzaren maila edo ezberdintasunez: I. Intuiziozko ezagutza.

Gure ezagutza guztia, esan dudan moduan, gogamenak bere ideiez duen ikuspenean datzanez, beronek dakarkigularik geure ahal-menez eta ezagutzeko moduaz erdietsi ahal dugun argitasunik eta ziurtasunik handiena, ez dateke alferreko gure ezagutzaren nabaritasun mailak apur bat aztertzea. Gure ezagutzaren argitasun maila ezberdinak, nire ustez, gogamenak bere ideien adostasun edo desadostasuna hautemateko dituen bide diferenteetan dautza. Izan ere, geure pentsatzeko moduez gogoeta eginez gero, aurkituko dugu batzuetan gogamenak ideia biren arteko adostasuna edo desadostasuna *bi arteko*rik gabe eta *ber* ez, beste ezein ideiarenekin eraginik gabe hautematen duela, eta honi, nire ustez, *intuiziozko* *ezagutza* deritzake, zeren honetan gogamenak ez du ezer frogatzen edo aztertzen nekatu beharrik, begiak argia bezala hautematen baitu egia, hartara zuzendu hutsez. Horrela gogamenak hautematen du *zuria* ez dela *beltza*, *zirkulua* ez dela *triangelua*, *hirubi* baino gehiago dela eta *bat* gehi *bi* dela. Mota honetako egiak lehen ikusian, ideiak elkarrekin ikusi hutsez hautematen ditu gogamenak, intuizio soilez, beste ezein ideiarenekin eraginik gabe, eta mota honetako ezagutza giza ahultasunak eduki dezakeenik argiena eta ziurrena dugu. Ezagutzaren atal honi ezin zaio kontrarik egin eta eguzki distiratsuenaren argiak bezala

bitartekorik gabe berehala hautematera behartzen gaitu, gogamenak norabide hartarantz egin bezain laster, eta ezbaiari, zalantzari edo azterketari lekurik utzi gabe, gogamena haren argi gardenaz betetzen da momentuan. *Eta intuizio honexen menpean dago gure eza gutza ororen ziurtasun eta nabaritasun guztia* ; eta ziurtasun hau hain da handia, non ezin dezakegun handiagorik irudika eta, beraz, behar ere ez dugun, zeren gizakiak ezin du bururatu ziurtasun handiagorik ukan dezakeenik, gogamenean duen ideia bat berak hautematen duen bezalakoxea dela dakienean daukana baino, eta berak alderen bat hautematen dien bi ideia ezberdinak, eta ez berberak, direla dakienean daukana baino. Hau baino ziurtasun handiagoa eskatzen duenak ez daki zer eskatzen duen eta eszeptikoa izateko gogamena duela erakusten du, horretarako gai izan gabe. Ziurtasuna intuizio honexen erabat menpe dago, halatan egon ere, non frogapenezko ezagutza deitzen diodan hurrengo mailako ezagutzan ere intuizio hau behar-beharrezko den ezagutza eta ziurtasuna erdiesteko ezinbesteko ditugun bitarteko ideien lotura guztietan.

2. Frogapenezko ezagutza.

Ezagutzaren hurrengo mailan gogamenak ideien adostasuna edo desadostasuna hautematen du, baina ez bitartekorik gabe. Gogamenak bere ideietako batzuen arteko adostasuna edo desadostasuna hautematen duen guztian ezagutza ziurra erdiesten badu ere, ez da beti gertatzen gogamenak haien artean dagoen adostasun edo desadostasun hori aurkitzea, aurkigarria izan arren, eta kasu horretan ezjakin geratzen da edota gehienik ere aieru gertagarri («probable») batera iristen da. Gogamenak Ideia biren arteko adostasuna edo desadostasuna beti berehalakoan hauteman ezinaren arrazoia, gogamenak adostasuna edo desadostasuna bilatu nahi dien ideia horiek adostasun edo desadostasun hori agerian jartzeko moduan elkarrekin ipintzeko duen ezina da. Kasu honetan, beraz, gogamenak ideiak elkarrekin ipini ezin dituenean ideioek beraien arteko adostasuna edo desadostasuna hautemateko moduan, bitartekorik gabe erkatuz, elkarri erantsiz —nolabait esateko— edo aplikatuz, beharturik aurkitzen da *bitarteko beste ideiez* baliatzera (bat edo gehiagoz, behar hainbatez), bilatzen duen adostasuna edo desadostasuna aurkitzeko, eta honi *arrazoitzea* deitzen diogu. Horrela, gogamenak triangulu baten angeluen eta bi angelu zuzenen artean gradutan dagoen adostasun edo desadostasuna

jakin nahi duenean, ezin du hori arartegabeko ikuspenez eta elkarrekin erkatuz egin, triangelu baten hiru angeluak ezin direlako batera hartu eta beste angelu batekin edo birekin konparatu; eta, horrela, gogamenak ez dauka horri buruz bitartekorik gabeko intuiziozko ezagutzarik. Kasu honetan gogamena beharturik aurkitzen da triangeluaren hiru angeluak bezainbatekoak diren beste angelu batzuk aurkitzera, eta hauek angelu zuzen bi osatzen dutela aurkituz, hemendik helduko da jakitera haiek angelu zuzen bi bezainbatekoak direla.

3. *Frogapena argiro hautemandako frogan menpe dago*

Tartean esku hartzen duten ideia hauei, beste ideia biren arteko adostasuna ikusarazteko balio dutenei, *frogak* deritze; eta horien bidez adostasuna eta desadostasuna zeharo eta argiro hautematen denean, honi *frogapena* deritza, adostasun edo desadostasun hau, orduan, adimenari halatan erakusten zaiolarik, non gogamenak horrelaxe dela ikusten duen. Bitarteko ideia horiek (beste batzuen adostasuna edo desadostasuna erakusten dutenak) aurkitzeko eta behar bezala aplikatzeko gogamenak duen azkartasunari *zuhurtzia* («sagacity») esaten zaiola uste dut.

4. *Ezagutza mota hau intuiziozkoa bezain ziurra da, baina ez hura bezain erraza eta azkarra.*

Tarteko frogan bidez geuganatzen dugun ezagutza, ziurra baden arren, beronen nabaritasuna, oster, ez da intuiziozko ezagutzan aurkitzen duguna bezain argi eta gardena eta baiespena ere ez diogu besteari bezain azkar ematen. Izan ere, frogapenean gogamenak, azkene-rako, kontsideratzen dituen ideien arteko adostasun edo desadostasuna hautematen duen arren, ez da hori nekerik eta arretarik gabe lortzen, ez eta gainbegirada soil batez ere. Ahalegin tinkoa eta ekin iraunkorra beharko dira aurkikuntza horretarako; eta apurka-apurka eta mailaka egin behar da aurrera, harik eta, horretara, gogamena ziurtasunera heldu arte eta frogak eta arrazoimena erabiltzea behar dituen bi ideien arteko adostasuna edo aurkakotza hautematea lortu arte.

5. *Konklusio frogatua ez da lortzen aurreik zailantzarik izan ga be.*

Intuiziozko eta frogapenezko ezagutzen arteko beste alde bat haxe da, alegia, bigarren, bitarteko ideien esku hartzez adostasuna edo desadostasuna hautematen denean, zailantza guztiak ezabatzen

diren arren, frogatu aurretik zalantzak izaten direla, intuiziozko ezagutza, ordea, hautemateko ahalmena ideia bereiziaz bereganatzeko mailara heltzen zaion adimenari hau gertatu ezin zaion bitartean, zuria eta beltza bereizteko gauza den begiak zalantzarik ukanen ez duen moduan tinta hau eta paper hau kolore berekoak diren ala ez ebaztean. Begietan ikusmenik bada berehala eta ezbairik gabe hauteman ahal izanen da paper horretan idatzitako hitzen kolorea paperaren koloretik ezberdina dela. Gogamenak ere, bereiztasunez hautemateko ahalmenik badu, era berean hauteman ahal izanen du intuiziozko ezagutza eragiten duten ideien adostasuna edo desadostasuna. Begiek ikusmena galdu badute edo gogamenak hautemateko ahalmena, alferrik galdetuko dugu begien ikus-zolitasunaz batean edo pertzepzioaren argitasunaz bestean.

6. Ez da intuiziozko ezagutza bezain argia.

Egia da frogapenez eragindako pertzepzioa ere oso argia dela; hala ere, argitasun hori sarri oso diferentea da nik intuitiboa deitzen dudanak beti izaten duen distira argitsutik eta ziurtasun betetik. Ispilu askotan batetik bestera lausoagotuz islatzen den aurpegiaren irudiarekin konpara daiteke, objektuarekiko antz eta adostasunari eusten dien heinean eragiten duelarik ezagutza; baina islatik islara galduz doa lehenegoan izandako argitasun eta bereizitasuna, lausotuz lausotuz azkenerako ia ezagutezin bihurtzen delarik, ikusmen ahulekoentzat batik bat. Beste horrenbeste gertatzen da froga sail luzearen ondorio den ezagutzarekin ere.

7. Frogaturiko ezagutzan urrats bakoitzak nabaritasun («evidence») intuitiboa ukan behar du.

Orain, arrazoimenak frogapenezko ezagutzan egiten duen urrats bakoitzean froga moduan erabiltzen duen hurrengo bitarteko ideiaz bilatzen duen adostasun edo desadostasunaren ezagutza intuitibo bat dago, horrela ez balitz, urrats horrek ere bere froga beharko luke eta, adostasun edo desadostasun hori hauteman ezean, ezagutzarik sortzen ez denez gero. Eta berez hautematen bada, orduan ezagutza intuitiboa da; baina berez hautematerik ez badago, tartean esku hartuko duen ideiarekin bat beharko da, neurri komun moduan, haien arteko adostasuna edo desadostasuna erakusteko. Beraz, argi dago ezagutza sortzen duen arrazoiketako urrats bakoitzak ziurtasun intuitiboa daukala; eta gogamenak hautematen duenean, gogoratzea beste-

rik ez dauka, ideien arteko adostasuna edo desadostasuna, bere bilaketaren helburu dena, nabariki eta ziur ager dakion. Horrela, zerbaiten frogapena egiteko, beharrezko da aztergai diren ideia bien (bata beti da lehena eta bestea bigarrena enuntziatuan) adostasuna edo desadostasuna aurkitzeko erabilitako ideia esku-hartzaileen arteko adostasun arartegabekoa hautematea. Bitarteko ideien adostasun edo desadostasunaren pertzepzio intuitibo hau gogamenean eraman behar da zehatz-mehatz frogapenaren urrats eta aurrerakada bakoitzean, eta ziur egon behar dugu ez dugula zatirik ahanzten. Eta dedukzio luzeetan eta froga askoz baliatzean oroimenak hain erraz eta zehatz-mehatz gordezten ez duenez, ezagutza hau intuitiboa baino inperfektuago izaten da eta gizakiek maiz faltsutasuna frogapentzat hartzen dute.

8. *Hemendixek dator arrazoinamendu oro ex praecognitis et ex praeconcessis dela dioen axioma okerrekoa.*

Arrazoinamendu zientifiko edo frogapenezkoan aipaturiko ezagutza intuitiboa behar izateak ekarri du, nire ustez, axioma okerreko hura, alegia, arrazoinamendu oro *ex praecognitis* eta *ex praeconcessis* (aurrez ezagutuak eta onartuak izan diren gauzetatik) datorrela dioena; geroago ukanen dut aukera axioma honen faltsutasunaz mintzatzeko, proposizioak eta bereziki esakuneak deritzen proposizioak aztertzerara heldu eta gure ezagutza eta arrazoinamendu guztien oinarritzat errakuntzaz ditugula frogatzen jardutean.

9. *Frogapena ez da mugatzen kuantitate matematikoaren ideietara.*

Ziurtzat jo izan da eskuarki matematika bakarrik dela ziurtasun frogagarria ukan dezakeena, baina intuitiboki ezagut daitezkeen adostasun eta desadostasuna ez direlarik kopuruen, hedaduraren eta irudien ideiei bakarrik atxiki dakiekeen pribilegioa, ezagutzaren beste atal batzuetan frogapenak hain zeregin gutxi duela uste izan bada eta matematikariez aparte inor gutxi saiatu bada erabiltzen, hori agian gure aldetiko metodo egokirik edo aplikaziorik ezagatik izan daiteke, eta ez gauzak behar adinako nabaritasuna ez edukitzeagatik. Izan ere, gogamenak bitartekorik gabe adostasuna edo desadostasuna hautemateko moduko ideiak dituenean, orduan ezagutza intuitiborako gai da; eta ideia biren arteko adostasuna edo desadostasuna ideia horiek bitarteko ideiarekin duten adostasun edo desadostasunaren pertzepzio intuitiboaren bidez hauteman dezakeenean, orduan gogamena eza-

gutza frogagarriko gai da, eta hau ez dago mugaturik hedadura, irudi, kopuru eta euron moduen ideietara.

10. *Zergatik pentsatu izan den hain mugatua dena.*

Frogapena azken ideia hauetan bakarrik bilatu izanaren eta hauetatik kanpo frogapenik ez dagoela uste izanaren arrazoia, nire ustez, ez datza bakarrik ideia horiek dituzten zientziak onura orokorrekoak izatean, horrez gain, kopuru ezberdinen arteko berdintasuna edo aldea erkatzerakoan kopuruen moduen arteko alderik txikiak argi eta hautemangarriak izatean ere bai baitatza; eta hedaduran alderik txikiak hautematen hain erraz ez badago ere, gogamenak bideak aurkitu ditu bi angelu, hedadura edo irudiren arteko berdintasun zehatza aztertu eta deskubritzeko; eta bi gauza horiek, hau da, kopuruak eta irudiak ageriko ikur iraunkorrez deskriba daitezke, euron bidez aztergai diren ideiak erabat zehaztuta geratzen direlarik, gehienetan gertatzen ez dena berau ideioz izendatzeko izenak eta hitzak bakarrik erabiltzen direnean.

11. *Koalitategen moduak ez dira frogag arriak kuantitatearen moduak bezala.*

Baina moduak eta diferentziak mailaka eta ez kuantitatearen arabera kontatzen zaizkien beste ideia bakun batzuetan, ez ditugu haien ateko aldeak hain zehatz bereizten, ez behintzat haien arteko berdintasun doia edo alderik txikiak hautemateko moduan edo neurtzeko erak aurkitzeko moduan. Zeren beste ideia bakun horiek banan-banan sentiezinak diren korpuskulu nimen tamaina, irudi, kopuru eta higidurak gudan eragindako sentipenen agerpenak direnez, beraien maila ezberdinak kausa horietako batzuen edo guztien aldatetaren menpe daude; eta aldaketa hau banan-banan txikiak diren partikuletan ezin suma dezakegunez, ezinezko gertatzen zaigu ideia bakun horien maila ezberdinen neurri zehatzik edukitzea. Zeren, suposatuz zuretasuna deritzan sentipena edo ideia gure baitan beren zentroaren inguruan jirabiraka dabilen globulu kopuru zehatz batek eragiten duela, errotazio gradu jakin batez euren zentroaren inguruan biraka ibiliz eta abiadura hazkorrez begiaren erretina joz, hori suposatuz, diot, hemendik erraz aterako litzateke honako hau, alegia, zenbat eta hobeto eraturik eduki gorputz batek azaleko zatia argi-globulurik gehien islatzeko eta gure baitan zuretasun sentipen hori eragiteko behar den errotazio egokia emateko, orduan eta zuriago ager-

tuko dela gorputz hori, gure erretinara lekune berdinetik korpuskulu gehiago bidaltzen dituenean higidura mota berezi horrekin. Ez diot argiaren natura globulo biribil oso txikietan datzala, ez eta zuritasunaren natura atalen halako ehundura batean, globulu horiei islatzen dituenean errotazio berezia ematen dienean, ez bainaiz ari hemen argiaz eta koloreaz zentzu fisikoan. Baina uste dut esan dezakedala ezin dudala ulertu (eta ulergarri egin dezakeenak egitea nahiko nuke) gugandik kanpoko gorputzek nolatan ukan dezaketen eragina gure sentimenetan, honelaxe ez bada, alegia, gorputzen euren arartegabeko ukitzearen bidez, dastamenean eta ukimenean bezala, edo eurentatik etorritako zenbait atal sentigarriren bulkadaz, ikusmen, entzumen eta usaimenean gertatzen den moduan; eta bulkada honek, berau eragiten duten atalen tamaina, irudi eta higiduraren arabera diferentea denez, sentipen ezberdinak sortarazten ditu gure baitan.

12. *Argi partikulak eta kolore ideia bakunak.*

Globuluak izan ala ez, edo gure baitan zuritasunaren ideia eragiten duena euren zentroen inguruan globulu horiek egiten duten jirabira izan ala ez, hau behintzat egia da, hots, zenbat eta partikula gehiago islatu gugana partikuloi zuritasun sentipen hori eragiten duen higidura emateko egokia den gorputz batetik, eta agian baita ere zenbat eta azkarrago izan higidura berezi hori, orduan eta zuriago agertuko dela kopuru handiagoa islatzen duen gorputza, eguzki izpien pean, itzalean eta zulo ilun batean ipinitako paper zatian nabari ikusten den bezala, hauetako bakoitzean maila oso ezberdinetako zuritasunaren ideia eragiten baitigu.

13. *Gauzen bigarren koalitateak ez dira frogapenez des-kubritzen.*

Ez dakigunez, beraz, zenbat partikula ez zer nolako higidura behar den zuritasun maila zehatz bat sortzeko, ezin dugu frogatu («demonstrate») zuritasun maila biren berdintasun zehatza, berauek neurtzeko eredu ziurrik ez daukagulako, ez eta alde erreal txikiena bereizteko modurik ere, honetarako laguntza bakarra sentimenetan ukanik, kasu honetan sentimeneak huts egiten digute eta. Baina aldea gogamenean ideia nabariki bereiziak eragiteko bezain handia denean eta ideion arteko aldeak erabat atxiki daitezkeenean, orduan ideia edo kolore hauek, urdina eta gorria bezalako mota ezberdin legez ikusten ditugunak, kopuruaren eta hedaduraren ideiak bezain frogagarriak

dira. Nik hemen zurtasunaz eta koloreez esan dudana, uste dut bigarren koalitateei eta berauen moduei buruz ere egia dela era berean.

14. *Gugandik at dauden izaki mugatuaren existentzia partikularren sentimenezko ezagutza.*

Bi hauexek, intuizioa eta frogapena, dira gure ezagutzaren mailak; bi horietatik kanpo geratzen dena, ziurtasunik handienaz onartua izan arren, *fedea* edo *iritzia* baino ez da, inondik ere ez ezagutza, egia orokor guztiei dagokienez bederen. Bada, izan, gogamenaren beste pertzepzio mota bat ere, *gugandik at dauden izaki mugatuaren existentzia partikularri* erreparatzen diona, probabilitate hutsaz harago joanik, eta, aipaturiko ziurtasun mailetara ez heldu arren, *ezagutza* izenaren barruan sailkatu behar dena. Kanpoko objektu batetik harturiko ideia gure gogamenean dagoela ezin ziurragoa da, eta hau ezagutza intuitiboa da. Batzuek, ordea, zalantzatan jar daitekeela uste dute ea gure gogamenean dagoen ideia hutsetik at ezer ote dagoen hor, ea hortik ziurtasunez inferi ote dezakegun gugandik kanpoko zerbaiten existentzia, zeren, haien ustez, gizakiok eduki ditzakegu horrelako ideiak gogamenean, gauza horiek existitu gabe eta objektu horiek gure sentimenean eraginik ukan gabe. Nik neuk, hala ere, honetaz uste dut badela horretan zalantza oroz haraindik garamatzan nabaritasun («evidence») maila. Zeren edonori galdetuko nioke ea ez dagoen erabat eta nahitaez sinetsirik egunez eguzkiari begiratzean duen pertzepzioa eta gauez astro horretaz pentsatzean daukana arras ezberdinak direla, edo, halaber, asentsio-belarra aktualki dastatzean edo arrosa usaintzean duen pertzepzioa eta zapore edo usain horretaz pentsatzean daukana oso ezberdinak direla. Oroimenaren laguntzaz gure gogamenean berritzen den ideiarene eta aktualki sentimene bidez datorkigunaren ideiarene arteko aldea oso argi hautematen dugu, ideia bereizi biren artekoa bezain argi. Norbaitek esanen balu ametsak ondorio bera eragin dezakeela eta ideia horiek guztiak kanpoko objekturik gabe sor daitezkeela gure baitan, baliteke pozik hartzea nire erantzuna. Lehenik, nik bere kezka hori argitzeak ez duela axola handirik, zeren oro ametsa balitz, alferrekoak lirateke arrazoinamenduak eta argumentuak, egia eta ezagutza deusez hutsa izaki. Bigarrenik, uste dudala onartuko duela norbera sutan dagoela amets egitearen eta egiazki sutan egotearen artean dagoen alde nabarmena. Baina bere eszeptizismoan amore eman nahi ez badu eta nik egiazki sutan egotea deitzen

dudana ametsa besterik ez dela defendatzen badu eta, beraz, ezin dugula jakin sua gugandik at errealki existitzen denik, nik esanen diot aski dela ziurtasunez onartzea plazerra eta oinazea zenbait objektuk guran eragindakoak direla, berauen existentzia geure sentimenez hauteman zein hautematen dugula amets egin; eta ziurtasun hau gure zoriona edo zorigaitza bezain handia dela, bi hauetatik haraindi existentzia eta ezagutzaren inondiko interesik ez daukagularik. Horrela, bada, uste dut aurreko ezagutza mota biei beste hau gehi diezaiekegula, kanpoko objektu partikularren existentziaren ezagutza, objektuotatik ideiak egiazki sartzen zaizkigula hautemanez eta kontziente izanez erdietsitakoa; eta, beraz, hiru ezagutza maila onar ditzakegu: *intui-ziozkoa*, *frogapenezkoa* eta *sentimenezkoa*, eta eurotako bakoitzean nabaritasun eta ziurtasun maila diferenteak daude.

15. *Ezagutza ez da beti argia, bertan dauden ideiak hala izan da ere*

Baina gure ezagutza ideietan oinarritzen denez eta ideiez diharduenek, ez al da hemendik ateratzen gure ideiei egokitzen zaiela eta gure ideiak argi eta bereiziak direnean, edo ilun eta nahasiak, gure ezagutza ere hala izanen dela? Honi erantzuten diot ezetz, zeren gure ezagutza ideia biren arteko adostasun edo desadostasunaren pertzepzioan datzalarik, beronen argitasun edo iluntasuna pertzepzio horren argitasun edo iluntasunean datza, eta ez ideien euren argitasun edo iluntasunean. Adibidez, batek triangeluaren angeluen eta bi angelu zuzenekiko berdintasunaren ideiak inongo matematikaririk onenak bezain argi ukan ditzake, baina aldi berean bi ideion arteko *adostasunaren* pertzepzio guztiz iluna ukan dezake, eta, beraz, gai horri buruzko ezagutza oso iluna. Baina ilunak direlako edo beste edozein arrazoiengatik nahasiak diren ideiek ezin dute ezagutza argi edo bereizirik sortarazi, zeren ideiak nahasiak diren hein berean gogamenak ez du argi hautematerik ados datozen ala ez. Edo gauza bera, baina oker adituei bitarte gutxiago utzita adierazteko: darabiltzan hitzei ideia zehazturik lotzen ez dionak hitz horiekin ezin izanen du eratu egiazkoak direla ziur dakien ideiei buruzko proposiziorik.

III. KAPITULUA

Giza ezagutzaren hedapenaz

1. *Gure ezagutzaren hedadura: Lehenik, ez da gure ideiez haraindikoa.*

Ezagutza, esan dugun bezala, gure ideien adostasun edo desadostasunaren pertzepzioan datzalarik, hemendik ateratzen da, lehenik, gure ideiez haraindi ezin dugula ezagutzarik ukan.

2. *Bigarrenik, ez da hedatzen gure ideien adostasun edo desadostasunaren pertzepzioaz haraindi.*

Bigarrenik, ezin dugula ezagutzarik izan adostasun edo desadostasunaz dugun *pertzepzioaz* haraindi. Pertzepzio hau izan daiteke: 1. *Intuizioz*, hau da, ideia biren bitarteko gabeko erkaketaz. 2. *Arrazoinamenduz*, ideia biren arteko adostasun edo desadostasuna aztertuz beste ideia batzuen esku hartzez. 3. *Sentipenez*, gauza partikularren existentzia hautemanez.

3. *Gure ezagutza intuitiboa ez da hedatzen gure ideia guztien erlazio guztietara.*

Hemendik ondorioz ateratzen da, hirugarrenik, ezin dugula eduki gure ideia guztietara eta berauotaz jakin nahi genukeen guztira hedatuko den *ezagutza intuitiborik*, bata bestearen ondoan jarriz edo bitartekorik gabe elkarrekin alderatuz ezin ditugulako aztertu eta hauteman elkarrekin dituzten erlazio guztiak. Horrela oinarri berdinarekin

gainean eta lerro paraleloen artean marraturiko triangelu kamuts baten eta zorrotz baten ideiak edukita, ezagutza intuitiboz hauteman ahal izanen dut bata ez dela bestea, baina mota horretako ezagutzaz ezin izanen dut jakin berdinak diren ala ez, zeren berdintasunarekiko adostasuna edo desadostasuna ezin ezagut baitaiteke bitartekorik gabeko aldaraketaz. Irudiari dagokionez triangelu biok duten aldeak beraien atalak bata bestearen gainean bitartekorik gabe aplikatzeko gaitasunik gabe uzten ditu; horregatik, irudiok neurtzeko beharrezko gertatzen da beste kantitate batzuk esku hartzen jartzea, eta hori frogapena edo ezagutza arrazionala da.

4. *Gure frogapenezko ezagutza ere ez da horretaraino hedatzen.*

Laugarrenik, aurrean azterturikotik segitzen da gure *ezagutza arrazionalak* ezin duela hartu gure ideien hedadura guztia, zeren aztertu nahi genituzkeen bi ideia ezberdinen artean ezin izanen baikenituzke beti aurkitu ezagutza intuitiboz dedukzioaren atal guztietan bata bestearekin lot genitzakeen beste bitarteko ideia batzuk, eta hau falta zaigun guztian, labur geratuko gara ezagutzen eta frogapenean.

5. *Sentimenezko ezagutza aurreko biak baino hedapen laburra -gokoa da.*

Bosgarrenik, *sentimenezko ezagutza* gure sentimenei aktualki eragiten dieten gauzen existentziaz harago ez doanez, aurreko biak baino askoz ere hedapen laburragokoa da.

6. *Gure ezagutza, beraz, gure ideiak baino mugatuagoa da.*

Seigarrenik, hemen esandako guztitik argi ateratzen da *gure ezagutzaren hedapena*, gauzen errealitatearen aldean ez ezik, gure ideien hedapenaren aldean ere labur geratzen dela. Eta, nahiz eta ezagutza geure ideietan amaitzen zaigun, halatan amaitu ere, non ezin dituen gainditu ez hedapenean ez perfekzioan, eta muga hauek oso hertsia diren arren izaki guztien hedapenaren aldean eta oso laburrak gure sentimenak bezalako pertzepzio bide urri eta traketsen menpe ez dauden beste adimen kreatuengan arrazoiz imajina dezakegun ezagutzaren aldean, hala ere abantaila handia litzateke guretzat gure ezagutzak gure ideiak adinako hedapena balu eta *ditugun ideiei buruz* hainbeste duda eta galdekizunik ez balego, uste baitut horientzako soluziorik ez dugula munduan aurkituko ez orain ez sekula. Ez dut, hala

ere, zalantzarik egiten, giza ezagutza, gure naturak egun duen egoeran eta osaeran, orain arte inoiz iritsi den baino urrunago eraman daitekeela, baldin gizakiak zintzotasun eta barne askatasun osoz egia aurkitzeko bideak hobetzen saiatuko balira, faltsukeria apaintzeko eta mantentzeko berenganaturiko sistema edo hartutako bidea eta betebeharrereko hitzarmenak defendatzeko jartzen duten arreta eta trebezia beraz. Hala eta guztiz giza perfekzioari irainik egin gabe esan neza-keela uste dut gure ezagumenak ezin izanen duela sekula bereganatu dauzkagun ideiei buruz jakin nahi genukeen guztia, ez eta eurei buruz sor litezkeen zailtasun eta galdekizun guztiak garbitu ere. Esate baterako, *karratuaren*, *zirkuluaren* eta *berdintasunaren* ideiak baditugu, ukan, baina ez gara agian sekula gai izanen karratu baten berdina den zirkulua aurkitzeko eta ea existitzen den ziurtasunez jakiteko. Baditugu *materiaren* eta *pentsamenduaren* ideiak, baina agian inoiz ez gara gai izanen izaki guztiz material batek pentsatzen duen ala ez jakiteko, zeren geure ideiak kontenplatze hutzez, errebelazioaren laguntzarik gabe, hain ezinezko baitugu jakitea Ahalguztidunak behar bezala eraturiko materi multzo bati hautemateko eta *pentsatzeko ahala* eman diezaiokeela, nola ezinezko dugun jakitea horrela moldaturiko materiari *pentsatzeko gai den beste substantzia bat* itsats diezaiokeela. Zeren gure nozioen arabera, ez dago gure ulerkuntzatik urrunago Jainkoak, nahi izanez gero, guk materiaz dugun ideiari pentsatzeko ahalmena erantsi diezaiokeela bururatzea, pentsatzeko ahalmenari beste substantzia bat gehi diezaiokeela bururatzea baino, guk ez baitakigu ez pentsatzea zertan datzan, ez eta izaki ahalguztidun horrek zein substantzi mota aurkitu duen egoki ahal hori emateko, ezein sorkaritan, Sortzailearen ontasunagatik eta borondateagatik izan ezik, aurkitu ezin daitekeen ahala. Ez dut kontraesanik kausitzen Jainkoa den izaki pentsatzaile, eternal eta ahalguztidunak, hala nahi izanez gero, materia sentigaitzezko multzo batzuk, egoki deritzon moduan moldatuak, pertzepzio, sentipen eta pentsamendu mailaren batez hornitu ahal izatean, nahiz eta, nire ustez frogatu dudan moduan, (IV. Lib., X. kap., 14., e.a.) kontraesana izan uste izatea materia (izae-raz nabarmenki sentimen eta pentsamendu gabekoa izanik) lehen Izaki pentsatzaile Betiereko hura izan daitekeela. Izan ere, nola ziurta dezake inork pertzepzio batzuk, hala nola plazerra eta oinazea, gorputzetan eurretan ez daudela, era jakin batean mugituak eta aldatuak izan eta gero gorputzaren atalen higiduraren ondorioz substantzia

inmaterial batean aurkitzen diren moduan? Gorputza, guk hartaz daki-gunetik, beste gorputz bat kolpatzeko eta ukitzeko gai da soilik, eta higidurak, gure ideien bidez beronetaz uler genezakeenetik, ezin du higidura besterik sortarazi; beraz, gorputzak plazerra edo oinazea sortarazten duela diogunean, edota kolore baten edo soinu baten ideia, badirudi arrazoia baztertu eta gure ideiez haraindi gabiltzala, egintza hori gure Sortzailearen kapritxo hutsari leporatuz. Eta Jainkoak higidurari, higidurak eragin litzakeenik imajinatu ere ezin genitzakeen ondorioak erantsi dizkionez gero, zein arrazoi ukan dezakegu erabakitzeko hark ezin agindu izan duela ondorio horiek guk horretarako ezgai dela uste dugun subjektu batean sortaraz daitezen, materiaren higidurak nola eragin diezaiokeen jakiterik ez dugun gorputz batean bezala? Ez diot hau, inola ere, arimaren inmaterialtasunarekiko sinestea murrizteko. Hemen ez naiz ari probabilitateaz, ezagutzaz baizik; eta uste dut, ezagutzarako behar den frogarik ez daukagun bitartean, iritziak maisu eran ez adieraztea filosofiaren apaltasunari dagokiola, eta, horrez gain, oso mesedagarri dugula gure ezagumena noraino hel daitekeen bereiztea, zeren, orain dugun egoera ikusmen egoera ez denez, fedea eta probabilitatea aski izan behar ditugu auzi askotan; eta orain auzigai darabilgun arimaren inmaterialtasunari dagokionez, gure ahalmenak ziurtasun frogagarri iritsi ezin badira, ez dugu harri-durarik agertu behar. Moraltasunaren eta erlijioaren xede nagusi guztiak behar bezainbatean ziurtaturik daude, arimaren inmaterialtasunaren frogarik gabe ere, agerian dagoenez gero gu hasieratik izaki adi-mendun eta sentikor izatera erakarri gintuenak eta egoera horretan hainbat urtetan iraunarazi gaituenak ahal eta nahi izanen duela guk geroke bizitzan antzeko sentiberatasunaz gozatzea eta gizakientzat bizitza honetako jokamoldearen arabera erabaki duen saria han eskuratzeko gai egitea. Eta horregatik arimaren inmaterialtasunaren alde edo aurka lerratu beharra ez da euren iritzi propioen alde jende sutsuegiek munduari sinestarazi nahi dioten bezain larria. Hauetariko batzuek, beren pentsamenduak materialen murgilduegi ukanik, ez diote ezagutzen existentziarik materialazkoa ez denari, eta besteek materiaren ahal naturaletan *pentsamendurik* aurkitzen ez dutelarik eta behin eta berriz auzia arta beraz aztertu ondoren, ziurtasunez ondorio hauxe ateratzen dute, alegia, Izaki Ahalguztidunak berak ezin dizkiola pertzepzioa eta pentsamendua eman solidotasuna duen substantziari. Kontuan duenak zein zaila den gure pentsamenduan sentipena materia heda-

tuarekin uztartzea, edo existentzia hedadurarik bat ere ez duen zerbaitekin, lekutan dagoela aitortu beharko du bere arima zer den ziurtasunez jakitetik. Gure ezagumenaren irispidetik kanpo jarri beharreko puntua deritzot honi, eta hipotesi bakoitzaren alde korapilotsu eta ilunak askatasunez aztertzeiko askatasuna hartzen duenak nekez egiaztatuko du bere arrazoimena gauza denik bere arimaren materialtasunaren alde ala kontrako ebatzia hartzeko. Izan ere, arima nolanahi kontsideraturik ere, behin *hedadurarik gabeko substantzia* bezala, behin *materia hedatu pentsatzaile* bezala, bata zein bestea bururatzeko zailtasunak, pentsamenduan bata duenean besteaz pentsatzera eramanez du. Gizaki batzuek hartzen duten jokabide funtsik gabekoa da hau, ikusten dutelarik gauzak ulertezinak direla ikuspegi batetik begiratu-ta, itsu-itsuan aurkakora pasatzen baitira, hau bestea bezain ulertezina izan arren aurreiritzirik gabeko adimenarentzat. Honek gure ezagumenaren ahultasuna eta urritasuna ez ezik, horrelako argudioen arrakasta eskasa ere agerian jartzeko balio du; geure ikuspuntuetatik ateratako argudio hauek gai dira guri sinestarazteko ezin dugula ziurtasunik kausitu auziaren alde batean, baina aurkako iritzira bultzatuz ez digute ezertan laguntzen egiaren bilaketan, iritzi hau ere, aztertu ondoren, zailtasun berdinez gainezka aurkituko baitugu. Zeren zein ziurtasun, zein abantaila atera dezake inork iritzi batean topatzen dituen itxurazko absurdukeriak eta beretzat gaindiezinak diren zailtasunak ekidin eta babes bila aurkakora pasatzetik, hau ere era berean azalezina eta bere ulermenetik urrundua den zerbaitetan oinarriturik dagoenean? Eztabaidaezina da pentsatzen duen *zerbait* dugula geure baitan; haren izaeraz ditugun zalantzek eurek berresten dute zerbait horren existentzia, nahiz eta zer *motatako* izakia den jakin gabe gertaezarekin konformatu beharra daukagun; eta honetan eszeptikoa izatea alferrekoa da, kasu gehienetan arrazoigabea den moduan zerbaiten existentzia ukatzea, zerbait horren natura ulertzerik ez dugulako. Zeren jakin nahi nuke zein substantzia den, gure adimena nahasten ez duen zerbait ez daukana. Gauzen izaera eta barne osaera ikusi eta eza-gutzen dituzten beste espiritu batzuek nolako aldea ez ote digute aterako guri ezagumenean? Eta honi ulerkuntza zabalagoa gehitzen badiogu, espiritu horiek begirada batean ideia askoren arteko lotura eta adostasuna ikusteko gai egiten dituen eta guk banan-banan eta astiro egindako urratsez, iluntasunean haztamuka luzaro eta hurrengo-a ediren aurretik aurrekoa ahanztiz ibili ondoren, nekez aurkitzen

ditugun bitarteko frogak berehala eskaintzen dizkiena, antzeman ahal izanzen diogu ikusmen azkarrago eta sarkorragoa eta ezagutza-esparru zabalagoa duten goragoko lerruneko espirituek duten zorionari. Baina gure gaira etorrita, esan behar dut gure ezagumena ez dagoela dauz-kagun eta ezagumenaren aztergai ditugun ideien urritasun eta akatsek bakarrik mugaturik, baina hauek ere mugatzen dute, noraino hedatzen den aztertuz oraintxe ikusiko dugun moduan.

7. Noraino iristen den gure ezagutza.

Ditugun ideiei buruz egiten ditugun baieztapen edo ezeztape-nak, lehenago oro har iradoki dudan moduan, lau mota hauexetara bil daitezke: identitate, koexistentzia, erlazio eta existentzia errealer-a. Orain horietako bakoitzean gure ezagumena noraino hedatzen den aztertuko dut.

8. Lehenik, ideien identitateaz eta dibertsitateaz dugun ezagu-tza gure ideiak bezain urrun iristen da.

Lehenik, identitateari eta dibertsitateari dagokienez gure ideien adostasun edo desadostasunaren iturri direnez, gure ezagutza intuiti-boa gure ideiak bezain urrun hedatzen da; eta ezin daiteke izan ideia-rik gogamenean, honek orduantxe bertan hauteman gaberik ideia hori den huraxe dela eta beste edozeinetatik ezberdina.

9. Bigarrenik, ideien koexistentziari buruz dugun ezagutza ez da urrun hedatzen.

Bigarrenik, bigarren motari gagozkiolarik, hau da, gure ideiek *koexistentziari* dagokionez duten adostasun edo desadostasunari buruz, gure ezagutza oso laburra da, nahiz eta horrexetan datzan substantziei buruzko gure ezagutzaren zati handien eta inportanteen-a. Izan ere substantzien espezieei buruz ditugun ideiak ez dira ideia bakunen bildumak besterik, subjektu batean elkartuta batera koexis-titzen direnak. Esate baterako, garraz dugun ideia hauxe da: gorputz bero bat, argitsua eta gora egiten duena; urreaz duguna: gorputz astu-na maila bateraino, horia, xaflakorra eta fundigarria; garra eta urrea diren substantzia ezberdinen izen biok aipaturiko ideiak edo euron antzekoak ordezkatzan dituzte gizakien gogamenetan. Horiei edo beste edozein substantzi motari buruz ezer gehiago jakin nahi dugu-nean galdetzen edo bilatzen duguna hauxe da, zein beste koalitate edo ahal dute edo ez dute substantzia horiek? Eta hau, ideia koplexu

hori osatzen duten ideia bakunekin batera *beste* zein koexistitzen diren jakitea besterik ez da.

10. *Substantzietako ideia bakunen arteko lotura gehienbat eze - zaguna delako.*

Hau, zientziaren atalik garrantzitzuen eta gogoangarrienetako bat izanda ere, atal oso kaxkarra eta hutsaren hurrengoa da. Eta honen arrazoa da substantziei buruzko gure ideiak osatzen dituzten ideia bakunak ez daukatela beren naturan inolako lotura edo bateraezintasun *ageriko eta beharrezkorik* ea hauekin koexistitzen den jakin nahi genukeen beste ezein ideia bakunekin.

11. *Bereziki gorputzen bigarren koalitateen ideien artekoa.*

Substantziez ditugun ideia konplexuen osagai eta substantziei buruz dugun ezagutzarako erabilienak diren ideiak bigarren koalitateenak dira. Hauek, azaldu dugun modura, euren zati nimiño eta sentigaitzen lehen koalitateen menpe daudelarik, eta hauen pean ez bada, gure ulerkuntzatik are urrunago dagoen zerbaiten menpe, ezin deza-kegu jakin zeintzu diren elkarrekin beharrezko lotura edo bateraezintasuna dutenak. Zeren zein sustraitik ernetzen diren ez dakigunez, urreez dugun ideia konplexua osatzen duten koalitateen iturri eta moldatzaila diren euren zatien tamaina, irudi eta ehundura zein den ez dakigunez, ezin dezaugu jakin urrearen atal sentigaitzen osaera bere-rik zein beste koalitate sortzen den edo harekin bateraezina den.

12. *Ezin dugulako deskubritu bigarren eta lehen koalitateen artean dagoen beharrezko lotura.*

Gorputzen atal sentigaitzen lehen koalitateez, bigarren koalitate guztiak euren menpe dituztenez daukagun ezjakiteaz gain, bada beste ezjakite mota bat, aurrekoa baino konpongaitzagoa, ideia dife-renteek subjektu ezberdinengan duten koexistentzia edo *ez-koexis-te-entzia* («inco-existence») —horrela esaterik badut— ziur ezagutzetik oraindik urrunago jartzen gaituena eta honexetan datzana, alegia, edo-zein bigarren koalitatearen eta berau menpe duten lehen koalitateen arteko lotura deskubritu ezinean.

13. *Ez dugu haien lehen koalitateen ezagutza perfekturik.*

Gorputz baten tamaina, irudi eta higidurak beste gorputz baten tamaina, irudi eta higiduran aldaketa eragitea ez dago gure ikusmoldeaz haraindi. Badirudi gorputz baten atalak beste baten sar-

ketaz bata bestetik banantzeak, bulkadaren eraginez atsedenetik higidurara aldatzeak, eta horrelakoak, *loturaren bat* dutela elkarrekin. Eta gorputzen lehen koalitateak ezagutuko bagenitu, ukan ahal izanen genuke arrazoirik horiek elkarrengan duten eragiketa horiez asko gehiago jakitea espero izateko; baina gure gogamena gorputzen lehen koalitate horien eta gudan eragiten dituzten sentipenen arteko loturarik aurkitzeko gai ez denez, ezin dugu inoiz finkatu ezein bigarren koalitateren *ondorioztatze* edo *koexistentziaren* arau ziur eta dudaezinik, sentipenok bitartekorik gabe eragiten dituzten atal ikus-tezin horien tamaina, irudi edo higidura deskubritu ahal bagenitu ere. Hain urrun gaude jakitetik atalen *zein* irudi, tamaina edo higidurak eragiten duen kolore horia, zapore gozoa edo soinu zolia, non inola ere ezin dugun bururatu edozein partikularen tamaina, irudi edo higidurak nola eragin dezakeen gure baitan *edozein* kolore, zapore edo soinuren ideia. Ezin daiteke burura inolako loturarik bataren eta bestearen artean.

14. *Eta substantzietan alferrik ari gara hauteman gabeko koalitateen ezagutza ziur eta unibertsalaren bila.*

Alferrik ahaleginduko gara, beraz, gure ideien bidez (ezagutza ziur eta unibertsalaren bide bakarra berau) deskubritzen beste zein ideia aurkitu behar diren beti *gure* ideia konplexuarenekin batera; izan ere, ez dugu ezagutzen haien koalitateak menpe dituzten atal nimiñoen osaera erreala eta, hori ezagututa ere, ezin izanen genuke deskubritu haien eta edozein bigarren koalitateren arteko beharrezko lotura, hau egitea beharrezko delarik haien beharrezko koexistentzia ziur ezagutu aurretik. Era horretan, dena dela edozein substantzi espeziez dugun ideia konplexua, ideia horrek barruan dituen ideietatik nekez erabaki ahal izanen dugu ziurtasunez beste edozein koalitateren beharrezko koexistentzia. Gure ezagutza ikerketa horietan guztietan ez da gure esperientzia baino asko harago hedatzen. Lehen koalitate gutxi batzuek, egia da, bata bestearekiko beharrezko menpekotasuna eta ageriko lotura dute, irudiak nahitaez suposatzen baitu hedadura, eta bulkadaz higidura hartzeak edo komunikatzeak, solidotasuna. Baina hauek eta agian beste batzuek ere menpekotasun hori baduten arren, hain gutxi dira bata bestearekin ageriko lotura dutenak, non substantzietan elkarturik aurkitu beharreko koalitate oso gutxiren koexistentzia deskubri genezakeen intuizioz zein froga-

penez; eta sentimenen laguntza baino ez daukagu dituzten koalitaterik ezagutzeko. Izan ere, bere ideietan elkarren arteko menpekotasun eta lotura nabaririk ez daukan edozein subjektutan koexistitzen diren koalitaterik guztietarik ezin dugu jakin ziurtasunez horietako bi koexistitzen direla, sentimenen bidez esperientziak horren berri ematen digun heinean izan ezik. Horrela, urte zati batean kolore horia ikusi eta, frogatu ondoren, pisua, xaflakortasuna, fundigarritasuna eta finkotasuna bertan elkartuta aurkitu arren, hala ere, ideia horietako batek ere ez duenez menpekotasun nabaririk edo beharrezko loturarik beste ezeinekin, ezin dezakegu ziur jakin koalitaterik horietako laudauden tokian bosgarrena ere hantxe izanen dela, hau oso gertagarria izan arren, probabilitaterik handienak ere ez baitu ziurtasuna bermatzen, eta hau egiazko ezagutzarako behar-beharrezko da. Izan ere, koexistentzia, hautematen den heinean baino ezin ezagut daiteke, eta ezin daiteke hauteman honelaxe izan ezik, alegia, subjektu partikularretan gure sentimenek oharrematez eta subjektu orokorretan ideien euren beharrezko loturaz.

15. *Koexistitzeko aurkakotzaz («repugnancy») gehiago dakigu.*

Koexistitzeko bateraezintasun edo aurkakotzari dagokionez, badakigu edozein subjektuk lehen koalitaterik mota bakoitzetik aldi berean koalitaterik bat baino ezin duela eduki; esate baterako, hedadura, irudi, atal, kopuru, higidura bakoitzak mota bereko beste guztiak kanpo uzten ditu. Gauza bera esan daiteke sentimen bakoitzari bereziki dagozkion ideia sentigarri guztiei buruz ere, zeren mota bakoitzetik subjektu batean dagoen edozeinek kanpo uzten baititu mota horretako guztiak; adibidez, ezin subjektuk ukan dezake aldi berean bi usain edo bi kolore. Honi buruz baten batek esan lezake, ez al ditu opaloak edo *lignumnephriticum* infusioak bi kolore aldi berean? Eta honi nik erantzuten diot horrelako gorputzek, leku ezberdinetan kokaturiko begietarako, erakuts ditzaketela kolore ezberdinak, eta beste hau ere esan nuke, leku ezberdinetan kokaturiko begietarako, objektuaren atal diferenteak direla argi partikulak islatzen dituztenak, eta objektuaren atal bera ez denez, ez dela subjektu berbera aldi berean hori eta urdin («azure») ageri dena. Izan ere, hain ezinezko da edozein gorputzen partikula berberak argi izpiak aldi berean ezberdinkin aldarazi edo islatzea, nola den aldi berean irudi edo ehundura ezberdinak edukitzea.

16. *Gorputzetan koexistitzen diren ahalez dugun ezagutza hedapen txikikoa da.*

Baina substantziek beste gorputzen koalitateak aldatzeko dituzten ahalei dagokienez —substantziei buruzko gure ikerketaren zati handi bat eta gure ezagutzaren adar ez erdeinagarria berau— zalantzak ditut horiei buruz ezagutza esperientzia baino harago hel-tzen ote zaigun edo gure ustez haien esentzia osatzen duten ideieta-ko baten bidez ahal horietako gehienak deskubritzeko eta subjektu-ren batean badaudela ziur egoteko gaitasunik ote daukagun. Zeren gorputzen ahal aktibo eta pasiboak eta euren eragiteko erak guk inondik ere deskubritu ezin ditugun atalen ehundura eta higiduran dautzanez, kasu oso gutxitan baino ezin hauteman dezakegu mota horretako gauzez dugun ideia konplexua osatzen duten ideiaren bate-kiko duten menpekotasuna edo aurkakotza. Hipotesi korpuskularra aipatu dut nik gorputzen koalitate horien azalpen ulergarriena eskaintzen duela uste delako, eta beldur naiz giza adimena, den ahu-lean, gauza ez ote den hipotesi horren ordez beste aurkikuntza osoa-go eta argiago bat eskaintzeko gorputz mota ezberdinetan elkarturik ikusi beharreko ahalen beharrezko lotura eta koexistentziari buruz. Hau behintzat egia da, zeinahi delarik ere hipotesirik argien eta egiazkoena (hori erabakitzea ez dagokit niri), alegia, substantzia gor-puzdunez dugun ezagutzak aurrerapauso oso txikia eginen duela, gizakioi gorputzen zein koalitate eta ahalek duten elkarrekin beha-rrezko lotura edo aurkakotza ikusarazten ez diguten bitartean; eta hau filosofiaren egungo egoeran maila oso txikian baino ez dakigu, eta ez dakit, ditugun ahalmenez, arazo honen ezagutza orokorrean (ez diot esperientzia partikularrean) aurrerago egiteko gai izanen garen. Horrelakoetan esperientziaren menpe egon beharra daukagu, eta desiragarria litzateke honetan hobera egitea. Egiazta dezakeguna da gizakiek eskuzabaltasunez eskainitako ahaleginek ezagutza natu-ralean hainbat aurrerakada ekarri dutela. Eta beste batzuk, bereziki suaren filosofoak, gure ezagutzaren atal hau hobetzen omen dabil-tzanak, euren buruei filosofo esaten diotenek izan behar luketen bezain zehatzak izan balira euren behaketetan eta haiek bezain zin-tzoak beren txostenetan, guk orain inguruan ditugun gorputzak hobeto ezagutuko genituzke eta berauen ahal eta eragiketen ezagutza askoz sakonagoa ukanen genuke.

17. *Espirituetan koexistitzen diren ahalez are laburragoa da gure ezagutza.*

Gorputzen ahal eta eragiketei dagokienez hain galduta bagabiltza, uste dut erraz aterako dugula ilunbe sakonagoan gaudela espirituei dagokienez. Izan ere, hauei buruz ez daukagu berezko ideiarik, geure espirituarengandik ateratakoak salbu, arimak gure baitan dituen eragiketei buruz hausnarketa eginez gure behaketaren mugabarruan sartzen diren heinean. Baina gorago bidebatez egindako iradokizun batean utzi dut irakurleak pentsatzeko zein apala den gure gorputzean bizi den espirituak daukan maila, beste hainbat eta beharbada kontatu ezin ahala izaki ezberdin hornituagoen artean, eta noraino geratzen den labur kerubinen eta serafinen eta gu baino goragoko beste mila motatako espirituen koalitate eta perfekzioen aldean.

18. *Hirugarrenik, ideia abstraktuen arteko erlazioez dugun ezagutza noraino hedatzen den ezin da erraz esan.*

Hirugarrenik, gure hirugarren ezagutza motari buruz, hau da, beste edozein erlaziotan gure ideien arteko adostasun edo desadostasunari dagokionez, hau gure ezagutzaren esparrurik zabalena denez, zaila da zehazten noraino heda daitekeen, zeren, ezagutzaren atal honetan egiten diren aurrerapenak koexistentzia aintzat hartzen ez zaien ideien erlazioek eta joerek erakuts ditzaketen bitarteko ideiak aurkitzeko daukagun zuhurtziaren menpe daudenez, zail da esatea noiz gauden aurkikuntza horien amaieran eta noiz dituen arrazoimenak frogak aurkitzeko edo oso urruneko ideien arteko adostuna edo desadostasuna aztertzeko eduki ditzakeen laguntza guztiak. Algebrarik ez dakitenek ezin susma dezakete zeinen gauza harrigarriak egin daitezkeen arlo honetan zientzia horren bitartez; eta ez da erraz zehazten zer nolako aurrerapen berriak eta baliabideak aurki ditzakeen oraindik gizakiaren gogamen zorrotzak. Honako hau bederen bai uste dudala, alegia, *kantitatearen* inguruko ideiak ez direla frogagarri eta ezagugarri diren bakarrak eta kontenplazioaren beste atal batzuek, agian baliagarriagoek, ziurtasuna eskainiko liguketela, baldin ahalegin horiei bizioak, grinak eta interes menperatzaileak kontrajarriko ez balitzaizkie edo hauek ahalegin horiek mehatxatuko ez balituzte.

Morala frogag arria da.

Oso argiak direlarik guretzat honako bi ideia hauek, alegia, gu egin gaituen eta bere menpe gauzkan ahal, ontasun eta jakituriaz amai-

gabea den Izaki goren baten ideia, eta geure buruaz adimendun sorkari arrazional gisa dugun ideia, uste dut, behar bezala aztertu eta ondorioak ateraz gero, hain oinarri sendoa eskainiko liguketela gure egin-behar eta jardun-arauentzat, non *moralak zientzia frogagarririk* artean jarri ahal izanen genukeen. Horregatik, ez dut dudarik egiten proposizio berenez nabarieratik bidezkoaren eta ez bidezkoaren neurriak atera litezkeela matematikan erabili ohi diren bezalako ondorio beharrezko eta eztabaidagaitzen bidez, moralean matematikan bezalako indiferentziaz eta arretaz jokatzuz gero. Beste *modu* batzuen *erlazioa* kopuru eta irudiarena bezainbesteko ziurtasunez hauteman daiteke, eta ez dut ikusten haiek ere zergatik ez diren izan behar frogagarriak, euren adostasuna edo desadostasuna aztertu eta bilatzeko metodo egokiak erabiliz gero. «Jabegorik ez dagoenean ez dago injustiziarik» proposizioa Euklidesen edozein frogapen bezain egiazkoa da; izan ere, jabeagoaren ideia gauza baterako eskubidea izanez eta injustizia deritzanaren ideia eskubide baten inbasioa edo hausketa, ideia horiek horrelaxe zehazten direlarik eta izen horiexek ezartzen zaizkielarik, bistakoa da nik proposizio hori egia dela, triangeluak bi zuzen osatzen duten hiru angelu dituela dakidan ziurtasun beraz jakin dezakedala. Berdin gertatzen da beste proposizio honekin: «ezein gobernuak ez du ontzat ematen erabateko askatasuna». Gobernuaren ideia, izan ere, gizartea arau edo lege zehatz batzuen pean antolatzea da, eta hauek betetzea eskatzen du, eta erabateko askatasuna norberak nahi duen guztia egiteko askatasuna da eta, horregatik, aipaturiko proposizioaren egiaz matematikako edoizeinenaz bezain ziur egon naiteke.

19. *Gauza bik eraman dute jendea ideiak moralak frogaezinak direla pentsatzera: ideiek irudikapen sentigarriarako egokiak ez izateak eta duten konplexutasunak.*

Jendea kantitatearen inguruko ideiei abantaila ematera eta frogagarriagoak eta ziurtasunerako gaiagoak direla pentsatzera eraman duena haxe da: Lehenik, edozein hitz edo soinuak baino beraiekiko egokitasun handiago eta hurbilagoa duten ikur sentigarriak irudikatu ahal izatea. Paperean marrazturiko diagramak gogameneko ideien kopiak dira, hitzek beren esanahian duten ziurgabetasunetik libre daudenak. Lerroz egindako angelu, zirkulu edo karratua argi ageri zaigu bistara eta ez dago oker ulertzerik; aldaezin dirau eta nahierara kontsidera eta azter daiteke eta frogapena berrikusi egin daiteke, eta bero-

nen atal ezberdinak behin eta berriz araka, ideietan inolako aldaketarik gertatzeko beldurrik gabe. Ideia moraletan ezin daiteke hori egin; ez daukagu haien antzeko ikur sentigarriarik geure begien aurrean jaritzeko. Hitzak baino ez ditugu hauek adierazteko eta, idatzitakoan lehen bezala jarraitzen badute ere, ordezkatzan dituzten ideiak aldatu egin daitezke gizaki beraren baitan eta oso gutxitan gertatzen da pertsona ezberdinentzat ezberdinak ez izatea. Bigarrenik, etikari zailtasun handia dakarkion beste gauza bat, moraleko ideiak eskuarki matematikan kontsideratu ohi diren irudiak baino asko koplexuagoak izatea da. Eta hemendik bi eragozpen hauexek datoz. Lehenik, haien izenen esanahiak ziurtasun askoz gutxiagoak dira, ez baita hain erraza ordezkatzan duten ideia bakunen bilduma zehatzari buruz bat etortzea; eta eurentzat komunikazioan beti eta pentsamenduan sarri erabilitako zeinuak ez darama beti bere baitan ideia bera. Honek desordena, nahaspila eta errakuntza dakar, honako kasu honetan ekarriko lukeen bezalakoa, alegia, norbaitek heptagono bati buruz zerbait frogatu nahian horretarako erabilitako diagraman angelu bat gutxiago jarriko balu edo, konturatu gabe, irudia izenak adierazi baino angelu bat gehiagorekin eginen balu edo frogapenaz lehenengoz pentsatzearan buruan irudi hori edukiz gero gertatuko litzatekeen modukoa. Hau maiz gertatzen da eta ez da erraz ekiditen ideia moral oso konplexuetan, izen bera atxikiz angelu bat, hau da, ideia bakun bat kendu edo ipintzen baita oraindik ere izen beraz izendatzen den ideia konplexu horretan. Bigarrenik, ideia moral horien konplexutasunetik beste eragozpen bat dator, alegia, gogamenak konbinazio zehatz horiek ezin dituela gogoratu, horietako zenbaitek elkarrekiko dituzten joerak eta egokitzenak, adostasun eta desadostasunak aztertze behar den adinako zehaztasunez eta perfekzioz, bereziki bi ideia urrunduren adostasuna edo desadostasuna frogatzeko dedukzio luzez eta beste ideia konplexu batzuen bidez juzgatu beharra dagoenean. Matematikariek diagrama eta irudietan aurkitzen duten laguntza oso agerikoa da, marraztu ondoren aldaezin iraute baitute, oroimenak, bestela, zailtasun handiak izanen lituzkeelarik sarri irudiok hain zehazki gogoratzeko, gogamena haien atalak urratsez urrats aztertzen ari denean beraien egokitzen ezberdinak aurkitzeko. Eta nahiz eta kantitate handiekin eragiketak egitean behin dela batuketan, biderketan edo banaketan, atal bakoitza bere ideiak aurrean ikusi eta beraien adostasun edo desadostasuna kontsideratzen duen gogamena-

ren progresioa baino ez den arren, eta problemaren ebazpena gogamenak argi hautematen dituen atal partikularrek osatzen duten guztizkoaren emaitza besterik ez izan arren, hala ere, atal ezberdinak esanahi guztiz ezaguneko ikurrez eta oroimenari alde egin diotenean ere bistan dirauten ikurrez adierazi ezean, ia ezinezko litzateke hainbeste ideia ezberdin gogamenean edukitzea kontuaren atal batzuk nahasi edo burutik ihes egin gabe eta, beraz, beroni buruzko arrazoinamendu guztiak alferreko bihurtu gabe. Kasu horretan zifrek edo ikurrek ez dute laguntzen kopuru bi edo gehiagoren arteko adostasuna, berdintasuna edo proportzioa hautematen; hori gogamenak kopuruen euren ideiez duen intuizioaren bidez bakarrik bereganatzen du. Baina zenbaki-karaktereak badira, izan, laguntzak, oroimenak frogapena egiteko darabiltzagun ideia ezberdinak erregistra eta gordetzeko ahalbidea ukan dezan, eta berauen bidez gizakiak jakin lezake noraino heldu den bere ezagutza intuitiboa kopuru partikular horietako batzuen azterketan, horrela nahasmendurik gabe oraindik ezezagun zaionerantz jotzeko eta, azkenean, begien aurrean batera edukitzeko bere pertzepzio eta arrazoinamendu guztien emaitza.

20. *Idea moralak frogatzen ditugun zultusmentzako konponbideak.*

Frogagarriak ez direla pentsatzera garamatzaten ideia moralen desabantailen zati bat definizio bidez konpon liteke neurri handian, termino bakoitzak ordezkaturiko duen ideia bakuneri bilduma zehaztuz eta gero termino bakoitza zehazturiko bilduma horixe adierazteko erabiliz beti eta aldagabe. Gainera ez da gauza erraza auresatea zein metodo iradoki dezakeen algebrak edo antzeko edozein bitartekok beste eragozpenak saihesteko. Ziur nago gizakiek, baldin egia moralak bilatzeko matematikako metodo eta indiferentzia beraz jokatuko balute, aurkituko luketela pentsatu ohi den baino lotura hertsia goa dutela elkarrekin eta uste ohi den baino ondorio beharrezkoagoz ateratzen direla gure ideia argi eta bereizietatik, baita egiazko frogapenetik uste baino hurbilago daudela ere. Baina ez dugu honelakorik espero behar, estimu, aberastasun edo botere egarriak gizakiak modako iritziak onartzera daramatzan bitartean, eta ondoren argudioak aurkitzerari haien edertasuna onartutzat emateko batzuetan, edo gaintetik bernizatu eta desitxura estaltzeko besteetan. Ezer ere ez da ederrago begiarrentzat, gogamenarentzat egia den baino, eta ez dago ezer gezurra

baino itxusiagorik eta adimenarekin bateraezinagorik. Zeren nahiz eta asko diren emazte ez hain ederrarekin nahikoa atseginez batzen diren gizonak, nork dauka aski ausardia faltsukeriarekin ezkondu dela eta bere bihotzean gezurra bezalako gauza itsusia onartu duela jendaurrean aitortzeko? Eta talde ezberdinek menpean eduki ditzaketen guztiak beren iritziak, faltsuak ala egiazkoak diren aztertzeko betarik eman gabe, irenstera behartzen dituzten bitartean, egari mundu guztian joko garbirako bideak itxiz eta gizakiei egia bilatzeko askatasuna ukatuz, zein aurrerakuntza edo zein argi berri espero daiteke moralaren inguruko zientzietan? Uztarripean dagoen gizateriaren atal horrek argiaren ordeiz, munduko lekuri gehienetan, Egiptoko esklabotzarekin Egiptoko ilunbeak espero beharko lituzke, Jaunak gizakiaren gogamenean jarritako kandelargiak, gizakiaren ahalmen orok sekula erabat itzaliko ez duen argiak hantxe iraunen ez balu.

21. *Laugarrenik, ziurtasunez ezagutzen ditugun hiru existentzia errealez.*

Laugarrenik, laugarren ezagutza motari, hau da, *gauzen existentzia egiazko erreala*ren ezagutzari dagokionez, geure existentziaren intuiziozko («intuitive»), ezagutza eta Jainkoaren existentziaren frogapenezko («demonstrative») ezagutza dauzkagu, eta *gainerako gauzen* ezagutza sentimenezkoa baino ez, gure sentimenetan presente dauden objektuez haraindi hedatzen ez dena.

22. *Gure ezjakitea handia da.*

Gure ezagutza hain urria izanik azaldu dudan moduan, gure gogamenaren oraingo egoera aztertzeko agian argia ekarriko liguke beronen alderdi ilunari erreparatu eta gure *ezjakinez* jabetzeak; izan ere, hau gure ezagutza baino infinituki handiagoa delarik, eztabaidak baretzeko eta ezagutza baliagarrian aurrera egiteko asko balioko liguke —gure ideiak argi eta bereiziak zein neurritan diren konturatuz— geure pentsamenduak adimenaren irispidean dauden gauzetara mugatzeak eta ilunbezko amildegira jauzi ez egiteak (ezer ikusteko begirik ez ezer hautemateko ahalmenik edukiko ez genukeen tokira) gure ulerkuntzatik harago ezer ez dagoen ustean oinarrituta. Baina horrelako ikusmoldearen zorakeriaz jabetzeko ez dago harago jo beharrik. Ezer dakienak badaki, lehenbizi jakin ere, bere ezjakintasuna ikusteko ez daukala adibideen bila ibili beharrik. Aurkezten zaizkigun gauzarik xaloen eta bistakoenak alderdi ilunak dituzte, ikusmen zorro-

tzenak barrendu ezin dituenak. Gizaki pentsalarien adimenik argien eta luzeenak materi partikula bakoitzaren aurrean nahasi-nahasi egin da eta noraezean aurkitzen dira. *Geure ezjakinaren kausak* aztertzen ditugunean ez dugu hau hain harrigarritzat joko. Esan denetik aterako denez, hauexek dira kausa horiek: 1) Ideien falta; 2) dauzkagun ideien artean loturarik aurkitu ezina; 3) ideien jarraipenik eta azterketarik eza.

23. *Lehenik, gure ezjakitearen kausa bat ideien falta da: 1. beste kreatura batzuek, unibertsoaren beste alde batzuetan eduki ditzaketen ideia bakunen falta.*

Badira gauza batzuk, eta ez gutxi, ideiarik ezagatik ezagutzen ez ditugunak. Lehenik, dauzkagun ideia bakunak, azaldu dugun moduan, gorpuzdun objektuetatik sentipenez hartzen ditugunetara eta geure gogamenaren eragiketetatik hausnargai ditugunez hartzen ditugunetara mugatzen dira. Baina ez da lan zaila izaneren euren irispidea gauza guztien neurria dela pentsatzeko bezain eroak ez direnei sines-taraztea zenbateraino diren desproporzionatuak bide urri eta estu horiek. Ez dugu zehazterik unibertsoa beste alde batzuetako izakiek beste zein ideia bakun eduki ditzaketen, gureak baino sentimen eta ahalmen gehiagoz edo hobez edo gureetatik bestelako baliatuz. Baina horiek ez direla existitzen esatea edo pentsatzea bururatu ezin ditugulako, ez da argudio hobea, ikusmenik ez kolorerik ez dagoela esanen lukeen itsuarena baino, berak koloreen ideiarik edukitzeko modurik ez daukalako, ez eta ikusmenaren inguruko noziorik eratze-ko ere. Gure baitan daukagun ezjakiteak eta iluntasunak ez du oztopatzen ez mugatzen besteen ezagutza, satorraren itsutasunak arranoa-ren ikusmen zorrotza mugatzen duen baino gehiago. Gauza guztien Sortzailearen ahal, jakituria eta ontasun infinituak gogoan dituenak aurkituko du arrazoirik pentsatzeko ahalmen handi horiek guztiak ez zirela erabili berak hain xume, ziztrin eta ahalge deritzon gizakia bezalako izaki bat egiteko, probabilitate osoz izaki adimendun guztien artean gizakia azken mailetakoa batean kokatzen baita. Ez dakigu, beraz, beste izaki espezie batzuek zer nolako ahalmenak dituzten gauzen izaeran eta barne osaeran barrentzeko, ez eta gauza horiez zer nolako ideia gureetatik oso bestelakoak ukan ditzaketen ere. Baina badakigu, ziur jakin ere, dauzkagunez gain gauzen beste ikuspegi batzuk behar ditugula gauzetan aurkikuntza hobek egiteko. Eta aise

konbentzi gaitzek gure ahalmenez erdiets ditzakegun ideiak ez dutela proportziorik gauzekin eurekin, gainerako guztiaren oinarria den substantziaren beraren ideia positibo, argi eta berezia estalduta gertzen zaigunez gero. Baina mota honetako ideien falta gure ezjakitearen atal eta aldi berean kausa denez, ez dago zer den deskribatzerik. Hauxe bakarrik esan dezakedala uste dut ziurtasunez, alegia, mundu intelektuala eta sentigarria erabat antzekoak direla, honexetan hara, ikusten dugun bata zein bestearen zatia ez daukala proportziorik ikusten ez dugun zatiarekin, eta gure begiez edo pentsamenduez atze-man genezakeena ez dela puntutxo bat baino, gainerakoaren aldean deus ere ez delarik.

24. Gizakiek eduki ditzaketen baina ez dituzten ideia bakunen falta: I. oso urrun daudelako.

Bigarrenik, ezjakitearen beste kausa nagusi bat eduki dezakegun ideiarik ez edukitzea da. Gure ahalmenek eman ezin dizkiguten ideien faltak gu baino perfektuagoak diren beste izaki batzuek, arrazoiz uste izan dezakegun bezala, badituzten ikuspegietarako atea erabat ixten digun bezala, halaxe orain aipatzen ari garen ideien gabeziak ezagut ditzakegun gauzatzat ditugunen ezjakinean uzten gaitu. Guk badugu bolumenaren, irudiaren eta higiduraren ideia. Baina oro har gorputzen lehen koalitete horien ideiarik gabe ez gauden arren, unibertsoko gorputzik gehien bolumen, irudi eta higidura partikularra zein den ez dakigunez, egunero ikusten ditugun efektuak eragiteko behar diren ahal, eragile eta jardunbideak zer nolakoak diren ere ez dakigu. Hauek estalduta daude guretzat, batzuetan urrunegi daudelako, besteetan txikiegiak direlako. Mundu ezagun eta ikusgarriaren atalen distantzia izugarriak eta gure ezagupidean dagoena munduaren zatitxo bat baino ez dela uste izateko ditugun arrazoiak gogoan baditugu, orduan ezjakintasunezko leize izugarri bat deskubrituko dugu. Zer dira gorpuzdun izakien marko miragarri guztia osatzen duten materi masa izugarrien forma («forme») partikularrak? Noraino hedatzen dira? Zer nolako higidura daukate eta higidura horrek nola jarraitzen du eta komunikatzen da? Zer nolako eragina dute elkarrengan? Hauetan eta beste galdekizun askotan galtzen dira gure pentsamenduak horiek kontenplazten hasi baino ez. Baina gure kontenplazioak leku estuagora ekarri eta bazter honetara, hau da, gure eguzkiaren sistemara eta ikus-teko moduan berari jira eta bira dabiltzan materi masa handienetara

mugatzen baditugu, zenbat eta zenbat landare, animalia eta gorpuzdun eta adimendun izaki, gure lur zatitxo honetakoetatik amaigabeki ezberdinak, ez ote daude ziurraski beste planetetan, lur honetara mugaturik gauden bitartean duten irudiari ez atalei dagokienez inola ere ezagutu ezin ditugunak, ez baitago bitarteko naturalik sentipenez edo hausnar-ketaz haien ideia ziurrak gure gogamenera ekartzeko? Gure ezagutzaren iturri bi horien irispidetik at daude gauza horiek guztiak. Bizileku horien barruan zer nolako altzariak eta biztanleak dauden susmatzerik ere ez dugu, are gutxiago haien ideia argi eta bereiziak edukitzerik.

25. *Oso txikiak direlako.*

Unibertsoko gorputz maila ezberdinen zati handi batek, edo hobeto esanda, zatirik handienak gure ezagutzari urruntasunagatik ihes egiten badio, beste batzuk beren txikitasunagatik ezkututzen zaizkigu. *Korpuskulu sentigaitz* hauek, materiaren atal aktiboak eta naturaren tresna nagusiak direnez eta haien bigarren koaliteteak ez ezik, haien eragiketa natural gehienak ere berauen menpe daudenez, haien lehen koalitetei buruz guk ideia argi eta bereizi zehatzak ez edukitzeak erremediorik gabeko ezjakintasunean uzten gaitu haiei buruz jakin nahi genukeenari dagokionez. Ez dut zalantzarik egiten ezen, bi gorputzen osagai diren atal nimiñoen irudia, tamaina, ehundura eta higidura deskubritzerik bagenu, frogarik gabe ezagutu ahal izanen genukeela bion elkarrekiko zenbait eragiketa, hain zuzen karratuaren eta triangeluaren propietateak ezagutzen ditugun modura. Arabarbaren, astaperrexilaren, opio-belarraren eta gizaki baten partikulen eragipen mekanikoak zehatz-mehatz ezagutuko bagenitu, erlojugileak erlojuarenak ezagutzen dituen bezala, hots, eragiketak burutzeko moduan, edo erlojuaren gurpiltxoak karraskatuz beraien irudia aldatzen duen limarenak ezagutzen dituen bezala, orduan alde zuretik esan ahal izanen genuke arabarbak purgatu, astaperrexilak hil eta opioak lokartarazi egingen duela gizakia, erlojugileak esan ahal izanen lukeen moduan balantzinaren gainean kokaturiko paper zatitxoak ez diola erlojuari ibiltzen utziko handik kendu arte, edo makinaren atal txiki bat limaz karraskatuz gero, makinak erabat galduko lukeela higidura eta erlojua ez litzatekeela sekula gehiago ibiliko. Zilarra *aqua fortisetan* eta urrea *aqua regiatan*, eta ez alderantziz, disolbatzen direla jakitea ez litzateke zailago izanen, sarrailegintzat beste hau uler- tzea baino, alegia, giltza baten eraginak zergatik irekiko duen sarraila

eta beste batenak ez. Baina gorputzen partikula nimiñoak atzemateko eta haien eragipen mekanikoen ideiak geuganatzeko behar bezain sentimen zorrotzik ez daukagun bitartean eta, haien propietateak eta jardunbideak ez ezagutzearekin konformatu beharko dugu eta frogatu xuki batzuk ematen digutena beste ziurtasunik ezin izanen dugu haie-taz ukan. Baina ezin dezakegu ziur jakin hurrengoan ere gauza bera gertatuko dela. Gorputz naturalei buruz egia unibertsalak ezagutzea oztopatzen digu honek eta, horregatik, arrazoimenak honetan egita-tezko arazo partikularrez pitin bat harago baino ez garamatza.

26. Hemendik ateratzen da gorputzen zientzia ez dagoela gure irispidetan.

Eta horregatik aiherrak uste izatera, giza jeinuak gauza fisi-koetan filosofia esperimental eta erabilgarria urrunera eramane bade-zake ere, ezagutza *zientifikoa*, hala ere, ez ote dugun beti gure irispi-detik at ukanen, hurbilen eta kontrolpean ditugun gauzei buruz ere ez baitugu ideia perfektu eta egokirik. Izenen pean espezieka sailkaturik ditugunez eta ongien ezagutu uste ditugunez ere ideia oso inperfektu eta ezosoak ditugu. Gure sentimene azterketapean dauden mota ezberdinetako gorputzez ukan ditzakegu agian ideia bereziak, baina ideia egokirik haie-tako bakar batez ere ez daukagula susmatzen dut. Eta lehenengo aipaturikoe erabilera eta diskurso arrun-terako balio diezaguketen arren, bigarrena falta zaigun bitartean, ez gara ezagutza zientifikorako gai eta ez gara inoiz gauza izanen haiei buruz egia oro-kor, irakasgarri eta eztaba daezinik deskubritzeko. *Ziurtasuna* eta *fro-gapena* («demonstration») gai horietan pretenditu ezin ditugun gau-zak dira. Kolore, irudi, usain eta zaporearen eta beste koalitate senti-garri batzuen bidez salbiaz eta astaperrexilaz, zirkuluaz eta triange-luaz bezain ideia argi eta bereziak ditugu. Baina ez landare bi horien ez horiek aplikatuko genizkiekeen beste gorputz batzuen atal nimiño partikularren lehen koalitateen ideiarik ez daukagunez, ezin dezakegu esane zer nolako efektuak eraginen lituzketen; ez eta, efektu horiek ikusita, nola eragiten dituzten susmatu ere, eta are gutxiago ezagutu. Horrela, ikusmenera eta irispidera ditugun gorputzen zati nimiñoen mekaniko partikularren ideiarik ez daukagunez, ez dakigu zein diren haien osaera, ahalak eta eragiketak; eta urrunagoko gorputzez are gutxiago dakigu, haien kanpoko forma ez haien osaerako atal sentiga-rri eta handiagoak ere ez baititugu ezagutzen.

27. *Are gutxia go gorputzik gabeko espirituen zientziarik.*

Hasieratik jarriko digu honek agerian nolako desproporzioa dagoen gure ezagutzaren eta izaki materialen euren hedapen osoaren artean, eta honi gehitzen badiogu izan daitezkeen eta ziurraski izan ere badiren eta gure ezagumenetik oraindik aldenduago dauden espirituen kopuru infinitua, haietaz ezer ere ez baitakigu eta haien lerrun eta mota ezberdinei buruz ere inolako ideiarik eratzerik ez baitugu, kon-turatuko gara orduan ezjakintasunaren kausa honek barrenda ezinez-ko ilunbean estaltzen digula ia adimenezko mundu osoa, mundu mate-rialia baino benetan ere asko ederragoa dena. Zeren, espirituari buruz hausnarketaz geugandik eta hortik ahal dugun ondoen espiritu guztien Aita eta horien, gure eta gauza guztien Egile eternal eta lokabea den espiritutik ateratzen ditugun ideia gutxi eta, horrela esaterik badut, azaleko batzuk kenduta, beste espiritu batzuen existentziaren berririk ere ez daukagu, errebelazioz ez bada. Mota orotako aingeruak gure aurkikuntza naturalez haraindi daude; eta adimen horiez guztiez, ziu-rraski gorpuzdun substantziak baino ordena gehigotan banatzen dire-nez, gure ahalmen naturalek ez digute inolako berri ziurrik ematen. Gizaki orok dauzka arrazoiak ziur egoteko, gizakien hitz eta ekin-tzengatik, bere baitan bezala beste gizakiengan ere gogamena eta izaki pentsatzailea dagoela; eta bere gogamenaren ezagutzak pentsatzen duen inori ere ez dio uzten Jainkoa badela jakin gabe bizitzen. Baina gu eta Jainko handiaren artean izaki espiritualen mailak daudela jaki-tera nor irits daiteke bere ikerketaz eta gaitasunez? Eta askoz gutxia-go eduki genitzake bata bestearen eta gure antzeko edo ezberdin egi-ten dituzten espiritu horien izaera, kondizio, egoera, ahal eta osaera ezberdinen ideia bereizirik. Eta, beraz, haien espezie eta propietate diferenteei dagokienez erabat ezjakinak gara.

28. *Beste kausa bat: dauzakgun ideien artean dagoen lotura deskubritu ezina.*

Bigarrenik, ikusi dugu ideien faltagatik unibertsoan dauden izaki substantzialen zein zati txikia dagoen gure ezagumenera zaba-lik. Honen ondoren, ezjakitearen beste kausa bat, ez garrantzi txikia-gokoa, dauzkagun ideien arteko lotura deskubritu ezina da. Zeren ezin hau daukagun guztian, ezagutza unibertsal eta ziurrerako erabat ezgai gara eta, aurreko kasuan bezala, behaketara eta esperimenta-ziora mugaturik geratzen gara, eta ez dago esan beharrik hauek zein

estu eta mugatuak diren eta ezagutza orokorretik zein urun dauden. Gure ezjakinaren kausa honen adibide gutxi batzuk jarriko ditut eta horretan utziko dut. Bistakoa da gure inguruko gorputz ezberdinen bolumen, irudi, eta higidurak gudan sentipen ezberdinak eragiten dituztela, hala nola, koloreen, soinuen, gustuen, usainen, plazerraren, oinazearen eta horrelakoen sentipenak. Gorputzen eragipen mekaniko hauek gure baitan sortarazten dituzten ideiekin inongo harremanik ez dutenez (ezin daiteke burura inondiko loturarik inolako gorputzen bulkadaren eta gure gogamenean egiaztatzen dugun ezein kolore edo usainen pertzepzioaren artean), ezin dugu ukan gure esperientziar haraindiko eragiketa horien ezagutza bereizirik, eta berauoi buruz ezin dugu arrazoitu gure ulermena erabat gainditzen duen Eragile infinituki Jakintsu batek eragindako efektutzat hartuz baino. Eta nola gogamenean ditugun bigarren koalitate sentigarrien ideiak gorpuzdun kausetatik deduzitu ezin ditugun, ez eta inondiko egokitzapenik edo loturarik aurkitu ere euren eta eurok (esperientziak erakusten digunez) eragiten dituzten lehen koalitateen artean, halaxe, beste alde batetik, gure gogamenak gure gorputzarengan eragitea ere bururaezina da. Pentsamenduak gorputzean higidura nola eragin dezakeen ulertzea gure ideien izaeratik hain urrun dago, nola gorputzak gogamenean pentsamendua zelan eragin dezakeen ulertzea. Eta gauzetan euretan pentsamenduz sakontzeak inoiz ere ezin izanen liguke erakutsi hori horrela denik, esperientziak horretaz konbentzitu ez bagintu. Hauek eta antzekoak gauzen ohiko abioan lotura iraunkor eta erregularra badute ere, lotura hau ideietan euretan deskubitzerik ez dagoenez, elkarrekiko inolako menpekotasunik ez daukatela baitirudi, haien lotura ezin diogu egotzi Eragile orojakitunaren hautazko erabakia ez den beste ezeri, beronek egin baitu horiek horrelakoak izatea eta horrela jardutea, gure adimen ahulen irispidetik erabat goragoko eran.

29. *Adibideak.*

Gure ideietako batzuetan zenbait erlazio, joera eta lotura hain nabarmenki sartuta daude ideien euren izaeran, non ezin dugun bururatu ezein ahaleki bana ditzakeenik haietatik. Eta horixetan bakarrik gara ezagutza ziur eta unibertsala edukitzeko gai. Horrela, triangelu angeluzuzen baten ideiak nahitaez darama bere baitan bere angeluen berdintasuna bi angelu zuzenekiko. Eta ezin burura deza-

kegu ideia biren arteko erlazio hau, lotura hau, aldagarria izan daitekeenik edo horrelaxe egitea aukeratu zuen baina bestela egin zezakeen ahal arbitrario baten menpe dagoenik. Baina materiaren atalen koherentzia eta jarraipena, bulkada eta higiduraren bidez gure baitan koloreen, soinuen eta abarren sentipenak sortzea, eta, are gehiago, higiduraren jatorrizko arauak eta komunikazioa ere daukagun ezein ideiarekin loturarik deskubritu ezin izateko modukoak direnez gero, nahitaez egotzi behar dizkiogu guztiak Arkitekto Jakintsuaren borondate arbitrarioari eta nahikariari. Uste dut ez dudala hemen hillen piztuera, lur globo honek etorkizunean izanen duen egoera eta horrelako beste gauza batzuk aipatu beharrik, gutariko bakoitzak ongi baitaki horiek erabat daudela eragile aske baten erabakiaren menpe. Gure esperientzia heltzen deneino beti erregularitasunez jarduten ikusten ditugun gauzak, ezarri zaizkien baina hala ere guk ezagutzen ez ditugun legeen arabera dihardutela ondoriozta dezakegu halatan, non, kausek aldagabe lan egiten duten arren eta efektuak iraunkorki darizkien arren, hala ere gure ideietan haien lotura eta menpekotasunak deskubritzerik ez dagonez, ezin baitugu haien ezagutza esperimentalak besterik eduki. Hemendik erraz hauteman daiteke nolako ilunbean gauden murgilduta eta zer gutxi jakiteko gai garen izakiaz eta existitzen diren gauzez. Eta horregatik ez diogu geure ezagumenari irainik egiten geure baitan apaltasunez pentsatzen dugunean unibertsoaren izaera osoa eta bertan dauden gauza guztiak ulertzetik hain urrun gaudela, non ez garen geure inguruan ditugun eta gure osagai diren gorputzen ezagutza filosofikorik edukitzeko gai ere, ezin baitugu eduki haien bigarren koalitateen, ahalen eta eragiketen ziurtasun unibertsalik. Egunero sumatzen dituzte gure sentimenek hainbat efektu, euron sentimenezko ezagutza badaukagularik; baina haien sorreraren kausak, modua eta ziurtasuna, arestian aipaturiko bi arrazoiengatik, inondik ere ezagutu gabe geratzearekin konformatu beharra daukagu. Honetan esperientzia partikularrak egitatezko arazo moduan ematen digun informazioz haraindi heltzerik ez dugu, hemendik analogiaz susmatu beharra daukagularik antzeko gorputzek nolako efektuak eraginen dituzten ziurraski beste esperimentu batzuen pean. Baina gorputz naturalen (espiritualak ez aipatzearren) *zentzia perfektuari* dagokionez, horretarako gai izatetik hain urrun gaudela uste dut, non alferreko lantzat daukadan horrelako ikerketari ekitea.

30. *Ezjakitearen hirugarren zergatia: geure ideiei jarraipenik ez egitea.*

Hirugarrenik, ideia egokiak ditugunean eta euren artean lotura ziur eta aurkigarria dagoenean ere, sarritan ezjakinak gara dauzkagun edo eduki ditzakegun ideia horiei jarraipenik egiten ez diegulako eta elkarrekin zein adostasun edo desadostasun joera duten erakuts diezaguket bitarteko ideiak aurkitzen ez ditugulako. Eta horrela askori ezezagunak zaizkie matematikako egiak, ez euren ahalmenetan akatsen bat edo gauzetan euretan inongo zalantzarik ukan dutelako, baizik ideia horiek bereganatzen, aztertzen eta egokiro alderatzen behar bezala saiatu ez direlako. Gure ideiei jarraipena egin eta euren erlazioak eta elkarrekiko adostasun eta desadostasunak aurkitzeko oztoporik handiena hitzen erabilera okerra izan dugu nire ustez. Ezinezko da gizakiek ideien euren adostasuna eta desadostasuna zinez bilatzea eta ziurtasunez aurkitzea, euren pentsamenduak esanahi dudazkoa eta ziurtasunik gabekoa daukaten soinuenguruan inon finkatu gabe badabilta edo berauetan kokatzen badira. Matematikariek beren pentsamenduetan hitzei kasurik egin gabe jotzen dutelarik eta gogamenaren aurrean soinuak barik aztertu nahi dituzten ideiak eurak eduki ohi dituztelarik, saihestu egiten dituzte hein handian ezagutzaren beste arlo batzuetan gizakien aurrerapena hainbeste oztopatu duten ezbaia, ulertu ezina eta nahasmendua. Zeren esanahi zehazgabe eta zalantzarrik hitzei lotzen zaizkien bitartean, ez dira gai euren iritzietan egia gezurretik, ziurra gertagarritik, tinkoa lokatik bereizteko. Eta horixe izan delarik letragizon gehienek patua edo zorigaiztoa, ezagutza erre-alaren ondarean eragindako hazkuntza oso txikia izan da, eskolen listak eztabaidatsuekin eta mundua bete duten idazkiekin konparatuta; liburugizonen bitartean, hitzen oihan izugarrian galduta, ez dute jakin non zeuden ez euren aurkikuntzak noraino heltzen ziren, ez eta euren ezagutza edo ondare orokorrean zer falta zuten ere. Gizakiek mundu materialeko euren aurkikuntzetan adimenezko munduarekikoetan egin duten moduan jokatu izan balute, eta dudazko adiera duten mintzamoldeen nahaspilean oro mordoilatu balute, nabigazioko eta bidaietako liburu asko gehiago, lurraldeei eta itsasaldiei buruzko istorio eta teoria asko gehiago idatzi eta eztabaidatu ziratekeen; egindako untiak eta bidalitako untziak ez ziguket inongo haraindik bideen berririk ekarri eta antipodak, euren existentzia defenditzea heresia

zela aldarrikatu zenean bezain ezezagunak lirateke gaur egun. Baina hitzei buruz eta berauez ukan ohi dugun erabilera oker edo axolaga-beaz behar bezainbeste mintzatu naizenez, ez dut hemen horretaz beste ezer gehituko.

31. *Giza ezagutzaren hedapena unibertsaltasunari buruz.*

Honaino, existitzen diren izaki espezie ezberdinei buruz dugun ezagutza noraino hedatzen den aztertu dugu. Bada ezagutzaren beste hedapen mota bat ere, unibertsaltasunari buruzkoa alegia, aintzat hartzea merezi duena. Honetan gure ezagutzak ideien izaerari darraio. Adostasuna edo desadostasuna hautematen diegun ideiak abstraktuak badira, gure ezagutza unibertsala da. Izan ere, ideia orokor horiei buruz ezagutzen duguna, esentzia hori, hau da, ideia abstraktu hori aurkitzen diogun gauza partikular bakoitzari buruz ere egia izanen da; eta ideia horiei buruz behin dakiguna beti eta beti izanen da egia. Horrela, bada, ezagutza orokor guztia geure gogamenean soilik bilatu eta idoro behar dugu eta geure ideien azterketak, ez beste ezerk, emanen digu ezagutza hori. Gauzen esentziei (hau da, ideia abstraktuei) dagozkien egiak betierekoak dira eta esentzia horien kontenplazioz soilik aurkitu behar dira, gauzen existentzia esperientziaz bakarrik ezagutu behar den bezalaxe. Baina honetaz, ezagutza orokor eta erreala jorratuko dudan kapituluan esanen dudanez gehiago, oro har gure ezagutzaren unibertsaltasunari buruz aski bedi hemen esandakoa.

IV. KAPITULUA

Ezagutzaren errealitateaz

1. *Objekzioa: ezagutza gure ideietan baldin badatza irrealak edo kimerikoa izan daiteke.*

Ez dut zalantzarik egiten nire irakurleak honez gero pentsatu duela aspaldi honetan gaztelua airean eraikitzen ibili naizela eta niri honelakoren bat esateko gogoak ukanen duela: «Aizu, baina zertarako zalaparta hori guztia? Ezagutza, diozu, gure ideien adostasun edo desadostasunaren pertzepzioa baino ez da, baina nork daki zein diren ideia horiek? Ba al da ezer giza garunaren irudikapenak baino desarauzkoagorik? Ba al da inon ameskeriarik gabeko bururik? Eta gizaki neurtu eta zuhurrik bada, zer alde dago, zure arauetatik, honen ezagutzaren eta inon den gizakirik irudimentsu nabarmenenaren ezagutzaren artean? Biek dituzte euren ideiak eta biek hautematen dituzte berauen arteko adostasun eta desadostasunak. Horien artean alderik egotekotan, abantaila buruberoaren aldera egonen da, ideia gehiago eta bizia-goak dituzke eta. Zure arauetatik, beraz, ezagutza gehiago ere baduke. Egia bada ezagutza oro gure geure ideien adostasun edo desadostasunean soilik datzala, gizaki gartsuaren ikuspegietan bezainbeste ziurtasun dago zuhurraren arrazoinamenduetan. Ez dio axola nolakoak diren gauzak; gizakiak bere irudikapenen adostasuna hautematea eta zentzuz mintzatzea besterik ez dauka guztia egia eta gauza ziurra izan dadin. Airean eraikitako gaztelu horiek Euklidesen frogapenak bezelakoxe

egiaz egindako gotorlekuak izanen dira. Horretara, harpia zentauroa ez dela esatea, karratua zirkulua ez dela esatea bezain egia ziurra dateke. Baina zertarako balio dio *gizakiaren beraren irudikapenen* («imagination») ezagutza polit honek gauzen errealitatearen bila dabilen gizakiari? Gizakien fantasiek ez dute inolako garrantzirik, gauzen ezagutza da balioztatu behar den gauza bakarra; gure arrazoinamenduei balioa eta gizaki baten ezagutzari beste batenarekiko lehentasuna ematen diona, ezagutza hori ametsei eta fantasiei buruzkoa barik gauzei buruzkoa izatea da, gauzok errealitatean diren moduan».

2. Erantzuna: ez horrela ideiak gauzekin ados datozenean.

Horri nik erantzuten diot esanez ezen, gure ideien ezagutza berauetan geratzen bada eta harago ez badoa zerbait gehiago erdietsi nahi denean, gure pentsamendurik serioenak ere ez diratekeela zoro baten ametsak baino asko baliagarriagoak; eta berauen gainean erakitako egia ez dirateke ametsetan gauzak argi ikusi eta gauza horiek segurtasun handiaz adierazten dituen gizakiaren diskurtsoak baino pisu handiagoakoak. Baina espero dut bukatu aurretik argi utziko dudala geure ideien ezagutzaren bidezko ziurtasun hau irudikapen («imagination») soiletik apur bat harago doala eta uste dut argi gertuko dela gizakiak egia orokorrean duen ziurtasun guztia beste ezertan ez datzala.

3. Baina zein izanen da adostasun honen irizpidea.

Begi-bistakoa da gogamenak gauzak bitartekorik gabe barik, gauza horiez duen ideien esku-hartzez ezagutzen dituela. Gure ezagutza, beraz, gure ideien eta gauzen errealitatearen artean bat etortzea dagoen heinean bakarrik da erreala. Baina zein ote da honetarako irizpidea? Nola jakinen du gogamenak, bere ideiak baino ez baititu hautematen, ideia horiek gauzekin eurekin ados datozela? Honek zailtasunik ez duela falta dirudien arren, uste dut bi ideia motari buruz ziur esan dezakegula gauzekin ados datozela.

4. Lehenik, ideia bakun guztiak errealki bat datoz gauzekin.

Lehenik, aurreneko ideia mota ideia bakunena da; hauek, azaldu den moduan, gogamenak inola ere eratu ezin dituenetz, gogamenean era naturalean eragina duten gauzek, gure Egilearen Jakituriak eta Nahimenak xedaturiko eta beroriei egokituriko pertzepzioak eragiten dituztenek sortaraziak izan behar dute ezinbestez. Hemendik ateratzen

da ideia bakunak ez direla gure irudimenaren fikzioak, gure baitan eragin erreala duten gugandik kanpoko gauzen ekoizpen natural eta erregularrak baizik. Ideia horiek, horrela, eraman zezaten nahi izan den eta geure egoerak behar duen adostasun guztia daramate, zeren gudan eragiteko gai diren itxuren pean irudikatzen («represent») baitizkigute gauzak, itxuron bidez substantzia partikularren espezieak bereizteko, substantziok zein egoeratan dauden somatzeko eta, ondorioz, geure premietarako hartu eta erabiltzeko gaitzen garelarik. Horrela, zurtasunaren edo mingostasunaren ideiak, gorputz batek berau gogamenean dagoen moduan eragiteko duen ahalari erantzunez, eduki ahal duen edo behar lukeen bat etortze guztia dauka gugandik kanpoko gauzeekin. Eta gure ideia bakunen eta gauzen existentziaren arteko bat etortze hori nahikoa da ezagutza errealerako.

5. Ideia konplexu guztiak, substantzienak salbu, ideia berorien arketipoak dira.

Bigarrenik, gure ideia konplexu guztiak, *substantzienak salbu*, gogamenak berak original moduan harturiko ezeren kopiak izateko asmorik gabe eta ezeren existentziarekin lotu gabe egindako arketipoak direnez, ez dute ezinbestez adostasuna behar ezagutza errealerako. Zeren bere burua irudikatzeko («to represent») baino ez den ezer ez daiteke izan ezer oker irudikatzeko gai, ez eta gu gauza bat oker atzematera eramateko ere, gauza horren antzekoa ez delako; eta, substantzienak salbu, horrelakoxeak dira gure ideia konplexu guztiak. Ideia hauek, beste leku batean azaldu dudan moduan, gogamenak, bere aukera librez, naturan duten inondiko loturarik kontutan hartu gabe elkaturiko ideiak dira. Eta, horregatik, mota horretako ideiak eurak hartzen dira arketipotzat, eta gauzak berauokin bat etortzeko gai diren heinean baino ez dira aintzat hartzen. Era horretan, ziur gaude, huts egiterik gabe, ideia hauei buruz eskuratzen dugun ezagutza guztia erreala dela eta gauzetara euretara iristen dela, zeren mota honetako geure pentsamendu, arrazoinamendu eta diskurtso guztietan gauzak gure ideiekin bat datozen heinean baino ez ditugu aintzat hartu nahi; eta, ondorioz, honetan errealtate ziur eta zalantzarik gabekoa atzeman beharra daukagu nahitaez.

6. Hortixek dator ezagutza matematikoaren errealtatea.

Ez dut dudarik egiten erraz onartuko dela egia matematikoez dugun ezagutza, ziurra ez ezik, erreala ere badela, eta ez burmuineko

kimeren ikuspen hutsal eta alferreko hutsa; eta, hala ere, ondo aztertuz gero, ohartuko gara ezagutza hau geure ideien ingurumarian baino ez dabilela. Matematikariak laukizuzenari edo zirkuluari dagozkion egia eta propietateak bere gogameneko ideian daudenez soilik kontsideratzen ditu, zeren baliteke matematikari horrek horiek sekula bere bizitzan ez aurkitu izana matematikoki existitzen, hau da, zehazki egiazkoak izaten. Baina zirkulu bati edo beste ezein irudi matematikori dagozkion egia eta propietateak egiazkoak eta ziurrak dira existitzen diren gauza errealekiko ere, zeren gauza errealak proposizio horietan norberak gogamenean dituen arketipoekin ados datozen heinean baino ez dira hartzen, ez eta nahi ere. Triangelu baten ideian egia al da haren hiru angeluek bi zuzen osatzen dituztela? Egia bada, orduan nonahi errealki existitzen den triangeluari buruz ere egia da hori. Eta beste edozein irudik gogameneko triangeluaren ideari erantzuten ez badio, irudi horri inola ere ez dagokio proposizio hori. Eta horregatik guztiagatik ziur dago ideia horiei buruz duen ezagutza guztia ezagutza erreala dela, zeren, gauzak ideia horiekin ados datozen heinean baino aintzat hartu nahi ez ditunez, ziur daki irudi horiei buruz *existentzia ideal hutsa* dutenean egia dena, materian *existentzia erreala* dutenean ere egia izanen dela, matematikarien kontsiderazioak berberak diren irudiez baitira, irudiok nonahi eta nolanahi existitzen direla ere.

7. *Baita ezagutza moralarena ere*

Eta hortixek dator, orobat, ezagutza morala matematikoa bezain gai izatea ziurtasun erreala erdiesteko. Zeren ziurtasuna gure ideien adostasuna edo desadostasuna hautemeatea besterik ez denez, eta frogapena adostasun hori beste ideia edo ararteko batzuen bidez hautemeatea besterik ez, gure ideia moralak, matematikoak bezalaxe, eurak direnez arketipoak, eurretan aurkitzen dugun adostasun edo desadostasun orok ezagutza erreala sortaraziko du, irudi matematikotik gertatzen den bezalaxe.

8. *Existentziarik ez da behar ezagutza a bstrakua err eal bihurtzeko.*

Ezagutza eta ziurtasuna erdiesteko, ideia zehaztuak eduki beharra daukagu, eta gure ezagutza erreala bihurtzeko, ideia horiek beren arketipoari erantzun behar diote. Eta ez du inor harritu behar nik gure ezagutzaren ziurtasuna geure ideien kontsiderazioan jartzeak

gauzen existentzia errela itxuraz hain gutxi aintzat hartuta, zeren horretaz ongi pentsatu ondoren, aurkituko baita, oker ez banago, egia eta ziurtasuna bilatzea beste ardurarik ez balute bezala agertzen direnen pentsamendu eta eztabaidarik gehienak hartzen dituzten diskurtsoak proposizio orokorrak eta existentzia ezertarako ere aintzat hartzen ez duten nozioak direla. Matematikarien diskurtso guztiek, zirkuluaren karratutasunaz, sekzio konikoez edo matematikako beste edozein arloz, ez daukate zerikusirik irudi horien existentziaz, baina horien frogapenak, haiek gogamenean dituzten ideien menpe daudenak, berberak dira munduan une horretan karratu edo zirkulurik existitu zein ez existitu. Era berean, diskurtso moralen egia eta ziurtasuna gizakien bizitzak edota aztertzen dituzten bertuteak munduan existitzen direnentz albo batera utzita kontsideratzen dira; eta Tulioren betebeharrak ez datoz gutxiago egiarekin bat munduan inortxok ez duela bere bizitza doi-doi moldatzen hark idatzi zuenean bere ideian izan ezik inon existitzen ez zen hark deskribaturiko gizon zintzoaren eredura. Hilketak heriotza merezi duela espekulazioan, hau da, ideian egia baldin bada, hilketaren ideia honekin bat datorren ekintzan ere egia izanen da. Beste ekintza batzuekin, ordea, ez du zerikusirik proposizio honek. Eta gauza bera esan daiteke gizakien gogameneko ideiez beste esentziarik ez duten gainerako gauzen espezie guztiei buruz ere.

9. Eta egiatik eta ziurtasunetik ez dute gutxiago ideia moralek geuk eratuak eta izendatuak direlako.

Baina hemen esanen da, ezagutza morala geure ideien kontentplazioan kokatzen bada eta hauek, beste moduak bezalaxe, geuk eginak badira, a zelako nozio bitxiak dituzkegun justiziaz eta neurritasunaz! Bertuteen eta bizioen a zelako nahasketa, baldin haiei buruz bakoitzak nahi dituen ideiak egiten baditu! Ez dateke nahasmendu edo desordena handiagorik gauzetan euren, ez eta euren buruzko arrazoinamenduetan ere, matematikan frogapeneko nahasmendutik edo irudien propietateetan edo elkarrekiko erlazioetan egindako alderatik etorriko litzatekeena baino, baldin norbaitek lau kantoiko triangelua edo lau angelu zuzeneko trapezioa eginen balu, hau da, hizkera arruntean esanda, irudien izenak aldatu eta matematikariek normalean izen bat ematen diotenari beste izen bat emanen balio. Izan ere, demagun norbaitek bere baitan hiru angeluko irudi bat egiten duela

haietako bat zuzena izanik eta horri *aldekidea* edo *trapezioa* edo beste edozer deitzen diola; irudi horren propietateak eta ideia horri buruzko frogapena triangelu angeluzuzena deitu balio bezalakoxeak izanen dira. Aitor dut izena aldatzeak, hizkuntz propietate faltagatik, zein ideia ordezkatzan duen ez dakiena hasieran despistatu eginen duela, baina irudia marraztu bezain laster, ondorioak eta frogak argi eta garbi geratuko dira. Gauza bera gertatzen da ezagutza moralean ere; demagun gizaki batek beste bati honek bere lan ondratuaz bereganatu duena beronen baimenik gabe kentzearen ideia daukala eta honi *justizia*, nahi badu, deitzen diola. Izen hau beroni gizaki horrek ezarritako ideiarik gabe hartzen duena erra daiteke, berak daukan ideia elkartzen diolako, baina bere ideia hori kendu edo mintzatzaileak gogamenean daukana erantsiz gero, injustizia izena emanda bezalako gauza berberak egokituko zaizkio. Egia da diskurtso moraletan okerreko izenek normalean oker aditze handiagoa ekartzen dutela, izen horiek zuzentzea matematikan bezain erraz gertatzen ez delako, zeren matematikan, behin irudia marraztu eta ikusiz gero, izena alferreko eta ahalge bihurtzen baita. Zeren zertarako behar da zeinua, adierazitako gauza presente eta begien aurrean dagoenean? Baina izen moraletan hau ezin da erraz eta azkar egin, modu horien ideia konplexuen osaketan sartzen diren osagai konposatu guztiengatik. Baina hala eta guztiz ere, ideia hauei hizkuntza horretan eman ohi zaien izena barik beste bat emateak ez du galarazten haien adostasun eta desdostasun ezberdinen ezagutza ziur eta frogagarria («demostrative») edukitzea, baldin matematikan bezala ideia zehatz berei lotzen bagatzaizkie eta elkarrekiko erlazio ezberdinetan jarraitzen badiegu, izenen eraginez bide horretatik irten gabe. Baldin aztergai dugun ideia berau ordezkatzan duen zeinutik banantzen badugu, gure ezagumena berdin doa benetako egia eta ziurtasuna deskubritzera, edozein soinu darabilgularik ere.

10. *Okerreko izenak jartzeak ez du nahasten gure ezagutzaren ziurtasuna.*

Kontuan hartu behar dugun beste gauza bat hauxe da, alegia, Jainkoak edo bestelako legegileren batek izen moralen bat definituz gero, izen horri dagokion espeziearen esentzia finkatzen dutela eta, horregatik ez da segurua izen bori beste zentzu batekin aplikatzea edo erabiltzea; baina beste kasuetan hizkuntz propietate falta baino

ez da izen horiek herrialde hartako erabilera komunaz bestela aplikatzea. Baina honek ere ez du nahasten are goitizenez ere izendaturiko ideiak zehazki aztertu eta alderatuz lortu beharreko ezagutzaren ziurtasuna.

11. *Hirugarrenik, substantziei buruz ditugun ideia konplexuek gugandik kanpo dituzte arketipoak, eta mota horretakoetan ezagutza urria izaten da.*

Hirugarrenik, bada ideia konplexuen beste mota bat ere, gugandik kanpoko arketipoei dagozkienez berauengandik ezberdinak izan daitezkeenak eta, beraz, ideioi buruz dugun ezagutzaren errealtasuna urria da. Substantzien ideiak dira horiek, naturaren lanetatik harturikoak bide diren ideia bakunen bilduman dautzan arren, arketipo horietatik diferenteak izan daitezkeenak, ideia horietan gauzetan eurentan dauden baino ideia gehiago edo ezberdinak egoteatik. Horregatik gerta daiteke eta maiz gertatzen da ideia horiek gauzeekin eurekin doidoi bat ez etortzea.

12. *Gure ideiak arketipo horiekin ados datozen hein berean da erreallaboriei buruz dugun ezagutza.*

Hauxe diot, bada, gauzeekin bat datozelako ezagutza erreala eskain diezaguketen *substantzien* ideiak edukitzeko ez dela nahikoa, *moduetan* bezala, bateraezinak ez diren ideiak batera biltzea, nahiz eta horrela batuta sekula existitu ez; horrela, adibidez, sakrilegioa edo zin-faltsu egitea, egitate horiek existitu aurretik nola ondoren, era berean ideia egiazko eta errealak dira. Baina substantziez ditugun ideiak gugandik at dauden arketipoekin loturiko («referred to») kopiak bide direnez, existitzen den edo existitu den zerbaitetik ateratakoak izan behar dute beti, eta ez da beharrezko gure pentsamenak nahierara bilduriko ideiaez osatuak eta inondiko eredu errealetik atera gabekoak izatea, guk konbinazio horretan inolako bateraezintasunik ez aurkitu arren. Eta honen arrazoia da ezen, gure ideia bakunen iturri den substantzien osaera ezagutzen ez dugunez, ez eta haietako batzuk elkarrekin hertsiki baturik egotearen eta beste batzuk kanpo geratzearen kausa ere, haietako oso gutxiri buruz ziurta dezakegula naturan elkartuta daudela edo ez daudela, esperientziak eta behaketa sentigarriek erakusten digutenetik harago. Beraz, substantziez dugun ezagutza ororen errealtasuna honexetan oinarritzen da: substantziez ditugun ideia konplexu guztiak naturan koexistitzen aurkituriko ideia

bakunez soilik osatuak izatean. Eta horrela gure ideiak egiazko kopiak direnez, nahiz eta ez agian oso zehatzak, substantziez dugun ezagutza errealaren subjektuak dira, ezagutza errealik eduki dezakegun heinean. Ezagutza hau, arestian esan bezala, ez da oso urrun helduko, baina heltzen den neurrian ezagutza errealaren izanena da hala ere. Direnak direla ditugun ideiak, aurkitzen diegun besteekiko adostasuna ere ezagutza izanena da. Ideia horiek abstraktuak badira, ezagutza orokorra izanena da. Baina substantziei buruz errealaren izan dadin, ideiek gauzen existentzia errealetik ateratakoak izan behar dute. Substantziaren batean koexistitzen aurkitu ditugun ideia oro segurtasunez elkar ditza-kegu eta, horrela, substantzien ideia abstraktuak egin. Zeren behin naturan elkarrekin egondakoak elkar daitezke berriro ere.

13. *Substantziei buruzko ikerketetan, geure pentsamenduak izenetara eta izenek zehazturiko espeziatar mugatu barik, ideiak izan behar ditugu kontuan.*

Hau ongi aztertu eta geure pentsamenduak eta ideia abstraktuak izenetara mugatuko ez bagenu, izen ezagunek jada zehazturiko edo, nolabait esatearren, sortarazitako gauzen espezieak baino ez baleude edo egon ezin balira bezala, agian egin ohi dugun baino askatasun handiagoz eta nahasmendu gutxiagoz pentsatuko genuke gauzez. Paradoxa ausarta lirudike agian edota, guztiz ondorio arris- kutsuko faltsukeria akaso, berrogei urtez adimen espiritik erakutsi gabe bizi izan diren *ergelez* gizakiaren eta piztiaren arteko erdibide- an daudela esatea. Baina aurreiritzi hori uste oker batean oinarritzen da, hots, gizaki eta pizti izenek bi espezie ezberdin ordezkatzeko dituzten usteak, espezieok esentzia errealek zehaztuak bide direlarik euren tartean beste espezierik ezin izateraino. Baina izen horiek eta izen bereko gauza guztiak zehazki eta neurri berean partekatzen dituzten esentzia espezi- fiko horiek naturak eginak diren ustea albo batera utziz gero, baldin imajinatuko ez balitz esentzia kopuru zehatz bat dagoela, non gauza guztiak moldetan hustuak izan bailiran eratu diren, orduan aurkituko genuke arrazoimenik gabeko gizaki baten forma, higidura eta bizia gizakiarenetik eta piztiarenetik hain ideia ezberdina dela eta hain espezie ezberdina egiten duela, nola arrazoi- mendun asto baten formaren ideia ezberdina izanena litzatekeen bai gizakiaren eta bai piztiaren formatik, bion tarteko animalia edo bio- tatik ezberdina izanena litzatekeelarik.

14. *Ergela gizakiaren eta piztiaren tartekoa dela ukatuz jarri -
tako objekzioari erantzuna.*

Hona helduta mundu guztia egonen da prest honako galdera hau egiteko: baldin ergelak gizakiaren eta piztiaren artekoak badira, zer dira, izan, orduan? *Ergelak* direla erantzuten diet nik, hitz hau egokia delako gizakiarengandik eta piztiatik ezberdina den zerbait adierazteko, gizaki eta pizti izenek bata bestetik ezberdinak diren esanahiak edukitzeko egokiak diren bezalaxe. Erantzun honek, behar bezala ulertuta, gehiagorik gabe konpon lezake auzi hau eta esan nahi dudana aditzera eman. Baina ez nago ni gizaki batzuen grinaren berririk gabe, ez nago norbait euren mintzamoldeetatik aldentzen ausartzen den guztian ondorioak ateratzera eta erlijioa mehatxaturik ikustera daramatzen grina gartsuaz konturatu gabe eta horrelako proposizio bati ziurraski jarriko lizkioketen kalifikatzaileak ez aurreikusteko moduan; eta ziur dakit zera galdetuko dutela: baldin ergelak gizakiaren eta piztiaren arteko zerbait badira, zer gertatuko zaie beste munduan? Eta honi erantzuten diot: 1. Ez zait niri axola hori jakitea edota ikertzea. Haiek zutik ala erorita dauden, euren nagusiaren arazoa da. Guk haiek zertan diren asmatzeak edo ez asmatzeak, ez du ez hobetu ez txartuko haien egoera. Sortzaile zintzoa eta aita onbera den Jainkoaren eskuetan daude eta ez ditu hark bere sorkariak gure pentsamendu edo irizpide estuen arabera erabiltzen, eta ez ditu haiek guk asmatutako izenen eta ezpezieen arabera bereizten. Eta oraingo gure mundu honetaz hain gutxi dakigunok ez genuke ibili behar larri etapa hau bukatzean sorkariek ukanen dituzten egoera ezberdinak zehaztu nahian. Aski bekigu jakitea Jainkoak ikasteko, diskurtsoak egiteko eta arrazoitzeko gai diren guztiei eman diela ezagutzera euren jokabideen kontua ematera deituak izanen direla eta ordaina jasoko dutela gorputzean bizi direlarik egindakoaren arabera.

15. *Zer gertatuko zaien ergelei geroko egoeran.*

Baina, bigarrenik, erantzuten dut esanez gizaki horien galderaren indarra (hau da, ergelei geroko egoera ukatuko al zenieke?) uste bi hauetako batean oinarritzen dela, bata bezain faltsua bestea: lehenengo, gizakiaren forma eta kanpo itxura duen izaki oro hilezkortasunezko egoerara dagoela nahitaez destinatua bizitza honen ostean; bigarrena, gizaki jaio den ororentzat horrek horrela behar duela izan. Utzi alde batera irudipen hauek eta berehala ikusiko duzue auzi mota

hauek funtsik gabeak eta barre garriak direla. Euren eta ergelen artean alde akzidentala baino ez dagoela eta esentzia talde batean zein bestean berbera dela uste dutenek pentsatzea nahi nuke ea hilezkortasuna gorputzaren kanpoko formari lotuta iruditzen dutenentz; eta uste dut hau proposatze hutsa nahikoa dela euren iritzi hau arbuia dezaten. Izan ere, oraindik ez dut inoiz entzun inork, materialen murgilduen egonda ere, kanpoko atal sentigarri materialen irudiari betiereko bizitza zor zaiola eta hau haien ondorio dela pentsatzeko moduko gorentasuna egotzi dionik, edo ezein materi multzo hemen ezereztu ondoren berriztaturik agertuko dela betiereko sentipen, pertzepzio eta eza-gutza egoeran, halako edo horrelako irudiaren moldera egina izan delako soilik eta haren atal ikusgarriak horrela edo hala egituratuak direlako. Hilezkortasuna azaleko forma jakin batean jartzen duen honelako iritziak ateak ixten dizkio arimaren edo espirituaren azterketa orori, gorpuzdun izaki batzuk hilezkorrak direla eta beste batzuk ez direla esateko orain arte ukan dugun oinarri bakarra berau. Gauzen kanpoaldeari barnealdeari baino garrantzia handiagoa ematea da hau, eta gizakiaren gorentasuna haren gorputzaren kanpoko forman gehiago jartzea, arimaren barne perfekzioetan baino, ez delarik hau beste izaki materialekiko duen hilezkortasunaren eta betiko bizitzaren abantaila handi eta estimagaitza gizakiaren bizarkerari edo haren jakearen ebakerari iratxekitzea baino. Zeren gure gorputzaren kanpoko ezaugarri honek edo besteak ez dakarkigu betiereko iraupenaren esperantzarik, gizon bati bere trajearen formak hura inoiz ez dela alferrik galduko edo berari hilezkortasuna emanen diola baieztatzeko arrazoirik eskaintzen ez dion bezalaxe. Agian esanen da inork ez duela uste formak inor hilezkor egiten duenik, daukanaren barruan hilezkorra den arima arrazoiduna dagoen seinale dela baizik. Baina jakin nahi nuke inork egin duen horren seinale, hori esate hutsa ez baita aski horrela izan dadin. Frogak beharko lirateke norbait horretaz konbentzitzeko. Nik dakidala ez dago inon horrela mintzatzeko gai den irudirik. Zeren arrazoi beraz ondoriozta daiteke, alde batetik, gizaki baten gorpuak, estatua batek baino bizitzaren itxura edo jardun gehiagorik agertu ez arren, arima biziduna duela bere baitan horretarako forma badaukalako, nola, bestetik, ergel baten baitan arima arrazoiduna dagoela izaki arrazoidunaren kanpoaldea daukalako, haren ekintzek bizitza guztian zehar piztia askotan nabari den baino arrazoi seinale gutxiago agertu izan arren.

16. *Mustroak.*

Baina ergel bat guraso arrazionalen ondorengoa da eta hortik, beraz, atera behar da arima arrazoiduna duela. Baina ez dakit zein logika arauz atera behar duzun ondorio hori, ziur bainago beste inon ez dela horrelako ondorioz onartzen, zeren onartuko balute ez lirarteke ausartuko, nonahi egiten duten modura, sorkari oker eratuak edo desitxuratuak suntsitzen. O, esanen dute, *mustroak* dira horiek! Hala bitez. Baina zer da zure ergel adurti, adimen gabeko, tratagaitz hori? Gorputzeko akatsak *mustroak* egiten ditu, eta gogameneko akatsak (atal nobleena eta, esaera arruntenean, atalik esentzialena berau) ez? Sudurrik edo leporik ez edukitzeak *mustroak* egiten du eta sorkari hori giza mailatik kanpo uzten, eta arrazoimenik eta adimenik ez edukitzeak ez? Hau arestian errefusatu dugun suposiziora itzultzea litzateke, dena forman jartzea eta gizaki nor den kanpoaldeaz soilik neuritzea. Agerian jartzeko gai honetan erabili ohi den arrazoibidearen arabera jendeak garrantzia guztia irudian jartzen duela eta giza esentzia guztia kanpoko formara biltzen, hori zentzugabekotzat jo eta zeharo ukatu arren, ez dugu besterik behar jendearen pentsamenduari eta praktikari arrastoa segitzea baino, orduan hori argi agertuko da eta. Ongi moldaturiko ergela gizakia da, arima arrazoiduna dauka, inondik ageri ez bada ere; honen dudarik ez dago, esanen duzu zuk; baina ezarri ieazkiozu belarri luzetxoagoak eta zorrotzagoak edota ohikoa baino sudur zapaltxoagoa, eta zalantzak sortuko zaizkizu; ezar iezaiozu aurpegi estuagoa, zapalagoa, luzeagoa, eta zer pentsa ez dakizula geratuko zara; segi animalia gero eta antz handiagoa ematen burua beste animalia baten berdina izan arte, eta orduan *mustroak* izanen da, eta horrek frogatuko dizu, zuri behintzat, arimarik ez daukala eta, beraz, suntsitu egin behar dela. Orain, nik galdetzen dut, non dago neurri zehatza? Zein dira animalia arrazoiduna suposatzen duten formaren azken mugak? Baina badirenez fetoak erdi piztia, erdi gizaki direnak eta beste batzuek hiru laurden dutenak batetik eta laurden bat bestetik, eta mila hurbilpen maila izan daitekeenez forma batera edo bestera eta, beraz, baita gizakiaren eta animalia gero eta gehiago edo gutxiagoko mailak ere, gustatuko litzaidake jakitea zer nolako taxukera behar den zehazki, hipotesi horretan, arima arrazoiduna beronekin batu ahal izateko. Zer nolako kanpoaldea da barruan arima bizi dela jakinarazteko adierazle ziurra? Zeren hau zehaztu arte oinarririk gabe ari gara gizakiaz eta beldur naiz horrelaxe jarraituko ez

dugun beti, soinu batzuetan finkatuta eta naturan zer diren ez dakigun espezie finko eta zehaztuak daudela iruditzen segitzen dugun bitartean. Baina, azken batean, nahiko nuke gogoan hartzea fetu desitxuratuak *mustroa* dela esanez zailtasuna gainditu nahi dutenek besteei egozten dien akatsean erortzen direla, gizakiaren eta piztiaren bitarteko izaki bat eratuz. Izan ere, zer besterik da, esan otoi, horien mustro hori (mustro hitzak ezer esan nahi badu), gizakia ez piztia ez den eta bate-tik eta bestetik duen izaki bat baino? Eta horrelakoxea da hain zuzen ere aipaturiko *ergela*. Guztiz beharrezko da, beraz, espezieen eta esentzieren nozio arrunta albo batera uztea, baldin gauzen izaeraren baitara zinez sartu eta gure ahalmenek euren, existitzen diren moduan, aurkitu dezaketenen bidez, eta ez euren buruz oinarririk gabe egindako fantasien bidez, aztertu nahi baditugu.

17. *Hitzak eta espezieak.*

Hau hemen aipatu badut, hauxe uste dudalako izan da, alegia, ezin dezakegula kontu handiegirik hartu, hitzek eta espezieek, erabiltzen ohiturik gauden euren nozioetan, gaina hartu diezaguten galarazteko. Izan ere, nire ustez hortxe datza gure ezagutza argi eta bereizirako oztopo handi bat, batez ere substantziei dagokienez, eta hortixek etorri dira egiaren eta ziurtasunaren inguruko zailtasun asko. Ohituko bagina geure azterketa eta arrazoinamenduak hitzetatik banantzen, geure pentsamenduen barruan neurri handian emanen genioke irtenbidea eragozpen honi; hala ere, traba horrek hantxe iraunen luke besteekin ditugun solasaldietan, *espezieak* eta euren *esentziak* izatez direna, hau da, ideien zeinu izateko izenak erantsita dauzkaten gure ideia abstraktuak barik, beste zerbait diren iritziari eusten segituz gero.

18. *Laburbilpena.*

Gure ideien arteko adostasuna edo desadostasuna hautematen dugun guztian, ezagutza ziurra dago; eta ideia horiek gauzen errealtatearekin ados datozela seguru gauden guztian, ezagutza ziur erreala dago. Eta gure ideien eta errealtatearen arteko adostasunaren ezaugarriak eman ditugunez, uste dut azaldu dudala *ziurtasun hori*, *ziurtasun erreala*, *zertan datzan*. Eta hori argitzea, besteentzat zer izan den ez dakit, baina niretzat, aitor dut, orain arte sentitu izan dudana premia handi bat eta lortu nahi nuen helburua izan da.

V. KAPITULUA

Egiaz oro har

1. *Zer den egia.*

Mendetan zehar egin dugu galdera hau: zer da egia? Eta egia-
ren bila gizateria guztia ari denez edo ari dela dioenez, merezi du
geure denbora eta ahalegina ematea berau zertan datzan artarik han-
dienaz aztertzeari, era horretan egiaren izaera ezagutu eta gogamenak
faltsutasunetik nola bereizten duen konturatzeko.

2. *Egia zeinuen, hau da, ideien edo hitzen konjuntzioa edo
banaketa zuzena da.*

Egia, orduan, hitzaren adiera zehatzean, *zeinuen konjuntzioa
da batzuetan, banaketa besteetan, gauzak euren artean ados datozen
edo ez datozen heinean*. Zeinuen konjuntzioa edo banaketa diogune-
an, *proposizio* hitzaz ere adierazten duguna ulertu behar da.
Proposizioak bi motatakoak dira, mentalak eta hitzezkoak, erabili ohi
diren zeinuak ere bi motatakoak, ideiak eta hitzak, diren moduan.

3. *Zerke giten dituen proposizio mentalak edo hitzezkoak.*

Egiaren nozio argia eratzeko, behar-beharrezko da pentsamen-
duaren egia eta hitzen egia bata bestetik ongi bereiziz kontsideratzea;
baina ez da bat ere gauza erraza bi horietan bereiz aritzea. Izan ere,
proposizio mentaletan aritzean, nahitaez erabili behar dira hitzak eta,
orduan, ematen diren proposizio mentalen kasuak berehala uzten
diote mentalak izateari eta hitzezko bihurtzen dira. Zeren, *proposizio*

mentala ideien kontsiderazio hutsa baino ez delarik ideioek gure gogamenean izenik gabe dauden heinean, hitzetan jarri bezain laster proposizio mental hutsen izaera galtzen dute.

4. *Oso zaila da proposizio mentaletan aritzea.*

Eta proposizio mentaletan eta hitzezkoetan bereiz aritzea oraindik zailago bihurtzen du gizakirik gehienak, denak ez badira, euren barruan pentsatzen eta arrazoitzen dihardutenean, ideiez barik hitzez baliatzeak, pentsagai darabilten gauzak barruan ideia konplexuak ukanez gero behintzat. Hau mota horretako gure ideien inperfekzioaren eta ziurgabetasunaren froga argia da eta proposiziook, eurotaz arretaz baliatuz gero, zein gauzaz ditugun ideia argi eta erabat finkatuak eta zeinetaz ez adierazteko balio diezagukete. Izan ere, ikusminez ohartzen bagara gure gogamenak pentsatzean eta arrazoitzean nola jokatzeko duen, aurkituko dugu, nik uste, gure barruko pentsamenean *zuriaz* edo *beltzaz*, *gozoaz* edo *garratzaz*, *triangeluaz* edo *zirkuluaz* proposizioaren bat egitean gogamenean izenez pentsatu gabe ideiak era ditzakegula eta sarri eratu egiten ditugula. Baina ideia konplexuak kontsideratu eta haiei buruzko proposizioak egin nahi ditugunean, hala nola *gizakiaz*, *bitrioloaz*, *sendotasunaz*, *loriaz*, orduan izena jartzen dugu eskuarki ideiarenean ordez, zeren izen horiek ordezkatzen dituzten ideiak, gehienetan inperfektuak, nahasiak eta zehazgabeak izanik, izenetan pentsatzen dugu, argiagoak, zurragoak eta bereiziagoak direlako eta gure pentsamendura ideia bakunak («pure») baino azkarrago etortzen direlako; eta horrela ideiez barik hitzez baliatzen gara, gogoetak eta arrazoiketak geure barruan proposizio mental isilekoak eginez burutzen ditugunean ere. Substantzietan hau, azaldu dugun moduan, gure ideien inperfekzioaren ondorioa da, izena inondik ere ezagutzen ez dugun esentzia erreala ordezkatzen jartzen baitugu. Moduetan, berauek osagai dituzten ideia bakunen kopurua handia izatea da hori dakarrena. Zeren, berauetako asko konposatuak direnez, izena asko errazago dator gogamenera, ideia konplexua bera baino, hau gogoratzeko eta gogamenean doi-doi irudikatzeko denbora eta arreta behar baitira, lehenago horretan ahalegindu direnen kasuan ere, inola ere ezin dutelarik hori egin, ordea, beste hauek, alegia, hizkuntza horretako hitz arruntik gehienak beren oroimenean ukan arren, beharbada euren bizitza osoan ere izenotako gehienek zehazki zein ideia ordezkatzen zuten pentsatzeko ardurarik hartu ez dutenek.

Zenbait nozio nahasi eta ilunez baliatzearekin konformatu dira, eta *erlijioaz* eta *kontzientziaz*, *elizaz* eta *fedez*, *ahalaz* eta *eskubidez*, *obstrukzioaz* eta *umoreez*, *malenkoniaz* eta *suminaz* ekin ahalean mintzo direnei ezer gutxi geratuko litzaieke pentsamenduetan, baten batek esanen balie gauzetan eurretan pentsatzeko, besteak hain usu, eta beren burua ere ez gutxitan, nahasteko bide izan ohi dituzten hitzak albo batera utziz.

5. *Proposizio mentalen eta hitzekoen arteko kontrastea.*

Baina egiaren azterketara itzuliz, egiteko gauza garen bi proposizio motetan erreparatu behar dugu: Lehenik, proposizio *mentala* daude, eta eurotan gure adimeneko ideiak hitzi erabili gabe elkarrekin batzen edo banantzen ditu gogamenak, haien arteko adostasuna edo desadostasuna hautemanez eta juzgatuz. Bigarrenik, *hitzezko* proposizioak daude, eta baiezkot edo ezezko esaldietan elkarturik edo banandurik ipinitako hitzak dira, hots, gure ideien zeinuak. Baieztatuz edo ezeztatuz elkarrekin batu edo banantzen dira, beraz, soinu egindako zeinu horiek. Horretara, proposizioa zeinuak batzean edo banantzean datza, eta egia, beraiek ordezkatzeko dituzten gauzak ados datozen edo ez datozen kontuan hartuta, zeinu horiek batzean edo banantzean.

6. *Noiz daukaten egia erreala proposizio mentalek eta noiz hitzekoek.*

Nori bere esperientziak erakutsi diezaioke, gogamenak bere ideietako batzuen adostasuna edo desadostasuna hautematean edo suposatzean, ideia horiek baiezkot edo ezezko proposizio batean ipintzen dituela isilean bere barruan, eta nik hau adierazteko elkarrekin batzea eta banantzea terminoak erabili ditut. Baina pentsatzen eta arrazoitzen duen gizakiak hain egunerokoa duen gogamenaren ekintza hau ulergarriagoa zaigu baieztatzean edo ezeztatzean gure baitan gertatzen dena hausnartuz, hitzez adierazita baino. Norbaitek bi lerroren ideia duenean, karratu baten aldearena eta diagonalarena adibidez, diagonalak habete luze izanik, ukan dezake era berean lerro horren zatiketaren ideia honenbeste zati berdinetan, bost, hamar, ehun, mila edo zenbatnahi zatitan, eta ukan dezake habete luzeko lerro horren ideia zatigarri izanik edo ez izanik, horietako zenbait zati karratuaren aldearen luzera berekoak izateko moduan. Orain, gizaki horrek zatigarritasun mota hori lerro horri buruz duen ideiarekin ados edo desa-

dos datorrela hautematen, pentsatzen edo suposatzen duen guztian ideia bi horiek, hau da, lerro horren ideia eta zatigarritasun mota horren ideia, elkartu edo banandu egiten ditu eta proposizio mental bat egiten du, egiazkoa edo faltsua izan dena zatigarritasun mota horrek, hau da, honenbeste parte *alikuotatako* zatigarritasunak lerro horrekin duen adostasun edo desadostasun errearen arabera. Ideiak horrela elkarrekin batu edo banantzen direnean ordezkatzan dituzten gauzen adostasunaren edo desadostasunaren arabera, orduan honi egia mentala dei dakiok. Baina *hitzen egia* hori baino zerbait gehiago da; hemen hitzak bata besteari buruz baieztatu edo ezeztatu egiten dira, ordezkatzan dituzten ideien adostasun edo desadostasunaren arabera. Eta egia hau bi motatakoa izan daiteke; hitz hutsezkoa eta azalekoa, geroago aztertuko dudana (VIII. kap.), edo erreala eta irakasgarria, lehenago aipatu dugun ezagutza errearen helburua dena.

7. Hitzeko egiaren kontrako objekzioa: egia mota hau erabat kimerikoa izan daiteke.

Baina ezagutzari buruz agertu izan den zalantza bera sor daiteke hemen egiari buruz, eta objekzio hauxe jar daiteke, alegia, egia proposizioetan hitzak batu edo banantzea besterik ez bada ordezkatzan dituzten ideiak gizakien gogamenean duten adostasunaren edo desadostasunaren arabera, egiaren ezagutza ez dela uste ohi den bezain preziagarria eta ez duela merezi haren bila ekin eta ahalegin ibiltzea, honen arabera hitzen eta giza burmuineko kimeren arteko adostasuna baino ez duelako suposatzen. Nork ez daki nolako nozio arraroz beterik dituzten askok beren buruak eta nolako nozio bitxi harrigarriak sor daitezkeen gizakien burmuinetan? Baina hemen planto eginda gertatzen bagara, arau honetatik aterako da geure irudimeneko hitz ameslarien beste ezeren egiarik ez dugula ezagutzen eta harpiei eta zentauroroi zein gizakiei eta zaldiei era berean dagozkien egiak baino ez ditugula geuganatzen. Izan ere, ideia hauek eta antzekoak geure buruan ditugun ideiak izan daitezke eta euren artean adostasuna edo desadostasuna ukan, izaki errearen ideiak bezalaxe, eta horrela haiei buruz haiei buruz bezain egiazkoak diren proposizioak egin daitezke. Eta, horregatik, era berean egiazkoak izan dena bi proposizio hauek, alegia, *zentauro guztiak animaliak dira* zein *gizaki guztiak animaliak dira*, eta bataren ziurtasuna ere besteari bezain handia izan dena. Izan ere, bi proposizioetan gure gogamenean ideiek duten adostasu-

naren arabera batzen dira hitzak; eta animaliaren ideiak zentauroaren ideiarekin duen adostasuna animaliaren ideiak gizakiarenarekin duena bezain argia eta agerikoa da; eta, beraz, bi proposizio horiek era berean dira egiazkoak eta ziurrak. Baina zertarako balio digu horrelako egia?

8. *Objekzio horri erantzuna: egia erreala gauzekin ados datozen ideiei buruzkoa da.*

Nahiz eta aurreko kapituluan ezagutza erreala irudimenezkotik bereizteko esandakoa nahikoa izan daitekeen zalantza honi erantzuteko eta egia erreala kimerikotik edo, nahi baduzu, nominal hutsetik bereizteko, bi bereizketok oinarri bera dutelarik, hala ere ez dateke alferrekoa hemen ere gogoan izatea ezen, hitzek gure ideiak baino adierazten ez dituzten arren, gauzak adierazteko direnez, proposizioetan ipinita daukaten egia hitzekoa baino ez dela izanen, gauzen errealitatearekin adostasunik ez daukaten gogameneko ideiak ordezkatzan dituztenean. Eta, horregatik egia, ezagutza bezala, mota bitakoa izan daiteke, hitzekoa eta erreala, hitzeko hutsa delarik egia, terminoak ordezkatzan dituzten ideien adostasunaren arabera batzen direnean, gure ideiak naturan existentzia errealik daukaten edo eduki dezaketen kontuan hartu gabe. Proposizioek egia erreala daukate, ordea, osatzen dituzten zeinuak gure ideien adostasunaren arabera batzen direnean eta gure ideiak naturan existentzia edukitzeko modukoak direla daki-gunean, substantzietan hau ezin dugularik jakin, substantzia horiek existitu direla jakinda baino.

9. *Egia eta faltsutasuna oro har.*

Ideien adostasuna edo desadostasuna, den bezalaxe, hitzetan seinalatzea da egia. Faltsutasuna, ordea, ideien adostasuna edo desadostasuna, denez bestela, adieraztea hitzetan. Eta soinuek horrela adierazitako ideia horiek euren arketipoekin ados datozen heinean soilik da erreala egia. Egia honen ezagutza honexetan datza: hitzek zein ideia ordezkatzan duten jakitean eta ideia horien adostasuna eta desadostasuna hautematean, hitz horiek seinalaturikoaren arabera.

10. *Proposizio orokorrak luzeago aztertu behar dira.*

Baina hitzak egiaren eta ezagutzaren eroale nagusitzat daudenez eta egia komunikatzeko eta hartzeko, baita beroni buruz arrazoitzeko ere, hitzez eta proposizioez baliatzen garenez, luzeago aztertu-

ko dut zertan datzan proposizietako egia errealen ziurtasuna eta non aurki litekeen; eta ahaleginduko naiz azaltzen nolako proposizio uni-bertsaletan egon gaitezkeen ziur euren egia errealaz edo faltsutasunaz. Proposizio orokorretatik hasiko naiz, eurok direlako gure pentsamenduei lanik gehien ematen dienak eta gure kontenplazioa jardunean darabiltenak. Egia orokorrak gure gogamenak bilatuenak dira, ezagutza gehien areagotzen digutenak direlako eta, zabaltasun handikoak izanik gauza partikular askoren berri ematen digutenez, gure ikuspegia luzatzen eta ezagutzara heltzeko bidea laburtzen digutelako.

11. *Egia morala eta egia metafisikoa.*

Arestian aipatu dudan adiera hertsian harturiko egiaz gain, badira beste egia mota batzuk ere. 1. Egia morala, gauzez geure gogamenaren persuasioaren arabera mintzatzean datzana, nahiz eta guk formulaturiko proposizioa gauzen errealitatearekin ados etorri ez. 2. Egia metafisikoa, ez dena besterik gauzen existentzia errela, guk izen horiek ezarritako ideiekin bat datorrena baino. Nahiz eta badirudien hau gauzen existentzian datzala, hurbilagotik aztertuz gero, ikusiko da proposizio tazitu bat daukala bere baitan eta beronen bidez gogamenak gauza partikular hori aurretik eratu eta izena ezarri dion ideiarekin batzen duela. Baina egiari buruzko gogarpen hauek lehenago aztertu direlako edo gure oraingo helbururako askorik suposatzen ez dutelako, agian aski da hemen euroi buruzko aipamen soil bat egin izana.

VI. KAPITULUA

Proposizio unibertsalez eta berauen egiaz eta ziurtasunaz

1. Ezagutzarako beharrezkoa da hitzei buruz mintzatzea.

Ideiak beren baitan aztertu eta juzgatzea, euren izenak erabat albo batera utzita, ezagutza argi eta bereiziriko biderik onena eta seguruena den arren, hala ere, ideien ordez hitzak («sounds») erabiltzeko ohitura nagusitu denez, hori oso bakanki praktikatzen dela uste dut. Edonor ohar daiteke zein gauza arrunta den ideiak eurak erabili beharrean izenez baliatzea geure barruan pentsatzen eta arrazoitzen dugunean ere, batez ere ideiak oso konplexuak eta ideia bakunen bilduma handi batez osatuak direnean. Hitzen eta proposizioen ikerketa ezagutzari buruzko tratatuaren hain atal beharrezko bihurtzen du honek, non oso nekez hitz egin daitekeen ulergarriro batz, bestea esplikatut gabe.

2. Egia orokorrak ulertzea zaila da, hitzezko proposizioetan aurkeztu ezean.

Daukagun ezagutza guztia egia partikularrez edo orokorrezt denez, begi-bistakoa da ezen, egia partikularrak ulertzeko egin daitekeena albo batera utzita, egia orokorrak, bilatuenak arrazoi guztiaz, ezin direla ongi ezagutarazi eta atzeman ere oso bakanki atzematen direla, hitzetan bururatu eta adierazten ez badira. Proposizio unibertsalen egia eta ziurtasuna ikertzea ez dago, beraz, gure ezagutza aztertzeko bidetik landa.

3. Ziurtasuna bi motatakoa da: egiazkoa eta ezagutzazkoa.

Baina beti arriskugarri gertatzen den terminoen anbiguotasunak desbideratu ez gaitzan, komeni da konturatzea ziurtasuna bi motatakoa dela: *egiazko ziurtasuna* eta *ezagutzazko ziurtasuna*. Egiazko ziurtasuna dago, hitzak proposizioan berauek ordezkatzten dituzten ideien adostasuna edo desadostasuna errealitatean den bezalaxe doi-doi adierazteko moduan jarrita daudenean. Ezagutzazko ziurtasuna ideien adostasuna edo desadostasuna hautematea da, edozein proposiziotan adierazten den heinean. Honi proposizio baten egia ezagutzea edo egia horretaz ziur egotea esan ohi diogu.

4. Inork ezin dezake jakin proposizioaren bat egiazkoa denik, aipaturiko espezie bakoitzaren esentzia ezagutu ezean.

Orain, ezein proposizio orokorren egiaz ziur ezin egon gaitezkeelarik, berau osatzen duten hitzek ordezkatzten dituzten espezieen muga zehatzak eta hedadura ezagutzen ez baditugu, espezie bakoitzaren esentzia ezagutu beharko genuke, esentzia baita espeziea moldatzen eta mugatzen duena. Hau ez da zaila ideia bakun eta modu guztiei dagokienean. Zeren hauetan esentzia erreala eta nominala gauza bera direnez, edo berdin dena, termino orokorrak ordezkatzten duen ideia abstraktua bide denez espeziearen esentzia eta mugapen bakarra, termino bakoitza noraino hedatzen den edo zein hitz hartzen dituen ebatzean ezin egin daiteke zalantzarik; hauek, bistakoa denez, termino horrek ordezkatzten duen ideiarekin doi-doi bat datozen gauza guztiak dira, eta bat ere ez besterik. Baina substantzietan, zeinetan nominala ez den esentzia errealak moldatzen, determinatzen eta mugatzen bide dituen espezieak, hitz orokorren hedadura oso zehazgabea da, zeren, esentzia erreal hori ezagutzen ez dugunez, ezin baitezakegu jakin espezie horretako zer den eta zer ez den eta, ondorioz, ezta espezie horretaz ziurtasunez zer esan daitekeen eta zer ez ere. Eta horrela, *gizakiaz*, *urreez* edo substantzia naturalen beste edozein espezieaz mintzo garenean, naturak mota horretako banako guztiei erregularitasunez luzatzen dien eta espezie horretako bihurtzen dituen esentzia zehatz eta errealak moldatua bide denez, ezin gaitezke ziur egon substantzia horri buruz egindako ezein baieztapen ez ezeztapenen egiaz. Zeren gizakia edo urrea zentzu honetan hartuta eta mintzatzailaren gogameneko ideia abstraktutik ezberdinak diren esentzia errealek moldaturiko gauzen espezieztat erabilita, ez dakigu zer ordezkatzten

duten gauza bi horiek; eta espezie horien hedadura, muga horiekin, hain ezezagun eta zehazgabea da, non ez dagoen inolako ziurtasunez baieztatzerik gizaki oro arrazoiduna denik ez urre oro horia denik. Baina esentzia nominala espezie bakoitza mugatzen duen elementutzat hartzen badugu eta gizakiek termino orokorren aplikazioa hark ordezkatzeko dituen ideia konplexuen topagune diren gauza partikularretatik harago hedatzen ez badute, orduan ez daude espezie bakoitzaren mugei buruz huts egiteko arriskuan eta, horren arabera, ezin izanen dira ibili proposizioen bat egiazkoa den ala ez zalantzatan. Proposizioen ziurgabetasun hau horrela era eskolastikoan azaltzea aukeratu badut eta esentziak eta espezieak bezalako terminoak erabili baditut, haxe argi jartzeko izan da, alegia, zer nolako absurdukeria eta eragozpena den horiek, izenak ezarritako ideia abstraktuak barik, beste edozein motatako errealitateak direla pentsatzea. Izan ere, gauzen espezieak gauza horiek izen orokorren pean sailkatzeaz bestelako zerbait direla pentsatzea, guk izen horiek zeinu moduan ezarri dizkiegun ideia abstraktu ezberdinekin duten adostasunaren arabera, egia nahastea eta beraiei buruz egin daitezkeen proposizio orokorretan ziurgabetasuna sartzea da. Jakintza eskolastikorik ez duen jendeari gauza hauek modu egokiagoan eta argiagoan azal dakizkiekeen arren, hala ere, esentzien edo espezieen nozio oker horiek, jenderik gehienaren gogamenetan sustraiak bota dituztenez eta jende horrek munduko alde honetan nagusi izan den jakintzaren halako tintura bat hartu duenez gero, agerian jarri eta errotik kendu behar dira, ziurtasuna ekarriko duten hitzak erabili ahal izateko.

5. Hori batez ere substantziei dagokie.

Substantzien izenak, orduan, ezagutzen ez ditugun esentzia errealek moldaturikoak bide diren espezieak ordezkatzeko eginak direnez, ez dira gai adimenara ziurtasuna eramateko. Horrelako terminoez egindako proposizio orokorrei buruz ezin gara ziur egon. Eta honen arrazoia argi dago, zeren nola jakin genezake ziur urreak koalitete hori edo bestea daukanentz, urrea zer den edo zer ez den ez dakigunean? Mintzatzeko modu honetan, urrea esentzia jakin batean partaide dena baino ez denez eta esentzia hau, ezagutzen ez dugularik zertan datzan jakin ezin dezakegun zerbait denez, ezin dugu ziur jakin inongo materi partikula zentzu honetan urrea den ala ez, ez baitakigu, horretan erremediorik gabeko ezjakitun izaki, zati horrek zerbaiti

urrea deitzeko behar dena daukan ala ez daukan, hau da, inondik ere ezagutzen ez dugun errearen esentzia erreal hori daukan ala ez. Eta hori ezagutzea guretzat hain ezinezkoa da, nola itsu batentzat pentsamenduaren kolorea zein lorek daukan ala ez daukan esatea, pentsamenduaren kolorearen ideiarik ere ez daukanean. Edo guk ziurtasunez jakin ahal bagenu (ezinezko dena) non dagoen esentzia errela, inondik ere ez dakiguna, adibidez errearen esentzia erreala zein materi zatitan dagoen jakin ahal bagenu ere, ez genuke ziur jakinen erreari kolitate hura edo bestea egotzi ahal zaiola, ezin jakin baitezakegu koalitate edo ideia hark edo besteak beharrezko loturarik duen inondik ere ezagutzen ez dugun esentzia errealarekin, erreala bide den esentzia horrek moldatzen duen espeziea zeinahi dela imajinaturik ere.

6. *Substantziei buruzko proposizio unibertsal gutxiren egia ezagutzen da.*

Beste alde batetik, substantzien izenek, beti erabili behar liraketen bezala gizakiek gogamenean dituzten ideiak izendatzeko erabiltzen direnean, esanahi argi eta zehatza ukan arren, ez dute balio ziur egiazkotzat ukan ditzakegun proposizio unibertsal asko egiteko. Eta hau, ez izenok erabiltzean zer esan nahi duten ziur ez dakigulako, baizik berauok ordezkatzten dituzten ideia konplexuak ideia bakunen halako konbinazioak direlako, non beste ideia gutxi batzuekin baino ez daukaten lotura edo aurkakotza aurkigarririk.

7. *Kasu gutxitan ezagut daitekeelako ideia bakunen beharrezko koexistentzia substantzietan.*

Substantzien espezieen izenek zehazki ordezkatzten dituzten ideia konplexuak guk substantzia deitzen diogun euskarri ezezagun batean koexistitzen erreparatu diegun koalitateen bildumak dira. Baina zein beste koalitate beharrezko koexistitzen diren aipaturiko konbinazioekin ez dugu ziur jakiterik, haien menpekotasun naturala deskubritzeko gai izan ezean; eta honetan ezin dugu urrunegi joan lehen koalitateei dagokienez, eta bigarren koalitateei dagokienez, berriz, ez gara gai inolako loturarik deskubritzeko, III. Kapituluari aipaturiko arrazoiengatik: 1. Ez ditugulako ezagutzen bigarren koalitate bakoitza menpe duten substantzien osaera errealak. 2. Ezagutuko bagenitu ere, ezagutza esperimenterako soilik (ez unibertsalerako) balioko liguke horrek, eta kasu konkretu hutsetara baino ezin izanenginateke heldu, gure adimenak ez dezakeelako deskubri lotura buru-

ragarririk edozein bigarren koaliteren eta edozein lehen koaliteren aldaeraren artean. Eta, horregatik, substantziei buruz ziurtasun beteko proposizio orokor gutxi egin daiteke.

8. *Urrearen adibidea.*

Urre oro finkoa da dioen proposizioaren egia ezin ezagut deza-kegu guk ziurtasunez, unibertsalki hala uste bada ere. Zeren, eskolen irudimen hutsalaren arabera, norbaitek uste badu urre terminoak natu-rak urreari dagokion esentzia errearen bidez ezarritako gauzen espe-zie bat ordezkatzan duela, bistakoa da ez dakiela zein substantzia par-tikular diren espezie honetakoak eta, beraz, ezin du urreari buruz ezer baieztatu unibertsalki. Baina urre hitza bere esentzia nominalak zehazturiko espeziea ordezkatzan jartzen badu, esentzia nominal hau, adibidez, gorputz kolore horiko, xaflakor, fundigarri eta ezein gorputz ezagun baino astunagoaren ideia konplexua izanik, urre hitzaren era-bilera zehatz honetan ez da zaila jakitea zer den eta zer ez den urrea. Baina, kasu honetan ere, ezin da urreari buruz beste koaliterik ziur-tasunez unibertsalki baieztatu ez ezeztatu, esentzia nominal horrekin lotura edo bateraezintasun aurkigarria («discoverable») ez badauka. Eta finkotasunak, adibidez, guk deskubri dezakegun inongo beharrez-ko loturarik ez duenez gure ideia konplexuaren kolore, pisu edo beste edozein ideia bakunekin edo konbinazio guztiarekin, ezinezko zaigu ziurtasunez ezagutzea *urre oro finkoa da* dioen proposizioaren egia.

9. *Ez dago beharrezko lotura aurkigarririk urrearen esentzia nominalaren eta beste ideia bakun batzuen artean.*

Urrearen esentzia nominal horren finkotasunaren eta kolore, pisu eta beste ideia bakunen artean lotura aurkigarririk ez dagoen moduan, halaxe, baldin urreaz dugun ideia konplexua gorputz hori, fundigarri, harikor, astun eta finkoa izan dadin egiten badugu, *aqua regiatan* disolbagarritasunari buruz ziurgabetasun berean aurkituko gara eta arrazoi beragatik, zeren ideiak eurak aztertu hutsez, horita-sun, fundigarritasun, harikortasun, astuntasun eta finkotasunaren ideiak osaturiko ideia konplexua dagokion gorputzari buruz inoiz ezin izanen dugu baieztatu edo ezeztatu *aqua regiatan* disolbagarri dela; eta gauza bera esan beharko genuke haren beste koalitate guztiei dagokienez ere. Gustatuko litzaidake aurkitzea urrearen edozein koa-litateri buruzko baieztapen orokor bat, egia dela ziurtasunez jakin dai-tekeena. Berehala ihardetsiko lidakete, dudarik ez, esanez: *urre oro*

xaflakorra da ez al da proposizio unibertsala? Eta horri nik erantzun proposizio oso ziurra dela hori, baldin xaflakortasuna urre hitzak ordezkatzan duen ideia konplexuaren osagai bada. Baina hemen ez da urreari buruz ezer baieztatzen, soinu horrek barruan xaflakortasuna daukan ideia ordezkatzan duela baino ez baita esaten, eta mota horretako egia eta ziurtasuna *zentauroa lau hankakoa da* dioen baieztape-nak daukana bezalakoa da. Baina xaflakortasuna urre hitzak ordezkatzan duen esentzia espezifikokoaren osagai ez bada, argi dago *urre oro xaflakorra da* ez dela proposizio ziurra. Zeren, urrearen ideia konplexua nahi dituzun beste haren edonalako koaliteez osaturik egonda ere, ez da agertuko xaflakortasuna ideia konplexu horren menpe dagoenik ez eta konplexu horren osagai diren bakunetako baten ondorio denik ere; izan ere, xaflakortasunak beste koalitate horiekin daukan lotura (bat ere badu) osaera errearen esku-hartzez dauka; eta hau ezagutzen ez dugunez, ezinezko zaigu lotura hori hautematea, koalitate horiek elkarrekin lotzen dituen deskubritu ahal izan ezean.

10. *Koexistenzia hau ezagutzen den neurri berean izan daiteke ziurra proposizio unibertsala. Baina ezagutza horren hedadura txikia baino ez da.*

Koexistitzen diren koalitate horietarik zenbat eta gehiago batu ideia konplexu batean izen bakarraren pean, orduan eta doiago («precise») eta zehatzago bihurtzen dugu hitz horren esanahia, baina inork ez du, haatik, hura gaiago egiten *gure ideia konplexuak hartzen ez dituen beste koalitate batzuei buruzko* ziurtasun unibertselarako, hauek elkarrekiko duten lotura edo menpekotasuna hautematen ez dugulako, ez baitugu ezagutzen ez haien oinarri den osaera erreala ez beroni nola darizkion. Izan ere, substantziei buruz daukagun ezagutzaren atal garrantzitsuena ez da, beste gauza batzuetan bezala, banan existi daitezkeen bi ideiarik buruz, baizik zenbait ideia bereizik subjektu berean duten lotura eta koexistentziarik buruz, edo horrela koexistitzeko duten aurkakotzarik buruz. Beste muturretik hasi ahal bagenu eta aurkitzerik bagenu kolore hori zertan datzan, zerk egiten duen gorputz bat arinago edo astunago, atalen zer nolako ehundurak egiten duen xaflakor, fundigarri, finko, eta likido horretan disolbatzeko egoki, baina ez beste hartan, baldin gorputzez deskribatu berri dugun bezalakoa ideia bagenu eta koalitate sentigarri guztiak zertan dautzan hautematerik bagenu, orduan gorputz horien halako ideia abstraktuak

eratu ahal izanen genituzke, non ezagutza orokorragoko materiala esakainiko liguketen eta egia eta ziurtasuna luketen proposizio unibertsalak egin ahal izanen baikenituzke. Baina substantzien espezieez ditugun ideiak haien koalitate sentigarriak menpean dituen osaera errealetik hain urrun dauden bitartean eta ideia horiek gure sentimenez deskubri ditzaketen ageriko koalitate horien bilduma inperfektuak osatzen dituen bitartean, substantziei buruzko proposizio gutxi izan daitezke euren egia erreala guk ziurtasunez baieztatzeko modukoak, ideia bakun gutxiren lotura eta beharrezko koexistentzia ezagut baititzaizkegu ziurtasunez eta zalantzarik gabe. Uste dut substantzien bigarren koalitateen eta hauei dagozkien ahaleen artean ezin direla bi aipatu, beharrezko koexistentzia edo koexistitzeko aurkakotza ziurtasunez ezagut dakiekeenak, sentimen berekoetan izan ezik, eta hauek elkar baztertzen dute beste nonbait azaldu dudana moduan. Inork ezin du jakin, nire ustez, gorputz batek duen koloretik zer usain, zapora, soinu edo koalitate ukigarri daukan gorputz horrek, ez eta zer aldaketa eragin dezakeen beste gorputz baten baitan edo har dezakeen harengandik. Gauza bera esan daiteke soinuari edo zaporeari dagokionez. Substantzien izen espezifikoek horrelako ideien bildumak ordezkatzeko dituztenez, ez da harrizkoa guk hitz horiekin zalantzarik gabeko ziurtasuneko proposizio oso gutxi egin ahal izatea. Baina, hala ere, edozein motatako substantzien ideia konplexuren batek bere baitan beste ideia batekin beharrezko koexistentzia duela deskubri dakiokeen ideia bakun bat daukan heinean proposizio unibertsalak ziurtasunez egin daitezke hari buruz; adibidez, baten batek urrearen xaflakortasunaren eta kolorearen edo pisuaren arteko, edo izen horrek adierazitako ideia konplexuaren beste edozein koalitatearen arteko beharrezko lotura deskubritu ahal balu, horrek egin ahal izanen luke hontan urreari buruz proposizio unibertsal ziurra; eta *urre oro xaflakorra da* proposizioaren egia erreala beste hau dioena bezain ziurra litzateke, alegia, *triangelu angeluzuzen guztietan hiru angeluek bi zuzen osatzen dituzte*.

11. *Substantziez ditugun ideia konplexuak egiten dituzten koalitateak kanpoko eta urruneko kausa hautemangabeen menpe daude.*

Substantziei buruz, berauetan aurkitzen ditugun koalitate sentigarriak zer nolako osaera errealek sortarazten dituzten eta barauiei koalitateak nola darizkien ezagutzeko moduko ideiak bagenitu, gure

gogameneko haien esentzia errealei buruzko ideia espezifikoen bidez orain sentimenen bidez baino ziurtasun handiagoz aurkitu ahal izanen genituzke haien propietateak, baita zein koalitate duten ala ez duten ezagutu ere; eta urrearen propietateak ezagutzeko ez litzateke orduan beharrezko urrea nonbait existitzea eta guk hari buruzko esperimentuak egitea, orain triangeluaren propietateak ezagutzeko, triangelua nonbait material existitzea behar ez den bezalaxe, eta gure gogameneko ideiak era berean balioko luke kasu baterako zein besterako. Baina gu naturako sekretuetan barrena sartzetik hain urrun gaude, non haietara heltzeko lehen sarrerara ere apenas hurbildu garen sekula. Izan ere, ikusten ditugun substantzietako bakoitza berarengan gauza oso moduan hartu ohi dugu koalitate guztiak bere baitan eta beste gauzekin zerikusirik gabe balitu bezala, oharkabe pasatzen zaizkigularik gehienbat inguratzen dituzten fluido ikusezin horien eragiketak, berauen higiduraren eta eragiketen menpe badaude ere substantzietan atzematen ditugun eta substantziak ezagutzeko eta izendatzeko haiei atxikitako bereiztikur bihurtu eta erabiltzen ditugun koalitateak. Ipini urre zati bat isolatuta beste gorputz guztien irispidetek eta eraginetik at, eta berehala galduko du bere kolore eta pisu guztia, eta xaflakortasuna ere bai, hau, dakidanez, erabateko hauskortasun bihur daitekeelarik. Urak, fluidotasuna haren funtsezko koalitatetzat daukagun arren, bere kontura lagaz gero, utzi egingen lioke fluido izateari. Baina gorputz bizigabeak beraietatik kanpoko beste gorputzei hainbeste zor badiete, non inguratzen dituzten gorputz horiek kenduz gero, ez liratekeen guri agertzen zaizkigun bezalakoak, are gehiago gertatzen zaie hori etengabeko segidan elikatu, hazi, hostoak eta loreak eman eta haziak sortzen dituzten landareei. Eta animalien biziera arretaz behatzen badugu, ikusiko dugu bizitzari, higimenari eta euren gan ikusten ditugun koalitate garrantzitsuenei dagokienez, kanpoko kausen eta euren atal ez diren beste gorputz batzuen koallitateen menpe hain erabat daudela, non haiek gabe ezin duten une batez ere bizirik iraun, nahiz eta animaliak hain menpe dituzten gorputz horiek ez diren gutxi baino aintzat hartzen eta ez diren izaten guk animaliei buruz eratzen ditugun ideien osagai ere. Kendu airea, minutu batez bada ere, izaki bizidunei, eta berehala galduko dituzte sentipena, bizitza eta higimena. Honexek behartu gaitu arnasa hartzeko premia ezagutzera. Baina kanpoko eta ziurraski askoz urrunagoko beste zenbat gorputzek ez ote dituzte edukiko makina miresgarri hauen mekanismoak euren eragin-

pean, guk ikusten ez eurretan pentsatzen ez badugu ere? Eta horietako zenbat ez ote dira ikerketa zorrotzenak ere ezin aurkitzeko modukoak? Unibertsoaren puntutxo honetako biztanleak, eguzkitik hainbat milioi miliatara egon arren, handik datozen edo hark iharrosten dituen egokiro beroturiko partikulen menpe daude, eta lurra egun duen tokitik, apur bat bada ere, aldatu eta berotasun iturri horretatik urrunago edo hurbilago kokatuko balitz, gertagarritik gorakoa da lurreko animaliarik gehienak berehala hilen liratekeela, sarri ikusten baititugu eguzkiaren berotasun handiegiak edo txikiegiak suntsituta, akzidentalki horrelako posizioan egon beharra daukatenean gure lur globotxo honetan. Imanean erreparatzen ditugun koaliteteak gorputz honen mugetatik urrun ukan behar dute nahitaez iturria; eta kausa ikusezinek sarri animali espezie batzuei eragiten dizkien asaldurak eta animalia batzuk (esan digutenez) lerroa pasatze hutsagatik hutsik gabe hiltzeak edo beste batzuei gertatzen zaien moduan inguruko beste herrialde batera iragateagatik hiltzeak argi erakusten digute uste dugunez haiekin inolako zerikusirik ez daukaten gorputz ezberdinen eragina, baita eragiketak erabat beharrezko direla ere gorputz horiek guri agertzen zaizkigun modukoak izateko eta haiek ezagutu eta bereizteko bide ditugun koalitetei iraunarazteko. Erabat oker gabilta, beraz, uste izatean gauzek euren barruan dituztela haiengan agertzen zaizkigun koaliteteak; eta alferrik ari gara euliaren edo elefantearen gorputzaren barruan haiengan erreparatzen ditugun koaliteteak eta ahalak menpe dituen osaeraren bila. Eta horregatik, horiek ongi ulertzeko, horien bila, gure lur eta atmosferaz haraindi ez ezik, agian eguzkiaz eta oraindik gure begiek deskubritu ez duten izar urrunduenaz haraindi ere ibili beharko genuke. Zeren inola ere ez dugu zehazterik zenbateraino daudden gure ikuspegiak haraindiko kausen menpe gure lur honetako substantzia partikularren izatea eta jarduna. Ikusten eta hautematen ditugu inguruan ditugun gauzen higidura eta jardun lodienetako batzuk, baina makina bitxi hauei higiduran eusten eta egoera onean iraunarazten dien korrontea nondik datorren eta makina horiek nola gidatzen eta aldatzen diren jakitea gure ezagutzatik eta atzemateko ahalmenetik harago dago; eta unibertsoaren egitura harrigarri honen, horrela esaterik badut, atal eta gurpil nagusiek ukan dezakete, guk dakigunez, bata bestearekiko eragin eta jardunetan lotura eta menpekotasuna halako moldez, non agian gure bizileku honetan itxura erabat ezberdina erakutsiko luketen eta direna izateari utziko lioketen, baldin gudan-

dik ezin ulertzeraino urrun dauden izarrek edo gorputz handiek diren modukoak izateari edo higitzen diren moduan higitzeari utziko balio-te. Gauza bat da ziurra, alegia, gauzak, beren baitan erabatekoak eta osoak eman arren, naturaren beste atal batzuei atxikirikoak baino ez direla, hauen bidez daukagularik haien berri. Izan ere, gauzen koalitate, ekintza eta ahal hautemangarriak eurengandik kanpoko zerbaiti zor zaizkie; eta ez dago guk ezagutzen dugun naturaren atalik, bere izatea eta koallitateak bere inguruko izakiei zor ez izateraino osoa eta perfektua denik; eta gorputz batean dauden koallitateak ulertzeko, geure pentsamenduak gorputz horren azalerara mugatu barik, asko urrunago begiratu behar dugu.

12. *Substantzien esentzia nominalek haiei buruzko proposizio unibertsal ziur gutxi eskaintzen dizkigute.*

Hau horrela bada, ez da harritzekoa guk substantzien oso ideia inperfektuak edukitzea eta berauen propietate eta eragiketak euren menpe dituzten esentzia errealak guk inola ere ez ezagutzea. Haietan egon dauden haien atal nimiño eta aktiboen tamaina, irudi eta ehundura ere ezin ditugu deskubritu, eta are gutxiago beste gorputz batzuek kanpotik atal nimiño horiengan eragindako higidurak eta bulkadak, hauen menpe daudelarik eta hauen bidez guk haiengan erreparatzen ditugularik koallitate gehienak eta nabarmenenak, gure ideia konplexuen osagai direnak. Gogarpen horixe bakarrik da aski haien esentzia errealean ideiarik inoiz edukitzeko esperantza gal dezagun, hauen faltan berauen ordezt erabiltzen ditugun esentzia nominalak neurri oso urrian hornitu ahal izanzen gaituzte ziurtasun erreala eskaintzeko gai izan litekeen ezagutza orokorraz edo proposizio unibertsalez.

13. *Substantziei dagokienez probabilitate judizioa urrunago heda daiteke, baina hau ez da ezagutza.*

Ez gara, beraz harrituta geratu behar, ziurtasuna substantziei buruz egindako proposizio orokor oso gutxitan aurkitzen badugu; haien koallitate eta propietatez dugun ezagutza arras bakanki hedatzen da sentimenek haiei buruz eman ahal diguten informazioaz haraindi. Agian gizaki bilatzaile eta behazaleak, euren juzgamenaren indarrez, sakonago sar litezke eta, behaketa zehatzean oinarrituriko probabilitateen bidez, baita horretarako bildutako zenbait itxurantzekorren bidez ere, esperientziak aurkitu ez dien zerbaiti buruzko aieru zuzenak egin ditzakete. Baina aierutan geratuko dira beti; iritzira

baino ez dira heltzen, eta ez daukate ezagutzarako behar den ziurtasunik. Izan ere, ezagutza orokor oro geure pentsamenduetan baino ez datza eta geure ideia abstraktuak kontenplatzea besterik ez da. Euron artean adostasuna edo desadostasuna hautematen dugun guztian eza-
gutza orokorra daukagu, eta ideia horien izenak behar bezala proposi-
zioetan elkarrekin ipiniz, egia orokorrak ziurtasunez adieraz ditzake-
gu. Baina, izen espezifikoei esanahi zehatz eta bereizia dutenean
ordezkatzten dituzten substantzien ideia abstraktuek beste ideia gutxi-
rekin baino ez daukatenez lotura edo bateraezintasun aurkigarriak,
substantziei buruzko proposizio unibertsalen ziurtasuna oso mugatua
eta urria da haiei buruzko ikerketa nagusi dugun atal honetan; eta
substantzien ia izen batik ere ez dago, berau aplikatzen zaion ideia
zeinahi delarik ere, berari buruz orokortasunez eta ziurtasunez esan
dezakegunik badaukala edo ez daukala berari dagokion eta ideia
horrekin, edonon dela ere, beti koexistitzen den edo bateraezin den
koalitate hori edo bestea.

14. Zer behar den guk substantziak ezagutzeko.

Guk mota horretako ezagutza onargarriak eduki ahal izan
aurretik, beste hau ezagutu beharra daukagu, alegia, gorputz baten
lehen koalitateek beste gorputz baten koaliteteetan zer nolako aldake-
tak eragiten dituzten erregulari, eta nola. Bigarrenik ezagutu behar
dugu edozein gorputzen zein lehen koalitatek eragiten dituen sentipe-
nak edo ideiak gure baitan. Hau, benetan ere, materiak beronen bolu-
men, irudi, atalen kohesio, higidura eta atsedeneko aldaera ezberdinen
pean dituen efektu guztiak ezagutzea baino gutxiago ez da. Hau eza-
gutzea, ordea, nire ustez mundu guztiak onartuko duen moduan, zeha-
ro ezinezko zaigu errebelaziorik gabe. Eta errebelazioz azalduko bali-
tzaigu ere korpuskuluen nolako irudi, bolumen eta atalen higidurak
eraginen lukeen gudan kolore horiaren sentipena, edo gorputz baten
azalerako atalen nolako irudi, bolumen eta ehundura beharko lirateke-
en korpuskulu horiei aipaturiko kolorea eragiteko behar duten higidu-
ra egokia emateko, hau ez genuke aski izanzen haien espezie ezberdi-
nei buruz proposizio unibertsalak ziurtasunez egiteko, gure sentime-
nei eragiteko bide dituzten atal nimen horietan gorputzen bolumen,
irudi, ehundura eta higidura zehatza hautemateko moduko ahalmen
zorrotzak eduki ezean, ezagutza horren bidez guk haien ideia abstrak-
tuak eratu ahal izateko. Substantzia gorpuzdunak baino ez ditut

hemen aipatu, gure adimenaren neurrikoagoak diren eragiketak burutzen dituztenak. Zeren espirituen eragiketei dagokienez, hau da, pentsatzeko eta gorputzak mugitzeko duten ahalmenei dagokienez, gu lehen ikusian galduta aurkitzen gara, nahiz eta agian gero, gure pentsamenduak gorputzak eta euren eragiketak arreta handiagoz kontsideratzen jarri eta gure nozioak egitatezko arazoez harindi nolabaiteko ziurtasunez noraino heltzen diren aztertzen dugunean, aitortu beharra izanen dugun gure aurkikuntzak, honi buruz ere, ez doazela erabateko ezjakite eta ezgaitasunetik askoz harago.

15. Substantziez ditugun ideia konplexuek haien osaera errela - ren ideiarik ez daukatenez gero, proposizio ziur gutxi baino ezin izan - nen dugu egin haiei buruz.

Bistakoa da, substantzien izen orokorrek ordezkatzan dituzten ideia konplexuek haien osaera errealak hartzen ez dituztenez, ziurtasun unibertsal oso txikia ekarri ahal izanen digutela. Izan ere, substantziez ditugun ideiek haien osaera errealak barruan ez dituztenez, ez dute osagai gauza bat, alegia, substantzietan hautematen ditugun eta haien berri emanen liguketen koalitateak menpe dituen edo berauekin lotura ziurra daukan gauza. Adibidez, demagun gizaki izena ematen diogunaren ideia, normalean izan ere den moduan, hauxe dela: forma arrunteko gorputza, sentimena, nahitako higidura eta arrazoimena daukana. Hau bada gizaki espeziearen ideia abstraktua eta, beraz, esentzia, ideia hau ordezkatzuz proposizio orokor ziur oso gutxi egin ahal izanen ditugu, zeren forma bereziarekin batera sentimena, higimena eta arrazoimena menpe dituen eta subjektu berean batzen dituen osaera erreala ezagutzen ez dugunez, beste koalitate oso gutxi hautematen ditugu haiekin beharrezko lotura dutenak eta, beraz, ezin dugu ziurtasunez baieztatu hauetako ezer: gizaki orok aldika lo egiten dutela, ezein gizaki ezin elika daitekeela zurez edo harriz, gizaki oro pozoituko duela astaperrexilak, hain zuzen ere ideia horiek ez dutelako lotura edo aurkakotzarik aipatu dugun gizakiaren esentzia nominalarekin, izenak ordezkatzan duen ideia abstraktuarekin. Horrelako kasuetan eta horien antzekoetan subjektu partikularretan proba egitea jo beharra daukagu, eta honek ez du askorik ematen. Gainerakoetan probabilitatearekin konformatu beharra daukagu, baina ezin dugu ziurtasun orokorrik eduki, gizakiaz daukagun ideia espezifikoa osaera erreala, banaezinak zaizkion koalitateak batzen dituen eta dariz-

kiona, barruan ez daukan artean. Gizaki hitzak ordezkatzeko duen ideia koalitate eta ahal sentigarrien bilduma inperfektua den artean, ez dago lotura edo aurkakotza atzemangarrikerik gure ideia espezifikorekin eta astaperrexilaren edo harriaren atalek haren osakeran duten eragiketaren artean. Animalia batzuek lasai asko jaten dute astaperrexila eta beste batzuek zurez edo harriz elikatzen dira, baina koalitate eta ahal horiek eta antzekoak menpe dituzten espezie ezberdinetako animalien osaketa errealeko ideiak behar ditugun heinean, haiei buruzko proposizio unibertsalean ez dugu espero behar ziurtasuna erdiesterik. Gure esentzia nominalarekin lotura atzemangarria duten ideia gutxi horiek bakarrik horni gaitzakete proposizio horiez. Baina ideia horiek hain gutxi eta garrantzi txikikoak dira, non substantziez dugun ezagutza orokor ziu-rra hutsaren hurrengotzat jo dezakegun.

16. Proposizioen ziurtasuna zertan datzan.

Amaitzeko, proposizio orokorrak, nolana hikoak, honako hau betetzen dutenean bakarrik dira ziurtasunerako gai, alegia, euren erabilitako terminoek guk deskubritu ahal izateko moduko adostasuna edo desadostasuna daukaten ideiak ordezkatzeko dituztenean. Eta terminoek ordezkatzeko dituzten ideiak, bata besteari buruz baieztatzen edo ezeztatzen diren heinean, ados datozela edo ez datozela hautematen dugunean, orduantxe gaude ziur haien egiaz. Eta hemendik ohar gintezke ziurtasun orokorra geure ideietan baino ez dagoela. Ziurtasun hau beste nonbaiten, gugandik kanpoko esperimenduetan edo behaketetan bilatzen dugunean, gure ezagutza ez doa kasu partikularretatik harago. Geure ideia abstraktuak kontenplazteak soilik ekar diezaguke ezagutza orokorra.

VII. KAPITULUA

Maximez

1. *Maximak edo axiomak proposizio berez nabariak («self evident») dira.*

Bada proposizio mota bat, *maximak edo axiomak* deituak, zientziaren printzipiotzat hartzen direnak eta *berez nabariak* («self-evident») direlako mundu guztiak deritze sortzetikoak; baina inortxo ere ez da ahalegindu, nik dakidanik behintzat, euron argitasunaren edo indarraren arrazoia eta funtsa erakusten. Merezi lezake, hala ere, proposizio horiek aztertu eta nabaritasun hori beroriei bakarrik dagokien ikusteak, baita ere gure ezagutzetan zenbaterainoko eragina eta aginpidea duten aztertzeak.

2. *Berezkona baritasuna zertan datzan.*

Ezagutza, azaldu den moduan, ideien adostasuna edo desadostasuna hautematean datza. Orain, adostasun hori berehalakoan berez hautematen denean, beste ezeren esku-hartze edo laguntzarik gabe, orduan gure ezagutza berez da nabaria. Hau egia dela ikusiko du edonork, inolako frogarik gabe lehen ikusian baiespena ematen dien proposizio horietako edozein aztertuz gero, zeren guztietan aurkituko baitu baiespena emateko duen arrazoia haxe dela, alegia, adimenak, ideia horiek proposizioan dagoen baieztapen edo ezeztapenaren arabera berehala alderatuz, berorietan aurkitzen duen adostasun edo desadostasuna.

3. *Berezkoa baritasuna ez dagokie axiomatzat dauden proposizioei bakarrik.*

Hau horrela delarik, ikus dezagun orain berezko nabaritasun hau maxima izenaz onartzen diren eta axioma maila ematen zaien proposizioei bakarrik dagokien ala ez. Eta honetan argi dago axiomatzat onartzen ez diren beste hainbat egia ere berez nabariak direla. Hau ikusi ahal izateko nahikoa izanen dugu arestian aipatu ditudan adostasun edo desadostasunezko lau espezieak aztertzea, hau da, identitatea, erlazioa, koexistentzia eta existentzia erreala. Honek agerian jarriko digu berez nabariak, maximen sinesgarritasuna duten proposizio gutxi horiek ez ezik, beste proposizio asko eta asko ere badirela, amaigabe-ko kopuruan ia.

4. *Identiteari eta dibertsitateari dagokienez, proposizio guztiak dira era berean berez nabariak.*

Izan ere, *lehenik*, *identiteari* buruzko adostasunaren edo desadostasunaren funtsa gogamenak ideia bereiziak edukitzean datzan, ideia bereiziak bezainbeste proposizio nabari ditugula diosku honek. Ezagutzaren bat daukanak, beronen oinarri bezala, ideia ezberdin bereiziak ditu, eta gogamenaren lehenengo ekintza (hau barik ez da gai inolako ezagutzarako) bere ideietako bakoitza bere baitan ezagutzea eta besteetatik bereiztea da. Nork bere barruan ikusten du ezagutzen dituela dauzkan ideiak, ezagutzen duela, halaber, noiz dagoen ideia bat bere adimenean eta ideia hori zer den; eta adimenean ideia bat baino gehiago daudenean, bata bestetik bereizita eta nahasi gabe ezagutzen dituela. Eta hau beti horrela denez (ezinezko baita hautematen duena ez hautematea), ideiarenean bat bere adimenean dagoenean ezin du zalantzarik egin han dagoela eta den ideia dela, eta bere gogamenean bi ideia bereizi daudenean, hantxe daudela eta ez direla ideia bat bera. Hartara, baieztapen eta ezeztapen guztiok zalantza, ziurgabetasun edo ezbairako ahalbiderik gabe egiten dira eta ulertu bezain laster baietsi beharrakoak dira, hau da, guk geure gogamenean proposizioko hitzek ordezkatzan dituzten ideia zehatzak eduki bezain laster. Eta, horregatik, gogamenak ideia bat arretaz aztertu eta terminoek adierazitako eta bata besteari buruz baieztatu edo ezeztaturiko bi ideiak gauza bera direla edo ezberdinak direla hautematen duen guztian, ziurtasun hutsezinaz daki proposizio hori egia dela; eta era berean nahiz proposizioa ideia orokorrakoak ordezkatzan dituzten termi-

noez osatua izan nahiz ez hain orokorrezt, adibidez izakiaren ideia orokorra berari buruz baieztatzen denean honako proposizio honetan bezala: «badena bada», edo ideia partikularragoa ideia berorretaz baieztatzen denean, adibidez, «gizakia gizakia da»; edo zuria den oro zuria da; edo oro har izakiaren ideia ez-izakiari ukatzen zaionean, hauxe delarik (horrela esaterik badut) izakiarengandik diferentea den ideia bakarra, beste proposizio honetan bezala, «ezinezko da gauza bera izatea eta ez izatea»; edo izaki partikular baten ideia beronen-gandik diferentea den beste bati buruz ukatzen denean, adibidez, «gizakia ez da zaldia», «gorria ez da urdina» diogunean. Ideien arteko aldeak, terminoak ulertu bezain laster, proposizioaren egia ageriko bihurtzen du berehala, eta hau ziurtasun eta erraztasun beraz proposizio ez hain orokorretan zein orokorragoetan; eta guztia arrazoi bera-gatik, hau da, gogamenak berak daukan edozein ideietan ideia bera berberarekin bat bera delako; eta bi ideia ezberdin ezberdinak direla-ko, eta ez gauza bera; eta hau berdina da egia ziurra, ideia hauek orokorrak, abstraktuak eta hedatuak maila handiagoan zein txikiagoan izan. Berezko nabaritasun hau, beraz, ez dagokie eskubide bereziz proposizio bi hauei soilik, alegia, «badena bada» eta «ezinezko da gauza bera izatea eta ez izatea». Izatearen edo ez izatearen pertzepzioa ez dagokie gehiago *oro* eta *gauza* bezalako terminoek adierazitako ideia zehazgabeiei, beste ideia batzuei dagokien baino. Bi maxima orokor hauek, labur esanda hauexetara biltzen direnak, alegia, *gauza bera gauza bera da* eta *gauza bera ez da ezberdina*, kasu partikularretan ere ezagutzen dira, maxima orokor horietan bezalaxe, eta maxima orokor horietaz inoiz pentsatu baino lehenago dira ezagutuak gauza partikularretan, euren indar guztia gogamenak ideia partikularrez dihardunean duen bereizmenean datzalarik. Ez dago ezer agerikoagorik hauxe baino, alegia, gogamenak, inondiko frogaren edo aipaturiko proposizioei buruzko inolako hausnarketaren laguntzarik gabe, hain argi hautematen eta hain ziur ezagutzen duela zuriaren ideia zuriaren ideia dela eta ez urdinarena, eta zuriaren ideia gogamenean dagoenean hantxe dagoela eta ez dagoela handik at, non axioma horiek aintzat hartzeak ezin dion ezer gehitu gogamenaren ezagutzaren nabaritasunari edo ziurtasunari. Hori horrelaxe da (nork bere esperientzian egiazta dezakeen moduan) gizakiak bere gogamenean dituen ideia guztietan. Badaki, handiagoa ezin izan daitekeen ziurtasunez jakin ere, ideia bakoitza berbera dela eta ez beste bat, eta bere gogamenean dagoela

eta ez kanpoan han dagoenean, eta, horregatik, ezein proposizio orokorren egia ezin ezagut daiteke ziurtasun handiagoz, ezin diolarik ziurtasun honi ezer gehitu. Horrela, bada, identitateari dagokionez, gure ezagutza intuitiboa ideiak bezain luze hedatzen da. Eta ideia bereizientzat ditugun izenak bezainbeste proposizio berez nabari egiteko gai gara. Norbere gogamenean ikusteko eskatuko nioke nik jendea ia «zirkulua zirkulua da» proposizioa ez den «badena bada» termino orokorroagoez osatua bezain berez nabaria; eta era berean «urdira ez da gorria» gogamenak, hitzak ulertu bezain laster, dudatan ezin jartzeko moduko proposizioa ez den ikustea, axioma hura dudaezina den bezalaxe eta maila berean, alegia, «ezinezko da gauza bera izatea eta ez izatea». Eta gauza bera gertatzen da antzeko kasu guztietan.

5. *Koexistentiari buruz proposizio berez nabari gutxi dauka* gu.

Bigarrenik, bi ideiaaren artean *koexistentzia* edo lotura halatan beharrezkoa dagoenean, non subjektu batean bata egonik besteak ere nahitaez bertan egon behar duen, gogamenak adostasun edo desadostasun horren berehalako pertzepziorik ideia gutxitan baino ez du. Eta, horregatik, gure ezagutza intuitiboa labur ibiltzen da horrelakoetan, eta ez dago proposizio berez nabari askorik, batzuk badiren arren; adibidez, gorputzari bere azaleraren neurri bereko leku bat betetzearen ideia lotzen zaiolarik, uste dut proposizio berez nabaria dela honako hau, alegia, bi gorputz ezin dira leku berean egon.

6. *Beste erlazio batzuetan asko eduki ditzakegu.*

Hirugarrenik, *moduen erlazioez* matematikariek zenbait axioma moldatu dituzte berdintasunezko erlazioaren inguruan soilik, hala nola «berdinetatik berdina kentzen bada, berdina izanen da kendura». Baina, nahiz eta matematikariek proposizio hau eta mota horretako gainerakoak maximatzat onartu eta izan ere egia eztabaidaezinak izan, hala ere, uste dut eurok aztertzen jartzen den edozeinek aurkituko duela ez dutela jarraian datozenak baino berezko nabaritasun handiagorik, alegia, «bat gehi bat bi dira», edo «esku bateko bost atzamarretatik bi kenduz gero eta beste eskuko bostetatik beste bi, atzamar kopuru berdina eratuko da esku batean zein bestean». Horrelako mila proposizio aurki daitezke kopuruetan, entzun eta berehala baiepena ematea eragiten dutenak eta beren baitan axioma matematikoei adinako argitasuna daukatenak, handiagoa ez bada.

7. *Existentzia errealari buruz axioma batik ere ez daukagu.*

Laugarrenik, existentzia errealari dagokionez, honek geure buruaren eta Lehen Izakiaren ideiei buruz salbu gure beste ideietako batez ere loturarik ez duenez, beste izaki guztien existentziari buruz, ezagutza berez nabaririk ez ezik, frogapenezkorik ere ez daukagun. Eta, beraz, ez dago axiomarik horiei buruz.

8. *Axioma hauek ez dute eragin handirik gure beste axioma gutzetan.*

Orain azter dezagun zer nolako eragina duten axioma onartuok gure ezagutzaren beste ataletan. Eskoletan ezaguna den harako arau hark, arrazoinamendu oro *ex praecognitis et praeconcessis* dela dioenak, maximetan jartzen du beste ezagutza ororen oinarria eta *prae-cognita* direla suposatzen du. Horrek, nire ustez, gauza bi hauexek esan nahi ditu: lehenik, aipaturiko axiomak direla gogamenak lehenbizi ezagutzen dituen egiak, eta bigarrenik, gure ezagutzaren beste atalak berauen menpe daudela.

9. *Maximak edo axiomak ez direlako lehenbizi ezagutzen ditugun egiak.*

Lehenik, esperientziatik argi dago, azaldu dugun moduan (I. Lib., I. kap.) maximak ez direla gogamenak lehenbizi ezagutzen dituen egiak. Izan ere, inork ez du hautematen haurrak ziurtasunez dakiela kanpotar bat ez dela bere ama edo bere biberioa ez dela maki-la, «gauza bera izatea eta ez izatea ezinezko dela» jakin baino askoz lehenago? Eta zenbat egia ez ote dago kopuruei buruz, nahitaez konturatzen garen moduan gogamenak oso ongi ezagutzen dituenak, haiez erabat konbentzitzen delarik, matematikariek batzuetan euren arrazoibideetan aipatzen dituzten maxima orokor horiez inoiz pentsatu baino lehen? Eta honen arrazoia oso argi dago; gogoamenak horrelako proposizioei baiespena ematea eragiten duena bere ideien arteko adostasunaren edo desadostasunaren pertzepzioa besterik ez denez, ulertzen dituen hitzetan bata besteari buruz baieztaturik edo ezeztaturik aurkitzen dituen heinean, eta ideia bakoitza dena dela eta bi ideia ezberdin gauza bera ez dela jakina denez, ondorioz zera dator ezinbestez, egia berez nabarien artean, besteak baino lehenago gogamenean izandako ideiaz osaturikoak ezagutu behar direla lehenbizi. Eta lehenbizi gogamenean dauden ideiak, bistan da, gauza partikularrenak dira, adimenak berauetatik jotzen baitu, mailaka poliki-poliki, ideia

orokor gutxi batzuetara, eta ideia orokorrok sentimenen objektu arruntetatik hartuak izanik, gogamenean finkatzen dira berauek izendatzeko izen orokor eta guzti. Horrela *ideia partikularrak* dira gogamenak lehenbizi hartu eta bereizten dituenak, haiei buruzko ezagutza erdiesten duelarik, eta horien hurrengo, orokortasun eta espezifikotasun txikiena dutenak eta partikularren hurrengo mailan daudenak. Zeren ideia abstraktuak ez dira partikularrak bezain bidezkoak eta errazak haurrentzat edo gogamena gutxi erabilitakoentzat. Helduentzat badirela ematen badu, eguneroko eta etengabeko erabilerak erraz bihurtu dituelako da. Zeren honetaz gogoeta sakon samarra egiten badugu aurkituko dugu *ideia orokorrek* gogamenaren fikzioak eta imintzioak direla, zailtasunak dituztenak eta euren barrua guk uste bezain erraz eskaintzen ez digutenak. Triangeluaren ideia orokorra eratzeak (ideia abstraktuen, zabalen eta zailenen artekoa ez izan arren) kostatu egiten da eta trebezia behar du, ez baita izan behar ez eslaia («oblique») ez angelu zuzena, ez aldeakidea ez isoszelea ez eskalenoa, baizik hauetako bat ere ez eta guztiak aldi berean. Izan ere, inperfektua den zerbait da, existi ezin daitekeena; zenbait ideia ezberdin eta bateraezinen atalak bilduta egindako ideia. Egia da gure gogamenak duen egoera inperfektuan ideia horien premia daukala eta ahalegin guztiak egiten dituela horiek eratzeke, komunikaziorako eta ezagutza areagotzeko behar dituelako, berezko joera handia baitauka gauza bi horietarako. Baina batek badu arrazoirik mota horretako ideiak inperfekzio seinale direla susmatzeko, aurreko guztia nahikotzat hartzeko bederen agerian jartzeko ideia abstraktuen eta orokorrenak ez direla gogamenak lehenbizi eta errazen hartzen dituenak, ez eta bere ezagutza goiztiarrenekin erlazioan daudenak.

10. *Ezagutzaren beste atalak haien pertzepzioaren menpe ez daudelako.*

Bigarrenik, esandakotik argi ageri da maxima goretsiok ez direla gainerako gure ezagutzen printzipioak eta oinarria. Zeren hauek bezain berez nabariak diren beste hainbat egia badaude eta asko hauek baino lehenago ezagutu baditugu, ezinezko da maximak izatea beste egia guztiak deduzitzeko iturri ditugun printzipioak. Izan ere, ezinezko ote da bat eta bi hiru direla jakitea, «osoa batera harturiko bere atal guztien berdina da» proposizioaren bitartez izan ezean? Askok dira bat eta bi hiru direla dakitenak, hori frogatzeko erabilitako axioma hau

edo beste edozein inoiz entzun gabe eduki arren edo inoiz hartaz pentsatu ez izan arren: eta, jakin ere beste batek «osoa bere atal guztien berdina dela» edo beste edozein maxima dakien ziurtasun beraz daki hori; eta guztia berezko nabaritasunaren arrazoi beragatik, ideia bi horien berdintasuna hain bistakoa baitzaio axioma horiek gabe nola horiekin, ez baitu frogarik behar hori hautemateko. Eta osoa bere atal guztien berdina dela ezagutu ostean ez daki hori ezagutu aurretik baino hobeto edo ziurtasun handiagoz bat eta bi hiru direla. Zeren ideia hauen artean alderik badago hauxe baita, osoa eta atalak ideia ilunagoak edo behintzat gogamenan finkatzeko zailagoak direla, bat bi eta hiruren ideiak baino. Eta uste dut printzipio orokor haez gain ezagutza guztia printzipio orokor, sortzetiko, eta berez nabarien menpe egotea behar duten gizaki horiei galde niezaiekeela, aizue zein printzipio behar da bat eta bat bi, bi eta bi lau edo hiru bider bi sei direla frogatzeko? Baina hau jakitera inolako frogarik gabe hel daitekeenez, argi geratzen da edo ezagutza guztia ez dagoela *printzipioak deritzen praecognita* edo printzipio orokor batzuen menpe, edo bestela aipaturiko proposizioak printzipioak direla: eta hauek printzipioen artean sartu badira, zenbakirik asko printzipioak dira. Eta honi gure ideia bereizi guztien inguruan egin daitezkeen proposizio berez nabari guztiak gehitzen badizkiogu, ia amairik gabea edo kontaezinezkoa bederen izanen da gizakiek adin ezberdinetan ezagutzen dituzten printzipioen kopurua; eta sortzetiko printzipio hauetako asko ez dituzte euren bizitza guztian ezagutuko. Baina mota horretako egiak lehenxego ala geroxego aurkeztu gogamenaren aurrera, euren buruz ziur esan daiteke guztiak berezko («native») nabaritasunez ezagutzen direla, lokabeak direla erabat, elkarrengandik argirik ez dutela hartzen eta frogagai ez direla, are gutxiago partikularragoak orokorragoen bidez edo bakunagoak konposatuagoen bidez, bakunagoak eta abstrakzio gutxiagokoak baitira arruntenak eta lehenago eta errazago atzematen direnak. Baina direnak direla ideiarik argienak, horrelako proposizio guztien nabaritasuna eta ziurtasuna honako honetan dautza, alegia, gizakiak ikustean ideia bera ideia bera dela eta huts egiteko arriskurik gabe hautematen duela bi ideia ezberdin ideia ezberdinak direla. Izan ere, gizakiak bere adimenean baten eta biren ideiak, horiaren ideia eta urdinaren ideia dituenean, nahitaez jakin behar du ziur baten ideia baten ideia dela, eta ez biren ideia, eta horiaren ideia horiaren ideia dela, eta ez urdinarena. Zeren gizakiak ezin nahasi ditu bere gogame-

nean berizirik dauzkan ideiak, hau bereiz eta nahasian biak batera edukitzea litzateke eta, beraz, kontraesana; eta ideia bereizi bakar bat ere ez edukitzea gure ahalmenen erabilerarik ez edukitzea da, inolako ezagutzarik ez edukitzea. Eta horregatik edozein ideia ideia berorri buruz baieztatzen denean, edo edozein bi ideia erabat bereizi bata besteari buruz ezeztatzen direnean, gogamenak hutsezintasunez egiazkotzat eman behar dio nahitaez baiespena proposizio horri, terminoak ulertu eta berehala, ezbairik ez froga-beharrik gabe eta termino orokorragoz egindako maxima izeneko horietara jo beharrik gabe.

11. *Zein erabilera duten maxima edo axioma orokor hauek.*

Zer esanen dugu orduan, maxima orokor hauek ez al dute ezertarako balio? Inola ere ez, nahiz eta berauen baliagarritasuna ez den egotzi ohi zaien bezalakoa. Baina zeinbatzuek maxima hauei iratxekitakoari buruz zalantzarik txikiena ere egitea zientzia guztiak oinarritz gora ipintzeaz akusatua izateko motiboa denez, merezi dute agian maximok ezagutzaren beste arlo batzuekin duten erlazioan kontuan hartzea eta zertarako balio duten eta zertarako ez zehaztasun handiagoz aztertzea.

Ez dute balio orokortasun txikiagoko proposizioak frogatzeko ez eta ezein zientzia erakitzeko oinarri ere

1. Esana dugunetik argi dago ez dutela balio orokortasun txikiagoko proposizio berez nabariak frogatzeko edo berresteko.

2. Argi dago, halaber, ez direla inoiz izan ezein zientzia eraikitzeiko oinarri. Badakit eskolastikoez asko mintzo direla maximotan oinarrituriko zientziei buruz eta zabal hedatu dutela euren iritzi hau, baina nik neuk, zorte txarrez jakina, ez dut inoiz horrelako zientziarik topatu, eta are gutxiago aipaturiko bi maxima hauetan oinarriturik, alegia, *badena bada* eta *ezinezko da gauza bera izatea eta ez izatea*. Atseginez hartuko nuke norbaitek erakutsiko balit hauen edo beste axioma orokor batzuen gainean eraikitako zientziaren bat eta esker ona agertuko nioke norbaitek erakutsiko balit zientziaren baten egitura eta sistema maxima hauen edo antzekoen gainean halatan eraikita dagoela, non ezin izanen litzatekeen ikusi haiek gabe ere tinkotasun berdinez legokeela zutik. Nik galdetzen dut ea maxima orokor hauek jainkotasunari buruzko azterketetan eta auzi teologikoetan ez duten beste zientzietan dute baliagarritasun bera. Teologian ere liskarzaleei ahoa ixteko eta eztabaidei bukaera emateko balio dute. Baina hortik

inork ez du esanen kristau erlijioa maxima horien gainean eraikita dagoela edo berari buruz dugun ezagutza printzipio horietatik deduziturikoa dela. Errebelazioz hartuta dugu hori eta errebelaziorik gabe maxima horiek inoiz ez gintuzkeen horretara heltzen lagundu. Ideia bat aurkitu eta beronen bidez beste bi ideiaren arteko lotura deskubritzen dugunean, hori Jainkoak arrazoimenaren ahotsaren bidez egiten digun errebelazioa da, guk orduan aurretik ezagutzen ez genuen egia bat ezagutzen dugulako. Jainkoak egiaren bat adierazten digunean, hori bere espirituaren ahotsaren bidez egiten digun errebelazioa da, eta ezagutzan aurrerapausoa egiten dugu. Baina kasu biotako batean ere ez dugu jasotzen argia maxima horietatik. Aitzitik, lehenengoan gauzek eurek dakarkigute argi hori eta euren arteko adostasuna edo desadostasuna hautemanez ikusten dugu beraien egia. Bestean, Jainkoak berak dakarkigu zuzenean argia, eta berak dioenaren egiatasun hutsezinean ikusten dugu egia.

Ez dute balio ezagutze dugun egiak aurkitzen laguntzeko ere.

3. Ez dute balio, ezta ere, gizakiei zientzietan edo ezagutzeke ditugun ideien aurkikuntzan aurrera egiten laguntzeko. Newtonek, behar bezala inoiz miretsiko ez den bere liburuan zenbait proposizio frogatu ditu, munduak ezagutzeke zituen beste hainbat egia direnak, baita ezagutza matematikoetan aurrerapausoak ere; baina hauek deskubritzen ez zioten lagundu «badena bada» edo «osoa bere atala baino handiagoa da» bezalako maxima orokorrek. Ez ziren horiek izan proposizio horien egia eta ziurtasuna aurkitzera eraman zutenak. Eta ez zuen horien bidez erdietsi frogapen horien ezagutza, frogatu zituen proposizioetan adierazitako egien adostasuna edo desadostasuna agerian jarri zioten bitarteko ideiak aurkituz baizik. Horixe da giza adimenak ezagutzaren hedapenean eta zientzien aurrerapenean izan duen jardunik eta aurrerapausorik handiena, honetan ez duelarik, hurrik eman ere, inongo laguntzarik hartzen aipaturikoak edo antzeko maxima goraiatuak aztertzetik. Proposizio horien mireспен tradizional hori hain goian dute horiek, non pentsatzen duten axiomaren baten laguntzarik gabe ezagutzan urratsik egiterik ez dagoela, ez eta zientzien eraikuntzan harriarik jartzerik ere maxima orokorren euskarririk gabe; baina, baldin horiek ezagutza eraikitzeke metodoaren eta komunikatzekoaren artean, zientzia eraikitzeke eta zientzia hori eraiki den neurrian beste batzuei irakasteko metodoaren artean bereiziko balute,

ikusiko lukete maxima orokor horiek ez direla lehenengo asmatzaileek euren egitura miresgarriak zutik jartzeko behar izan zuten oinarria, ez eta haiei ezagutzaren sekretuen atea ireki dien giltza ere. Hala ere gero, eskolak eraiki zirenean eta zientziak inork asmaturikoa irakasteko irakasleak ukan zituztenean, sarri baliatu ziren maximez, hau da, proposizio berez nabariak edo egiaztatu hartu beharrekoak erabili zituzten, euren ikasleei egia eztabaidea gisa gogamenen ezarri, eta parada zegoenean ikasle horiek kasu partikularren egiaz konbentzitzeko erabiltzen zituzten, hots, lehenago irakasleek buruan sarturiko eta gogamenen hain arta handiz finkarazitako axioma orokorrak bezain ohikoak ez zitzaizkien kasu partikularren egiaz, nahiz eta kasu partikular horiek, beraiei buruz gogoeta eginez gero, ez duten adimenarentzat berezko nabaritasun gutxiagorik berauek berresteko ekarritako maxima orokorrek baino. Lehen asmatzaileak, berri, kasu partikular horietan aurkitu zuen egia, maxima orokorren laguntzarik gabe, eta gauza bera egin dezake arretaz aztertzen dituen beste edozeinek ere. Maximak zertarako balio duten aztertzeri etorri, beraz:

Maximak baliagarriak dira aurkiturik dagoena azaltzeko, baita liskarzale tematiak isilarazteko ere

1. Maximak baliagarriak dira, seinatu den moduan, zientziak, aurrera egin duten punturaino, irakasteko dauden ohiko metodoetan; baina balio gutxiak edo bat ere balio gabekoak zientzietan aurrera egiteko.

2. Eztabaidetan ere baliagarriak dira, liskarzale tematiak isilarazteko eta horrelako zezioei amaiera emateko. Hemen irakurlearen baimena behar dut, maximak erabiltzeko premia jarraian azaltzen den moduan sortu ez ote zen aztertze. Eskolek eztabaida gizakiaren trebetasunen froga-harri eta ezagutzaren irizpide bihurtu dutelarik, guda-zelaian irauten zuenari ematen zioten garaitza, eta azken hitz egiten zuena jotzen zen argudiatzailerik hoberentzat, kausa onenaren eusleztat ez bazen. Baina era honetan borrokalari trebeen artean ebazpiderik ez egotea erraz gerta zitekeenez bata edozein proposizio frogatzeko *medius terminus*en bat aurki zezakeen artean, eta besteak ere, bereizketa eginda edo egin gabe, nagusia edo txikia lehenengoaren iraunkortasun beraz uka zezakeen artean, eztabaidak, ahal zen neurrian, amairik gabeko silogismo txorta bihurtzea ekiditeko, Eskoletan zenbait proposizio orokor —gehienak berez nabariak, noski— sartu

ziren. Eta gizaki orok baiespen osoz onartzeko modukoak izaki, egia-
ren neurri orokortzat hartu ziren eta printzipioen ordeztarabili ziren
(eztabaidariek euren artean beste printzipiorik ezarri gabe ari zirene-
an), batak zein besteak gaingitu ezinezkoak eta eurenaganatu beharre-
ko printzipioak zirelarik. Eta horrela maxima horiei printzipio izena
eman zitzaizen eta eztabaidan ukatu ezineko printzipioak zirenez, eza-
gutza ororen jatorri eta iturburutzat eta zientzien eraikuntzako oina-
rritzat hartu ziren erratuta, zerengatik, euren eztabaidetan horietako batera
heldzen zirenean hantxe geratzen ziren aurrerago egin barik, eta auzia
amaituta zegoen. Baina zenbeteko errakuntza den hau, azaldu da
aurrerago.

Nola heldu ziren maximak hain modan egotera.

Ezagutzaren iturritzat hartu zen eskolen metodo honek maxi-
men antzeko erabilera sartu zuela uste dut eskoletatik kanpoko sola-
saldi askotan ere lardaskatzaileei ahoa ixteko, zerengatik printzipio orokor
berez nabari horiek, eurentzat pentsatu duen gizaki zentzudun orok
onartzen dituenak, ukatzen dituztenean, haiekin eztabaidan ez jarrai-
tzeko arrazoizko aitzakia aurkitzen baitu edonork; hala ere, kasu
honetan eztabaidari amaiera ezartzeko baino ez dute balio. Maxima
horiek, egiaztan, kasu horietan bestea estutzeko erabiltzen direnean, ez
dute ezer irakasten, hau jada egina baitago debatean erabilitako bitar-
teko ideien bidez, berauen lotura maxima horien laguntzarik gabe ikus
baitateke, halako moldeztan non egia maxima sortu aurretik eta arrazoi-
namendua lehen printzipioetara heldu aurretik albo batera utziko lituz-
kete okerreko argudioak, baldin eztabaidetan helburu, ika-mikan
garaile irteeta barik, egia bilatu eta onartzea balute. Eta horrela maxi-
mek inozoak nahasteko adina talentu dutenen gaiztakeriari amaiera
ezartzeko balioko lukete. Baina eskoletako metodoek gizakiak egia
nabariei aurre eta kontra egiteko baimendu eta horretara bultzatu
dituztenezt gero, kontraesanetara behartuak izan arte edota printzipio
finkatuei eraso arte, ez da harritzekoa ohoregarri dena eta eskoletan
bertutetzat eta loriatzat hartzen dena elkarriketa arruntean lotsarik
gabe egitea, hau da, eurak aukeraturiko auziaren aldeari, egiazkoa zein
faltsua izan, azken muturreraino eutsi, horrela ez dela konbentziturik
egonda ere. Metodo bitxia da hau egia eta ezagutza erdiesteko; mun-
duan sakabanaturik dagoen zentzuzko jendeak, heziketak oraindik ere

kutsatu gabeak, nekez sinetsiko duela uste dut, egiaren maitale aurkezten diren pertsonak, erlijioa eta natura ikasten dutenek, ezjakinen edo sineste gabekoen artean erlijioa edo filosofiako egiak zabaltzeko antolaturiko seminarioetan sarturikoek, halako metodoari men egiten diotela. Ez dut hemen aztertuko heziketa mota honek zenbateraino alden dezakeen gazteen gogamena egiaren bilaketa zintzotik eta maitasunetik, ez eta —are gutxiago— zenbateraino, aldiz, eraman ditzakeen gazte jende hori munduan egia zinezkorik ba ote den edota atxikimendurik merezi ote duen zalantzatan jartzera. Benetan sinesten dut, ordea, maxima hauek ez direla inon ere hartuak izan zientzien oinarritzat edota gauzen ezagutzan aurrera egiteko laguntza handikotzat, euren eskoletan filosofia peripatetikoa onartu duten lekuetan izan ezik, hauetan mendeetan zehar agindu baitu filosofia honek, munduari eztabaidaren artea besterik irakatsi gabe.

Baliagarritasun handikoak dira eztabaidetan liskarzaleei ahoa ixteko, baina txikikoak egiak aurkitzeko.

Maxima orokor hauek, horregatik, baliagarritasun handikoak dira, esan dudan moduan, eztabaidetan liskarzaleei ahoa ixteko, baina ez dute asko balio egia ezezagunak aurkitzeko edota gogamenari egiaren bilaketan aurrera eragiteko. Zeren nor hasi da inoiz bere ezagutza eraikitzen *dena bada*, edo *ez neko da gauza bera izate eta ez izate* bezalako proposizioetan oinarrituta, eurotatik, zientzi printzipioak bailiran, ezagutza baliagarriko sistema bat deduzitzeko? Okerreko iritziak maiz kontraesanak dituztenez, maxima horietako batek balio lezake froga-harri moduan kontraesanok zertan dautzan aurkitzeko. Baina, gizakiaren arrazoinamendu edo iritziaren zentzugabekeria edo errakuntza agerian jartzeko egokiak izanik ere, oso gutxi baino ez dute balio giza adimena argitzeko, eta ikusiko da gogamenak ez duela haien laguntza handirik hartzen ezagutzan aurrera egiteko, aurrerapausook ez liratekeelarik gutxiago ez eta ziurtasun gutxiagokoak ere proposizio horiez sekula pentsatu ez izanagatik. Egia da, esan dudan moduan, balio dutela argudiaketan lizkarzaleei ahoa ixteko, diotenen absurderia agerian jarritz eta mundu guztiak onartzen duena eta berek ere nahi-taez egiazat daukatena ukatu beharraren lotsa pasaraziz. Baina gauza bat da gizaki bati erratuta dagoela ikusaraztea eta beste bat diferentea gizaki hori egiaren jabe egitea, eta biziki gustatuko litzaidake jakitea zein egia irakasteko gai diren proposizio bi horiek eta euren eraginez

lehen ezagutu gabeko edo ezagutu ezineko zein egia ezagutzera hel gaitzkeen. Arrazoi dezagun ahalik ongien proposizio bi horietatik hasita, eta ikusiko dugu identitateari buruzko predikatuak baino ez direla eta eragina ere, eraginik badaukate, horrexen ingurukoa baino ez dela. Identitateari edo dibertsitateari buruzko proposizio partikular oro aipaturiko bi proposizio orokorrak bezain argi eta ziur ezagut daitezke beren baitan, arretaz aztertuz gero; proposizio orokor horiek, kasu guztietarako balio dutenez, irakatsiagoak eta aipatuagoak izan dira. Beste maxima ez hain orokorrei dagokienez, hauetako gehienak hitzezko proposizio hutsak baino ez dira eta izenek elkarrekin duten erlazioa eta garrantzia besterik ez digute irakasten. «Osoa bere atal guztien berdina da» proposizioak zein egia erreal, galdetzen dizuet, irakasten digu? Zer gehiago dauka barruan maxima horrek *totum* edo *oso* hitzak berez esan nahi duena baino? Eta oso hitzak bere atal guztiak osatzen dutena ordezkatzan duela dakienak osoa bere atal guztien berdina dela dakienak baino gutxi gutxiago daki. Eta, zentzu honetan, «muinoa ibarra baino garaiagoa da» eta horrelako proposizioak maximatzat jo daitezke. Baina, hala ere, matematikako irakasleek berek dakienaren ezagutzan beste batzuk sartzen saiatzen direnean, horrelakoxe maximak jartzen dituzte, ez arrazoirik gabe, euren sistemaren hasieran, ikasleek hasieratik euren pentsamenduak termino orokorretako proposizio horietara eginda edukirik, horrelako hausnarketak egiten ekandu daitezten eta proposizio orokor horiek, arauak eta esakerak eratuta, kasu partikularretara aplikatzeko prest eduki ditzaten. Egia esan, neurri beraz neurtuz gero, adibide konkreituak berresteko erabiltzen ditugun maximak ez dira kasu partikularrak baino argiagoak edo nabariagoak, baina, gogamena eurotara ohituta egonik, maximak aipatze hutsa aski da adimena konforme uzteko. Baina hau, diot nik, haietaz baliatzeko ohitura dugulako eta haietaz maiz pentsatzean gure gogamenetan ezartzea lortu dutelako gertatzen da gehiago, gauzen nabaritasun («evidence») ezberdinagatik baino. Baina ohiturak gure gogamenean pentsatzeko eta arrazoitzeko metodak ezarri baino lehen, esanen nuke hau oso bestela gertatzen dela eta haurrak sagarrari zati bat jan dionean, maxima hori kasu partikular horretan hobeto ezagutzen duela, «osoa bere atal guztien berdina da» proposizio orokorraren bidez baino; eta bietako batek bestearen premiarik edukitzera, orokorrak partikularren bidez gogamenean sartzeko premia handiagoa dauka, partikularrak orokorraren bidez sartzeko daukan baino. Zeren gure ezagutza, hasi, *partikularre* -

tan hasten da eta mailaka poliki-poliki *orokorretara* hedatzen, nahiz eta gero gogamenak erabat alderantzizko bidea hartzen duen eta bere ezagutza ahalik proposizio orokorrenetara bilduz, bere pentsamenduak haietara ekantzen dituen eta beraietara jotzen ohitzen den, egia-aren eta faltsutasunaren irizpidetzat hartuz. Eta, horrela, beste proposizioen egia neurtzeko erregelatzat hartzen ohituz, denborarekin zera pentsatzera heltzen da, alegia, proposizio partikularragoen egia eta nabaritasuna proposizio orokorragoekin duten adostasunean dautzala, hauek diskurtsoetan eta argudiaketetan oso maiz erabiltzen eta beti onartzen direlarik. Eta horixe da, nire ustez, hainbeste proposizio berez nabariren artean, maximen titulua *orokorrenak* *xiilik* lortu izanaren arrazoia.

12. *Maximek, hitzen erabileran konturik hartu ezean, kontresan frogatzen ditzakete.*

Uste dut beste gauza bat ere seinaltatu behar dela maxima orokorroi buruz, alegia, gure adimenetan egiazko ezagutza ezartzetik edo aurrera bultzatzetik hain urrun daudela, non, gure nozioak okerrekoak, zehazgabeak edo ezegonkorak badira eta gure pentsamenduak, gauzen ideia iraunkor eta zehatzetan finkatu beharrean, hitzen soinuarekin lotzen baditugu, ideia orokor hauek gu errakuntzetan tinkatzeko balioko baitute, eta oso ohikoa den hitzen erabilera honetan kontraesana frogatzeko balioko baitute; adibidez, Descartesi jarrai berak gorputza deitzen duenaren ideia eratuz hau hedadura besterik ez dela uste duenak aise frogatuko du hutsunerik ez dagoela, hau da, gorputzik gabeko espaziorik ez dagoela, *badena bada* maximaren bidez. Zeren gorputz izena ezartzen dion ideia hedadura hutsa izanik, gorputzik gabe espaziorik ez dagoela diotson ezagutza egiazkoa da. Izan ere, bere ideia argi eta bereiziki ezagutzen du eta badaki dena dela, eta ez besterik, nahiz eta hiru izen —hedadura, gorputza, espazioa— hartzen dituen. Eta hiru hitz horiek ideia bat bera ordezkatzeko dutenez, bata besteari buruz bakoitza berberari buruz bezalakoxe nabaritasun eta ziurtasunaz baieztatu daitezke; eta, hirurak ideia bera ordezkatzeko darabiltzadan heinean, hain egiazkoa eta identikoa da «espazioa gorputza dela» nola egiazkoa eta identikoa den hala esanahian nola soinuan «gorputza gorputza dela».

13. *Hutsunearen adibidea.*

Baina beste norbaitek Descartesenarena ez bezalako gorputza-
ren ideia eratzen badu, hala ere Descartesen izen bera erabiliz gorpu-

tza deitzen diona, eta gorputz hitzaz adierazten duen ideia espazioa eta solidotasuna den zerbait ordezkatzeko erabiltzen badu, Descartesek kontrakoa bezain aise frogatu ahal izanen du izan daitekeela gorputzik gabeko hutsunea edo espazioa. Izan ere, espazio izena ezartzen dion ideia hedaduraren ideia bakuna baino ez delarik eta gorputz izena ezartzen dion ideia subjektu berean bildutako hedaduraren eta erresistibilitatearen edo solidotasunaren ideia konplexua denez, bi ideia hauek ez dira bat eta berbera, baizik adimenean guztiz ezberdinak, hain zuzen ere baten eta biren, zuriaren eta beltzaren, *gorputza* - *sunaren* eta *gizatasunaren* ideiak bezain diferenteak, hain termino barbaroak erabiltzerik badut; eta horregatik haien predikazioa gure gogamenetan edo ordezkatzan dituzten hitzetan ez da identitatekoa, bata besteari buruz ezeztatzekoa baizik, adibidez proposizio honetan: «hedadura edo espazioa ez da gorputza» beste maxima hau bezain egiazkoa eta nabaria da: *ezinezko da gauza bera izatea eta ez izatea*.

14. *Maxima hauek ez dute frogatzen gugandik at gauzarik existitzen denik.*

Baina proposizio bi horiek, ikusten duzuenetz, era berean froga daitezkeen arren, alegia, izan daitekeela hutsunea eta ezin izan daitekeela hutsunea, horretarako printzipio ziur bi hauek erabiliz, alegia, *badena bada* eta *ezinezko da gauza bera izatea eta ez izatea*, hala ere biotako batek ere ez digu balio gorputzen bat existitzen dela frogatzeko edo gorputz hori zein den jakiteko, zeren sentimenak baino ez baititugu euren laguntzaz, horretarako ahala duten heinean, horiek deskubritzeko. Printzipio unibertsal eta berez nabari hauek geure ideia orokorrenez eta hedatuenez daukagun ezagutza iraunkor, argi eta bereizia baino ez direnez, ezin digute eskaini gugandik at gertatzen den ezeren ziurtasunik. Izan ere, haiekiko ziurtasuna ideia bakoitzari buruz, bere baitan hartuta, eta beronen beste batzuekiko ezberdintasunari buruz daukagun ezagutzaren gainean soilik oinarritzen da, horiei buruz ezin garelarik oker egon gure gogamenean dauden bitartean, nahiz eta egon gaitezkeen eta maiz egoten garen oker izenak ideiarik gabe atxikitzen ditugunean, edo nahasita erabiltzen ditugunean behin ideia bat behin beste bat adierazteko. Eta kasu horietan axioma horien indarrak, hitzen esanahira barik soinura soilik heltzen delarik, gu nahasmendura, zalantza eta errakuntzara eramateko baino ez du balio. Ohar hau egiten badut, gizakiei adierazteko da maximek, egia-

ren babesleku nagusitzat aldarrikatzen diren arren, ez dituztela errakuntzatik zainduko, hitzak ardurarik ez zehaztasunik gabe erabiliz gero. Bestela, maximez esaten ibili naizen guztian, hau da, ezagutza aurrera bultzatzeko duten baliagarritasun eskasaz edo zehaztasunik gabe erabiliz gero sortzen duten arriskuez iradokizunak egitean, beti urrun ibili naiz batzuek arinegi egotzi didatena, hau da, albo batera utzi behar direla esatetik edo horretan saiatzetik. Nik egiak, egia berez nabariak direla diot, eta beraz, ezin direla albo batera utzi. Dena dela haien eraginaren irispidea, alferrik da eragin hori murrizten saiatzeara eta ni neu ez naiz horretan ibiliko. Baina, hala ere, egiari edo ezagutzari inolako irainik egin gabe, arrazoiak ditut uste izateko maximen baliagarritasuna ez dela eurretan, dirudienez, jarri den indar guztiaren neurrikoa, eta ohartaraz ditzaket gizakiak axiomak gaizki erabil ez ditzaten, beren errakuntzetan tinkoago sartuta irauteko.

15. *Maximek ezin diote ezer gehitu substantziez dugun ezagutzari, eta maximak ideia konplexuei aplikatzea arriskugarria da.*

Maximek, hitzeko proposizioetan nahi den baliagarritasun guztia ukanik ere, ezin digute erakutsi edo frogatu substantzien izae-rari buruzko inolako ezagutzarik esperientziak erakusten digunaz haraindi, substantziok gugandik at existitzen diren heinean. Eta printzipioak deritzen aipaturiko bi proposizioen ondorioa oso argia izan arren eta haien erabilpena arriskugarria ez kaltegarria ez izan arren, frogapena egiteko maxima horien laguntzarik inola ere behar ez duten gauzak frogatzeko erabiltzean, haiek gabe berenez direlako argiak, hau da, gure ideiak berauek ordezkatzan dituzten izenez zehaztuak eta ezagutuak direnean, hala ere printzipio bi horiek, esana nahi baita, *dena, bada* eta *ezinezko da gauza bera izatea eta ez izatea*, ideia konplexuak ordezkatzan dituzten hitzez —gizakia, zaldia, bertutea, adibidez— osaturiko proposizioak frogatzeko erabiltzen direnean, orduan arriskutsuak dira izugarri eta gehienetan faltsutasuna egia garbitzat eta ziurgabetasuna frogapentzat hartzera eramaten dute gizakia, eta hemendixek datoz errakuntza, egoskortasuna eta oker arrazoitzetik sorturiko gaitz guztiak. Hau ez da gertatzen printzipio hauek egiazkotasun edo indar gutxiago dutelako ideia konplexuak ordezkatzan dituzten terminoz osaturiko proposiziak frogatzean, proposizioak ideia bakunei buruz direnean baino, beste honegatik baizik, alegia, gizakiak eskuarki erratu egiten direlako uste izanez termino berek

dirautenean, proposizioek gauza berei buruz direla, termino horiek ordezkatzan dituzten ideiak zinez ezberdinak izan arren. Horrela maxima horiek soinu eta itxuraz proposizio kontraesankorrak direnak sostengatzeko erabiltzen dira, eta argi ageri da arestian aipaturiko hutsuneari buruzko frogapenetan. Hartara, gizakiek, egin ohi duten bezala, hitzak gauzatzen hartzen dituztenean, maxima horiek proposizio kontraesankorrak frogatzeko balio lezakete eta eskuarki horrextarako balio dute, luzeago azalduko duduan moduan.

16. *Hitzekoa baino izan ezin den gizakiari buruzko frogapenaren adibidea.*

Esate baterako, demagun printzipio horien bidez *gizakiari* buruz zerbait frogatu nahi dugula; laster ikusiko dugu frogapena printzipio horien bidez egin nahi den heinean hitzekoa baino ez dela eta ez digula ematen gugandik at existitzen den ezein izakiren proposizio edo ezagutza ziur, unibertsal eta egiazkorik. Lehenik, haur batek gizaki baten ideia eratzen duenean, ziurraski haren ideia pintore batek gizaki horren ageriko itxurak batuz egingen lukeen koadroaren antzantzekoa izanen da, eta bere adimenaren bilduriko ideien horrelako konplikazioak egiten du gizakia deitzen dion ideia konplexu bakarra eta gizakiaren kolorea Ingalaterran zuria edo haragi-kolorea denez, haurrak frogatzen diezazuke beltza ez dela gizakia, kolore zuria gizakia deitzen dion ideia konplexuan beti dagoen ideia bakun bat delako; eta horregatik *ezinezko da gauza bera izatea eta ez izatea* dioen pintorearen bidez frogatzen dezake beltza ez dela gizakia. Eta haurraren ziurtasunaren funtsa ez da proposizio unibertsal hori, agian inoiz ere ez baitu hartaz entzun ez pentsatu, baizik zuriaren eta beltzaren ideia bakunez duen pertzepzio argi eta bereizia, ezin dituelarik nahasi ez bata bestetzat hartu, maxima hori ezagutu ala ez. Eta haur honi, edo gizakia deitzen dion ideia bera duen beste edonori, ezin diozu inoiz frogatu gizakiak arima daukala, gizakiaz duen ideiak ez duelako barne hartzen nozio edo ideia hori. Eta horregatik haren iritzirako *badena bada* printzipioak ez du puntu hori frogatzen, hori gizakia deritzan ideia konplexua eratze behar dituen bildumaren eta behaketaren menpe baitago.

17. *Beste adibide bat.*

Beste batek, gizakia deitzen dion ideia eratze eta biltzeko harago joanez, kanpoko formari barrea eta diskurtso arrazionala gehi-

tzen badizkio, haurrak eta ergelak gizakiak ez direla froga lezake, *ezi-nezko da gauza bera izatea eta ez izatea* dioen maximaren bidez; eta niri neuri gertatu zait horiek gizakiak direla benetan ukatzen zuten oso pertsona zentzudunekin eztabaidatzea.

18. *Hirugarrenadibidea.*

Beste batek beharbada gizakia deitzen dion ideia konplexua oro har gorputzaren ideiaz eta mintzamenaz eta arrazoimenaz osa lezake, forma erabat kanpoan utziz. Orduan honek frogatu ahal izanen du gizakia esku gabekoa eta lau hankakoa izan daitekeela, bata ere ez dagoelako gizakiaz duen ideiaren baitan. Eta edozein gorputzetan edo gorpuzkeratan mintzamina edo arrazoimena aurkitzen baditu, han gizakia dago, zeren, ideia konplexu horren ezagutza argia duenez, gauza ziurra da *badena badela*.

19. *Maxima horiek ez dute asko balio ideia argi eta bereiziak ditugun frogapenetan.*

Era horretan, ongi pentsatuz gero, uste dut esan genezakeela gure gogamenetan ideia zehaztuak ditugunean eta ideioi izen ezagun eta finkoak ezarri dizkiegunean zehaztapenen arabera, ez dagoela maxima horien premia handirik eta are inondiko emendiorik ez dutela egiten, haien adostasuna edo desadostasuna frogatzeko. Horrelako proposizioen egia edo faltsutasuna maxima horien edo antzekoen laguntzarik gabe bereizi ezin duenak ez du horretarako laguntza handirik aurkituko maxima horietan, zeren maxima horien berorien egia ere ezin izanen baitu frogarik gabe ezagutu, baldin horiek bezain berez nabariak diren beste batzuen egia frogarik gabe ezagutu ezin badu. Horregatik, ezagutza intuitiboak ez du bere atal batean bestean baino froga handiagorik behar eta onartu ere ez du egiten. Baietz uste duenak egutza eta ziurtasun ororen oinarria suntsitzen du eta bi eta bi lau direla dioen proposizioaz ziur egoteko eta beroni baiespena emateko frogaren bat behar duenak, «*badena badela*» onartzeko ere froga beharko du nonbait. Bi ez direla hiru, zuria ez dela beltza, triangelua ez dela zirkulua edo beste edozein bi ideia zehaztu eta bereizi ez direla bat bera konbentzimendu osoz onartzeko frogapena behar duenak, *ezi-nezko da gauza bera izatea eta ez izatea* maximaz konbentzitzeko ere frogapena beharko du.

20. *Maximen erabilera arriskugarria da gure ideiak zehaztuak ez direnean.*

Maximek ideia zehaztuak ditugunean askorik balio ez duten bezala, erabilera arriskugarrikoak dira, arestian azaldu dudan moduan, gure ideiak zehaztuak ez direnean eta, ideia zehaztuei loturiko izenak erabili beharrean, esanahi lanbrotsu eta lokakoak eta behin ideia bat behin beste bat ordezkatzan dutenak erabiltzen ditugunean. Eta hemendik nahasmendua eta errakuntza datoz, ideia zehazgabeen ordain diren terminoez osaturiko proposizioak ezartzeko erabilitako maximek, duten itzalagatik, nahasmendua berresten eta finkatzen baitute.

VIII. KAPITULUA

Azaleko proposizioez

(«Of trifling propositions»)

1. *Proposizio batzuek ez dakarte gure ezagutzaren gehikuntzarik.*

Beste batzuek juzgatzeko uzten dut ea aurreko kapituluan aztertu ditugun maximek ezagutzarako hainbesteko baliagarritasuna duten ala ez. Hau behintzat segurtasunez esan daitekeela uste dut, alegia, proposizio unibertsal batzuk daudela, dudarik gabeko egiak izan arren, gure adimenari argitasun gehiagorik ekartzen ez diotenak, gure ezagutza hazten ez dutenak. Halakoak dira:

2. *Lehenik, proposizio identiko huts guztiak.*

Argi ageri da lehen ikusian horrelako proposizioak ez dutela beren baitan inolako informaziorik, zeren esandako terminoari buruz termino berbera baieztatzen dugunean, nahiz hitzezko hutsa izan termino hori, nahiz ideia argi eta errealean bat eduki barruan, proposizio horrek, geuk formulatzen edo beste batek geuri formulatzen digunean, aurretik ziurtasunez jakin behar izan dugun zerbait baino ez digu erakusten. Jakina, *badena bada* proposizio orokorrenak balio lezake inoiz guk argi ikusteko nolako absurdukerian jausi garen, kasu partikularretan zerbaiti buruz gauza berbera ezeztatu dugunean itzulingueruez edo hitz ekibokoez baliatuta, ezin dugulako ageri-agerian jokatzen sen komunaren aurka hitz argiez kontraesan nabarmen eta garbiak baieztatzeraino; eta egiten badugu, edonork ukanen du motiboa gurekin daukan solasaldia mozteko. Baina esan nezakeela uste dut ez

maxima onartu hauek ez beste ezein proposizio identikok irakasten digula ezer; eta mota horretako proposizioetan maxima handietsi hori, frogapenaren oinarri moduan goraipatua, haiek berresteko erabil badaiteke eta maiz erabili egiten bada ere, honako hauxe frogatzera baino ez dela heltzen, alegia, hitz bera berberari buruz ziurtasun handiz baieztatu daitekeela, horrelako proposizioaren egiari buruzko inolako zalantarik gabe, eta, esan dezadan hau ere, inolako ezagutzarik gabe.

3. *Adibidea.*

Izan ere, honen arabera, pertsona ezjakin batek, proposizio bat baino egiten ez dakienak eta bai edo ez esaten duenean zer pentsatzen duen dakienak, milioika proposizio egin ditzake haien egiaz ziurtasun hutsezina ukanik, berauen bidez, hala ere, ezertxo ere ezagutu gabe, hala nola, «arima dena arima dela» edo «arima arima dela», «espiritua espiritua dela», «fetitxea fetitxea dela», e.a. Horiek guztiak honako proposizio honen baliokideak dira, alegia, *badena bada*, hau da, existentzia daukanak existentzia dauka, edo arima daukanak arima dauka. Baina zer da hau hitzekin jolastea besterik? Ostrarekin jolasean ostra esku batetik bestera jaurtikiz lebilkeen tximinoaren antzeko litzateke, hitzez baliatu ahal balitz, esanez: «ostra eskuin eskuan subjektua da eta ostra ezker eskuan predikatua»; eta horrela ostrari buruz proposizio berez nabaria egin ahal izanen luke hots, ostra ostra da, eta, hala eta guzti ere, ez litzateke mendrenik ere jakintunagoa izanen ez eta ezagutza handiagokoa ere. Jokatzeko era honek era berean asetuko luke bai tximinoaren gosea eta bai gizakiaren adimena, batak lodierran eta besteak ezagutzan irabazteko balioko lukeelarik. Nik badakit badirela batzuk, proposizio identikoak berez nabariak direlako, beraiekiko interes handia dutenak eta filosofiari zerbitzu handia egiten diotela uste dutenak, proposizio horiek goraipatu ahalean goraipatuz, horien barruan ezagutza guztia balego bezala eta adimena eurek bakarrik gidatuko balute bezala egia orotara. Onartzen dut, beste edozeinek bezain erraz, egiazkoak eta berez nabariak direla denak. Are gehiago, onartzen dut, halaber, gure ezagutza guztiaren funtsa ideia bera ideia bera dela hautemateko eta ezberdinak diren ideietatik bereizteko dugun ahalmenean datzala, aurreko kapituluan azaldu dudana moduan. Baina ez dut ikusten honek nola eragozten duen proposizio identikoak ezagutzan aurrera egiteko erabiltzea azalekotzat

jotzea. Errepika dezala batek zenbatnahi aldiz «nahimena nahimena dela» gura duen indar guztiaz, zertarako balio du horrek eta antzeko mila proposiziook gure ezagutza areagotzeko? Gizaki batek egin ditza-
 la dakizkien hitzekin egin ahala horrelako proposizio, adibidez hauek bezalakoak, «legea legea da eta betebeharra betebeharra da» «zuzen-
 bidea zuzenbidea da eta zuzengabekeria zuzengabekeria da»; lagun-
 duko al dio horrek etika gehiago ezagutzen edo berak edo besteek moralarari buruzko irakaspenen bat jasotzen? Zuzenbidea zer den eta zuzengabekeria zer den, ez eta beroriek nola neurtzen diren ez dakite-
 nek eta beharbada inoiz ere jakinen ez dutenek, moralean jantzien daudenek bezain seguru eta hutsik egiteko arriskurik gabe ezagutzen
 dute proposizio horien eta horrelako guztien egia. Baina zer aurrera-
 pauso egiten dute proposizio horien bidez euren jokabiderako beha-
 rrezko edo baliagarri den ezertan? Azalekotzat joko genituzke ziu-
 rraski, ezagutzaren edozein ataletan adimena argitzeagatik antzeko
 proposizioei ekin eta ekin honelako proposizioak behin eta berriz era-
 tzen lebilkeena, adibidez, «substantzia substantzia da eta gorputza
 gorputza da», «hutsunea hutsunea da eta zurrunbiloa zurrunbiloa da»,
 «zentauroa zentauroa da eta kimera kimera da», e.a. Izan ere, horiek
 eta horrelakoak era berean egiazkoak, era berean ziurrak eta era bere-
 an berez nabariak dira, baina azalekotzat jo behar dira nahitaez, ira-
 kaspen printzipio bezala erabiltzen direnean eta ezagutzarako lagun-
 tza moduan aurkezten direnean, diskurritzeko gai den orok ezagutzen
 duena baino ez baitute irakasten, hau da, termino bera termino bera
 dela eta ideia bera, ideia bera. Eta horrexetan oinarrituta pentsatu izan
 dut eta pentsatzen dut orain ere proposizio horiek adimenari argi
 berria ekartzeko edo gauzen ezagutzara sarbidea emateko bide
 moduan aurkeztea eta besteen baitan finkarazten ibiltzea azalkeria
 besterik ez dela. Irakaspena horretatik oso ezberdina den beste zer-
 baitetan datza eta bere edo inoren gogamena ezagutzen ez dituen egie-
 tarantz hedatu nahi duenak bitarteko ideiak aurkitu behar ditu eta bata
 bestearen ondoren jarri, gogamenak auzitan dauden ideien adostasuna
 edo desadostasuna ikusi ahal izateko moduan. Hori egiten duten pro-
 posizioak irakasgarriak dira, baina horiek ez dute, hurrik eman ere,
 termino bera berberari buruz baieztatzen, hau ez baita norberak ez
 beste inork inolako ezagutzatan aurrera egiteko bidea. Izan ere horrek
 ez du laguntzen ezagutzak norberaganatzen, irakurtzen ikasten ari
 denari honako proposizio hauek irakasten ibiltzeak laguntzen dion

baino gehiago: «A A da» eta «B B da», edonork jakin baitezake hori edozein maisuk bezain ongi, bere bizitza guztian hitz bat irakurtzeko gai ez izan arren. Eta ez horrek ez beste ezein proposizio identikok lagunduko dio fitsik ere irakur-trebetasunean aurrera egiten, horrelako proposizioak erabili ahalean erabili arren. Horiei azaleko proposizioak deitzen diedalako nirekein haserre daudenak gorago hitz argi eta garbiz idatzi dudana irakurri eta ulertzen ahalegindu izan balira, nahitaez ikusi behar izan zuketean proposizio identikotzat nik termino bera, ideia bera adierazten duena, berberari buruz baieztatzen dutenak bakarrik hartzen ditudala, horixe dela uste baitut proposizio identikoen esanahi zehatza. Eta horiei guztiei dagokienez, huts egiteko beldurrik gabe esan nezake, halaber, horiek irakasgarritzat proposatzea azalergia baino ez dela. Zeren arrazoiaren erabilera daukan orok ezin izanen ditu ohartu gabe utzi haietaz ohartzea beharrezko den guztian, ez eta haien egiaz zalantzarik egin ere behin ohartzuz gero. Baina proposizio identikoak termino bera berberari buruz baieztatzen ez denean deitzen dietenean, horiek ni baino zehaztasun handiagoz mintzo diren ala ez juzgatzea besteei uzten diet; baina hau behintzat egia da, alegia, horiek nire zentzuan identikoak ez diren proposizioez dioten guztiak ez daukala zerikusirik nirekin ez nik esan dudanarekin, nik esan dudana guztia termino bera berberari buruz baieztatzen duten proposizioei buruz izan baita. Eta gustatuko litzaidake ikustea horrelako proposizioen bat norbaiten ezagutzaren aurreramendu eta hobekuntzarako erabili daitekeen kasuren bat. Beste mota bateko proposizioen adibideak ekartzea, zeinahitarako erabiliak direlarik, ez dagokit niri, nik identikoak deitzen diedan horietakoak ez direnez gero.

4. *Bigarrenik, edozein ideia konplexuren atal bat osoaren ize - nari buruz predikatzen duten proposizioak.*

Azaleko proposizioen beste mota bat *ideia konplexuaren atal bat osoaren izenari buruz predikatzen duena da*; horrelako proposizioan izenaren definizioaren zati bat definitzen da. Generoa espezieari buruz edo gehiago hartzen duten terminoek gutxiago hartzen dutenei buruz predikatzen dituzten proposizio guztiak dira mota horretakoak. Izan ere, zer informazio, zer ezagutza, dakarkio «beruna metala da» proposizioak berun izenak ordezkatzeko duen ideia konplexua ezagutzen duenari, metal terminoak adierazitako ideia konplexua osatzen duten bakun guztiak berak lehenago berun izenaz adierazi eta

barne hartuak dira eta? Benetan ere, metal hitzaren esanahia ezagutzen duen baina berun hitzarena ezagutzen ez duen batek berun hitzak zer esan nahi duen uler dezan, bide laburragoa da metal bat dela esatea, horrek haren ideietako batzuk batera adierazten baititu, ideia horiek banan-bana esatea baino, gorputz oso astuna, fundigarria eta xaflakorra dela esanez.

5. *Termino definituaren definizioaren zati gisa.*

Era berean azalekoa da termino definituari buruz definizioaren zati bat predikatzea edo ideia konplexu baten bakunetako bat ideia konplexu osoaren izenari buruz baieztatzea, proposizio honetan bezala: «urre oro da fundigarri». Zeren fundigarritasuna urre soinuak ordezkatzeko duen konplexuaren ideia bakunetako bat denez, soinuekin jolastea zer besterik izan daiteke hori urre izenari buruz baieztatzea, hori guztiok onarturiko haren esanahian sartuta dago eta? Barregarri baino asko gutxiagotzat ez litzateke joko seriotasunez baieztatzea, garrantzizko egia gisa, urrea horia dela; baina nik ez dut ikusten zergatik den inportanteago urrea fundigarria dela esatea, koalitete hau diskurtso arruntean urre soinuak seinalatzen duen ideia konplexutik kanpo utzi ezean behintzat. Zer informazio ekar liezaioke inori lehen esan zaiona edo bazekiela suposatzen dena esateak? Izan ere beste norbaitek diostan hitzaren esanahia ezagutzen dudala suposatu behar da, edo bestela azaldu egin behar dit. Eta nik baldin badakit urre izenak gorputz hori, astun, fundigarri, xaflakor baten ideia konplexua ordezkatzeko duela, ez dit informazio handirik emanen proposizio batean handikero jarrita seriotasunez esateak urre oro fundigarria dela. Horrelako proposizioek ez dute balio haxe agerian jartzeko baino, alegia, azaldutako terminoak gogorarazi besterik egin gabe zerbait berria dioela sinestarazi nahi didanaren zintzotasunik eza. Baina ziurrenak izanda ere, ez dakarkigute hitzen esanahiarena beste ezagutzarik.

6. *Adibidea: gizakia eta palefroia.*

«Gizaki oro da animalia, edo gorputz biziduna» proposizioa ziurrena bezain ziurra da, baina gauzen ezagutzara eramateko ez dute balio honako hau esateak baino gehiago, alegia, palefroia pausoan ibiltzen den zaldia dela edo pausoan ibiltzen den eta irrintzina egiten duen animalia dela, proposizio biok hitzen esanahiaren ingurukoak baitira, lehengoak haxe besterik ez didalarik ezagutzera ematen, hots, gorputza, sentimena eta higidura edo sentipenak edukitzeko eta higitzeko

ahala nik gizaki hitzaz hartzen eta adierazten ditudan hiru ideia direla eta hiru gauza horiek ez dauzkanari ez dagokiola gizaki izena; eta bigarrenak, palefroiak, beste hau besterik ez dit ezagutarazten, hots, gorputza, sentimena eta ibilkera bat. ahoskera jakin batekin batera, nik *palefroï* hitzaz hartzen eta adierazten ditudan ideietako batzuk direla eta horiek ez dauzkanari ez dagokiola palefroï izena. Gauza bera gertatzen da gizaki deritzan ideia konplexua osatzen duten ideia bakunetako bat edo gehiago ordezkatzan dituen terminoren bat baieztatzean denean gizaki hitzaz; demagun, adibidez, erromatar batek *homo* hitzaz honako ideia hauek guztiak adierazi zituela subjektu bat berean bilduta: *corpo - reitas, sensibilitas, potentia se movendi, rationalitas, risibilitas* ; erromatar horrek, dudarik ez, *homo* hitzari buruz unibertsalki baieztatu zezakeen ziurtasun handiz ideia horietako bat, bat baino gehiago edo guztiak batera, baina horrekin ez zukeen haxe besterik esan, hots, bere herrialdean gizaki hitzak ideia horiek guztiak hartzen zituela. Era berean, zaldun erromantiko batek, *palefroï* hitzaz honako hauek adieraziko zituenak: tankera jakin bateko gorputza, lau hankakoa, sentitzeko gai, pausoan dabilena eta irrirtzina egiten duena, zuria, gainean emakume bat eraman ohi zuena, palefroï *hitzari* buruz horietako batzuk edo guztiak ziurtasun beraz baieztatu zitzakeen unibertsalki, baina horren bidez ez zion inori irakatsiko haxe besterik, palefroï hitzak, bere hizkuntzan edo hizkuntza erromantzean gauza horiek guztiak ordezkatzan zituela baino eta ez zela horietako baten falta zuen ezeri aplikatzekoa. Baina baten batek esaten badit sentimena, higidura, arrazoiarena eta barrea batuta dituen edozerk Jainkoaren nozioa eduki daukala edo opio-belarrak izaki hori loaldian murgilduko lukeela, horrek zerbait irakasten digun proposizioa egiten du, zeren Jainkoaren nozioa edukitzea ez opio-belarraren ondorioz loaldian murgilduta geratzea ez daudenez gizaki hitzak adierazitako ideien barruan, proposizio horiek gizaki hitzak ordezkatzan duena soilik baino gehiago irakasten digu, eta, beraz, hitz horrek barruan daukan ezagutzak hitzezko hutsa gainditu egiten du.

7. *Proposizio horiek ez dute hitzen esanahia besterik irakasten.*

Gizaki batek proposizioa egin aurretik proposizio horretan erabilitako terminoak ulertzen dituela suposatzen da, edo bestela loroa bailitzan mintzo da, norbait imitatuz zarata atera eta inorengandik ikasitako soinuak eratuz, baina ez izaki arrazoidun gisa hitzak gogamean dituen ideien zeinutzat erabiliz. Entzuleak ere mintzatzaileak

darabiltzan hitzak ulertzen dituela suposatzen da, edo bestela hizkera mordoiloaz ari da, zarata ulertezinak ateraz. Eta horregatik hitz-joko azalekoetan ari da termino batek dioena eta besteak lehendik zekiela suposatzen dena baino gehiago ez dioen proposizioa egiten duena, adibidez, triangeluak hiru alde ditu, edo azafraina horia da. Eta hau ez da jasangarri, besteak ez digula ulertzen uste dugunean edo berak hala dioskunean baino, eta orduan, hark ulertzen ez duen hitzaren esanahia edo zeinuaren erabilera besterik ez dio irakasten.

8. Baina ez digute benetako ezagutzarik gehitzen.

Mota bitako proposizioen egia ezagut dezakegu, beraz, erabateko ziurtasunez. Lehenengoak beren baitan ziurtasuna daramaten azaleko proposizioak dira, baina ziurtasun hori irakaspena dakarrena barik, ziurtasun hitzezko hutsa da. Bigarrenik, beste gauza bati buruz zerbait baieztatzen duten proposizioen egiaz ziurtasuna ukan dezakegu, zerbait hori haren ideia konplexu zehatzaren ondorio izanik, ideia horrek bere baitan hartzen ez duena, triangelu orean kanpo angelua aurrez aurre dauden barne angeluetako bata zein bestea baino handiagoa dela dioen proposizioan bezala. Kanpo angeluak aurrez aurreko barne angeluekin duen erlazioa triangelu izenak adierazitako ideia konplexuaren osagai ez denez, egia erreal da hori ezagutza erreal irakasgarria dakar aldean.

9. Substantziei buruzko proposizio orokorrak azalekoak dira maiz

Substantzietan batera existitzen dauden ideia bakunen zein konbinazio dauden ezer gutxi edo bat ere ez dugularik ezagutzen, geure sentimenen bidez izan ezik, ezin dezakegu proposizio unibertsal ziurrik egin haiei buruz, geure esentzia nominalek garamatzaten puntutik harago. Eta esentzia nominal horiek haien osaera errearen menpe dauden konparazioan egia gutxi eta inportantziarik gabekotara baino iristen ez direnez, substantziei buruz egiten diren proposizio orokorrak, ziurrak badira, kasurik gehienetan azalekoak dira, eta irakasgarriak badira ziurtasunik gabekoak dira eta guk haien egia errearen ezagutzarik ezin edukitzeko modukoak, haiei buruzko gure judizioetan behaketa etengabearen eta analogiaren laguntza ukan arren. Horretara, maiz diskurtso oso argi eta koherenteak entzutea gertatzen zaigu, baina ezertarako ere balio ez dutenak. Izan ere, argi dago izaki substantzialen, edo beste batzuen, izenak, esanahi erlatiboa

atxikirik duten heinean, baieztapenez edo ezeztapenez elkar daitezkeela proposizioetan, euren definizio erlatiboek horrela elkartuak izateko gai egiten dituzten neurrian; eta horrelako terminoen osaturiko proposizioak argitasun beraz deduzi daitezke bata bestetik, egia-rik erre-arena daukatenak bezalaxe, eta hau guztia gugandik at existitzen diren gauzen errealitatearen izaeraren inolako ezagutzarik gabe. Era hone-tan frogapenak eta zalantzarik gabeko proposizioak egin daitezke hitzetan, baina proposizio horien bidez fitsik ere aurreratu gabe gau-zen egiaren ezagutzan; adibidez, hurrengo aipatzen diren hitzak, ale-gia, *substantzia*, *gizakia*, *animalia*, *forma*, *arima*, *begetatiboa*, *senti-menezkoa*, *arrazionala*, atxikita dituzten elkarrekiko adiera erlatiboek-kin ikasi dituenak egin ditzake zenbait proposizio zalantzarik gabeko arimari buruz, arima egiazki zer den inondik ere jakin gabe. Eta edo-nork ikus ditzake tankera honetako mila proposizio, arrazoinamendu eta konklusio metafisikako, teologia eskolastikoko eta filosofia natu-ral mota bateko liburuetan; baina liburu horiek irakurri ondoren, Jainkoaz, espirituez eta gorputzez aurretik bezain gutxi jakinen dugu.

10. *Zergatik diren azalekoak.*

Substantziei jartzen dizkien izenak definitzeko, hau da, izen horien esanahia zehazteko erabakimena daukanak (bere ideiak ordezkaz-ten jartzen dituen orok daukan bezala), eta esanahiak ausaz, gauzen euren izaeraren azterketa edo ikerketatik barik, bere irudimenetik edo beste batzuenetik hartuz ezartzen dituenak, zailtasun handirik gabe, esa-nahi horiek bata bestearekiko frogatu ahal izanen ditu, berak emandako elkarrekiko erreferentzia ezberdinen eta erlazioen arabera. Horregatik, gauzak euren izaeran ados etorri ala ez, bere nozioez eta berak ezarrita-ko izenez bestez ez du arduratu beharko; baina horrela ez du bere eza-gutza areago gehituko, beste batek bere aberastasunak gehituko lituzke-en baino, baldin boltsakada fitxa hartu eta leku batean dagoen fitxari libra deituko balio, beste batean dagoenari txelina eta hirugarren leku batean dagoenari penikea; horrela jokatzuz zuzen kontatu eta kopuru handi bat batuko luke, fitxen lekuaren eta bere nahiaren arabera gehia-go edo gutxiago balioko luketelarik, baina bera sosik ere aberatsago izan gabe, eta are librak, txelinak edo penikeak zenbat balio duen jakin gabe eta zera bakarrik jakinda, librak hogeitxelin dituela eta honek hamabi penike. Eta hauxe berau egin daiteke hitzen esanahiari dagokionez ere, bata bestearekiko hedadura handiagoa edo txikiagoa emanez.

11. *Hirugarrenik, hitzak zentzu ezber dinean erabiltzea hitzekin azalkeriaz jolastea da.*

Baina argudiatzeko eta eztabaidatzeko diskurtsoetan erabilitako hitzik gehienei dagokienez, bada gauza bat are deitoragarriagoa, arinkeria motarik handiena dena eta hitzon bidez geuganatztea edo aurkitzea espero dugun ezagutzaren ziurtasunetik urrunago aldentzen gaituena, hauxe hara, idazlerik gehienak zeharo urrun dabiltzala gauzen izaerari edo ezagutzari buruz gu informatzetik, eta euren hitzak lanbroz beterik eta ziurtasunik gabe erabiltzen dituztela halatan, non hitzak beti eta aldagabe esanahi berarekin erabiltzen ez dituztenez gero, ez duten hitz batetik bestea argi eta garbi deduzitzen, ez eta beren diskurtsoak koherentziaz eta argitasunez egiten (irakaspen gutxien dakartenak izanda ere), hau egitea zaila ez den arren euren ezjakitea eta setakeria terminoen iluntasunaz eta nahasmenduaz estaltzea baztertuko balute, gizaki asko eta askorengan agian oharkabetsunak eta ohitura txarrek izan dutelarik horretarako eragin handia.

12. *Hitzezko proposizioen seinaleak. Lehenik, predikazioa abs - traktuan.*

Amaitzeko, hauexek dira proposizio hitzezko hutsak ezagutu ahal izateko seinaleak: Bi termino abstraktu bata besteari buruz baieztatzen duten proposizio guztiak soinuaren esanahiari buruz ari dira. Izan ere, ezein ideia abstraktu ezin daitekeenez berberaren berdina baino izan, bere izen abstraktua beste termino bati buruz baieztatzen denean hauxe baino ezin du adierazi, alegia, ideia hori izen horrekin izenda daitekeela edo izendatu behar dela edo izen bi horiek gauza bera esan nahi dutela. Horrela, norbaitek esanzen balu aurrezkia neurritasuna dela edo esker ona justizia dela, ekintza hori edo bestea badela edo ez dela zuhurra, proposizio horiek eta antzekoek oso hornituak ematen duten arren, horiek ongi trinkotu eta barruan zer duten behar bezala aztertuz gero, hori guztiori termino horien esanahiari lotzen zaiola baino ez dugu aurkituko.

13. *Bigarrenik, definizioaren zati bat termino definituaz baieztatzen denean.*

Terminoren batek ordezkatzeko duen ideia konplexuaren zati bat termino horri buruz predikatzen duten proposizio guztiak hitzezkoak baino ez dira, adibidez, urrea metala dela edo astuna dela esatea. Eta

horrela gehiago hartzen duten hitzak, generoak deritzenak, berorien menpeko edo gutxiago hartzen duten espezieak deritzen terminoei buruz edo termino indibidualei buruz baieztatzen duten proposizioak hitzezko hutsak dira. Aipaturiko arau bion arabera liburuetan eta liburuetatik kanpo topatu ohi ditugun diskurtsoak osatzen dituzten proposizioak aztertu ondoren, egiaztatuko dugu agian uste baino gehiago ari direla hitzen esanahiari buruz eta ez dutela barruan zeinu horien erabilpena eta aplikazioa besterik. Arau hutsezintzat jar dezaket honako hau, hitz batek ordezkatzan duen ideia bereizia ezagutzen eta aintzat hartzen ez den guztian eta beroni buruz ideiak barruan ez daukan zer-bait baieztatzen edo ezeztatzen ez den guztian, gure pentsamenduak soinuei soilik lotuta daude eta ez dira gauza egia edo faltsutasun erre-laz jabetzeko. Hau, behar bezala gogoan izanez gero, denbora galtze eta eztabaida pilo bat aurrezteko bide izan dezakegu, baita ezagutza erreal eta egiazkoaren bila harturiko nekeak eta egindako jirabirak gutxitzeko ere.

IX. KAPITULUA

Gure existentziari buruz daukagun ezagutza hirukoitzaz

1. Ziurrak diren proposizio orokorrak ez dira existentziari buruzkoak.

Gauzen esentziak baino ez ditugu aztertu honaino, eta hauek, gure pentsamenduetan existentzia partikularra kenduta dauden ideia abstraktuak baino ez direnez (abstrakzioan gogamenak burutzen duen eragiketa ideia adimenean duen existentziaren arabera soilik kontsideratzea baita), ez digute eskaintzen existentzia errealaren inolako ezagutzarik. Eta horretara konturatzen gara, bidenabar, guk egiazkotzat edo faltsutat ziurtasunez ezagutzen ditugun proposizio unibertsalak ez direla existentziari buruzkoak, eta areago, orokor bihurtuz gero egiazkoak ez liratekeen baieztapen edo ezeztapen partikular guztiak existentziari buruzkoak direla soilik, ideiak existitzen diren gauzetan duten batasun edo banatasun akzidentala baino ez baitute adierazten, euren izaera abstraktuan ez dutelarik beharrezko batasun edo aurkakotza ezagunik.

2. Existentziaren ezagutza hirukoitza.

Baina proposizioen izaera eta predikatzeko era ezberdinak beste leku batean luzeago aztertzeke utzirik, goazen orain ikertzera nolako ezagutza dugun *gauzen existentziaz* eta nola erdiesten dugun. Honetan esan behar dut hiru motatako ezagutza daukagula: gure geure existentziarena intuizioz, Jainkoaren existentziarena frogapenez eta beste gauzena sentipenez.

3. *Geure existentziaz daukagun ezagutza intuitiboa da.*

Gure geure existentziaz daukagun ezagutzari dagokionez, hain argi eta ziur hautematen dugu, non ez duen behar eta aplikatu ere ezin zaion inolako frogarik. Izan ere, ezer ere ez zaigu nabariago, geure existentzia baino. Pentsatzen dut, arrazoitzen dut, plazerra eta oinazea sentitzen ditut, baina neure existentzia baino nabariago al zait horietakoren bat? Beste gauza guztiez zalantza eginez gero ere, zalantza honek beronek hautemanarazten dit neure existentzia eta ez dit uzten horretaz zalantzarik egiten. Zeren oinazea sentitzen dudala badakit bistakoa da neure existentziaren pertzepzio hain ziurra daukadala, nola sentitzen dudan oinazearena; edo zerbait zalantzatan jartzen dudala badakit, zalantzatan daukadan gauzaren existentziaren pertzepzio hain ziurra daukat, nola *zalantza deitzen dudan* pentsamenduarena. Esperientziak, beraz, erabat sinistarazten digu geure existentziaren ezagutza intuitiboa eta existitzen garelako barne pertzepzio hutsezina dauzkagula. Sentipenezko, arrazoinamenduzko edo pentsamenduzko egintza orotan geure existentziaz jabetzen gara eta honetan ziurtasun maila gorenera iristen gara.

X. KAPITULUA

Jainko baten existentziari buruz daukagun ezagutza

1. *Jainkoa existitzen dela ziurtasunez ezagutzeko gai gara.*

Jainkoak berari buruzko ideia sortzetikorik eman ez digun arren eta gure gogamenetan jatorrizko karaktererik inprimatu ez duen arren guk karektereotan bera badela irakurri ahal izateko, hala ere, gure gogamenak dituen ahalmenez hornitu gintuelarik, ez gintuen bere testigantzarik gabe utzi, sentimenak, pertzepzio ahalmena eta arrazoimena ditugunez gero, ezin baitugu haren existentziaren froga argien faltarik ukan, *geure buruaz* hausnartzen dugun bitartean. Eta ezin gara kexatu puntu handi honi buruzko ezjakiteaz ere, hainbeste bitarteko eman baitizkigu hark bera aurkitu eta ezagutzeko, gure iza-tearen xederako eta gure zoriona lortzeko beharrezko diren heinean. Baina hau arrazoimenak deskubritzen dituenen artean egarik bidez-koena den arren eta beronen nabaritasuna, oker ez banago ziurtasun matematikoaren parekoa den arren, gogoeta eta arreta behar ditu eta gogamenak gure ezagutzaren alde intuitiboaren atalen batetik aterat-zeraz dedikatu behar du erregulartasunez, edo bestela egia honi buruz berez argiro froga daitezkeen beste proposizio askori buruz bezain ezjakin izanen gara. Horregatik, Jainko bat existitzen dela *jakiteko*, hau da, *ziur egoteko* gai garela eta ziurtasun horretara *nola hel gaitetz-keen* frogatzeko, uste dut ez daukagula geugandik eta geure existen-tziaz dugun zalantzarik gabeko ezagutzatik harago joan beharrik.

2. *Gizakiak badakielako bera existitzen dela.*

Eztabaida orotik kanpo dagoela uste dut gizakiak bere existentziaren ideia argia daukala, ziurtasun osoz baitaki existitzen dela eta zerbait dela. Bera zerbait den ala ez zalantzatan jar dezakeenik bada, ez natzaio hari mintzo, ezerezt hutsaz eztabaidaka ariko ez nintzatekeen moduan edo ezereza bera zerbait dela konbentzitzen ahaleginduko ez nintzatekeen baino gehiago. Norbait bere existentzia propioa ukatzeko bezain eszeptikoa dela agertzen saiatzen bada (horretaz dudatzea ageri-agerian ezinezko baita), goza dezala negatiboa ez izatearekin duen zorionaz, harik eta goseak edo beste oinazeren batek horren kontrakoaz konbentzi dezan arte. Horregatik, uste dut gizaki guztiek zalantzarik egiteko askatasunik gabe ziurtasunez ezagutzen duten egiaztat har dezakedala edonork dakiela norbera *egiazki existitzen den zerbait dela*.

3. *Badaki, halaber, ezerezak ezin duela izakirik sortarazi; zerbait, beraz, betieretik existitu da ezinbestez.*

Gizakiak badaki halaber, ziurtasun intuitiboz jakin ere. *Ezerezt hutsak ezin duela izaki errealek sortarazi, ezerezt bi angelu zuzenen berdina ezin izan daitekeen bezalaxe*. Norbaitek ez badaki ezereza edo izaki ororen ausentzia ezin dela bi angelu zuzenen berdina izan, horrek ezin dezake Euklidesen ezein frogapen ezagutu. Horregatik, guk baldin badakigu izaki errealean bat existitzen dela eta ezerezak ezin duela izaki errealek sortarazi, hori *zerbait betieretik existitu dela* argi uzten duen froga nabaria da, betieretik existitzen ez denak hasiera izan baitu eta hasiera duenak beste zerbaitek sortarazia izan behar baitu.

4. *Eta betiereko izaki horrek ezin ahaltsuagoa izan behar du.*

Gainera, gauza nabaria da bere existentzia eta hasiera beste batengandik hartu dituenak bera den eta dagokion guztia ere beste batengandik dituela. Dituen ahal guztiak sorburu berari zor dizkio eta berarengandik hartuak ditu. Izaki ororen sorburu hau, beraz, ahal ororen sorburu eta jatorri ere bada halako moldez, non *betiereko izaki honek aldi berean ezin ahaltsuagoa ere izan behar duen*.

5. *Eta ezin jakintsuagoa ere bai.*

Gainera gizakiak pertzepzioa eta ezagutza aurkitzen ditu bere baitan. Pauso bat aurrera egin dugu, beraz, eta une horretan ziur dakigu izaki bat ez ezik, ezagumena eta adimena dituen izaki bat existitzen

dela munduan. Garai batean, orduan, ez zen izaki ezagumendunik eta gero ezagumena existitzen hasi zen, edo bestela *betieretik existitu da ezagumendun izaki bat*. Norbaitek badio garai batean ezein izakik ez zuela ezagumenik eta betiereko izaki horrek adimenik ez zeukala, nik erantzunen diot orduan ezinezko dela ezagutzarik inoiz ere egotea, ezinezko baita inolako ezagutza eta pertzepziorik gabeko zerbaitek, itsu-itsuan diharduenak, izaki ezagumenduna sortzea, ezinezko den moduan triangelu batek bere hiru angeluetan bi zuzenak baino gradu gehiago edukitzea. Zeren sentipenik gabeko materiaren ideiaaren kontrakoa da materiak bere baitan sentimena, pertzepzio ahalmena eta ezagumena ipintzea, triangeluaren ideiaaren kontrakoa den bezalaxe bere baitan zuzen bi baino handiago diren angeluak ipintzea.

6. *Eta, beraz, Jainkoa.*

Horrela, geure buruak eta guk geure osaeran hutsik gabe aurkitzen duguna aintzat hartuz, arrazoimenak honako egia ziur eta nabari honen ezagutzara garamatza, alegia, *badela izaki betier eko, ejin ahaltsuago eta ejin jakitsuago bat* ; eta izaki honi Jainkoa deitzeak ala ez deitzeak ez du garrantzirik. Hau gauza nabaria da eta ideia hau behar bezala aztertuz deduzitzen dira izaki betiereko honi iratxiki beharreko beste tasun guztiak. Hala ere, norbaitek, harroputz eta zentzugabe galanta izanik, uste izanen balu gizakia ezagumena eta jakituria dituen izaki bakarra eta ezjakite eta halabehar hutsaren sorkari dela, eta unibertsoko gainerako guztia ere halabehar itsu berorrek darabilela, Tulioren errieta arrazoizko eta enfatikoa (De legibus, 2. Lib.) astiro aztertzeke aholkua emanen nioke: «Zein jokabide izan daiteke hain ergelki harro eta desegokiagoa, nola den gizaki batek pentsatzea berak gogamena eta arrazoimena badituela eta zeru-lurretan horiek dituen besterik ez dagoela? Edo bere arrazoimenaren ahaleginik handienaz ere berak nekez ulertzen dituen gauzak ezein arrazoimenek ez dituela mugitzen pentsatzea?». *Quid est enim verius, quam neni nem esse oportere tam stulte arrogantem, ut in se mentem et rationem putet inesse, in coelo mundoque non putet? A ut ea quae vix summa ingenii ratione comprehendat, nulla ratione moveri putet?* Esandakoaren ondorio argia da niretzat Jainko baten existentziaren ezagutza ziurragoa daukagula, gure sentimenek arartegabe somarazi ez diguten beste edozerena baino. Are, uste dut esan nezakeela Jainko bat badela ziurrago dakigula, gugandiko kanpo

beste edozer badela baino. *Dakigula* diodanean, esan nahi dut ezagutza bat daukagula geure irispidean, geuganatu gabe utzi ezin duguna, gogamena beste edozein ikerketarako jartzen dugun arreta beraz horretara ere jarritz gero.

7. Izaki ezin perfektuagoaz dugun ideia ez da Jainko baten existentziaren froga bakarra.

Ez dut hemen aztertuko gizakiak bere gogamenean era dezakeen izaki ezin perfektuagoari buruzko *ideiak* zenbateraino frogatzen duen ala ez duen Jainkoaren existentzia. Zeren gizakiak izakera ezberdinekoak direnez eta beren pentsamenduak ezberdinki erabiltzen dituztenez, batzuegan arrazoiketa batzuek eta bestengan beste batzuek dute eragin handiagoa, egia bera ziurtatzeko. Hala ere, uste dut esan dezakedala egia hau finkatzeko eta ateak isiltzeko era eskasak dela, horren puntu garrantzitsua argumentu bakar batean oinarritzea eta gizaki batzuek gogamenean duten ideia hori (argi baitago batzuek ez dutela horrelakorik, beste batzuek bat ere ez edukitzea baino txarragoa dena duten artean, eta gehienek oso ideia diferenteak) Jainkoaren existentziaren froga bakartzat hartzea; hala egiten dute batzuek eta aurkikuntza pozgarri honekiko gehiegizko atxikimenduz, beste argumentu guztiak errefusatzin dituzte, edota gutxienik indar getzen saiatzen dira; eta froga horiek aintzat hartzen galarazten dituzte, ahulak eta engainakorrak bailiran, nahiz eta gure existentziak eta unibertsoaren atal sentigarriek froga horiek hain argi eta indartsu aurkezten dizkiguten, non, ene ustez, gizaki zuhurrak ez ditzakeen arbuia. Zeren inon esan daitekeen egiazko ziurren eta argiena dela uste baitut «Jainkoaren tasun ikusezinak, Jainko baten betiereko ahala eta jainkotasuna bera ere, argiro ikusgarri bihurtu direla mundua sortuz geroztik», sorturiko gauzek ematen diguten ezagutzaren bidez. Baina nahiz eta geure existentziak Jainkoaren existentziaren froga nabari eta eztabaidaekin bat eskaintzen digun, azaldu dudana moduan, eta nahiz eta uste dudana inork ezin izanena duela froga hori onartzea galarazi, honek dituen bezainbeste atal dituen beste edozein frogapenetan jartzen duen arta jarritz gero, hala ere hain funtsezko puntua izanik eta hainbesteko garrantzia eta ondorioak dituen, non erlijio oro eta egiazko moralak beronen menpe dauden, ez daukat dudarik ene irakurleak parkatuko didala, argumentu honen atal batzuk berrartu eta eurei buruz luzeago aritzea.

8. *Laburbilpena. Gauza batzuk betieretik existitzen dira.*

Egia nabaria da erabat gauza batzuek *betieretik* existitu behar dutela. Ez dut sekula entzun honelako kontraesan nabarmena defendatzeko bezain zentzugabea izan denik inor, alegia, izan dela aldi bat non ezer ere ez den existitu. Zeren absurdukerietan absurduena da ezerez hutsak, izaki guztien ukazio eta ausentzia erabatekoak, existentzia errealean bat sortaraz dezakeela imajinatzea. Kreatura arrazoidun orok, beraz, *zerbait* betieretik existitu dela onartzea ezinbesteko duelarik, ikus dezagun orain *nolako izakia* behar duen izan horrek.

9. *Bi izaki mota daude, pentsatzaileak eta ez-pentsatzaileak.*

Gizakiak mundu honetan ez du ezagutzen edo ez du bururatzen bi izaki mota baino. Lehenik, material hutsak direnak, sentimenik, ez pertzepziorik ez pentsamendurik ez dutenak, geure bizar edo atzazal ebakinak, adibidez. Bigarrenik, sentitzen, pentsatzen, hautematen duten izakiak, gu geu ere horrelakoxeak garela egiaztatzen dugularik. Eta mota bi horiei hemendik aurrera, nahi baduzue, izaki *pentsatzai-leak* eta *ez-pentsatzaileak* deituko diegu, termino horiek, beste gauza batzuetarako ez badira ere, gure oraingo xederako materialak eta inmaterialak baino termino hobeak baitira.

10. *Izaki ez-pentsatzaileak ezin du izaki pentsatzailerik ekoiztu.*

Baldin, beraz, betieretik existitzen den izaki batek existitu behar badu, dakusagun zer nolako izakia izan behar duen. Eta hone-tan arrazoimenak oso bidezko ikusten du izaki horrek izaki pentsatzailea izan behar duela. Izan ere, hain ezinezko da bururatzea materia ez-pentsatzaile hutsak izaki adimendun pentsatzaile bat ekoiztea, nola ezinezko den *ezerezak* berez materia ekoiztea. Demagun aurkitzen dugula betieretik existitzen den materia zati bat, handia edo txikia, ezer ekoizteko gai ez dela. Demagun, adibidez, lehenengo topatzen dugun harkoxkorren materia betidanikoa eta bat-bat egindakoa dela eta atalak tinko elkartuta atsedenean dituela; munduan beste izakirik ez balego, harkoxkor horrek ez ote luke beitiere guztian egoera horrextan iraunen, mokil erabat inaktibo bat bezala? Ba al dago bururatzetik bere burua higitzeko edo beste zerbait ekoizteko gai dela? Materiak, beraz, ezin du bere baitan higidurarik eragin; daukan higidurak betidanikoa behar du izan, edo bestela materia baino ahaltsuago den beste izakiren batek ekoiztu eta materiari ezarritakoa, materiak

berez, bistakoa denez, ez baitu higidura eragiteko ahalik. Baina demagun higidura ere betierekoa dela; hala ere materialak, materia eta higidura ez-pentsatzaileek, irudian eta bolumenean edonolako aldaketak eraginda ere, ezin izanen lukete inoiz pentsamendurik sortarazi. Higiduraren eta materiaren ahaletik hain haraindi egonen da beti ezagutza ekoiztea, nola ezerezaren ahaletik materia ekoiztea. Norbere pentsamenduetara jotzeko eskatuko nuke nik ikusteko ea ezin dugun bi hauek erraztasun berdinaz bururatu, alegia, materia ezerezak ekoizturik, alde batetik, eta pentsamendua materia hutsak ekoizturik bestetik, aurreko aldi batean pentsamendurik edo izaki adimendunik existitzen ez zenean. Zatika ezazue materia nahi beste ataltxotan (materia espiritualtzera edo pentsatsaile bihurtzera heltzea imajina genezake), emazkiozue nahi dituzuen irudiak eta higidurak, bilaka ezazue esfera, kubo, kono, prisma, zilindro, etab., berauen diametroak *gry* baten milioiren bat baino ez izateraino zatika itzazue; materiaren partikula hau hain txikia izanda ere, bere proportzioko beste gorputzekiko duen portaera ez da ezberdina izanen hatz edo oinbete diametroko gorputzen elkarrekiko jokamoldetik. Eta sentimenak, pentsamenduak eta ezagutza sortaraztea arrazoi berarekin espero daiteke, irudi zehatz edota higidura zehatz batean materiaren atal handiak batuz, zein munduan izan daitezkeen materiaren atalik txikienean bidez. Azken hauek elkarrekin topo, elkarri bultza eta gogor egiten diote handiek bezalaxe eta ezinbestean jokutzen dute horrela. Horretara, hasieran edo betieretik deusik ez zela suposatzen badugu, materia ezin izan da existitzen hasi, eta betierekoa suposatzen badugu materia hutsa higidurarik gabe, higidura ezin izan da existitzen hasi, eta suposatzen badugu hasieran edo betieretik materia eta higidura baino ez zirela, orduan pentsamendua ezin izan da existitzen hasi. Izan ere, bururaezina da materialak, higidurarekin edo haingabe, jatorriz eta berez sentimena, pertzepzioa, eta ezagutza edukitzea, honako hau kontuan izanez gero bistakoa den moduan, alegia, orduan sentimenak, pertzepzioak eta ezagutzak materiaren eta beronen atal ororen propietate bananduezinak izan beharko luketela. Honi erants dakioke, materialaz daukagun ideia orokor edo espezifikoa hartaz gauza bakar bat bailitzan mintzatuz garamatzan arren, materia oro ez dela, zehazki, izaki material *bakar bat* bailitzan existitzen den gauza banakoa edota ezagutzen dugun edo burura dezakegun gauza berezi *bakar bat*. Eta horregatik, materia baltz betiereko lehen izaki pentsatzailea, ez legoke izaki eter-

nal, infinitu eta pentsatzaile bakar bat, baizik betiereko izaki pentsatzaile eta infinituak amaigabeko kopuruan, elkarrekiko lokabeak, indar mugatukoak eta pentsamendu bereizikoak eta, ondorioz, ezin izanen lukete sortarazi gaur egun naturan miresten ditugun antolamendua, harmonia eta edertasuna. Hortik ondorio hauxe ateratzen da, alegia, betiereko lehen izakia zeinahi delarik ere, pentsatzailea izan behar duela ezinbestez («actually»), eta dena dela gauza guztien artean lehen izakia, ezinbestez eduki behar dituela bere baitan gero existi daitezkeen perfekzio guztiak gutxienik; zeren bestela ezin izanen lioke inori eman berak maila berean edo altuagoan ez leukaken perfektiorik, hemendik ezinbestez ateratzen delarik materia ezin izan daitekeela betiereko lehen izakia.

11. *Beraz, existitu da betiereko izaki pentsatzailea.*

Nabaria bada, beraz, zerbaitek existitu behar izan duela betietetik, nabariagoa da zerbait hori ezinbestez izaki pentsatzailea dela, zeren hain ezinezkoa da materia ez-pentsatzaileak izaki pentsatzaile bat sortaraztea, nola ezinezko den ezerezak edo izatearen ukazioak izaki positibo bat edo materia sortaraztea.

12. *Izaki pentsatzaile eternalaren tasunak.*

Gogamen eternalaren beharrezko existentziaren aurkikuntzak nahikoa den bestean garamatza Jainkoaren ezagutzara, eta hemendik ondorioztatuko da hasiera duten ezagumendun izaki guztiak haren menpe daudela eta ez daukatela ezagutzarik ez ahalik hark ematen dien heinean izan ezik, eta, horregatik, hark horiek egin bazituen, unibertso honetako gauza xeheenak ere, hau da, izaki bizigabeak ere egin zituela, haren orojakitea, ahala eta probidentzia eta beste tasun guztiak ezagutarazten dizkigutelarik, baina, hala ere hau oraindik argiago uzteko honen kontra zer zalantza sor daitekeen ikusiko dugu.

13. *Gogamen eternala materiala izan ote daitekeen.*

Lehenik, agian esanen da ezen, frogapenez ager daitekeen bezain argi dagoela betiereko izaki batek existitu behar duela eta izaki hori ezagumenduna izan behar duela, baina hortik ez dela deduzitzen izaki hori materiala izan ezin daitekeenik. Materiala balitz ere, hortik berdin deduzitzen da Jainkoa existitzen dela. Zeren izaki eternal, orojakitun eta ahalguztiduna existitzen bada, gauza ziurra da Jainkoa badela, zuk izaki hori materiala dela zein ez dela

pentsatu. Baina, nire ustez, suposizio horren arriskua eta engainua honexetan datza: ezagumendun izaki eternala existitzen dela erakusten digun frogapena ukatzeko modurik ez dagoenez, gizaki materiala dela; eta gero izaki *ezagumendun* bat nahitaez existitu behar duela erakusten duen frogapenari gogamenetik eta diskurtsotik alde egiten utziz, guztia materia dela argudiatuko dute eta Jainkoa, hau da, izaki pentsatzaile eternala existitzen dela ukatuko, horrek haien hipotesia finkatu beharrean, suntsitu egiten duelarik. Zeren haien ustez betiereko materia existitu baldin baliteke betiereko izaki pentsatzailerik gabe, nabarmenkiro bereizten dituzte materia eta pentsamendua eta beraien arteko beharrezko loturarik ez dagoela suposatzen dute, eta horrela betiereko espirituaren beharrezkoa ezartzen dute, baina ez materiarena, jada frogatu delako nahitaez onartu beharra dagoela betiereko izaki pentsatzailea. Orain, pentsamendua eta materia bereizi ahal badira, materiaren betiereko existentzia ez da deduzituko izaki pentsatzailearen betiereko existentziatik, haiek oinarririk gabe suposatzen duten moduan.

14. *Ez da materiala, lehenik, materiaren atal bakoitza pentsatzailea ez delako.*

Baina orain dakusagun nola konbetzi ditzaketen euren buruak eta besteak izaki pentsatzaile betiereko hori materiala dela uste izateko.

I. Horiei galdetuko nieke ea euren ustez materia orok, *materiaren atal guztiak* pentsatzen duten. Nonbait ere nekez esanen lukete baietz, zeren orduan zenbat materi partikula hainbat betiereko izaki pentsatzailerik leudeke eta, beraz, amairik gabeko jainkoteria. Eta, hala ere, onartu nahi ez badute materia, materia denez, hau da, materiaren partikula bakoitza, pentsatzailea dela, hedatua den bezalaxe, ez dute lan samurragoa edukiko beren arrazoimenari ikusarazten izaki pentsatzaile bat partikula ez-pentsatzailez osatua dela, izaki hedatu bat hedadurarik gabeko atalez osatua dela ulertarazten baino, horrela mintzatzerik badut.

15. *Bigarrenik, materi partikula bat bakarrik ezin daitekeelako pentsatzailea izan.*

II. Materia guztiak pentsatzen ez badu, galdetzen dut, atomo bakar bat al da pentsatzen duena? Honek besteak bezainbeste absurdukeria dakartza, zeren orduan materi atomo hau bera bakarrik da edo

ez da betierekoa. Hau bakarrik bada betierekoa, beronek bakarrik, bere pentsamen edo nahimen ahaltsuaren bidez, egin zuen gainerako materia guztia. Eta horrela pentsamendu ahaltsuak sortarazitako materia daukagu, materialistak arbuiatzen dutena, zeren atomo bakar batek gainerako guztia sortarazi duela suposatuz gero, nagusitasun guztia pentsatzeari baino ezin diote iratxiki, horixe baita suposaturiko alde bakarra. Baina esaten badute hau gure ulermenaren gairatzen duen beste edozein bidez egiten dela, kreazio bidez behar du izan hala ere, eta euren maxima nagusiari, *ex nihilo nihil fit*, uko egin beharrean aurkitzen dira. Gainerako materia guztia atomo pentsatzaile hori bezain betierekoa dela badiote, berriz, gustuko den zerbait esatea izanen da, baina beti ere absurdua. Izan ere, hipotesi bat arrazoi itxurarik ere gabe airean eraikitzea litzateke uste izatea materia guztia betierekoa dela, baina haren partikula txiki bat gainerako guztiaz amaigabeki gain dagoela ezagumenean eta ahalean. Materi partikula bakoitza, materia denez, beste materi partikula batek hartzen dituen irudi eta higadura berak hartzeko gai da, eta edonor desafiitzen dut, bere pentsamenduetan, materi partikula bati beste bati baino zerbait gehiago eman ahal dion ikustera.

16. *Hirugarrenik, materia ez pentsatzaile multzo bat («sys - tem») pentsatzailea ezin izan daitekeelako.*

III. Orduan, bada, ez atomo partikular bakar bat ez materi oro, materia denez, hau da, materi partikula oro ezin badira izan betiereko izaki pentsatzaile hau, geratzen den hipotesi bakarra materi *multzo* bat, behar bezala batera bildutakoa, izatea betiereko izaki pentsatzailea. Hauxe da, nire ustez, Jainkoa materiala izatea nahi dutenek maitteen duten ideia, horixe delako euren buruez eta beste gizakiez duten nozio arruntak, izaki material pentsatzailetzat hartzen baitituzte, iradokitzen dien soluziorik errazena. Baina burutapen hau, naturalagoa den arren, ez da bestea baino absurdutasun gutxiagoz hornitua, zeren betiereko izaki pentsatzailea materi partikula ez-pentsatzailez osaturiko zerbait dela uste izatea izaki eternal horren jakituria eta ezagutza guztia atalen justaposizio hutsari egozte baita, eta hau baino absurduagorik ezer ere ezin daiteke izan. Zeren materi partikula ez-pentsatzaileek, batera bildu arren, ez dute horregatik ezer gehiagorik berenganatzen, posizioko erlazio berri bat izan ezik, eta honek inola ere ezin liezazkieke pentsamendua eta ezagutza eman.

17. *Eta hau, multzo edo sistema gorpuzdun hori higiduran zein atsedenean egon.*

Baina are, materi sistema horrek edo bere atal guztiak atsedenean ditu edo atalok higidura jakin bat dute, pentsatzea dakarkiona. Erabat atsedenean badago, mokil bat baino gehiago ez da eta ezin dio alderik atera atomo bakarrari. Materiak pentsamendua bere atalen higiduraren menpe badauka, pentsamendu guztiek ezinbestez akzidentalak eta mugatuak beharko dute izan, zeren higiduraz pentsamendua sortarazten duten partikulak, bakoitzak bere baitan pentsamendurik ez daukanez, ez dira gai euren higidurak erregulatzeko eta askoz gutxiago multzoaren pentsamenduak eragindako erregulazioa jasotzeko, pentsamendu hori ez delako higiduraren kausa (zeren orduan higiduraren aurretikoa eta, beraz, hartatik kanpokoa litzateke), ondorioa baizik. Horregatik askatasuna, ahala, aukerarena eta pentsamendu eta ekintza arrazional eta zuhur oro kentzen zaizkio, halatan kendu ere, non izaki pentsatzaile hori ez den izanen materia huts itsua baino hobeia ez jakitunagoa, zeren gauza bera baita arazo guztia materia itsuaren higidura akzidental gidagabeaz konpontzea, zein materia itsuaren higidura gidagabeen menpe dagoen pentsamenduaz, atal horien higiduraren menpe egon behar duten pentsamenduen eta ezagutzaren laburra ez aipatzearren. Baina arestian aipaturikoez gain, ez daukagu hipotesi honen absurdutasun eta ezintasun gehiagorik aipatu beharrik, horiez beterik dagoen arren, zeren, sistema pentsatzaile hau unibertsoko materiaren zati bat zein guztia izan, ezinezko baita ezein partikulak ez bere higidura ez beste ezein partikularena ezagutzea, ez eta multzo osoak partikula bakoitzaren higidura ezagutzea eta, horretara, bere pentsamenduak edo higidura erregulatzeko, edota higidura horietatik sorturiko pentsamendurik egiazki edukitzea.

18. *Materia ez da gogamen eternal batekin koeternala.*

Bigarrenik, beste batzuek materia eternala izatea nahi lukete, nahiz eta izaki eternal, pentsatzaile eta imaterial baten existentzia onartu. Honek, Jainkoaren existentzia ez ukatu arren, haren lehen trebezia handia, kreaizioa, ukatzen du, eta, horregatik, komeni da gai hau apurtxo bat jorratzea. Materiak betierekoa behar omen du izan, zergatik eta bururaezina zaizulako ezerezetik egina izatea. Orduan, zergatik ez duzu zeure burua betierekotzat? Agian zera erantzunen didazu, duela hogeitau edo berrogeitau urte izaten hasi zinelako. Baina nik galde-

tzen badizut orduan existitzen hasi zinen *zu* hura zer den, estu zenbiltzake horri erantzuteko. Zure izatea osatzen duen materia ez zen orduan hasi existitzen; orduan hasi balitz, ez litzateke betierekoa, baina orduan materia zure gorputza osatzen duen tankeran eta egituran jartzen hasi zen, hala ere partikulen egitura hori ez da *zu* zarena, ez du osatzen *zu* zaren gauza pentsatzailea (zeren orain izaki eternal, inmaterial, pentsatzaile bat onartzen duen batekin ari naiz, baina horrekin batera materia ez-pentsatzailea betierekoa dela defenditzen duenarekin). Horregatik, noiz hasi zen existitzen gauza pentsatzaile hura? Existitzen sekula ere ez bazen hasi, *zu* betidanik izan zara gauza pentsatzailea, hain absurdua delarik hau, non ez duen ezeztatzerik behar, harik eta horri eusteko bezain txoriburua den norbait topatu arte. Horregatik, gauza pentsatzaile bat ezerezetik egina dela onar badezakezu, (betierekoak ez diren gauza guztiek behar duten bezala), zergatik ez dezakezu onar izaki material bat ahal berdinak ezerezetik egina izan daitekeela, azken honen esperientziarik ez daukazu artean, lehenengoaren esperientzia argia daukazulako ez bada? Hala ere, ongi pentsatuz gero, ikusiko dugu espirituaren kreazioak ez duela behar materiaren kreazioak baino ahal handiagorik. Eta, nozio arruntekiko loturak hautsi eta geure pentsamenduak jaso ahala jasoko bagenitu gauzen kontenplazio sakonagora heldu arte, orduan agian gai izanen ginateke itxura batean halako pentsamendu ilun batez ulertzeko materia hasiera batean nola egin zen eta nola hasi zen existitzen, lehen izaki eternalaren ahalaren eraginez; baina *espiritu* bati hasiera eta existentzia ematea ahalguztidunaren efektu bururagaitzagoa dela ikusiko litzateke. Baina hau, agian, gaur eguneko munduko filosofiak dituen nozioetatik gehiegi aldentzea litzatekeenez gero, barkaezina litzateke haietatik horrenbestean urruntzea edo gramatikak berak uzten duen heinean ikertzea, baldin ohiko iritzi finkatua honen kontra badago; ez nuke sartu nahi honetan, batez ere leku honetan, zerren hemen eskuarki onarturiko doktrinak behar bezala betetzen baitu gure helburua, argi eta zalantzarik gabe utziz behin substantzia baten kreazioa edo ezerezetik hasiera onartuz gero, beste guztiaren kreazioa, Kreatzailearena salbu, erraztasun beraz suposa daitekeela.

19. *Objekzioa: kreazioa ez da ezerezetik egin.*

Baina esanen duzu, zerbait ezerezetik egitea ez al da ezinezko, *horrelakorik b* *ururatu ere egin dugunez g* *ero*? Ezetz erantzuten dut, ez

delako arrazoizko izaki infinituaren ahala ukatzea, haren jarduna ulertzerik ez dugula eta. Beste efektu batzuk ez ditugu ukatzen arrazoi beraz baliatuta, hau da, nola sortarazten diren bururatzerik ez dugulako. Guk ezin dugu bururatu nola mugi dezakeen gorputz bat beste gorputz baten bulkada ez den ezerk, baina hau ez da geure baitan nahitako higidura guztietan daukagun etengabeko esperientziaren aurka hori posible dela ukatzeko moduko arrazoia. Izan ere, nahitako higidurak gure geure gogamenaren ekintza edo pentsamendu libreak eragiten ditu gugan, eta ez dira, eta izan ere ezin daitezke, materia itsuaren higidurak gure gorputzen baitam eragindako bulkada edo determinazioaren efektu, zeren orduan ez legoke gure ahalean edo aukeramenean higidura hori aldatzea. Adibidez, eskuin eskua idazten badarabilt, ezkerra geldirik daukadan artean, zerk eragiten du atsedena batean eta higidura bestean? Neure nahimenak, neure gogamenaren pentsamendu batek, ez beste ezerk; nire pentsamendua aldatuz gero, eskuina atsedenean geldi eta ezkerra higitzen jartzen da. Hau egitatezko arazoa da, ukatu ezin dena; hau garbi utzi eta ulergarri bihurtuz gero, hurrengo urratsa kreazioa ulertzea izanen da. Zeren animalien espirituen higidurari determinazio berria emateak (nahitako higidura azaltzeko batzuek egiten duten moduan) ez du fitsik ere askatzen korapiloa. Higiduraren determinazioa aldatzea kasu honetan ez da higidura ematea bera baino errazago ez zailago, zeren animali espirituari determinazio berria pentsamenduak zuzenean edo espirituon bidean ez zegoen eta pentsamenduak bide horretan jarritako gorputzen batek eman behar baitio, higidura, beraz, pentsamenduaren ondorio izanik; edonola ere, hipotesi bataz zein besteak lehen zegoen bezain ulergaitz uzten du nahitako higidura. Bitartean, geure buruak larrestea litzateke dena gure ahalmenen neurri laburrera mugatzea eta, ondorioz zerbait nola egin daitekeen ulertzerik ez dugun guztian, gauza hori ezin egin daitekeela ondorioztatzea. Jainkoaren ahala guk uler dezakegunera mugatu nahi izatea, gure ulermena infinitu edo Jainkoa finitu bilakatzea da. Zeure gogamen finituaren barruan duzun gauza pentsatzaile horren ekintzak ulertzen ez badituzu, ez harrigarritzat jo gauza guztiak egin dituen eta zeruen zeruak hartu ezin duen gogamen infinitu eta eternalaren ekintzak ulertu ezin izatea.

XI. KAPITULUA

Beste gauzen existentziari buruz daukagun ezagutza

1. *Beste izaki finitu batzuen existentziaren ezagutza sentipen aktualez soilik eduki daiteke.*

Gure geure existentziaren ezagutza intuizioz daukagu. Jainkoaren existentzia arrazoimenak ezagutarazten digu, azaldu dugun moduan. *Beste edozein gauzaren* existentziaren ezagutza *senti-penez* («by sensation») soilik eduki dezakegu, zeren existentzia errearen lotura beharrezkorik ez dagoenez gizakiak bere oroimenean duen ezein *ideiarekin*, eta, Jainkoaren existentziak duena salbu, beste ezein existentziaren beharrezko loturarik ere ez dagoenez ezein gizaki partikularren existentziarekin, gizaki partikularrak ezin du beste ezein izakiren existentzia ezagutu, Izaki horrek gizakiarengan eraginez beronek hura hautematea lortzen duenean izan ezik. Zeren gure gogamenean zerbaiten ideia edukitzeak, ez du gauza horren existentzia frogatzen, gizaki baten erretratuak beronen existentzia munduan frogatzen duen baino gehiago, edo amets batean ikusitakoek egiazko historia osatzen duten baino gehiago.

2. *Adibidea: paper honen zurtasuna.*

Kanpotik *aktualki ideiak hartzeak* ematen digu, beraz, beste gauzen existentziaren berri eta une horretan gugandik kanpo ideia hori eragiten duen zerbait existitzen dela ezagutarazten digu, nola eragiten duen guk ez jakin arren eta aintzat hartu ere ez egin arren. Izan

ere, gure sentimenen eta euren bidez hartzen ditugun ideien ziurtasunari ez dio ezer kentzen haiek nola sortzen diren ez jakiteak; adibidez, ni hau idazten ari naizen artean paperak nire begietan eraginez, dena dela sortzen duen objektua, nik *zuria* deitzen diodan ideia sortzen du nire gogamenean; eta horren bidez heltzen naiz jakitera koalitate edo akzidente hori (nire begien aurrean agertuz gero ideia hori eragiten duena) egiazki existitzen dela eta niregandik kanpoko existentzia daukala. Eta horri buruz, nik eduki dezakedan eta nire ahalmenek erdiets dezaketen ziurtasunik handiena neure begiek ematen didaten testigantza da. Neure begiak dira honen benetako epaile bakarrak eta arrazoi osoa daukat euren testigantza ziurtzat hartzeko halatan, non ezin dudan zalantzatan jarri hau idazten ari naizen bitartean *zuria* eta *beltza* dakuskidala eta niregan sentipen hori eragiten duen zerbait existitzen dela egiazki, idazten edo eskua mugitzen ari naizela zalantzatan jartzetik ez dudan bezalaxe. Eta hau, giza naturak bere buruaren eta Jainkoaren existentziaz ukan dezakeen ziurtasuna kenduta, beste edozein gauzarenaz eduki dezakeen ziurtasunik handiena da.

3. *Gure sentimenek ematen diguten berri honi, frogapena bezain ziurra ez izan arren, ezagutza dei dakioke eta gugandik kanpoko gauzen existentzia frogatzen du.*

Gure sentimenek gugandik kanpoko gauzen existentziaz ematen diguten berria, gure ezagutza intuitiboa edo gure gogameneko ideia argi eta abstraktuak aztertuz gure arrazoimenak egiten dituen dedukzioak bezain argia ez den arren erabat, *ezagutza* izena merezi duen ziurtasuna da. Gu konbentziturik bagaude gure ahalmenek beraiei eragiten dieten objektuen existentziari buruz behar bezala jarduten dutela eta informazio zuzena ematen digutela, hau ezin daiteke oinarriarik gabeko ziurtasuna izan. Inortxo ere ezin baita izan, nire ustez, ikusten eta sentitzen dituen gauzen existentziaz zalantzak izaterainoko eszeptikoa seriotan izan. Bere zalantzak hain urrun eraman ditzakeenak ez du inoiz nirekin auzirik bederen ukanen, inoiz ere ez baita ziur egonen nik esandakoa, zernahi izanda ere, bere iritziaren kontrakoa denik. Niri dagokidanez, uste dut Jainkoak ziurtasun aski eman didala nigandik kanpoko gauzen existentziari buruz, haien erabilera ezberdinez neure baitan plazerra eta oinazea sortaraz baititzaiket, nire oraingo egoeran interes handiko ditudanak berauek. Hau behintzat gauza ziurra da, alegia, gure ahalmenek honetan ez gaituz-

tela engainatzen dioskun barne segurantza gauza materialen existentziaz eduki dezakegun ziurtasunik handiena dela. Egin ere, ezin dugu ezer egin geure ahalmenen bidez ez bada, ez eta ezagutzari buruz hitz egin ere, ezagutza zer den atzemateko ere egokiak diren ahalmen horien laguntzaz ez bada. Baina kanpoko gauzek sentimenak kitzikatzen dituztenean haien existentziaz dakarkiguten informazioan ez direla erratzen dioskun ziurtasunaz gain, beste arrazoi batzuk datozkigu gure ziurtasun hori sendotzera.

4. *Elkarturiko («concurrent») arrazoiek berretsita: Lehenik, sentipenen ideiarik sentimenen bidez izan ezik eduki ezin dugulako.*

Argi dago pertzepzio horiek gure sentimenei eragiten dien kanpoko kausek sortzen dituztela, sentimenen bateko *organoa* falta dutenen gogamenean inoiz ez baita sortzen sentimen horri dagokion ideiarik. Nabariegia da hau zalantzatan jartzeko, eta, horregatik, nahitaez egon behar dugu ziur pertzepzio horiek sentimen horren organoaren bidez datozela, eta ez beste inola. Organoek eurek, argi dago, ez dituzte pertzepzio horiek sortarazten, zeren bestela gizaki baten begiek iluntasunean koloreak sortaraziko lituzkete eta haren sudurrak arrosen usaina hartuko luke neguan, baina ikusten dugu inork ez duela ananaren gustua hartzen Indietara, fruta hau dagoen lurraldera joan eta han dastatu arte.

5. *Bi ideia, bata sentipen aktualetik eta bestea oroimenetik etorriak, pertzepzio oso ezberdinak direlako.*

Batzuetan ohartzen naiz ezin galaraz dezakedala *ideia hauek gog amenean sor dakizkidan*. Izan ere, begiak itxita ditudanean edo gela batean leihoak zarratuta nagoenean nahi dudan guztian ekar ditzaket neure gogamenera zenbait ideia, hala nola, lehenagoko sentipenek oroimenean kokatu dizkidaten argiaren edo eguzkiaren ideiak, baita handik hauek kendu, eta arrosa usainaren edo azukre gustuaren ideiak nahierara ekarri ere. Baina eguerdian begiak eguzkirantz jasotzen baditut, ezin ditzaket galaraz argiak edo eguzkiak nigan eragiten dituen ideiak. Hartara, alde nabarmena dago nire oroimenean gordeta dauden ideien (hauei buruz, oroimenean ukanez gero, nahi dudan guztian erabiltzeko zein bertan uzteko ahal bera neukake beti) eta nire baitara nahitaez eta nik galarazteko modurik ukan gabe sartzen diren ideien artean. Eta horregatik ezinbestez egon behar du kanpoko kausa bat eta nigandik kanpoko objekturen batzuen jardunaren eragin bizia, nik gainditu ezinezkoa, nire adimenean ideia horiek sortarazten ditue-

na, nik nahi ala ez. Gainera inor ere ez dago, hautematen ez duenik eguzkia bere oroimenean daukan ideian ikustetik egiazki eguzkiari begiratzuz ikustera dagoen aldea, hain pertzepzio ezberdinak baitira, non gizaki horren ideien artean gutxi ukanen duten horren ezberdintasun nabaria. Eta, beraz, ziurtasunez daki ez direla *biak* oroitzapenak edo gogamenaren egintza eta bere barruko fantasia hutsak, eta, eguzkia aktualki ikusteak kanpoan daukala kausa.

6. *Hirugarrenik, sentipen aktualaren lagun etorri ohi den plazerra edo oinazea, ideia horiek kanpoko objektuen eraginik gabe berriro piztean ideia horiekin batera etortzen ez delako.*

Honi gehitu behar zaio ideia horietako asko oinazez gertatzen direla gugan, gero haietaz inolako minik gabe oroitzen bagara ere. Horrela beroaren edo hotzaren oinazearen ideia gogamenean berriro piztean ez digu inolako molestiarik eragiten, hura sentitzean oso deseroso aurkitu ginen arren, eta esperientzia egiazki errepikatzea ere deserosoa da. Oinaze hori kanpoko objektuak gure gorputzari aplikatzean eragiten dion ezbeharrak sortzen du; eta gosearen, egarriaren edo burukomina oinazeak ere, gogoratu, inolako minik gabe gogoratzen ditugu; eta horiek, gure gogamenean hara hona dabiltzan ideiak eta gure irudimena betetzera datozen agerkizunak baino ez balira, kanpotik eragiten diguten gauzen existentzia errealik gabe, edo ez gintuzkete inoiz ere molestatu behar, edo eurretan pentsatzen dugun guztian molestatu behar gintuzkete. Gauza bera esan daiteke plazerraz, egiazko sentipen ezberdinen lagun doanean. Eta frogapen matematikoak sentimenean pean ez dauden arren, diagramen bidez egin ohi dugun haien azterketak sinesgarritasun handia eskaintzen dio gure ikusmenaren nabaritasunari eta azterketa honi frogapenetik hurbil dagoen ziurtasuna ematen diola dirudi. Oso harrigarria litzateke, izan ere, norbait berak diagrama baten angeluen eta lerroen bidez neurturiko irudi baten bi angeluak bata bestea baino handiagoak direla egia ukaezintzat onartu ondoren, neurketa egiteko gainean ipini eta erabili dituen lerro eta angelu horien existentzia zalantzatan jarriko balu.

7. *Laugarrenik, sentimenek elkar laguntzen dute kanpoko gauzen existentziari buruz ematen duten testigantzan eta iragartzeko gai egiten gaituzte.*

Gure sentimenek, kasu askotan, *elkarri testigantza ematen diote* gugandik kanpoko gauza sentigarrien existentziari buruz. Sua

ikusten duenak, fantasia hutsa ote den zalantzatan hasiz gero, *sentitu* ere egin dezake, eta eskua gainean ipiniz, haren egiaz konbentzitu. Eta honek ezin izanen luke horrelako oinaze bizirik *sentitu* ideia huts batek edo fantasma batek eraginda, oinazea ere fantasia bat izan ezean behintzat. Eta, errea osatu ondoren, haren ideia gogamenara ekarriz ezin izanen luke oinazea berriro *sentitu*. Horrela, hau idazten ari naitzela, paperaren itxura alda dezakedala *ikusten* dut eta *aldeztu aurretik* esan dezakedala zein ideia berri aurkeztuko dion gogamenari hurrengo momentuan nik lumarekin eginen ditudan marra ezberdinen bidez, ez direlarik agertuko (nik imajinatzen eginahalak egin arren) nire eskua geldi egonez gero edo nik lumari eragin arren begiak itxita badituz; baina letrak moldatuz gero, ezinbestez ikusiko ditut diren modukoak eta nahitaez edukiko ditut neuk egindako letren ideiak. Eta hemendik argi agertzen da hau ez dela nire irudimenaren jolas hutsa, zeren egiaztatzen baitut neure pentsamenduen nahierara egindako letrak ez daudela haien menpe, eta izaten iraunez ni kontrakoa imajinatzen saiatu arren, nire sentimenei etengabe eta erregulariki eragiten segitzen dute, nik marrazturiko irudien arabera. Eta honi erantsiz gero hitz horiek *ikusten* dituen beste norbaiten baitara nik *aurretik* horiek ordezkatzeari nahi izandako hotsak erakarriko dituztela, nik idatzitako hitzak niganik at egiazki existitzen direla zalantzatan jartzeko inolako arrazoirik ez da geldituko, nire belarrietan eragina duen hots erregular sail luzea sortarazten baitute, ezin izan daitezkeelarik nire irudimenaren ondorio eta nire oroimenak ere ezin gorde litzakeelarik ordena horretan.

8. Ziurtasun hau gure egoerak behar bezain handia da.

Honen guztiaren ondoren baten bat eszeptikoa bada honako hau esateraino, alegia, bere sentimenez mesfidatuz guk geure existentzialdi guztian *ikusten* eta entzuten, sentitzen eta dastatzen, pentsatzen eta egiten dugun guztia inolako errealitaterik ez duen amets luze bateko agerkizun engainagarrien seriea baino ez dela, halatan izan ere, non auzitan jarri nahi baitu gauza guztien existentzia edo guk zertnahiri buruz dugun ezagutza, nik horri eskatuko nioke kontuan hartzeko ezen, dena ametsa bada, berak auzitan jartzen duena ere ametsa baino ez dela eta ez duela merezi itzarrik dagoenak erantzutea. Baina, nahi badu, hauxe erantzuten diodala amets egin lezake, alegia, gure sentimenei gauzen existentziaren testigantza ematen digutenean, gau-

zak *in rerum natura* existitzen direlako ziurtasuna, gure osaerak erdiesteko modukoa ez ezik, gure egoerak behar duen bezain handia ere badela. Izan ere, gure ahalmenak ez daudenez egokiturik izakien hedadura osora ez eta zalantza eta akats orotatik libre dagoen gauzen ezagutza perfektu, argi, eta orohartzailera, ahalmen horiek dauzkagunon biziraupenerako baizik, bizitza honetan baliagarri izateko direlarik, nahikoa ongi balio digute, ongi edo gaizki datozkigun gauzen berri ziurra emanez. Zeren kandela piztuta ikusi eta haren garretan atzamarra ipiniz suaren eskarmentua hartu duenak ez du zalantza handirik edukiko min eta oinaze handia eragiten dion hura beraregandik at existitzen dela baieztatzeko. Aski dugu, beraz, honelako ziurtasuna, inork ez baitu eskatzen bere ekintzak bezain ziurra den ziurtasuna baino handiagorik ekintzotarako arau bezala erabiltzeko. Eta gure ameslariak labe gori baten berotasuna loakarturiko gizaki baten irudikeria hutsa omen den labe horretan eskua sartuz egiaztatu nahi badu, nahi lukeen baino ziurtasun handiagoz itzartuko da, hura irudikeria hutsa baino zerbait gehiago dela zalantza espirik gabe jakinik. Horrela, bada, nabaritasun hori guk nahi bezainbatekoa da, gure plazerra eta oinazea, hau da, gure zoriona edo zoritxarra bezain egiazkoa baita guretzat, eta bi hauen gainetiko inolako interesik ez daukagu gauzen ezagutzan eta existentzian. Gugandik kanpoko gauzen existentziaz dugun ziurtasun hori aski da gu gauza horiek eragiten duten ongia erdiesten eta gaizkia ekiditen gidatzeko, horrexetara mugatzen delarik gauzak ezagutzeko dugun interesik handiena.

9. *Baina sentipen aktualaz haraindi ez da heltzen.*

Gure sentimenek adimenera ideiaren bat egiazki dakarkigutenean, ezinbestez geratzen gara konbentziturik *une horretan* zerbait existitzen dela gugandik at, gure sentimenetan eragina eduki daukana eta berauen bidez objektuak hautemateko ditugun ahalmenei bere berri ematen diena eta guk hautematen dugun ideia egiazki eragiten duena. Eta ezin dugu haien testigantza mesfidantzaz hartu gure sentimenek elkarrekin hautemandako ideia bakunen *bildumak* egiazki existitzen direla zalantzatan jartzearaino. Baina ezagutza hau, *une horretan* eragiten dien objektuekiko erabiltzen ditugun gure sentimenen testigantza aktuala heltzen den punturaino hedatzen da, eta ez harago. Izan ere, gizaki izena emateko behar den ideia bakunen bilduma orain dela minutu bat ikusi izan badut elkartuta existitzen, eta

orain neu bakarrik banago, ezin dut ziur jakin gizaki hori orain ere existitzen den, ez dagoelako beharrezko *loturarik* haren duela minutu bateko existentziaren eta oraingo existentziaren artean, mila modutara utzi ziezaiokeen-eta gizaki horrek izateari, nire sentimenek haren existentziaren testigantza eman izan didatenetik. Eta ez badut ziur jakiterik gaur ikusi dudan azken gizakia orain existitzen ari dela, are gutxiago egon ninteke ziur nire sentimenetatik luzaroago aldenduta egon dena eta atzotik edo iaiztik ikusi ez dudana existitzen dela, eta askoz gutxiago egon ninteke ziur sekula ikusi ez dudana gizakiaren existentziaz. Eta horregatik, oso daitekeena den arren une honetan milioika gizaki existitzen direla, hala ere, ni hau idazten bakarrik nagoela, ez daukat horretaz hertsiki ezagutza deritzan ziurtasunik, nahiz eta horren goi probabilitateak zalantza guztiak kentzen dizkidan eta, beraz, arrazoizko da nik hainbat gauza egitea une honetan munduan gizakiak (eta neuk ezagutzen ditudan eta nirekin zerikusia duten gizakiak) existitzen diren uste osoa edukita; baina hau probabilitatea baino ez da, eta ez ezagutza.

10. *Zorakeria da gauza guztietan frogapena espero izatea.*

Horregatik, ohar gaitezke nolako zorakeria alferrekoa den eza-gumen laburreko gizaki batek, gauzen nabaritasunaz eta probabilitateaz juzgatzeko eta horren arabera konbentzimendura heltzeko arrazoimenaz horniturik egonik, zein alferreko den, diot, frogapena eta ziurtasuna espero izatea horrelakorik ukan ezin duten gauzetan eta oso arrazoizko proposizioei baiespena ukatzea eta egia argi eta garbien kontra jardutea, egia horiek, zalantzarako, ez jada arrazoirik txikiena, baizik are estakururik txikiena ere gainditzeko bezain nabari ikusterik ez duelako. Bizitzako arazo arruntetan frogapen nabari eta zuzena daukana baino onartzen ez duena gauza batez egon liteke ziur mundu honetan, eta gauza hau da denbora laburrean hondatuko dela. Janarien eta edarien osasungarritasunaz fidatzeko arrazoi faltaz ez litzateke jaten ausartuko, eta horrela erabateko zalantzarik eta eragozpenik eza oinarri izanda zer egin ahal izanen lukeen jakin nahi nuke.

11. *Gauzen iraganeko existentzia or oimenaren bidez ez guren da.*

Gure sentimenak objektuen bati buruz erabiltzen ditugun unean objektu hori existitzen dela jakin dakigun bezalaxe, *oroimenaren bidez* ziur egon gaitezke lehenago gure sentimenei eragindako

gauzak existitu direla. Eta horrela gauza ezberdinen iraganeko existentziaren ezagutza daukagu, gure sentimenek orduan haien existentziaren berri eman zigutelarik, gure oroimenak oraindik ere haien ideiak gordetzen dituelako, eta honetan ez dugu zalantzarik, ongi gogoratzen dugun heinean. Baina ezagutza mota hau ere ez da heltzen geure sentimenek lehen ziurta zigutenetik harago. Horretara, orain ura ikusiz gero, egia eztabaidea da niretzat ura egiazki existitzen dela, eta atzo ikusi nuela gogoratuz gero, hori ere egia izanen da beti, eta nire oroimenak gogoratzen duen bitartean proposizio duduena izanen da niretzat beti 1688ko uztailaren hamarrean ura existitu zela; era berean egia izanen delarik ur horren burbuila batean ikusi nituen zenbait kolore oso polit ere existitu zirela; baina orain bai ur hartatik eta bai burbuiletatik erabat urrundurik nagoela, ez dakit orain ura existitzen dela, haren burbuilak edo koloreak existitzen direla baino ziurrago, ez baita ezinbestekoago ura, atzo existitu zelako, gaur ere existitzea, koloreak edo burubuilak, atzo existitu zirelako, gaur ere existitzea, lehenengoa askoz gertagarriago izan arren, frogaturik baitago ura iraunkorra dela, burbuilak eta koloreak, aldiz, agudo desagertzen direla.

12. Beste espiritu finituen existentzia ezin daiteke ezagutu eta haiei buruzko ziurtasuna fedezkoa da.

Azaldu dut zein ideia dauzkagun espirituez eta nola heltzen garen euretara. Baina, ideia horiek geure gogamenen eduki eta bertan ditugula jakin arren, espirituen ideiak edukitzeak ez digu ezagutarazten gugandik at horrelakorik existitzen denik, ez eta, Jainko eternalaz gain, beste espiritu finiturik edo bestelako izaki espiritualik existitzen denik. Badugu oinarririk errebelazioan eta bestelako arrazoi batzuetan, ziurtasunez sinesteko badirela horrelako kreaturak, baina gure sentimenek haiek deskubritzeko gai ez direnez, ez daukagu horien existentzia partikularrak ezagutzeko modurik. Izan ere, izaki horiei buruz gogamenen ditugun ideien bidez ezin jakin dezakegu espiritu finituak egiazki existitzen direla, beste edonor maitagarriek eta zentauroei buruz dituen ideien bidez ideia horiei erantzuten dien izakiak existitzen direla ezagutzera hel daitekeen baino gehiago. Eta, horregatik, espiritu finituen existentziari eta beste gauza batzuei dago-kienez, fedaren nabaritasunarekin konformatu beharra daukagu, baina gai honi buruzko proposizio unibertsal ziurrak gure irispidetik at

daude. Zeren egiazkoena izanik ere, adibidez, Jainkoak sortu dituen espiritu adimendun guztiak oraindik existitzen direla, egia hau ezin da gure ezagutzen artean izan. Horrelako proposizioak oso daitezkeen-tzat baietsi behar ditugu, baina gure oraingo egoeran ez dira, beldur naiz, guk ezagutzeko modukoak. Ez dugu, beraz, inor ipini behar sentimenek gauza partikular bat edo besteri buruz ematen diguten berriaren arabera baino ezagutu ezin ditzakegun gai horiek guztiak frogatzen eta geuk ere ez dugu jardun behar horiei buruzko ziurtasun uni-bertsala bilatzen.

13. *Existentzia konkretuari buruzko proposizio partikularrak soilik ezagut daitezke.*

Hemendik guztitik ateratzen da mota bitako proposizioak dau-dela. 1. Batzuk ideia bati erantzuten dion zerbaiten existentziari buruzkoak dira, adibidez, adimenean elefantearen, fenixaren, higidu-raren edo aingeruaren ideia edukiz gero, lehenbiziko galdera naturala ea gauza hori inon existitzen den da. Eta ezagutza hau gauza partiku-larrei buruzkoa da. Jainkoaren existentziatzat beste ezereen existen-tziarik ezin ezagut daiteke ziurtasunez geure sentimenek jakinarazten digutenaz haraindi. 2. Beste proposizio mota bat ere bada, *gure ideia abstraktuen* adostasuna edo desadostauna eta berauen elkarrekiko menpekotasuna adierazten duena. Horrelako proposizioak unibertsa-lak eta ziurrak izan daitezke. Horrela, Jainkoaren ete neure buruaren ideia edukita, nahitaez egon behar dut ziur Jainkoari beldurra ukan behar diodala eta obediencia zor diodala, eta proposizio hau ziurra izan daiteke gizakiari oro har dagokionez, ni kide partikular bat naizen espeziearen ideia abstraktua eratu baldin badut. Baina gizakiek Jainkoari beldurra ukan behar diotela eta obediencia zor diotela dioen proposizio horrek, ziurrena izanda ere, ez dit frogatzen gizakien exis-tentzia munduan, baina egiazkoa izanzen da mota horretako kultura guztei buruz, horiek existituz gero; eta horrelako proposizio oroko-rren ziurtasuna ideia abstraktu horietan aurkitzen dugun adostasuna-ren edo desadostasunaren menpe dago.

14. *Eta egiazkotzat ezagutzen ditugun proposizio orokor guz-tiak ideia abstraktuei dagozkie.*

Aipaturiko lehen kasuan, gure ezagutza geure sentimenen bidez gogamenean ideiak sortarazten dizkiguten gauzen existentzia-ren ondorio da, bigarrenean, aldiz, ezagutza geure gogamenean dau-

den eta han proposizio orokorrak eragiten dituzten edozertariko ideien ondorio da. Berauetako askori *aeternae veritates* deritze eta, izan ere, halaxe dira denak, ez euretako guztiak edo batzuk gizaki guztien gogamenetan idatziak izan direlako, ez eta proposizioetan moldaturik egon direlako norbaiten gogamenean, harik eta hark, ideia abstraktuak eratu ondoren, baieztapenez edo ezeztapenez elkartu edo banandu arte, baizik gizakia bezalako kratura, horrelako ahalmenen jabe eta, beraz, dauzkagun bezalako ideiez hornitua edonon suposatuta ere, konkluditu behar dugulako hark bere pentsamenduak gauzak aztertzen jartzen dituenengan nahitaez ezagutu behar duela bere ideietan hautematen duen adostasun edo desadostasunetik sorturiko proposizio batzuen egia. Proposizio horiei, horregatik, *egia eternalak* deritze, ez egiazki eraturiko betiereko proposizioak noizbait beraiek eratu dituen adimenaren aurrekoak direlako, ez eta gogamenetik at nonbait dauden eta lehenago existitzen ziren ereduren batzuetatik gogamenean inprimatuak direlako, baizik behin proposizio hauek ideia abstraktuei buruz egiazkoak izateko moduan eratuz gero, beti izanen direlako benetan errealak, ideia horiek dauzkan gogamenak edozein alditan, orain zein gero, egiten dituela suposatuta. Zeren izenek beti ideia berak ordezkatzeko bide dituztenez eta ideiak inoiz aldatzeke elkarrekiko erreferentzia berak dituztenez, ideia abstraktuei buruzko proposizioek, behin egiazkoak izanez gero, *egia eternalak* izan behar dute ezinbestez.

XII. KAPITULUA

Gure ezagutzaren areagotzeaz

1. Ezagutza ez da erdiesten maximetatik.

Letragizonen artean eskuarki onarturiko iritzia izan da maximak direla ezagutza ororen funtsa eta zientzia guztiak adimenak abiapuntutzat hartu beharreko zenbait *praecognitaren* gainean eraikiak direla, haien bidez jokatu behar duelarik gero adimenak zientzia horretako gaiei buruzko ikerketetan; eta horregatik, eskolen ohiko bide erraza, edozein gai aztertzean, hasieratik *proposizio orokor* bat edo gehiago jartzea izan da, gero horien gainean eraikitzeko gai horri buruz jaso beharreko ezagutza. Zientzia ororen oinarri moduan jarritako doktrina horiei printzipioak deitu zitzairen, gure ikerketak hasteko abiapuntutzat hartu beharrekoak horietatik atzerago begiratu beharrik gabe, seinalatu dugun moduan.

2. Iritzi honen jatorria.

Beste zientzia batzuetan ere aipaturiko jokabidea eramaten lagundu duen elementu bat, hala uste dut behintzat, matematikak itxuraz ukan duen arrakasta izan da. Izan ere, zientzia honetan ari direlarik gizakiek ezagutzen ziurtasun handia erdiesten dutela ikusirik, zientzia honi, gailentasunez, μ eta σ izena eman zaie, hau da, ikasketa, edo ikasitako gauzak, zehazki ikasitakoak, beste zientzia guztien artean ziurtasunik, argitasun eta nabaritasunik handiena daukatela eta.

3. Ezagutza ideia argi eta bereiziak alderatzetik dator.

Baina norbaitek gai hau aztertzen badu, susmatzen dut aurkituko duela gizakiek zientzia hauetan erdietsitako ezagutza errealaren aurrerakuntza handia eta ziurtasuna ez zaizkiola zor aipaturiko printzipioen eraginari, eta hasieran ezarritako bizpahiru maxima orokorrek gizakiei emandako inolako abantailaren ondorio ere ez direla; aurkituko du, aitzitik, bi horien sorburua haien pentsamenduek landutako ideia argi, bereizi eta osoetan datzala, baita ideiotako batzuetan gertatzen den elkarrekiko berdintasun edo gehiagotasun erlazio argian ere halatan, non honen ezagutza intuitiboa ukan zuten eta beronen bitartez baita beste ideia batzuetan erlazioak deskubritzeko bide bat ere, eta hau guztia aipaturiko maximen laguntzarik gabe. Zeren, nik galdetzen dut, ez al dezake jakin mutiko batek bere gorputz osoa hatz txikia baino handiagoa dela, *osoa bere osagaia baino handiagoa da* axiomara jo gabe, edo horretaz ziur egon, maxima hori ikasi aurretik? Edo neskatala baserritar batek ez al du jakiterik txelin bat hartuz gero hiru zor dionarengandik eta txelin bat, halaber, hiru zor dion beste batengandik, bi horiek elkarren bestena zor diotela? Ez al du hori jakiterik, esan nahi dut, berorren ziurtasuna agian sekula entzun ez bururatu ez duen honako maxima honek dioenetik atera ezean, alegia, *berdinei berdinak kenduz gero, hondar berdinak geratzen direla*? Hemen irakurleak pentsatzea nahi nuke, beste toki batean esandakoa gogoan izanda, jenderik gehienak zer ezagutzen duen lehenbizi eta argien, adibide partikularra ala arau orokorra, eta biotako zeinek ematen dion sorrera eta bizitza besteari. Arau orokor horiek gure ideia orokor eta abstraktuagoak alderatzean baino ez dautza eta gogamenaren sorkari dira, bere arrazoiketetan azkartasun handiagoa lortzeko eta bere behaketa ugari anitzak termino ulergarrietan eta arau laburretan adierazteko hark eratuak izen eta guzti. Baina ezagutza gogamenean hasi zen eta partikularretan oinarritu zen, nahiz eta gero, agian, horretaz ez konturatu, berezkoa baitu gogamenak (bere ezagutza areagotzeko) nozio orokor horiek arretarik handienaz bildu eta behar bezala erabiltzea, hori oroimenari ideia partikularren karga astuna kentzea delarik. Zeren jendeak pentsatzea nahi nuke ea ume batek edo beste edonork bere gorputza, hatz txikiarekin eta beste guztiarekin batera, bere hatz txikia soilik baino handiagoa dela ziurtasun handiagoz dakien bere gorputzari osoa eta hatz txikiari *osagaia* deitu ondoren, aurretik baino,

edo ea bi termino erlatibo horiek lehen ez zeukan ezagutza berriren bat eman liezaioketen bere gorputzari buruz. Haur hori, osoa eta osagaia termino erlatiboak ezagutzeko baino hizkuntza inperfektuagoa balu, ez ote litzateke gai bere gorputza hatz txikia baino handiago dela jakiteko? Areago galdetzen dut, izen horiek bereganatu ondoren nola jakin dezake bere gorputza osoa dela eta hatz txikia osagaia, termino horiek ikasi aurretik bere gorputza hatz txikia baino handiagoa zela zekien baino ziurtasun handiagoz? Arrazoi beraz baieztatu edo ezeztatu dezake edonork hatz txikia bere gorputzaren osagai dela zein bere gorputza baino txikiagoa dela. Eta txikiagoa dela zalantzat jar dezakeenak, ziurtasun beraz jarriko du zalantzat osagaia dela. Era horretan, osoa osagaia baino handiagoa dela dioen maxima ezin izanen da erabili sekula hatz txikia gorputza baino txikiagoa dela frogatzeko, norbait jada dakienaz konbentzitzeko erabiliz alfer-alferreko denean izan ezik. Zeren materi zati bati beste materi zati bat erantsita, zati bakoitza baino handiagoa dela ez dakiena ez da inoiz gai izanen osoa eta osagaia diren termino erlatibo horien bidez hori ezagutzeko, berauokin zeinahi maxima egin arren.

4. Arriskugarria da koloka dauden («precarious») printzipioen gainean eraikitzea.

Baina, dena dela matematikan gertatzen dena, bakoitzak ebazteko uzten dut ea zer den argiago eta lehenbizi ezagutzen duguna, bi hatzeko lerro beltz bati hazbete eta bi hatzeko lerro gorri bati hazbete kenduz gero, lerro batean eta bestean geratzen diren zatiak berdinak direla, *ala berdinei berdinak kenduz gero, hondar berdinak geratzen direla*, ez baitu horrek, ukan ere, garrantzirik nire oraingo xederako. Nire egitekoa hemen honako hau ikertzea da, ea ezagutzarako bide zuzenagoa den maxima orokorretatik hastea eta haien gainean eraikitzea, eta are ea bide segurua den beste edozein zientzian egia eztaba daezin gisa ezarrita dauden *printzipioak inolako azterketarik gabe onartzea inoiz ere haietaz zalantzarik egin gabe*, matematikariek, pozik eta zintzo, printzipio berenez nabariak eta ukaezinak baino erabili ez dituztelako. Hau horrela bada, ez dakit zer ezin den egiaztat hartu moralean, zer ezin den sartu eta frogatu filosofia naturalean. Norbaitek, antzinako zenbait filosoforekin egiazko eta dudaezintzat onartuz gero dena dela materia eta besterik ez dela existitzen, gure garaian doktrina hori berrartu dutenen idazkietan bezala erraz ikusi

ahal izanen da nolako ondorioetara garamatzan horrek. Besteak, Polemonekin, Jainkoa mundua dela edo, Estoikoekin, eterra edo eguzkia dela edo, Anaximenesekin, airea dela sinetsiz gero, begira zer nolako dibinitatea, erlijioa eta gurtza ukan beharko genituzkeen! Ezer ez da arriskutsuago, horrela auzitan jarri ez aztertu gabe onarturiko printzipioak baino, batez ere moralarekin zerikusia dutenak badira, honek eragin handia baitu gizakien bizitzetan, euren ekintzei norabidea emanaz. Nork ez luke itxaronen bizimodu diferenteak izatea zoriona gorputzeko plazerretan jartzen zuen Aristipok alde batetik, eta zoriontsu izateko bertutea nahikoa zela defendatzen zuen Antistenesek bestetik? Eta, Platonekin, zoriona Jainkoa ezagutzean jartzen duenak lur globotxo honetatik eta bertan dituen gauza galkorretatik goragoko kontenplazioetan izanen ditu bere pentsamenduak. Eta, Arkelaorekin, printzipio gisa aurkezten duenak bidezkoa eta ezbidetzkoa, zuzena eta okerra legeek soilik erabakitzen dituztela, ez naturarak, ongi eta gaizki moralarentzat neurri ezberdinak erabiliko ditu, giza osaera ororen aurreko betebeharren pean gaudela onartzen dutenekin alderatuz.

5. Horrela jokatzeari ez da egia aurkitzeko modu ziurra.

Horregatik, *printzipiotzat* daudenak *ziurrak ez badira* (eta hau jakiteko moduren bat behar dugu, dudazkoak direnetatik bereizi ahal izateko), geure baiespen itsua delarik ziurtzat aurkezten dizkiguna, printzipioek erraz eraman gintzakete okerreko bidetik, egia aurkitzera gidatu beharrean, nahasmenduan eta errakuntzan erro sakonagoak botatzera bultzatuz.

6. Horretarako bidea, aitizitik, izen finakoak dituzten ideia argi eta osoak alderatzea da.

Baina printzipioen ziurtasunaren ezagutza, beste egia batzuen bezala, geure ideien arteko adostasunaz edo desadostasunaz daukagun pertzepzioaren beste ezeren menpe ez dagoenez, ezagutza hobetzeko bidea ez da, ziur nago, printzipioakitsu-itsuan eta fede inplizituz onartu eta irenstea, baizik, nire ustez, gure adimenean ideia argi, bereizi eta osoak erdiestea eta finkatzea ahalik gehien eta ideioi izen egokiak eta esanahi finkokoak ezartzea. Eta horrela, agian, beste printzipiorik gabe eta *ideia perfektu horiek kontsideratuz eta elkarrekin alderatuz* eta euren arteko adostasuna edo desadostasuna eta erlazio ezberdinak aurkituz, ezagutza egiazkoagoa eta argiagoa erdietsiko dugu arau honi

bakarrik jarraituta, printzipioak onartu eta geure gogamena inoren nahierara makurtuta baino.

7. *Ezagutzan aurrera egiteko metodo bakarra gure ideia abstraktuak aintzat hartuz jokatzeara da.*

Horregatik, arrazoiak aholkatzen duen moduan jokatu nahi badugu, *aztertzen dihardugun ideien izaerara* eta aurkitu nahi dugun egia egokitu behar ditugu geure metodoak. Egia orokor eta ziurrak *ideia abstraktuen* joera eta erlazioetan baino ez dira aurkitzen. Gure pentsamenduak erlazio horien bilaketan zuhurki eta metodoz erabiltzea da haiei buruz egiaz eta ziurtasunez proposizioetan jar daitekeen guztia deskubritzeko bide bakarra. Eta horretan zer nolako urratsak eginez jokatu behar dugun matematikarien eskoletan ikasi behar dugu, haiek, hastapen argi eta errazetatik abiatuta, maila txikika gorantz egiten baitute arrazoinamenduen etengabeko kateadura bidez, lehen ikusian giza gaitasunaz haraindikoak ziruditen egien aurkikuntza eta frogapeneraino. Frogak aurkitzeko arteari esker eta hasieran elkartu ezin diren kopuruen berdintasuna edo ezberdintasuna ikusarazten diguten bitarteko ideiak aletzeko eta antolatzeko aurkitu dituzten metodo miresgarri horiei esker heldu dira hain urrun eta burutu dituzte hain aurkikuntza harrigarri eta ustekabekoak. Baina nik orain ez dut zehaztu nahi ea geroan aurkitu ahal izanen dugun, magnitudeari dagozkion ideientzat bezala, gainerako ideientzat ere baliagarri litzatekeen antzeko metodoren bat. Hau, ordea, esan nezakeela uste dut, alegia, beste ideia batzuk, euren espezieen esentzia errealak eta era berean nominalak direnak, matematikarien metodo arruntaz aztertuko balira, orduan haiek gure pentsamenduak guk uste baino urrunago eramanez lituzketela, baita nabaritasun eta argitasun handiagoz hornitu ere.

8. *Metodo honen bidez moralak ere argitasun maila handiagoa har dezake.*

Honexek eman dit konfiantza gorago iradoki dudana susmoa (III. kap.) aurreratzeko, hau da, *moralak* frogagarri dela, matematika bezala. Izan ere, etikak aztergai dituen ideia guztiak esentzia errealak direnez, eta, oker ez banago, euren artean lotura eta adostasun aurkigarriak dituztenez, haien joera eta erlazioak aurki ditzakegun neurri berean egia ziur, erreal eta orokorren jabe izanen gara. Eta ziur nago, metodo egokiaz baliatuz gero, moralaren zati handi batera hain argitasun handia eraman ahal izanen litzatekeela, non gizaki burutsuak ez

lukeeen zalantzatan geratzeko arrazoi handiagorik, frogatu zaizkion matematikako proposizioen egiaz dudatzeko baino.

9. *Substantzien ezagutza, ideia abstraktuak aztertuz barik, esperientziaz soilik areago daiteke.*

Substantzien ezagutza erdiesteko egokiak diren ideiak falta zaizkigularik, behartuta aurkitzen gara horretarako metodo erabat diferentea erabiltzera. Hemen ez dugu aurrera egiten, moduetan bezala, (hauetan gure ideia abstraktuak esentzia errealak eta, halaber, nominalak baitira) geure ideiak aztertuz eta haien arteko erlazioak eta elkarrekikotasunak kontsideratuz, hauek substantzietan ezer gutxi laguntzen baitigute, beste leku batean luze azaldu ditugun arrazoiengatik. Horregatik, uste dut bistakoa dela substantziek ezagutza *oroko* - *rrerako* oso material gutxi eskaintzen digutela eta haien ideia abstraktuak aztertuz hutsak ez gaituela oso aurrera eramanen egiaren eta ziurtasunaren bilaketan. Zer egin behar dugu, orduan, izaki substantzialen ezagutzan aurrerapenak egiteko? Hemen hartu beharreko bidea erabat kontrakoa da; euren esentzia errealei buruz ideiarik ez edukitzeak, geure ideietara barik, gauzetara euretara existitzen diren bezala jotzera behartzen gaitu. *Hemen esperientziak iraktsi behar dit arrazoimenak iraktsi ezin didana eta esperimentatuz* bakarrik jakin ahal izanen dut *ziurtasunez* zein beste koalitete koexistitzen den nire ideia konplexuak dituenekin, adibidez, urrea deitzen diodan gorputz hori, astun, fundigarri hura xaflakorra den ala ez; eta esperientzia horrek (dena dela nik aztertzen dudana gorputz partikularrean frogatzen duena) ez dit ziurtatzen beste gorputz hori, astun, fundigarri guztietan ere horrela denik, esperimentatu ditudan guztietan bakarrik baizik. Izan ere, hori ez da nire ideia konplexutik inola ere datorren ondorioa, xaflakortasunaren beharrezkotasunak edo bateraezintasunak ez baitu ageriko loturarik gorputz batean hautemandako kolore, astuntasun eta fundigarritasun horien konbinazioarekin. Urrearen esentzia nominalari buruz, kolore, astuntasun eta fundigarritasun zehatz horretako gorputzean datzala suposatuz, hemen esan dudanak egia izaten iraunen du, horiei xaflakortasuna, finkotasuna eta aqua regiatan disolbagarritasuna gehituz gero. Ideia horietatik deduzituriko arrazoinamenduek ezer gutxi balioko digute horiek guztiak eduki ditzaketen materi multzoen propietateak deskubritzeko. Izan ere, gorputz horien *beste* propietateak hauen menpe barik, hauek berauek ere menpean dituzten

esentzia erreal ezezagunen menpe daudenez, hauen bidez ezin izanen ditugu gainerakoak deskubritu. Ezin izanen gara joan gure esentzia nominalaren ideia bakunek ezagutzero eman diezaguketena baino harago, hau da, haietatik eurentatik oso gutxi harago; eta, beraz, ideia horiek ezin dizkigute eskaini ideia ziur, unibertsal eta baliagarri oso gutxi baino. Zeren esperimenez aurkitu ondoren pieza partikular hori (esperimenez jarri ditudan horrelako kolore, astuntasun eta fundigarritasuna duten beste guztiak bezala) xaflakorra dela, propietate hori ere orain, beharbada, urrez nik daukadan ideia konplexuaren eta esentzia nominalaren osagai da. Baina, nahiz eta horrela urre izena ezartzen diodan ideia konplexua lehen baino ideia gehiagoz osatua izatea lortzen dudana, hala ere ezein gorputzen esentzia errealik barruan ez duenez gero, ez dit laguntzen ziurtasunez ezagutzen (ezagutzen diot, baina agian susmatzen esan behar nuen) gorputz horren gainerako propietateak, nire esentzia nominala osatzen duten ideia bakun batzuekin edo guztiekin ageriko lotura duten neurrian baino. Adibidez ideia konplexu horretatik ezin dezaket ziur jakin urrea finkoa den ala ez, ez dagoelako, lehen bezala, aurki daitekeen beharrezko loturarik edo bateraezintasunik *gorputz hori, astun fundigarri, xaflakor baten ideia konplexuaren osagaien eta finkotasunaren artean*, nik horiek aurkitzen ditudan edozein gorputzetan finkotasuna ere bertan ziur dagoela jakiteko moduan. Hemen ere, ziur egoteko, esperientziaz baliatu behar dut; esperientzia iristen den punturaino ezagutza ziurra ukan dezaket, baina handik gora ez.

10. *Esperientziak erosotasuna ekar diezaguke, baina zientziarik ez*

Ez dut nik ukatuko arrazoizko esperimendu erregularretara ohi-turik dagoen gizakia gai izanen dela gauzen izaeran sakonago sartu eta haiekiko arrotz den beste batek baino aieru zuzenagoak egiteko oraindik ezagutzen ez ditugun haien propietateei buruz, baina, esan dudana bezala, judizioa eta iritzia da hori, ez ezagutza eta ziurtasuna. *Substantzietan ezagutza esperientziaz eta historiaz soilik erdiesteko eta areagotzeko* daukagun bide honek, mundu honetan dugun erdipurdiko egoeran gure ahalmenen ahultasunak erdietsi ahal duen guztia horixe delarik, susmarazten dit *filosofia naturala ez dela zientzia maila iristeko gai*. Gorputz espeziei eta beraien propietate ezberdinei buruz ezagutza orokor oso urria erdiesteko gai garela uste dut.

Esperimentuez eta behaketa historikoez balia gaitzke erraztasunetarako eta osasunerako abantailak lortzeko, bizitza honetako erosotasunak gehituz, baina gure talentuek hortik harago ez doazela esanen nuke, eta susmatzen dut gure ahalmenek ere ezin dutela ezagutzan aurrerago jo.

11. *Zientzia moralerakoe ginak gara, baina kanpoko naturaren interpretazio probableak emateko baino ez.*

Bidezko da hemendik ondorioztatzea ezen, baldin gure ahalmenak, argi erakusten diguten arren Jainkoaren existentzia eta geure buruen ezagutza, geure egitekoa eta ardura handiena zein den garbi ikus dezagun, gorputzen barne egituretan eta esentzia errealetan sartzeko gai ez badira, komeni zaigula, kreatura arrazoidunak garenez, dauzkagun ahalmenak zertarako diren egokiak hartarakoxe erabiltzea eta naturaren norabideari segitzea bidea seinalatzen ari zaigula ematen duen guztian. Izan ere, arrazoizko da ondorioztatzea gure egiazko jarduna ikerketa horietan eta gure gaitasun naturalari gehien dagokion eta gehien interesatzen zaigun ezagutza mota horrexetan datzala, hau da, eternitatean ukanen dugun egoeraren ezagutza. Eta hortik ondorio hau atera dezakedala uste dut, alegia, *moral delo gizajendearen, oro har, zientziarik egokiena eta arazo nagusia* (gizakiek beren *sum - mum bonum* bilatzeko interesa eta gaitasuna dutelarik), eta bestalde naturaren atal ezberdinei dagozkien arteak gizabanakoen ondare eta gaitasun direla, giza bizitzako erabilera komunerako eta norberak mundu honetan bizirauteko. Gorputz natural bakar baten eta beraren propietateen aurkikuntzak giza bizitzarako zer nolako ondorioak ekar ditzakeen bete-betean ikusteko, Ameriketako kontinente zabalera begirada bat botatzea baino ez daukagu; mota orotako aberastasun natural ugariz hornituriko kontinente hartan arte baliagarriei buruzko ezjakitea eta bizitzako erosotasunik gehien falta, nire ustez, honixe egotzi behar zaio, hots, herri horiek harri oso arrunt eta baztergarri batean zer aurkitzen den, burdina esan nahi dut, ez jakiteari. Eta dena dela ezagutza eta ugaritasuna elkarren lehian ari direla dirudien munduaren alde honetan ditugun asmamenari eta aurrerapenei buruzko gure iritzia, uste dut zalantzarik gabe agertuko dela ezen, gure artean burdinaren erabilera galduko balitz, mende gutxiren buruan beharri-zanetan eta ezjakintasunean antzinako basati amaerikarren pare gertatuko ginatekeela, haiek, nazio aberatsen eta landuenetan baino urria-

goak ez ziren talentu eta hornidura naturalen jabe izan arren, behar-
tsuak baitziren. Horrela, bada, metal mesprezagarri honen erabilera
lehenbizi ezagutarazi zuenari egiaz dei dakioke arteen aita eta ugari-
tasunaren egile.

12. *Natura ikertzean hipotesiak eta okerreko printzipioak eki -
din behar dira.*

Ez dut nahi, horregatik, inork pentsatzea naturaren ikerketa
baztertu edo desaholkatu egiten dudala. Inolako eragozpenik gabe
onartzen dut naturako gauzak kontenplatzeak euren autorea gurtu eta
handiesteko hainbat aukera eskaintzen digula; eta ikerketa hau ongi
bideratuz gero, gizateriari onura handiagoa ekar diezaioke, ospitale
eta landerretxeen fundatzaileek hainebestko kostuz eraikitako ere-
duzko karitateko monumentuek baino. Inprenta asmatu zuenak, ipa-
rrorratzaren erabilera aurkitu zuenak edo kininaren dohainak eta era-
bilera egokia gizartera helarazi zituenak, ezagutzaren zabalkundean
eta bizitzarako erosotasunen horniduran eta aurrerapenean gehiago
lagundu dute eta hilobitik jende gehiago salbatu dute, ikastetxeak,
lantegiak eta ospitaleak eraiki dituztenek baino. Esan nahi nukeen
guztia da ez genukeela errazegi uste izan behar ezagutza, aurkitzerik
espero ezin dugun tokian edo hartara eraman ezin gintzakeen bidee-
tatik erdietsi dugula edo erdiets dezakegula, eta badaezpadako siste-
mak ez genituzkeela erabateko zientziazat hartu behar, ez eta nozio
ulertezinak frogapen zientifikotzat ere. Gorputzen ezagutzan experi-
mentu partikularretik ahal duguna aleka ateratzearekin konformatu
behar dugu, ezin baitugu, haien esentzia errealak aurkituz, txorta
osoak batera atzeman eta espezie osoaren natura eta propietateak
mordoa ulertu. Gure ikerketa geure ideiak kontenplatuz aurkitzerik
ez dugun koexistentziari edo koexistitzeko aurkakotzari buruz dene-
an, esperientziak, behaketak eta historia naturalak eman behar digute
geure sentimenen bidez eta apurka substantzia gorpuzdunetan sartze-
ko modua. Gorputzen ezagutza sentimenen bidez erdietsi behar dugu,
sentimenak, kontu handiz, haien koalitateak eta elkarrekiko eragike-
ten berri jasotzeko erabiliz; eta *espíritu ber eiziei* («separate spirits»)
buruz mundu honetan ez dugu espero behar errebelazioak erakusten
diguna besterik jakiterik. Kontuan hartzen duenak zein gutxi balio
izan duten maxima orokorrek, koloka dauden printzipioek eta nahie-
rara eraikitako hipotesiek egiazko ezagutza aurrera bultzatzeko edo

arrazoiko gizakiek benetako hobekuntzak erdiesteko egin dituzten ikerketei oinarria eskaintzeko, eta printzipio horiek ezartzeak zein gutxi bultzatu duen hainbeste mendetan gizakien aurreramendua filosofia naturalaren ezagutzara, horiek gogoan dituenak, diot, non-bait ere pentsatuko du badugula arrazoirik eskerrak emateko azken mende honetan beste norabide bat hartu eta, ezjakintasun ikasirako bide errazagoa barik, ezagutza baliagarriko bide seguruagoa marra-tu digutenei.

13. *Hipotesien egiazko erabilera.*

Gertatzen dena ez da ezin dugula erabili hipotesi probablerik naturaren edozein fenomeno azaltzeko. Hipotesiak behar bezala era-biltzen badira laguntza handia dira behinikbehin oroimenerako eta maiz aurkikuntza berrietara bideratzen gaituzte. Baina esan nahi dudana da ez dugula hartu behar hipotesirik arinegi (gogamena, gau-zen kausetaraino barrendatu eta euskarritzat printzipioak aurkitu nahian ari delarik etengabe, hori egiteko beti prest egon arren), harik eta gauza partikularrak ongi eta zehatz aztertu eta gure hipotesiaren bidez azaldu nahi ditugun gauzetan esperimendu ezberdinak eginez hipotesi hori gauza horiekin guztiekin ados datorren ikusi eta gure printzipioak naturako fenomeno guztietara hedatzen diren egiaztatu arte, naturako fenomeno batera egokiro moldatzen diren eta fenome-no hori azaltzen duten bezainbatean beste batekiko bateraezinak ez direla esperimendatuz. Eta kontuz ibili behar dugu *printzipio* izenak engainura bederen eraman ez gaitzan eta egia eztabaidaezin bezala hartzera bultzatzen ez gaitzan, izatez, kasurik onenean ere oso aieru zalan-tzagarria baino ez dena, horixe besterik ez baitira filosofia naturaleko hipotesirik gehienak, denak ez esatearren.

14. *Idea argi eta bereiziak, izenak ezarrita, edukitzea eta haien arteko adostasuna edo desadostasuna frogatzen duten bitarteko ideiak aurkitzea dira gure ezagutza areagotzeko bideak.*

Baina, filosofia naturalean ziurtasuna lortu daitekeela edo ez daitekeela, gure ezagutza areagotzeko bideak, horretarako gai garen neurrian, bi hauexek direla uste dut: Lehenengoa, izen orokor edo espezifikokoak erantsirik ditugun gauzen ideia zehaztuak, edo behintzat kontsideratu, hobeto ezagutu eta arrazoinamenduz aztertu nahi ditu-gun gauza guztienak, geuganatzea eta geure gogamenetan finkatzea da. Eta hauek substantzien ideia espezifikokoak badira, ahalik osoenak

izan daitezen saiatu beharko dugu, eta honekin esan nahi dut espeziea erabat determinatzeko behar diren etengabe koexistitzen diren ideia bakun guztiak batu beharko ditugula; eta gure ideia konplexuen osagaiak diren ideia bakun horietako bakoitzak argia eta bereizia izan behar du gure gogamenean. Izan ere, nabaria denez gure ezagutzak ezin dituela gure ideiak gainditu, inperfektuak, nahasiak edo ilunak diren heinean, ezin dezakegu espero ezagutza ziurra, perfektua edo argia edukitzerik. Bigarren bidea, arartegabe alderatu ezin ditugun beste ideia batzuen adostasuna edo aurkakotza frogatu diezaguketen bitarteko ideiak aurkitzeko artea da.

15. *Matematika honen adibide bat da.*

Kopuruaz gain beste moduei buruz ere gure ezagutza areagotzeko metodo ona bide hauek praktikan jartzea dela (eta ez, maxime-tan oinarrituz, zenbait proposizio orokorretik ondorioak ateratzea), erraz ikusiko du matematikan erdiesten dugun ezagutza aztertzen duen orok. Izan ere, ezagutza matematikoan lehenbizi aurkituko dugu angeluei eta irudiei buruz zerbait jakin nahi duenak, beraiei buruz ideia perfektu eta argirik ez badauka, ezin izanen duela haietaz inolako eazgutzarik erdietsi. Demagun batek angelu zuzenaren, eskalenoaren edo trapezioaren ideia erabat zehatzik ez duela, eta ikusiko dugu alferrik saiaturik dela irudi hauei buruzko frogapenik erdiesten. Are, gauza nabaria da matematikan printzipiotzat harturiko maxima hauen eraginez ez direla heldu zientzia honetako adituak, egin dituzten aurkikuntzetara. Demagun gizaki burutsu batek matematikan erabili ohi diren maximak ezin hobeto ezagutzen dituela eta berauen hedadura eta ondorioak nahi hainbatean ikusten dituela, eta egiaztatuko dugu, nik uste, horien laguntzaz nekez helduko dela triangelu angeluzuzen batean hipotenusaren berbidura beste alde bien berbiduren berdina dela jakitera. «Osoa bere atal guztien berdina dela» eta «berdinei berdina kenduz gero, hondar berdina geratzen direla» jakiteak ez zion, nik uste, lagunduko aipatu berri duguna frogatzeko, zeren nahi bezain luzaro axioma horiez hausnarrean ibilitako gizakiak, nire ustez, egia matematikoez ez du fitsik ere gehiago ikusiko. Egia horiek pentsamenduak beste era batera aplikatuz aurkitu dira; gogamenak, egia matematiko horiek erdiesten hasi zenean, maxima horietatik oso ezberdinak diren objektuak eta ikuspegiak eduki zituen aurrean, eta onarturiko maxima horiek ongi ezagutu arren, frogapen horiek lehen-

bizi egin zituztenen metodoez ezjakin zirenek ezin izan dituzte behar bezainbestean miretsi. Eta nork daki, beste zientzietan gure ezagutza areagotzeko, ez den egunen batean asmatuko beste metodo bat, matematikan Algebrak, hau da, kopuruaren ideiak agudo aurkituz eta berauekin beste kopuru batzuk neurtuz guk bestela nekez eta pekez edo inola ere ezagutu ezin genezakeen berdintasuna edo proportzioa erdiesten digun metodoak duen baliagarritasun bera ukanen duena?

XIII. KAPITULUA

Gure ezagutzari buruz gogarpen gehiago

1. *Gure ezagutza hein batean da nahitaezko («necessary») eta hein batean nahitako («voluntary»).*

Gure ezagutzak honetan ere, beste zenbait gauzatan bezala, antz handia dauka gure ikusmenarekin: ez da guztiz nahitaezko, ez guztiz nahitako. Guztiz nahitaezkoa balitz, ez litzateke ondorioztatu-ko soilik gizaki ororen ezagutza berbera izatea, baizik, gainera, giza-kiotariko bakoitzak ezagugarri den guztia ezagutzea; eta guztiz nahi-takoa balitz, ostera, gizakietariko batzuek hain garrantzi edo balio gutxi emanen liokete, non ezagutza oso murrizta leukaketen, edo ino-lako ezagutzarik ere ez. Sentimenez hornituriko gizakiek horien bidez zenbait ideia hartzea beste aukerarik ez daukate; eta oroimenik baldin badute, ideia horietariko batzuk gogoan gordetzea besterik ez dauka-te; eta bereizmenik baldin badute, berriz, horietariko ideia batzuek elkarrekiko duten adostasuna edo desadostasuna hautematea besterik ez dute izanen, begiak dituenak ezinbesteko duenez —begiok egune-ko argitan zabaltzen baditu behintzat— zenbait objektu ikustea eta berauen arteko desberdintasuna hautematea. Baina begiak argitan zabalik dituen batek nahitaez ikustea besterik ez badauka ere, bada halere zenbait objektu zeintzuei buruz hark begiak ixtea hauta deza-keen, horrela nahi izanez gero; adibidez, baliteke irudiz eta diskurtsoz osaturiko liburu atsegin eta interesgarri bat eskueran edukitzea, baina hura irekitzeko eta bar rukoari begiratzeko gogorik sekula ez izatea.

2. *Ahalmenak erabiltzea nahitakoa dugu, baina horiek erabiliz gero, gauzak diren moduan, eta ez guk gura genukeen moduan, eza gutzen ditugu.*

Bada beste zerbait ere gizakiaren esku dagoena: nahiz eta batzuetan begiak objekturen batera zuzendu, berak hauta dezakeela objektu hori arretaz aztertzea eta hartaz ikus dezakeen guztia aparteko arduraz behatzen saiatzea. Baina bestenaz, dakusan hura ezin du dakusanaz bestela ikusi. Ez dago bere nahiaren menpe, hortaz, horia den zerbait beltz ikustea, edota egiazki eskua erretzen ari zaiona hotza dela sentitzea. Lurra ez zaio agertuko lorez pintaturik edota landak belarrez beteta, berari gogoak ematen dionean: negu hotzean, landa horiei so egiten badie, ezin izanen du ekidin haiek izotzez zuri ikustea. Eta horixe bera gertatzen da, hain zuzen, gure adimenarekin: gure ezagutzan nahitakoa den oro gure ahalmenak halako edo bestelako objektuen gainean erabiltzera edo erabili gabe uztera, eta berauei buruzko azterketa gutxi-asko arretatsura mugatzen dela, alegia; baina *behin erabili eta gero, gure nahimenak ez du ezelako botererik gogamenaren ezagutza modu batera edo bestera erabakitze*; hori objektuek eurek baino ez dute eragiten, berauek argi deskubritzen diren heinean. Eta beraz, gizakiaren sentimenek kanpoko objektuez diharduten heinean, gogamenak berari aurkezten zaizkion ideiak hartzea eta bertaz kanpo diren gauzen existentziaz kargutzea besterik ez dauka; eta gizakien pentsamenduek euren baitako ideia zehatzez diharduten heinean, ezin dute ekidin ideia horietariko batzuen arteko adostasuna edo desadostasuna hein batean bederen hautematea —eta hauxe da benetakoa ezagutza—; eta era horretara kontsideratu dituzten ideia horien izenak badituzte, nahitaez egon behar dute segur adostasun edo desadostasun hura hauteman dieten proposizio horien egiaz, eta egia horietaz konbentziturik, zalantzarik gabe. Zeren batek dakusana ezin baitu ikusi gabe utzi; eta hautematen duena ere ezin ekidin hautematen duela jakitea.

3. *Kopuru edo zenbakien adibidea.*

Horrela, zenbakien ideiak bereganatu dituenak, eta bat gehi bi gehi hiru seirekin alderatzeko nekea hartu duenak, ezin ekidin zenbakiok baliokide direla jakitea; era berean, triangeluaren ideia bereganatu duena eta haren angeluak eta magnitudeak neurtzeko tresna aurkitu, ziur egonen da haren hiru angeluak bi angelu zuzenen baliokide

direla, eta ez du horretaz «gauza bera izatea eta ez izatea ezinezko dela» dioen egiaz baino zalantza handiagorik ukanen.

4. Erljio naturalaren adibidea.

Era berean, «adimenduna bai baina ahul eta hilkorra den izakia beste izaki betiereko, ahalguztidun eta jakituriaz zein ontasunez beteriko batek egina eta beronen menpekoa» delako ideia daukanak ziurtasunez jakinen du, eguzkiak begien aurrean distira egiten duela dakien ziurtasunez jakin ere, gizakiak Jainkoari ohorea, errespetua eta obedientzia diola zor. Zeren aski baitu bere gogamenean horrelako bi izakiren ideiak edukitzea eta horietaz gogoeta egin nahi izatea, honako hau jakiteko —hiru, gehi lau, gehi bost, hamabost baino gutxiago dela dakien ziurtasunez—: azpitiko, mugatu eta menpeko den izakiak obedientzia zor diola izaki goren eta infinituari; aski du, esan bezala, zenbakion kalkulua egitea; eta ez du ukanen hori baino ziurtasun handiagorik eguzkia goiz oskarbian irteteaz ere, baldin eta begiak ireki eta gaiari buruz gogoeta egin nahi badu. Hala eta guzti, egiok hain argi eta garbiak izan arren, daitekeena da berauei buruz informatu nahirik bere ahalmenak behar bezala erabiltzeko lana sekula hartu ez duena egiotariko zenbaitetaz edota guztietaz ezjakin izatea.

XIV. KAPITULUA.

Juzgamenari buruz

1. *Gure ezagutza mugatua delarik, zerbait gehiagoren premian gaude.*

Aditzeko ahalmenak gizakiari espekulaziorako ez ezik eguneroko bizitzan jarduteko eman zaizkionez, guztiz galduta aurkituko litzateke *egiazko ezagutza horren ziurtasuna* duena besterik ez baleuka gidaritzat. Izan ere, ezagutza hori oso mugatua eta murrizta izanik, ikusi dugun bezala, sarritan iluntasun osoan aurkituko litzateke, eta bere bizitzako ekintzarik gehienetan zer egin jakin gabe, ezagutza argi eta ziurrik gabeko uneetan beste gidaritzarik ez baleuka. Janari jakin batek egiazki elikatzen duela jakin arte jan nahi ez duenak, edota burutzeko asmoa duen ekintzak arrakasta ukanen duela ziurtasun hutsezinez jakin arte mugitu nahi ez duenak, ezer gutxi egin dezake hantxe geldo egoteaz eta laster hiltzeaz aparte.

2. *Zelan jokatu arginabarreko («twilight») e goera honetan.*

Beraz, Jainkoak gauza batzuk egun argitan begi-bistan jarri dizkigunez eta beste zenbaiti buruz ezagutza ziurra eman —nahiz eta erlatiboki oso gauza gutxiri buruz, beharbada izaki adimendunak zenbaterako gai diren erakutsi eta egoera hobera irits gaitezen irrika eta ahalegina gudan pizteko-, dagozkigun arazo gehienei buruz, ostera, probabilitatearen arginabarra besterik ez digu eman, horrela esatea zilegi bazait; ongi dagokiona bestalde, nik uste, hark mundu

honetan jarri nahi izan gaituen erdipurdiko eta probaldiko egoera honi, geure buruarekiko gehiegizko ustea eta harrokeria apaltzeko, gure kamustasunaz eta okerkuntzan erortzeko erraztasunaz kontura gaitezen eguneroko eskarmentuaren bidez; eta horren sentimena etengabeko ohartarazpen izan dezagun, gure erromesaldi honetako egunak perfekzio handiagoko egoerara eraman gaitzakeen bide horren bilaketan eta jarraipenean erabiltzeko, abilezia eta arreta handienaz. Zeren aski arrazoizkoa baita pentsatzea ezen, errebelazioa horretaz isilik egon balitz ere, Jainkoak mundu honetan eman dizkien talentuak erabiliz gero, gizakiek beren sariak jasoko dituztela horregatik, eguzkia itzaltzen zaienean eta ilunabarrak euren ahaleginei bukaera ematen dienean.

3. *Judizioak edo probabilitateari emandako baiespenak gure ezagutzarik eza ordeztzen du.*

Jainkoak ezagutza argi eta ziurraren ordeztu gizaia eman dion ahalmena, ezagutza hura lortzerik ez dagoen kasuetan, *juzgamena* da; honen bidez, gogamenak bere ideien adostasuna edo desadostasuna egiaztatzen du —edo, berdin dena, proposizio jakin bat egiazkoa ala faltsua den—, frogetan nabaritasun frogagarriarik hauteman gabe. Gogamena, zenbaitetan, premiak bultzatuta baliatzen da juzgamenaz, froga demostragarriak eta ezagutza ziurra lortzerik ez dagoenean; beste batzutan, oster, nagikeriak, moldagaiztasunak edo pazientziarik ezak bultzatuta, nahiz eta froga demostragarri eta ziurrak eskueran ukan. Jendeak ez du izaten pazientziarik, sarritan, ezagutzeko gogoia edo interesa duen bi ideien arteko adostasuna edo desadostasuna aztertzen ahalegintzeko; aitzitik, dela halako arrazoinamendu katea luzeek eskatzen duten arreta jartzeko gai ez direlako, dela luzapenean ibiltzeko pazientziarik ez daukatelako, azaleko begiratu batekin kontentatzen dira edota ez dute izaten arean ere frogen ardurarik; eta halaxe erabakitzen dute, frogapenik burutu gabe, bi ideien arteko adostasuna edo desadostasuna, ideion urruneko ikuspegiarekin aski bailuten; eta hain azaleko azterketaren ondoren egokien deritzotenen arabera ebazten, zentzu batera zein bestera. Gogamenaren ahalmen honi, gauzei buruz arartegabe diharduenean, *juzgamena* deitzen diogu; hitzetan adierazitako egiei buruz diharduenean, berriz, *baies-pena* («assent») edo *ezespena* («dissent») deitzen zaio gehienetan; eta horixe denez, izan ere, gogamenak ahalmen hori erabiltzeko modurik

ohikoena, hitz horiexekin deituko diot, gure hizkuntzan ekibokoetarako bide gutxien ematen dutelakoan.

4. Juzgamena gauza jakin bat halakotzat ematea da, horrela denik hauteman gabe.

Gogamenak, horrela, egia eta faltsutasunari buruz diharduten bi ahalmen ditu: Lehenik, EZAGUTZA, zeinen bidez gogamenak bi ideia jakinen arteko adostasuna edo desadostasuna ziurtasunez hautematen duen, horretaz zalantzarik gabe konbentziturik geratzeraino. Bigarrenik, JUZGAMENA, gogamenean ideiak elkartzean edota bereiztean datzana, berauen arteko adostasuna edo desadostasuna ziurtasunez hautematen ez denean, baizik hala dela ematen; eta, hitzak berak edierazten duenez, honexetan datza hain zuzen: zerbait ziurtasunez ageri aurretik, halakotzat ematean. Eta ideioek errealitatean gertatzen denaren arabera elkartu edo bereizi badira, judizio zuzena sortzen da.

XV. KAPITULUA

Probabilitateari buruz

1. *Probabilitatea, hutsezinak ez diren frogen gainean oinarri - turiko adostasunaren itxura da.*

Frogapena elkarrekiko lotura iraunkor, aldaezin eta ikusgarria duten froga baten edo gehiagoren bitartez bi ideiaren arteko adostasuna edo desadostasuna erakustean datzan bitartean, *probabilitatea* adostasun edo desadostasun horren itxura besterik ez da, elkarrekiko lotura iraunkorra eta aldaezina beti ukan ez arren (edo behintzat guk horrela hauteman ez arren), gehienetan horrelako lotura daukaten —edo daukatela diruditen— frogen bitartez; eta hori aski da gogamenak proposizio jakin bat egiazkoa edo faltsua dela —kontrakoa dela baino ziurrago— juzga dezan. Esaterako, triangeluaren hiru angeluen frogapenean, batek badu hautematerik angelu horien eta berauek bi angelu zuzenekin duten baliokidetasuna adierazteko erabiltzen diren bitarteko ideien artean dagoen lotura ziur eta aldaezina; eta horrela, bitarteko ideia horien adostasuna edo desadostasunaren intuiziozko ezagutza baten bitartez prozesuaren urrats bakoitzean, serie osoak jarraitzen du hiru angeluon bi angelu zuzenekiko baliokidetasunaren adostasuna edo desadostasuna argi erakusten duen nabaritasunarekin; eta era honetara, hori horrela den ezagutza ziurra dauka hark. Baina frogapen horri erreparatzeko ardurarik sekulan hartu ez duen besteren batek, aldiz, izen handiko matematikari bati tringeluaren hiru angeluak bi angelu zuzenen baliokide direla esaten entzuterakoan, proposizio

horri baiespena emanen dio besterik gabe, hau da, egiazkotzat hartuko du. Kasu honetan, gure gizonaren baiespenaren funtsa gauzaren probabilitatean datza: izan ere, froga bera normalean egia daramatzaten horietarikoa baita, eta testigantza dakarkion gizona, berriz, ezagutzen duenaz bestelakorik edo kontrakorik baieztatzen ez duen horietarikoa, bereziki horrelako gaietan. Beraz, triangeluaren hiru angeluak bi angelu zuzenen baliokide direla dioen proposizioari baiezkkoa emateak, ideion arteko adostasuna onartzeak —horrela den ala ez ezagutu gabe-, esaleak beste kasu batzuetan erakutsi duen edota kasu honetan konkretuki aitortzen zaion egiatasunean hartzen du oina.

2. Ezagutzarik eza ordeztea du helburu.

Gure ezagutzak, gorago azaldu bezala, oso muga estuak ditueenez, eta ezagugaitzat hartzen ditugun gauza guztietan beti egia ziurtasunez aurkitzeko zoririk izaten ez dugunez, pentsagai, arrazoinagai eta eztabaidagaitzat ditugun proposiziorik gehienak —jardunbidetzat hartzen ditugunak barne— berauen egiaz ezagutza zalantzagabea eskuratzerik ez dugun horietarikoak dira. Halere, horietariko batzuk ziurtasunetik hain hurbil dira, non ez dugun haiei buruzko inolako zalantzarik; aitzitik, hain irmoki ematen diegu baiespena, eta baiespen horren arabera hain erabakitsu jarduten, non proposiziook hutsezintasunez frogatuak bailiran eta euron ezagutza oso eta ziurra baikenuen jokatzan dugun. Baina honetan maila bat baino gehiago ematen denez, ziurtasunaren zein frogapenaren eremu hurbilenetik hasi eta ez-probabetik zein sinesgaitzetik hurbilen dagoenera, ezinezkoaren mugetaraino barne, eta onarpenari dagokionez ere baiespen maila ezberdinak direnez, segurtasun osotik zein konfiantzatik hasi eta aieru, zalantza zein mesfidantzara, orain (*giza ezagutzaren eta ziurtasunaren mugak aurkitu ondoren, nire ustez*) *hala probabilitatearen nola baiespenaren edo fedearen maila eta oinarri ezberdinak* hartuko ditut gaitzat hurrengoan.

3. Izan ere, zerbait egiazkoa dela ezagutu aurretik, hartakotzat hartzera bultzatzen gaitu.

Probabilitatea, izatez, egiazko daitekeena da («likeliness to true»), eta hitzak berak ere horixe adierazten du: egiazkotzat jotzeko edo onartzeko moduko argumentuak edo frogak dituen proposizioa dugula. Gogamenak horrelako proposizioei egiten dien harrerari *sinestea*, *baiespena* edo *iritzia* deitzen diogu, eta honexetan datza:

proposizio jakin bat egiazkotzat hartzean edo onartzean, hura egiazkotzat onar dezagun konbentziazteko aurkezten zaizkigun argumentu edo frogetan oinarrituz, nahiz eta hala delako ezagutza ziurrik ez ukan. Eta hortxe datza, hain zuzen ere *probabilitatearen* eta *ziurtasunaren* arteko nahiz *fedearen* eta *ezagutzaren* arteko desberdintasuna: ezagutzaren atal guztietan dagoela intuizioa, halako moldez non arartegabeko ideia bakoitzak, urrats bakoitzak, bere lotura ageriko eta ziu-rra duen; sinestean gertatzen ez dena. Sinestea eragiten didana, izan ere, sinesten dudan gauzaz landako zerbait baita, mutur bietatik nabaritasunaz lotuta ez dagoen zerbait, eta gogotan hartzen ditugun ideia horien arteko adostasuna edo desadostasuna nabariro erakusten ez duena, beraz.

4. *Bi dira probabilitatearen oinarriak: zerbaitek gure esperientziarekiko duen adostasuna, edo beste norbaitzuen testigantza.*

Hortaz, probabilitateak gure ezagutzarik eza bete eta honek huts egiten duen lekuan gida gaitzakeelarik, inolako ziurtasunik ez, baizik horiek egiazkotzat onartzeko zenbait zantzu besterik ez daukagun proposizioez ariko da betiere. Eta hona hemen, hitz gutxitan, probabilitatearen oinarriok: Lehenik, zerbaitek gure ezagutza, behaketa eta esperientziarekin duen adostasuna. Bigarrenik, beste batzuen testigantza, euren behaketak eta esperientziak bermatua. Besteen lekukotzan honako aldagai hauek dira: 1. Kopurua; 2. Zintzotasuna; 3. Lekukoen abilezia; 4. Autorearen asmoa (testigantza liburu baten aipuari dagokionean); 5. Kontaketaren atalen eta zirkunstantzien arteko koherentzia; 6. Aurkako testigantzak.

5. *Honetan, alde zein kontrako argumentu guztiak aztertu beharra dago, juzgatzera iritsi aurretik.*

Probabilitateak ez daukanez berez adimenean hutsezintasunez eragin eta ezagutza ziurra sortzen duen intuiziozko nabaritasun hori, gogamenak, *arrazionalki jokatu*ko *badu*, probabilitate oinarri guztiak aztertu behar ditu, eta ikusi ea horiek zein neurritan dauden proposizioaren alde edo kontra, beroni baiespena eman edo ukatu aurretik; eta hori guztia balantzan behar bezala pisatu ondoren, proposizio hori ezetsi edo onartu, baiespen tinkotasun handiagoz edo ahulagoz, alde batean edo bestean nagusi diren probabilitate oinarrien arabera. Adibidez: Nik neuk baldin badakusat norbait izotzaren gainean dabilela, horrek probabilitatea gainditu egiten du eta ezagutza da. Baina

beste norbaitek esanen balit berak Ingalaterran gizaki bat ikusi zuela negu gordinean hotzak izozturiko uren gainetik dabilela, hori hain dago ados gertatzen ikusi ohi denarekin, non prest nengokeen, gauza-
 ren beraren izaeragatik, nire baiespena emateko; ezpada susmo naba-
 riren batek kontu hori susmagarri bihurtzen duela. Baina gauza bera,
 aldiz, tropikoetan jaio eta lehenago horrelakorik inoiz entzun ez duen
 bati kontatzen badiote, probabilitatearen pisu osoa testigantzaren gai-
 nean geratzen da; eta orduan, esaleen kopurua eta sinesgarritasunaren
 arabera, eta esaleok iruzur egiteko inolako interesik ez duten neurrian,
 fede gehiago edo gutxiago mereziko du. Ostera, beti erabat bestelako
 esperientzia izan duen eta sekula halako gauzarik entzun ez duen per-
 tsona baten kasuan, lekuko sinesgarrienaren hutsezinezko fidagarritasunak
 ere nekez makurtuko du halakoei fede ematera. Horrelako zer-
 bait gertatu zitzaion Holandako enbasadore bati, lurralde horretako
 berezitasunez galdetu zion Siameko erregeari informazioa ematerako-
 an, beste zenbait gauzaren berri eman ondoren, zera esan zionean:
 bere herrialdean ura neguan hain gogor bihurtzen zela, non gizakiak
 haren gainean ibiltzen zirela eta elefante baten pisua ere jasan zeza-
 keela, hara elefanterik joanen balitz. Eta orduan hauxe erantzun zion
 erregeak: *orain arte, gizon zintzo eta zentzuduntzat izan zaitudanez,*
kontatu dizkidazu gauza bitxi guztiak sinetsi dizkizut; orain, aldiz,
argi daukat gezurretan ari zarela.

6. *Argumentuprobableak oso anitzak izan daitezke.*

Oinarrian menpe dago, bada, edozein proposizioaren probabili-
 tatea; eta gure ezagutzarekin bat datorren heinean, esperientzia sarria
 eta iraunkorra den heinean, eta testigantzen kopurua eta sinesgarritasuna
 dagokion edo ez dagokion heinean, probabilitate handiagoa edo
 txikiagoa ukanen du bere hartan proposizio horrek. Aitortu behar dut
 badela beste aldagai bat ere, zeina berez probabilitatearen egiazko
 oinarri ez izan arren, sarri askotan gizakiek beren baiespena eraiki-
 tzeko zimentarriztat erabiltzen duten, bertatik abiatuz iltzatzen dutela-
 rik beren fedea beste edozein gauzaren gainetik: *besteen iritzia*, ale-
 gia. Halere, ezin aurkitu fedearen oinarritzat hartzeko funts arrisku-
 tsuagorik eta edonor errakuntzara eramateko egokiagorik; gizakien-
 gan faltsutasuna eta errakuntza ugariago baitira egia eta ezagutza
 baino. Eta dela ezagunak edo estimutan ditugunak izatearren, beste
 batzuen aburuak eta buruerak hartzen baditugu gure baiespenaren

oinarritzat, arrazoiz lirateke gizakiak Japonian pagano, Turkian mahometar, Espainian aitasantuzale, Ingalaterran protestante eta Suedian luterano. Baina ukanen dut aukera, geroxeago, baiespenaren okerreko oinarri horretaz luze eta zabalago mintzatzeko.

XVI. KAPITULUA

Baiespen mailez

1. Gure baiespena probabilitate oinarriek arautu behar dute.

Aurreko kapituluan aipaturiko probabilitate oinarriok direnez gure baiespena eraikitzeko zimenduak, beraiek ditugu, baita ere, baiespenon maila ezberdinak arautzen dituen edo arautu beharko lituzkeen neurria. Honako honetaz kargutu behar dugu bakarrik: dena delako probabilitate oinarriak izanik ere, ez dutela, hala ere, itxuraz ageri dutenetik haragoko eragintzarik egiaren bila dabilen eta zuzenki juzgatzen saiatzen den gogamenean; behintzat gogamen honek egiten duen lehen judizioan edota bilaketan. Aitor dut, mundu honetan giza-kumeez dituzten eta hain tinko eusten dieten iritzietan, beraien baiespenaren kausa ez datzala beti beraiengan hasiera batean nagusitu ziren arrazoiak egiazki ikustean; zeren kasu askotan ia ezinezkoa baita, eta oroimen miresgarria daukatenentzat ere oso zaila gehienetan, behar bezalako azterketa baten ondoren auziaren alderdiren bat atxikitzen bultzatu zituzten froga guztiak gogoan izatea. Aski da aztergaia behin arakatu badute zintzoki eta arretaz, horretarako ahalmena izan duten neurrian; eta euren aburuz auziari argitasunen bat eman diezaioketen zertzelada guztiak aztertu badituzte; eta, euren trebetasun guztia horretara jarritz, nabaritasun osoari buruzko laburbilduma egin badute. Horrela, probabilitatea euren iritziz zein aldetan ageri zitzaien behin deskubritu eta gero, egin zezaketen ikerketa erabatekoen eta zehatzena egin ondoren, eurek deskubritu duten egia bailitzan inpri-

matzen dute azterketa horren konklusioa beren oroimenean; eta beren oroimen horren testigantzaz konbentziturik azalduko zaizkizu gerora, iritzi horixe dela-eta, behin hura finkatzeko aurkitu zituzten frogen izenean, beren honelako edo halako baiesten maila merezi duena.

2. Froga guztiok beti gogamenean egiatan ezin egon daitezkeez, halako baiesten maila justifikatzeko moduko oinarria behin ikusi genuela gogoratzea besterik ez daukagu.

Horixe da gizaki gehienek egin ahal dutena beren iritziak eta judizioak arautzeko, baten batek gehiago eskatu eta edozein egia probableren froga guztiak haien oroimenean izatea exigitu nahi ez badie behintzat, eta hori, gainera, arestian frogok ikusi edo kokatu zituzten ordena berean eta ondorio sailen katea berean; horrek, zenbaitetan, liburu lodi bat betetzea ekar lezakeelarik auzi bakar bati buruz, edota haiek egunero aztertu behar izatea defendatzen duten iritzi bakoitzaren frogak: gauza bata zein bestea ezinezkoa delarik. Beraz, ezin ekin daiteke kasu honetan oroimenean konfiantza izatea, eta gizakiek beren gogamenean atxikirik aurkitzen ez diren frogetan oinarritutako iritzi ugariri fede ematea, nahiz eta agian frogok gogora ekartzeko gai ez izan. Horrela ezean, bitarik bat: edo gizaki gehienek oso eszeptikoak izan beharko lukete, edo, uneoro iritzi aldaturaz, auzia oraintsu ikertu duen eta argudioak proposatzen dizkion edozein lagunaren esanera makurtu, beronen argudioei unean bertan erantzuteko gai ez delarik, oroimen ezagatik.

3. Portaera horren ondorio arriskutsuak, gure lehen judizioa behar bezala sustraitu ez baldin badugu.

Honako hau onartzea besterik ez daukat: gizakiek beren lehenagoko judizioei halako atxikimendua izatea eta behinola atera zituzten konklusioei hain irmoki eustea dela, sarri askotan, errakuntzan eta okerrean hain seta handiz irautearen kausa. Akatsaren jatorria ez datza, baina, arestian zuzen juzgatu zituzten gauzei buruzko oroimenean oinarritzean, baizik, erabakia hartu aurretik, hura ongi aztertu zutela uste izatean. Ez al da jende mordo bat (gizaki gehienak sail horretan ez sartzearen) gai ezberdinei buruz judizio zuzenak eratu dituela uste duena?; eta hori honexegatik baino ez, alegia, inoiz bestelakorik ez dutelako pentsatu, eta, beren iritziak inoiz zalantzatan ez jartzearen edo aztertzearen, zuzen juzgatu dutelakoan daudelako. Sakonean zera esan nahi duena: eurek uste dutenari buruzko inolako

judiziorik sekula ez egitearren, zuzenki juzgatzen dutelakoan daudela. Halere, jende honek beste inork baino zurruntasun handiagoz eutsi ohi die bere aburuei; izan ere, oro har, beren iritzia gutxien aztertu dituztenak izan ohi dira eurenari egoskorkeria eta atxikimendu handiagok eusten diotenak. Behin ezagutu genuen hura orduantxe ezagutu genuen modukoa dela uste dugu, uste osoz, eta ziur egon gaitezke, gainera, ez dagoela gure ezagutza hori aldatu edo zalantzatsu bihur dezakeen beste inolako froga ezkuturik. Baina *probabilitate* arloan ezin jakin dezakegu ziur, ordea, auzia alderdiren batetik ukitzen duten zertzalada guztiak kasu bakoitzean begien aurrean izan ote genituen, edota bazterrera utzi ez ote genituen, edo frogaren bat —bere sendotasunagatik probabilitatea beste alderantz makurtu eta ordurarte pisudunentzat geneukana zalantzaraz zezakeena balantzan— aintzat hartu gabe utzi ote genuen. Ez da izanen munduan gizakirik bere iritzi gehienak oinarri ditzaketen froga guztiak biltzeko astia, pazientzia eta baliabideak dituenik halako neurrian, non ikusmolde argi eta oso bat duela eta bere informazioa gehitzeko ez duela beste ezer gehiago jakin beharrik ziurtasunez konkludi dezakeen. Hala ere, ebatzi beharra izaten dugu, hau edo beste. Bizi beharrak eta gure interes nagusiak zaindu beharrak ez digu luzamendurik onartzen, zeren eginkizunok, hein handi batean, gure juzgamenak zenbait punturi buruz —frogapenezko ezagutza ziurrez ezagutu ezin ditugun, baina hau edo beste nahitaez ebatzea eskatzen diguten puntuei buruz, alegia— hartzen duen erabakiaren menpe baitaude.

4. *Horren erabilera zuzena, beharrezko aburu ezberdintasune - an elkarrenganako karitatea eta tolerantzia edukitzean datza.*

Hortaz, gizaki gehienak, denak ez esatearren —bakoitzak bere egia-aren egintza seguru eta zalantzarik gabekoen bidezko ziurtasunik ez duenez-, aburu desberdinekoak izatea ezin ekidin daitekeenez eta, gainera, edozein gizakirengan ezjakintasun, arinkeri edo erokeri seinale nabarmentzat jotzen delarik jada atxikimendua emana dien iritziei uko egitea, zergatik eta beste argudioren bat aurkeztu diotelako eta berorren mehetasuna bat-batean frogatzerik ez daukalako, uste dut egoki litzaiekeela gizakiei, elkarrengandik bereizten dituen iritzi desberdintasun honen aurrean, bakean bizitzea eta elkarrenganako gizatasun zein adiskidetasun betebeharrak praktikatzea; izan ere, ezin dugu arrazoiz espero inork bere aburuak bat-batean eta musutruk baz-

terrera uztea eta besteenei atxikimendua eskaintzea, giza adimenak inola ere ezagutzen ez duen autoritate batiitsu-itsuan men eginez. Zeren gizakia errakuntzan maiz erori daitekeen arren, ezin baitu onartu arrazoimena ez den beste gidaririk, ezta inoren nahiari eta erabakiei itsu-itsuan men egiterik ere. Zure arrazoietara erakarri nahi duzun hori bere baiespena eman aurretik gauzak aztertzen dituen horietarikoa bada, auzia bere gogara berraztertzen utzi beharko diozu, eta, bere gogamenetik bazterrera geratu dena berriro gogora ekarriz, zertzelada guztiak aztertzeko aukera eman, balantza zein aldetara makurtzen den ikus dezan; eta ez baderitzo gure argudioak horren pisudunak direnik bera halako ahaleginetan berriro sar dadin, kontura gaitezen horixe bera egiten dugula guk geuk ere sarritan halako kasuetan, eta ez litzaigukeela batere gustatuko beste batzuek agintzea zein puntu aztertu behar ditugun. Ostera, bere iritziak besteek diotsotenari fede emanez eratzen dituenetariko bat baldin badugu solaskide, nola espero genezake lagun horrek uko egiterik bere gogamenean denborak eta ohiturak errotu dituen aburu horiei, eta errotu ere hain sakonki, non berez nabaritzat eta erabat ziurtzat dauzkan, edota Jainkoagandik bera-rengandik edo beronek bidalitako gizakiengandik jasotako inpresioztat? Nola espero dezakegu, diot nik, inork bere aburu ongi finkatuok bazterrera uztea arrotz edo lehiakide baten argudioen edo autoritatearen aurrean, batez ere horiei interes edo asmo jakinen bat antzematzen bazaie, gaizki tratatua sentitzen den edonork antzemanen dienez seguru? Ongi eginen genuke bata besteaz dugun ezjakintasuna deitoratuko bagenu eta zuzentzen saiatu, horretarako informazio bide adiskidetsu eta onestez baliatuz; eta ez enparauak besterik gabe egosgogor eta setatitzat jo eta gaizki tratatu, euren iritziei uko egin eta gureak (edo behintzat guk inposatu nahi dizkiegunak) onartu nahi ez izatearren, kontuan hartu gabe gu geu ere ez garela ziurrenik, beraien iritziren batzuk onartzeari dagokionez, eurak baino gutxiago egosgogortasunean. Zeren non da berak defendatzen duen guztiaren egiazkotasunaren edota gaitzesten duen guztiaren faltsutasunaren nabaritasun kontestaezina duena; edo bere iritziak oro, edo beste enparauenak, azkeneraino aztertu dituela esan dezakeena? Aurkitzen garen ekintza eta itsutasun egoera iragankor honetan ezagutzarik gabe, hots, sarri askotan fundamentu oso ahuletan oinarrituta sinetsi beharrak besteek kritikatzeko baino geure burua informatzeko kezkatuago eta ardurasuago bihurtu beharko gintuzke. Beren aburu guztiak osotoro eta

sakonki aztertu ez dituztenek, behintzat, besteenak gaitzesteko gai ez direla aitortu beharko lukete; eta ez dutela arrazoiz jokatzeko beste batzuei sinetsi beharreko egiaztat ezarri nahian beraiek ikertu ez dutena, hura onartzeko edo ez onartzeko izan ditzaketen probabilitate argumentuak haztatu gabe. Beraiek defenditzen eta gidatzat dituzten doktrina guztiak zintzo eta egiazki eta zalantza guztien gainetik aztertu dituztenek, egia esan, gainerakoek baino aitzakia gehixeago leuka-kete beste batzuk beren esanera ekartzeko; baina horiek hain dira gutxi eta hain arrazoi gutxi aurkitzen dute beren iritzietan inoren maisu izateko, non haien aldetik ez baitugu gangarkeriarik eta bortxazkorik deus espero behar; eta bada arrazoirik uste izateko ezen, jendea ikasiagoa baldin balitz, ez litzatekeela besteei inposatzera hain emana.

5. Probabilitatea, edo giza testigantzan oinarri daitezkeen egitatezko arazo hautemangarriei dagokie, edo gure sentimenen nabari-tasunaz («evidence») harago dagoenari dagokio.

Baina baiespenaren funtsera eta mailetara itzultzeko, probabilitatearen eremutik jasotzen ditugun proposizioak bi motatakoak direla ohartarazi beharko dugu: batzuk izate partikular bati dagozkionak, edo, eskuarki deitzen zaienez, egitatezko arazoak, eta hauek, behaketaren menpekoak izanik, giza testigantzan oinarrituak izan daitezke; eta besteak, gure sentimenek argitara atera ezin dizkigutelarik, halako testigantzarik eskaintzeko gai ez direnak.

6. Gainerako gizaki guztien esperientziak geureekin bat datozenean, ezagutzara hurbiltzen den ziurtasuna sortzen da.

Bi mota horietako *lehenengoari*, hots, *egitatezko arazo partikularrei* dagokienez,

I. Gauza partikular bat, gure etengabeko behaketekin eta antzeko kasuetan gainerakoek egindakoekin bat datorrelarik, gauza horretaz diharduten guztien kontra bateratsuen testigantza duenean, ezagutza segurua balitz bezain erraz onartzen dugu eta sendo finkatzen gara gu bertan; baita beronen gainean arrazoitu eta jardun ere, frogapen perfektua bailitzan, zalantza gutxirekin. Horrela, iragan neguaz berba egin ahal duten ingeles guztiek negu horretan izotza izan zela esanen balute, edota udaldian enarak ikusi zirela, uste dut edonork zazpi gehi lau hamaika direla zalantzatan jartzeko bezain motibo gutxi

leukakeela hura zalantzatan jartzeko. Beraz, *probabilitate lehena eta mailarik gorenekoa* haxe duzu: mende orotako gizaki ororen testigantza orokorra —hori ezagutzerik dagoen heinean— lekuko zintzok testifikaturik dagoen egitatezko arazo partikular baten egiazkotasuna baieztatzeko nork berak antzeko kasuetan duen esperientzia iraunkor eta hutsik gabekoarekin bat datorrenean. Hortxe sartzen dira gorputzen egitura finkoak eta propietateak, hala nola kausa-efektuen prozesu erregularrak naturaren ohiko norabidean. Gauzen beraien izaeratik ateratako argumentua deitzen diogu horri. Zeren geure eta beste gizaki batzuen behaketa etengabeak beti modu berean aurkitzen duena, izan ere, kausa finko eta erregularren efektua dela konkluditzen baitugu arrazoiz, nahiz eta kausok gure ezagutzaren irispe ere-muan ez egon. Horrela, suak berotu egiten duela, beruna urtu egiten dela, eta egurra zein ikatza kolorez eta funtsezkotasunez aldatu, edota burdina uretan hondora joaten dela eta zilarbizian flotatu: egitate partikularrei buruzko proposizioei eta berauen antzeko beste batzuei dagokienez —gure esperientzia jarraikiarekin bat datozenez halako materialekin jardun izan dugun bakoitzean, eta horietaz mintzo direnek ere beti halakoxetatzat jo ohi dituztelarik, aburuok inork ere ezbaian jarri gabe-, ez dugu inolako motiborik ukanen proposizio hori guztiz egiazkotzat ez hartzeko, halako zerbait gertatu dela norbaitek dioskuean edota berriro ere halaxe gertatuko dela iragartzen zaigunean.

Probabilitate horiek hain daude hurbil ziurtasunetik, non gure pentsamenduak erabat gobernatu eta gure ekintzak oso-osoan eragiten baitituzte, frogapen nabariena bailiran; eta guri dagokigunez, alde oso txikia edo arean desberdintasunik ez dugu aurkitzen horien eta ezagutza ziurraren artean. Horrelako oinarrien gainean eraikitako gure siniskera segurtasunera iristen da.

7. Zerbaiten testigantza ukaezin batek eta zerbait hori gehienetan halaxe izan ohi dela dioskun norbere esperientziak konfiantza sortzen dute.

II. Hurrengo probabilitate maila honako haxe duzu: bai norbere esperientziak, baita auzia aipatzen duten gainerako guztien adostasunak, gehienetan zerbait halaxe izan ohi dela diotsunean eta horren kasu partikular baten testigantza lekuko ugarik eta fidagarrik ematen dizunean. Adibidez, garai guztietako gizaki gehienek beren interes partikularra herriarena baino nahiago izan duela irakasten dizularik

historiak, eta norbere esperientziak ere, behatzeko aukerarik izan dugun neurrian, horixe bera baieztatzen digularik, Tiberiori buruz idatzi duten historialari guztiek hura ere horrelakoa izan zela badiote, oso daitekeena izanen da hori. Eta kasu honetan, gure baiespenak aski oinarri du konfiantza dei diezaiokegun mailara iristeko.

8. *Testigantza zintzo batek eta gauzaren beraren izaera neutra - lak ekidin ezinezko baiespena sortzen dute.*

III. Ez aldeko ez kontrako eraginik ez duten egintzen kasuan, adibidez txori batek harantz edo honantz egin duela hegaz, trumoiak eskuinetik edo ezkerretik jo duela, eta abar, horrelako egitatezko arazo partikular bat susmagarri ez diren lekukoen testigantza bateratsuak aitortzen duenean, hori ere *ekidin ezinezko* baiespena ematen diogu.

Adibidez, Italian Erroma deritzan hiri bat dela, duela mila eta zazpiehun urte Julio Zesar zeritzan bat bizi izan zela, hura jenerala izan zela eta Ponpeio zeritzan beste bati gerra bat irabazi ziola. Hori guztia, nahiz eta egitateon aldeko ez kontrako ezer ez ageri gauzaren beraren izaeran, historialari fidagarriek kontatu dutenez eta beste ezein idazlek ez duenez ezeztatu, gizakiak ezin du ekidin sinestea, eta ezin du egintzotaz zalantzarik egin, berak lekuko gisara ezagutzen dituenen existentziaz eta egintzez zalantzarik ez duen hein berean.

9. *Esperientziaren eta testigantzen arteko kontraesanak infini - turaino aldarazten ditu probabilitate mailak.*

Auzia, honaino, aski ulerterraza da. Halako zimenduetan oinarrituriko probabilitateak hain nabaritasun («evidence») handia darama, non judizioa naturalki determinatzen baitu, eta frogapenak zerbait ezagutzeko edo ez ezagutzeko damaiguna bezain askatasun murrizta ematen digu zerbait sinesteko edo ez sinesteko. Testigantzak espe- rientzia arruntarekin kontraesanean daudenean eta historiaren zein lekukoen kontraerek naturaren ohiko norabidearekin edo elkarrekin talka egiten dutenean, orduan dator zailtasuna; eta orduantxe behar da, hain zuzen ere, judizio zuzena eratzeko eta egitatearen nabaritasuna eta probabilitate desberdinari baiespena eman ahal izateko ardura, arreta eta zehaztasuna; baiespen horrek gora zein behera egiten baitu, sinesgarritasunaren bi oinarri hauen arabera, hots, *antzeko kasuetan izandako behaketa komuna* eta *arazo konkretuari buruzko testigantza partikularrak*, aldekoak zein kontrakoak. Aipatutako bi oinarriok tes-

tigantza emaileen hainbeste behaketa aurkari anitzen menpe daude, hainbeste zertzelada, kontaera, koalifikazio ezberdin, adiurre, xede eta ahanzturaren menpe, ezinezkoa baita gizakiek beren baiespena eman behar dieten maila ezberdinak arau zehatzetara mugatzea. Hauxe bakarrik esan daiteke orokorrean: alde zein kontrako argudioak eta frogak behar bezala aztertu ondoren, zirkunstantzia partikular bakoitza doitasunez neurtu eta gero, alde batera edo bestera neurri handiago edo txikiagoan makurtzen direla eman behar dutela, oro har; eta halaxe sortarazi ahal izanen dituzte gogamenean guk *sineskera, aierua, susmoa, zalantza, ziurgabetasuna, mesfidantza, sinesgaiztasuna*, etab., deitzen diegun baiespen maila ezberdinak.

10. *Tradizioan oinarrituriko testigantzak zenbat eta antzinako - agoak, hainbat balio gutxiagokoak frogatzen gisan.*

Hona hemen zer esan daitekeen besteren testigantzaz baliatuz emandako baiespenari buruz: uste dut ez legokeela batere gaizki Ingalaterrako legeak ontzat ematen duen arau hau aintzat hartzea, alegia, gertaera baten berregintza frogatzen ona den arren, kopiaren kopia, orde, lekukotza ona izan arren eta lekukoak ere izen handikoak, ez dela inoiz frogatzen onartuko auzitan. Hau hain arrazoizkotzat onartzen da oro har, gai garrantzitsuei buruzko ikerketan erabili beharko genukeen arretari eta zuzentziari hain ondo dagokiona, non sekula ere ez dudan entzun hori inork gaitzetsi duenik. Praktika hau bidezkoari eta bidegabekoari buruzko erabakietan onartzen bada, ondorio hau gutxienez atera dezakegu, hots, *gauzaren muinean dagoen jatorrizko egia urruntzen den heinean galtzen duela frogatzen indarra testigantzak*. Honi deritzot jatorrizko egia: gauzaren beraren izateari eta existentziari. Fede eman ahal zaion norbaitek gauza hori ezagutzen duela aitortzen baldin badu, frogatzen du; baina beste norbaitek, era berean fede eman ahal zaiona izan arren ere, aurrekoak esandakoaren lekuko gisa badihardu, testigantza makalagoa duzu; eta hirugarren bat besteren bati entzun omen zion baten lekukotzat badatorkizu, are frogatzen duela izan duzu. Hortaz, tradiziozko egietan, urrunketa bakoitzak frogaren indarra ahuldu egiten du, eta tradizioa zenbat eta esku gehiagotatik pasatu hurrenez hurren, hainbat indar eta nabaritasun gutxiago jasoko du lekukoongandik. Beharrezkoa iritzi diot hori nabarmentzeari, zeren eskuarki pertsona batzuek guztiz alderantziz gertatzen dela hautematen baitut, hots, zaharragoak eta hainbat

indartsuagoak direla haien aburuak, eta duela mila urte lehenik baieztatu zuenaren garaikide zuhurrari egiantzeko ere irudituko ez litzaiokeena gaur egun ziurtzat hartzen da, testigantza hartatik abiatuz zenbaitzuek hala eutsi diotelako batak bestearen jarraian. Jarrera horren arabera, hastapenetan argiro faltsuak edo aski zalantzezkoak ziren proposizioak benetako egiak izatera iristen dira, probabilitatearen araua alderantzuz, eta horrela, bere sasoian lehen esaleen ahotik fede gutxi aurkitu edo merezi izan zuten proposizioak orain denborak ondutzat jotzen dira eta ukaezintzat galdu.

11. *Hala ere, historia oso baliagarria da.*

Ez beza inortxok ere pentsa, nik esandakoagatik, *historiaren* garrantzia eta erabilgarritasuna inondik ere murriztu nahi izan ditudanik; izan ere, huraxe baita daukagun argi apurra kasu askotan, eta bertatik hartzen baititugu nabaritasun sinesgarritz gure egia erabilgarri gehienak. Antzinatik geratzen zaizkigun oroitzapen horiek baino preziauagorik ez dut deus ikusten, eta askoz ugariago eta aldakuntza gutxiagoz geuregana daitezen nahi nuke. Baina egia horrexek ematen dit indarra beste hau ere esateko: ezein probabilitatek ere ezin gaindi dezakeela bere jatorrizkoaren ziurtasuna. Lekuko bakar baten testigantza soilak beste nabaritasunak ez duenak bi aukera ditu, edo lehenean jarraitu edo testigantza bakar horretara makurtu, dela ona, txarra zein orobatekoa; eta nahiz eta gerora ehun pertsonak aipatu, batak bestearen jarraian, ez da horregatio lehen baino indartsuago bilakatu, baizik egiaz, makalago. Grinak, interesak, oharkabetasunak, esanguraren akatsen batek edota giza gogamena desbidera dezakeen hainbat eta hainbat arrazoi petralek edo kapritxok (denok ere hautemangaitzak) eragin dezakete norbaitek besteren baten hitzak edo esangura okerki aipatzea. Idazleen aipamenak gaingiroki bada ere aztertu dituenak ez du zalantzarik ukanen aipamenok merezi duten sinesgarritasun urriaz, horien originalak falta direnean; eta, beraz, are fede gutxiago eman behar zaiela aipamenen aipamenei. Honako hau argi dago behintzat: garai batean arrazoi ahuletan oinarrituta baieztatu zenak ez duela sekula bereganatuko balio gehiagorik hurrengo garaie-tan sarritan aipatua izatearren. Aitzitik, jatorrizkotik zenbat eta urrutiago, orduan eta balio gutxiago ukanen du, eta betiere indar gutxiago azken aldiz erabili duenaren ahoan edo idazkian, beronek jaso duenaren ahoan edo idazkian baino.

12. *Bigarrenik, sentimenez ezin hauteman daitezkeen g auzetan, analogia da probabilitatearen arau nagusia.*

Bigarrenik, orain arte aipatu ditugun probabilitateak egitatezko arazoei dagozkienak eta behaketaz eta testigantzaz froga daitezkeenak dira soil-soilik. Beste motakoak geratzen zaizkigu orain, gizakien baiespen maila ezberdineko iritziak dagozkienak, nahiz eta *arazook, gure sentimenen esparruan ez sartzearren, ez dauden inolako testi-gantzaren alkantzuan*. Honako hauexek dira:

1) Guregandik kanpo diren izaki finitu materiagabeen existentzia, izaera eta eragiketak, adibidez, espirituak, aingeruak, deabruak eta abar. Edota, dela euren txikitasunagatik edo gugandik duten urruntasunagatik, gure sentimenek hauteman ezin dituzten izaki materialen existentzia, hala nola ea planetetan eta unibertso zabal honen bazterretan landareak, animaliak edo gizaki adimendunak diren jakitea.

2) Izadiko emaitza gehienen jokamoldeari dagozkionak, zeinen efektu sentigarriak ikus ditzakegun arren, kausak, osterak, erabat ezezagunak ditugu, eta ezin dugu hauteman horiek zeren bidez eta zein eratarata sortzen diren. Animaliak ugaltu, elikatu eta higitu egiten direla dakusagu; imanak burdina erakartzen duela, eta argizari baten osagaiak, urtu eta sugar bihurtzean, argia eta berotasuna ematen digutela. Efektu horiek eta beste antzeko batzuk ikusi eta ezagutu bai egiten ditugula, baina horietan diharduten kausak eta zein eratarata sortzen diren, susmoak eta aieru probableak besterik ez ditugu. Izan ere, arazo horiek eta beste antzeko batzuk, giza sentimenen esparruan sartzen ez direlarik, azken hauek ezin dituzte aztertu, ezta ere inork haien testigantzarik eman; eta, beraz, gure gogamenetan jadanik finkaturik dauden egiekin gehiago edo gutxiago ados datozen heinean, eta gure ezagutzaren eta behaketaren beste alderdi batzuekiko duten proportzioaren heinean, ager dakizkigu gehiago edo gutxiago probable moduan. Alor honetan, *analogia* daukagu laguntza bakartzat, eta hortxeek soilik ateratzen ditugu gure probabilitatearen oinarri guztiak. Horrela, bi gorputzen arteko igurtzi soil bortitzak *beroa*, eta sarritan *sua* ere, sortarazten duela hautematen dugunez, guk *beroa* eta *sua* deitzen diogun hori materia goriaren atal-txo ikustezinen eraginaldia dela pentsatzeko motiboak ditugu. Hautematean, halaber, gorputz zeharrargitsuen errefrakzio ezberdi-

nek zenbait koloreren itxurak sortarazten dituztela gure begietan, eta, era berean, belusa, zeta kizkurra eta horrelako beste zenbait gorputzen azaleko aldean lerrokadura eta kokaera ezberdinek ere gauza bera sortarazten dutela, probabletzat jotzen dugu gorputzen *kolorea* eta distira horixe besterik ez izatea, hots, gorputzontz zati nemiño eta hautemanezinen lerrokadura eta errefrakzio desberdinak. Horrela, giza behaketaren pean dagoen izadiaren atal guztietan aurkitzen dugularik *elkarren arteko mailako lotura bat, munduan dalauski gun*

gauza anitz, pila horretan eta nabarmen edo haren angarrik ga *be*

—eta bata bestearekin hain hertsiki loturik, non izakien maila ezberdinetan ez baita erraz hautematen elkarrekiko mugarik-, gauzak emeki-emeki doazela perfektiorantz, *halakoxeurrats soil ez*, pentsatzeko arrazoi guztiak ditugu. Sentikorra eta arrazionala non hasten den eta ez-sentikorra eta irrazionala non bukatzen den esatea ez da batere erraza; eta nor da horren begizorroztz gauza bizidunen mailarik apalena zein den eta bizigabeetan lehena zein den zehazki bereizteko? Gauzak, berauek hautematerik dugun neurrian, gutxituz eta gehituz doaz, kono erregular batean kopurua gutxitzen edo gehitzen den bezalatsu; horretan, izan ere, nahiz eta diametroaren lodieran alde nabaria dagoen luzerako ertzetan, oso nekez bereiz daiteke elkarri ukitzen dauden goikoaren eta behekoaren arteko aldea. Gizaki batzuen eta animalia basati batzuen artean gehiegizko aldea dago; baina alderatzen badugu gizaki batzuen adimena eta gaitasuna zenbait piztiarenarekin, alde hain txikia aurkituko dugu, ezen zail eginen baitzaigu ziurtatzen gizaki horien adimena argiagoa eta zabalagoa dela piztia horiena baino. Beraz, mailaketa hain sumagaitza aurkitzen dugularik izadiko atalen artean, hasi gizakitik eta beronen azpitik dauden atalik apalenetara, analogiaren arauak probabletzat ezartzen digu antzeko mailaketa dagoela gure gainean eta gure behaketan esparrutik kanpo dauden gauzekiko; eta izaki adimendunen eskala diferenteak direla, zenbait perfektio mailatan gure gainetik daudenak eta Kreatzailearen perfektio infiniturantz urrats emez eta desberdintasun nemiñoz hurreratuz doazenak, horietariko bakoitza bere aldamenekotik tarte handira ez dagoelarik. Probabilitate mota honek, esperimentu arrazionalerako eta analogia abiapuntutzat duten hipotesiak egiteko baliabiderik onena, sarri askotan egia eta emaitza baliagarriak —bestela ilunetan estalita geratuko liratekeenak— deskubritzera eramaten gaitu.

13. *Kontrako esperientziak testigantzaren indarra gutxiarazten ez duen kasu bat.*

Esperientzia arruntak eta gauzen ohiko norabideak gizakien gogamenetan eragin nabaria duten arren, arrazoi osoz, sinesteko proposatzen zaien zerbaiti fede emateko edo ez emateko orduan, bada halere kasu bat, zeinetan egitatearen bitxitasunak ez duen gutxitzen berorretaz emandako testigantza zintzoari damaiogun baiespena. Izan ere, naturaz gaindiko gertakizunak bat datozenean izadiaren norabidea aldatzeko ahalmena duenaren helburuekin, *halako ħr kunstantzietan*, diot, zenbat eta behaketa arruntaz haragoko edo kontrakoago izan, are egokiagoak gerta daitezke gudan sinestea sortzeko. Hauxe gertatzen da *mirakuluekin*, testigantza jatorrean oinarritzen badira, sinesgarritasuna euren baitan aurkitu ez ezik, sinesgarritasun hori halako berrespenaren premia duten beste egietara ere zabaltzen baitute.

14. *Jainkoaren errebelazioaren testigantza soilak ziurtasun maila gorena du.*

Honaino aipatu ditugunez gain, bada beste proposizio mota bat, testigantza soilean oinarritua, gure baiespenaren maila altuena gailentzen duena, proposatutakoa esperientzia arruntarekin eta gauzen ohiko norabidearekin ados etorri edo ez. Honako arrazoi honengatik, hots, testigantza hori ezin engaina dezakeenak eta ezin engaina daitekeenak egina delako: Jainkoak berak, alegia. Horrek zalantza oroz haraindi dagoen segurtasuna darama bere baitan, edozein salbuespenez gaindi dagoen nabaritasuna. Honi izen berezi batez deitzen diogu, errebelazioa, eta berorri ematen diogun baiezkoiari *fedea*, eta honek gure gogamenak erabat determinatzen ditu eta zalantza guztiak baztertzen, ezagutzarik ziurrenak bezain osoki; eta gure existentzia bera zalantzatan jar dezakegun heinean jar dezakegu zalantzatan Jainkoaren edozein errebelazio egia denik. Fedea, beraz, baiespenaren eta segurtasunaren printzipio finkoa eta segurua dugu, eta ez du uzten zirrikiturik zalantzarako edo ezbairako. Arazoa, ordea, *errebelazioa jainkotiarra ote den ziurtatzea da eta guk haren benetako esanahia ulertzen ote dugun jakitea*: hala ez bada, *Jainkoagandiko* errebelazioa ez denean jartzen baldin badugu fedea eta segurtasuna, irrikitasunaren («enthusiasm») zentzugabekerien eta printzipio okerretatik datozen errakuntza guztien arriskuan aurkituko gara. Eta kasu hauetan, beraz, gure baiespena ezingo da izan, arrazoiaren arabera behintzat, kasuon

errebelazio-izateak berak eta errebelazio hori aditzera damaiguten adierazpenen esanahiak berak duen nabaritasunarena («evidence») baino handiagoa. Eta errebelazioaren existentzia eta esanahia froga probableetan besterik ez direnean oinarritzen, gure baiespena ezin izan den da heldu froga horiek ageri duten probabilitate handiago edo txikiagotik sor daitekeen segurtasuna edo mesfidantza baino harago. Baina *fedeaz*, eta fedeak beste persuasio-argumentu batzuekiko izan behar duen lehentasunaz, geroago mintzatuko naiz luzeago; hura normalean kokatu ohi den lekuan —hau da, arrazoiaren aurrez aurre, nahiz eta, izatez, *arrazoi gorenean oinarrituriko baiespena* besterik ez den-, hartaz mintzatzen naizenean.

XVII. KAPITULUA

Arrazoimenari buruz

1. Arrazoa («reason») hitzaren esanahi ezberdinak.

«Reason» hitzak esanahi ezberdinak ditu ingelesez. Zenbaitetan, printzipio argi eta egiazkoak adierazten ditu; beste zenbaitetan, printzipio horietatik ateratako ondorioak, eta noizbehinka kausa, eta bereziki kausa xedezkoa. Baina nik emanen diodan adiera, hemen, horiek guztietatik desberdina izanen da; hemen, alegia, gizakiaren ahalmen gisa kontsideratzen dugu, gizakia piztiatik bereizten bide duen ahalmena, honetan, bistako denez, nabarmen gainditzen baitu gizakiak piztia.

2. Arrazoitzea zertan datzan.

Ezagutza orokorra, gorago adierazi dugunez, gure ideien beraien adostasuna edo desadostasunaren pertzepzioan badatza, eta guregandik kanpoko gauza guztien existentziaren ezagutza (Jainkoarena salbu, zeren honen existentzia edozein gizakik ezagut baitezake ziurtasunez eta froga baitiezaioke bere buruari, norberaren existentziatik abiatuz) gure sentimenen bidez soilik erdiesten badugu, geratzen al da lekurik *kanpo sentimena* eta *barne pertzepzioa* ez den beste gaitasunen baten jardunerako? Ba al da *arrazoimenaren* premiarik? Bai, eta handia gainera: hala gure ezagutza hedatzeko, nola gure baiespera arautzeko. Biokin baitu zerikusia, ezagutzarekin eta iritziarekin, eta premiazkoa baita gainerako gure adimen gaitasun guztiei

laguntzeko, behintzat horietariko bi hartzen dituelarik barne, *zolitasu* -*na* eta *ilazioa*. Lehenengoaren bidez bitarteko ideiak aurkitzen ditu, eta bigarrenaren bidez ideiak halako moldez ordenatzen, non bi muturrak elkarlotzen dituen dedukzio-katearen katemaila bakoitzak elkarrekiko duen lotura deskubritzen duen; eta horrelaxe ateratzen du delako egia argitara, zelabait esateko, eta horri guk ilazioa edo inferentzia deitzen diogu, honako haxe besterik ez delarik: ideien elkarloturaren pertzepzioa dedukzioaren urrats bakoitzean. Halaxe iristen da gogamena edozein ideia bikote elkarrekiko duen adostasun edo desadostasun ziurra hautematera —frogapenean gertatzen dena, kasu, *ezagutzara* horrelaxe helduz— edota ideion arteko lotura probablea soilik, beroni ematen diolarik edo ukatzen bere baiespena, iritziaren kasuan gertatzen denez. Sentimena eta intuizioa ez dira iristen urruti. Gure ezagutzaren zatirik handiena dedukzioaren eta bitarteko ideien menpe dago; eta ezagutzaren orde z baiespena besterik ez dugun kasuetan, eta zenbait proposizio, egiazkoak diren ala ez ziur jakin gabe, egiazkotzat jo beharra daukagunean, horien probabilitatearen oinarriak aurkitu, aztertu eta alderatzea baino ez zaigu geratzen. Aipaturiko bi kasuetan, batean ziurtasuna eta bestean probabilitatea aurkitzeko bitartekoak bilatzen eta zuzenki aplikatzen dituen ahalmen horri arrazoimena deitzen diogu. Izan ere, arrazoimenak, ideien eta froga guztien beharrezko eta zalantzagabeko elkarlotura hautematen duenez ezagutza sortzen duen edozein frogapenen urrats bakoitzean, halaxe hautematen du, baita, ideia eta froga guztien elkarlotura probablea, era berean, baiespena eman beharrekotzat jotzen duen arrazoi-katearen urrats bakoitzean. Horixe da, hain zuzen ere, egiaz arrazoimena dei diezaiokegunaren mailarik baxuena. Izan ere, gogamenak lotura probable hori hautematen ez duenean, halako loturarik dagoen ala ez dagoen bereizten ez duenean, gizakiaren iritziak ez dira juzgamenaren emaitza edo arrazoimenaren ondorio, baizik eta mentura eta kasualitatearen efektuak, ez aukerarik ez norabiderik gabe edozein abenturatara emana den gogamenean.

3. Arrazoimena bere lau mailatan.

Halatan, arrazoimenean honako *lau maila* hauek direla kontsidera dezakegu: lehena eta garrantzitsuena, frogak aurkitzean datza; bigarrena, frogok euron arteko lotura eta indarra osoki eta erraz ikusteko moduko ordena argi eta egoki baten arabera erregularlari eta meto-

dikoki lerrokatzean; hirugarrena, dedukzioaren atal bakoitzaren loturaz jabetzean; eta laugarrena, azkenez, konklusio zuzena ateratzean. Maila ezberdin guztiok edozein frogapen matematikotan hauteman ditzakegu; izan ere, gauza bat duzu atal bakoitzaren lotura hautematea besteren batek egindako frogapenaren arabera; beste gauza bat duzu konklusioak atal guztiekiko duen menpekotasuna hautematea; hirugarren gauza bat litzateke norbere kabuz frogapen argi eta bereizi bat egitea; eta aurreko guztietatik gauza desberdina, azkenez, frogapena osatzen duten bitarteko ideia edo frogaren horiek lehenbizi aurkitzea.

4. *Silogismoa ote den arrazoimenaren tresna nagusia: hori zalantzatan jartzeko lehen motiboa.*

Bada beste zerbait ere arrazoimenari buruz planteatu nahi dudana: silogismoa ote den, eskuarki uste den bezala, arrazoimenaren tresna egokia eta gaitasun hau erabilgarri egiten duen bitartekorik baliagarriena. Hori zalantzatan jartzeko ditudan motiboak honako hauek dira:

Lehenik eta behin, silogismoak ez diola laguntzen gure arrazoimenari lehen aipaturiko lau ataletarik bat bakarrean baizik, hots, *frogen arteko lotura* adibide soil batean adierazteko, eta adibide horretatik kanpo deus ez; baina adibide bakar horretan ere ez digu gauza handirako balio, zeren gogamenak silogismorik gabe ere aise erreparatzen baitio loturari —loturarik egiatan baldin bada—; eta silogismoarekin baino hobeto agian.

Silogismorik egiten duen gizakiak ongi arrazoitzea gaitza da.

Gure gogamenaren egintzei erreparatzen badiogu, zera aurkituko dugu: hobeto eta argiago arrazoitzen dugula *frogen arteko lotura* hautematen dugunean besterik gabe, gure pentsamenduak ezein silogismoren arauetara mugatu gabe. Horrela, gizaki ugari aurkituko dugu aski argiro eta zuzenki arrazoitzen dakiena, silogismo bat nola egiten den jakin gabe. Asia eta Ameriketako parte askotan pentsatzen duen edonork ikusiko du hango gizakiek agian berak bezain zorrozki arrazoitzen dutela, nahiz eta silogismoaren berririk sekula ez izan eta ezein argumentu forma horietara egokitzen ez jakin; eta uste dut ia inork ere ez duela egiten silogismorik bere baitan arrazoitzean. Egiatan, silogismoak baliagarri izan daitezke zenbaitetan figura erretriko distiratsu baten azpian ezkutaturik edo ahapaldi harmoniatsu

baten atzean artatsuki gorderik dagoen falazia bat argitara ateratzeko; edota absurdu baten azaleko jantzi eta edertasunak erantzi eta itxuragabetasun biluzia agerian uzteko. Baina horrelako arrazoi-katea mengelen ahultasuna eta falazia gutxi batzuek baino ez dute atzematen, diskurtsok eraman ohi duten forma artifizialari erreparatuz: *moduak* eta *irudiak* sakonki ikasi dituztenek eta hiru proposizio elkarrekin lotzeko dauden era anitzak aztertu dituztenek (era horietariko zeinek sortzen duen ziurtasunez konklusio zuzena eta zeinek ez, eta zein fundamentutan oinarrituta egiten duten, ezagutzeko neurrian). Aitor dut *silogismoa* halako zehaztasunez aztertu duten guztiek —era jakin batez elkarturiko hiru proposizioen konklusioa zergatik den ziurki zuzena, eta bestelako era batez elkarturikoena zergatik ez den horrelakoa ezagutzeraino-, horiek, diot, ohiko *modu* eta *irudien* arabera premisetatik ateratzen duten konklusioaz ziur daude. Baina forma horietan halako neurrian sakondu ez dutenak ez dira seguru egonen, ordea, silogismoa dela-eta konklusioa premisetatik ziurtasunez ateratzen den; halaxe dela suposa dezakete, besterik ez, euren maisuengan duten beren baitako fedearen poderioz eta arrazoibide forma horietan duten konfiantzagatik; baina hori ez da oraindik sinestea baino, ez ziurtasuna. Hortaz, gizaterian oso gutxi baino ez badira silogismoak egin ditzaketenak, besteekin —silogismoak egiteko gai ez direnekin— alderatuz, eta logika ikasi duten gutxi horietatik kopuru nimenio bat baizik ez bada silogismoek ohiko *modu* eta *irudien* arabera konklusio zuzenetara eraman ahal dutela sinestetik harago iristen ez direnak, egiaz horrela den ziurtasunez ezagutzera heldu gabe, orduan, diot, baldin eta silogismoak arrazoimenari dagozkion tresnatzat eta ezagutzarako bitartekotzat hartu behar badira, zera konkluditu beharko genuke: Aristotelesen aurretik ez dela izan inortxo ere zerbait arrazoimenez ezagutu ahal izan zuenik, eta, silogismoen asmakuntzaz geroztik ere, hamar milatik bat baino ez dela horrelakorik egin dezakeenik.

Aristoteles.

Baina Jainkoa ez da izan gizakienganako horren axolagabea, gizaki hori bi oindun kreatura soil egiteko eta Aristotelesen esku uzteko hura animalia arrazoidun bilakatzea; silogismoen oinarriak aztertzeko gai den gizatalde horretaz ari naiz, jakina; eta oinarriotan hiru proposizioak osatzeko dauden hirurogeitik gora moduen artean kon-

klusio zuzena ateratzeko seguruak diren hamalauren bat forma horiek bereizteko gai diren gizakiez; eta kasu gutxi horietan konklusioa ziu-rra izateak eta gainerakoetan horrela ez izateak zer oinarri duen bereizteko gai diren gizakiez, gainera. Baina Jainkoak hori baino bihozberatasun handiagoa erakutsi du gizakionganako. Arrazoitzeko gai den gogamena eman die, silogismoaren metodoetan ikasiak izan beharrik gabe; izan ere, adimenak ez du ikasten arrazoitzen arau horien arabera; aldiz, bere ideien koherentzia edo koherentziarik eza hautemateko berezko gaitasuna dauka, eta ideiok zuzenki sailkatze-koa, halako errepikatze nahasgarrien beharrianik gabe. Eta ez diot hau Aristoteles inondik ere apaldu nahian, niretzat antzinateko giza-kerik handienetakoa baita bera, oso gutxi izan direlarik haren pareko gogamenaren hedaduran, sotiltasunean, zorroztasunean eta juzgame-naren indarrean; eta konklusioa zuzen eratorria dela adieraz ditzake-ten arrazoibide formen sistema hau asmatu zuenetik egundoko zerbi-tzua eskaini die jakintsuei, oro ukatzeko lotsarik ez daukatenen kon-tra. Eta ez dut inolako eragozpenik onartzeko arrazoibide zuzen oro silogismo-forma horietara muga daitekeela. Hala eta guztiz, uste dut zera esan dezakedala egiaz, eta Aristoteles ezertan gutxietsi gabe: forma horiek ez direla arrazoitzeko bide bakarra, ez eta onena ere, egiaren bila dabiltzanak eta horren ezagutzara iristeko beren arrazoi-menaz erarik onenean baliatu nahi dutenak egia horren ezagutzara hel daitezen. Eta bistakoa da Aristotelesek berak ere forma batzuk kon-kludigarriak zirela aurkitu zuela, eta beste batzuk ez, eta aurkikuntza hori ez zuela egin formen beraien bidez, baizik ezagutzaren jatorriz-ko bidetik, hau da, ideien arteko adostasun nabarmenaren bidetik. Esaiozu emakume baserritar bati haizeak hegomendebaldetik jotzen duela eta zeru lainotuak euri antza duela, eta laster ulertuko du ez zaiola komeni halako eguraldiarekin arropa mehez jantzita irteterik sukarra jasan ondoren. Argi eta garbi ikusiko du honako aldagai guz-tion arteko lotura probablea —hegomendebaldeko haizea, hodeiak, euria, bustitzea, hoztea, berriro gaixotzea eta heriotz arriskua-, hori guztia zenbait silogismoren kateadura artifizial eta gogaikarrian bildu beharrik gabe; silogismoek, izan ere, horien beharrik gabe batetik bestera azkarrago eta zoliago diharduen gogamena asetu eta lausotu besterik ez baitute egiten; eta emakumeak gauzen ordenamendu natu-ralean hain erraz hautematen duen probabilitatea lausotu eginen litzaioke, guztiz, argumentu bera era ikasian planteatu eta *moduen* eta

irudien bidez aurkeztuko balitzaio. Zeren horrek loturak nahastee a baitakar sarri askotan, eta uste dut frogapen matematikoetan edozei- nek ikus dezakeela, aise, ordenamendu naturalari esker lortzen den ezagutzak azkarragoa eta argiagoa dirudiela, inongo silogismoren laguntzarik gabe.

Inferentzia arrazoimenaren eragiketa nagusitzat jotzen da, eta, behar bezala burutuz gero, halaxe da izan ere; baina gogamena, dela bere ezagutza hedatu nahiak bultzatuta, dela noizbait jasotako iri- tzien alde makurtzeko joeragatik, oso ausart ageri ohi da inferentziak egiterakoan; eta, horregatik, sarritan presa gehiegi izan ohi du infe- ritzeko, mutur biak bildu behar dituzten ideien lotura hautemateko astirik gabe.

Silogismoak ez ditu deskubritzen ideiak edota ideion arteko loturak.

Inferitzea haxe besterik ez da: proposizio bat egiazkotzat *era - tortzea* aurretik egiazkotzat planteatutako beste batetik, hau da, inferi- turiko proposizioaren bi ideien arteko lotura hori ikusi edo suposatzea.

Adibidez, demagun honako hau dela proposizioa, «gizakiak beste munduan zigortuak izanen dira», eta hortik beste hau inferitzen dela, «gizakiek erabakiak har ditzakete berenez». Orain gakoa hone- tan datza, ea gogamenak inferentzia hori zuzen ala oker egin duen jakitean; bitarteko ideiak deskubrituz eta —ideiok behar bezalako ordenan kokaturik daudelarik— euron arteko lotura kontutan hartuz jardun badu, arrazionalki jardun du eta inferentzia zuzena egin du. Horrelakorik kontutan hartu gabe jardun badu, ordea, arrazoian oina- rritutako konklusio tinko bat atera beharrean, hori egin nahia edota besteek hartakotzat har dezaten gogoia erakutsi besterik ez du egin. Baina edozein kasutan ere, ez da izan silogismoa ideia horiek desku- briarazi dizkiona edo euron arteko lotura erakutsi diona; izan ere beharrezkoa baita gogamenak bi ideiok deskubritzea eta eurotariko bakoitzaren lotura hautematea, silogismoez arrazionalki baliatzen hasteko gai izan aurretik; ezpada edozein ideia jotzen dela silogismo bat egin ahal izateko egokitzen, eta, ideia horrek beste biekiko izan dezakeen lotura eta berauei eman diezaikekeen adostasuna aintzat hartu gabe, *medius terminus* gisara ausaz erabiltzeko modukotzat hartzen dela edozein konklusio frogatzeko. Baina hori ez du inork esanen, zeren bitarteko ideiek muturretakoekiko duten adostasun

hautemangarri horrixek esker konkludi daiteke muturrekoak ere elkarrekin ados direla; eta, beraz, bitarteko ideia bakoitzak lotura nabaria izan behar du, kateadura osoan barne, ezker-eskuinean dituen biek, hori gabe ez dagoelarik konklusiorik inferitzerik edo eratortzerik haren bitartez. Izan ere, edozein katemaila galtzen denean eta loturarik gabe gelditu, katearen indar osoa jo daiteke galdutzat eta indar gabetzat edozein konklusio inferitzeko edo eratortzeko. Gorago aipaturiko adibidean konkretuki, zerk bestek adierazten du inferentziaren indarra —eta, beraz, arrazoigarritasuna-, inferitutako konklusioa edo proposizioa eratortzen duten bitarteko ideia guztien arteko loturaren ikuspegi horrexek baino? Adibidez, «gizakiak zigortuak izanen dira», «Jainkoa da zigortzaile», «zigorra bidezkoa da», «zigortua errudun da», «honek beste nolabait joka zezakeen», «libre da», «berez erabakiak hartzeko ahalmena du»: ideien kateadura ageriko horren bidez —bitarteko ideia bakoitza bere aldameneko banarekin ados ikus daitekeen moduan elkarloturik-, gizakia eta berenez erabakitzeko ahalmena elkarrekin loturik ageri dira, hots, «gizakiek berenez erabakiak hartzeko ahalmena dute» proposizioa «beste munduan zigortuak izanen dira» proposiziotik eratorri edo inferitzen da. Gogamenak, izan ere, ideion artean dagoen lotura ikustean, *beste munduan gizakiak zigortuak izatearen eta Jainkoa zigortzaile izatearen artekoa, Jainko zigortzailearen eta zigorraren bidezkotasunaren artekoa, zigorraren bidezkotasunaren eta errudun izatearen artekoa, errudun izatearen eta beste nolabait jokatu ahal izatearen artekoa, beste nolabait jokatu ahal izatearen eta aukeramenaren artekoa, eta aukeramenaren eta berenez erabakiak hartzeko ahalmenaren artekoa, gizakien eta berenez erabakiak hartzeko ahalmenaren artean dagoen lotura dakusa.*

Lotura, silo gismoaren barnean sartu aurretik aurkitu beharrekoa da.

Nire galdera da, orain, ea muturrekoen arteko lotura ez ote den argiago ikusten azken antolamendu soil eta natural honetan, errepikapen ilunetan eta bospasei silogismo mordoilotan baino. Barka mordoi-lo deitzearen, zeren baten batek esan baitezake ideioek hain silogismo gutxitara murriztu ondoren pila gutxiago egiten dutela eta euren arteko lotura ere agerikoagoa dela horrela tokiz aldatu, errepikatu eta forma artifizialetan tartekatutako silogismoetan, ezen ez orain hemen

aurkezten dugun ordena xume eta natural honetan, zeinetan bakoitzak ikus ditzakeen eta, ikusi ere, silogismo forman kateatu baino lehen ikusi beharrekoak diren. Izan ere, elkarloturik dauden ideien ordena naturalak gidatu behar du silogismoen ordena, eta bitarteko ideia bakoitzak aldamenekoekin duen lotura aurretiaz ikusi beharra dago, silogismoan sartu eta arrazoiaren arabera erabilia izan aurretik. Eta silogismo horiek guztiak eratu ondoren, ez dute lehen baino hobeto ikusiko logikan adituak direnek zein ez direnek arrazoibidearen indarra, hau da, muturrekoen lotura. Izan ere, arte horretan adituak ez direnek eta silogismoaren egiazko formak eta berauen arrazoiak ezagutzen ez dituztenek ezin izanen dute jakin silogismook modu eta irudi zuzen eta konkludigarrien arabera eratuak izan diren ala ez, eta horretarako ez diete ematen inolako argitasunik ideion ordenamendurako erabilitako formek; eta gainera, gogamenak ideion arteko lotura juzgatu ahal izateko lagungarri zukeen ordenamendu naturala aldarazia izan denez, ilazioa zailago bihurtzen da forma horiekin formarik gabe baino.

Eta logikan adituei eurei dagokienez, bitarteko ideia bakoitzak bere aldamenekoarekin duen lotura —honexen menpe baitago inferentziaren indarra— silogismoa eratu aurretik bezain argi ikusiko dute, edota ez dute arean ere ikusiko. Silogismoak ez duelako adierazten ez indartzen bata bestearen ondoan ipinitako erdiko bi ideiaren lotura, baizik euron arteko lotura aurretiaz hauteman denean baino ez du adierazten muturrekoek elkarrekin duten lotura. Baina silogismoan bitarteko ideia batek muturreko beste batekin izan dezakeen lotura, hori ez du adierazten —eta ezin du adierazi ere egin— silogismoak. Hori gogamenak soilik hautematen du edo hauteman dezake, berezko atzematearen bidez, ideioek nola dauden hor justaposizio moduko batez; baina horrek har dezakeen silogismo-formak berak ez dio ematen inolako laguntzarik ez argirik. Forma horrek adierazten duen bakarria haxe da: bitarteko ideia bere ezker-eskuineko hurbilenekin bat baldin badator, urrunagoko biak ere (edo logikariek deitzen dietenez, *muturrekoak*) ziur bat etorriko direla; eta, beraz, ideia batek bere ezker-eskuineko hurbilenekin duen arartegabeko lotura (lotura honexetan baitatza arrazoibidearen indarra) silogismoa eratu ondoren bezain ongi hautematen dela aurretik ere, zeren bestela ez bailuke inoiz hautematen inondik ere silogismo egileak. Ideien lotura hori, gorago esan dugunez, gogamenaren begiak edo pertzepzio-ahaltenak hauteman du dagoeneko, justaposizio moduko batez bilduriko ideion ikuspegi

baten bidez; eta ideia bikotearen ikuspegi hori era bertsuan ukanen du, gainera, bi ideiak proposizio batean elkartuta dauden bakoitzean, proposizio hori *silogismoan nagusi* edo *txiki* bezala kokatuta egon ala ez.

Silogismoaren erabilgarritasuna.

Zertarako balio digute orduan silogismoek? Horien erabilgarritasun garrantzitsuena eta nagusia, diot nik, Eskoletarako da, inor txok ere ez baitu hor lotsarik nabarmenki egokitzen diren ideien arteko adostasuna ukatzeko; edo Eskoletatik kanpo ere, horietan ikasketak egin eta beraientzat ere bistakoa den ideien lotura ukatzeko lotsarik ez dutenentzat. Baina egia bila zintzoki dabilenak, egia aurkitzea beste xederik gabe, ez du silogismo-forma horien inolako premiarik inferentziaren indarraz konbentzi dadin, horren egia eta arrazoigarritasuna argiago hautematen baitu ideien antolamendu simple eta xumean. Horra zergatik gizakiek ez duten sekulan silogismorik egiten beren baitan egia bila dabiltzanean, edota egia zintzoki ezagutu nahi dutenei erakusten dietenean. Silogismo-forman eratu aurretik, bitarteko ideien eta berauen aldameneko hurbilenen arteko lotura ikusi behar dutelako, bitarteko ideia aldamenekoekin alderatzea azken hauen adostasuna erakusteko delarik; eta elkarrekiko adostasun hori ikusten dutenean, inferentzia egokia den ala ez ikusten dute; hortaz, *silogismoa* beranduegi heltzen da hori ebazteko. Eta nik, berriro ere aurreko adibidea erabiliz, zera galdetzen dut: ea justiziaren ideia kontsideratzen duen gogamenak, ideia hori gizakien zigorraren eta zigortuaren erruduntasunaren arteko bitarteko ideiatzat jartzen duenean (eta halaxe kontsideratzen ez duen bitartean, gogamena ezin da hartaz baliatu *medius terminus* gisan), ez ote duen ikusten inferentziaren indarra eta hedadura silogismo baten barruan formulatuta bezain argi. Adibide oso xume eta erraz baten bidez adierazteko, bedi animalia gogamenak gizakia eta bizidunaren arteko lotura erakusteko erabiltzen duen bitarteko ideia edo *medius terminus*; eta orduan zera galdetzen dut, ea gogamenak ez ote duen azkarrago eta argiago ikusten lotura hori muturreko bi ideiak lotzen dituen bitarteko ideia horrek honako ordenamendu honetan duen kokaera simple eta naturalean:

homo—animal—vivens

beste ordenamendu korapilatsuago honetan baino:

animal—vivens—homo—animal

azken haxe baita ideioek silogismo batean duten kokaera, *homo* eta *vivens* ideien arteko lotura *animal* ideiarene bitartez adierazteko. *Silogismoa ez da falazia detektatzeko modu bakarra.*

Silogismoa egiatan beharrezkotzat jo ohi da, egiazale direnentzat eurentzat ere, arrazoiketa loratsu, farfailatsu eta korapilatsuetan maiz ezkututzen diren falaziez kontura daitezen. Baina uste hori ez dela zuzena ikusiko dugu, honako honi erreparatzen badiogu, hots, egia bila zintzoki dabiltzanak sarritan egia hori diskurtso erretorikoak deritzoten aurrean galtzearen arrazoia haxe besterik ez dela: zenbait irudi metaforiko bizi eta dirdaitsuk haien irudimena liluratzen duelarik, behatu gabe uzten dutela edo ez dutela aise hautematen zein diren inferentzia oinarritzeko erabili dituzten *egiazko* ideiak. Orain, beraz, lagun horiei halako arrazoibidearen ahulezia aditzera emateko aski da funtsezko ez diren ideiak arrazoibide horretatik bereiztea, halako ideiek, inferentzia oinarritzen duten gainerakoekin nahasi-mahasian, lotura erakusten dutela baitirudite loturarik ez dagoen lekuan, edo gutxienez loturarik eza hautematea eragozten baitute; eta orduan arrazoibidearen indarra oinarritzen duten ideiak beren biluzian geratzen dira, dagokien ordenan; eta gogamenak kokaera horretan ikuskatzen dituelarik, haien loturaz kargutu eta inferentziaz juzgatzeko gai da, silogismoen inolako premiarik gabe. Badakit moduak eta irudiak sarritan erabiltzen direla horrelako kasuetan, halako diskurtso hutsalaren inkoherentzia desestaltzeak silogismo-formarekin soilik bailuen zerikusia; eta nik neuk ere halaxe pentsatu izan dut lehenago; baina ikerketa sakonago baten ostean aurkitu dut bitarteko ideiak beren biluzian eta dagokien ordenan jartzeak silogismoak baino hobeto erakusten duela arrazoibidearen inkoherentzia; ez soilik katemaila bakoitza bere lekuan kokatuta erakusten diolako gogamenaren arartegabeko begiradari eta horrela lotura hobeto hauteman daitekeelako, baizik eta silogismoak, izan ere, modua eta irudia eta berauek oinarritzat dituzten arrazoiak perfektuki ulertzen dituztenei baino ez dielako erakusten inkoherentzia (eta horiek ez dira hamar milatik bat); oster, inferentzia ondorioztatzen den ideien kokaera ordenatu eta egokiak edozeinen begien aurrean jartzen du arrazoibidearen loturarik eza eta inferentziaren desagokitasuna, pertsona horrek, logikaria izan ala ez, terminoak ulertzen baditu eta ideia horien arteko adostasuna edo desadostasuna hautemateko gaitasuna badu (berau gabe ezin baitu hauteman, ez silogismo barruan ez kan-

poan, diskurtsoaren indarra edo ahulezia, koherentzia edo inkoeherentzia). Gizon bat ezagutu dut silogismoaren araurik batere ezagutzen ez zuena, baina lehen hitzetik ohartzen zena diskurtso luze, artifiziosu eta txalogarri baten ahuleziaz eta inkontsekuentziaz, diskurtso horrek berorrek liluraturik utziko bazituen ere silogismoetan adituak ziren beste hainbat pertsona; eta nire irakurleen artean gutxi izanen dira horrelakoak ezagutzen ez dituztenak. Hori horrela ez balitz, printzeen kontseilu gehienetako eztabaidak eta batzarretako auziak gaizki kudeatuak izateko arriskuan leudeke, zeren bertan autoritatea eta eragin handia izan ohi dutenek ez baitute beti silogismoaren formak bete-betean ezagutzeko zoria, edota *moduan* eta *irudian* adituak izateko zortea. Eta silogismoa balitz diskurtso artifiziosuen falaziak detektatzeko bide bakarra edo behintzat seguruena, nik ez dut uste gizateria osoa, euren koroari eta dignitateari dagozkienetan diharduten printzeak barne, faltsutasunaz eta erroreaz hain maintemindurik daudenik, une jakin horietako eztabaidetan silogismoa bazterrera uzteko edota arazo larrietan haiek erabiltzeari barregarri irizteko; horrek garbi erakusten du, nire iritziz, pertsona zentzudun eta zuhurrak, eztabaida antzuetan denbora ematea gogoko ez dutenek, baizik eta euren eztabaiden emaitzaren arabera jardun beharra —eta sarritan beren larruarekin edo ondasunekin ordaindu beharra hutsak—, balio gutxi aurkitzen dietela forma eskolastiko horiei egia edo faltsutasuna aurkitzeko orduan, horiek beste era batera ager dakizkiekeelako, eta ageri ere modu argiagoan, begien aurrean dutena ikusteari uko egiten ez diotenei.

Silogismoa egia aurkitzeko arrazoibide egoki bakarra ote den zalantzatan jartzeko beste motibo bat.

Bigarrenik, silogismoa egia aurkitzeko arrazoimenaren tresna egoki bakarra ote den zalantzatan jartzeko beste arrazoi bat ere ikusten dut nik, hauxe hara: modu eta irudiei falazia desestaltzeko esleitzen zaien baliagarritasuna nolanahikoa izanik ere (gorago azalduta geratu denez), *diskurtso forma eskolastiko horiek ez dira arrazoibide deformatuak baino gutxiago falazia-bide* ; eta horren lekukotzat esperientzia jartzen dut, zeinek arrazoiketa metodo artifizial horiek beti jo baititu aproposagotzat gogamena trabatu eta nahasteko, adimenari argitasuna eta informazioa emateko baino. Eta hortik metodo eskolastiko horrek gainditu eta isilarazi duen jendea ere inoiz

gutxitan edo sekula ez konbentzitzea, ez eta garaitu zaion ikuspuntura makurtzea.

Agian aitortuko dizute beren lehiakidea abilagoa izan dela eztabaidan, baina ez dituzu aterako beren ikuspuntua zuzentzat jotzetik, eta halaxe jarraituko dute berenean, garaituak izan arren, lehen zeukaten iritzi berari eutsiz; hori ez lukete eginen, ordea, arrazoibide modu horrek argitasuna eta konbentzimendua balekar eta jendeari egia non dagoen erakutsiko balio. Horrexegatik pentsatu izan da silogismoa aproposagoa dela eztabaidetan garaipena lortzeko, ikerketa zintzoen bidez egia aurkitzeko edo berresteko baina. Eta egia bada ere falaziak silogismoetan estal daitezkeela, egia ukalezina berau, falaziok aurkitu, beste bitarteko batez, —ezen ez silogismoaren bidez— aurkitu beharko dira. Badakit, esperientziaz, batzuek zerbaiti esleitu izan ohi dizkieten baliagarritasun guztiak aitortzen ez direnean, zerbait hori erabat baztertu nahi dela-eta etortzen zaizkizula aldarrika. Baina halako egozte injustu eta fundamentu gabekoak ekiditearren, adimenari ezagutzaren bilaketan baliagarri izan dakioken edozein baliabide ukatzearen aldekoa ez naizela esan behar diet horiei. Eta silogismoetan trebeak diren eta horretara ohituak dauden zenbaitzuek egia bilatzeko orduan beren arrazoimenarentzat laguntza aurkitzen baldin badute haietan, horretaz baliatzen jarraitu behar dutela uste dut. Nik nahi dudana bakarra zera da, forma horiei ez diezaietela egotz dagokien baina gehiago, eta ez dezatela pentsa silogismoez baliatzen ez diren gizakiek ez dituztela erabiltzen, edo ez dituztela hainbeste erabiltzen, beren arrazoitzeko ahalmenak. Begi batzuek gauzak argi eta garbi ikusteko betaurrekoen premia izateagatik, betaurrekodunek ez dute esan behar inork ere ezin duela ongi ikusi betaurrekorik gabe. Natura gehiegi jaistea eta aintzat ez hartzea litzateke, zerbait zor dioten arte baten mesedetan agian. Arrazoimenak, bere zolitasunari esker, argi eta azkar ikusi ohi du, aritua izanez eta sasoian egonez gero, silogismoen premiarik gabe. Betaurrekoak gehiegi erabiltzearen ikusmena lausotu bazaie eta haiek gabe ezin badute argi ikusi arrazoibidearen egokitasuna edo desagokitasuna, ni ez naiz izanen hain ergela haiek erabiltzearen aurka irteteko. Norberak daki zer doakion ongien bere ikusmenari, baina hortik ez dezala konkludi, arren, berak behar dituen laguntza horietaz baliatzen ez diren guztiak ilunbeetan bizi direla.

5. *Silogismoak laguntza gutxi ematen du frogapenean, eta are gutxiago probabilitateetan.*

Baina ezagutzen gertatzen dena gertatu, uste dut zera esan dezakedala egiaz: *silogismoa askoz baliagarritasun gutxiagokoa dela, edo batere baliagarritasun gabekoa, probabilitateetan.* Zeren eta baiespena frogen pisu-aldearen kariaz erabaki beharra dagoenez, froga guztien pisua behar bezala neurtuz alde bateko eta besteko zirkunstantziak oro balioetsi ondoren, ezer ez duzu aurkituko horretan gogamenari laguntza emateko ezgaiagorik silogismoa baino. Honek, izan ere, baietsitako probabilitate baten edo argumentu topiko bakar baten ildotik bideratu ondoren, horrixeko darraio harik eta gogamena auziaren ikuspuntutik at eraman arte, eta, urrutiko eragozpenen baten gogoetara behartuz, hantxe mantenduko du gogamena atxikita, eta agian lausotuta ere, silogismoaren katean trabatuta bezala, askatasunez jarduten utzi gabe eta —hau oraindik askoz gutxiago— probabilitate handiena zein aldetan dagoen aurkitzen (alderdi guztiak arretaz aztertuz) lagundu gabe.

6. *Ez du balio gure ezagutza gehitzeko, baizik eta dagoeneko lortutzat dugun ezagutzarekin borrokan ekiteko.*

Baina eman dezagun, nahi bada, silogismoak lagungarri zaizkigula gizakiak beren errore eta okerre konbentzi daitezten —nahiz eta asko gustatuko litzaidakeen silogismoen kariaz bere iritzia bazer-rera utzi duen baten bat ezagutzea—; baina hori horrela dela emanik ere, ez dio ezertxo laguntzen arrazoimenari beronen koalitate gorena ez bada ere zeregin neketsuena den eta laguntza gehien beharko genukeen arloan, hots, *frogak aurkitzen eta deskubrimendu berriak egiten.* Silogismoaren arauak ez dute balio gogamena bitarteko ideiez, beste ideia urrun batzuen lotura erakus dezaketene bitarteko ideiez, alegia, hornitzeko. Arrazoiketara modu horrek ez du froga berririk aurkitzen, baizik lehendik genituenak erakustera emateko eta berrantolatze-ko artea besterik ez da. Euklidesen lehen liburuko 47. proposizioa oso egiazkoa da, baina horren aurkikuntza ez da izan, nire iritzirako, logika arruntaren arauetarako. Lehenengo eta behin zerbait ezagutu egiten dugu, eta jarraian hura silogismo bidez frogatzeko gai izaten gara. Horrela, beraz, silogismoa ezagutzaren ondoren dator, eta orduan haren premia gutxi izaten dugu, edo bat ere ez. Baina ideia urrunen lotura erakusten duten bitarteko ideia hauexen aurkikuntzarako esker

metatzen da batik bat gure ezagutza eta egiten dute aurrera arte eta zientzia baliagarriek. Silogismoa, kasurik onenean ere, aurretiaz dugun ezagutza gutxiarekin esgrima egiteko artea besterik ez da, ezagutza horri ezer gehitu gabe. Eta baten batek bere arrazoimena orobat gisa horretara erabiliko balu, ez luke erabilpen hobea eginen lurraren barrunbeetatik burdina pixka bat atera, ateratako guztia ezpatak egiteko erabili eta ezpatok bere morroien eskuetan —elkarrekin esgrima egin eta elkar zauri zezaten— jarriko lituzkeen gizonak eginen lukeena baino. Espainiako erregeak bere herriaren besoak eta bere burdina espainiarra horrela erabili izan balitu, ez zukeen atera ahal izanzen argitara Ameriketako barrunbeetan hain denbora luzez gorderik zegoen altxorren parte txiki bat baino. Eta ni haxe pentsatzera nago: bere arrazoimenaren indar guztia silogismoak astintzeko baino erabiltzen ez duenak, izadiaren barrunbe ezkutuetan oraindik gorderik dagoen ezagutza multzo horren zati nimiño bat besterik ez duela aurkituko, eta harako bidea, gainera, *modu* eta *irudien* arau hertsietan oinarrituriko edozein ezagutza eskolastikok baino hobeto ireki diezagukeela, nire iritzirako, jatorrizko sen naturalak («rustic reason»), orain arte egin duen bezala, gizateriaren ezagutza multzo komuna gehituz horrela.

7. Arrazoimenari silogismoak ez diren beste laguntza batzuk luzatu beharko litzazkioke.

Nik ez dut zalantzarik, hala ere, gure arrazoimenari arlo hain baliagarri honetan laguntzeko beste bitarteko batzuk aurki daitezkeela; eta hau esatera Hooker zentzu handiko gizonak animatu nau, zeinek bere *The Ecclesiastical Polity*-n (I. liburua, 6. kapitulua) honako haxe baitio: «Jakituriaren eta arrazoitzeko artearen egiazko laguntzak ezarriko bagenitu, hauetaz gutxi jakin eta apenas arduratzen garelarik argitsutat daukagun mende honetan, juzgamenaren irmotasunari dagokionean honetaz baliatuko liratekeen gizakien eta egungo gizakien artean ezberdintasuna hain handia litzateke, nola den gaur egungo gizakien eta ergelen artean dagoen aldea». Ez dut esan gura hain pentsamendu sakoneko gizon horrek aipatzen dituen «arrazoitzeko artearen egiazko laguntza» horietarikoren bat nik aurkitu edo deskubritu dudarik, baina honako hau bai badela bistakoa: silogismoa eta gaur egun erabili ohi den logika —bere sasoian hain ongi ezagutzen zirenak— ezin direla izan jaun horrek aipatzen dituen laguntzetariko

bat ere. Pozik nengoke nire diskurtso honen bidez —agian zertxobait neurritz kanpo irten zaidana baina, ziur nago, guztiz berria eta originala dena—, beste batzuei aurkikuntza berrien bila abiatzeko aukera eman badiet eta beraien pentsamenduen baitan arrazoitzeko artearen egiazko laguntza horiek aurkitzeko parada eskaini badiet; nahiz eta arte hori nekez lortu ahal izanen duten, hala uste dut nik, beste enparauen arauai eta aginduei menpekotasunez lotzen zaizkienek. Zeren betiko bideak, izan ere, bere pentsamenduetan imitazio hutsera iristen ez den artalde mota hau —erromatar zoli batek deitzen dion bezala, *non quo eumdum est, sed quo itur* eramanen baitu. Baina ausar nintzke esatera garai hau hain juzgamen indartsu eta ulermen zabaleko zenbait pertsonaz jantzirik dagoela, non beren pentsamenduak gai honi buruz erabiliko balituzte, ezagutza aurrerago eramateko bide berri eta aurkigabeak zabaldu ahal izanen lituzketen.

8. *Gauza partikularrei buruz arrazoi dezakegu, eta gure arrazoinamenduen arartegabeko objektua ideia partikularrak besterik ez dira.*

Hemen silogismoaz oro har, honek arrazoinamendurako duen baliagarritasunaz eta gure ezagutzaren aurreramenduaz mintzatzeko parada izan ondoren, egoki deritzot, gai honi bukaera eman baino lehen, silogismoaren arauetan egiten den oker nabarmen bat ezagutzera ematea, hots, ezein arrazoinamendu silogistiko ezin izan daitekeela zuzen eta konkludigarri uste izatea, gutxienik proposizio orokor bat ez baldin badarama; gauza partikularrei buruz arrazoitzerik eta ezagutza edukitzerik ez bagenu bezala. Aitzitik, egiatan, eta gaia behar bezala aztertuz gero, gauza partikularrak bakarrik dira gure arrazoinamendu eta ezagutza guztien arartegabeko objektu. Gizaki bakoitzaren arrazoinamendua eta ezagutza bere gogamenean existitzen diren ideiei buruzkoa besterik ez da, ideia guztiok eta bakoitza existentzia partikularrak besterik ez direlarik, hain zuzen; eta beste gauza batzuei buruz dugun ezagutza eta arrazoinamendua, izatez, ideia partikular haiek gauzokin duten egokitasunaren heinekoa da. Halako moldez, non gure ideia partikularren adostasuna edo desadostasuna hautematean baitatza gure ezagutza guztiaren funtsa eta osotasuna. Honentzat, izan ere, unibertsaltasuna ez baita akzidentala besterik, honako honetan datzana soil-soilik: gure ezagutzak objektutzat dituen ideia partikular horiek halako izaerakoak izatean, non gauza

partikular bat baino gehiago egoki diezaiekeen eta irudika dezaketen. Baina edozein ideia bikoteren adostasuna edo desadostasuna —eta, beraz, gure ezagutza— berdinki argia eta zurrin dugu, dela ideiotariko bat ala biak izan gai ala ez izaki erreal bat baino gehiago irudikatzeke, dela ideiotariko bata ere ez izan horretarako gai.

Beste galdera bat planteatu nahiko nuke silogismoari buruz, gai hau utzi aurretik: ez al litzateke aztertu behar orain silogismoak duen forma bera arrazoiz eduki beharko lukeena ote den ala ez? Zeren *medius terminusek* muturrekoak lotzea duenez helburu (hau da, bitarteko ideiak) auzitan dauden ideia bien arteko adostasuna edo desadostasuna adierazteko, *medius terminus* horren kokapena ez ote litzateke naturalagoa eta ez ote luke muturrekoen adostasuna edo desadostasuna argiago eta hobeto adieraziko ideia horien erdian balego? Eta hori erraz-erraz egin liteke proposizioak lekualdatuz eta *medius terminus* delakoa lehenengoaren predikatu eta bigarrenaren subjektu bihurtuz, honela:

Omnis homo est animal.

Omne animal est vivens.

Ergo, omnis homo est vivens.

Omne corpus est extensum et solidum.

Nullum extensum et solidum est pura extensio.

Ergo, corpus non est pura extensio.

Ez dut asperraraziko irakurlea konklusio partikularreko silogismoen adibideekin. Konklusio orokorrekoen kasuan dagoen arrazoi bera dago horiei ere forma bera emateko.

9. Gure arrazoimenak sarritan huts egiten digu.

Arrazoimena, itsas-lurren sakoneraino iristen den arren, gure pentsamenduak izarretaraino jasotzen dituen arren, eta Unibertsoa deritzon eraikuntza miragarri honen espazio zabaletan zein tarte lekutsuetan barna eramaten gaituen arren, oso labur geratzen da izaki gorpuzdunaren beraren egiazko hedadurari buruz ere.

I. Lehenik, ideiak falta zaizkigunean.

Huts egiten digu, erabat, ideiarik ez dugunean. Ez baita hedatzen, eta ezin baita hedatu, ideiak eurak hedatzen diren baino harago. Horregatik, ideiarik ez dugun eremuan arrazoinamendua ere gelditu egiten zaigu eta gure ahalbideen mugara heltzen gara. Eta zenbaitetan

ezein ideia ordezkatzan ez duten hitzei buruz arrazoitzen badugu, hots horiei buruz ari gara arrazoitzen, ezen ez beste ezeri buruz.

10. *Bigarrenik, gure ideiak sarritan ilunak eta imperfektuak direlako.*

II. Gure arrazoimena maiz aurkitu ohi da nahasita eta desbideratuta, darabiltzan ideien iluntasuna, nahasmendua edo imperfekzioaren kariaz; eta orduan eragozpen eta kontraesan anitzetan murgiltzen gara. Horrela, *materiaren hedadura txikienez* eta *infinituaz* ideia perfekturik ez daukagunez, gure arrazoimena ezinean aurkitzen da materiaren zatigarritasunari buruz; ostera, zenbakiaren ideia perfektu, argi eta bereiziak dauzkagunez, gure arrazoimenak ez du izaten oztopo gaindiezinik zenbakiei buruz eta ez da aurkitzen kontraesanean murgilduta. Era berean, gure gogamenen eragiketez, higiduraren eta pentsamenduaren iturburuez eta gogamenak bata eta bestea sortzen dituen moduez ideia imperfektuak besterik ez dauzkagunez, eta ideia oso imperfektuak, halaber, Jainkoaren eragiketei buruz, zailtasun handiak izaten ditugu *egile kreatu askeez*, zeinengandik arrazoimena bera ere ezin baita erabat desatxiki.

11. *Hirugarrenik, ez ditugulako hautematen bitarteko ideiak, konklusioak atera ahal izateko.*

III. Gure arrazoimena geldo bihurtzen da eskuarki, ez dituelako hautematen beste ideia bikote baten arteko adostasun edo desadostasun ziurra edo probablea erakusteko balio lezaketen ideia horiek; eta, horretan, gizaki batzuen gaitasunak beste batzuenak baino askoz urrutiago joan ohi dira. Algebra deskubritu aurretik, giza azkartasunaren adibide dugun tresna bikain hori, gizakiek harriduraz beterik begiratzan zieten antzinako matematikarien frogapen ezberdinei eta nekez baino ez zitzaien bururatzen froga haien guztien aurkikuntza gizakiaz gaindikoa ez zenik.

12. *Laugarrenik, printzipio okerren gainean dihardugulako.*

IV. Gogamena, eskuarki printzipio faltsuen gainean eraikitzean, absurdu eta zailtasunetan murgilduta aurkitzen da, absurdukeria eta kontraesan anitzetan, horietatik nola askatu ez dakiela. Honelakoetan alfer-alferrik izanzen da arrazoimenaren laguntza eskatzea, printzipio okerron faltsutasuna desestaltzeko eta berauen eragina ez onartzeko ez bada. Zenbat eta horiei atxikiago, hainbat nekeza-

go eginen zaio arrazoimenari printzipio faltsuon kariaz gizakiari datozkion zailtasunak garbitzea, gero eta zalantza sakonagoan sartuta aurkituko delarik.

13. *Zalantzazko terminoak erabili ohi ditugulako.*

V. Ideia ilun eta inperfektuek arrazoimena trabatu ohi duten bezala, eta arrazoi beragatik, diskurtso eta arrazoibideetan maiz erabiltzen diren hitz ekibokoek eta zalantzazko zeinuek ere, zuzen ulertu ezean, nahasmendu eta zalantzatan hondoratzen dituzte gizakumeak. Baina azken bi akats horiek geure erruz dira eta ez arrazoimenaren erruz. Dena den, horien ondorioak begi-bistakoak dira, eta nonahi ikus ditzakegu, ikusi ere, gizakien gogamenak zeinbesteko okerkuntza edo zalantzetara daramatzaten.

14. *Gure ezagutza mailarik garaiena intuitiboa da, arrazoina -mendurik gabekoa.*

Gogamenean ditugun ideietariko batzuk bata bestearekin berehala aldera daitezkeenak dira, eta horietan gogamenak argi eta garbi hauteman ahal du berorien adostasuna edo desadostasuna, ideioek bere baitan dituela hauteman ahal duen bezain argi. Horrelaxe hautematen du gogamenak, zirkuluaren ideia bereganatu duen argitasun berarekin, zirkulu baten arkua zirkulu osoa baino txikiagoa dela; beraz, lehenago esan bezala, horrixek deitzen diot nik ezagutza intuitiboa, zalantza oroz haraindiko ezagutza ziurra, alegia, eta ezelako frogarik behar ez duena; giza ziurtasunetan gorena duguna. Horrelakoa da inork zalantzatan jarri ez dituen, baizik eta denek (beren baiespena emateaz gain, gorago esan bezala) egiaztat *ezagutzen* dituzten maxima horien guztien nabaritasuna («evidence»), haien adimenari proposatu bezain laster. Egia hauen aurkikuntzan eta baiespenean ez dago diskurritzeko ahalmenaren erabilpenik, ezta *inolako arrazoinamendu beharrik* ere, egiok nabaritasun maila altuago eta bikainagoz ezagutzen baitira. Eta halakoxea dela esanen nuke nik, gauza ezezagunei buruz aieru egitea zilegi bazait, aingeruek orain daukaten nabaritasun maila, baita perfekziora iritsi diren giza-ki zintzoen espirituek etorkizuneko egoeran edukiko dutena ere, gaur egun gure adimena zeharo gainditzen duten edota, gure arrazoimen mugatuak horiei buruzko zenbait argi izpi ahul besterik ez izatearren, iluntasunean haztamuka bilatu nahian gabiltzan hamaikatxo gauzari buruz.

15. *Hurrengo hau arrazoinamendu bidez lortzen da.*

Nahiz eta guk argitasun garden horren apurtxo bat, ezagutza dirdaitu horren distira gutxi batzuk ditugun han-hemenka, halere, gure ideia gehienak halako tankerakoak dira, non elkarrekiko alderatze arartegabeko soilez ez daukagun haien adostasuna edo desadostasuna bereizterik. Eta horietan guztiotan *arrazoinamendu beharra* daukagu, eta gure aurkikuntzok arrazoi-katea eta inferentzia bidez egin beharra. Horiek bi motatakoak ditugu, eta berriro ere hemen aipaturik uzteko askatasuna hartzen dut:

Lehenenik, frogag arri diren arrazoinamenduen bidez.

Hauexek ditugu lehen motakoak: elkarrekiko adostasuna edo desadostasuna baterabilte arartegabekoz ezin hauteman daitekeen arren, haiekin aldera daitezkeen beste ideia batzuen bitartez azter daitezkeenak. Kasu honetan, bitarteko ideiak alderatu nahi ditugun ideiekiko duen adostasuna edo desadostasuna, alde batera zein bestera, *argiro bereizten* denean, ezagutza sortarazten duen *frogapena* ematen da, nahiz eta ezagutza hori —ziurra bada ere— ez izan ezagutza intuitiboa bezain azkar eta argia. Zeren azken honetan intuizio soil bat besterik ez baitago, ezein ekiboko edo zalantzari lekuri uzten ez diona: egia berehalaxe ageri zaigu bere osotasunean. Egia esan, frogapenean ere bada intuizioa, baina ez bere osotasunean eta berehalaxe emana; zeren, kasu honetan, *medium* edo bitarteko ideia horrek, izan ere, aldeztu aurretik —ideiok elkarrekin alderatzeari ekin diogunean— berarekin alderatu dugun ideiarekiko zeukan adostasunari buruzko intuizioaren oroitzapena behar baita; eta zenbat eta *medium* gehiago tartekatu, hainbat arrisku handiagoa errakuntzarako. Ideien arteko adostasun edo desadostasun bakoitza katea osoaren katemaila bakoitzean ikusi edo hauteman behar delako, eta den bezalaxe atxiki oroitmenean; eta gogamenak seguru egon behar du ez duela bazterrera utzi edo ahantzi frogapena egiteko beharrezko den ezein parte. Hortik frogapen batzuk luzeak eta nahaspilatuak izatea, eta zailgiak, beraz, parte ezberdinak bereiziki hautemateko eta hainbat xehetasun beren buruetan modu ordenatuan eta zehazki eraman ahal izateko indarrik ez dutenentzat. Eta halako espekulazio korapilatsuak atzemateko gai direnek eurek ere sarritan birpasatu beharra izaten dituzte, eta birpasa bat baino gehiago behar izaten da, ziurtasunera iritsi aurretik. Baina, dena den, gogamenak argiro atxikitzen duenean bere intuizioa ideia

jakin batek beste batekiko, eta honek hirugarren batekiko, eta hirugarren horrek laugarren batekiko, etab., duen adostasunari buruz, lehenengoaren eta laugarrenaren arteko adostasun hori frogapen bat da eta ezagutza ziurra sortarazten du; eta bestea ezagutza intuitiboa den bezala, honi *ezagutza arrazionala* dei diezaiokegu.

16. *Bigarrenik, intuizio eta frogapen bidezko ezagutzaren muga estuak gainditzeko, arrazoinamendu probableetan oinarrituriko judizioa besterik ez dauka gu.*

Hortaz, bada zenbait ideia, zeinen adostasuna edo desadostasuna juzgatzeko modu bakarra honako hauxe den: muturrekoekin adostasun ziurra ez baina, ohiko edo egiantzeko adostasuna besterik ez duten beste ideia batzuen bitartez; eta horrelakoetan da propioki *judizioa* erabiltzen dena, hots, halako *medium* probabeekin alderatzera-koan ideia jakin batek dukeen adostasunari gogamenak damaion baiespena. Nahiz eta hau ez den iristen inoiz ezagutza ziurrera —ezta beronen maila baxuenera ere—, bitarteko ideia horiek zenbaitetan muturrekoak hain hertsiki elkarlotzen dituzte, eta probabilitatea hain da argia eta sendoa, non baiespenak jarraitzen dion, frogapenari *ezagutzak* jarraitzen dion bezalaxe. Juzgamenaren bikaintasun eta baliagarritasun nagusia honexetan datza: probabilitate bakoitzaren indarra eta pisua zuzen hautematean eta, elkarrekin behar bezala ipini ondoren, balantzan pisu handiena ematen duen aldea aukeratzean.

17. *Intuizioa, frogapena, judizioa.*

Ezagutza intuitiboa, elkarrekin arartekorik gabe alderaturiko bi ideiareneko arteko adostasun edo desadostasun ziurra hautematean datza. *Ezagutza arrazionala*, bi ideiareneko arteko adostasun edo desadostasun *ziurra* hautematean datza, halaber, baina beste ideia baten edo gehiagoren bitartekaritza. *Judizioa*, azkenez, bi ideiareneko artean adostasuna edo desadostasuna dagoela uste izatea edo suposatzea da, beste ideia baten edo gehiagoren bitartekaritza oraingoan ere, baina ideion arteko adostasun edo desadostasun ziurra gogamenak ez duelarik hautematen, baizik eta *maizkotzat* eta *ohikotzat* jotzen.

18. *Hitzen ondorioak eta ideien ondorioak.*

Proposizio bat bestetik deduzitzea edota hitzetan inferentziak egitea arrazoimenaren zati handi bat bada ere, eta normalean alor horrexetan aritzen bada ere, arrazoinamenduaren egintza printzipala,

izatez, *ideia pare batek elkarrekiko duen adostasuna edo desadostasuna aurkitzean datza, hirugarren ideia baten medioz*. Gizakiak yard baten bidez bi etxek luzera berdina dutela aurkitzen duen bezala — etxeok ezin baitaitezke elkarren gainean jarri beren berdintasuna justaposizioz neurtu ahal izateko—. Hitzek, halako edo bestelako ideien zeinu direnez, beren ondorioak dituzte: eta gauzek elkarrekiko adostasuna dute ala ez, beren izaeraren arabera; baina hori geure ideien bidez bakarrik hauteman dezakegu.

19. *Lau argumentu mota.*

Gai honekin bukatu baino lehen, garrantzitsua izan daiteke gizakiak bere solaskideekin arrazoinamenduetan jardutean —dela bere iritzia baiestarazteko, dela, gutxienez, bere lehiakideak isilarazteko— erabili ohi dituen *lau argumentu mota* hauei buruz gogoeta egitea, laburki bada ere.

Lehenbizikoa, argumentum ad verecundiam.

I. Lehenbizikoa honexetan datza: jakituriagatik, gizarte mailagatik, ahalmenagatik edo beste zerbaitegatik izen handia lortu eta beren ospe horri esker gainerakoen estimua autoritate moduko batez bereganatu dutenen iritzia aipatzean. Gizakiren batzuk edozein mota-tako dignitatera jasoak izan direnean, harrokeriatzat hartzen da beste norbaitek haiei ezertan ihardukitzea edota jadanik autoritatea dutenei euren autoritate hori ezbaian jartzea. Eta norbait berehala makurtzen ez bada gainerakoek menpekotasunez eta begirunez onartzen dituzten autore konsakratuen irizpideetara, harroputza dela leporatuko zaio eta lotsagabekeriazko ausardia egotziko zaio; eta ozarkeriatzat hartuko da, halaber, Antzinateko oharrari norbaitek bere iritzia aurkatzea, edota iritzi hori doktore jakintsu baten edo bestelako onarpena duen idazle baten aurrez aurre aurkeztea. Horregatik, bere tesiak halako autoritateetan oinarritu ahal dituenak garaipenaren jabe izan behar duela uste du eta zuhurtzigabekeriatzat jotzen du, besterik gabe, beste norbait tesion aurka agertzea. Horixe dei diezaiokegu, nire aburuz, *argumentum ad verecundiam*.

20. *Bigarrena, argumentum ad ignorantiam.*

II. Bigarrenik, gizakiek beste enparauak isilarazi, beren iritzietara makurrarazi eta eztabaidako tesiak onartarazteko maiz erabili ohi duten beste modu bat, lehiakideari eurek frogatzat dakartena onartzea

ala beste froga hobe bat aurkeztea exijitzea da. Horri *argumentum ad ignorantiam* deitzen diot nik.

21. *Hirugarrena, argumentum ad hominem.*

III. Hona hemen hirugarren bidea: berberak aurkezturiko printzipio edo amore ematetik ateratako ondorioez baliatuz estutzen dutenean lehiakidea. *Argumentum ad hominem* izenaz ezagutzen dena.

22. *Laugarrena, argumentum ad iudicium. Guztietatik hauxe da ezagutzen eta judizioan aurreratzea ahalbidetzen digun bakarra.*

IV. Eta azkenik *argumentum ad iudicium* daukagu, hau da, ezagutzaren edo probabilitatearen jatorrietariko batetik ateratako frogak erabiltzea. Aipaturiko lau argumentuetatik hauxe da egiazko irakaspena damaigun eta ezagutza bidean aurrera egitea ahalbidetzen digun bakarra. Honako arrazoiongatik: 1) Nik baten bati ihardetsi nahi ez izateak, berari diodan begiruneagatik edo konbentzimendua ez den beste edozein arrazoigatik, ez du esan gura haren iritzia zuzena denik. 2) Nik esateko ezer hoberik ez edukitzeak ez du frogatzen bestea bide onean dabilenik, edo nik haren bideari jarraitu beharko niokeenik. 3) Edota neure buruarekiko kontraesanean jausi naizela norbaitek ikusarazteak ez du esan nahi berak duenik arrazoi. Beharbada apala izateagatik, ez diot kontrajarri nahi ezer beste baten aburuari. Edota agian ezjakina izatearren, ezin diot beste ezer hoberik kontrajarri. Edo baliteke ni neu egotea erratuta eta besteak hori ikusaraztea. Horrek guztiak egia onartzera bultzatzen nazake agian, baina ez dit laguntzen ezagutzara iristen, zeren hau froga eta argumentuen bidez lortzen baita, eta gauzen beraien izaeratik sortzen den argiaren bidez; ez, ordea, norbere lotsa, ezjakintasuna edo errorearen kariaz.

23. *Zer datekeen arrazoiak gaindikoa, haren aurkakoa eta araberakoa.*

Orain arte arrazoimenari buruz esandakoetatik zenbait iradokizun egiteko gai garela uste dut gauzen bereizketaz: alegia, ea gauzok arrazoiaren araberakoak diren, arrazoiak gaindikoak ala aurkakokoak. 1) *Arrazoiaren araberako proposizioak* ditugu sentipenetik eta hausnarketatik abiatuz gureganaturiko ideien azterketa eta bilaketaren bitartez haien egia aurki dezakegunean, dedukzio natural baten bidez jo ditza-kegularik egiazat edo probabletzat. 2) *Arrazoiak gaindikokoak*, berriz, haien egia edo probabilitatea ezin deduzi dezakegunean arrazoimena-

ren laguntzarekin, aipatutako printzipioetatik abiatuz. 3) *Arrazoiaren aurkakoak*, azkenik, gure ideia argi eta berezieikiko egokigaitz edo elkartezinak direnak. Horrela, Jainko bakarraren existentzia arrazoi-menaren araberakoa da; Jainko bat baino gehiagoren existentzia, ordea, arrazoi-menaren kontrakoa; eta hilen piztuera, berriz, arrazoi-menaz gaindi dagoena. *Arrazoi*az *gaindikoa* bi zentzutan har daiteke, hots, probabilitateaz gaindi edota ziurtasunaz gaindi dagoena; eta zentzu zabal honexetan uste dut esaten dela, zenbaitetan, arrazoiaren kontrakoa dela.

24. *Arrazoa eta fedea ez daude elkarren aurka, fedea arrazoiak araututa egon behar duelako.*

Bada *reason* hitzaren beste adiera bat ere, *fedearen aurkako* gisa, alegia; eta hori, berez, hitz egiteko modu oso ezegokia izan arren, hainbesteraino dago baimendua hitz egiteko modu arruntan, non ergelkeria litzatekeen horri aurre egitea edota konpontzen saiatzea. Halere, ez dut uste lekuz kanpo dagokeenik honako honetaz ohartaraztea, hots: fedearen eta arrazoiaren arteko kontrajartzea nolana hikoia izanik ere, fedea gogamenaren baiespen tinkoa besterik ez dela, eta baiespen hori behar bezala finkatuta baldin badago —eta horretarako obligazioa daukagu—, arrazoi egokietan oinarrituta dagoenari baizik ezin zaiola eman, eta, beraz, ezin dela arrazoiaren aurkako izan. Hortaz, sinesteko inolako arrazoirik gabe sinesten duena bere irudikeriez maiteminduta egon daiteke, baina ezin esan daiteke egiaren bila dabilela ez eta bere Sortzaileari zor dion menpekotasuna eskaintzen diola, Honek nahiago baitu oker eta errakuntzatik babesteko eman zizkion bereizketa-ahalmenak erabil ditzan. Horretan bere ahalegin guztia jartzen ez duena, nahiz eta zenbaitetan egia hauteman, kasualitate hutsa izanen da bide zuzenetik badabil; eta nik ez dakit kasualitate onaren zoriak halako prozeduraren irregulartasuna justifikatzeko balioko duen. Argi dagoena zera da behintzat, errakuntzatan badabil, berea duela errua; ostera, Jainkoak eman dizkion argiak eta ahalmenak erabiliz egiaren bila zintzoki saiatzen denak bere trebetasun horien laguntzarekin, kreature arrazional gisara dagokion obligazioa betetzearen poza izan ahal duela eta, egia aurkitzen ez badu ere, bere bilaketa ez dela saririk gabe geratuko. Izan ere, horrela jokatzan duenak eta bere baiespena behar bezala ematen duenak, dena delako kasuan zein auzian, bere arrazoi-menak diktatzen dizkion arauen ara-

bera sinesten du edo uzten dio sinisteari; eta bestela jokatzeko duenak, berriz, bere argien kontra egiten du bekatu eta nabaritasun («evidence») argiena zein probabilitate handiena bilatzeko beren-beregi eman zitzaizkion gaitasunak gaizki erabiltzen ditu. Baina, dena den, batzuek fedea eta arrazoia elkarren kontra jartzen dituztenez, hurrengo kapituluari ukituko ditugu, hortaz.

XVIII. KAPITULUA

Fedeaz eta arrazoiak, eta berauen muga zehatzez

1. *Mugokeza gutu beharra dago.*

Gorago azalduta geratu denez: 1) Ideiak falta zaizkigunean, halabeharrek ezjakintasunean murgildurik aurkitzen gara eta ez daukagu inolako ezagutza motarik. 2) Frogak falta zaizkigunean, ezjakintasunean gaude, halaber, eta ez daukagu ezagutza arrazionalik. 3) Ideia espezifiko argi eta zehatzak ez ditugunean, ez daukagu ezagutza ziurrik ez ziurtasunik. 4) Gure arrazoimenaren oinarri datekeen geurezko ezagutzarik ez beste inoren testigantzarik ez dugun gaietan, gure baiespena gidatzeko probabilitateak falta zaizkigu. Lau premisa hauetatik abiatuz zedarri ditzakegu, nire aburuz, *fedearen eta arrazoiaren arteko mugak eta mugarriak*; berauen falta izan baita agian mundu honetan, istilu larriak izan ez direnean ere, hain eztabaida latzak eta beharbada hain errakuntza handiak sortarazi dituenak. Zeren noraino gidatu behar gaituen arrazoiak eta noraino fedeak ebazten ez dugun bitartean, alfer-alferrik ibiliko baikara eztabaidan eta erlijio kontuetan elkar konbentzitu nahian.

2. *Zer den fedeak eta zer arrazoiak, elkarrekiko bereiziak direnez.*

Nire ustez, sekta bakoitza bere gogara baliatzen da arrazoimenaz, bertatik onuraren bat ateratzea espero duen heinean; baina arrazoiak huts egiten dienean, aldarrika hasiko zaizkizu, arrazoiak gaindiko fede artikulua dela eta. Baina nik ez dut ulertzen horiek nola argu-

dia dezaketen eta are gutxiago nola saia daitezkeen argudio berdinak darabiltzan lehiakidea konbentzitzen, fedearen eta arrazoiaren arteko zedarri zehatz-mehatzak aldeztu aurretik ebatzi gabe; zedarriok izan beharko lukete, izan ere, fedearekin zerikusia duen edozein auzitako lehen abiapuntua. Beraz, *arrazoia* hemen, fedearetik bereizita denez, honako hauxe dela uste dut nik: gure gaitasun naturalak —hots, sentipena eta hausnarketa— erabiliaz lortutako ideietatik abiatuz gogamenak dedukzioaren bidez atera dituen proposizioen edo egien ziurtasunaren edo probabilitatearen aurkikuntza. *Fedea*, berriz, proposizio bati ematen diogun baiespena da, baina arrazoimenaren dedukzioetan oinarrituta barik, Jainkoagandik ezohiko komunikazio moduren batez ezagutza emandakotzat aurkeztu digunari fede emanez. Gizakiei egia ezagutza emateko bide horri errebelazioa deitzen diogu.

3. *Errebelazio tradizionalaren bidez ezin zaigu ezin ideia berri bakun jakinarazi.*

Lehenik, beraz, honako hauxe diot: *Jainkoak argi tutako giza -*
kiak ezin die jakinarazi besteei, ezin errebelazio moduz, ber auek
aldez aurretik sentipenez edo hausnarketa izan ez duten ezin ideia
bakun berri . Zeren, direnak direlakoak izanik ere hark Jainkoagandik zuzenean jasotzen dituen inpresioak, errebelazio hori, ideia berri bakunez osaturik baldin badago, ezin izanen baitzaio beste inori jakinarazi ez hitzez ez bestelako ezein zeinuz. Izan ere, hitzek, guregan duten arartegabeko eragiketa horretan, ez dute beren soinu naturalaz haraindiko ideiarik sortarazten; eta haiek zeinutzat erabiltzeko ohitura da gure gogamenean ideia estariak —aurretiaz genituen ideiak, ez bestelakoak— zirikatzen eta pizten dituenak. Zeren ikusi edota aditzen ditugun hitzok ez baitizkiote gogorarazten gure gogamenari gu geu zeinutzat hartzea ohitu garen ideiak baizik, ezin dutelarik sortarazi osoki berri eta aurretiaz ezagutu gabeko ideia bakunik. Eta gauza bera esan daiteke gainerako zeinuz ere, hots, ezin digutela adierazi ezer guk geuk aurretiaz haren ideiarik izan gabe. Horrela, San Paulok, hirugarren zerura eramana sentitu zenean, bereganatutako ideia berriak ugari izanagatik, horri buruz hauxe baino ezin adierazi izan zigun, «inoiz giza begiak ikusi ez dituen, belarriak entzun ez dituen eta gizakiari inoiz bururatu ez zaizkion gauzak» direla. Demagun, adibidez, Jupiter edo Saturno planetan —zeren hau ere daitekeena baita eta inork ukatu ezin duena-, sei sentimenez hornituriko kreaturak bizi

direla eta Jainkoak sobrenaturalki gutariko gizaki bati haien seigarren sentimenezko ideiak eskaintzen dizkiola; bada, gizaki horrek ezin izanen lituzke gainerako gizakion gogamenetan sekulan sortarazi, hitzen bidez, seigarren sentimen horri esker inprimaturiko ideioiok; gutariko inork ere ezin dionez komunikatu kolorearen ideia, inolako hitz soinuren bidez, beste lau sentimenak oso ondo eduki arren, bosgarrenaz (ikusmenaz) erabat elbarri jaiotako bati. Beraz, gure ideia bakunei dagokienez —eta horiexek osatzen dute gure nozio eta eza-gutza guztien oinarria eta gai bakarra—, gure arrazoimenaren menpe gaude erabat —gure ahalmen naturalen menpe esan nahi dut—, eta inola ere ezin jaso ditzakegu tradiziozko errebelazio bitartez. *Tradiziozko err ebelazioa* diot, *jatorrizko err ebelaziotik* bereiziz. Lehenengoaren barruan, Jainkoak edozein gizakiren gogamenean zuzenean eragiten duen lehen inpresioa sartzen dut, eta guk ezin diogu mugarik ezarri; bigarrenean, berriz, gure kontzepzioak elkarri komunikatzeko ohiko bideak erabiliz elkarri hitzen bidez transmititzen dizkiogun inpresioek sartzen ditut.

4. *Bigarrenik, tradiziozko errebelazioak arrazoi bidez ere eza-gutu ahal diren proposizioak ezagutaraz diezazkiguke, baina ez arrazoimenak egin ohi duen ziurtasun berarekin.*

Bigarrenik, zera diot: *arrazoiaren bidez eta modu naturalez ditugun ideien bitartez aurkitu ahal ditugun egia eurak aurki eta atera daitezkeela errebelazioz ere.* Horrela, Jainkoak errebelazio bidez iragar ziezagukeen Euklidesen proposizioetariko baten egia, gizakiek eurek beren ahalmen naturalak erabiliz aurki zezaketena bezala. Mota honetako gauzetan errebelazioaren oso premia gutxi daukagu, zeren Jainkoak seguruago diren baliabide naturalez hornitu baikaitu haiek ezagutzera iristeko. Izan ere, geure ideien ezagutza eta kontenplaziotik abiatuz argiro aurki dezakegun edozein egia, errebelazio tradizionalerantz heltzen zaiguna baino ziurragoa izanen da betiere. Zeren eta errebelazio hori jatorriz Jainkoagandik datorkigula ezagutzea ezin baita izan inoiz geure ideien arteko adostasuna edo desadostasunaren pertzepzio argiak eta bereiziak damaigun ezagutza bezain segurua. Adibidez, duela mende batzuetatik honantz errebelatu izan balitzagu triangelu baten hiru angeluak bi angelu zuzenen baliokide direla, nik proposizio horren egiazkotasunari baiespena eman niezaioke errebelatu zaidan tradizioari fede emanez; baina hori ez litzateke

sekulan iritsiko bi angelu zuzenei eta triangeluaren hiru angeluei buruzko nire ideien alderaketan eta neurketan oinarrituriko ezagutzak emanen lidakeen ziurtasunaren mailara. Gauza bera gertatzen da gure sentimenen bidez ezagut daitezkeen egitatezko arazoekin; uholde uni-bertsala, adibidez, jatorria errebelazioan duten liburu santuen bidez transmititu zaigun historia da; halere, uste dut inortxok ere ezin esan dezakeela Noek berak hura ikustean —edo transmititzaileak berak hura ikusi eta bizi izan balu— eduki zezakeen ezagutza bezain ziurra eta argia duenik. Izan ere, historia hori Moisesek inspiratu omen zuen liburu batean idatzitakoa den segurtasuna ez baita handiagoa beraren sentimenen bidez lortutakoa baino; aitzitik, pertsona horrek Moisesek liburua idatzi izanaz duen segurtasuna ez da izanen berberak Moises liburu hori idazten ikusi balu bezain handia. Beraz, historia horren errebelazio-izateari buruzko segurtasuna norberaren sentimenen bidezkoa baino ahulagoa da.

5. Jatorrizko errebelazioa bera ere ezin onar daiteke arrazoi - bidezko nabaritasun argiaren kontrakoa bada.

Hortaz, gure ideien adostasun edo desadostasunaren pertzepzio argian oinarrituriko ziurtasuna duten proposizioetan, dela arategabeko intuizioz lortzen dela (berenez nabariak diren proposizioetan gertatzen den bezala), dela arrazoibidezko dedukzio nabarien bidez (frogapenetan gertatzen den moduan), ez daukagu errebelazioaren laguntzaren beharrian premiazkorik proposiziooi gure baiespena eman eta gogamenera jaso ditzagun. Zeren eta ezagutza-bide naturalek jaso baititzakete bertara edota jaso baitituzte dagoeneko, hauxe dugularik, izan ere, agian edozertaz izan dezakegun segurtasun handiena, gauza berori Jainkoak zuzenean errebelatzen digunean salbu; eta kasu honetan ere, gure segurtasuna ezin da handiagoa izan iragarpen hori egiaz Jainkoagandiko errebelazioa dela dioskun ezagutza baino. Baina dena dela ere, nik ez dut uste halakotzako ezerk ezagutza nabari bat zaputuz edo zokora dezakeenik, edota baten bat beronen adimeneko nabaritasun argiarekin zuzenki kontraesanean dagoen zer-bait onartaraztera arrazoiz behar dezakeenik. Izan ere, halako errebelazioak jasotzeko tresnatzat ditugun ahalmenen ezein nabaritasunek ere ezin gaindi dezakeenez —nahiz eta bai parekatu— gure ezagutza intuitiboaren ziurtasuna, ezin izanen dugu hartu inoiz egiatzat gure ezagutza argi eta bereizi honekin zuzenki kontraesanean dagokeen

zerbait; adibidez, bi ideia hauek —gorputz bat, espazio bat— hain argiro datoz ados elkarrekin, eta gure gogamenak adostasun horren hain pertzepzio nabaria du, non inoiz ezin izanen diogun baiespena eman gorputz berbera aldi berean bi leku desberdinetan dagoela dioskun proposizioari, nahiz eta berau Jainkoagandiko errebelazioko autoritatetzat aurkeztu; zeren eta honako nabaritasun hau —lehenik, baiezpen hori Jainkoari egoztean ez diogula geure buruari iruzur egiten eta, bigarrenik, mezua hori zuzen ulertzen dugula— ezin baita izan sekulan gure ezagutza intuitiboak damaigun beste nabaritasun honen parekoa, hots, ezinezkoa dela gorputz berbera aldi berean bi leku ezberdinetan egotea. Beraz, *ezin onar dezakegu ezinpr oposizio Jainkoaren errebelaziotat, eta halako proposizioei dagoki en baies - pena erdi esi ere, gure ezagutza intuitibo ar giarekin kontr aesanean dagoenean*. Hala ez balitz, ezagutza ororen eta nabaritasun zein baiespen ororen printzipioak eta oinarriak gainazpikatuko liratekeelako; eta ez legoke munduan ezberdintasunik egia eta faltsutasunaren artean, ez eta sinesgarriarako eta sinestezinerako neurririk, zeren eta dudazko proposizioak berenez nabariak direnei nagusituko bailitzaizkieke, eta ziurtasunez ezagutzen dugunak errore datekeenari utziko bailioke lekua. Beraz, alferrik izanen da gure ideietariko edozeinen arteko adostasuna eta desadostasunaren pertzepzio argiaren aurka dauden proposizioak fedeko auzitzat («matter of faith») ezarri nahi izatea. Horiek ezin dutelako eragin gure baiespena halakoaren edo bestelakoaren izenean. Izan ere, fedeak ezin izanen gaitu sekula konbentzitu gure ezagutzaren aurka dagoen zerbaitetaz, zeren fedeak halako edo horrelako proposizioak iragartzen dizkigun Jainkoaren lekukotzan oinarriturik badago ere (eta Jainkoak ezin gaitu engainatu), ezin dugu jakin segurtasunez —geure ezagutzen egiaz dugun baino ziurtasun handiagoz, alegia— egia hori egiatan jainkozko errebelazioa denentz. Ezen ziurtasunaren indar guztia honexen menpe baitago, hots, proposizio hori errebelatu ziguna Jainkoa ote den jakitearen menpe; eta kasu honetan, errebelaturiko proposizioa gure ezagutzarekin edo arrazoiarekin kontraesanean dagoela ematen dugunez, ziurtasun hura hurrengo objekzio hau zintzilik daukala geratuko da betiere, hots, guk ez dakigula azaltzen nola daitekeen zerbait Jainkoagandik —gure izatearen egile onginahitsu horrengandik— etorri eta egiazkottzat hartzean, berak eman zigun ezagutzaren printzipio eta oinarri guztiak hondatzea, gure gaitasun guztiak ezgai bihurtzea, bere obra-

ren parterik bikainena —gure adimena— erabat suntsituta geratzea, eta gizakia, horrela, abere hilkorrek dutena baino argitasun eta jokagida eskasagoko egoeran jartzea. Izan ere, gizakiaren gogamenak zer-bait jainkozko errebelazioa denentz jakiteko ezin ukan badeza inoiz bere arrazoimenaren printzipioez duen baino nabaritasun argiagoa (eta agian horren parekoa ere), ez du ukanen sekulan inolako motiborik printzipiook duten nabaritasuna baino handiagoa ez duen errebelazioz jasotako proposizio bati lekua uzteko.

6. *Eta are gutxiago tradiziozko errebelazioa.*

Gizakiak horrexenbeste erabil dezake bere arrazoimena, eta beroni kasu egin beharra dauka, gainera, berberari egindakotzat jotzen den arartegabeko eta jatorrizko errebelazioaren kasuan ere. Baina arartegabeko errebelaziora heltzen ez direnei, baizik eta besteren batzuei —dela idatzizko zein ahozko tradizioa bitarteko delarik— errebelaturiko egiak otzantasunez onartzea galdatzen zaien guztiei dagokienez, arrazoiaren askoz premia handiagoa dute, eta beronek besterik ez gaitzake eraman egiok onartzera. Izan ere, fedeko auziak jainkozko errebelazio direnez, eta ez bestelako ezer, fedeak, hitz hau *jainko-fede*a deitu ohi zaion zentzuan hartuz, ez du zerikusirik Jainkoak errebelaturikotzat hartzen diren proposizioekin baino. Nik ezin dut ulertu, beraz, fedeko gai bakartzat errebelazioa dutenek zelan esan dezaketen liburu horretan edo hartan dagoen halako edo bestelako proposizio bat Jainkoaren inspirazioz datorrela sinestea fedeko auzia dela eta ez arrazoikoa; ezpada eurak errebelazioaren bitartez iritsi direla jakitera proposizio jakin hori edo liburu horretan aurkitzen diren guztiak Jainkoaren inspirazioz komunikatu zitzaizkigula. Halako errebelaziorik ezean, proposizio hau edo liburu hori jainko-autoritatezkoa dela sinestea edo ez sinestea ezin izan daiteke sekulan fedeko auzi, baizik eta arrazoiko gai; eta halako motakoa, non neure arrazoiak baliatuz baizik ezin izanen diodan baiespena eman, arrazoi horrek ezin didalarik inoiz eskatu, edota bultzatu, bere kontrakoa den zerbaitetan sinestea; arrazoimenak ezin baitu iradoki ere egin berak arrazoizkotzat ez duenari baiespena ematea. Beraz, geure ideietatik eta lehenago aipatu ditudan ezagutza-printzipioetatik abiatuz nabaritasun argia dugun gai guztietan, arrazoiak dugu epailerik jaiotena; eta errebelazioak, arrazoi horren ebazpenak berretsi ahal baditu ere bera-ekin ados datorrenean, ezin ditu baliogabetu haren ebazpenak halako

kasuetan; eta arrazoiaren ebazpen argi eta nabaria dugunean, ezin gaituzte behartu hari uko egitera kontrako iritzia baten mesedetan, hura fedeko auzia dela aitzakiatzat jarritz: [zeren honek ez baitu inolako autoritaterik arrazoiaren ebazpen argi eta nabariaren aurka].

7. *Hirugarrenik, arrazoiak gairik gabeko gauzak dira, errebeldatuak direnean, fedeko auzi propioa.*

Baina, *hirugarrenik*, gauza askori buruz oso nozio inperfektuak ditugunez edota batere noziorik ez, eta beste zenbait gauzaren iraganez, egungo edo geroko existentziaz inolako ezagutzarik ez dezakegunez lor gure ahalmen naturalen bitartez, horiek dira, aurkitzeko ahalmen naturalak gairik gabeko eta arrazoiak gairik gabeko egonik, *fedearen gairak*. Horrela, kasu, aingeru errebeldatuak Jainkoari jarki eta beren hastapeneko zorion egoera galtzea, eta hildakoak piztu eta berriro bizitzea; halakoak eta antzekoak, arrazoiaren aurkikuntza ahalmenak haraindik izanik, fedeko auziak dira soil-soilik, eta arrazoiak ez du horiekin zerikusirik zuzenki.

8. *Fedeko auziak dira, baita ere, errebeldatuak izanik arrazoiaren aurkakoa ez direnak, eta horiek arrazoiaren aieru probabileen aurrez lehenetsi beharrekoak dira.*

Baina Jainkoak arrazoiaren argia gizakioi ematerakoan ez zituen bere eskuak lotu gure ahalmen naturalak erabaki probable bat hartzeko trebe ez diren auzietan errebeldatzearen argia luzatzeko, berari ongi zeritzonean; eta, hortaz, Jainkoak borondatez eman zigun *errebeldatze* horri *lehentasuna eman behar zaio arrazoiaren aieru probabilekiko*. Izan ere, gogamenak, berak nabaritasunez ezagutzen ez duen egiari buruzko ziurtasunik ez duenez egia horretan ageri den probabilitateari atxikiz baina, premiazkoa izaten du huts egiterik ez daukan eta inori iruzur egiterik nahi ez duen batengandik datorkion testigantzari baiespena ematea. Halarik ere, arrazoiari dagokio, betiere, hura egiaz errebeldatzea denentz eta jantziz dakartzan hitzen esanahiaz juzgatzea. Hortaz, arrazoiaren printzipio garbien aurkakoa eta gogamenak bere ideia argi eta bereiziez duen ezagutza nabariaren aurkakoa den zerbait hartzen baldin bada errebeldatze, arrazoiari kasu egin beharra dago, berari dagokion gaia delako. Eta gizakiak ezin duenez inoiz lortu bere ezagutzaren printzipio argiekin eta nabaritasunarekin kontraesanean dagoen proposizio bat Jainkoak errebeldatua ote den edota proposizio hori aurkeztean erabilitako hitzen esanahia

zuzen ulertzen ote duen jakiteko horren ezagutza ziurra —kontrako proposizioa egia izateaz duen ezagutza bezain ziurra, alegia—, proposizio hori arrazoiko auzitzat hartzera eta halakotzat juzgatzea beharturik dago, eta ez inolako azterketarik gabe, fedeko auzia bailitzan, hura irenstera.

9. *Arrazoiak juzga ez ditzakeen edota soilik probabilitatez juzga ditzakeen auzietan, errebelazioari entzun behar zaio.*

Lehenengo eta behin, gure gogamenak bere ahalmen eta nozio naturalen bitartez juzgatzerik ez daukan edozein proposizio errebelatari dagokionez, fedeko auzia da soil-soilik eta arrazoiaren gainetik dago. Bigarrenik, gogamenak naturalki bereganaturiko ideietatik abiatuz eta bere ahalmen naturalen laguntzaz baliatuz bereizi eta juzgatzea lor ditzakeen proposizioak oro, arrazoiko auziak dira; bereizketa honekin, alabaina: gogamenak nabaritasun ez-ziurra besterik ez duen proposizioei dagokienez, zeinen egiazkotasunaz arrazoi probableetan oinarrituriko konbentzimendua besterik ez dioten ematen, halako moldez, non kontrakoa egia izan daitekeen —bere ezagutzaren nabaritasun ziurrari bortxarik egin gabe eta arrazoi ororen printzipioak suntsitu gabe—, halako proposizio probableen kasuan, diot, arartegabeko errebelazio batek erabaki dezake gure baiespena, probabilitatearen aurka izanda ere. Zeren arrazoiaren printzipioek argi utzi ez dutenean proposizio jakin bat ziurtasunez egiazkoa ala faltsua den, errebelazio nabari batek, egiaren beste printzipio bat gehiago eta baiespenaren oinarri bat gehiago bezala, har dezake erabakia gogamenean; eta horrela, proposizio hori fedeko auzi bihur daiteke, eta arrazoiak gaindikoa izan. Zeren arrazoa auzi konkretu horretan probabilitate soiletik harago ezin irits daitekeenez, fedeak ekarriko baitu erabakia arrazoa motz geratu den lekuan, eta arrazoiak deskubrituko egia zein aldetan dagoen.

10. *Arrazoiak ezagutzaren bat eskaini ahal duen auzietan, entzun egin behar zaio hari ere.*

Horraino iristen da fedearen eremua, eta hori arrazoiari inolako bortxarik ez oztoporik egin gabe; hau ez baita zauritzen ez zokoratzten, baizik eta ezagutza ororen iturri eternaletik datozen egiari buruzko aurkikuntza berriekin laguntzen eta aberasten. Izan ere, Jainkoak errebelatu duen guztia egia ziurra da, eta hori ezin da zalantzatan jarri. Horixe da, hain zuzen, fedearen objektu propioa; baina errebelazio

jakin bat Jainkoagandikoa den ala ez, hori arrazoiak juzgatu behar du, eta honek ezin izanen du sekula permititu gogamenak nabaritasun handienari uko egin eta txikiena besarkatzea, ez eta probabilitatea onartzea ere ezagutzaren eta ziurtasunaren aurka. Ezin dugu izan nabaritasunik —ez behintzat arrazoiaren printzipioek damaiguten pareko argitasuna eta ziurtasuna duenik— tradiziozko errebelazio bat Jainkoagandikoa ote den, hura jasotzen dugun hitz horien tenorean eta ulertzen dugun zentzu jakin horretan. Eta, horregatik, *ezin zaigu arra-zoiarekin zerikusirik ez dukeen fedeko auzitzat ezarri ez onarterazi arrazoi horren erabaki argi eta berenez nabarien aurka dagoen edota harekin bat ez datorren ezer*. Jainkoagandiko errebelazioz datorkigun guztiak gure aburuen, aurreiritzien eta interesen gainetik egon behar du eta baiespen osoz onartua izateko eskubide osoa du. Gure arrazoiak fedearetik duen halako menpekotasunak ez ditu aldatzen, ordea, gure ezagutzaren mugak, ez eta arrazoiaren oinarriak arriskuan jartzen ere; aitzitik, gure ahalmenak garatzea ahalbidetzen digu, jarritako helburuetarako erabiliz.

11. *Arrazoiaren eta fedearen arteko mugak ez badira zehazten, ezin izanen diregu aurre egin erlijioari irrikitasun eta na barmenkeriari.*

Fedearen eta arrazoiaren arteko zedari horiek ez badira erresetatzen, erlijio-gaietan ez du ukanen batere lekurik arrazoiak, eta ez dugu eskubiderik ukanen munduan diren erlijio ezberdinetan aurkitzen ditugun hainbat aburu eta errito desarauko gaitzesteko. Zeren fedea arrazoiaren aurrez aurre jartzeko mania horregatik dela uste baitut nik, neurri handi batean behintzat, gizateriaren jaun eta jabe egin eta berau banantzen duten ia erlijio guztiak blaitzen dituzten absurdu horiek guztiok. Izan ere, jendeari iritzi hau buruan sartu diotenez, hots, erlijio-gaietan ez zaiola arrazoiari kontsultatu behar, nahiz eta itxura batean norbere zentzuarekin eta ezagutza ororen printzipioekin kontraesanean egon, bakoitzak bere irudikeriei eta berezko superstizioei eman die bide; eta hortik erlijio arloan hain iritzi bitxi eta praktika desaraukoetara jotzea, non zentzu pixka bat duen edonor txundituta uzten duen hainbeste ergelkeriak, eta Jainko ahaltsu eta jakintsuarentzat onargarri izatetik hain desbideratutzat dauzka, non ezin baitu ekidin iritziok eta praktikok barregarritzat eta iraingarritzat jotzea bere senean dagoen edozeinentzat. Halako moldez, non, erlijioak izan beharko lukeenean piztiengandik gehien bereizi beharko gin-

tuzkeena eta kreatura arrazional gisan abereen gainetik jaso beharko gintuzkeena bereziki, hartantxe gertatzen baita maiz, hain zuzen ere, gizakia abereak eurak baino irrazionalago eta zentzugabekoago agertzea. *Credo, quia impossibile est* (sinetsi egiten dut, ezinezkoa delako), horra hor gizaki zintzo batengan portaera gartsutzat uler daitekeen goiburua, baina jokabide guztiz okerra litzatekeena gizakiek beren iritziak edo erlijioa aukeratzera koan.

XIX. KAPITULUA

Irrikitasunaz

1. *Egiazaletasuna, behar-beharrezkoa.*

Egiaren bilaketan seriozki murgildu nahi duenak bere gogame-na egia maitatzeko prestatu behar du lehenik eta behin. Ezen egia maite ez duenak ez baitu eginen ahalegin handirik hura aurkitzeko, ez eta hura galtzeagatik nahigabe handirik sentituko ere. Letragizonen artean ez duzu aurkituko inor bere burua egiazaletzat ez duenik, eta ez dago kreatura arrazional bat ere berataz bestela pentsatzea iraintzat hartuko ez lukeenik. Halere, hori horrela izan arren, egia egiagatik maite dutenak oso gutxi direla esan daiteke hutsik egin gabe, beren burua egiazaletzat dutenen artean ere. Mereziko luke aztertzea, bai, batek nolatan ezagut dezakeen egia zintzoki maite duen, eta horri buruz badela uste dut froga hutsezin bat: ezein proposizio ere ez onartzea berorrek oinarritzat dituen frogek baimentzen duten baino segurtasun handiagoz. Baiespen neurri horretaz haraindi doanak ez du besarkatzen egia, bistan dago, egia hori maite duelako; ez du maite egia egiagatik, baizik eta beste helburu ezkuturen bategatik. Izan ere, proposizioen bat egia den nabaritasuna norberak horretaz dituen frogetan oinarritzen denez, eta ez beste ezertan (berez nabariak diren proposizioetan salbu), bistan da nabaritasun maila horiez gaindi damaion edozein baiespen maila, segurtasun plus hori guztia, egiazaletasunari zor zaionaz aparteko beste irrikaren bategatik dela; zeren neurri berean baita ezinezko, hala egiazaletasunak norbait baiespena

ematera bultzatzea berak proposizio horren egiazkotasunaz duen nabaritasunaren gainetik, nola egiazaletasunak norbait baiespena ematera behartzea, proposizioaren baten nabaritasunaren izenean, berak proposizio horren egiazkotasunaz nabaritasunik izan gabe; zeren hori, izan ere, proposizio jakin bat egiazkoa ez izatea posible edo probable dela-eta egiaztat besarkatzea bailitzateke. Arartegabeko nabaritasunaren argitasun kontestaezinaren bidez edota frogapenaren indarraren bidez gure gogamenen jabe egiten ez den beste edozein egiaren kasuan, beroni damaiogun baiespena lortzen duten argumetuak dira hark eskaintzen digun probabilitatea neurtzeko dauzkagun berme eta bahiturak; eta hura ezin dugu onartu argumentuok gure adimenei eskaintzen dietenaz aparteko beste ezeren izenean. Proposizio bati printzipioek eta frogek ematen diotenaz harago eskaintzen diogun fedea edo autoritatea, edozein mailatakoa delarik ere, haren aldera makurtzen gaituzten jauginen kariaz da, eta neurri horretan, beraz, egiari egia izateagatik zor diogun maitasunetik aldentzea. Eta egia honek, gure grina edo interesetatik ezelako nabaritasunik jasotzerik ez daukanez, ez du jasoko haietatik, ezta ere, ezelako ñabardurarik.

2. *Nondik datorren norbere aburuak besteei inposatzeko joera.*

Besteei inposatzeko autoritatea norbere buruari esleitzea eta norbere iritzia ezartzeko joera hori gure judizioen desbideraketa eta ustelkeriak berarekin daraman portaera iraunkorra da. Izan ere, zer espero daiteke besterik norbere aburuak gainerakoei inposatzeko prest egotea baino, aburuok dagoeneko norbere buruari inposatu dizkionarengandik? Espero al dezake inork arrazoiz argumenturik eta konbentzimendurik besteeikiko harremanetan, bere buruarekin halakorik erabiltzen ohituta ez dagoen baten adimenetik? Norbere ahalmenei bortxa egiten dienak bere buruarekiko tirano bihurtzen da eta egiari soilik dagokion eskubidea usurpatzen du, hau da, egiak berak duen autoritatearen izenean soilik —hots, bere baitan daukan nabaritasunaren izenean eta nabaritasun horren neurrian— baiespena galdatzea.

3. *Arrazoa aintzat hartzen ez duen irrikitasunaren indarra.*

Zilegi bekit orain *baiespenaren hirugarren zimentarri bat* aipatzea hemen, batek baino gehiagok fedeari zein arrazoiari bezainbeste autoritate esleitzen diona, konfiantza osoz oinarrituz hartan. Irrikitasunaz ari naiz, zeinek, arrazoa erabat baztertuz, berau gabe errebelazioa ezartzea nahi duen. Horregatik, beraz, arrazoa eta erre-

belazioa, biak, uzten ditu bazterrera, eta haien lekuan gizakiak bere burmuinean dituen funsgabeko irudikeriak jartzen, iritziaren zein jokabidearen arautzat hartzen dituelarik, gainera, eurok.

4. *Arrazoa eta errebelazioa.*

Arrazoa, izatez, errebelazio naturala da, argiaren Aita eternal eta ezagutza ororen iturburu denak horrexen bidez komunikatzen diolarik gizateriari beronen ahalmen naturalen eskueran utzi duen egia zatia; *errebelazioa*, berriz, *arrazoi natural hedatua* da, Jainkoagandik bitartekorik gabe datozkigun aurkikuntzen funts berriak hedaturiko arrazoa, alegia, zeinen egiazkotasuna arrazoiak berresten duen, haiek Jainkoagandik datozkigula adierazteko damaizkigun lekukotza eta frogen bitartez. Halako moldez, non errebelazioari leku egiteko arrazoa zokoratzen duenak bata eta bestearen argia itzaltzen duen, eta izar ikustezin batetik datorren argi urruna teleskopioz hobeto ikustearren norbaiti begiak erauzteko gomendatzen saiatzea bezala da.

5. *Irrikitasunaren sorburua.*

Arartegabeko errebelazioa, arrazoinamendu zehatzaren bide luze neketsua eta ez beti emankorra baino askoz bide erosoagoa gertatzen zaielarik gizakiei beren iritziak finkatzeko eta jokabideak arautzeko, ez da mira egitekoa batzuk errebelazio hartzailatzat beren buruak aurkezteko oso prest agertzea eta beren ekintza zein aburuetan —batik bat ezagutzaren ohiko metodoen bidez eta arrazoimenaren printzipioen bitartez ezin justifika ditzaketenetan— zeruko gidaritza aparteko baten babesean zeudela uste izatea. Horregatik ikus dezakegu garai guztietan izan direla gizakiak, malenkoniaz nahasitako debotzioz eta euren buruez zuten aburu onez, beraiek Jainkoarekin gainerako pertsonen baino adiskidetasun hurbilagoa zutela eta haren onginahitik gainerakoak baino hurbilago zeudela sinistea iritsi direnak; eta beraiek jainkotasunarekin harreman zuzenean zeudela eta Jainkoaren Espirituarekin komunikazio sarria zutela uste izatea laketa izan zaie maiz. Ezin da ukatu —aitortzen dut— Jainkoa gai dela adimena argi izpi batez argitzeko, argi ororen iturburutik gogamenara zuzenean igorritako argi izpiz; eta horixe da, hain zuzen ere, haiek berei agindutakotzat dutena, eta, hala izanez gero, nork ukan zezakeen dohain horretarako titulu hoberik Jainkoak bere herri berezi eta menpekotzat aukeratu duena osatzen dutenek baino?

6. *Irrikitasunaren bulkada.*

Haien gogamenak horrela prestaturik daudela, beren irudimenean pausatzen den edozein funsgabeko iritzi Jainkoaren Espirituagandiko argitzapentzat eta aldi berean haren autoritatea duen zertzat hartzen dute; eta jaugin sendo batez bultzatuta egin dezaketen edozein zentzugabeko ekintza dela-eta, zeruak agindutako bulkadatzat eta beraiek nahitaez jarraitu beharrekotzat joko dute; eta goitiko agindua denez, haiek ezin egin hutsik hura burutzean.

7. *Zertan datzan irrikitasuna.*

Nik honela ulertzen dut irrikitasuna bere zentzu hertsian: ez arrazoian ez Jainkoagandiko errebelazioan oinik hartu ez arren, baizik eta burubero eta handinahi baten irudikerietan, haietariko bata zein bestea baino, edo biak batera baino eragin handiagoa duena hala ere, behin erroak emanez gero, gizakien aburu eta jokabideetan; zeren gizakiek joera handia baitute beren baitatik datozkien bihozkaidei jarraitzeko eta men egiteko, eta seguru edozein gizakik jardunen duela irmoago bere pertsona osoa hartzen duen bulkada natural baten eraginpean diharduenean. Izan ere, printzipio berritatzat finkaturiko irudikeria sendo batek hartzen duelarik menpean, erraz eramanen du noranahi berarekin, zeren irudikeria hori, zentzuari gaina hartuta eta arrazoiaren uztarritik zein hausnarketaren mugetatik aske, Jainkoagandiko autoritate mailara igo baita, gure izaera eta joeren laguntzaz.

8. *Irrikitasunak batere ikerketa eta frogarik gabe hartzen ditu ontzat bere ustezko argitzapenak.*

Gizakiak beren aburu eta jokabideetan nahasteko halako eragina duen printzipio horren faltsutasunaz erne ibiltzeko aski izan behar-ko genukeen arren irrikitasunak zein iritzi eta jokabide motatara garatzen kargutzea, hala ere, ezohikoari diogun zaletasunak eta norbere burua inspiratuta eta ezagutzaren bide natural eta ohikoez gainetik sentitzeak halako moldez lausengatzen du gizakiaren nagia, ezjakintasuna eta harrokeria, non, arartegabeko errebelazio moduko honen bidean barna abiatu ondoren —ikerketarik gabeko argitzapen honen eta frogarik gabeko ustezko ziurtasun honen bidean barna—, zaila izaten baita hortik inor ateratzea. Arrazoiak ez du jada gizakiongan eraginik, horiek arrazoiaren gainetik sentitzen baitira: goi-isurizko argia dakusate beren adimenean, eta ezin dute huts egin; hantxe dute beren egia,

eguerdiko eguzkia bezain argia eta ikusgarria; berez adierazten da eta bere nabaritasun horixe du nahikoa frogia; Jainkoaren eskua ikusten dute beren baitan bultzatzaile, eta Espirituaren bulkada sentitzen, eta ezinezkoa dute beren sentipen horietan oker egotea. Halaxe eusten diote beren aburuari, eta seguru daude, egon ere, arrazoinamenduak ez daukala zerikusirik eurek beren baitan ikusten eta sentitzen dutenarekin; zalantzarik onartzen ez duen sentipenezko esperientzia bide dute, ezelako frogaren beharrik ez duena. Ez ote litzateke barregarria berberak bere begien aurrean distiratsu dakusan argiak argi egiten duela frogia dezala eskatzea norbaiti? Argia da bere buruaren frogia eta ez da behar beste frogarik. Espirituak gure gogamenetara halako argia dakarrenean, iluntasunak desagertu egiten dira. Eguerdiko eguzkia bezain argi ikusten dugu orduan, arrazoiaren oskorriak deus erakutsi beharrik gabe. Zerutiko argi hau indartsua, gardena eta garbia duzu zeharo; bere baitan darama bere frogapena, eta orduan eguzkia deskubritzeko ipurtargiaren laguntzaz baliatzea bezain alferrikakoa izanen duzu zeruko izpi hori gure arrazoiaren kandelaz aztertzeari ekitea.

9. Nola jarri agerian irrikitasuna.

Halaxe hitz egiten dizute gizakume horiek: seguru daudelako sentitzen dira seguru, eta euren konbentzimenduak zuzenak dira, beste barik, indartsuak direlako haien baitan. Zeren haiek dioten guztia horrexetara mugatzen baita ikuste eta sentitzetik datozen metaforez biluzi geratzean; baina irudi horiek hain indartsu atxikitzen zaizkie, non beraientzat ziurtasuntzat eta besteentzat frogapentzat balio duten.

10. Ustezko barne argiaren azterketa.

Baina azter dezagun zehaztxoago barne argi hori eta halako eraikin handiaren zimendutzat daukaten sentipen hori. Gizakume horiek —eurek diotenez— argi garden bat dute barnean, eta argi hori ikusi egiten dute; sentipen bizi bat dute, eta sentitu egiten dute; eta hain daude seguru, non dakusaten eta sentitzen duten hori ezin baitzaie eztabaidatu. Izan ere, norbaitek zerbait ikusi edo sentitu egiten duela dioenean, inork ere ezin dio eztabaidatu hori egiten duenik. Baina zilegi bekit galdera hau: zer da ikuspen hori, proposizioaren egiaren pertzepzioa ala hura Jainkoagandiko errebelazioa delako pertzepzioa? Zer da sentipen hori, zerbait egitera bultzatzen gaituen jaugin edo fantasia baten pertzepzioa ala jaugin hori sortarazten dien Jainkoaren Espirituaren pertzepzioa? Horiek, izan ere, bi pertzepzio mota oso des-

berdin dira eta, geure buruari ezarri nahi ez badizkiogu behintzat, arre-
ta handiz bereizi beharrekoak. Baliteke nik proposizio jakin baten egia
hautematea, baina proposizio hori Jainkoagandiko arartegabeko erre-
belazio dela ez hautematea hala ere. Euklidesen proposizio baten egia
hauteman dezaket, baina hura errebelazio —edo nik errebelaziotzat
hautemana— izan gabe horregatio; alta, ezagutza horretara bide natu-
raletik ez naizela iritsi hauteman dezaket —eta, beraz, ezagutza hori
errebelatu egin zaidala-, baina Jainkoagandiko errebelazio dela haute-
man gabe horregatio. Badirelako espirituak, Jainkoagandiko agindurik
hartu gabe ere, ideia horiek niregan sortaraz ditzaketenak eta nire
gogamenaren aurrean halako ordenan jarri, non ideia horien lotura
hautematera irits naitekeen. Beraz, nire gogamenera neronek zelan ez
dakidala iristen zaidan zeinahi proposizio ezagutzeak ez du esan nahi
proposizio hori Jainkoagandik datorkidala hautematea. Are gutxiago,
proposizio hori egiazkoa delako hain konbentzimendu sendoak ez du
esan nahi Jainkoagandik datorkidan pertzepzioa daukadanik, eta
gutxiago oraindik egiazkoa denik. Baina argia eta ikuspena deitzen
dioten arren, nik uste dut sineste eta segurtasunak besterik ez direla,
eta errebelaziotzat hartutako proposizio hori ez da egiazkotzat ezagu-
tzen dutela, baizik eta egiazkotzat jotzen dutela. Zeren eta proposizio
bat egiazkoa dela ezagutzen denean, ez baita behar errebelaziorik; eta
zail da ulertzen ere proposizio bat jadanik ezagutzen duen batek zelan
izan dezakeen horren errebelaziorik. Beraz, haiek uste osoz egiazko-
tzat duten proposizio bat bada, baina hura egiazkoa dela ezagutu gabe,
hori —dena delako izenez deitzen diotela— ez da ikustea, baizik
sinestea. Izan ere, egia gogamenera heltzeko bi bide daude, erabat
ezberdinak eta bata bestetik bereiziak. Dakusadana, gauzaren beraren
nabaritasunetik dazagut hala dela; sinesten dudana, berriz, besteen
lekukotzaren ondorioz sinesten dut horrela dela. Baina lekukotza hori
eman dela ezagutu beharra daukat, bestela zer jarri nire sinestearen
oinarritzat? Hura errebelatzen didana Jainkoa dela ikusi beharra dau-
kat, bestela ez dut ezertxo ere ikusten. Beraz, hona hemen gakoa: nola
ezagutu ahal dut hura errebelatu didana Jainkoa dela, nire gogamene-
an grabaturiko inpresio hori haren Espiritu Santuagandikoa dela eta,
horregatik, obediencia zor diodana? Hori ez badut ezagutzen, dena
delako segurtasunaren jabe naizela ere, oinarririk gabekoa izanen da;
eta nire baitan dudan ustezko argi hori, *irrikitasuna* besterik ez da.
Zeren errebelatu bide zaigun proposizio hori bere baitako nabaritasu-

naz egiazkoa edo nabariro probablea edota ez-ziurra izan, honako proposizio hauxe baita ongi oinarritu behar dena eta egiazkoa dela erakutsi: Jainkoa dela hura errebelatu didana, eta nik errebelaziotzat hartzen dudana Berak jarri didala, ziur, nire gogamenean, eta ez dela bestelako espirituren batek ezarri didan edota neure irudimenetik sortu den irudikeria. Zeren, oker ez banago, pertsona horiek proposizio hura egiazkotzat hartzen badute, Jainkoak errebelatu diela uste dutelako baita. Baina orduan ez ote lukete aztertu beharko zer dela-eta uste duten Jainkoaren errebelazio dela? Osterantzean, euren konfiantza guztia uste hutsa izanen da, eta hainbeste liluratzen dituen argi hori gurpil zoro baten inguruan etengabe darabiltzan *ignis fatuus* besterik ez da izanen, hots: *nik barru-barruti sinesten dudalako da err ebela - zio*, eta *hal a sinesten dute errebelazio delako* .

11. *Irrikitasunak ez du halako proposizioa Jainkoagandik datorren nabaritasunik.*

Jainkoaren errebelazio den orotan ez da behar beste frogarik, dena delako hori Jainkoagandiko inspirazioa dela jakitea baino, zeren Hark ezin baitu inor engainatu ezta inork Hura engainatu ere. Baina nola jakin dezakegu gure gogamenean dugun proposizio jakin bat Jainkoak isuritako egia dela, hau da, Berak errebelatu eta aldarrikatu digun egia dela, eta, beraz, sinetsi beharrekoa? Eta hor ez dauka irrikitasunak, hain zuzen ere, bera daukalakotan dagoen nabaritasuna. Zeren horrelako ustea duten pertsonak harro sentitzen baitira euren esanetan argitasunez betetzen dituen eta halako edo bestelako egiaren ezagutza ematen dien argi hartaz. Baina egia dela baldin badakite, edo arrazoi naturalari berez nabaritzat ageri zaiolako edo hura nabari bihurtzen duten froga arrazionalengatik izan beharko du. Alta, baldin bide horietariko batetik zein bestetik proposizio hura egia dela ikusten eta ezagutzen badute, alferrik errebelazioa dela pentsatzea, zeren hura egia dela ezagutzea beste edozein gizakik gauza bera era naturalez egin ahal duen moduan baitatorkio, errebelazioaren laguntzarik gabe. Izan ere, halaxe barneratzen eta finkatzen baitituzte beren gogamenean egia guztiak halako inspirazio eta argirik jaso ez duten gizakiek. Proposizio jakin bat egiazkotzat hartzea Jainkoak errebelatu dielako dela badiote, ez da berba txarra; baina orduan hauxe da galdetu behar zaiena, ea zelan dakiten hura Jainkoaren errebelazio dela. Bere baitan daraman argiagatik dela erantzuten badute, euren gogamenetan disti-

raz eztanda egin eta jarraitu gabe uzterik ez dagoen argiagatik, zera hausnartzera gonbidatzen ditut: ea baiezen horrek lehenago esandakoari zerbait gehitzen dion, hots, errebelazio izate hori beraiek fermuki egiazkotzat hartzetik ez ote datorkion; eta haiek aipatzen duten argi hori guztia horixe besterik ez izatea: hura egia delako konbentzimendu sendoa, nahiz eta oinarririk gabekoa. Izan ere, hura egiaztat adieraz dezaketen frogetatik eratorritako oinarri arrazionalai dagokienez, halakorik ez dagoela onartu behar dute, zeren bestela ez bailukete hartuko errebelazio moduan, baizik eta gainerako egia hartzen diren ohiko oinarrietatik eratorria bezala; eta hura egiazkotzat hartzea ustez errebelazio izateagatik baldin bada —eta errebelazio dela uste izateko, horretaz erabat konbentzituta egotea beste arrazoirik ez badute—, orduan horrexegatik baino ez dute sinesten errebelazio dela: errebelazio delako sineste sendoa dutelako; eta hori oso pisu eskaseko oinarria da gure iritzien zein jokabideen gidatzat hartzeko. Ba al dago oker eta desbideraketa nabarmenenetara jotzeko bide zuzenagorik, egon ere, gidari goren eta bakartzat irudimena hartzea baino, eta edozein proposizio egiazko dela edota edozein ekintza egokia dela sinestea baino, guk geuk horrela dela uste dugulako bakarrik? Gure konbentzimenduen indarra ez da horien zuzentasunaren inolako nabaritasuna: gauza kurbatuak zuzenak bezain zurrin eta tolesgaitz izan daitezke, eta gizakiak ere neurri berean izan daitezke erabakitsu eta aldagaitz okerkuntzan zein egian. Nondik bestela hain fanatiko murrak sortzea alderdi ezberdin eta aurkarietan? Zeren eta bakoitzak bere gogamenean daukala uste duen argia —zeina kasu honetan bere konbentzimenduaren indarra besterik ez den— Jainkoagandik datorren nabaritasuna baldin bada, iritzi aurkariak inspirazio izatearen titulu bera daukate, eta orduan Jainkoa ez litzateke soilik Argien Aita, baizik baita gizakiak alderantzizko bideetan barna gidatzen dituen argi aurkarien eta kontrajarriena ere; eta horrela, funsgabeko konbentzimenduaren indarrak proposizio jakin bat Jainkoagandik datorren nabaritasuna emanen balu, proposizio kontraesankorrak Jainkoagandiko egia izatea gertatuko litzateke.

12. Konbentzimenduaren tinkotasunak ez du frogatzen proposizio jakin bat Jainkoagandikoa denik.

Hori, konbentzimenduaren tinkotasuna sinestearen kausatzat eta zuzen egotearen ustea egiazkototasunaren argumentutzat hartzen

den biartean, ezin da bestela izan. San Paulok berak ere, kristauak gartsuki jazartzen zituenean, ongi jokatzeko zuela uste zuen, eta horixe egin beharra zeukala, haiek oker zeudela uste zuelako; hala ere, bera izan zen, eta ez besteak, oker zebilena. Zintzoak ere eror daitezke errakuntzan, eta zenbaitetan sutsuki atxikitzen zaizkie beraiek Jainkoaren egiazat dituzten eta beren gogamenetan argitasun handienaz distira egiten duten okerkuntzei.

13. *Zer esan nahi duen gogamenean argia izatea.*

Argia gogamenean, egiazko argia, proposizio jakin baten egia-
ren nabaritasuna besterik ez da, edo besterik ezin da izan; eta berez nabaria den proposizio bat ez baldin bada, duen edo izan dezakeen argi guztia, etorri ere, hura jasotzean oinarritzat izan dituen frogaren argitasunetik eta baliozkotasunetik datorkio. Adimeneko bestelako argiaren batetik hitz egiteak, berriz, ilunbetan murgiltzea edota Ilunbeetako Printzearen botere azpian geure burua jartzea eta geurrean sinestearen engainuan geure onespenez erortzea esan nahi du. Zeren konbentzimenduen indarra bada gidatu behar gaituen argia, esaidazue nola bereizi ahal ditugun Satanen engainuak eta Espiritu Santuaren inspirazioak. Hura argiaren aingeru bilaka daiteke, badakigu. Eta Egunaren Seme hori gidaritzat hartu dutenak erabat pozik sentituko dira haren argitzapenaz, hau da, Jainkoaren Espirituagandiko argitzapena dutela uste izanen dute, argitzapen hori egiazki jaso dutenak bezain irmoki konbentzituta. Argitzapen hori onartu eta hartaz gozatuko dira, eta haren aginduetara jardun; eta inor ere ez duzu aurkituko haiek baino seguruago, haiek baino zuzenago, euren sinestearen sendotasuna hartzen bada neurritzat.

14. *Errebelazioa arrazoitik abiatuz juzgatu behar da.*

Beraz, irudikeria eta okerkuntzaren edozertariko nabarmenkerietara makurtu nahi ez duenak bere baitako argiaren gidaritza hori jarri behar du jokoan. Jainkoak profeta bat sortaraztean ez du gizakia suntsitzen, baizik eta beronen ahalmenak egoera naturalean uzten, bere inspirazioak *Jainkoagandikoak* diren ala ez diren ebazteko gai izan dadin. Gogamena naturaz gaingandiko argiz argitzen duenean, ez du itzaltzen beste argi natural hura. Edozein proposizioaren egiari buruzko baiespena lortu nahi badu guregandik, edo arrazoi naturalaren ohiko bideen bitartez erakusten digu egia hori, edo bere autoritatearen izenean baiespena eman beharreko egiazat ezagutarazten digu, eta

arrazoiak hutsik ez egiteko moduko zenbait zantzuren bidez konbentzitzen gaitu beragandik datorrela. *Arrazoiak behar du izan gure azken epaile eta gure azken gida edozertan*. Honekin ez dut esan nahi arrazoa kontsultatu behar dugula Jainkoak errebelaturiko proposizio bat printzipio naturalen bidez froga daitekeen aztertzeko, eta ezin bada horrela frogatu, hura ezetsi ahal dugula; baina bai diot kontsultatu behar dugula proposizio hori Jainkoaren errebelazio den ala ez aztertzeko. Eta arrazoiak Jainkoaren errebelazioa dela aurkitzen badu, orduan proposizio horren alde aterako da, beste edozein egia kasuan egin ohi duen heinean, eta bere arautzat hartuko. Bestela, gure konbentzimenduen indarra besterik ez badarabilgu horiek juzgatzeko, gure irudimena biziki hunkitzen duen edozein irudikeria har dezakegu inspiraziotzat: arrazoa ez bada proposizioon egia aztertzen ez duena —konbentzimenduez eurez kanpoko medioren baten bidez-, inspirazioak eta irudikeriak, egiak eta faltsutasunak, neurri bera ukamen dute eta ezingo da egin horien arteko bereizketarik.

15. *Sinistea ez da inongo errebelazioaren frog*a.

Barne argi hori, edo horren izenean inspiratutzat hartzen dugun edozein proposizio, arrazoiaren printzipioekin edota errebelazio testifikatua den Jainkoaren hitzarekin bat badator, orduan arrazoa dugu horren berme eta, beraz, argi hori lasai har dezakegu egiazkotzat eta gure sineste eta ekitzen gidatzat. Arau horietariko batetik ere ez badu jasotzen testigantzarik ez nabaritasunik, ezin izanen dugu errebelazioztat hartu, eta are gutxiago egiazkotzat, hura egiazki errebelazio dela bermatzen digun beste zantzuren bat izan arte, gure sinesteaz gain. Horrela, Jainkoagandiko errebelazioz jantzitako santuek kanpoko beste zantzuren bat zutela dakusagu, euren gogameneko barne argi horren segurtasunaz gain, errebelazio hori Jainkoagandik zetorrela bermatzeko. Ez zen geratzen euren konbentzimenduen menpe, beraz, konbentzimenduok Jainkoagandik zetozela ebatzea, baizik eta beste kanpo zantzu batzuk zituzten errebelazio horien Autoreaz konbentzitzeko. Eta beste batzuk konbentzitu beharra zeukatenean, zeruko aginduz zekarten egia justifikatzeko eman zitzaien botere bat eduki ohi zuten, eta mandatuz zekarten mezu horren Jainkoagandiko autoritatea bermatzeko zantzu ikusgarri batzuk. Moisesek sasitza ikusi zuen sutan eta erre gabe, eta sasitik zetorkion ahotsa entzun zuen: bere anai-arrebak Egiptotik atera ahal izateko Faraoiarengana joateko bere

gogamenean bultzada bat sentitzea baino zerbait gehiago zen, beraz; eta hala ere ez zion aski iritzi halako mezuarekin abiatzeko, harik eta Jainkoak, suge bihurtutako makilaren mirakuluaren bidez, bere mandatu testifikatzeko boterea bermatu zion arte, mirakulu hori bere jendearen aurrean errepikatzeko ahalmena eman ez. Aingeru batek bidali zuen Gedeon Israelgo herria madianiten uztarritik askatzera, baina, hala eta guztiz, ezaugarri bat eskatu zuen honek agindua Jainkoagandik zetorkiola ziurtatzeko. Adibide hori eta antzinako profetengan aurki ditzakegun beste antzeko batzuk aski dira honako hau erakusteko: haiek ez ziotela aski nabaritasun irizten beren gogamene-ko edozein barne ikuspen edo konbentzimenduri, beste frogaren bat gabe, mezu hura Jainkoagandikoa zela ikusteko; nahiz eta Eskritura Santuak ez dioskun beti halako frogak galdatu edota jaso zituztenik.

16. *Jainkoagandiko errebelazioaren irizpideak.*

Ez dut nik ukatuko, eta orain arte esandako guztian hortik urrut-iti nago, Jainkoak noizbehinka gizakion gogamenak argi ditzakeela, eta argitzen dituela argitu ere, zenbait egia ulertzera emateko edota Espiritu Santuaren berehalako laguntzaz eta eraginez egintza onetara eramateko, *eragin honen inolako ezaugarri berezirik gabe*. Baina kasu hauetan ere arrazoia daukagu batetik eta Eskritura bestetik, biak ere arau hutsezinak argitzapen horiek Jainkoagandikoak diren ebazteko orduan. Besarkatzen dugun egia Jainkoaren berba idatzian jasotako errebelazioarekin bat datorrenean, edota dena delako egintza arrazoi zuzenak eta eskritura santuek diktatzen dutenarekin bat datorrenean, seguru egon gaitezke ez garela inolako arriskutan hura Jainkoak inspiratutzat hartzean; zeren, nahiz eta hori ere ez izan agian gure gogamenean era ezohikoz diharduen Jainkoagandiko arartegabeko errebelazioa, ziur baikaude Hark egia dela erakusteko egin digun errebelazioak bermaturik dagoela. Baina ez da bakoitzak geure baitan dugun konbentzimenduaren indarra hura zerutiko errebelazioa izatearen bermea damaiguna: hori ezin eman baitiezaguke gugandik kanpo dagoen Jainkoaren berba idatziak edota gainerako gizaki guztiekin amankomunean dugun arrazoibide horrek besterik. Arrazoia edo Eskritura iritzi edo ekintza jakin batekin espreski bat datozenean, Jainkoagandiko autoritatekotzat har dezakegu; baina ez da berez geure baitako konbentzimenduen indarra, inola ere, izaera hori ematen diona. Gure gogamenaren jauginak aldeztu bai egin dezakeela konbentzimendu

hori, eta geuk nahi dugun neurriraino aldeztu ere —geure barrenean oso maite dugun zerbait den seinale izan daiteke, agian—, baina horrek ez du frogatzen, inola ere, zerutiko emaitza dela eta Jainkoagandiko jatorria duela.

XX. KAPITULUA

Okerreko baiespenaz edo errakuntzaz

1. *Errakuntzaren kausak, edo gizakiak nolatan iristen diren probabilitatearen kontrako baiespena ematera.*

Ezagutza egia ageriko eta ziurrei buruzkoa besterik ez denez, *errakuntza* ez da gure ezagutzaren akats bat, baizik eta gure judizioan, baiespena egiazkoa ez den zerbaiti ematen diogunean egiten dugun errakuntza. Baina baiespena egiantzekoan oinarriturik badago, gure baiespenaren objektu propioa eta motiboa probabilitatea baldin bada eta probabilitate hori aurreko kapituluetan azaldutakoan baldin badatza, honako galdera hau sortzen da: *gizakiak zelan iristen dira en probabilitatearen kontrako baiespenak ematera*. Izan ere, ez dago ezer arruntagorik aburuen aurkakotasuna baino, ezta ezer bistakoa-gorik pertsona batak inolako federik ez ematea besteak zalantzatan daukanari eta hirugarren batekitsu-itsuan sinesten duenari. Horren arrazoiak, oso ezberdinak izan daitezkeen arren, lau hauetara laburbil daitezke:

- I. *Frogarik eza.*
- II. *Frogez baliatzeko abileziarik eza.*
- III. *Frogok hautemateko gogorik eza.*
- IV. *Probabilitatearen arau faltsuak.*

2. Errakuntzaren lehen kausa, frogarik eza.

Lehenik, frogarik eza aipatzen dudanean, ez naiz ari soilik inon ere aurkitzen ez diren eta, beraz, inon ezin eskura daitezkeen frogen faltaz, baizik baita nonbait existitzen diren edota eskura zitezkeen frogen faltaz ere. Horrela, proposizioen bat frogatzera eraman ditzaketen esperimentuak eta behaketak beren kabuz egiteko gogorik edo aukerarik ez duten gizakiak froga faltan aurkitzen dira; eta, gauza bera, beste batzuen testigantzak ikertzeko eta jasotzeko aukerarik ez dutenak; eta halakoxea da gizaki gehienek egoera, berauek, lanari erabat emanak eta beren gizarte maila baxuaren esklabo bihurtuak, bizi-bide bila ematen baitute bizitza osoa. Gizakiok ezagutzarako eta ikerketarako dituzten aukerak beren ondasunak bezain eskasak dira; eta euren adimenak oso gutxi landuak, zeren beren urdailen korroak eta umeen negarrak isilarazteko ahaleginetan ematen baitute denbora guztia. Bere bizitza osoan halako lanbide neketsuaren esklabo denari ezin zaio eskatu munduan gertatzen diren gauza anitzez, merkatura joan-etorrian beti bere bide estu eta lokaztutik dabilen zama-zaldiari beronen lurraldeko geografiaz jakin lezakeen baino gehiago. Eta astirik ez daukanak, ez libururik, ez hizkuntzen ezagutzarik, ez jende ezberdinarekin solasean jarduteko betarik, ez du ukanen hori baino aukera gehiago, ez horixe, gizarte ezberdinetan garrantzitsuentzat jotzen diren proposizio asko edo gehienak frogatzeko egun existitzen diren eta beharrezko ditugun testigantzak eta behaketak bildu ahal izateko egoeran aurkitzeko; edota segurtasun oinarri sendoak —berauek gainean eraiki nahi dituen aburuak eraikitzeko beharrezkotzat jotzen den sinestea bezain sendoak— aurkitzeko. Halako moldez, non, mundu honetako gauzen egoera natural eta aldagaitz honetan, eta giza arazoen egituraren beraren kariaz, gizateriaren zati handi bat ezjakintasun gaindiezinean aurkitzen den, halabeharrez, gainerakoek beren aburuak eraiki ohi dituzten eta aburuok oinarritzeko beharrezko diren frogei buruz. Gizaki gehienek nahikoa lan dutenez bizibideak eskuratzeko, beraz, ez dira aurkitzen ikerketa jakintzu eta gaitz horietara dedikatzeke egoeran.

3. *Objekzioa: Zer gertatuko da frogak faltan aurkitzen diren enekin?*

Zer esan horretaz? Ezjakintasun ekidinezin horren menpe egon beharra ote du gizateriaren zati handienak, bizi duen egoerak horretara behartuta, eurentzat hain garrantzi handia duten arazoei buruz?

(zeren normala baita horietaz galdetzea). Kasualitatea eta halabehar itsua ote da gizaki gehienak zorionera edo zorigaiztora daramatzen gida bakarra? Aski nabaritasun eta segurtasun ote dira garaiko irizpideak eta herrialde bakoitzeko gidari baimenduak gizaki bakoitzak bere gurari sakonenak —are gehiago, bere betiko zoriona edo zoritxarra— arriskatzeko? Edota orakulu segur eta hutsezintzat eta egiaren eredu-tzat hartu behar ote ditugu gauza bat Kristandadean eta beste gauza desberdin bat Turkian irakasten dutenak? Edo nekazari txiro bat betierean zoriontsu izanen ote Italian jaio izanaren zorteagatik, edota alogereko bat erremediorik gabe galdua, oster, Ingalaterran jaio izanaren zorigaiztoagatik? Ez dut aztertuko hemen zenbait jende baiezen bata zein bestearen alde lerrokatzeke zein prest dagokeen, baina bai nagoela ziur jendeok proposizio horietariko bata ala bestea hartu beharko dutela egiazkotzat (aukera bezate beraiek gogokoen dutena), edo bestela honako hau onartu: Jainkoak ahalmen aski eman diela gizakiei, alegia, berauek hartu beharko luketen bidean barna gidatzeko, baldin ahalmenok horretarako badarabiltzate seriooki, beren eguneroko zereginak aukera ematen dieten neurrian. Ezen inor ere ez dago bere bizibidearen arduraz hain lanpetuta, non ez daukan bere arimaz pentsatzeko eta erlijioaz ikasteko behar duen astia. Izan ere, jendeak gai horiei gauza askoz ere hutsalagoei ematen dien arreta eskainiko balie, inor ez legoke bizitzako eginbeharrez horren lanpetuta, bere ezagutza mota horretan hobetzeko astialdi anitz ezin aurkitzeraino.

4. *Ikerketarako mugak izatea.*

Ezagutzan aurrera egin eta informazioa eskuratzeko ondasun ezaren traba dutenez gain, badira beste batzuk, ordea, liburuak nahiz egiaren bilaketan zalantzak argitzeko beharrezko diren beste zenbait baliabide lortzeko nahikoa eta sobera ondasun eduki arren, hala euren herrialdeetako legeek, nola halaxe ezjakintasunean iraun dezatela interesatzen zaien zaintza hertsia —ezagutza gehiagok beraengan gutxiago sinestera eramanen ote dituen beldur— katemotzean loturik dauzkatenak. Eta azken hauek, diot, goian aipaturiko laborari gizagai-xoak bezain urruti daude —hauek baino urrutiago oraindik— behar bezalako ikerketak eskatzen duen askatasunetik eta aukeretatik; eta ospetsu eta boteretsuak diruditen arren, pentsamendu hertsira mugaturik daude eta gizakiak beste ezertan baino askeago behar lukeen arloan —bere adimenean— esklabo bihurturik. Halakoxe egoera izan

ohi da egia ezagutzarik gabe hedatzearen zale diren herrialdeetan bizi direnena; leku horietan, bertako erlijiotzat dutena aitorraraztera behartzen da lekuan lekuko jendea, eta zenbait iritzi irenstera, beraz, ezjakinek txarlatanen errezetak erosten dituzten moduan, zelan eginak izan diren eta zer ondorio izan ditzaketen jakin gabe, sendatzeko balio izanzen dutela sinetsi beharra besterik ez daukatelarik. Baina haien kasua beste hauena baino askoz larriago da oraindik, zeren haiek ez baitute askatasunik beharbada bertan behera utziko luketena irensteari uko egiteko, edo beren konfiantza eskaini nahi izanen lioketen osagilea hautatzeko.

5. *Errakuntzar en big arren kausa: frogak erabiltzeko a biletzia - rikeza.*

Bigarrenik, beraz, probabilitatei buruz eskura dituzten na ba - ritasun horiez baliatzeko abileziarik ez duenak daude; beren buruan ondorio zerrenda bat atxikitzen ez dakitenak, ezta aurkako froga eta testigantzen pisua zehazki neurtzen ere, zirkunstantzia bakoitza dago-kion neurrian baloratzuz; horiek, diot, erraz-erraz makur daitezke probable ez diren proposizioei beren baiespena ematera. Batzuk silogismo bakarrekoak dira, beste batzuk bikoak. Beste zenbaitzuek pauso bat gehiago ere eman dezakete, baina horiek ez dituzu kapaz izanzen beti froga sendoenak zein aldetan dauden bereizteko, ezta berez probableena den iritzi bati iraunkorki jarraitzeko. Baina, dena den, nik uste dut bere auzokoekin solasaldiren bat izan duen inork ere ez duela zalantzatan jarriko, nahiz eta batetik Westminster-Hall edo Burtsan eta bestetik ospitale edo babestokietan egon ez, halako desberdintasunak direnik gizakien artean, berauen adimenei dagokienean. Ez da hau leku egokia aztertzeko ea giza endeleguetan dagoen desberdintasun handi hori giza gorputzean bereziki pentsatzeko egokiturik dauden organoen akatsen batek eragina den, edo gaitasun naturalak lantzen dituen ariketa faltaz sorturiko zurruntasun edo atrofiaren batek, edota, zenbaitek uste duenez, gizakien arimen beraien arteko berezko diferentziek; kausa horietarikoren batek edo horiek guztiok batera eragina dateke. Baina gauza bat bai dela bistakoa: gizakion adimenen, pentsaeren eta arrazoimenen artean hain desberdintasun maila handiak direla, non lasai asko esan daitekeen, giza espezieari irainik egin gabe, zenbait gizakiren eta zenbait abereren artean dagoen baino alde handiagoa dagoela, horretan, gizakien euren artean. Baina hori nola

gertatzen den jakitea, ondorio garrantzizkoak izan ditzakeen arren, oraingo gure asmoetarako premiazkoa ez den espekulazio bat besterik ez da.

6. *Errakuntzaren hirugarren kausa, froga horiez baliatzeko borondaterik eza.*

Hirugarrenik, bada beste jende mota bat frogarik gabekoa, baina ez frogok eskueran ez dauzkalako, baizik eta *horietaz baliatze* -*ko gogorik ez duelako*. Hauek, ondasun eta asti nahikoa izan arren, baita gaitasun eta bestelako baliabide aski ere, ez diete baliabideoi probetxurik ateratzen. Plazerrari atxikimendu biziak, euren fortunari begira etengabeko ahaleginak, nagikeria eta arduragabekeria orokorrak, eta liburuei, ikerketari zein gogoetari dioten gorroto bereziak ez diete uzten egiari buruz serioski pentsatzen. Batzuek beldurra ere badiote alderdikierarik gabeko ikerketari, euren aurreiritziei, bizimoduari eta asmoei ondoen doazkien ikuspegieta ez ote diren agian iritsiko, eta pozik geratzen dira batere azterketarik gabe eta beste batzuek diotenari fede emanez komenigarri deritzotena eta modan dagoena jasotzearekin. Horrela, gizaki gehienek, bestelatsu joka zezaketenek ere, ezagutu beharko lituzketen probabilitateez informatu gabe igarotzen dute euren bizitza —eta probabilitateoi baiespen arrazionala ematetik urrun, jakina—, nahiz eta begien aurrean dituzten eta alde horretara so egitea besterik ez luketen behar haietaz konbentzitzeko. Gauza jakina da batzuek nahiago izaten dutela berri txarrak ekar ditzakeen gutuna ez irakurtzea, beste batzuk, berriz, kontuak ez burutzen ahalegintzen dira edota haziendaren egoeraren berri ez jakiten, inoiz jakiterik nahi ez luketena jakitearen beldurragatik. Ezin izanen nuke esan nola daitekeen euren adimenaren hobekuntzarako astia damaian hain errenta oparoak eduki eta ezjakite nagitsu horrekin konformatzea. Dena den, uste dut euren arimaren oso iritzi kaskarra dutela beren sarrera guztiak gorputzaren hornikuntzarako erabiltzen dituztenek, ezagutzarako baliabide eta laguntzatan ezertxo ere inbertitu gabe; beti jantzi garbi eta distiratsuz agertzeko ardura handiak hartzen dituztenak eta tela arrunta edo abrigo zaharra jantzita zoritxarreko sentituko liratekeenak batere arrenurik gabe konformatzen dira, oster, beren gogamena adabakiz eta tarratadaz betetako soineko zarpail tristez estalita erakustez, menturak edota eskualdeko joskileak (solaskide izan dituztenen iritzi arruntez ari naiz) haientzat jositakoez.

Ez dut aipatu nahi hemen zein portaera irrazionala den hori etorkizuneko Estatu batean eta beraiek horretaz leukaketen eginkizunean noizbait pentsatzen dutenentzat —ezein gizaki arrazionalek ere ezin ekin din baitezake horretaz zenbaitetan pentsatzea—; eta ez dut aipatuko, ezta ere, ezagutza horrenbeste gutxiesten dutenentzat zein lotsagarria den eurei interesatzen zaizkien gauzetan ezjakin agertzea. Baina honako honek gutxienez bai mereziko lukeela euren buruak aitonen semetzat dituztenek gogoan hartzea: ospea, begirunea, boterea eta autoritatea jaiotzaz edo fortunaz bereganatua uste badute ere, hori guztia eurak baino maila apalagoko jendearen esku utzi beharra gerta dakiekeela, azken hauek jakituriaz jantziagoak daudelako; ikusten duenak gidatu behar baitu itsua, zuloan jausiko ez bada, eta ez dago adimenarena baino menpekotasun eta esklabotza okerragorik.

Aurreko adibideetan okerreko baiespenaren zenbait kausa azaldu ditugu, eta zergatik gertatu ohi den doktrina probableak berauen probabilitaterako dituzten arrazoienei neurriko baiespenez ez onartzea maiz; orain arte, hala ere, frogak dituzten probabilitateez besterik ez gara mintzatu, nahiz eta errakuntza besarkatzen dutenek frogok hauteman ez.

7. Errakuntzaren laugarren kausa, probabilitate neurri faltsuetatik datorrena.

Laugarrenik, bada oraindik beste jende mota bat, probabilitate errealeak argiro begi-bistan izan arren konbentzitu nahi ez dutenak, ez eta arrazoi nabarienean aurrean amore eman ere, baizik eta baiespena esekita uzten dute ' ' , edota probabilitate gutxienei duen iritziari ematen. Eta arrisku horrexen aurrean aurkitzen dira probabilitate neurri faltsuak onartzen dituztenak, honako hauek, alegia:

- I. *Berez ziur eta na bari barik, zalantzazko eta faltsu diren proposizioak printzipiotzat hartzea.*
- II. *Jasotako hipotesiak.*
- III. *Grina eta joera menperatzaileak.*
- IV. *Autoritatea.*

8. Printzipiotzat hartutako zalantzazko proposizioak.

I. Probabilitate oinarri lehenbiziko eta sendoena zerbaitek gure ezagutzarekin —besarkatu eta *printzipiotzat* hartzen jarraitzen dugun

ezagutzaren zati horrekin bereziki— duen adostasuna izan ohi da. Eta proposizio horiek hain eragin handia dute gure iritzietan, non beraien arabera ebatzen baitugu normalean egia eta neurtzen probabilitatea; halako moldez, non gure printzipioekin bat ez datorrenak hain aukera gutxi izan ohi du probabletzat onar dezagun, posibletzat hartzeko betarik ere ez diogula ematen. Hain begirune handia diegu printzipio-oi eta berauen autoritatea hain da beste edozeinen aldean garaia, ezen ez soilik beste pertsonaren baten testigantzari, baizik baita geure sentimenen euren nabaritasunari ere uko egiten baitiogu, hala finkaturiko arauon kontrako zerbait aldeztara jotzen baldin badute. Hemen ez noa aztertzeraz *sortzetiko printzipioen* dotrinak eta printzipiook ez daukatela frogatu beharrik ez zalantzatan jartzetik uste izateak zeinbestearino eraman gaituen horra. Nik guztiz onartzen dut egia batek ezin diola beste bati kontraesan; baina nago beste hau ere esan beharra daukadala, hots, bakoitzak oso ondo neurtu beharko lukeela printzipiotzat hartzen duena, eta proposizio hori xehetasunik handienaz aztertu beharko lukeela, ea egiazkotasuna bere baitatik datorkiola ziurtasunez eza gutzen ote duen ala egiazkotasun horren segurtasunean sinestea beste norbaitzuen autoritateari fede ematetik ote datorren. Zeren *printzipio okerrak* bereganatu dituenak eta berez argiro egiazkoa ez den edozein iritziren autoritatera itsu-itsuan makurtu, bere bai espina erremediorik gabe irauliko duen albokarga jarri baitu adimenean.

9. *Haurtzaroan irakatsiak.*

Gurasoek, inudeek edo ingurukoek errepikaturiko proposizioak bereganatu ohi dituzte haurrek (batik bat erlijioari buruzkoak), eta proposiziook inolako aurreiritzi ez defentsarik gabeko adimenetan behin sartuz gero, hantxe hartzen dute lekua eta poliki-poliki bertan errotzen irmoki (berdin egiazkoak zein faltsuak izan), eta heziketak zein aztura iraunkorrek hainbestearino finkatzen dituzte, non guztiz ezinezko gertatzen baita handik erauztea. Izan ere, haurrek helduarora iritsi eta beren aburuei buruz hausnar egitean, eta mota horretakoak gogamenean beren oroimenak eurak bezain aspaldikoak direla aurkitzean —ez baitziren jabetu ere egin noiz eta zein medioz sartu zizkieten buruan-, gauza sakratu bailiran begirunea izateko joera dute, ezin dutelarik jasan haiek profanatu, ukitu edo zalantzatan jartzetik. Jainkoak berak zuzenki gogamenean ezarritako Urim eta Thummim bailiran, egia eta faltsutasunari buruz ebazteko erabaki-

tzaile goren eta hutsezinak, eta edozein motatako eztabaidatan epai-
letzat hartu beharrekoak.

10. *Eutsi ezineko eraginkortasunaz.*

Bere printzipioei buruzko iritzi hori (direnak direlakoak izan printzipioak) norbaiten gogamenean horrela finkatu ondoren, erraza da iruditzen nolako harrera aurki desakeen bere autoritatea baliogabetzen duen edo nolabait barne orakulu horien aurkakoa den edozein proposizio, nahi den argien frogatua izan arren; eta bitartean absurduak handienak eta probabilitate txikieneko gauzak irentsiko dizkizute bere printzipio horiekin ondo ezkontzen badira. Munduan diren erlijio ezberdinetan iritzi oso kontrajarriak —eta maiz berdinki absurduak— fermuki sinesten dituztenen artean aurkitu ohi den egosgogorkeria itzelak horixe erakusten du argiro: iritziok, alegia, jasotako printzipio tradizioaletatik abiatuta arrazoitzeko modu horren halabeharrezko ondorio direla. Hainbestearino, non gizakiek nahiago izaten baitute beraiek dakusatenaz mesfidatzea, beren sentimenen nabaritasunari uko egitea eta beren esperientzia bera gezurtzat jotzea, aburu sakratu horiekin bat ez datorren zerbait onartzea baino. Demagun papista zentzudun bat, gogamenean nozioak hartzeko gai izan den lehen unetik hasita printzipio haxe irakatsi zaiona behin eta berriro, hots, elizak (hau da, bere elkartekoek) sinesten duena sinetsi beharra daukala, edota Aita Santua hutsezina dela, eta ez duela entzun ere egin printzipio hori inoiz zalantzatan jarri denik, harik eta, berrogei edo berrogeita hamar urte beteta, bestelako printzipioak dituen batekin topo egin arte. Ikusiko duzue nolatan dagoen guztiz prest *transubstantiazioaren* doktrina eragozpenik gabe onartzeko, ez soilik probabilitate ororen kontra, baizik baita bere sentimenen nabaritasun argiaren kontra ere. Printzipio horrek hain eragin handia du haren gogamenean, non gauza bera haragi eta ogi aldi berean dela sinetsiko dizun. Eta zer bide erabil dezakezu probable ez den iritziren bat daukana bestelakoaz konbentzitzeko, honek bere arrazoibidearen zimentarritzat zera hartzan badu, hots, bere arrazoiari fede eman beharra daukala (ezen halaxe deitzen baitiete, okerki, beren printzipioetatik eratorritako argumentuei) bere sentimenen kontra? Fanatikoren batek bera edo bere irakaslea Espiritu Santuaren arartegabeko komunikazio batez inspiraturik daudela badiotsu, alferrik ibiliko zara doktrina horren kontrako arrazoirik argiaren nabaritasuna ekartzen. Beraz, printzipio

okerrak barneratu dituenen ez zaizu bere horretatik mugituko printzipiookin bat ez datozen gauzetan, nahiz eta probabilitate nabariak eta konbentzigarrienak aurkeztu, harik eta bere buruarekin horren inozo eta txepel izateari utzi eta printzipio horiek guztiak aztertu beharraz konbentzitu arte, askok sekula ere jasan ezin izanen duena.

11. *Jasotako hipotesiak.*

II. Horiez gain, beste hauek ere baditugu: gogamena onartutako hipotesi baten moldera egina dutenak, honen tamainaren arabera doi-doi moldatua. Aurrekoen eta azken hauen arteko aldea honetan datza, alegia: hauek egitatezko arazoak onartzen dituztela, eta horretan bat bat datoz beren aurkariekin, arrazoiak esleitzean eta eragiketa moduak azaltzean desberdintzen direlarik soilik. Hauek ez diete aurrekoek bezalako erronka garbirik egiten beren sentimenei —berauek damaieten informazioa eroan handixeagoz entzuteko gai baitira—, baina inola ere ez dituzte onartuko gauzen azalpenetan luzatzen dizkieten ekarpenak, ezta biderik eman ere gauzak bestela izan daitezkeela —eta ez ezinbestez haiek beren baitan ebatzi duten moduan— konbentzi litzaketen probabilitateei. Jasan ezinezko gertatuko litzaiokie irakasle prestu bati ikasle etorri berriak instant batean bere autoritatea lurjota utziko balio bere hipotesiak errefusatzuz; hogeita hamar, berrogei urtez arrakastari eutsi dion autoritatea esan nahi dut, neke handiz lortutakoa, greko eta latinezko putzu sakonaren gainean eraikia, tradizio orokorrak eta bizar beneragarriak sendotua. Espero al dezake harengandik inork, espero ere, duela hogeita hamar urtetik honantz bere ikasleei irakasten egon den guztia errakuntzak eta hutsak izan direla eta prezio hain altuan saldu diena hitz ustela eta ezjakintasuna besterik ez dela izan aitortzea? Zelako probabilitateak jo daitezke nahikotzat, diot nik, halako kasu batean eragina izateko? Eta nor izanen da, argumenturik egokienaren aurrean ere, bere aspaldiko iritzi guztiak eta bere bizitza osoan zehar lortzea hain lan handia eman dioten ikasketak eta ustezko jakintzak bazterrera utzi eta, iraganeko jakintzez larru gorritan, nozio berrien bideari ekinen diona? Erabil daitekeen ezein argumentuk ere ez du harengan eraginik ukanen, haizeak ere ez duenez lortzen kaparik erauzterik zenbat eta bortitazgo jo orduan eta bere kapa horri tinkoago oratzen dion ibiltariari. Hipotesi okerre sail horretara bil daitezke, baita, egiazko hipotesiak edo printzipio zuzenak izan arren, berauek gaizki ulertzetik datozen errakuntzak ere. Ez dago

hori baino gauza ohikoagorik. Hortxe ditugu, diogunaren froga ukaezin, Eskritura Santuen egia hutsezinetik ateratzen dituzten aburu desberdinen alde borrokan dihardutenen kasuak. Kristau deitutako guztiek onartzen dizute « μ \wedge » dioen testuak obligazio oso garrantzitsu batera deitzen duela, baina frantses besterik ez dakien batek hitz hori modu batera edo bestera ulertzeak jokabide oso okerretara eramanezake, oso desberdina baita *Repentez-vous* (damu zaitezte) edo *Faite pénitence* (egizue penitentzia) itzultzea.

12. Grina eta joera menperatzaileak.

III. Gizakien grina eta joera menperatzaileen aurka doazen probabilitateak ere ukatuak izateko arrisku berean daude. Jar ezazu munduko probabilitaterik handiena diruzale baten arrazoimenaren alde batean, eta dirua beste aldean; erraz aurreikus daiteke norantz makurtuko den balantzaren orratza. Gogamen doilorrek, buztinezko hormek bezala, kainoi boteretsuenei eusten diete; eta agian argumentu argi baten indarrak zenbaitetan zirrararen bat eragin diezaikeen arren, tinko eusten diote, halere, liluratu edo nahasi nahi dituen etsaiari — egiai— pasatzen utzi gabe. Esaiozu gizon maitemindu bati bere amorranteak engainatu egiten duela, aurkez iezaiozu lekuko konpainia oso bat maite duenaren desleialtasuna testigatzeko: egiten dizut apostutu, hamar baten kontra, emakumearen hiru-lau berba atseginek baietz testigantza horiek guztiak baliogabetu. *Quod volumus, facile credimus* (desira duguna erraz sinetsi ohi dugu). Nik uste dut hori denok esperimentatu izan dugula behin baino gehiagotan, eta, nahiz eta gizakiek ezin izaten dioten beti aurka egin beraiek desio luketenaren kontra doan probabilitate nabari baten indarrari, ez dute horregatio amore ematen arrazoibidearen aurrean. Horrek ez du esan gura adimenaren izaera, berez, alde probableenera mukurtzekoa ez denik beti ere; baina, hala eta guzti, gizakiak adimenaren galdekizunak eten eta geldiarazteko boterea dauka, auziak berak eska eta utz dezakeen neurrianoko azterketa erabateko eta osobetea burutzea galaraziz. Baina hori gertatzen ez den bitartean, hortxe ukanen ditugu beti probabilitaterik agerikoenetatik urruntzeko bi ihesbide.

13. Probabilitateei bizkar emateko bi ihesbide. Erabilitako hitzei falazia egozte.

Lehen ihesbidea honako hau da: argumentuak hitzen bidez ematen direnez (halaxe gertatzen da gehienetan), *argumentupean*

falaziaren bat ezkuta daitekeela pentsatzea, eta, ondorioetariko asko agian kateaturik ageri ohi direnez, horietariko baten bat gaizki eratorria izan daitekeela pentsatzea, beraz. Arrazoibide oso gutxi aurkituko duzu hain labur, argi eta kontsistente denik, jende gehienak ez diezaion zalantza hori ezarri, beraien poz eta atseginerako, eta, uste horretatik abiatuz —onestasun edo logika faltarik egotzi ezin zaielarik—, haiei bizkar emateko aitzakia aurki ez dezaten, esaera zaharra ekarriz: *Non persuadebis, etiamsi persuaseris* (nahiz eta ezin dizudan erantzun, ez dut amorerik emanen).

14. *Kontrakoa frogatzeko izan daitezkeen ustezko ar* gumentuak.

Bigarren ihesbidea probabilitate nabarietatik askatu eta baiespena ukatu ahal izateko, aitzakia hau jartzea da: *Oraindik ez dut eza gutzen horren aurka esan daitezkeen guztia*. Eta beraz, garaitua izan naizen arren, ez daukat amorerik eman beharrik, ez baitituzt ezagutzen oraindik erreserban ditudan arrazoi guztiak. Konbentzimenduari aurkatzeko ihesbide hau hain da irekia eta zabala, non zaila baita haute-maten norbait eremu horretatik guztiz kanpo noiz aurkitzen den.

15. *Zeintzuk diren bai espenera berez daramaten pr* obabilitateak.

Baina horrek ere bere mugak ditu, eta, horrela, probabilitatearen eta ez-probabilitatearen maila guztiak arretaz aztertu dituen bat, zertzelada guztiez informatzeko bere esku dagoen guztia egin duena onestasun osoz, eta alde bateko zein besteko arrazoiaren bilana egin duena, ahal da iritsi, gehienetan —gaia bere osotasunean hartuz—, probabilitatea zein aldetan dagoen ezagutzera. Izan ere, arrazoiko gai jakin batzuetan badira zenbait frogak, esperientzia unibertsalean oinarrituriko suposamenduak izateagatik hain argi eta erabakiorrak, baita egitatezko arazoetan ere testigantza batzuk hain unibertsalak, non ezin zaien baiespena ukatu. Honako hau ondoriozta dezakegula uste dut, beraz: ageriko frogak oso garrantzitsuak eduki arren, hitzetan falaziaren bat ezkuta dezaketela susmatzeko nahikoa motibo dagoenean edota frogak batzuk balantza beste aldera makurrarazteko modukoak direnean, proposizio horiei baiespena ematea, geraraztea edo ukatzea nahitako egintzak izan ohi direla maiz. Baina proposiziook oso probable bihurtzeko moduko frogak badituzte eta hitzetan falazia dagoela susmatzeko motibo nahikorik ez badago (gogoeta patxadatsu eta serio baten bidez ondoriozta daitekeena) edota oraindik aurkitu gabeko kontrako frogak daudela pentsatzeko motibo nahikorik ez badago (eta hori ere arazoaren izaerak bera

erakus diezaioke argiro, zenbait kasutan, pertsona arretatsuari), orduan, nik uste, horiek guztiok aintzat hartu dituen batek nekez ukatu ahal izanen dio baiespena probabilitate handiena ageri duen aldeari. Honako hau planteatzen bada probabletzat, kasu, inprenta-ikurren multzo nahas-mahasia halako ordena eta moduz erortzea gerta daitekeela, non paperaren gainean diskurtso koherente bat osa dezakeen, edota atomoen arteko ustekabeko pilatzeak, eragile adimendun batek zuzendu gabe, animali espezieren baten gorputzak era ditzakeela maiz, orduan, kasu horietan eta antzeko beste batzuetan, nik uste dut hori guztia kontuan hartzen duen inork ere ez duela ukanen zalantza espirik zein aldetara makurtu behar duen eta baiespena zeri eman behar dion ebazteko. Azkenez, ikerketa bidez baino ezin frogatu daitezkeen testigantzen kasuan —adibidez, Erroman duela mila eta zazpiehun urte Julio Zesar delako bat bizi izan zela—, egitatezko arazoaren aldeko testigantza bezain sendoa datekeen kontrako testigantzaren bat dagoela suposatze-ko motiborik ez daukagunean (arazoa bere hartan indiferentea delarik eta lekukoaren testigantzaren menpe dagoena erabat), horrelakoetan, esanen nuke ezein gizaki arrazionalak ezin izanen duela ukatu bere baiespena, aitzitik, halako probabilitateei baiezkota eman beharko diela. Hain argiak ez diren beste kasu batzuetan, ordea, nik uste dut gizakia- ren esku dagoela bere baiespena esekitzea eta dauzkan frogekin kontentatzea agian, bere joera edo interesei hobeto doakien iritzia aldeztu badute, eta ikerketari bukaera ematea horrela. Baina benetan deritzot ezinezko —gauza bera aldi berean probable eta ez-probable dela sineste- bezain ezinezko— norbaitek probabilitaterik gutxien ikusten duen alderdirantz jotzea eta horri baiespena ematea.

16. *Noiz dagoen gure esku judizioa esekitzea.*

Ezagutza pertzepzioa baino hautazkoagoa («arbitrary») ez den bezala, uste dut baiespena ere ez daukagula ezagutza baino eskurago. Bi ideia- ren arteko adostasuna gogamen- era aurkeztu- en zaigunean, dela zuzenean edota arrazoimenaren laguntzaz, ezin diot uko egin hura hautemateari, ez eta hura ezagutze- ari itzuri ere, begi aurrean ditudan eta egun argitan begiratzen die- dan objektuak ikusteari ezin itzuri natzaionez; eta azterketa arretatsu baten ondoren probabeentzat jotzen du- danari, ezin nire baiespena ukatu. Hala ere, bi ideia- ren arte- ko adostasuna hauteman ondoren gure ezagutza ekiditerik ez badugu ere, ezta gure baiespena eragozterik ere probabilitatea nabaritasunez

ageri zaigunean —berau neurtzeko erabili dugun guztia behar bezala aintzat hartu ondoren-, bai eragoz ditzakegula, nahita, *gure ezagutza eta gure baiespena, biak, gure ikerketaren aurrerapena g eraraziz*, egiaren baten bilaketan gure ahalmenak erabili gabe uztean. Zeren aukera hori gabe, ezjakina, errakuntza edo desleialtasuna ez bailirateke izanen bekatu ezein kasutan ere. Hortaz, zenbaitetan bai ahal dugula eragotzi edo gerarazi gure baiespena; baina jar al dezake zalantzatan egungo edo antzinateko historian aditua den inork Erroma delako leku bat eta Julio Zesar delako gizon bat existitu zirela? Gainera, milioika egia dituzu pertsona jakin batentzat aparteko interesik ez dutenak edota berak interesgarritzat ez dauzkanak; gure errege Rikardo III.a konkorra zenentz edota Roger Bacon matematikari ala azti zenentz, adibidez. Horrelako eta horren antzeko kasuetan, zentzu bateko zein besteko baiespenak norberaren interesetarako inolako garrantzirik ez duenean —ezein egintza edo asmo ez dagoelako erabaki horren menpe-, ez da harritzekoa gogamenak irizpide arruntari jarraitzea edota lehenik mintzo zaionarenari. Horrelako eta horren antzeko iritzi motek hain pisu eta garrantzi txikia dute, non, eguzki izpitan ikusten diren hautsak bezala, igarri ere ez baita egiten haien norakoa. Hortxe dira, ausaz baleude bezala, eta gogamenak libreki floatatzen uzten die. Ordea, proposizioa beretzat garrantzitsu dela juzgatzten duenean, baiespenak edo baiespen ezak ondorio garrantzitsuak ekar diezazkiola uste duenean, eta, bere ongia edo gaizkia alderdi egokia hautatzearen edo hautatu gabe uztearen menpe dagoela pentsatuz, gogamenak serioski ekiten dionean probabilitatea ikertzeari eta aztertzeari, orduan ez dagoela uste dut gure esku nahi dugun alderdirantz jotzea, bi aukeren artean desberdintasun nabarmenak daudenean. Kasu horretan, nik uste, probabilitate handienak ebatziko du gure baiespena; eta pertsona batek, bi ideien arteko adostasun edo desadostasuna hautematean egiazkoa zein den ezagutzea ezin duenez ekidin, ezin izanen du ekidin, ezta ere, probabilitate handientzat haute-maten duenari baiespena ematea edo egiaztat hartzea. Hori horrela bada, errakuntzaren funtsa probabilitatearen okerreko neurrietan legoke, bizioaren funtsa ongiaren okerreko neurrietan datzan bezala.

17. Autoritatea.

IV. Azpimarratu nahi dudan azken probabilitate neurri okerra, gainerako guztiek batera baino jende gehiagori ezjakinean edo erra-

kuntzan iraunarazten diona, aurreko kapituluan aipatu dudana da, hots, gure baiespena, dela gure lagunengandik edo alderditik, dela gure auzokoengandik edo herrialdetik komunzki jasotako iritziei ematea. Zenbat lagun dagoen bere aburuen oinarri bakartzat lankideen ustezko onestasuna, ikasmaila edo kopurua hartzen duena! Onest eta ikasiek hutsik eginen ez bailuten, edota egia jende kopuruaren botoz erabaki ahal izanen bailitzan; hala ere, irizpide horixe doakie gizaki gehienei. Antzinate beneragarriak onetsi du halako doktrina; niganaino iritsi da aurreko mendeen pasaportearekin, eta, beraz, seguru senti naiteke hura jasotzean; beste batzuek ere onartu dute eta iritzi berekoak dira (horixe baita argumentu bakarra) eta, beraz, arrazoizkoa da norberak ere onartzea. Arau horiei jarraitzeak baino funts gehiago leukake leon ala kastillo-ka erabakitzeak. Edonor erra daiteke, eta askoak dira, beren grina eta interesengatik, horretara jotzeko tentaziopean daudenak uneoro. Bai jende ospetsua eta ikasia baita alderdiburuak mundu honetan eragiten dituen arrazoi sekretu pila ikusi ahal izanen bagenu, zera aurkituko genuke: ez dela izan beti egia bere hargatik maitatzea haiek bereganatu eta defendatzen dituzten doktrinak berrakatu izanaren motiboa. Gauza ziurra da, dena den, ez dagoela funts horietan oinarrituta onar ez daitekeen irizpide absurdurik. Izan ere, ez duzu aurkituko irakasle porrokatuak izan ez duen errakuntzarik, eta batek beti ukanen du non ibilirik, beste batzuek irekitako bideetatik ibiltzearren bide onean dabilela uste baldin badu.

18. *Uste ohi den baino jende gutxiago bizi da errakuntzan.*

Jendearen errakuntzez eta iritziez hainbat auzi-mauzi diren arren munduan, orobat esan behar dut, gizateriari justizia egiteko, *normalean uste ohi den baino jende gutxiago bizi dela errakuntzan eta okerrean*. Ez dut esan nahi egia bereganatu dutela, baizik eta inguruan dituzten doktrina zaratatsuez ez daukatela egiatan inolako iritzirik ez pentsamendurik. Izan ere, baten batek munduan diren sekta gehienetako jarraitzaileak katekizatzeari ekinen balio, hauek hain sutsuki defendatzen dituzten gaiei buruz iritzi propiorik ez dutela aurkituko luke; eta askoz arrazoi gutxiago leukake gai horiek argumentuen azterketa eta itxurazko probabilitateen balorazioa egin ondoren bereganatu dituztela pentsatzeko. Heziketagatik edo interesagatik atxikimendua eman dioten alderdira lotzen dira bete-betean, eta hor erakusten dute beren adorea eta suhartasuna, defenditzen duten kausaren

zergatia aztertzeke ez ezagutzeko betarik inoiz izan ez duten gudarosteko soldadu soilek bezala, buruzagien aginduetara. Gizakiaren bizi-kerak hori adierazten badigu, erlijioak ez diola buruhauste handirik ematen, zer motibo daukagu hari bere elizaren iritziek aparteko burukomina ematen diotela pentsatzeko edota halako edo bestelako doktrinen oinarriak aztetzeko lana hartzen duela uste izateko? Horrelakoak aski du bere buruzagiei obeditzearekin eta bere eskua zein mihia kausa komunaren zerbitzura jartzearekin, gizartean aintzatespena, prebendak edo babesak eman diezaioketenen onarpena lortzeko horrela. Eta halaxe iristen dira gizakiak iritzien jarraitzale eta defendatzaile sutsu izatera, inoiz horien konbentzimendurik ez ikasketarik izan gabe, ezta horiei buruzko ideia nimiñorik ere beren buruetan; eta, ezin esan daitekeen arren munduan benetan diren baino iritzi ez-probable edo oker gutxiago direla, honako hau bai dela gauza ziurra: uste baino gutxiago direla iritzioi beren baiespena benetan damaietenak eta egiazat hartzen dituztenak.

XXI. KAPITULUA

Zientzien banaketaz

1. *Zientziak hiru sailetan bana daitezke.*

Giza adimenaren esparruan sar daitekeen oro, *lehenik*, berez horrela diren gauzen izaera, elkarrekiko harremana eta eragiketa modua denez, edota *bigarrenik*, gizakiak helburu batera —zorionera, bereziki— iristeko eragile arrazional eta boluntario gisa egin behar duena, edota *hirugarrenik*, gauza bata zein bestearen ezagutza erdies-teko eta gainerakoei komunikatzeko bideak zein erak, uste dut zientzia hurrengo hiru sail hauetan bana daitekeela egokiro:

2. *Lehena, Fisika.*

Lehenik, beraz, gauzak beren izatean diren moduan ezagutzea da, haien egitura, propietateak eta eragiketak. Horrekin ez dut esan nahi soilik materia eta gorputza, baizik baita espirituak ere, euren izaerak, egiturak eta eragiketak dituztenak, gorputzak bezalaxe. Hauxe da, hitzaren adiera zabaltxoagoan hartuta, *edo filosofia natu-rala* deitzen diodana. Egia espekulatibo soilu du helburutzat, eta arlo honexetan sartzen da giza gogamena aberas dezakeen oro, Jainkoa bera, aingeruak, espirituak, gorputzak eta berauen atributuak —kopu-rua, irudia, etab.— barne hartzen dituelarik.

3. *Bigarrena, Πρακτικῇ.*

Bigarrenik, *edo* daukagu, gure ahalmenak eta egintzak egokiro aplikatzeko trebetasuna, gauza onak eta baliagarriak lortzera

irits gaitezen. Sail honetako arlo garrantzitsuena *Etika* da, zoriontasu-nera daramaten giza ekintzen arau eta neurrien bilaketa eta berauek praktikan jartzeko bitartekoak. Espekulazio soila eta egiaren ezagutza ez ezik, zuzentasuna eta horri dagokion portaera ditu helburu.

4. *Hirugarrena, Σημειωτική.*

Hirugarrenik, Σημειωτική edo *zeinuen doktrina* dei diezaiokeguna dago, eta hitzak direnez arlo horren ohiko edukia, Logika ()` ere deitzen zaio. Zientzia honen gaia, berriz, gogamenak gauzak ulertzeko eta bere ezagutza hori besteei komunikatzeko erabiltzen dituen zeinuen izaeran sakontzea da. Zeren, gogamenak kontenplazien dituen gauzetarik bat bera ere ez dagoenez adimenean, gogamena bera salbu, beharrezko gertatzen da beste zerbait aurkez dakion hark kontsideratzen duen gauzaren zeinu edo irudikapen gisa: eta zerbait hori *ideiak* dira. Eta gizaki baten pentsamendua osatzen duten ideien eszena hori ezin denez aurkeztu zuzenean beste baten begi aurrean, ez eta hain gordailu segurua ez den oroimenean izan ezik beste inon gorde ere, behar-beharrezkoak ditugu, bai gure pentsamenduak beste batzuei komunikatzeko, baita geure erabilpenerako gordeta kontserbatzeko, gure ideien zeinuak; eta hauetatik gizakiak egokientzat jo dituenak eta, beraz, gehien erabiltzen dituenak *hots artikulatuak* dira. Horregatik, ideiak eta hitzak aztertzeak, ezagutzaren tresna nagusi direnez, garrantzi nahiko handia du giza ezagutza bere osotasunean hartu nahi dutenen ikerketan. Eta agian, ahal denik eta arreta handienaz eta bereiziki aztertuko balira, orain arte izan dugunaren aldean beste logika eta kritika mota bat eskainiko ligukete.

5. *Hauxe da gure adimenaren objektuez lehen banaketa, eta orokorrena.*

Honixe deritzot nik gure adimenaren objektuei buruzko lehen banaketa, orokorrena, eta naturalena. Izan ere, gizakiak ezin baititu bere pentsamenduak beste ezertaz erabili, hiru hauetaz landa: gauzen euren kontenplazioan, egia aurkitzeko; bere esku dauden gauzei buruz —bere egintzak—, dagozkion xedeak erdiesteko; edo kasu batean zein bestean gogamenak erabiltzen dituen zeinuez, eta euron ordenamendu egokiaz, informazio argiagoa eskuratu ahal izateko. Hiru espezie hauek —hots, beren hartan ezagugarri diren *gauzak*; zoriontasuna lortu ahal izateko gure esku dauden egintzak; eta, ezagutza erdietsi ahal izateko, *zeinuen* erabilera zuzena—, *toto coello* desberdinak iza-

nik, adimenaren munduko hiru lurralde nagusiak direla uste dut nik,
elkarrekiko erabat bananduak eta bereiziak.

Aurkibidea

III. LIBURUA. Hitzez

HIRUGAREN LIBURUAREN LABURPENA	8
I. <i>Hitzez edo hizkuntzaz oro har</i>	9
II. <i>Hitzen esanahiaz</i>	13
III. <i>Termino orokorreaz</i>	19
IV. <i>Idea bakunen izenez</i>	33
V. <i>Modu mistoen eta erlazioen izenez</i>	43
VI. <i>Substantzien izenez</i>	55
VII. <i>Partikulez</i>	89
VIII. <i>Termino abstraktu eta konkretuez</i>	93
IX. <i>Hitzen imperfekzioaz</i>	97
X. <i>Hitzen abusuaz</i>	113
XI. <i>Aipatu diren hitzen akats eta abusetarako erabil daitezkeen konponbideez</i>	133

IV. LIBURUA. Ezagutzaz eta probabilitateaz

LAUGARREN LIBURUAREN LABURPENA	150
I. <i>Ezagutzaz oro har</i>	151
II. <i>Gure ezagutzaren mailez</i>	157
III. <i>Giza ezagutzaren hedapenaz</i>	167
IV. <i>Ezagutzaren errealtateaz</i>	191

V. <i>Egiaz oro har</i>	203
VI. <i>Proposizio unibertsalez eta berauen egiaz eta ziurtasunaz</i>	209
VII. <i>Maximez</i>	223
VIII. <i>Azaleko proposizioez («of trifling propositions»)</i>	243
IX. <i>Gure existentziari buruz daukagun ezagutza hirukoitzaz</i>	253
X. <i>Jainko baten existentziari buruz daukagun ezagutza</i>	255
XI. <i>Beste gauzen existentziari buruz daukagun ezagutza</i>	267
XII. <i>Gure ezagutzaren areagotzeaz</i>	277
XIII. <i>Gure ezagutzari buruz gogarpen gehiago</i>	289
XIV. <i>Juzgamenari buruz</i>	293
XV. <i>Probabilitateari buruz</i>	297
XVI. <i>Baiespen mailez</i>	303
XVII. <i>Arrazoimenari buruz</i>	317
XVIII. <i>Fedeaz eta arrazoiaz, eta berauen muga zehatzez</i>	341
XIX. <i>Irrikitasunaz</i>	351
XX. <i>Okerreko baiespenaz edo errakuntzaz</i>	363
XXI. <i>Zientzien banaketaz</i>	379

